

Egunean Eguneko

Ebanjelioa


2017 Urtea

Egunean Eguneko
Ebanjelioa
2017 Urtea

Egutegi liturgikoa
Egunean Eguneko Ebanjelioa
Igande eta Jai-egunetan irakurgai guztiak
Otoitzak eta Debozioak

Egunean eguneko iruzkin laburrak gaztelaniaz:
Darío Molla, S.J.

Testu liturgikoak: Liturgiako ohiko liburuetatik;
batzuk EABtik; itzultzailearen ukitu batzuekin



Debekatua dago, legeak jasotako salbuespenetan izan ezik, lan honen kopiarik egitea, banaketa burutzea, jendaurrean zabaltzea eta aldaketak egitea jabetza intelektualaren titularren baimenik gabe. Aipatu eskubideen urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Zigor Kodea, 270 eta hurrengo artikulua). Erreproduzio Eskubideen Espainiar Elkarte (www.cedro.org) da eskubide horien babesaz arduratzen dena.

Liburu eratu eta euskaratu: Dionisio Amundarain OSB.

Argitalpen honen erantzulea: Koldo Katxo, s.j.

© 2017 Ediciones Mensajero, S.A.U.

Grupo de Comunicación Loyola
Sancho de Azpeitia kalea, 2 zenb.

48014 Bilbo

mensajero@mensajero.com

www.mensajero.com

ISBN:

Lege gordailu:

Maketazioa: Rico Adrados, S.L.

Inprimategia:

Aurkibidea

Egutegia 2017	
Sarrera.....	
Festaburuak eta jai mugikorak 2017an	
Eguneko ebanjelioa eta irakurgaiak:	
Urtarrila.....	
Otsaila / Zezeila.....	
Martxoa / Epaila.....	
Apirila / Jorraila	
Maiatza / Orrila.....	
Ekaina / Bagila	
Uztaila / Garagarrila	
Abuztua / Dagonila.....	
Iraila	
Urria / Urrila.....	
Azaroa / Zemendia	
Abendua	
Otoitzak eta debozioak.....	
Jesusen Lagundiko Egutegi Propioa	

ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK

Irakurle lagunok:

Urte honetarako gaia eta azala aukeratu dugu ERREFUXIATUEN EGOERA. Azken urteotan okerrera egin duen arazoa dugu. Migrazioa beti izan da historian zehar, batez ere egoera ekonomiko larriengatik, baina gaur egun arrazoi politiko, erlijioso eta abarregatik milaka edo milioika dira dena atzean utzita ihes egin behar izaten dutenak. Izugarritzko giza dramak egunero ditugu geure begi aurrean.

Salbazio historia zaharrea ere Israel herriak erbestea ezagutu eta sufritu zuen, guda eta bidegabekeria nagusitu zitzaizkielarik. Erbestean ere Jainkoak eutsi zion herria laguntzeari eta itxaropena sortzeari. Mateoren ebanjelioak ere Josek eta Mariak Egiptora ihes egin behar izan zutela kontatzen digu, Jesus haurra babesteko, Herodes errege maltzurak hura hil nahian zebilelako.

XX. mendeko bigarren erdian Bilboko seme eta munduko seme izan zen Aita Arrupe ekarri nahi dugu hona. Iazko otsailaren 5ean bete ziren 25 urte Erroman hil zela, aldi bat gaixo egin ondoren. 1979. urtean milaka errefuxiatu vietnamdarrek ihesari ekin zion, "Boat people" deituriko txalupa entzutetsuetan. Kezka sakona zemaion arazo horrek Pedro Arruperi eta, jesuiten nazioarteko garaiko hedadura kontuan izanik, zirtu eta irmo erabaki zuen deialdi zabala egitea Jesusen Lagundiari. Horrek 1980ko azaroaren 14an Jesuit Refugee Service (JRS edo SJR: Errefuxiatuentzako Jesuita Zerbitzua) sortzea ekarri zuen, beste zenbait lagunarte erlijioso eta laikorekin elkarlanean. Filipinak eta Tailandia bisitatu zituen. Itzulterakoan, jada Erromako aireportuan zela, tronbosiak jota ospita-

leratu behar izan zuten. Harrez gero, Lagundia kudeatzeko ezgai geratu zen Arrupe. Beraz, bere azken ekintza garrantzitsua Aita Nagusi bezala errefuxiatuen aldeko erakunde baliogarri hori sortzea izan zuen.

Azalean Frantzisko aita santua ipini nahi izan dugu, errefuxiatuen aldeko kezka eta konpromiso sendoa erakusten eta suspertzen ari delako Europa zahar eta itxi honetan. Behin eta berriz salatzen ari da egitura okerrekin eta bidegabeekin eragiten dutela gaitz sozial erraldoi hori. Baina denoi, estatu, eliza, gizabanako edo erakunderi erantzun solidarioa eskatzen zaigu. Nola eta zer egin? Hau esaten du:

AURKITU: edozein erlijiotan edota erlijioz kanpo, laguntzeko prest dauden borondate oneko pertsonak bilatu eta aurkitu.

ZERBITZATU, LAGUNDU ETA DEFENDITZEKO solidario egin eta ahulenen alde jarri, errefuxiatuen eskubideak bermatzeko, harrera beroa eginez.

Hori guztia aurrera eramaten laguntzeko duzu esku arteko liburuxko eder hau. Bene-benetan nahi genuke Jainkoaren hitza eta Darío Mollá jesulagunaren iruzkinak jakingarriak eta motibagarriak izan ditzazun zeure ibilbide pertsonalean.

Darío (Alcoy, 1949) hezitzaile izan da hezkuntza zentro diferentetan, ez-formaletan eta klasikoetan; jesuita gazteen formazioa ere izan da. Azken urteotan migrazio eta espiritualtasun arloetan lan egiten du.

Ez dugu bukatu nahi sarrera luzetxo hau, eskerrik beroenak eman gabe Dionisio Amundarain euskaltzale aspergabe eta langile amorratuari, Jainkoaren hitza zabal dadin euskaldunen artean.

Besterik gabe, jakin ezazue zuengandiko iritziak eta hobekuntzak hartzeko beso zabalik gaudela. Aurten ere saiatuko gara liburu hau eskegiten Deustuko Unibertsitateko web orrian: www.deusto.es/cs/Satellite/estudiantes/es/egunean-eguneko-ebanjelioa

Izan ondo!


Koldo Katxo, s.j.

FESTABURU ETA JAI MUGIKORRAK 2017an

Jaunaren Bataioa	urtarrilaren 8a
Hausterre	martxoaren 1a
Jaunaren Piztuera Igandea	apirilaren 16a
Mendekoste igandea	ekainaren 4a
Jesu Kristo betiereko apaiz nagusia	maiatzaren 8a
Hirutasun guztiz Santua	ekainaren 11a
Corpus Christi	ekainaren 18a
Jesusen Bihotz guztiz Santua	ekainaren 23a
Jesu Kristo Jauna, diren guztien Erregea	azaroaren 26a
Abendualdiko 1. igandea	abenduaren 3a
Familia Santua	abenduaren 31a

OSPATZEKO JAI NAGUSIAK 2017AN

Andre Maria Jainkoaren Ama	urtarrilaren 1a
Jaunaren Epifania	urtarrilaren 6a
San Jose, Andre Mariaren senarra	martxoaren 19a
San Prudentzio Armentiakoa (Araba)	apirilaren 28a
Santiago apostolua	uztailaren 25a
San Ignazio Loiolakoa (Bizkaia eta Gipuzkoa)	uztailaren 31a
Andre Mariaren Jasokundea	abuztuaren 15a
Santu Guztiak	arazoaren 1a
Andre Maria Sortzez Garbia	abenduaren 8a
Jaunaren Jaiotza (Eguberri)	abenduaren 25a



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Erlijioen arteko elkarrizketa.

Erlijio desberdinetako gizon-emakumeen elkarrizketak sor ditzala bake eta zuzentasun-fruituak.

Ebanjelizazioaren alde: Kristauen batasuna.

Elkarrizketa eta anai-arreba arteko maitasuna dela medio, Espiritu Santuaren graziarekin, gainditu ditzagula kristauen arteko zatiketak.

Eguberrialdia. Igandea / Domeka.
JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA.
Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna.

§ Zenbakiak liburutik 6,22-27.

Jauna honela mintzatu zitzaion Moisesi: «Hitz egiezu Aaroni eta haren semeei, eta esan: Honela bedeinkatuko dituzue israeldarrak: "Bedeinka zaitzala Jaunak, eta zaindu. Ager diezazula Jaunak bere aurpegi argia, eta erruki dadila zutaz. Ager diezazula Jaunak bere aurpegia, eta eman bere bakea". Honela aipatuko dute nire izena israeldarren gainean, eta nik bedeinkatuko ditut».

[Sal 66: Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala.]

§ San Paulo galaziarrei 4,4-7.

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jainkoak, emakumeagandik jaioa, Legepeko egina, Legepean zeudenak erostera, guk seme-alabatzakoa har genezan. Eta seme-alaba zaretelako, bere semearen Espiritua bidali du Jainkoak zuen bihotzera, «Abba! Aita!» deika ari dena. Beraz, gehiago ez zarete morroi-neskame, seme-alaba baizik; eta seme-alaba bazarete baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,16-21.

Aldi hartan, artzainak lasterka joan ziren, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose, eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakinarazi zuten, haur hartaz esan zitzaiena. Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza hauek guztiak, bere bihotzean hausnartuz. Eta artzainak Jainkoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, entzun eta ikusi zutenagatik. Haurra erdaintzeko zor-

tziurrena bete zenean, Jesus ezarri zioten izena, sabelean sortu baino lehenago aingeruak esan zuten izena bera.

Jainkoaren bedeinkazioa entzunez hasten dugu urtea. «Desira on» bartzuk baino zerbait gehiago da bedeinkazio hori: bedeinkazio zehatz bat da, egunez egun errepikatua, belaunez belaun esana. Eta Jesusengan bete-betean «haragitua»; «haren bidez bedeinkatu baikaitu Jainkoak bedeinkazio-mota guztiez» (Efesoarrei 1,3).

Pertsona batzuen bidez iritsi ohi da Jainkoaren bedeinkazioa mundu mindu honetara. Pertsona jakin batzuen bidez, ezagutzen edota bizikide dituztenentzat benetako bedeinkazio direnen bidez: pertsona bake-eroale, gupida-eroale, Jainkoaren maitasun-eroale.

Urtearen lehen eguneko ebanjelioak pertsona horietako hiru kontenplatzera gonbidatzen gaitu; haragi egindako Jainkoaren bedeinkazio dira: Jesus (izena salbazio da), Maria (Jainkoaren Ama santua), Jose protagonista isila. Kontenpla ditzagun, bai, hiru pertsona horiek, geure ameskeriek gal ez gaitzaten: hiru pertsona pobre dira, aska baten inguruan, Tenplura sartzea oharkabean egin dutenak. Jainkoaren bedeinkazioa ekarri ohi digute pobreek.

[1. Joan 2,22-28: Bego zuengan, hasieratik entzun duzuen. Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik **1,19-28.**

Hau da Joaneke egin zuen aitormena, juduek Jerusalemdik apaizak eta levitarrek «Nor zara zu?» galdetzeraz bidali zizkiotenean. Joaneke garbi aitortu zuen: «ni ez naiz Mesias». Haiek, orduan: «Zer, bada? Elias al zara?» Eta hark: «Ez». Haiek esan zioten: «Zein zara, beraz, bidali gaituztenei erantzuna eman diezaiegun? Zer diozu zeure buruaz?» Hark, orduan: «ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: "Zuzendu Jaunaren bidea", Isaias profetak esan zuen bezala». Bidalitako haietan batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara, ez Mesias, ez Elias, ez Profeta?» Joaneke, orduan: «nik urez bataiatzen dut. Zuen artean bada norbait, zuek ezagutzen ez duzuen; nire ondoren dator, ni baino lehenagotik da, eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere». Hori guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiaz beste aldean; han ari baitzen Joan bataiatzen.

Abendualdiko irudietako bat izan ondoren, berriro dator lehen mailara Joan Bataiatzailea. Boteretsuek agiriak eskatu dizkiote: «nor zarela uste duzu?» «Agintari onek» aurpegira bota diote bataiatzen eta barkatzen jardutea: «guri kostatzen zaigunarekin on izatea!» Apala eta adoretsua da Bataiatzailea: apala, nor den dakiena; adoretsua, bere misioa bertan behera utziko ez duena. Ebanjelizatzaile baten argazki ona: apaltasuna adorerik gabe herabetasuna da; adorea apaltasunik gabe ausarkeria da edota harrokeria.

[EGUNEKOA: 1. Joan 2,29–3,6: Harengan dagoenak ez du be-katurik egiten. **Sal 97:** Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik **1,29-34.**

Hurrengo egunean, ikusi zuen Joanek Jesus beregana etor-tzen, eta esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Honentzat esan nuen nik: “nire ondoren dator / niri aurrea hartu didana, / ni baino lehe-nagotik baitzen”. nik ez nuen ezagutzen; baina hura Israeli ager zekion etorri nintzen ni, urez bataiatzen». Eta aitormen hau egin zuen Joanek: «Espiritua ikusi dut usoa bezala zerutik jaisten, eta haren gainean jartzen. Nik ez nuen ezagutzen; baina urez bataia-tzera bidali ninduenak berak esan zidan: “Espiritua jaisten eta gainean jartzen zaiola ikusten duzuna, hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”. Bai, nik ikusi dut, eta aitortu ere aitortzen dut: Hau dela Jainkoaren Semea».

Beste behin, txunditu egiten zaitu Joan Bataiatzailearen jatorta-sunak eta egitasunak: bi aldiz esan du: «ez nuen ezagutzen»; ez du bizkorrarena egin nahi, ez dio bere buruari merezimendurik ego-tzi nahi: «ez nizuen, ba, nik esaten...?» Eta hona nola sumatu duen Jainkoaren Bildotsa Jesusengan: Espirituari entzuten diolako, eta ez ageriko itxuragatik. Jesus ez zaio agertu Joani beste itxura batean, ba-samortuko Profetari entzutera hurbiltzen zitzaizkion beste pertsonak ez bezalakoan. Soilik, Espirituari eskainitako arretak, barnez entzuten jakiteak, bereizketa egiteko gai izateak emango digute Jainkoa aurki-

tzeko bidea, espero ez genuen pertsona batengan eta tokian.

[JESUITEN FESTABURUA]

§ Ben Sirak-en liburutik 51,8-15.

Orduan, zure errukiaz oroitu nintzen, Jauna,
eta zuk gure alde betidanik egindakoaz:
onik ateratzen dituzula zuregan itxaroten dutenak
eta gaiztoen eskuetatik libratzen.

Lurretik neure erregua bidali nuen zugaraino
eta otoitz egin heriotzatik aske gelditzeko.

Honela egin nizun dei:

«Jauna, neure aita zaitut!

Ez baztertu ni atsekabe-aldian,
harroputzak nagusitzean, laguntzarik ez dagoenean.

Etengabe goretsiko zaitut,
esker onez kantatuko».

Zuk entzun egin zenuen nire otoitza,
heriotzatik salbatu

eta txarraldi honetatik atera.

Horregatik eman nahi dizkizut eskerrak,
eta zu goretsi eta bedeinkatu, Jauna.

Oraindik gazte nintzelarik,
bidaiatzen hasi aurretik,

bete-bete bilatu nuen jakinduria neure otoitzean.

Tenplu aurrean otoitz egin nuen hori lortzeko,
eta neure bizitzaren azkeneraino bilatuko dut.

Loratu zenean, hartaz poztu zen nire bihotza,
helden ari den mahats-mordoaz bezala.

Bide zuzenetik ibili dira nire oinak,
jakinduriaren arrastoari gaztarotik jarraituz.

[Sal 8: Jauna, gure Jainkoa, bai miresgarria zure izena lur osoan.]

§ San Paulo filipoarrei 2,1-11.

Beraz, egia bada Kristok aholku ematen dizuela eta maitasunak adorez betetzen zaituztela, egia bada Espirituagan bat eginik bizi zaretela eta bihozbera eta gupidatsu zaretela, bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. Ez egin deus ere norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, besteak norbera baino hobekak direla pentsatuz; ez nork bere onari bakarrik begiratzuz, baizik besteena ere bilatuz. Izan itzazue zeuen artean Kristo Jesussek izan zituen sentipen berak.

Kristo Jesussek, jainkozko izaerako izanik ez zion gogor eutsi nahi izan jainkozko bere mailari; bestela baizik, hustu egin zen bere handi izateaz eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez.

Gizaki huts bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, heriotzaraino menpeko eginez, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gaintik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez, zeruan, lurlean eta lur azpian, guztien belaunak makur daitezen eta mihi orok aitoren dezan Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,21-24.

Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, Jesus izena ezarri zioten, sortu aurretik aingerruak esan bezala. Moisesen legean agindutako garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaizenean, gurasoek Jesus Jerusalemera eramane zuten Jaunari aurkezteko. Izan ere, hau agintzen du Jaunaren legeak: *Lehen-seme guztiak Jaunari sagaratuko zaizkio*. Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini zuten: *bi usapal edo bi usakume*.

Jesus izena ez da Mariak edo Josek hautatu duen izen bat. Jainkoak berak ezarria da, Gizakundearen uneari berari lotua. San Ignazioentzat ere izen eztabidaezina zen Jesusen Lagundia izena, negoziataezina. Zergatik? Gaurko irakurgaiak gidatuko gaituzte galdera honekiko erantzun bila

Ben Sirak-en irakurgaiak idazle sakratuaren esker ona adierazten du, salbatu duenari eskainia, beraren bizitzan erabakitzailea izan denari: «hondamenditik salbatu ninduzun... horregatik bedeinkatuko dut Jaunaren izena». San Ignaziok Lagundiarentzat nahi duen Jesusen izena ere esker onaren adierazpen da: bai bere ibilbide pertsonala eta bai Lagundiarena bera ere Jainkoaren dohain huts izan diren adierazpen; ezin utzia gogortu gabe eta eskertu gabe.

Eta Filipinoarrei egindako gutunaren zatiak ondo argitzen du zer esan nahi duen San Ignazioentzat «Jesusen izenaren aurrean belauna kakotzeak». Ez luke izan behar errituzko keinu hutsa, ezta edukirik gabe azaleko jarrerara hutsa ere, baizik eta Jesus dudaezineko Jauntzat aitortzea, Jesusen jarrera geure jarrera egitea eta haren buru-eskaintza geure bizitzaren zeruertz bihurtzea.

[1. Joan 3, 7-10: Jainkoagandik jaio denak ez du bekaturik egi-
ten. Sal 97: Kantu berria munduaren erregeari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 35-42.

Aldi hartan, han zegoen Joan, bere ikasleetako birekin. Eta Jesus han zebilela ikusirik, esan zien: «Horra hor Jainkoaren Bil-dotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus haiengana eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zer za-biltzate?» Eta haiek erantzun: «Rabbi –hau da: Maisu– non bizi zara?» Jesusek erantzun: «Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, beraz, eta ikusi zuten non bizi zen, eta egun hartan harekin gелdi- tu ziren. Arratsaldeko laurak inguru ziren. Joani entzunda, Jesu- si jarraitu zioten haietako bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Honek Simon, bere anaia, aurkitu zuen lehenengo eta esan zion: «Mesias aurkitu dugu» –hau da: Kristo. Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begiratu, esan zion: «Simon zara zu, Joanen se- mea. “Kefas” izango da zure izena –hau da: Harria».

Lehen ikasleen bokazioaz Joaneke dakarren kontakizun honetan asko dira xehetasun deigarriak. Errepara diezaiozun bati bakarrik, Jesusen erantzunari: «Etorri eta ikusiko duzue»; lehenik, etorri; gero, ikusiko duzue. Gure logikak beste erantzun bat eskatuko luke: «he- men edo han bizi naiz; nahi baduzue, lekua konbentzigarri baduzue edota gustukoa baduzue, etorri»: lehenik ikusi eta ondoren joan. Je- susek eskatzen diena / diguna, beragan konfiantza izatea da, baina ez segurtasuna, ezta onespena ere egin beharreko bidez: «Erreparatu niri, etorri eta ikusiko duzue».

[1. Joan 3,11-21: Guk honetatik dakigu heriotzatik bizira aldatu garela: senideak maite ditugulako. **Sal 99:** Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,43-51.**

Aldi hartan, Jesusek Galilea aldera joan nahi zuen. Felipe aurkitu, eta esan zion: «Jarraitu niri». Felipe betsaidarra zen, Andresen eta Pedroren herrikoa. Felipek Natanael aurkitu eta esan zion: «Moisesek Legean eta Profetek aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserren semea, nazaretarra». Natanaelek erantzun: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?» Eta Felipek: «Zatoz eta ikus». Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zion: «Hona hemen egiazko israel-darra, azpikeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zeundela, ikusi zintudan». Natanaelek erantzun: «Rabbi, Jainkoaren Semea zara zu; Israelgo Erregea zara zu». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako sinesten al duzu? Hori baino handiagorik ikusiko duzu». Eta esan zion gainera: «Hara nik egia esan: Zerua zabalik ikusiko duzue, eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera, Gizonaren Semearen gainean».

Felipek egin duen bokazio-sustapena gauzarik sinpleena da: «Aurkitu dugu». Hori baino gauza lauagorik, sinpleagorik?, eta hori baino gauza pertsonalagorik?... Ez du saltzen, ez eskaintzen ez dagoenik, egia dio, egia hori Bartolomeri ezin sinetsia gertatu bazaio ere: «Jesus, Joserren semea, Nazaretetarra». «Nazaretetarra?, ezin...», esan dio Bartolomek. Testigantza pertsonala konbentzimenduz: «Aurkitu dugu»: hori da gure egitekoa. Gainerakoa berari dagokio, Jesusi. Bartolomek bezain sakon ezagutzen du hark jendea.

§ Isaias 60,1-6.

Jaiki zaitez, argitu, Jerusalem, badator zure argia, zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, lainoak estalirik dauka lurra, eta ilunak inguraturik dauzka herriak. Zure gainean, ordea, Jauna jaikiko da, eta haren aintza agertuko zure gainean. Zure argira etorriko dira herriak, zure egunsentira erregeak. Jaso itzazu begiak zeure inguruan, eta ikus: horiek guztiak elkartu dira eta zugana datoz; zure semeak urrutitik datoz, besoetan dakartzate zure alabak. Hori ikustean gainezka poztuko zara, harrituko zaizu bihotza eta zabalduko, itsasoko aberastasunak zugana etorriko baitira, eta atzerrietako ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu-taldeek estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intsentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotela.

[Sal 71: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, atzerri guztiek.]

§ San Paulok efesoarrei 3,2-6.

Senideok: Entzunik duzue, Jainkoaren grazia zuen artean zabalteko eginkizuna eman zaidala. Goi-agerpenez ezagutarazi baitzait niri Kristoren misterioa: lehengo denboretan gizakiei jakinarazi ez zitzaion misterioa, orain Espirituaren bitartez haren apostolu santuei eta profetei agertua izan zaien bezala: alegia, Jesu Kristorengan ondare berean kide direla atzerritarrak ere, berri onaren bidez: gorputz beraren atal eta agintzari beraren oinorde-kide.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,1-12.

Herodes erregearen egunetan jaio zen Jesus Judako Betleem. Eta orduan Mago batzuk etorri ziren sortaldetik Jerusalemara,

galdezka: «Non da jaioberri den juduen erregea? Haren izarra ikusi dugu sortaldean eta hemen gatoz bera gurtzera». Hori entzunik, larritu zen Herodes, eta Jerusalem guztia, harekin batean. Eta apaiz nagusiak eta idazlariak bildu, eta Kristo non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiek erantzun: «Judako Betleemen. Horrela dauka profetak idatzirik: "Eta zu, Betleem, Judako bazter hori, ez zara inolaz ere, Judako herri nagusietan txikiena, zugandik aterako baita agintari bat, eta nire herri Israelen artzain izango da"». Orduan Herodesek Mago haiei isilka dei egin zien, izarra noiz agertu zitzaaien jakiteko ahal bezain ondo; eta Betleemera bidali zituen, esanez: «Zoazte, eta jakin arduraz haurraren berri, eta, aurkituko duzue, esadazue niri, neuk ere joanda gurtu dezadan». Haiek, erregeari entzun ondoren, joan ziren. Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri zitzaien, haurra zegoen lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusita, berealdiko poza hartu zuten. Eta, etxean sarturik, haurra aurkitu zuten, Maria bere amarekin; eta, ahuspez jarririk, gurtu zuten. Eta, beren kutxak irekita, erregaliak eman zizkieten: urrea, intsentua eta mirra. Eta Herodesengana ez itzultzeko albistea ametsetan harturik, beste bide batetik joan ziren beren lurraldera.

Hitzaurrekoak handiosak dira: argi distiratu bat, Jerusalemera hurbiltzen diren urruneko herriak, ezin konta ahala aberastasun eta mota guztietakoak... Profezia ikusgarri bat... Misterio bat, herri guztiei irekia, manifestazio unibertsal bat... Eta Ekialdeko magoak Jerusalemen ate handitik sartzen: juduen erregeaz galdezka, horrelako seinaleek ezin baitute iragarri errege bat baizik. Eta Herodes, bere jauregira dei egin die-na...

Baina, bat-batean, dena aldatu da. Izarra «haurra zegoen gainean gelditu zen»... «Haurra» bakarrik: ebanjelariak ez du esaten haren izena ere, soilik Maria haren amarena. Eta Ekialdeko magoak agertu dira, azkenean, belauniko haur pobre bat adoratzeko, familia pobre, anonimo baten semea... Eta konfiantza izan dute magoek beren itxaropenei uko egin eta haur hori adoratzeko, eta beren herrira beste bide batetik itzultzeko, bai, eta segur aski beste era batean... Jainkoaren bila ibiltzeak... Eta gu?

[1 Joan 3,22—4,6: Azter ezazue Jainkoagandik ote diren espiritu horiek. **Sal 2:** Atzerriak emango dizkizut nik ondare.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,12-17.23-25.

Joan bahitu zutela jakin zuenean, Jesus Galileara baztertu zen. Nazaret utzirik, itsas bazterreko Kafarnaumera joan zen bizitzera, Zabulonen eta Neftaliren mugetara. Horrela bete zen Isaias profetak esana: «Zabulonen lurraldea, Neftaliren lurraldea, itsas bidea, Jordanen beste aldean, atzeritarren Galilea. Ilunpean zebilen herriak argi handi bat ikusi zuen; herio-itzalpeko lurraldean zeudenei, argi bat agertu zitzaien». Orduan hasi zen Jesus hots egiten eta esaten: «Bihotz-berri zaitetzte, hurbil da-eta zeruetako erreinua». Jesus Galilea osoan barna ibili ohi zen, haien sinagogetan irakasten, erreinuko berri ona hots egiten, eta gaitz eta min guztiak sendatzen herrian. Siria guztian zabaldu zen haren izena, eta gaixoak ekartzen zizkioten, edozein gaitzek eta oinazek joak: deabrudun, epileptiko eta perlesiadun. Eta sendatu egiten zituen. Eta Galilea, Dekapolis, Jerusalem, Judea eta Jordanez beste aldetik etorritako jendetza handiak jarraitzen zion.

«... **d** eabruak hartuak, epileptikoak eta elbarriak. Jesusek sendatzen zituen...». Jainkoaren Erregetza hurbil dela agertzen dute giza sufrimendua arindua izateak, bizitza berregina izateak, narrastua den bizitza berreskuratua izateak... Hori da esperantzari zirriztu bat irekitzen dion argia. Konbertitzea esperantzara itzultzean datza, ustea galdu ondoren, desengainua edo fede-gabezia bizi ondoren. «Ilunpean bizi den herriak» (hainbat eta hainbat jendeak gaur egungo munduan!) behar dituen berri ona eta argia ez dira hitz gozo eta politikak bakarrik, baizik konpromiso eginkorra giza sufrimena eragiten duen orenen kontra..

Jaunaren Bataioa.

Igandea / Domeka.

San Apolinar, *gotzaina*.San Teofilo, *diakonoa*.San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*.

§ Isaias 42,1-4.6-7.

Honela mintzo da Jauna: «Hona nik eusten diodan nire zerbitzaria, atsegin zaidan nire aukeratua. Honengan ipini dut neure espiritua: berak ekarriko die zuzenbidea atzerriei. Ez da deiadarka ariko, ez du oihuka hitz egingo, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Kanabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi pitzua dagoen metxa ez du itzaliko. Zuzenbidea ekarriko du; ez du etsiko, ez da hautsiko, zuzenbidea lurrean ezarri arte, uharteek itxaron duten haren legea jarri arte. Nik, Jaunak, zuzentasunez dei egin dizut, eskutik hartu zaitut; herri baten itun izateko, atzerrien argi izateko aukeratu zaitut, itsuen begiak zabal ditzazun, giltzapetuak espe-tetik atera, eta kartzelako ilunpean daudenak aska ditzazun».

[Sal 28: Bere herria bedeinkatuko du bake emanez Jaunak.]

§ Apostoluen Eginak 10,34-38.

Egun haietan, Pedrok esan zuen: «Garbi ikusten ari naiz, Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela, haren beldur dena eta zuzen dabilena, edozein herritakoa dela ere. Berak bidali zien Israelgo seme-alabei bere hitza, eta guztiei eman zien Jauna den Jesu Kristok ekarriko zuen bakearen Berri Ona. Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek erakutsitako bataioren ondoren: Nazaretoko Jesusena, alegia, Jainkoak Espiritu Santuaren indarrez gantzutua, eta on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zena: Jainkoa harekin baitzegoen.

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Mateoren liburutik 3,13-17.

Jesus Galileatik Jordanera etorri zen, Joanengana, honek bataia zezan. Joanez ez zion utzi nahi eta esan zion:

–Neu naiz zuk bataiatu beharrekoa, eta zu zatoz niregana?

Baina Jesusek erantzun zion:

–Uztazu orain, honela bete behar baitugu osoki Jainkoaren nahia.

Orduan, amore eman zuen Joanez.

Bataiatu eta berehala, Jesus uretik irten zen. Horretan, zerua zabandu zen, eta Jainkoaren Espiritua ikusi zuen Jesusek uso-tan-keran jaisten eta beregana etortzen. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Hau da nire Semea, nire maitea; berau dut atsegin».

Gaurko hiru irakurgaiak aipatzen dute Espiritua, Jainkoaren Espiritua. Jainkoak bere Espiritu jaitsarazi du bere zerbitzariaren gainera, «nazioei zuzenbidea ekar diezaien». Espiritu horrekin izan zen gantzutua Jesus eta indar horrekin «bizi izan zen hura on eginez eta deabruak estuturik zeuzkanak sendatuz». Joanez bataiatu zuenean, Jesusengan kokatu zen Jainkoaren Espiritua da. Jainkoaren indarra da, Jainkoaren nahia aurrera eramateko: zuzentasuna, zuzenbidea, gaitzetik askatzea.

Irakurgai hauek berrirakurtzen ditugunean, berriro harritzen gara «espiritualitate» edo «espiritual» hitzei ematen zaien interpretazioaz: errealitatez kanpo legokeen zerbaitez edo norbaitez ari bagina bezala hartzeaz, munduko problemetatik eta zuzengabekerietatik kanpo, bere baitan triku bihurturik legokeen batez ari bagina bezala hartzeaz. Dударik gabe, ez da hori Jesusen eta haren ebanjelioaren espiritualitatea.

Izan ere, Jesusek bere bataioan hartu zuen Espiritua, eta guk geurean hartu duguna, ez da mundutik urruntzen gaituen Espiritu bat, baizik eta munduarekin korapilatzen gaituena; ez da geure baitan triku bihurtzen gaituen Espiritu bat, baizik eta gainerakoengana irekitzen gaituena; ez da hitz hutsen Espiritu bat, baizik bizi-egintzena.

[Hebreairei 1,1-6: Jainkoa Semearen bidez hitz egin digu. Sal 96: Ahuspeztu zaitezte Jainkoaren aurrean Haren aingeru guztiak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Esaten zuen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona». Jesusek, Galileako itsasbazterretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten. Aurreaxeago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

Ikasgai bikaina eman digu Jesusek gaurko ebanjelio honetan. Bere misioa hasi orduko, lankide bila hasi da. Ez da geroago otu zaion zerbaitegi, gehiago ezin duela-eta. Hasiera-hasieran egin die deia. Inoren beharrik izango ez lukeen bakarria bera izanik ere, lankidetzara eskatu digu. Eta guk, gure hainbat misiotarako, bakarrik aski garelako uste izaten dugu, ez dugula inoren beharrik. Jesusen misioa eliz misioa da, elkarte-misioa, eta ez jeinu lirakeen gizabanako batzuen misioa, berak bakarrik aski lirakeenen misioa.

Urteko 1. astea.

Astearta / Martitzena.

San Nicanor, *diakonoa eta martiria*.Dolores Sopena, *dohatsua (Katekesia Institutua-
ren fundatzailea)*.

[**Hebrearrei 2,5-12:** Egoki iritzi zuen, salbamenaren egitea oinaze-bidez bere betera eramatea. **Sal 8:** Zure esku-lan guztien buru zeure Semea ipini duzu.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,21-28.**

Iritsi zen Jesus Kafarnaumera, eta hurrengo larunbatean sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Harriturik zeuzkan denak bere irakatsiekin; itzal handiz irakasten baitzuen, eta ez lege-maisuek bezala. Sinagoga hartan gertatu zen, hain zuzen, deabru lohiak harturik zeukan gizon bat, eta deiadarka esan zuen: «Jesus Nazaretarra, zer dugu ikustekorik zurekin? Gu galtzeko etorri al zara? Badakit nor zaren: Jainkoaren Santua». Jesusek zorrotz agindu zion: «Zaude isilik eta atera zaitetz gizon horrengandik!» Eta gizona astinduz eta orroka atera zen deabru likitsa. Denak harriturik gelditu ziren, eta elkarri galdezka zioten: «Zer dugu hau? Hau bai dela irakatsi berria eta itzal handiz emana! Deabru likitsei ere agintzen die, eta horiek obeditu egiten diote!» Eta laster zabaldu zen haren izena bazter guztietara, Galilea osoan.

Jesusen irakaspenen aurrean jendeak izan zuen erreakzioa dakarkigu gaurko ebanjelio honek: «aginpidez irakasten du, eta ez lege-maisuek bezala». Zertan datza aldea? Ebanjelioak ez du esplizitatu, eta pena da; izan ere, horixe da askotan gure irakaspenaren edo predikuaaren arazoa: aginpide morala. Barne indarra ote zen? Konbentzimendua ote? Iragartzen zuenaren berritasuna? Bada, ordea, ebanjelioak dakarkigun datu bat: sufritzen duenarekin konpromisoa agertu duen eta askapen-keinuak egiten dituen pertsona baten irakaspina da. Eta ez da gutxi...

[Hebreatarrei 2,14-18: Gauza guztietan senideen antzeko izan behar zuen, errukior izan zedin. Sal 104: Gogoan dauka Jaunak betiko egin zuen ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,29-39.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba ohean zegoen, sukarrarekin, eta berehala harengatik hitz egin zioten. Ondora joan zitzaion Jesus, eskutik heldu eta jaikiarazi zuen, eta sukarrak utzi zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaion. Arratsaldean, eguzkia sartu zenean, gaixo eta deabrudun guztiak zekarzkioten; eta herri guztia ate aurrean bildu zen. Hark asko sendatu zituen era guztietako gaitzetatik, eta deabru asko uxatu zuen. Eta deabruak ez ziren uzten hitz egiten, bai baitzekiten hura nor zen. Goizean goiz, oraindik ilun zegoela, jaiki zen, atera eta leku bazter batera joan zen, eta otoitzean hasi han. Simon eta Simonekin zirenak haren bila atera ziren; aurkitu zutenean, esan zioten: «Denak zure bila dituzu». Eta hark: «Goazen hemendik inguruko herrietara, han ere hitz egin dezadan; horretara etorria naiz-eta». Eta hala, Galilea guztian barna ibili ohi zen, sinagoga hitz egiten eta deabruak uxatzen.

«Goazen beste alde batera». Orain, denak zure bila dabiltzanean? Orain, guztien mihasmena eta esker ona irabazi ditzakezunean? Zer dela-eta beste alde batera, hemen garaile ari zarenean?: «jendetza guztia ate ondoan pilatzen zen». Orain hain juxtu?... Segur aski, ikasleei burura etorri zitzaizkien galderak ziren; guri ere bai; ohitura baitugu geure garaipenez gozatzen gelditzeko, ahogozatuz; beti, geure porrotei ihes eginez. Baina horixe da Jesusen logika: doakotasunaren logika. Saria ez dio axola; zerbitzurik handiena eskaintzea du amesten: «horretarako etorria naiz».

[**Hebrearrei 3,7-14**: Berotu ezazue elkar «gaur» hori esan dai-tekeen artean. **Sal 94**: Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,40-45.**

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion Jesusi, eta, be-launikaturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesu-sek, errukiturik, eskua ezarri eta ukitu zuen, esanez: «Nahi dut; garbi geldi zaitetz». Ordu berean utzi zion leprak, eta garbi geldi-tu zen. Jesusek bidali zuen, zorrotz esanez: «Begira, gero, inori ezer esan! Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskain ezazu zeu-re garbikuntzagatik Moisesek agindu zuena, agiri bat izan de-zaten». Hura, ordea, atera zeneko, gertatua oihuka hots egiten hasi zen eta zabaltzen; eta harez gero Jesus ez zitekeen agerian sar herrietan; baizik eta inguruetan gelditu ohi zen leku bazter-tuetan. Eta hala ere alde guztietatik zetozkion.

«**G**arbi nazakezu»: baieztapena da, eta ez galdera. Konbentzimendu horrek lotsa eta hesi sozialak haustera eraman du eta Jesusengana hurbiltzera. Beste behin, ebanjelioan, baztertuak dira otoitz egiten irakasten digutenak, otoitzik egiatienak, bihotzetikoenak, fedez beteenak ateratzen zaizkienak, alegia. Gutxitan izan ohi du gure otoitzak konbentzimendu sen-do hori: «garbi nazakezu». Eszeptizismoak «ukituak» gaude, gure otoitzari eta bizitzari indarra kentzen dielarik. Ez dugu sinesten benetan... Lepradun anonimo hau, hainbat eta hainbat pobre anonimo eta fedez beteriko, etsen-plu eta erregutzaile ditugu.

[Hebrearrei 4,1-5.11: Saia gaitezen atseden horretan sartzen. **Sal 77:** Ez ahaztu Jainkoak eginak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,1-12

Zenbait egunen buruan itzuli zen berriro Jesus Kafarnau-mera, eta etxean zegoelako hotsa zabaldu zen. Jendetza handia bildu zen, ate aurrean ere lekurik ez izateraino. Eta Jesusek hitza adierazten zien. Eta han etorri ziren lau lagun, perlesiadun bat zekarkiotela. Baina, jendetzagatik ezin baitzuten sartu, Jesus bera zegoen aldean teilatua altxatu, zulo bat egin eta eraitsi zuten perlesiaduna, etzanik zegoen esku-ohean. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, esan zion perlesiadunari: «Seme, barkatuak dituzu zeure bekatuak!» Bazeuden han eseririk lege-maisu batzuk, eta beren baitan zioten: «Zer ari da hau biraoka? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak baizik?» Haiek beren barruan zerabiltenari antzemanik, Jesusek esan zien: «Zer burutapen darabilzkizue zeuen bihotzean? Zer da errazago perlesiadunari esaten: «Barkatuak dituzu bekatuak» ala «jaiki zaitez, hartu esku-ohea eta zoaz?» Hara, bada, jakin dezazuen Gizonaren Semeak baduela lurrean bekatuak barkatzeko aginpidea – esan zion perlesiadunari–: «Zuri diotsut: jaiki zaitez, hartu esku-ohea eta zoaz etxera».

«Gizonaren Semeak badu ahalmena lurrean bekatuak barkatzeko...». Jesusen barkatzeko ahalmena, eta barkazio hori eskaintzeko eskuzabaltasuna, eskandalu-harri izan ziren beti haren garaikide erlijiosoentzat. Oraingo honetan, lege-maisuak dira eskandalizatu direnak... Guk geuk ere izaten dugu zailtasunik Jainkoaren barka-

zio-ahalmen hori onartzeko, barkazio hori guk geuk barkatzen ez diegun pertsoneri eta egoerei dagokienean. Barkazioa zail gertatzen zaigu gizaki garen aldetik. Barkatzea dohain bat da guretzat eta Jainkoaren grazia; eskatu beharrekoa: «Gure zorrak barkatzen dituzun horrek, emaguzu grazia geure anai-arrebei barkatzen ikasteko».

[Hebrearrei 4,12-16: Goazen uste osoz graziaren aurkira. **Sal 18:** Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,13-17

Aldi hartan, itsasbazterrera atera zen berriz ere Jesus, eta gizatalde osoa beregana zihoakion, eta irakasten ari zitzaion. Bidez zihoala, Alfeoren seme Lebi ikusi zuen, zerga-biltzaileen mahaian eseria, eta esan zion: Jarraitu niri». Hark zutitu eta jarraitu zion. Jesus Leviren etxean mahaian zegoela, zerga-biltzaile eta bekatarari asko ere mahaian eseri ziren, Jesusekin eta haren ikasleekin; asko baitziren atzetik zihoazkionak. Fariseuek eta lege-maisuek, bekatarari eta zerga-biltzaileekin jaten zuela ikustean, esan zieten haren ikasleei: «Nolatan jaten du zerga-biltzaile eta bekatariekin?» Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ondo daudenek ez, baino gaixo daudenek behar dute sendagilea. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Jesús ez da gelditu Leviri begira, zerga-mahaian, eta egiten ari dena aurpegira botaz. Baizik eta jaikitzaera gonbidatu du, mahai hori uztera eta bizitzaren beste dinamika batean sartza. Saneatzera etorri delako... Guk, aldiz, aurpegira botatzen dizkiegu besteei akatsak, hutsegiteak, bekatuak. Duda-rik gabe, egoki jokatzeko ez duen pertsona baten aurrean edota gustukoa ez dugun norberaren nahiz elkartearen egoera baten aurrean, bada Jesusenarekin egokiago datorren jarrera bat: galdetzea, zer egiten ahal dut pertsona honi laguntzeko edo egoera hau hobetzeko?

Urteko 2. astea.

Igandea / Domeka.

San Paul, *ermitaua*.San Mauro, *abadea*.San Arnaldo Janssen, *apaiza eta fundatzailea*
(*Verbo Divino kongregaziokoak*).**§ Isaias 49,3.5-6.**

Jaunak esan zidan: «Zu nire zerbitzaria zara, Israel, zure bidez agertuko dut neure ospea». Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabelean eratu ninduen bere zerbitzari izateko, Jakob-en leinuak beregana bihurrazteko eta Israel herria biltzeko.

Ohorez jantzi nau Jaunak eta neure Jainkoa izan dut indar.

Jaunak esan dit: «Ez da aski zu nire zerbitzari izatea, Jakob-en leinuak berreraikitzeo eta Israelen bizirik geldituak itzularazteko. Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurra-
ren azken mugaraino irits dadin».

[Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

§ San Paulok 1 korintoarrei 1,1-3.

Nik, Paulok, Jainkoak hala nahirik eta berak deiturik, Jesu Kristoren apostolu naizen honek, eta Sostenes anaiak Korinton dagoen Jainkoaren eliz elkarteari: grazia zuei eta bakea gure Aita Jainkoagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik.

Jesu Kristok sagaratu zaituzte eta Jainkoak bere herri santu izateko deitu, edozein lekutan Jesu Kristo gure Jaunari dei egiten dioten guztiekin batera, hauek eta guk Jaun bat bera onartzen baitugu.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,29-34.

Hurrengo egunean, ikusi zuen Joan Bataiatzaileak Jesus beragana etortzen eta esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bil-

dotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Honi buruz esan nuen nik: "Nire ondoren badator gizon bat, nire aurea hartu didana, ni baino lehenagotik baitzen". Neuk ere ez nuen ezagutzen; baina ni urez bataiatzera etorri banaiz, hura Israeli ager zekion izan da».

Eta aitormen hau egin zuen Joanek: «Espiritua ikusi dut uso-irudian zerutik jaisten, eta haren gainean gelditzen. Neuk ere ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera bidali ninduenak esan zidan: "Espiritua jaisten eta gainean gelditzen zaiola ikusten duzuna, hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena". Neuk ikusi dut eta aitortzen hauxe dela Jainkoaren Semea».

Isaías eta Joan Bataiatzailea Jesusen aurretik: iragarri egin dute. Paulo eta Sostenes Jesusen ondoren: testigantza egin dute. Jainkoaren salbamen-egitasmoa haragitu da Jesusengan, historian sartu da Jainkoa, herri guztientzat: «nazioen argi, nire salbazioak lurraren azken muturra harrapa dezan». Jesusengan profeziak bete dira, eta oinarri bihurtu da guztientzako Berri Onaren iragarpena.

Jesus eta haren ebanjelioa hots egitea... Profetak Jesus iragartzeko bizi izan dira; ikasleak, berriz, hartaz testigantza egiteko. Jesus da erdigune, erreferentzia-puntu, iraganari zeruertzta ematen diona eta geroari hasiera.

Gaurko irakurgai hauek birpentsatzera gonbidatzen gaituzte, zein den Jesusen lekua gure predikuan, gure testigantzan eta gure kristau-bizitzan. Askotan, gogoetaka eta itzulinguruka ibiltzen gara, jendea Jesusengana gidatu ordeztu nahasi egiten dugularik. Beste batzuetan, gehiago hitz egiten dugu geure buruaz, geure gatazkez edo maniez Jesusez baino. Agian, hori gertatzen da, Jesus ez delako gure bizitzako Jauna, horrek esan nahi duen eta adierazten duen guztiarekin. Alegia, ez denean «Jesu Kristo gure eta haien Jauna», Pauloren hitzekin esateko.

[Hebrearrei 5,1-10: Semea izanik ere, bere neke artean ikasi zuen esaneko izaten. **Sal 109:** Melkisedeken sailean apaiz zara zu behin betiko.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,18-22.**

Aldi hartan, Joanen ikasleek eta fariseuek barau-eguna zuten batean, etorri ziren batzuk eta esan zioten Jesusi: «Joanen ikasleek eta fariseuen ikasleek barau egiten dute, eta zure ikasleek zergatik ez?» Jesusek erantzun zien: «Barau egin al dezakete eztei-lagunek, senar berria berekin duten bitartean? Ez dezakete baraurik egin, senar berria berekin duten bitartean. Etorriko da senar berria kenduko dieten eguna; orduan bai, egun hartan egingo dute barau. Ez dio inork josten jantzi zahar bati oihal gordinezko adabakirik; adabakiak tira egiten baitio jantziari, oihal berriak zaharrari, eta handiago egiten da zarrastada. Ez ditu inork ardo berriz betetzen zahagi zaharrak; ardoak lehertu egiten baititu zahagiak: ardoa eta zahagiak, denak galitzen dira; horregatik, ardo berria zahagi berritan».

Gaurko ebanjelioak lau aldiz dakar, hiru lerro soiletan, «berri» hitza. Bere jokabideaz hitz egitean, «ardo berri» dela dio Jesusek. Benetan, horixe sumatzen zuen hurbiltzen zitzaion jendeak: Jainkoaz irudi berri bat, hitz egiteko era berri bat, pobreak tratatzeko era berri bat... Iruditzen zait, gaur egungo kristauok ez garela berri denaren oso aldeko modu berezian, ezta berri denarekiko sentibera ere modu berezian. Duela urte asko «berritasunen irrika» aurpegiratzen zidaten niri. Agian gutxi entzuten diogu lur-azala «era-berritzen duen», gauza guztiak «berri egiten dituen»... Espirituari.

[**Hebrearrei 6,10-20:** Eskainia zaigun itzaropena aingura bezain sendoa eta segurua dugu. **Sal 110:** Betidaino oroituko zaie Jau-na bere itunaz.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,23-28.**

Bazihoan Jesus larunbat batean gari-soroetan barna, eta ikasleak galburuak mozten hasi ziren bidenabar. Fariseuek esan zioten: «Adizu, nolatan egiten dute larunbatean zilegi ez dena?» Eta hark esan zien: «Ez al duzue inoiz irakurri Davidek egin zuena, bera eta bere gizonak beharraldian eta goseak gertatu ziren batean? Jainkoaren etxean sartu baitzen, Abiatar apaiz nagusi zela, eta apaizari ez beste inori jatea zilegi ez zaion eskaintzako ogiak jan zituen, eta, gainera, lagunei eman». Eta esan zien: «Gizakiarentzat egina da larunbata, eta ez gizakia larunbatarentzat. Beraz, Gizonaren Semea bada larunbataren nagusi ere».

«**L**arunbata gizakiarentzat egin zen». Jainkoak agintzen duena, gizakiaren onari begira egina izaten da beti. Benetan Jainkoarena den lege orok gizakiaren ona du helburu. Lege horren interpretazioak eta desitxuratzek, legalismoak: horiek dira gizakiaren aurka doazenak. Jainkoaren larunbatak atsedena du helburu, gizakiaren eta Jainkoaren arteko topaketa, giza-kien arteko topaketa, bizitzaz gozatzea, doakotasuna... Agindu bat obligazio bihurtu dugunean gaiztotu egin dugu, eta probetxu ekonomikoengatik izkina egiten diogunean giza balioen kontrako erasora jotzen dugu.

Urteko 2. astea.**Asteazkena / Eguaztena.**

Santa Priska eta Santa Margarita, *birjinak*.

Kristauen Batasunaren aldeko zortziurrenaren hasiera.

[Hebrearrei 7,1-3.15-17: Apaiz zara zu betieran, Melkisedeken sailean. Sal 109: Melkisedeken sailean apaiz zera zu behin betiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,1-6.

Aldi hartan, sartu zen berriro Jesus sinagogan, eta han, beso ihartua zeukan gizon bat zegoen. Begira zegozkion Jesusi, larunbatez sendatuko ote zuen, zertan salatu izateko. Jesusek gizon beso-iharrari esan zion: «Jaiki zaitetz eta zatoz denon erdira». Eta han zeudenei galdera egin zien: «Larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea? Bizia salbatzea ala hiltzen uztea?» Baina haiek isilik zeuden. Orduan, ingurukoei haserre begiratzuz, haien bihotzaren gogorraz mindurik, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Luzatu zuen, eta bere onera etorri zitzaion besoa. Orduan fariseuek handik atera eta herodestarrekin batzar egin zuten, Jesus nola galduko.

Zirrara eragiten dute eszena honetan Jesusek agertu dituen sentimenduek: «Bere ingurura haserre-begiratu bat botaz eta haien temakeriaz mindurik». Egundoko sakontasuna dute. Jesusek haserre azaldu du sufritzen ari den pertsonaz errukirik ez dutelako, jenderik badelako legea bete ala ez gehiago kezkatzen duena sufritzen ari denaren ongiak baino. Aldi berean, mina sentitzen du horrela jokatzeko ari den jendeagatik: mina, temakeriari emanik ikusten dituelako, itsu, gupidatzeko ezgai. Eta jende hori gupida-ez horretatik sendatzea nekezago gertatzen zaiolako elbarriari besoa sendatzea baino.

Urteko 2. astea.

Osteguna / Eguaztena.

Joan Ogilvie, Esteban Pongrác, Meltxor Grodziecki apaizak, eta Markos Krizevci, Esztergom-eko kalonjea, santuak; Ignazio de Azevedo, apaiza eta lagunak, dohatsuak; Santiago Salès, apaiza eta Gilermo Saultemouche, erlijiosoa, martiriak.

San Macario Handia, *abadea*.

Martzelo Spinola, *dohatsua, fundatzailea (Jainkoaren Bihotzaren mirabeak)*.

[**Hebrearrei 7,25–8,6:** Jesu Kristok opariak behin betiko eskaini zituen, bere burua eskaintzean. **Sal 39:** Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egiteko.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,7-12.**

Aldi hartan, Jesus itsasertzera baztertu zen ikasleekin, eta jendetza handiak jarraitu zion Galileatik. Egiten zituenak entzunik, jendetza handia bildu zen harengana Judeatik, Jerusalem-dik, Idumeatik, Jordanez beste aldetik, eta Tiro eta Sidongo inguruetatik. Ikasleei esan zien, ontzi bat prest edukitzeko harentzat, jendetzak zapaldu ez zezan. Izan ere, asko sendatu zituen, eta gaitzik zuten guztiak gainera zihoazkion, bera ukitu nahian. Hura ikustean, espiritu lohiak ahuspez jartzen zitzaizkion aurrean, oihuka eginez: «Jainkoaren Semea zara zu». Baina, hark zorrotz agindu zien, ez agertzeko bera nor zen.

«**S**ufritzen ari ziren guztiak» hurbiltzen zitzaizkion... Zergatik?: konfiantza eragiten zuen... Haren harrera-jarrerak tira egiten zien, ez zuten sentitzen uzkur agertzen zitzaienik berek zituzten mungatik eta urritasunengatik. Prest agertu ohi zen, eta ebanjelioak dio, arrazoizkoa baino harago. Beste tratu bat ematen zien, auto-as-

kitasunik gabe, mespretxurik gabe. Eta sendatu ere, sendatzen zuen...
Eta guri, hurbiltzen al zaizkigu sufritzen ari direnak, dela Elizara elkar-
te den aldetik, dela gutako bakoitzari? Sumatzen al dute beraien alde
ari garela, hurbildu daitezkeela gugana, beraien alde gaudelako eta
beraien sufrimendua arindu nahiz gabiltzalako? Ez dute miraririk eska-
tzen: hainbat aldiz gertatzen da harrera on bat saneatzeko aski...

[Hebrearrei 8,6-13: Kristo itun hobe baten bitarteko egin da. **Sal 84:** Onginahia eta leialtasuna elkarren bidera aterako dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,13-19.

Aldi hartan, Jesus mendira igo zen; nahi zituenei dei egin zien, eta harekin joan ziren. Bere lagun egin zituen hamabi, predikura bidaltzeko, eta deabruak uxatzeko ahalmena eman zien. Honela eratu zuen Hamabien taldea: Simon –Pedro izena ipini ziona–, Santiago Zebedeorena eta Joan, haren anaia –Boanerges izena ipini zien, hau da: trumoikume–, Andres, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas eta Santiago Alfeorena, Tadeo, Simon kanaandarra, eta Judas Iskariote, saldu zuena bera.

«**N**ahi zituenei»... Hauxe da ebanjelioko esaldirik argienetako eta irmoenetako bat, eta, aldi berean, misterioetsuenetako bat. Zer begi-bistako arrazoia, eta zer arrazoirik eza! Berak nahi izan zituelako eta berak maite izan zituelako. Ebanjelioaren protagonista, Jesusekin: ez norberaren merezimenduengatik, ez kualitate pertsonal bereziengatik. Baizik Jesusek nahi izan duelako eta Jesusek maite izan gaituelako: soilik horrengatik gaude deituak gaur gu ere ebanjelioaren lekuko izatera. Eta hau da lehen lekukotza: Jesusek geure pobretasuna eta guzti maite izan gaituela. Nahi izan du eta maite izan gaitu.

[**Hebrearrei 9,2-3.11-14:** Kristo bere odolaz eta behin betiko sartu zen Santutegian. **Sal 46:** Oihu alaien artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,20-21.**

Aldi hartan itzuli zen Jesus ikasleekin bere etxera eta, ha-lako gizataldea bildu zitzaian, jateko ere betarik ez baitzieten ematen.

Jesusen ahaideak, hori jakitean, hura hartu eta eramatera atera ziren, burutik eginda zegoela esaten baitzuten.

Jesusen familia, maite zuen bera, harriturik dago egiten duenaz; batez ere, ordea, jabetzen da, esaten eta egiten duenarekin bere burua arris-kuan ipintzen ari dela. Beldur dira, eta ez zaie arrazoirik falta: hamabost txal-lehenago (Mk 3,6) esan du ebanjelariak «beren artean bildu zirela Jesus nola garbituko». Gaurko pasartearen segidako txatalean, berriz, «Beeltzebul dauka honek barruan» diote. Babestu egin nahi du bere familiak: «Berekin eraman nahi dute», eta defentsa-argudiotzat diote: «ez egin berari kasu han-dirik, ez dago ondo burutik». «Politikoki zuzen» izateko guk agertu ohi dugun obsesiotik dena guztiz urrun...

Urteko 3. astea.

Igandea / Domeka.

San Bizente, *diakonoa eta martiria*.San Valero Zaragozako, *gotzaina*.**§ Isaias 8,23b–9,3.**

Garai batean, lotsagarri utzi zituen Jaunak Zabulonen lurraldea eta Neftaliren lurraldea; azken aldian, ordea, ospetsu egin du itsaso ondoko bidea, Jordanez bestaldeko lurraldea, eta Galilea, jentilen eskualdea. Ilunpetan zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenei argiak egin zien distira.

Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozik dabilta zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozaz, harrapakinak banatzean izaten den atsegina. Apurtu baituzu lepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurtu zenuen bezalaxe.

[Sal 26: Jauna dut argi eta salbamen.]

§ San Paulok 1 korintoarrei 1,10-13.17.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren izenean arren eskatzen dizuet: etor zaitzete bat guztiok eta ez bedi izan zatiketarik zuen artean; bizi elkar ondo harturik, ikuspegi eta iritzi bat bera duzuela.

Izan ere, ene senideok, Kloeren jendeagandik jakin dut eztabaidak dituzuela zeuen artean: alegia, hor ari omen zarete nor bere aldetik esaten: «Ni Paulorena naiz», «Ni Apolorena»; «Ni Pedrorena», «Ni Kristorena».

Zatitua al dago, bada, Kristo? Paulo gurutziltzatu ote zuten zuengatik? Edota Pauloren izenean bataiatu ote zintuzteten?

Kristok ez ninduen bataiatzera bidali, Berri Ona hots egitera baizik, eta hau, ez giza jakinduriatzko hitzez, Kristoren gurutzak bere indarra gal ez dezan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,12-23.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutela jakin zuenean, Jesus Galileara baztertu zen. Baina Nazaret utzirik, itsasbazterrean dagoen Kafarnaumen jarri zen bizitzen, Zabulonon eta Neftaliren lurraldean. Horrela bete zen Isaias profetak esana:

«Zabulonon lurraldea
eta Neftaliren lurraldea,
itsasbidea, Jordanez bestaldean,
jentilen Galilea.
Ilunpean bizi zen herriak argi handia ikusi zuen;
herio-itzalean bizi zirenei
argiak egin zien distira».

Ordutik hasi zen Jesus hots egiten: «Bihotz-berri zaitezte, hurbil da-eta zeruetako erreinua».

Jesusek, Galileako itsasbazterrean zehar zebilela, bi anaia ikusi zituen, Simon, Pedro deitua, eta haren anaia Andres, sareak itsasoan botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

[Aurreraxeago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpontzen; eta dei egin zien. Haiek, berehala, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

Jesus Galilea osoan barna zebilen, hango sinagogetan irakasten, erreinuaren Berri Ona hots egiten eta herrian gaitz eta eritasun guztiak sendatzen].

«**B**ihotz-berri zaitezte»: beste behin jotzen du gure belarria Jesusen dei honek. Baina modu berri batean jo beharko luke, bizi ditugun gora-behera sozial, eliztar eta pertsonalekin bat eginez.

Gaurko irakurgaien harira, bihotz-berritzeko hainbat bide iradoki daitezke:

–Bihotz-berri zaitezte etsipenetik eta eszeptizismotik esperantzara; izan ere, profetek egin zituzten promesak betetzeko eginak dira. Ilunpetik eta heriotzaren lainopetik argira. Inplikaziorik gabeko kritikatik askapen bila konpromisoa hartzera.

–Bihotz-berri zaitezte batasun-gabeziatik, batak bestearen kontrako errezerlotik, indibidualtasunetik edo taldekeriatik elkartasunera. Norberaren nortasunari leial, baina beste nor batzuekin elkartasunean.

–Bihotz-berri zaitezte Jesusen Hitza entzutera; bai, entzutera, arreta eskaintzera, kontenplatzera. Bihotz-berri zaitezte azalkeiatik, bereizketarik gabeko ekimenkeriatik edota nor bere ideia monotematikoetan eta gauzak ikusteko eran triku bil-bil bezala bizitzetik entzutera.

«Bihotz-berri zaitezte». Zertara nago bihotz-berritzeko deitua

Urteko 3. astea.

Astelehena.San Ildefonso, *gotzaina*.Santa Emerentziana, *birjina*.

[**Hebrearrei 9,15.24-28:** Kristok, bekatuak kentzeko, behin bakarrik eman zuen bere burua opari; bigarren aldian, beraren zain daudenei agertuko zaie. **Sal 97:** Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.]

† **Jesu Kristoren ebanjelioa San Markosen liburutik 3,22-30.**

19955

Aldi hartan, Jerusalemetik jaitsitako lege-maisuek hau zioten Jesusi buruz: «Beeltzebul dauka honek barruan», eta «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu deabruak».

Jesusek beregana deitu eta parabola hauen bidez hitz egin zien: «Nola dezake Satanasek Satanas bota? Bere baitan zatiturik dagoen erreinuak ezin du iraun. Bere baitan zatiturik dagoen familiak ezin du iraun. Era berean Satanasek ere, bere buruaren aurka jaiki eta zatiturik badago, ezin du iraun; harenak egin du. Ez daiteke inor indartsu baten etxean lapurretara sartu, aldeztu aurretik hura lotzen ez badu; orduan, bai, harrapa ditzake haren etxeko ondasunak.

Benetan diotsuet: Dena barkatuko die Jainkoak gizakiei, bekatuak eta esan litzaketen birao guztiak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenak ez du sekula barkamenik izango: errudun izango da betiko». Espiritu gaiztoa zeukala ziotenei erantzun zien hau.

Geuk ere esan ohi dugu tarteka: «honek ez du Jainkoaren barkaziorik...»; eskuarki, ez dugu esaten hori gizakiaren mugapenari edo ahuldadeari gagozkiola, baizik beste batzuei, jakinaren gainean, kalte egiten diotenei gagozkiola. «Honek ez du barkaziorik» delako hau, on egiteagatik bera kri-

tikatzen dutenez esan du Jesusek; inbidia hutsez edo beren probetxuagatik egiten dutenez, jendearen aurrean beren izena galtzeko beldurrez... Zori txarrez, «prebarikazio espiritual» bezalako hau, alegia, on egin duelako beste norbait kritikatzea, jakinik kritika hori zuzenaren kontrakoa dela, gaur ere egiten da gure artean. Horrela jokatzek «ez du Jainkoaren barkaziorik»...

[Hebrearrei 10,1-10: Hona hemen ni, Jainko, zure nahia egiteko. **Sal 39:** Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik **3,31-35.**

Aldi hartan, etorri ziren Jesusen ama eta senideak, eta, kanpoan gelditurik, deiarazi zuten. Jesusek bere inguruan eseria zeukan jende-taldea, eta esan zioten: «Hor dituzu kanpoan zeure ama eta senideak, zeure bila». Jesusek erantzun zuen: «Nortzuk dira nire ama eta nire senideak?» Eta, bere inguruan eseriak zeudenei begiratuz, esan zuen: «Hona nire ama eta nire senideak. Jainkoaren nahia egiten duena, hura da nire anaia, eta arreba, eta ama».

Berriro, orain egun gutxi bezala, Jesusen familia aipatzen da ebanjelioan. Aurreko hartan, Jesusen familiartekoen hitzak zekartzan ebanjelioak. Gaur, Jesusenak. Beraren familiari kezka eragiten dioten hitz hauek Jesusen jardueraren argibide dira hein batean. Eta argibide hau, jarraitzen dion jendearekiko azaltzen duen konpromisoa besterik ez da, eta ez da bere familiarekiko duena baino txikiagoa. Berarekin bat eginez, Jainkoaren nahia nola beteko dabiltzanak beraren familia bezain garrantzizkoak ditu Jesusek. Hala-ko horiek, ez dira izango sekula Jesusentzat «bazter uzteko modukoak», ezta beraren bizitzako bigarren aktore ere.

Urteko 3. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

San Paulo apostolua Kristogana itzultzea.

Santa Elbira, *abadesa*.

Kristauen Batasunaren aldeko Zortziurrenaren bukaera.

[Apostoluen Eginak 22,3-16: Jaiki zaitetz, bataiatu eta garbitu zeure bekatuetatik, Jesusen izenari dei eginez. Sal 116: Zoazte mundu guztira, eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-18.

Aldi hartan, Jesus Hamaiketi agertu zitzaion, eta esan zien: «Zoazte mundu guztira, eta hots egin berri ona gizaki guztiei. Sinesten duena eta bataiatzen, salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, galdu egingo da. Sinesten dutenek mirari hauek egingo dituzte: nire izenean etsaiak bota, hizkuntza berrietan mintzatu, sugeak eskuetan hartu, eta, hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo. Gaixo daudenen gainean eskuak ipini, eta gaixoak sendaturik geldituko dira».

«**M**undu guztira...», «gizaki guztiei...». Jesusen agindu ebanjelizatzaileak ezaguna den guztia baino harago joatera gonbidatzen gaitu, ohikoa baino harago, bide zapalduak baino harago... Mugak baino harago, ez geografikoak, baina bai kulturalak, sozialak... Paulo: paganoen apostolua, «kanpokoena»... Neke dugu. Bi beldurrek zurruntzen baikaituzte (beti zurruntzen du beldurrak): liskarrari beldurrak (Paulok liskarra bizi izan zuen: Eginak 15) eta porrotari beldurrak (Atenasko porrot famatu hura, adibidez: «Beste egun batean entzungo dizugu» Eginak 17). Eta gehiago erasaten digute beldurrek, bidaltzen digun Jaunarekiko konfiantzak baino.

[Hebrearrei 10,19-25: Sendo iraun dezagun geure itxaropena aitortzen, eta elkarren arreta izan dezagun, maitasunera elkar berotzeko. **Sal 23:** Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik **4,21-25**.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Lakaripean edo ohe azpian ipintzeko pizten ote da kriseilua? Ez ote da pizten argimutilaren gainean ipintzeko? Izan ere, ez dago ezer gordeta agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere argitaratuko ez denik. Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!»

Beste hau ere esan zien: «Kontu izan nola entzuten duzuen! Zuek zein neurritan entzun, neurri berean emango dizue Jainkoak, eta gehiago ere bai. Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu».

Jesusen Berri Ona, Jainkoaren esperientzia, ez da «bihotz-gozamen» hutsa edota hartu duenak beretzat bakarrik gordetzekoa. Jainkoa bihotz barnean mintzo ohi zaigu, bai, baina baita geure kanpoko bizitzan ere, Jainkoaren hitz hori zabal dadin, gugandik garbi eta indartsu, gainerakoei laguntzeko. Argi-kriseilu izatera deituak gara, argia eta beroa emango duen argi. Hartua dugun dohainarekin eskuzabal bagara, ez gara galtzen aterako, baizik irabazten; dohain hori gordetzen eta alferrik erabiltzen badugu, galdu egingo dugu geuk ere.

* * *

[San Timoteoren eta San Titoren meza:]

§ Paulo apostoluak Timoteori 2. gutuna 1,1-8.

Nik, Paulok, Jainkoak hala nahirik, Kristo Jesusen bidez agindu zaigun bizia iragartzeko Jesu Kristoren apostolu naizen honek, zuri idazten dizut, ene seme maite Timoteo. Jainko Aitak

eta Kristo Jesus gure Jaunak eman biezazkizute grazia, errukia eta bakea.

Eskerrak ematen dizkiot, arbasoen irakatsiei jarraituz, bihotz garbiz zerbitzatzen dudan Jainkoari, eta gogoan zaitut etengabe, gau eta egun, neure otoitzetan.

Zure malkoez oroitzean, zu ikusteko irrikaz nago, pozez bete nadin. Izan ere, gogoan dut zuk duzun zinezko fedea, lehenik Loide zure amonak eta Eunize zure amak izan zuten fedea bera; ziur nago zuk ere baduzula. Horregatik gogorarazten dizut, indarberri dezazula nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina.

Jainkoak ez baitigu beldurti egiten gaituen espiritua eman, baizik eta indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua.

Ez izan, bada, gure Jauna aitortzeko lotsarik; ez lotsatu nitaz ere, harengatik kartzelan dagoen honetaz; bestela baizik, Jainkoaren indarraz fidaturik, sufri ezazu nirekin batean Berri Onaren alde.

[Sal 95: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi aukeratu ziotuen, eta bere aurretik bidali binaka, bera joatekoa zen herri eta auzo guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte; begira, arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman zeuekin, ez diru-poltsarik, ez bide-zorrorik, ez oinetakorik. Eta ez gelditu bidean, inori agur egiten.

Etxe batean sartuko zaretenean, hau izan bedi zuen aurreneko hitza: "Bakea etxe honetan!" Eta han bakezko jenderik bada, haien gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, zuengana itzuliko da. Etxe hartan berean egon zaitezte; jan ezazue

eta edan daukatenetik, zor zaio-eta langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herri batean sartu eta ongi hartzen bazaituzte, jan jartzen dizuetenetik, sendatu gaixoak eta esaiezue: "Gainean duzue Jainkoaren erregetza"».

Ez nuke izan nahi, Jauna, Espirituaren kontra birao egiten dutenetakoa, baina, errezeloa dut, batzuetan ez naizela oso urrun ibiltzen hura ukatzen edota gutxien dutenetatik. Zu zeu ere salatu zintuzten, espiritu gaizto bategen hartua zinela. Niri, hori ere ez. Neure bizitzan hain axalean bizi naiz, non ez baitut astirik neure bihotzari begiratu eta egiaztatzeko ea zu ote zaitudan biztanle edota ez ote dudan itzali Espiritua. Nire bizitzako uholde nahasmen-
duzkoak suntsitu egin ditu nire asmo eta konbentzimendu handiak, eta in-
txaur-azal huts bat bezala utzi nau ur joanaren jostailu. Hauxe dut Espiritua-
ren kontrako neure bekatua: bota egin dudala neure bihotzetik eta ez naizela
arduratzen itzul dadin.

Urteko 3. astea.

Ostirala / Barikua.

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*.San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*.

[Hebrearrei 10,32-39: Nekaldi-borroka handia izan zenuten. Ez galdu, beraz, zeuen uste ona. **Sal 36:** Zintzoek salbamena Jaunagandik dute.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,26-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua, lurrean hazia ereiten duen gizonaren antzekoa da: gizona lo dago gauzez eta jaikitzen da goizean; hazia ernetzen da eta hazten doa, eta gizonak ez daki nola. Bere-berez ematen du lurra uzta: lehenengo lastoa, gero burua eta ondoren galburuaren beteko alea. Eta, alea prest dagoenean, igitaia eransten zaio, helduak baitaude gariak». Beste hau ere esan zien: «Zeren antzekoa dela esango dugu zeruko erreinua? Zer parabolatan adieraziko dugu? Mostaza haziaren antzekoa da: lurrean ereiten denean, hazirik txikiena da, baina jaiotzen denean, gora doa, eta barazki guztiak baino handiago egiten da; adar handiak botatzen ditu, txoriek haren itzalpean habia egin ahal izateraino». Horrelako parabola askoz hots egiten zien hitza, haiek uler ziezaioketen neurrian, eta parabolarik gabe ez zien hitz egiten; ikasleei, ordea, bakarrean, dena agertzen zien.

Jainkoaren aldia gure presaren aurka, giza prozesuen aldia gure pazientzia-faltaren aurka. «Ez dugu astirik», «aski espero izan dut». Halere, denbora beharrezkoa izaten da giza prozesuak helduko badi-ra; gainera, zenbat eta konplexuagoa prozesua, orduan eta denbora gehiago behar. Jainkoak ez ditu presarazten pertsonaren prozesuak; gure pazientzia-faltak abortarazten ditu hainbat eta hainbat hazkun-

de-prozesu, aldaketa- eta konbertsio-prozesu... Zenbat eta nola eskertzen diguten txikiak eta behartsuek beraiekin pazientzia izatea! Kasik guk Jainkoari eskertu beharko geniokeen adina, gurekiko eta gu jasateko agertzen duen pazientzia mugagabeagatik.

[Hebrearrei 11,1-2.8-19: Jainkoak eraiki eta antolatutako herria itxaroten zuen Abrahamek. **Salmoa: Lukas 1:** Bedeinkatua Jauna, Israelgo Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,35-40.

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek esan zien ikasleei: «Goazen uraz beste aldera». Eta jendea utzi eta ontzian eramane zuten, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten. Haize-ekaitz handia sortu zen, eta ontzi barruraino sartzen ziren ur-palastak, ontzia ia betetzeraino. Bera, berriz, txopan, burko gainean lo zegoen. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, galtzera goaz, eta ez al zaizu axola?» Orduan jaikirik, agindu zion haizeari, eta itsasoari esan: «Ixo! Hago geldi!» Gelditu zen haizea, eta barealdi handia sortu zen. Gero, esan zien: «Zergatik zarete horren beldurti? Ez al duzue oraindik sinesmenik?» Eta harriturik gelditu ziren, eta elkarri ziotsaten: «Nor dugu, ordea, hau? Haizeak eta itsasoak ere obeditzen baitiote!»

«**E**z al duzue oraino federik?» «Oraino» horrek jotzen ditu gure beharriak ere, gure bihotza ere: «oraino?», «posible ote?», «bizi izan duzuen guztia... eta oraino ez duzue federik?» Fede bat, adore izango dena bizitzako probei aurre egiteko, geure bidean jasandako ekaitzei erantzuteko. Fede pertsonal baten falta, askatasun-falta bihurtzen dena «...rekiko beldurragatik», eta erakunde-fede baten falta, mugiezintasun bihurtzen dena «bizi behar izango ditudan» erronkei eta aldaketei aurre egiteko... Eta zer besterik uste dugu gertatuko dela, Jainkoaren gurekiko konpromisoa baizik?

Urteko 4. astea.

Igandea / Domeka.San Gelasio, 49. *aita santua.*Santa Radegunda Trebiñokoa, *birjina.***Sofonias Profeta 2,3; 3,12-13.**

Bila ezazue Jauna, zuek, lurraldeko apalok, haren aginduak betetzen dituzuenok; bila ezazue zuzentasuna, bilatu apaltasuna. Eta beharbada aurkituko duzue babes Jaunaren haserre-egunean. Herri apal eta behartsua utziko dut Nik zurean; Jaunaren izena izango dute babes Israelen bizirik geldituek. Ez dute bidegabekeriarik egingo, ezta gezurrik esango ere; haien ahotan ez da mihi maltzurrik aurkituko; inork izutu gabe larratuko dira eta etzango».

[Sal 145: Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena dute-eta zeruetako erreinua.]

San Paulok 1 korintoarrei 1, 26-31.

Senideok: Begira zeintzuk zareten Jainkoak deituak: zuen artean ez dira asko munduak jakintsutzat hartzen dituenetakoak, ezta ahaltsu nahiz handiketakoak ere. Aitzitik, munduak zorotzat duena aukeratu du Jainkoak, jakintsuak lotsarazteko, eta munduak argaltzat duena, indartsuak lotsarazteko; munduak baliogabetzat eta mesprezagarritzat duena aukeratu du Jainkoak, munduaren begietan ezerez dena, zerbait direla uste dutenak ezerezteko; horrela, ez du inork Jainkoaren aurrean harrotzerik.

Berari zor diozue izatea Kristo Jesusengan, berau egin baitu Jainkoak guretzat jakinduria, berorren bidez askatu gaitu, salbatu eta santu egin. Horrela betetzen da Liburu Santuak dioena: «Harrotu nahi duena, harro bedi Jaunagan».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 1-12a.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten:

«Zorionekoak gogoz behartsu direnak,
berena baitute Jainkoaren erreinua.
Zorionekoak atsekabetuak,
beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko.
Zorionekoak apalak,
beraiek izango baitute agindutako lurra ondare.
Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak,
beraiek baititu Jainkoak aseko.
Zorionekoak errukitsuak,
beraiek baititu Jainkoak erruki izango.
Zorionekoak bihotzez garbi direnak,
beraiek ikusiko baitute Jainkoa.
Zorionekoak bakegileak,
Jainkoaren seme-alaba izango baitira.
Zorionekoak zuzentasunagatik eraso jasango dutenak,
berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitezte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan».

«**E**rrepara iezaiozue zeuen batzarrari...». Inondik ere, gure parrokiarik gehienetan igandero elkartzen den batzarrari begiratu bat eman ondoren, Pauloren hitz hauek errepikatu ahal izango ditugu geuk ere: «ez da jakintsu askorik giza mailan, ezta boteretsu askorik ere, ezta aristokrata askorik ere...». Hau da, ordea, aldea: gertaera hori Paulok nola bizi ohi zuen eta guk nola bizi ohi dugun.

Guretzat etsipen-seinalea da: «gutxitzen ari gara», «begiratu zer dagoen», «ez da gazterik»... Balio-irizpideak; ez dira zorientasunenak. Pau-

lorentzat, aldiz, seinale dira, Jainkoa dela bere egintza aurrera daramana, era harrigarrian.

Segur aski, mendira igo eta jendetza ikusi zuenean, Jesusek ez zuen nabaritu bestelako ikuskizunik. Jende behartsua, minak hautsia, mespretxatua, agian ezinezko ziren aldaketen bila... Eta, bat-batean, harriturik entzun dute beren egoeran eskandalagarriena duten hitza: «Zorionekoak», «zoriontsuak». Eskandalagarria eta, are, iraingarri irudi zekiekeen. Halaz guztiz, «zoriontsu» delako horrek, Jesusek esanik, poza eman die, kontsolamendua eta indarra eman dizkie bidean aurrera jotzeko eta bizi-tzako zailtasunei aurre egiteko. Izan ere, beraien anaia bihurtu den baten hitza dela sumatu dute, munduan beraien ondoan eta alde jartzea hautatu duen baten hitza dela.

[Hebrearrei 11,32-40: Sinesmenaren bidez menperatu zituzten erreinuak. Jainkoak guretzat zerbait hoberik erabakita zuen.

Sal 30: Bizkor zaitezte, izan bihotz, Jaunagan uste on duzuen guztiok.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,1-20.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak itsasoaz bestaldera joan ziren, gerasatarren lurraldera. Jesus ontzitik jaitsi zeneko, espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat atera zitzaion hilobi artetik bidera. Hilobietan bizi zen, eta ezin zuen inork lotuta eduki, ezta kateaz ere; askotan lotua zuten girgiluz eta katez, baina hark kateak hautsi eta girgiluak puskatu egiten zituen, eta ez zen inor ere hura menperatzeko gauza. Gau eta egun, hilobi artean eta mendiz mendi ibili ohi zen etengabe, marrumaka eta bere burua harriz zauritzen.

Urrutitik Jesus ikustean, lasterka joan eta aurrean ahuspeztu zitzaion. Eta oihu handiz esan zion: «Zer duzu nirekin, Jesus, Goi-goiko Jainkoaren Seme horrek? Jainkoarren, ez nazazu oinazetu». Izan ere, Jesusek honela agindu baitzion: «Atera gizon honengandik, espiritu gaizto hori!»

Orduan, Jesusek galdetu zion: «Nola duzu izena?» Hark erantzun: «Taldea, asko gara-eta». Eta arren eta arren eskatzen zion, ez zitzala lurralde hartatik kanpora bidal.

Txerri-talde handia zebilen mendi inguru hartan, uxarrean. Espiritu gaiztoek eskatu zioten Jesusi: «Bidal gaitzazu txerrietara, beraietan sar gaitezen». Hark baimena eman zien; orduan, espiritu gaiztoak gizonagandik atera eta txerrietan sartu ziren,

eta txerri-taldea ezpondan behera itsasora amildu zen; bi milaren bat txerri ito ziren.

Txerrizainek ihes egin eta gertatuaren berri zabaldu zuten herrian eta auzoetan; eta jendea, zer gertatu zen ikustera etorri zen. Jesusengana iristean, han ikusi zuten deabruduna, eserita, jantzirik eta bere onean, lehen deabru-taldearen menpe zegoen huraxe bera, eta biziki izutu ziren. Ikusi zutenek deabrudunari gertatua eta txerriena kontatu zieten. Orduan, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten Jesusi.

Jesus ontzira igotzean, deabrudun izanak arren eskatzen zion berarekin ibiltzen uzteko, baina Jesusek ez zion utzi; esan zion, ordea: «Zoaz etxera, zeure senitartera, eta jakinarazi Jaiunak, zutaz errukiturik, egin dizun guztia». Joan zen, bada, eta Jesusek egin ziona hots egiten hasi zen Dekapolisko lurraldean. Denak harriturik gelditzen ziren.

Jesusen miraririk harrigarrietakoa da mirari hau. Markosek ez du baztertu xehetasunik deabrudunaren egoera deskribatzeko orduan: bere onetik aterarik, garrasika, bere buruari kalte eginez dago. Jesusek aldaketa errotikoa eskaini dio, ebanjelariak hiru hitzetan bildua: «eseririk, jantzirik eta onik». Alienazio-egoera batetik duintasun-egoera batera, norberaren duintasunaren jabe izatera etorria. Gauza gutxik zauritzen dituzte ikusmena eta bihotza, bere duintasunaren kontzientzia galdu duen pertsona batekin topo egiteak adina. Kristau onarena da, ez urruntzea eta begiak ez alboratzea, baizik laguntzea harrapatu zioten duintasuna berreskuratzen.

[**Hebrearrei 12,1-4:** Joan gaitezen, eraman handiz, dagokigun borrokaldira. **Sal 21:** Goretsiko zaituzte, Jauna,zure bila dabil-tzanek.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,21-43.**

Aldi hartan, Jesus itsasoaz bestaldera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion. Oraindik itsaso ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, arren eta arren eskatzen zion: «Alabatxoa hiltzorian dut; zatoz haren gainean eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». Jesus harekin abiatu zen.

Jende asko zihoakion ondoren, estutzen. Bazen han emakume bat, hamabi urte haietan odol-jarioz zegoena. Hamaika sendagile-ren eskuetan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusen berri entzunda, jende artean atzetik joan eta jantzia ukitu zion, bere artean baitzioen: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean.

Berehala antzeman zion Jesusek halako indar bat atera zitzaiola barnetik eta, jende artean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?» Ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi, eta nork ukitu zaituen galdetzen duzu?» Baina Jesus ingurura begira zebilen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar –ongi baitzekien zer gertatu zitzaion–, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Baina Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza».

Oraindik hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil zaizu alaba. Zertako eman neke gehi-ago Maisuari?» Baina Jesusek, hitz horiek entzunik, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez izan beldurrik; zuk sinetsi!»

Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedro, Santiago eta honen anaia Joani izan ezik.

Sinagogako buruzagiaren etxera iristean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zien: «Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskata dago hilda, lo dago». Haiek barre egiten zioten.

Baina Jesusek denak kanpora bidali zituen eta, neskatxaren aita-amak eta berekin zituenak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. Neskari eskutik heldu eta esan zion: «Talitha, kum» (hau da: «Neskata, zuri diotsut, jaiki). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. Jesusek zorrotz agindu zien inork ere ez zezala jakin. Eta neskatxari jaten emateko esan zien.

Pasadizo luzea: zirrara eragiten du emakume odoljariodunari dagozkion 26 eta 28-29 txatalen arteko kontrasteak. Errepara diezaiozun: batetik, «asko sufritua zen... zuen guztia gastatua, hobera egin gabe»; bestetik, «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz. Bat-batean gelditu zitzaion odol-jarioa». Aldea? Fedea, Jesusekiko fedea. Nola gogorarazten dizkidan pasadizo honek hainbat eta hainbat pertsona: urtetako tratamenduaren eta ahaleginen ondoren hasi izan dira beren buruan eta eraldatu dituen Norbaitengan sinesen... Baztertuei agertu dizkiegun gure txera eta hurbiltasuna gai al dira beren bizia berreskuratzeko behar duten fedea sustatzeko?

OTSAILA / ZEZEILA



[Hebreatzei 12,4-7.11-15: Jainkoak maite duena zentzarazten du. Sal 102: Jaunaren maitasuna betidanik betidaino beldur diotenentzat.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok, harriturik, zioen: «Nondik du honek hori guztia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitartean eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinesgogorkeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

Paradoxikoa da ebanjelio hau. Alde batetik, miresgarria da Jesusen irakaspena: «Zer jakinduria da hori?»; egintzak ere laudagarriak dira: «bere eskuez egin dituen mirari horiek». Bestetik, halaz guztiz, «mesfidantza agertu diote». Zein azalpen izan lezake horrelako paradoxa batek: «jendearen fede-ezak» eta beraien aurreiritzien ugaritasunak: «ez al da, ba, hau arotza?»... Testu hau eszena alde batean nahiz bestean kokatuz kontenpla genezake; kasu bietan interpelatzen gaitu. Ebanjelioaren hartzaile bezala jartzen bagara, aurreiritzitik baloratzen hasteko geure tentazioa ohartarazten digu. Ebanjelioaren lekuko bezala jartzen bagara, irakasgai bat dakarkigu geure arrakasta-usteentzat eta geure porrotak bizitzeko dugun moduz.

Urteko 4. astea.

Osteguna / Eguena.

JAUNAREN AURKEZPENA.

Kandelen bedeinkapena eta elizbira.

Canterburyko Lorentzo santua, *gotzaina*.

§ Malakias Profetaren liburutik 3,1-4.

Honela mintzo da Jaungoiko Jauna: «Begira, hor bidaltzen dut nik neure mezularia neure aurretik bidea prestatzera. Berehala etorriko da santutegira zuek bila zabiltzaten Jauna, eta zuek irrikatzen duzuen itun-mezularia. Horra non datorren – dio diren guztien Jaunak–. Nork jasan haren etorrera-eguna? Nor zutik egon, hura etorriko denean? Urtzailearen sua bezala izango da, lixibagilearen zurigarria bezala; zilarra eta urrea bezala garbituko ditu Leviren semeak, eta behar bezala eskainiko diote opari Jaunari. Orduan atsegin izango zaio Jaunari Judako eta Jerusalemgo oparia, lehengo urteetan bezala».

[Sal 23: Gudari taldeen Jauna, bera da Errege ospetsua.]

§ Hebrearrei 2,4-18.

Familia berekoek odol eta haragi bat-bera dute, eta Jesusek ere gure odola eta haragia hartu zituen, bere heriotzaz heriotzaren nagusi den deabrua ezerezteko, eta heriotza-beldurrez bizitza guztian morroi zeudenak askatzeko. Eta bere eskua luzatu die, ez aingeruei, Abrahamen jatorriari baizik. Horregatik, gauza guztietan senideen antzeko izan behar zuen, errukior izan zedin eta Jainkoaganako gauzetan apaiz nagusi leial, herriaren bekatuak ordaintzeko. Berak, tentaldiak eta oinazeak izan zituelako, lagun diezaieke tentaldian daudenei.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasek liburutik 2,22-40.

Mariarentzat, Moisesen Legearen arabera, garbikundeko egunak bete zirenean, gurasoek Jerusalemerra eramane zuten Jesus, Jau-

nari aurkezteko –Jaunaren Legean idatzirik baitago: «Lehen semea Jaunari eskainia izango da»–, eta opari egiteko –Jaunaren Legeak agintzen duen eran: «Bi usapal edota bi usakume»–. Simeon ize-neko gizon bat bizi zen orduan Jerusalemen, gizon zintzo eta jainkozalea, Israelen poza itxaroten zuena, eta Espiritu Santua berekin zuena. Espiritu Santuak adierazi zion ez zuela heriotzarik ikusiko, Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda jauretxe-ra joan zen. Gurasoek Jesus eraman zutenean, Legeak agindua harekin betetzera, hartu zuen Simeonek haurra besoetan eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez: «Orain utz dezakezu, Jauna, / morroi hau bakean joaten, / zeuk hitzeman bezala. / Ikusi baitute nire begiok zugandiko salbamena, / herri guztien aurrean ipini duzuna: / Atzerri-tarrak argitzeko argia, / eta zure herri Israelen edergarria».

Jaunaren Aurkezpenaren jai honetako irakurgaiak, Jesusen haurtzaroko ebanjelio guztiak bezala, trinkotasun teologiko handikoak dira. Beste alderdi batzuen artean, Jainkoaren jokabidearen paradoxa handietako batzuk aurkezten dizkigu.

Malakias profetaren iragarpen handios hau, «Santutegian sartuko da zuek bilatzen duzuen Jauna»..., honela gauzatu da: adin handiko bi pertsonentzat salbu, oharkabekoa izan den haur pobre bat sartzearekin. Moisesen legearen aginduak leial eta zehatz bete izanak gairitu hori lege berori, kontraesan eta ulermen-eza eta guzti. Israelen erdigunetik beretik, Jerusalemgo Tenplutik, bidea ireki zaio nazioen salbazioari. Salbatzaileak ez du ezarri bere burua bere anai-arreben gainean, baizik eta haien antzeko izatera jo du gauza guztietan, batez oinazearen proban.

Geure burua Jainkoari sagaratzea ezin gertatu da Jesusena bezalako bidetik ez bada. Sarritan alde batera utzi nahi izaten ditugun paradoxa horietako asko geure-geure eginez. Ez da besteengandik apartatzen gaituen sagarapen bat, baizik eta sakonkiago bihurtzen gaituena giza-koi. Ez diogu sagaritzen geure burua enpresa pribatu bati, baizik eta egitasmo unibertsal bati. Ez dugu egiten arau batzuei lotutako sagarapen bat, baizik eta arau guztiak nahi ditut gairitu maitasunez

Urteko 4. astea.

Ostirala / Barikua.

San Blas, *gotzaina eta martiria*.

San Oskar, *gotzaina*.

Santa Claudina Thévenet, *fundatzailea (Jesus-Maria)*.

[Hebrearrei 13,1-8: Jesu Kristo berbera da atzo eta gaur; berbera gizaldi eta gizaldietan. **Sal 26:** Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,14-29.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes erregeak Jesusen berri, honen izena oso ezaguna baitzen. Batzuek zioten: «Joan Bataiatzailea piztu da hildakoen artetik; horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori». Beste batzuek, berriz: «Elias da». Eta beste zenbaitek: «Profeta da, antzinako profetak bezalakoa». Iritzi hauek entzutean, Herodesek zioen: «Nik lepoa moztu nion Joan huraxe piztu da».

Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaren emaztea edukitzea».

Horregatik, gorroto zuen Herodiasen Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion.

Etorri zitzaion, ordea, Herodiasi aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudaiburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzari egin zuen, eta atsegin izan zitzaion Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatxari: «Eskatu

nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin eginez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskaxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?» Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua».

Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe berean Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion, eta azpilean ekarri zuen burua; neskaxari eman zion, eta neskaxak amari.

Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

«**E**gindako zinagatik eta gonbidatuengatik...»: itxura txar bat ez emateagatik. Asko inplikutzen ez gaituzten irakurketak egin ditzakegu kontakizun honetaz: boteretsuak eta profetak direla, luxuria dela... Egia dira horiek ere, baina zerbait gehiago eskatzen digun irakurketa bat iradoki nahi dut: «itxura txarrik ez eman», «itxura ona eman». Itxura txar bat ez emateagatik, errore bat ez aitortzeagatik, erabaki batean atzera ez egiteagatik, «gertatua gertatu»: geuk ere egin ohi diogu jendeari zapalketarik eta kalterik, baita maite dugun eta aintzat hartzen dugun jende bati berari ere. Kontrolik gabeko «ego» bat, «ni» bat, «ego» krudela izan ohi da beti, maila handiagoan edo txikiagoan.

Urteko 4. astea.

Larunbata / Zapatua.

Joana Valois-koa, *erregina*.

San Joan Brito, *jesuita, martiria*.

[Hebrearrei 13,15-17.20-21: Artzain handia hildakoen artetik atera duen bakearen Jainkoak, gai egin zaitzatela on guztirako. **Sal 22:** Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,30-34.

Aldi hartan, apostoluak Jesusengana bildu, eta egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik, leku baztertu batera, atsedean pixka bat hartzera». Askok baitziren zetozenak eta zihoazenak, eta jateko ere ez zieten astirik uzten. Eta itsasontzi batean leku baztertu eta baketsu batera joan ziren. Askok ikusi zituen joaten, eta ezagutu ere bai, eta oinez lasterka han bildu ziren hiri guztietatik, eta aurrea hartu zieten. Ontzitik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen, artzainik gabeko ardiak bezala baitzeuden. eta luze irakasten hasi zitzairen.

Ebanjelio honetan sakonkienik iradoki didan hitza azkena izan da: «luze». Patxadaz. Ez zuen aurreikusia. Jendeak huts eragin dizkio Jesusi bere atsedean-asmoak; halere, jendeari «luze» irakasteari ekin dio. «Luze» eta patxadaz jardun ohi gara axola zaigun jendearekin; laburtzera jotzen dugu zerbait pasadizokotzat, eginbide hustzat, ematen dugunean; alabaina, «luze» entzutea, pazientziaz eta luze hitz egitea seinale izan ohi dira: delako pertsona hori axola zaigula. Eta «artzainik gabeko ardi» horiek dira Jesusentzat inportanteenak, kasurik txikiena egiten zaienak direlako, beraren garaiko artzainen ustean halakoekin denbora galtzea merezi ez duen gauza delako...

§ Isaias 58,7-10.

Honela mintzo da Jauna: Eman zeure ogitik gose denari eta hartu etxean aterperik gabeko behartsuak; jantzi biluzik dagoena, eta ez egin entzungor zeure gizakideari. Orduan zure argia egunsentia bezala zabalduko da eta zure osasuna berehala erneko; justizia izango duzu aurretik gidari eta Jaunaren aintza atzetik babesgarri.

Orduan zuk dei egin, eta Jaunak erantzungo dizu; zuk oihu egin, eta hark esango: «Hemen nauzu!» Uztarri oro, salaketak eta gaizki esateak baztertzen badituzu, gose denari zeure ogitik ematen eta behartsuaren premia asetzen baduzu, zure argia ilunpetan zabalduko da eta zure ilunaldia eguerdi bihurtuko.

[Sal 111: Zintzoentzat ilunpean argia bezala sortzen da.]

§ San Paulok 1 korintoarrei 2,1-5.

Senideok: Niri dagokidanez, Jainkoaren salbamen-asmoa iragartzera joan nintzaizuenean, ez nizuen hitz egin giza jakinduriarako hizkera landua erabiliz. Izan ere, zuen artean ez nuen ezer jakin nahi izan Jesu Kristo, eta berau gurutziltzatua, izan ezik.

Horregatik, ahul eta beldurrez dar-dar agertu nintzen zuen aurrean. Nire hitza eta predikua ez ziren giza jakinduriarako argudiotan oinarritu, Espirituaren indarrean baizik, horrela, zuen sinesmena Jainkoaren indarrean oinarritu zedin eta ez giza jakindurian.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurra-
ren gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez

du jadanik ezertako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baizik.

Zuek zarete munduaren argia. Ezin da ezkutatu mendi gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean ipintzeko, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien.

Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita goretz dezaten».

Lehen irakurra argi urratzaile batez mintzo da, barnetik eta kanpotik. Argi indartsua, egunsentikoa bezalakoa, gauaren iluna urratzen duena, ilunena izan delarik ere gaua. Eta barneko iluna eraldatzen duena, eguerdiko distira argi eta bero bihurtuz.

Jesusek, ebanjelioan, argi gu geu izatera dei egiten digu. Gu geu izatera argi; ezer eskatuko ez balu bezala! Argitzen gaituen kanpotiko argi bati irekirik bizitzea bakarrik ez, ezta kanpoko argia iragaten uzte duen ispilu bakarrik ere. Ez, gu geu argi izatera.

Isaiasen profeziak pista bat ematen digu nola izan argi, beste batzuen gaua urratuko duena, geure barne iluna desegingo duena. Eta pista hori ez da zuzentasuna baizik, zuzentasunarekiko bizi-konpromisoa baizik, garai hartan gaur bezain zehatza: «ogia banatu gose denarekin, ostatu eman aterperik gabeari, jantzi biluzia». Kristo gurutziatzatuaren jakinduria da, eta ez hitz politen edota hitzaldi erudituen jakinduria. Gurutziltzatuaren jakinduria gurutzean josiak direnekin eta direnentzat. Zuzentasunaren jakinduria. Gure aldi honetako iluna argitzen duena, gure bizitza argi eta zentzuz betetzen duena.

Urteko 5. astea.

Astelehena.

San Martin Igoakundekoa (Beasain 1567-Japonia 1597) eta San Paulo Miki, erlijiosoak, eta lagunak, *santuak; dohatsuak*: Karlos Spinola eta Sebastian Kimura, *apaizak, eta lagunak, martiriak*.

[**Hasiera liburutik 1,1-19:** Jainkoak esan zuen, eta hala egin zen. **Sal 103:** Poztu bedi Jauna berak eginetan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik **6,53-56**.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak, itsasoa igarorik, lehorrera iritsi ziren Genesareten, eta hantxe gelditu ziren.

Ontzitik atera zireneko, batzuk, Jesus ezaguturik, inguru hartan batera eta bestera hasi ziren, eta gaixo zeudenak esku-ohetan ekartzen hasi zitzaizkion, Bera zegoen lekura. Eta Jesus joaten zen herrixka, herri eta auzoetan, gaixoak larrairetan ipintzen zizkieten, eta soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten; eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

Hurbiltasuna. Sendatzen duen hurbiltasuna. Jesusek bizitzan agertu duen jokabidearen ezaugarri berezietakoa eta jarraikienetako da. Hurbiltasuna: sufritzen ari direnei gerturatzeko aukera ematen die-na; hurbiltasuna: muga sozial, kultural eta erlijiosoak desegiten ditue-na. Izan ere, maitasunak, bere barne dinamikan, hurbiltasuna eskatzen du. Jesusen «jokabide» hori oso interpelagarria da Elizarentzat; hontan, hain juxtu, hurbiltasuna askotan uxatzen dute urruntasunak eta protokoloak. Edota, beste modu batean esanik, botereak irabazi dio partidua maitasunari. Aginduak emateko botereak, eta ez sendatzeko botere edo ahalmenak.

Urteko 5. astea.

Asteartea / Martitena.

San Amant, *gotzaina (Baionako elizbarrutian).*

San Rikardo, *erregea.*

[**Hasiera liburutik 1,20–2,4a:** Egin dezagun gizona, geure antz eta irudiko. **Sal 8:** Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena, lurbira osoan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik **7,1-13.**

Aldi hartan, bildu ziren Jesusengana fariseuak eta Jerusalemdik etorritako lege-maisu batzuk, eta ikusi zuten, ikasleetako batzuk esku zikinekin –hau da, eskuak garbitu gabe– jaten zutela. Orduan, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten: «Zure ikasleek zer dela-eta ez dituzte gordetzen zaharren ohiturak, eta zergatik jaten dute esku zikinekin?» Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleak! Ederki asko esan zuen Isaias profetak zuetaz. Idatzirik baitago: “Herri honek ezpainez goresten nau, / baina bihotza urruti dauka nigandik. / Hutsa da ematen didaten gurtza, / gizakien agindu diren irakatsiak / irakasten baitituzte”. Jainkoaren aginduak alde batera utzi, eta gizakien ohiturak gordetzen dituzue». Esan zien, gainera: «Bai, Jainkoaren agindua ezeztatzen duzue, zeuen ohiturak gordetzeagatik. Moisesek esana da: “Aintzat har itzazue aita eta ama”; eta “Aita edota ama madarikatzen duenak heriotza merezi du”. Zuek, berriz, hau esaten duzue: “Norbaitek aitari edota amari esaten badio: Nigandik izango zenukeen guztia jauretxeari eskaintzen diot”, halako horri ez diozue uzten aita-amengatik ezer egiten. Hone-la, Jainkoaren hitza ezeztatzen duzue zeuen ohiturengatik. Eta honelako beste gauza asko egiten duzue».

«Ezpainez ohoratzen nau, baina...». Aitortu beharra dut, batzuetan benetan harritzen naizela gauza asko zein arin esaten eta, batez ere, kantatzen ditugun pentsatzeaz... eguneroko bizitzan joan-etorri handikoak eta zailtasun handikoak diren gauzak. Eta uste izaten dugu, esate edo kantatze hutsa aski izaten dela. Geure artean pentsatzean, jardutean edota harremanetan izaten dugun arintasunak kutsatu egiten du Jainkoarekiko gure harremana otoitzean eta bizitzan. Horregatik, gaurko ebanjelioan dei bat nabari dut kristau-bizitza «sakonago» batera, «barnekoago» batera.

Urteko 5. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

San Jeronimo Emiliani, *aitorlea (umezurtzen eta gaztedi utziaren zaindaria).*

Santa Josefina Bakhita, *erlijiosa.*

[**Hasiera liburutik 2,4b-9. 15-17:** Jainko Jaunak gizona hartu eta Edengo baratzean ipini zuen. **Sal 103:** Ene arima, goretsazu Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik **7,14-23.**

Aldi hartan, Jesusek berriro jendeari dei egin eta esan zion: «Entzun guztiok, eta adi ezazue: ez da ezer, kanpotik sartuz, gizakia zikin dezakeenik; barnetik ateratzen denak zikintzen du gizakia. Entzuteko belarririk duenak, entzun dezala». Jendea utzi eta etxean sartu zenean, ikasleek parabolaren galdera egin zioten. Eta hark erantzun: «Beraz, zuek ere ezaguerarik gabe al zaudete? Ez al duzue ulertzen, kanpotik sartzen denak ez dezakeela zikindu gizakia? Ez baita bihotzean sartzen, sabelean baizik, eta handik zabor-zulora doa». (Honela, janari guztiak garbiak direla aitortu nahi zuen). Esan zuen ere: «Barnetik ateratzen denak, horrek zikintzen du gizakia. Barnetik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen baitira asmo txarrak: lizunkeriak, lapurretak, gaiztakeriak, maltzurkeriak, lohikeriak, bekaizkeriak, gaizki esateak, handikeriak, zorakeriak. Gaitz hauek guztiak barnetik ateratzen dira, eta hauek zikintzen dute gizakia».

Gure artean besteena izaten da sarritan errua! Besteak izaten dira okerrera eragiten digutenak; besteak edota bizitzako gorabeherak... Neke izaten dugu geure barnera begiratzea... Aldatzeko ere bai: gorabeherak eta kanpoko oztopoek indar handiago izaten dute gure barneko ahalak baino: hori izaten dugu geure zurbidea... Jesusen gaurko hitzek diote, jarrera hori jarrera «traketsa» dela... Barnez lan eginez ahalbide berriak lortuko ditugu: geure baitan egiati murgilduz aldatuko ditugu, gure ustez gainditzen gaituzten gauza horiek... Gainera, barne-lan horretarako, irekitzen ahal diogu ere atea Jainkoaren graziari eta uzten ahal diogu laguntzen. Prest?

Urteko 5. astea.

Osteguna / Eguena.

Santa Apolonia, *martiria*.

San Migel Febres Cordero (Migel anaia),
erlijiosoa.

[Hasiara liburutik 2,18-25: Aurrera eraman zion gizonari emakumea. **Sal 127:** Dohatsu, Jaunaren beldur dena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik **7,24-30**.

Aldi hartan, Tiroko lurraldera joan zen Jesus. Etxe batean sartu zen, eta ez zuen nahi inork jakitea, baina ez zuen ezkutuan egoterik izan. Berehala, haren berri entzunik, emakume bat etorri zitzaion, alabatxo deabru lohi batek hartua zeukana, eta oinetara ahuspeztu zitzaion. Jentila zen emakumea, Feniziako siriarra sortzez, eta alabagandik deabrua haizatzeko eskatzen zion. Jesusek erantzun zion: «Utzi lehenbizi seme-alabak asezten; ez dago ondo seme-alaben ogia hartu eta txakurrei botatzea». Baina, emakumeak erantzun zion: «Egia, Jauna; baina txakurkumeek ere jaten dituzte mahaipean umeen apurrak». Orduan Jesusek: «Zoaz, hitz horregatik atera da-eta deabrua zure alabagandik». Joan zen etxera, eta neskak ohean etzana aurkitu zuen; deabrua, berriz, alde egin zen.

Jesusen lehen hitzak oso gogorak dira: «ez da gauza egokia seme-alaben ogia txakurrei botatzea». Imajina dezagun zein latz jo zuten hitz horiek emakume haren belarria, jadanik aski mindua zelarik alabaren gaixotasunagatik. Ukoa, mespretxua, dezepzioa... dena batera. Eta orain dator gauza txundigarria, emakume honen nolakotasuna adierazten duena: txistua tragatu, bere harrotasuna irentsi eta ez du etsi, Jesusen iruzkin mespretxuzkoa bera erabiliz. Handiagoa du alabarekiko txera bere harrotasuna baino, alabaren beharra bere hantustea edo umilazioa baino. «Horregatik» sendatu da alaba...

[Hasiera liburutik 3,1-8: Jaungoikoa adinako izango zarete, onaren eta txarraren jakitun. **Sal 31:** Bai dohatsu, gaiztakeria barkatu zaiona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,31-37.

Aldi hartan, Jesus, Tiroko lurraldea utzi eta Sidondik igaro eta Dekapolisen barna Galileako itsasora etorri zen. Gorra eta hitz-motela zen gizon bat ekarri zioten, eta eskuak gainean ezartzeko eskatu. Jesusek, jende artetik bereiz harturik, behatzak belarrietan sartu zizkion, eta bere listuz mihia ukitu zion. Zerura begira, intziri eginez, esan zion: «Effetá» –hau da: «Ireki zaitez»-. Eta berehala ireki zitzaizkion belarriak, eta mihiko lotura askatu, eta hizketan hasi garbi-garbi. Inori ez esateko agindu zien Jesusek. baina haiek orduan eta gehiago zabaltzen zuten albistea. Eta harriturik, zioten: «Ondo egiten du dena: go- rrei entzunarazi eta mutuei hitz eginarazi».

Gaurko ebanjelioak eguneroko bizitzan sarritan jazo ohi den gertaera bat dakar: pertsona sorgor batek, hala delako hain juxtu, zailtasunak ditu hitz egiteko. Gauza bera gerta dakioko ebanjelizatzaileari, ebanjelioaren lekukoari: Jainkoaren hitzari irekirik bizi ez delako, doi-doi esan deza- ke gainerakoentzat esanguratsu den ezer. Entzutera jotzeko deia dugu gaur, entzutera ezinbestean, gure hitzak baliorik izango badu, esanahirik, zentzurik besteentzat. Asko da entzun beharrekoa, laguntzeko hitz gutxi batzuk esan ahal izateko. Gutxi, baina funtsezkoak. Entzuten ez badugu, ezertako ez den hitz-jario hutsa jaulkiko dugu.

[Has 3, 9-24: Jaunak Edengo baratzetik bota egin zuen gizakia, lurra landu zezan. Sal 89: Jauna, gure ihesleku Zu izan zara, gizalditik gizaldira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,1-10.

Egun haietan, berriro jendetza oso ugaria izanik eta zer janik ez, Jesusek bere ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau: badaramatzate hiru egun nirekin eta ez dute ezer ere jateko. Etxera baraurik bidaltzen badituzte, bidean akiturik geldituko dira, urrutitik etorriak ere badira eta».

Ikasleek esan zioten: «Baina nondik atera bakardade honetan hauek asetzeko adina ogi?» Hark galdetu zien: «Zenbat ogi dituzue?» Eta haiek erantzun: «Zazpi».

Orduan, jendeari lurrean esertzeko agindu zion. Gero, zazpi ogiak hartu eta, Jainkoari esker oneko otoitza egin ondoren, zatitu eta bere ikasleei eman zizkien, bana zitzaaten. Haiek jendeari banatu zizkioten. Bazituzten arraintxo banaka batzuk ere; Jesusek bedeinkatu zituen eta haiek ere banatzeko agindu zion.

Asetzeraino jan zuten denek, eta zazpi otarre bete zituzten hondarrekin. Lau mila inguru ziren. Ondoren, Jesusek agur egin zien, eta bere ikasleekin txalupara igo eta Dalmanuta aldera joan zen.

«**B**araurik bidaltzen badituzte, bidean eroriko dira...». Halere, jendeak «ase arte jan zuenean... agur esan zion». Segur aski, guk alderantziz jokatu izango genuen. Agur esan arazo bat sortzen digutenean eta sortzen digutelako; ez dio axola bidean zer gertatuko zaien ikusten ez badut,

eta, aitzitik, aserik daudenean, lausengatuko eta txalotuko gaituztela uste dugunean, geurekin eutsi. Aldea? Jendearen premiari kasu egin ala geure buruari. Ebanjelioaren araberako jokabidea, jendea guri axola izatea da premian denean, eta ez gure «ego»a asetzen duenean.

§ Sirak 15,16-21.

Nahi baduzu, gordeko dituzu aginduak, eta zintzo beteko Jaunaren nahia.

Hark sua eta ura jarri dizkizu aurrean; nora nahi, hara eraman dezakezu eskua.

Bizia eta heriotza daude gizakiaren aurrean jarriak; zer duen aukeratzen, huraxe emango zaio.

Handia da, bai, Jaunaren jakinduria, handia da haren ahalmena eta dena ikusten du.

Begirune diotenengan ditu jarriak begiak, gizakiak egindako guztia ezagutzen du.

Ez dio inori fedegabe izateko agindu, ezta inori bekatu egiteko baimenik eman ere.

[Sal 118: Dohatsu Jaunaren legean dabiltzanak.]

§ Paulok 1 korintoarrei 2,6-10.

Senideok: Jakinduria irakasten diegu guk kristau helduei; baina jakinduria hori ez da mundu honetakoa, ezta laster galduko diren mundu honetako agintariena ere. Guk Jainkoaren jakinduria misteriotsua irakasten dugu, Hark ezkutuan edukia eta betidanik gure aintzarako erabakia zeukana. Mundu honetako agintarietako inork ez du ezagutu jakinduria hori, zeren, ezagutu izan balute, ez baitzuten gurutziltzatuko Jainkoaren aintza berekin zuen Jauna.

Baina, Liburu Santuak dioen bezala, «inork ikusi eta entzun ez duena, gizakiari inoiz bururatu ez zaiona, Jainkoak bera mai-

te dutenentzat prestaturik zeukana», horixe agertu digu Jainkoak Espirituaren bidez. Espirituak, izan ere, guztia aztertzen du, baita Jainkoaren barren-barrena ere.

[Ebanjelioan kako artekoa utz daiteke irakurri gabe]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,17-37.**

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: [«Ez uste izan Moisesen Legea edota Profeten esanak baztertzer aitorria naizetik; ez naiz baztertzer aitorri, beren betera eramatera baizik.

Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, Legearen letra edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, guztia bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hautsi eta hausten irakasten duena, txikiena izango da zeruetako erreinuan; bete eta betetzen irakasten duena, berriz, handia izango da zeruetako erreinuan».]

Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: «Ez hil inor», eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; [senideari zoroa esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta sinesgabea esaten diona infernuko surako errudun izango da.

Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazaizu zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenengo senidearekin baakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia.

Konpon zaitetz lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zai-

tzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako, azken txanpona ordaindu arte».]

Entzuna duzue antzinakoei agindua: «Ez egin adulteriorik». Nik, ordea, hau diotsuet: Emakume bati irrikaz begiratzen diotnak egin du jadanik adulterioa bere bihotzean.

[Eskuineko begia galbide bazaizu, atera eta bota zeuregandik urruti: hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura jaurtia izan baino. Eskuineko eskua galbide bazaizu, moztu eta bota zeuregandik urruti: hobe duzu gorputz atal bat galdu, oso-osorik infernura joan baino.]

Agindua dago hau ere: “Emaztea uzten duenak eman diezaiola dibortzio-agiria”. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak –legez kontra elkartuak ez badira behintzat–, adulteriora bultzatzen du emaztea; eta utzitako emakumearekin ezkontzen denak adulterioa egiten du.]

Entzuna duzue antzinakoei agindu zitzaiena: “Ez egin gezurrezko zinik”, eta “bete Jaunari egindako zinak”. Nik, ordea, hau diotsuet: Ez egin inolako zinik, [ez zeruagatik, Jainkoaren tronua baita; ez lurrarengatik, haren oin-aulkia baita; ezta Jerusalemengatik ere, Errege handiaren hiria da eta. Ez egin zinik zeure buruagatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihur.]

Zuek esan ezazue “bai”, bai denean, eta “ez”, ez denean; gainerakoa gaiztoarengandik dator».

Nire lehen aholkua: ez diezaiogula kasurik egin «kako ([]) arteko testua utz daiteke» delako horri; izan ere, testu hori gabe ebanjelioa indargabeturik geldituko litzateke. Eta aski indargabetzen dugu jadanik bizitzan, irakurtzean ere gauza bera egiten hasteko.

Errotiko ala erdipurdiko, hondora jo ala azalean gelditu, jarrera saneatu ala kanpoko eginbeharra eta kodeak bete: hori da gaurko ebanjelioak egin digun desafioa.

Gure arazoa, hain juxtu, alde batera utzi behar ez dugun horretan dago, ez geure irakurketan, ez geure gaurko gogoetan. «Nik ez dut la-

purtzen»: bai, jakina, ez diot erasotzen inori pistola eskuan; baina tranpa egiten dut, diru beltzaz baliatzen naiz, salneurria faltsutzen dut. «Nik ez dut hiltzen»: bai, jakina, ez dut erabiltzen ez errebolberrik, ez puñalik; baina jendea suntsitzen dut neure iruzkinez, neure difamazioez, neure zuzengabekeriez, neure erruki-faltaz. «Nik ez dut adulteriorik egiten»: bai, jakina, ez naiz desleial formalki; baina ez naiz garbia nire harremanetan edota ez naiz egiatia edota konfiantza-falta eragiten eta gure harremanei azpia jaten dieten anbiguotasun artean ibiltzen naiz.

Jesusek errotikotasun xume eta ebanjelikora gonbidatzen gaitu: «bai» esaten dugunean, izan dadila «bai»; «ez» esaten dugunean, izan dadila benetan «ez».

[Hasiera liburutik 4,1-15.25: Kainek bere anaia Abeli eraso eta hil zuen. **Sal 49:** Eskain iezaiozu gorespen-oparia Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,11-13.

Aldi hartan, agertu zitzaizkion Jesusi fariseuak, eta eztabaidan hasi ziren. Azpikeriaz, zeruko ezaugarriren bat eskatzen zioten. Jesusek, barrutik antsika eginez, esan zien: «Zer ari da gizaldi hau, ezaugarri eske? Hara nik egia esan: ez zaio ezaugarririk emango». Eta haiek utzirik, berriro ontzian sartu eta beste aldera joan zen.

Zertako eskatzen dute seinale bat: beragan sinesteko ala bera agerian itsusi utzi nahiz? Ematen du, bigarren hau dutela gogoan: «probatzeko». Sarritan gertatzen den gauza da; geure burua zuritzeko arrazoi bila ematen dugun denboraren eta ahaleginaren erdia, geure bizitzan Jainkoaren presentziaren eta deien seinale bila zintzo emango bagenu, begi-bistakoago gertatuko litzaiguke Jainkoaren presentzia hori. Harrigarriki eta handi-mandi agertzea edo distiratzea gustatzen ez zaion Jainkoa da; alderantziz, eguneroko xumetasunean apal eta pazientziaz zain dugun Jainkoa da.

Urteko 5. astea.

Larunbata / Zapatua.

San Zirilo, *monjea* eta San Metodio, *gotzaina*.
(*Europako Zaindariak*).

San Valentin, *martiria*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 13,46-49.

«Zuei adierazi behar genizuen lehenengo Jainkoaren hitza; baina hitza baztertu eta zeuen buruak betiko bizirako gaitzat ez dituzuenez gero, jentilengana joko dugu. Hauxe agindu baitigu Jaunak: "Nazioen argitzat ezarri zaitut, salbamena lurraren bazterrerraino eramán dezazun"».

Hau entzutean, jentilak poztu egin ziren eta Jaunaren hitza goresten zuten. Eta betiko bizirako zirenek sinetsi egin zuten. Jaunaren hitza zabaltzen ari zen herrialde hartan guztian.

[Sal 116: Zoazte mundu guztira, eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta toki guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara. «Zoazte! Bildotsak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: "Bakea etxe honetakoei". Han bakezalerik baldin bada, haren gain kokatuko da zuen bakea; bestela, hutsean geldituko da zuen agurra. Geldi zaitetze etxe berean, eta jan eta edan dutenetik, zor baitzaio langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ongi hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: "Gainean duzue Jainkoaren erregetza"».

«Ekin bideari»... Ez ezazue eman bitza lantuka; lan handia dago egiteko eta gutxi gara, baliabideak falta ditugu, ez digute harre-
ra onik egiten eta jendea uzkur da esaten dugunarekiko... Pasibo eta ber-
tan goxo bizitzearen zuribidetzat kexura eta lantura jo ordez, erreparatu
guztioak bidaliak izatearen premiari eta Jainkoaren Erreinuaren iragarpena
gauzatua izan beharri. Gaurko ebanjelioa, azken batean eta beste behin
gehiago, betikoa da: begiratu gutxiago zeuen buruari eta begiratu aurrez
aurre jendearen beharrei

[**Has 8:** Begiratu zuen eta ikusi lurra lehortua zegoela. **Sal 115:** Eskainiko dizut, Jauna, gorespen-oparia.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,22-26.**

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Betsaidara iritsi ziren, eta itsu bat ekarri zioten, uki zezala eskatuz.

Jesusek itsuari eskutik heldu eta herritik kanpora atera zuen. Begiak listuz igurtzi ondoren, eskuak gainean ezarri zizkion eta galdetu: «Ikusten al duzu ezer?» Hark begiratu eta esan zuen: «Gizonak-edo nabaritzen ditut: zuhaitzak dirudite, baina ibili dabilta».

Orduan, berriro eskuak ezarri zizkion begietan eta argi ikusten hasi zen gizona; sendaturik gelditu zen, guztia garbi-garbi ikusten zuela. Jesusek etxera bidali zuen, herrian sartu ere ez egiteko aginduz.

«**E**skuak ezarri zizkion... bereizten hasi zen... Berriro ezarri zizkion eskuak.. garbi ikusten zuen...». Argigarri gertatu zait, gaurko ebanjelioak itsuaren sendatzea prozesu bezala agertu izana... hori baita giza bizitza: prozesu bat. Eta itsuari bere sendatze-prozesuan aurrera egiteko bide eman diona Jesusi ukitu dezan utzi izana da, eta uki dezan hain juxtu atal kaltetuan: «txistuz begiak igurtzi zizkion... eskuak begietan ipini zizkion»... Jesusek har gaitzan uztea, hain juxtu ere geure buruaren zatirik kaltetuenetan. Batzuetan ezkutatu egin nahi izaten ditugu... Bai zorakeria!

[Has 9,1-13: Nire ortzadarra ipintzen dut hodeietan, eta bera izango da lurrarekin egin dudan elkargoaren ezaugarri. **Sal 101:** Jaunak begiratu du lurrera zerutik].

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,27-33.

Aldi hartan, Feliperen Zesarea inguruko auzoetara abiatu zen Jesus bere ikasleekin. Bidean galdera hau egin zien ikasleei: «Ni nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek profetaren bat». Jesusek berriro galdetu zien: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara».

Jesusek inori ez esateko agindu zien zorrotz. Orduan, irakasten hasi zitzaien Gizonaren Semeak asko sufritu behar zuela; zahar, apaizburu eta lege-maisuek gaitzetsi egingo zutela eta hil; eta hiru egunen buruan piztu egingo zela. Argi eta garbi mintzatzen zitzaien honetaz.

Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion. Baina Jesusek, itzuli eta ikasleei begira, gogor eraso zion Pedrori, esanez: «Alde nire ondotik, Satanas! Zure asmoak ez dira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

Jesusek errieta egin dio Pedrori, baina aurretik Pedrok Jesusi egin diolako. Gogor eta zakar egin ere. Jesusek Pedrori esandako hitzak gogorrek dira eta latzak. Markosen ebanjelio honek ez digu esaten zer esan dion Pedrok Jesusi; gogorra izan behar zuen Jesusen aldetik horrela erantzuna jaso behar izateko. Askotan geuk ere haserre hitz egiten diogu Jainkoari, hitz zakarrak erabiliz, espero genuenari erantzun ez dionean edota gure bizitza konbentzitzen ez gaituen bidezidorretik eramaten duenean. Jesus, beti,

Jainkoaren asmoa gure begi aurrean jartzera etorri ohi da, gizakiak arrazoi-tsu espero duenarekin bat ez badator ere. Ez da izaten beti oso erraza hau ulertu eta onartzea.

Urteko 6. astea.

Ostirala / Barikua.

Andre Mariaren Zerbitzarien *Zazpi Fundatzaile Santuak*.

Amaseako (gaur egungo Amasia, Turkian) San Teodoro, *martiria*.

§ Hasiera liburutik 11,1-9.

Garai hartan mundu guztiak hizkuntza eta mintzaira berberak zituen. Ekialdetik etorririk, gizonak ibar bat aurkitu zuten Sinear lurraldean eta bertan kokatu ziren. Orduan, esan zioten elkarri: «Ea, adreiluak egin eta erre ditzagun suan». Eta, horrela, harriaren ordeztu adreilua erabili zuten, eta kare-orearen ordeztu bikea.

Gero, esan zuten: «Ea, eraiki ditzagun hiri bat eta zeru-rainoko dorre bat. Ospetsu egingo gara eta ez gara munduan zehar sakabanatuko».

Jaitsi zen Jauna gizonak eraikitzen ari ziren hiria eta dorrea ikustera, eta esan zuen: «Horra, guztiak herri bat bera dira, hizkuntza bat berekoak. Hau beren lehenengo lana badute, aurrerantzean ez zaie ezinezko gertatuko egin nahi izango dutenik ezer. Jaitsi eta nahas diezaiegun, bada, hizkuntza, elkar uler ez dezaten».

Horrela, Jaunak handik bota eta mundu zabalean sakabanatu zituen; hiria eraikitzeari utzi egin behar izan zioten. Horregatik, Babel, hau da, "Nahasketa" ezarri zioten izena, han nahasi baitzuen Jaunak mundu guztiaren hizkuntza, eta handik sakabanatu zituen mundu zabalera.

[Sal 32: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,34-9,1.

Aldi hartan, Jesusek jendeari eta ikasleei dei egin eta esan zien: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere

buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak, galdu egingo du; bere bizia nigatik eta Berri Onagatik galtzen duenak, ordea, gorde egingo du.

Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bizia galtzekotan? Eta zer eman dezake gizakiak bizia berriro eskuratzeko?

Beraz, norbait, gizaldi desleial eta bekatari honen aurrean, nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere Aitaren aintzaz beterik aingeru santuekin etorriko denean».

Eta honela amaitu zuen: «Egia diotsuet: Hemen direnetako batzuk ez dira hilko, Jainkoaren erreinua ahalmenaz etortzen ikusi arte.

«**B**izia gorde», «bizia galdu»...: hitz mardulak. Halere, askotan errealitate oso txikirekin kateatzen ditugu: gauza jakin batzuek ematen diguten segurtasuna dela, esku artean hartzen ditugun eginkizunen arrakasta dela... Hitz mardul horiek errealitate handiago batekin kateatzera gonbidatu gaitu Jesusek: berarekin konprometitzea, berari jarraitzea, bizitza eta zoria berarekin partekatzea. Fedezko aukera da, bizia aukeratzea da. Egiaztagarria, soilik «gero hartan»? Ez: egiaztagarria, zentzuz eta pozez beterik egunez egun. Baina hautatu egin behar, aukeratu..., hau ere egunez egun.

Urteko 6. astea.

Larunbata / Zapatua.

San Simeon, *Jerusalemgo gotzaina.*

Fiesoleko Joan dohatsua (Frai Angelico), *erlijiosoa.*

§ Hebrearrei 11,1-7.

Senideok: Itxaroten dugunaren oinarria da sinesmena, ikusten ez direnen froga. Sinesmenagatik onetsi zituen Jainkoak gure arbasoak.

Sinesmenari esker ulertzen dugu bere hitzez eratu zuela Jainkoak mundua; beraz, ageri dena ageri ez denetik sortua da.

Sinesmenari esker, Abelek Kainek baino opari hobea eskaini zion Jainkoari; horregatik, Jainkoak zintzotzat aitortu zuen Abel eta onartu egin zituen honen eskaintzak; eta sinesmenari esker hitz egiten du Abelek, hil eta gero ere.

Sinesmenari esker eraman zuen Jainkoak Henok, heriotzarik jasan gabe; desagertu egin zen, Jainkoak eramanik. Baina, eramana izan zela esan aurretik, Jainkoak nahi bezala jokatu zuela esaten du Liburu Santuak. Izan ere, sinesmenik gabe ezinezkoa da Jainkoaren gogoko izatea, zeren Jainkoari hurbiltzen zaionak sinetsi egin behar baitu hura badela eta beraren bila dabilzanei saria ematen diela.

Sinesmenari esker, Noek, oraindik ikusten ez ziren gauzen berri jakinik, Jainkoaganako begirunez, ontzia egin zuen etxe-koak salbatzeko. Bere sinesmenaz gaitzetsi egin zuen mundua eta sinesmenetik datorren salbamenaren oinordeko egin zen.

[Sal 144: Bedeinkatuko dut zure izena betiere.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,2-13.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi garai batera eraman zituen beraiek baka-

rrik. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean. Jantziak distiratsu bihurtu zitzaizkion, zuri-zuri, munduan inork jar ditzakeen baino zuriago. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat». Ez zekien zer esaten zuen; izan ere, zeharo beldurrak harturik zeuden.

Orduan, hodei batek estali egin zituen, eta ahots bat aterra zen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea. Entzuoizue». Eta hartan, ingurura begiratu eta Jesus bakarrik ikusi zuten eurekin, beste inor ez.

Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte. Agindu hori bete zuten, baina elkarri galdeztzen zioten zer izan ote zitekeen «hilen artetik pizte» hori.

Eta galdetu zioten: «Zergatik diote lege-maisuek lehenbizi Eliasek etorri behar duela?» Jesusek erantzun: «Bai, lehenbizi Eliasek etorri eta dena Jainkoak nahi bezala eraberrituko du. Baina, nola dio Liburu Santuak Gizonaren Semeak asko sufritu behar duela eta arbuiatua izan? Bada, hau diotsuet: Elias etorria da, baina gogoak emandako guztia egin diote, hartaz idatzia zegoen bezala».

«**H**au da ene Seme maitea: entzuoizue». Testuinguru handios eta kontsolatzailean («bai ondo gaudela hemen!»), agindu hau Aitagandik hartu dute apostoluek. Ez zaie beti atsegina gertatuko Jesusi entzutea. Herenegun, Jesusen hitzen aurka jaikitzen ikusi genuen Pedro. Kontenpla dezagun, menditik beherakoan, lehenik entzun dutena: «ez esan ikusi duzuen»: zuen barnea adoretzeko esperientzia izan duzue hau, eta ez inori agertzeko eta honetaz harrotzeko... eta, berriro, «gizonaren Semeak asko sufritu behar du»... Jesusen hitza ez da izaten beti, ez lausengu bat belarrirako, ezta erraza ere onartzeko.

§ Levitarrak 19,1-2. 17-18.

Jauna mintzatu zitzaion Moisesi: «Esan israeldarren elkar-te osoari: "Izan zaitezte santu, Ni, Jauna, zuen Jainkoa, santua naiz eta.

Ez izan bihotzean gorrotorik zeure senidearentzat; baina zentzarazi zeure herritarra, haren bekatuen erantzukizunik izan ez dezazun. Ez egin mendekurik, ez izan erresuminik zeure herritarrarentzat. Maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala. Neu naiz Jauna"».

[Sal 102: Errukior da Jauna, eta gupidatsu.]

§ San Paulok 1 korintoarrei 3,16-23.

Senideok: Ez al dakizue, Jainkoaren tenplu zaretela eta Jainkoren Espiritua zuengan bizi dela? Jainkoaren tenplua hondatzen duena, hondatu egingo du Jainkoak, Jainkoaren tenplua santua baita: tenplu hori zeuek zarete.

Ez beza inork bere burua engaina. Zuetako norbait mundu honen arabera jakintsu dela uste badu, egin bedi zoro, egiaz jakintsu izateko. Izan ere, mundu honetako jakinduria zorakeria da Jainkoaren aurrean, Liburu Santuak dioen bezala: «Beren maltzurkerian harrapatzen ditu jakintsuak». Eta beste hau ere badio: «Badaki Jaunak jakintsuen asmoak hutsalak direla».

Beraz, ez bedi inor gizakiez harrotu, dena zuena baita: Paulo, Apolo, Pedro, mundua, bizitza, heriotza, oraingoa eta gero-koa; guztia zuena da. Zuek, ordea, Kristorenak zarete, eta Kristo Jainkoarena.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,38-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain”. Nik, ordea, hau diotsuet: Gaizkileari ez erantzun gaizki; bestela baizik, eskuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere; norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz erasotzen dizuetenen alde zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme eta alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria.

Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruetako zuen Aita guztiz ona den bezala».

Zenbait kasutan, letra bakar batek, hitz jakin bat ez ezik, irakurtzen ari garen testu osoaren zentzua aldatzen du. Errepara diezaiogun gaurko ebanjelioko azken esaldiari: «Izan zaitezte guztiz onak, zeruetako zuen Aita guztiz ona den bezala».

Askotan hartu izan dugu esaldi hau «Izan zaitezte guztiz onak, zeruetako zuen Aita “bezain” onak». Ezinezkoa da eta izango da hori; horrela hartuko bagenu, ezinezko gauza bat eskatzen ariko litzateke Jesus, eta ezinezko zerbait eskatzen dizunari hobe kasurik ez egitea: frustrazioa eragiten du horrek.

Uste dut, Jesus beste gauza bat ari dela esaten: Izan zaitezte guztiz onak, zeruetako zuen Aita guztiz ona den bezala». «Bezain»en eta «be-

zala»ren arteko aldea ez da letra batzuen aldea bakarrik, baizik eta erabat aldatzen du zentzua. «Izan on-onak zuen aita on-ona den tankeran edo eran». Ipini eta bilatu ontasuna Aitarentzako ontasuna den hartan: doako maitasuna, maitasunean doakotasuna.

Jesusen jarraitzailearen ontasuna maitasun-ontasuna da, eta kristau-maitasunaren ontasuna maitasunaren doakotasuna da. Hori ere ez da gauza erraza, jakina, baina «bezain» delakoaren haritik, helmugara iristen ez baza, porrot egina dukezu; «bezala» delakoaren haritik, berriz, helmuga baterantz ari zara bide egiten, eta bide egiteak berak badu zentzurik.

Urteko 7. astea.

Astelehena.

San Leon, *gotzaina*.

Fatimako Hiazinta eta Frantzisko, *dohatsuak*.

§ Ben Sirak 1,1-10.

Jakinduria guztia Jainkoagandik dator,
Harekin dago beti.
Itsas hondarra, euri-tantak,
mendez mendeko egunak, nork zenbatu?
Zeruaren garaiera, lurraren zabalera,
itsasoaren sakonera, nork neurtu?
Gauza guztien aurretik sortua da jakinduria,
betidanik adimena eta zuhurtzia.
Jakinduriaren sustraia nori eman zaio aditzera?
Haren ekintza trebeak, nork ezagutu?
Bat bakarra da jakintsua, biziki beldurgarria:
Jauna, bere tronuan eseria dagoena.
Berak sortu zuen jakinduria,
hark ikusi eta neurtu ere,
Hark banatu berak egindako guztien gain;
gizaki guztiei eman die bere eskuzabaltasunez,
eta are esku zabalagoz maite dutenei.

[Sal 92: Errege da Jauna, jantzi da handikiro.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,14-29.

Aldi hartan, Jesus menditik jaitsi eta ikasleengana iritsi zenean, jendetza handia ikusi zuen haien inguruan, eta lege-maisu batzuk haiekin eztabaidan. Jendea harriturik gelditu zen Jesus ikustean eta lasterka joan zitzaizkion agurtzera. Jesussek galdetu zien: «Zer zenuten horiekin eztabaidan?»

Jendarteko batek erantzun zion: «Maisu, hemen ekarri dizut neure semea: hitzik egiten uzten ez dion espiritua dauka. Non edo han espiritua jabetzen zaionean, lurrera botatzen du, eta mutikoa, lerdea dariola eta hortz-karraska, gogor-gogor gelditzen da. Zure ikasleei eskatu diet espiritua botatzeko, baina ezin izan dute».

Jesusek esan zion: «Hau gizaldi sinesgogorra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarri mutila». Ekarri zioten, eta espirituak, Jesus ikustearekin batera, gogor astindu zuen mutikoa, eta lurrian iraulka eta lerdea zeriola utzi.

Jesusek galdetu zion aitari: «Noiztik dago horrela?» Hark erantzun: «Ume-umetandik. Askotan bota izan du sura eta urera ere, hilarazteko. Ezer egin ahal baduzu, erruki zaitez gutaz eta laguniezaguzu». Jesusek esan zion: «Ahal dudan diozu? Dena ahal du sinesten duenak. Orduan, mutikoaren aitak deia-darka: «Sinetsi nahi dut! Lagundu sinesgabe honi!»

Jesusek, jendea pilatzen ari zela ikusirik, gogor eraso zion espiritu gaiztoari: «Espiritu gor eta mutua, Neuk agintzen dizut: atera zaitez honengandik eta ez sartu berriro». Espiritua, garra-sika eta berebiziko astindua emanaz, atera egin zen. Mutikoa hilik bezala gelditu zen; askok hila zegoela zioten; baina Jesusek eskutik hartu eta altxarazi egin zuen, eta mutikoa zutik jarri zen.

Jesus etxeratu zenean, ikasleek galdetu zioten bakarrean: «Eta guk, zergatik ezin izan dugu espiritua bota?» Jesusek erantzun zion: «Gisa honetako espirituak botatzeko bide bakarra otoitza da».

«**S**inetsi nahi dut! Lagundu sinesgabe honi!» Gutako zenbatak ez ote du ikusten bere burua hitz hauetan! Arazoa ez da fedea dudak lagun izatea: ezin saihestua da hori gure giza izaera honetan, eta, are, ona ere bai, konturarazten baikaitu fedea dohain bat dela, erregalu bat... Beste kasu honetan dago arazoa: dudak fedea blokeatzen duenean, bizitzako erabakiak dudu-mudatik hartzen direnean eta ez fedetik, bizitzaren gogorra dela-eta dudu-mudaren zamapean fedea ezkututzen denean... Egin dezagun geure semearen oinazeak kolpatu duen gizon honen eskaria: «Lagundu sinesgabe honi!»

§ Ben Sirak 2,1-13.

Ene seme, Jauna zerbitzatu nahi baduzu,
prestatu zeure burua probarako.
Sendotu bihotza eta eutsi gogor,
ez larritu estualdian.
Lotu zakizkio Jaunari, ez aldendu harengandik,
eta goratua izango zara azken orduan.
Onar ezazu gerta dakizukeen gutzia,
izan jasankor zeure apalaldiko ezbeharretan,
suan probatzen baita urrea
eta apalkuntzaren labean Jainkoak gogoko dituenak.
Izan uste on Jaunagan, eta berak lagunduko dizu,
zuzendu zeure jokabidea eta itxaron beragan.
Jaunari begirune diozuenok, sinetsi haren errukian,
ez desbideratu, eror ez zaitetzen.
Jaunari begirune diozuenok, izan uste on harengan:
sariak ez dizue huts egingo.
Jaunari begirune diozuenok, itxaron ondasunak,
betiko poza eta errukia.
Begira antzinako belaunaldiei eta ikus:
Nork jarri zuen uste ona Jaunagan, eta ustel atera?
Nork iraun harenganako begirunean, eta baztertua izan?
Nork egin zion dei, eta hark entzungor egin?
Ez! Jauna errukitsua eta bihozbera da,
bekatuak barkatu eta salbatu egiten du atsekabe-aldian.

[Sal 36: Zure joan-etorria Jaunari utz iezaiozu, harengan
itxaron ezazu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,30-37.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak menditik alde egin eta Galilean zehar zebiltzan. Jesusek ez zuen inork jakiterik nahi, ikasleei irakastera emana baitzegoen. Honela ari zitzaien: «Gizonaren Semea gizakien eskuetara emango dute; hil egingo dute, baina hil eta hiru egunera piztu egingo da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

Iritsi ziren Kafarnaumera, eta, etxean zeudela, Jesusek galdetu zien: «Zer eztabaida izan duzue bidean?» Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean.

Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien: «Lehenengo izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria».

Gero, haurtxo bat hartu, haien erdian jarri eta, besarkatuz, esan zien: «Honelako haurra nire izenean onartzen duenak Neu onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak, ez nau Ni onartzen, bidali nauen hura baizik».

«**H**aur bat harturik...». Zer izango ote zen Jesusek hartu haur hura, Jesus bera eta bera bidali zuena hartuko genukeen maitasun eta begirune beraz onartzera gonbidatu baikaitu? Ba, edozein bat, posta-txartel batekoa izan ezik; hobekiago, dudarik gabe, kaleko ume bat. Bai gauza erraza haur idealizatuak eta Jesus idealizatu bat onartzea! Baina zein nekez onartzen ditugun bizitzak eta zuzengabekeriak jipoitu dituzten haurrak, eta bai nekez onartzen dugula halakoengan –batzuetan hain zakar, hain oldarkor, garaia baino lehen hain oker helduak diren horiengan – Jesus. Horixe da, hain juxtu, ebanjelio honen deia.

[Pedro 1 P 5,1-4: Arduraduna haiek bezala eta Kristoren sufrimenduen lekukoa. Sal 22: Jauna dut artzain, ez dut ezeren falta.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?»

Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara, "harkaitza", eta harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Pedrok egin duen aitopenari, Jesus Mesias dela aitortzean, honek konfiantza beteko keinu batekin erantzun dio. Erregalu bikoitza hartu du Pedrok: fedearen erregalua, Jesus Mesias dela aitortzea Aitaren dohain bat dela, eta misio baten erregalua: Jesusen elkartearen lider izatekoa. Izatez, guk geuk ere, Pedrok bezala, erregalu bikoitza hartu dugu: fedearen erregalua eta Jesusen egintza aurrera eramateko misio edo eginkizuna. Bietako lehenari zor diogun esker onak buru-eskaintza egitera bultzatzen gaitu bigarren kasuan.

Urteko 7. astea.

Osteguna / Eguena.

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria*.

Rafaela Ibarra dohatsua, *fundatzailea (Aingeru Zaindaria)*.

[Ben Sirak 5,1-10: Ez luza Jaunagana bihurtzea. Sal 1: Bai dohatsua Jaunagan itxaropena duen gizakia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,41-50.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Mesiasen jarraitzaile zaretelako, baso bat ur bada ere ematen dizuen, beneran diotsuet, ez da saririk gabe geldituko.

Nigan sinesten duten txiki hauetakoren baten sinesmena galbidean jartzen duenak, hobe luke errotarri bat lepotik lotu eta itsasora amilduko balute.

Zeure eskuak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu eskumotz betiko bizitzan sartu, bi eskuak dituzula infernura, itzalezineko sura, joan baino. Zeure oinak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu hankamotz betiko bizitzan sartu, bi oinak dituzula infernura jaurtia izan baino. Zeure begiak galbidean jartzen bazaitu, atera; hobe duzu begibakar Jainkoaren erreinuan sartu, bi begiak dituzula infernura jaurtia izan baino; han ez da hiltzen barruko harra, ezta itzaltzen ere sua. Izan ere, suaz gazitu behar dira denak. Gauza ona da gatza; baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Eduki gatza zeuen baitan eta zaudete bakean elkarrekin».

«Txikiak eskandalizatuko dituen...». Beste behin, txikiekiko Jesusen ardua, txikiei eta ahulei Jesusek eskaintzen dien lehentasuna. «Txikiak eskandalizatu». Zeren badira «txikiak eskandalizatzen dituzten» gauzak, eta kontuan ia inoiz hartzen ez ditugunak: Jainkoaz hitz politik esan, bai, baina gizakiarekiko konpromisoan haragitzen ez direnak; geure probetxu propioa

edota erakundearena bilatzea beste edozer gauzaren gaineratik; isiltasuna zuzengabekeriaz eta jendearen sufrimenduaren kausaz, koldarkeriaz eta geure irudia eta adiskidetasuna zaintzeko.

Urteko 7. astea.

Ostirala / Barikua.

San Moises, *Itun Zaharreko profeta.*

San Luzio, *martiria.*

Santa Primitiba, *martiria.*

[Ben Sirak 6,5-17: Adiskidearen balioak ez du neurririk. Sal 118: Naramazu, Jauna, zeure aginduen bidexkatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,1-12.

Aldi hartan, Jesus Judeako mugetan sartu eta Jordan ibaiaz bestaldera igaro zen. Berriro jendetza handia bildu zitzaion eta bera, ohi zuen bezala, irakasten hasi zitzaien.

Hurbildu zitzaizkion fariseu batzuk eta, Jesus zertan harra-patuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari emaztea uztea?» Hark erantzun zien: «Zer agindu zizuen horretaz Moisesek?» Eta haiek: «Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena eman zigun».

Jesusek esan zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek lege hori. Baina, munduaren hasieratik, Jainkoak gizaseme eta emakume egin zituen; horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak uztartu duena, ez beza gizakiak banandu».

Gero, etxean, arazo berari buruz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Bere emaztea utzi eta beste batekin ezkontzen denak adulterioa egiten du lehenengoaren kontra; eta bere senarra utzi eta beste batekin ezkontzen den emazteak, adulterioa egiten du era berean».

Jainkoaren asmoa, gizonari eta emakumeari duintasun-parekotasuna aitortzea da. Ez dira lehiaketarako sortuak, askoz gutxiago gizonak emaku-

mea bere probetxurako mendean hartzeko. «Haragi bat izango dira». Gure mundu honen egoerari erreparatuz, hau da Jainkoaren egitasmoan ezukusiarena bizikienik egiten zaien alderdietako bat. Emakumeak zokoratze eta diskriminazio-soka luzea jasaten du. Ekialde eta Mendebaldean, Ipar eta Hegoaldean, Elizan eta gizarte zibilean: azterketarako eta konbertsiorako gaia, eta ez urteko egun batean bakarrik...

[Ben Sirak 17,1-13: Jainkoak gizakia bere irudiko egin zuen. **Sal 102**: Jaunaren maitasuna betidanik betidaino beldur diotenen-tzat.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,13-16.**

Aldi hartan, haurrak eraman zizkioten Jesusi, uki zitzan; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Hori ikustean, Jesus haserretu egin zen eta esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena da-eta Jainkoaren erreinua. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haurrak bezala hartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko».

Eta, besarkatuz, bedeinkatu egiten zituen haurrak, eskuak gainean ezarriz.

«**I**kasleek errieta egiten zieten...»: betikoa, a zer iskanbila hura!, patxada eta sosegua pikutara botatzeko modukoa! «Jesus haserretu egin zen»: ez haurren kontra, baizik haurrei errieta egiten zietenen aurka: horixe behar genuen! Uste dut, hau bezalako pasadizo arruntek eta berezkoek, hain egunerokoek, asko argitzen dituztela Jesusen izaera eta ebanjelioen balioak; agian, hitzaldi askok baino gehiago. Bai gogaikarria tarteka txikiak hurbiltzea! Eragiten duten gauza bakarra, nahasmendua eta problemak izaten dira... Baina halakoak Jesusek bezala besarkatuko ez ditugun bitartean, ez dugu egungo haren ebanjelioa geure bizi.

Urteko 7. astea.

Igandea / Domeka.

San Alexandro, *gotzaina*.

San Porfirio, *gotzaina*.

§ Is 49,14-15.

Sionek esaten zuen:

«Baztertua nauka Jaunak, ahaztua nire Jabeak».

Ahaztu ote dezake amak bere haurtxoa

edota bere sabeleko umeari errukia ukatu?

Bada, amak haurra ahaztuko balu ere,

Nik ez zaitut zu ahaztuko!

[Sal 61: Nire barrenak Jainkoagan bakarrik du bere atsedena.]

§ San Paulok 1 korintoarrei 4,1-5.

Senideok: Har gaitzabela denek Kristoren zerbitzaritzat eta Jainkoaren misterioen administratzailetzat. Eta administratzaileari eskatzen zaiona leiala izatea da.

Niri dagokidanez, gutxi axola zait zuek edota edozein giza auzitegik ni epaitzea. Neuk ere ez dut epaitzen neure burua. Egia da kontzientziak ez nauela ezertan salatzen; baina horrek ez du esanahi neure burua errugabetzat jotzen dudarik, Jaunak bainau epaitzen.

Ez dezazuela, beraz, ordua baino lehen epaitu. Itxaron Jau-na etorri arte. Hark argituko du ilunpean ezkutaturik dagoena, hark agertuko bihotzeko asmo gordeak. Eta, orduan, bakoitzak merezi duena jasoko du Jainkoagandik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,24-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezin da inor bi nagusiren morroi izan; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maite, edota bati leial izango zaio eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete Jainkoaren eta diruaren morroi izan.

Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jango edo gorputza zerez jantziko. Ez ote da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? Begira zeruko hegaztiei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez al duzue zuek haiek baino askoz gehiago balio?

Asko kezkatuta ere, zuetako nork luza lezake apurtxo bat bizitza? Eta jantziaz, zergatik kezkatu? Begira nola hazten diren loreak zelaietan: ez dira lanean nekatzen, ez dute iruten; baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen janzten horietako bat bezain apain.

Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar suan erreko den belarra Jainkoak horrela janzten badu, zenbatez gehiago zuek, sinesmen gutxikook? Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Jentilak arduratu ohi dira horiez guztiez. Zeruko zuen Aitak badaki horien guztien beharra duzuela. Bilatu lehenbizi Jainkoaren erreinua eta beronen zuzentasuna, eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak.

Ez kezkatu, bada, biharko egunaz, biharko egunak ere ekarriko baitu bere kezka. Aski ditu egun bakoitzak bere buruhausteak».

Igande honetako irakurgaien iruzkinik hobena, segur aski, lehenengo irakurgaiko Isaiasen hitz ederrak behin eta berriz errepikatzea izango litza-teke: Jainkoak bere maitasuna aitortzen du gutako bakoitzarentzat, ama baten samurtasuna, eta are gehiago...: «Ama ahaztuko balitz ere, ni ez».

Samurtasunaren esperientzia honetatik, Jesusek bete-betean bizi izan duen honetatik, jaio dira gaurko ebanjelioko haren hitzak. Mateoren ebanjelioaren puska hau puska ikusgarria iruditzen zaigu, olerkitsua, baina ez gara iritsi sinestera. Bai, bai, ondo dago... baina jatekoaz eta janztekoaz arduratzen ez bazara, zu erruki... Jainkoaren ardura edo probidentziaren hori gauza polita da, baina...

Jesusen hitzak Jainkoak gutaz duen «arduraz» mintzo zaizkigu; esaten digute, «ardura» dela Jainkoak gurekiko duen maitasuna. Ardu-
ra maitasunean bizi ohi den leuntasuna da, maitasunean ageri ohi den
fintasuna. Ama batek bere semeaz edo alabaz «ardura» izan ohi du: ha-
ren maitasuna arretaz, xehetasunez blai izan ohi da. Bai, Jainkoa gutaz
«arduraten da». Horixe da Jainkoaren probidentzia: gutaz duen ardu-
ra. «Eguneroko» ardua; horretaraxe deitu gaitu: horixe bilatzera geure
bizitza egunero kontenplatzean.

[**Ben Sirak 17,20-28:** Itzul zaitez Goi-goikoagana, eta egin ihes okerbidetik. **Sal 31:** Poztu zaitezte eta alaitu Jaunagan, zintzoak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,17-27.**

Aldi hartan, Jesus abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion: «Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?»

Jesusek erantzun zion: «Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona, Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, hartu aintzat aita-amak». Hark, orduan: «Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia».

Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan: «Gauza bat besterik ez zaizu falta: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri». Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta nahigabez joan, ondasun handiren jabe baitzen.

Orduan, Jesusek, ingurura begiratu, esan zien ikasleei: «Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan!» Harriturik utzi zituen ikasleak esaldi honek. Baina Jesusek berriro ere: «Ene semeok, bai zaila dela Jainkoaren erreinuan sartzea! Orratzaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino».

Ikasleek, gero eta harrituago, elkarri ziotsaten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezko da, baina Jainkoarentzat ez, dena baitezake Jainkoak».

Bada hiltzen duen maitasunik: hori uste izan behar zuen ebanjelio honetako protagonistak: «Jesus samurkiro begira gelditu zen... eta esan zion: saldu daukazun guztia». Inondik ere, ulertzeko oso zail gertatu zitzaion proposamen gogor eta errotiko hori samurtasunetik zetorrela. Eta guri ere, komeniko litzaiguke pentsatzea, ez garela bizi izenik gabeko («gizon bat») pertsona hura baino gorago, gutako edozein izan daitekeela hura. Zeren eta, izan gaitzkeen «betetzailenak» baino harago («hori guztia bete dut»), zertan eta norengan dugu jarria, egiaz, geure konfiantza? Eta zer edota zein da, egiaz, gure afektuetan lehena?

[Ben Sirak 35,1-15: Aginduak betetzea da opari salbagarria. Sal 49: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamera erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,28-31.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko». Jesusek erantzun: «Benetan diotsuet: Nigatik eta Berri Onagatik etxea, senideak, ama, aita, seme-alabak eta lurrak uzten dituenak, orain, mundu honetan, ehun halako hartuko du: etxe, senide, ama, seme-alaba eta lur, erasoaldiekin batera; eta gero, datorren munduan, betiko bizia. Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo.

Jainkoak ez dio utzi inori bera baino eskuzabalago izaten: «ehun halako». Baina bada Jainkoak saihestuko ez digun zerbait: «erasoaldiekin». Jesusek ez zuen ezkutatu sekula datu hau, ezta ikasleek beren buru-eskaintza eta Jesusek bere eskuzabaltasuna goratu dutenean ere. Komeni da gogoan izatea: batzuetan, katramilarik eta gatazkarik gabeko jarraipena egin nahi izaten dugu, edota Jesusen jarraitzaile izatea gerta dakigula pribilegio eta giza izaerak berekin dituen neke guztietatik aske izatea. Zer, beraz? Jesusek emango diguna, hori bai, zervertz edo horizonte bat da sufrimendu horrentzat eta indarra horri guztiari aurre egiteko.

OTSAILA / ZEZEILA



Hausterre.

Asteazkena / Eguaztena.

San Leon (Baionan), *apezpiku eta martiri*.

San Rosendo, *gotzaina*.

San Felix III.a, *48. aita santua*.

§ Joel Profetaren liburutik 2,12-18.

Begira zer dioen Jaun guztiz ahaltzuak: Itzul zaitetze nigan bihotz-bihotzez, barauz, negarrez eta saminez. Urra ezazue bihotza, ez soinekoak, itzul zaitetze Jaunagana, zeuen Jaungoikoagana; bihozbera eta errukitsua baita, haserretzen zaila, erruki handikoa, eta bere zemaiez damutzen dena. Nork daki ez ote den itzuliko eta damutuko, eta ez ote digun utziko oraindik bedeinkapena eta eskaintza, eta Jaunaren, gure Jainkoaren, isur oparia? Jo ezazue turuta Sionen, adierazi oihuka baraua, dei egin batzarrera; bildu herria, bedeinkatu batzarra, bildu zaharrrak eta ekarri gaztetxoak eta bularreko haurrak, atera bedi senarra ezkontza-gelatik, emaztea ezkontza-ohetik. Sarrera eta aldare bitartean negar egin bezate apaizek, Jaunaren zerbitzariak, eta esan: Barka, Jauna, barka zeure herriari, ez utzi lotsaz zeure ondarea, ez dezatela menperatu jentilek, ez dezatela esan arrotzek: Non dute, bada, beren Jaungoikoa? Sor beki Jaunari bere lurraldeaganako errukia, eta barka biezaio bere herriari.

[Sal 50: Erruki, Jauna bekatu egin dugu-eta.]

§ Paulok 2. korintoarrei 5,20-6,2.

Senideok: Gu Kristoren ordezeko bezala ari gara, Jaungoikoak gure ahoz hots egingo balizue bezala. Kristoren izenean esaten dizuegu: adiskidetu zaitetze Jaungoikoarekin. Bekaturik ezagutu ez zuen hura, Jaungoikoak gugatik bekatu bihurtu zuen, guk harekin bat eginda Jaungoikoaren salbamena iritsi dezagun.

Jaungoikoaren zerbitzari garenez gero eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren grazia. Berak baitio: «Garai egokian entzuten dizut, eta salbamen-egunean laguntzen». Begira, beraz: oraintxe da garai egokia, oraintxe salbamen-eguna.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira gero, zeuen egite onak gizakien aurrean egin, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango. Limosna ematerakoan, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak gorets ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, limosna ematerakoan, ez beza jakin zure ezkerak, eskuinak egiten duena; zure limosna hori ezkutuan geldi dadin, eta ezkutuan ikusten duen zeure Aitak emango dizu saria. Baraurik zarenean, ez ipini aurpegia ilun, itxurazaleek bezala; aurpegia zatartu egiten baitute horrelakoek, baraurik daudela ingurukoiei adierazi nahiz. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, baraurik zarenean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia; ingurukoek ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua, eta ezkutuan ikusten duen zeure Aitak emango dizu saria».

Garizuma hastera goaz: «aldi egokia» da, «salbamen-eguna». Bera- rekin bat egiteko Jainkoak egiten digun deia inoiz baino ozenagoa, inoiz baino errepikakorragoa egiten den aldia da; gurekin bat egiteko, gu berarekin adiskidetzeko gogoia era biziagoan agertzen du aldia. «Bihur zaitetze nigan», itzuli nigan, ikus ezazue ni egiaz zer naizen: gupida, errukia, bihozberatasuna.

Garizumak bide bat iradokitzen digu, ibilbide bat, prozesu bat... Ibilbide eta prozesu barnekoiak, Jainkoaren benetako aurpegia aurkitzera eramango gaituztenak.

Ibilbidea, gero eta sakonagoa den otoitzaz egiten dena, gero eta hitz gutxiagoz eta egiatiagoz, neu-az gero eta hustuagoa denaz, neu-a

gero eta alde baterago utzia duen otoitzaz. Ibilbidea, geure bizitza janaritzeko erabiltzen ditugun gero eta gauza gehiagotatik desjabetuz eta barau eginez, Jainko biziaren egiazko gosea eragiteko. Ibilbidea, egoismotik, sufritzen ari den lagun hurkoaz eta hainbat anai-arrebaren sufrimenduaz dugun hor konpon jarreratik edo axola-gabeziatik solidaritatera eta konpromisora eramaten gaituena.

Ibilbide hauek egin ahala, beti bukatu gabeko, norberaren gorputzean haragituko zaigu Jainkoaren errukizko besarkada.

[Deuteronomio 30,15-20: Bedeinkapena eta madarikapena jartzen dizkizuet gaur aurrean. **Sal 1:** Bai dohatsu, Jaunagan itxarobidea duen gizakia.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,22-25.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Beharrezkoa da, Gizonaren Semeak neke handiak jasatea: zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsiko dute eta hilko; baina hirugarren egunean piztuko da». Eta esan zien guztiei: «Nirekin etorri nahi duenak, uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak, galduko du; baina bere bizia nigatik galtzen duenak, salbatuko. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?»

Jesusen zeruertza edo helmuga «piztea» da, eta Jesusen jarraitzailearen zeruertza ere horixe da: «piztea». Jesusi jarraitzea biziranzko bidea da, egiazko eta bete-betea den biziranzko bidea. Jesusen logika, beste behin, mundu honena ez bezalakoa da oso. Hemen sasi-promesak airerutzen dira, balizko zorientasun baterako, ezerezean gelditzen den baterako; ebanjelioan, ez da ezkutitzen Jesusi jarraitzeak berekin dituen gurutzea, gatazkak, ukapenak. Baina hori guztia bezain egia da bizia dela azkena. Ez da engainurik, ez bidean, ez helmugan.

[Isaias 58,1-9a: Hau da nik maite dudan baraua. Sal 50: Ez duzu arbuiatuko, Jainko, bihotz damutu eta umildua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,14-15.

Aldi hartan, Joanen ikasleak hurbildu eta esan zioten Jesusi: «Zergatik guk eta fariseuek maiz barau egiten dugu, eta zure ikasleek ez?» Jesusek erantzun zien: «Eztei-lagunek negar egin al dezakete, senar berria berekin duten bitartean? Etorriko da, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, orduan egingo dute barau».

Zergatik guk bai eta haiek ez? Betiko galdera, beren burua on eta zintzo jotzen dutenek, eta mundu guztiak bere bezala egin behar dutela pentsatzen dutenek egina. Oso eredugarri ez den jarrera adierazten duen galdera da. Hondo-hondoan, ez dute konbentzimendurik egiten dutenaz (zeren, izango balute, zer axola besteek egin ala ez?). Adierazten du jarrera horrek beste uste hau ere: «neure sakrifizioen bidez erosten dut nik neure salbazioa» eta gogaikarri gertatzen zait beste batzuek «merkeago» lortu izana... Dena benetan kaskar... Horixe da Jesusek salatu nahi duena bere parabolan.

[Isaias 58,9b-14: Gose denari zure ogitik ematen badiozu, zure argia ilunpean zabalduko da. **Sal 85**: Zure bidea erakutsiezadazu, Jauna, zure egian ibil nadin.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,27-32.**

Aldi hartan, Jesusek zerga-biltzaile bat ikusi zuen, Levi zerritzana, zerga-biltzaileen mahaian eseria, eta esan zion: «Jarrai niri». Dena utzirik, zutitu eta jarraitu zion. Bazkari handia eman zion Levik bere etxean; baziren han mahaian haiekin zerga-biltzaile asko eta beste batzuk. Fariseuak eta haien aldeko lege-maisuak marmarrean ari ziren eta esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten eta edaten duzue zerga-biltzaile eta bekatariekin?» Jesusek erantzun zien: «Ondo daudenek ez, baino gaixo daudenek behar dute sendagilea. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik, bihotz-berri daitezen».

Jesus zerga-mahaian eserita dagoen Leviri hurbildu zaio, proposamen txundigarri hau egitera: «Jarrai iezadazu». Berez, porroterako egina da proposamena. Zenbat jendek pentsatu ote zuen: «hori gogoia denbora galtzeko: Levirengana hurbildu!» Jesus, halere, hurbildu egin zaio, eta askoz txundigarriagoa izan da Levirengandik jaso duen erantzuna: «jaiki zen eta jarraitu». Gogoeta egitera garamatza pasadizo honek: guk geuk zenbat jende ez dugu «bartzertzen»? Guztia, haiengana hurbiltzea alferrik dela uste izateagatik, aurreirizteagatik ez digutela erantzungo. Baina, agian, guk uste baino gaitasun handiagoa izango lukete Jesusen gonbitari harrera ona egiteko.

Garizumako 1. astea.

Igandea / Domeka.

Santa Oliva, *birjina eta martiria.*

San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea.*

§ **Hasiera 2,7-9; 3,1-7.**

Jainko Jaunak gizona moldatu zuen lurreko hautsez eta bizi-arnasa bota zion sudur-zuloetara, eta gizona bizidun gertatu zen.

Gero, Jainko Jaunak baratzea landatu zuen Eden-en, sortalderantz, eta han ipini zuen berak moldatutako gizona. Jainko Jaunak mota guztietako zuhaitzak sortu zituen lurretik, begientzat eder eta ahoarentzat gozo, eta baratzearen erdian biziaren zuhaitza eta ongiaren eta gaizkiaren ezagutza ematen zuen zuhaitza landatu zituen.

Sugea zen Jainko Jaunak egindako piztietan maltzurrena. Sugeak esan zion emakumeari: «Debekatu egin dizue, beraz, Jainkoak baratzeko arbola guztietako fruituetatik jatea?»

Emakumeak erantzun zion: «Baratzeko zuhaitzen fruituetatik jan dezakegu; baratzte erdian dagoen zuhaitzaz bakarrik esan digu Jainkoak: "Horretatik ez jan, ezta ukitu ere hori, hil nahi ez baduzue"».

Sugeak esan zion emakumeari: «Ez zarete hilko, ez! Ongi daki Jainkoak, horretatik jan orduko, begiak irekiko zaizkizuela eta bera bezalako izango zaretela, ongiaren eta gaizkiaren ezagutzaren jabe».

Emakumeak, zuhaitza jateko gozo eta begientzat eder eta ezaguera iristeko on zela ikusirik, haren fruituetako bat hartu eta jan egin zuen; gero, senarrari eman zion eta hark ere jan egin zuen. Orduan begiak ireki zitzaizkien eta larru gorri zeudela ohartu ziren. Piku-hosto batzuk josi eta estalki bana egin zuten.

[Sal 50: Erruki Jauna, bekatu egin dugu eta.]

[Segidako irakurgai honetan, kako [] arteko zatia utz daiteke.]

§ San Paulok Erromatarrei 5,12-19.

Senideok: Gizon baten bidez sartu zen bekatua mundura, eta bekatuaren bidez heriotza; horrela, heriotza gizaki guztiengana zabaldu zen, guztiek egin zutelako bekatu. [Egia da legea baino lehen bazela bekatua munduan; baina bekatua ez zaio inori ezartzen, legerik ez badago. Hala ere, Adamengandik Moisesenganaino nagusi izan zen heriotza gizakien gain, baita Adamen hutsegitearen antzeko bekatuarekin egin ez zutenen gain ere. Adam etortzekoa zenaren irudi da.

Baina Jainkoaren dohainarekin ez da bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, gizon bakar baten bekatuaz guztiak hil badi-ra, askoz ugariago zabaldu dira guztientzat Jainkoaren grazia eta dohaina, beste gizon bakar bati esker, Jesu Kristori esker, alegia. Eta ondorioei dagokienez ere, Jainkoaren dohainarekin ez da gizon bakarraren bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, bekatuak, bakarra izan arren, guztien gaitzespena izan du ondorio; graziak, berriz, bekatuak asko izan arren, guztien barkamena.]

Gizon bakarraren bekatuagatik heriotza nagusitu bazen, zenbatez gehiago ez ote dira bakar batengatik, Jesu Kristogatik, nagusi izango betiko bizitzan salbamenaren grazia eta dohain oparoa hartzen dutenak!

Beraz, baten bekatuak gizaki guztiei gaitzespena ekarri zien bezala, baten leialtasunak gizaki guztiei salbazioa eta bizia ekar-tzen dizkie. Eta baten obedientzi ezagatik guztiak bekatari gertatu ziren bezala, baten obedientziagatik guztiak zuzen gertatuko dira.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,1-11.

Aldi hartan, Espirituak basamortura eraman zuen Jesus, deabruak tenta zezan. Berrogei egun eta berrogei gau baraurik egin ondoren, azkenean gosetu egin zen.

Hurbildu zitzaion tentatzailea eta esan zion: «Jainkoaren Seme baldin bazara, esazu harri hauek ogi bihur daitezela».

Jesusek erantzun zion: «Liburu Santuan idatzirik dago: "Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, Jainkoaren ahotik ateratzen den hitz guztitik baizik"».

Orduan, deabruak hiri santura, Jerusalemera, eraman zuen eta tenpluaren goreneko ertzean ipinirik, esan zion: «Jainkoaren Seme baldin bazara, bota ezazu zeure burua goitik behera, idatzirik dago eta: "Bere aingeruei agindu die zu zaintzeko", eta "eskuetan eramango zaituzte, harriekin estropezu egin ez dezazun"».

Jesusek erantzun zion: «Beste hau ere idatzirik dago: "Ez tentatu Jauna, zeure Jainkoa"».

Orduan, deabruak mendi handi batera eraman zuen eta, munduko erreinu guztiak eta haien edertasuna erakutsiz, esan zion: «Hori guztia emango dizut, ahuspez gurtzen banauzu».

Orduan Jesusek esan zion: «Alde hemendik, Satanas! Idatzirik dago eta: "Jauna, zeure Jainkoa, gurtuko duzu, eta bera bakarrik zerbitzatuko"».

Orduan, deabruak utzi egin zuen, eta aingeruak hurbildu zitzaizkion zerbitzatzera.

Hondo-hondoan, Jesusen hiru tentazio hauek tentazio bat bera dira: Har ezazu zeure burua erdigunetzat, ardura zaitetz zeure buruaz, bila ezazu zeure ona. Eta gainerako guztia, har ezazu zeureari dagokion heinean: zeure ongizatearen, zeure ospearean, bizitzan zeu garai ateratzearen baitan jarritz

Garizuma-hasiera honetan, Jesusen «lehen» tentazioei erreparatzeak Jesusen azken tentazioari, gurutzean josirik dela jasan duenari, begiratzen laguntzen digu; lehengoa bera da: «besteak salbatu ditu eta ezin salbatu du bere burua», «jaitsi handi gurutzetik eta sinetsiko diagu higan». Bere buruari begira jartzeko tentazioa. Tentazio bera hasieran eta bukaeran, bizitza guztian barna.

Jesusen tentazioa da eta gu haren jarraitzaileen tentazioa: geure burua bilatu nahia. Hainbat eta hainbat era desberdinetan; hainbat eta hainbat aitzakiaz. Zuzentzat, nola ez ba?, emandako bilaketak iza-

ten dira; baita hitz sakratuekin ere zuzenetsiak. Tentazioa, ez dezagun ahaztu, engainu bat da, eta engainua tentagarria da, iradokitzailea, itxura ona baitu. Loiolako Ignazio «Jainkoaren zerbitzuaren asmo garbiaz» mintzo zen. Bereizmen jarraikia eskatzen zaigu: Noren bila nabil?, zeren bila? Inor ez dago libre eginbehar horretatik.

Garizumako 1. astea.

Astelehena.

Santa Rosa Viterbokoa, *birjina*.

San Marziano, *gotzaina*.

[Levitarrak 19,1-2.11-18: Zuzentasunez epaitu zeure lagun-hurkoa. **Sal 18:** Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,31-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak harekin– bere aintza handian etorriko deanean, bere jaun-aulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak akerreratik bereizten dituen bezala: ardiak eskuinaldean ipiniko ditu eta akerrak ezker aldean. Orduan erregeak esango die eskuinekoiei: “Zatozte, nire Aitararen bedeinkatuok; har ezazue munduaren sortzetik prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri nintzen, eta edaten eman zenidaten; arrotz nintzen, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi ninduzuen; gaixorik nintzen, eta ikustera etorri zineten; espetxean nengoan, eta bisitan etorri zineten”. Orduan zintzoek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goseak, eta eman genizun jaten; egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu; biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edo espetxean, eta joan ginen bisitan?” Eta erregeak erantzun eta esango die: “Benetan diotsuet: nire senide diren txiki hauetako bati egina, neuri egin zenidaten”. Orduan esango die ezkerrekoiei: “Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta haren aingeruentzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez nin-

duzuen jantzi; gaixorik eta espetxean, eta ez zineten ni ikustera etorri". Haiek erantzungo diote: "Jauna, noiz ikusi zintugun go-seak edo egarri, arrotz, biluzik, gaixorik edo espetxean, eta guk lagundu ez?" Orduan erantzungo die: "Benetan diotsuet: txiki hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin". Eta hauek betiko oinazera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

«**N**oiz ikusi zintugun, eta guk lagundu ez»: Epaileak beragandik bereiziko ditueni egingo dien galdera da, harriduraz eta beren burua zuritzeko egina. Jakin izan bagenu...: jakin izan bagenu, bizi-e-goera duingabeen bizi zen jendetza hartan solidaritatea eskatzen ziguna zu zinela; jakin izan bagenu, gure herrira etorri berria zen (Jainkoak daki nola) atzerritar harengan harrera eskatzen ziguna zu zinela; jakin izan bagenu, emakume bortxatu haiengan edota tratu gaiztoa jasandako adin txikiko haiengan zuzenbidea eskatzen ziguna zu zinela... Baina ez zintugun ezagutu, beste tankera batean espero zintugun, beste leku batean gurtzen eta bilatzen zintugun...

[Isaias 55,10-11: Nere hitzak egingo du nik nahi nuena. **Sal 33:** Estualdi guztitik salbatu zituen Jainkoak bere eskuz zintzoak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egiterakoan, ez ari hitz-jarioka, sinesgabeak bezala; hitzaren hitzez entzungen zaiela uste baitute. Ez izan zuek haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz: "Gure Aita, zeruetan zarena, / santu izan bedi zure izena, / etor bedi zure erreinua, / egin bedi zure nahia, / zeruan bezala lurrean ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; / barkatu gure zorrak / guk ere geure zordunei / barkatzen diegun ezker; / eta ez gu tentaldira eraman (eroan), / baina atera gaitzazu (gagizuz) gaitzetik". Izan ere, zuek gizakiei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizkizue zeruko zeuen Aitak. Baina gizakiei barkatzen ez badizkiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko zeuen Aitak zeuen hutsegiteak».

Batzuetan galdera egiten diogu geure buruari: zein da «otoitz egiteko erarik hoberena»? Gaurko ebanjelioak bi giltza eskaintzen dizkigu benetako otoitzerako. Lehena: bihotzetik irteten den otoitza, bihotz egiazaletik, hitzei garrantzi handiegirik eman gabe: ez hitzen kopuruari, ez hitzen perfekzio formalari; arazoa ez da otoitzean poesia egitea, nahiz eta poesiak laguntzen ahal digun otoitzean ere. Bigarrena: gizadiarekin solidario sentitzen den otoitza, bakarti sentitzen ez dena: «Gure Aita... emaguzu gaur ogia... barka iezaguzu... libra gaitzazu...». Dena guka, eta ez nika; inoiz ez bakarti baten otoitza, beti solidarioa.

Garizumako 1. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

San Joan Jainkoarena, *fundatzailea (San Joan Jainkoaren Anaiak).*

San Veremundo Iratxekoa (Villatuertan 109210/99; hil ?), *abadea.*

[Jonas 3,1-10: Ninivetarrak beren bide okerretik itzuli ziren.
Sal 50: Ez duzu arbuiatuko, Jainko, bihotz damutu eta umildua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,29-32.

Aldi hartan, jendea pilaka zetorrela, Jesus hasi zitzaien esaten: «Gizaldi hau gizaldi bihurria da. Ezaugarri bat eskatzen du, eta ezaugarririk ez zaio emango, Jonasena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat. Auzi-egunean hegoaldeko erregina gizaldi honetako gizakien aurka jaikiko da eta gaitzetsiko ditu; lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduria entzutera; hona hemen, berriz, Salomon baino handiagoa dena. Auzi-egunean ninivetarrak gizaldi honen aurka jaikiko dira eta gaitzetsiko dute; haiek Jonasen hitzaldiagatik bihotz-berritu baitziren; hona hemen, berriz, Jonas baino handiagoa dena».

Gizonaren Semea da seinalea, gurutziltzatua izan den Gizonaren Semea. «Gurutzearen seinalea», esan ohi dugu... Bai, hori da seinalea. Gertatzen da, gurutze hori hutsaldu (banalizatu) egin izan dugula, batzuetan objektu apaingarri bihurtzeko; beste batzuetan, beraren esanahia indargabetuz. Aldatzera gonbidatzen gaituen seinalea, Jainkoagana apal eta konfiantzaz itzultzerako gonbidatzen gaituena, bere burua gugatik heriotzaraino eman duen Semea da. Zer gehiago egin daiteke edozein giza pentsamendu gainditzen duen maitasuna agertzeko? «Kristo geure Jauna geure aurrean eta gurutzean irudikatuz» (Loiolako Ignazioaren Gogo Jardunak 53).

Garizumako 1. astea.

Osteguna/ Eguena.

Santa Frantziska Erromatarra, *erlijiosa*.

San Pazio, *gotzaina*.

[Ester 14,1.3-5.12-14: Ez dut zu beste laguntzailerik, Jauna. **Sal 137:** Hots egin nizunean, entzun ninduzun, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,7-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: Eska ezazue, eta emango zaizue; bila ezazue, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko zaizue. Eskatzen duenak, hartzen du; bilatzen duenak, aurkitzen; eta atea jotzen duenari, zabaltzen zaio. Zue-tako norbaitek, semeak ogia eskatu eta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatu eta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago emango dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak, berari eskatzen dizkiotenei! Egin beste-i, haiek zuei egitea nahi zenuketen guztia; hori da Legea eta Profetak».

Gaurko ebanjelioak konfiantza izatera gonbidatzen gaitu, eta konfiantza hori iraunkor egitera. Konfiantza, ez gauzetan, ezta hau edo bestea lortzeko ere, baizik konfiantza Norbaitengan, Jainkoagan. Dударik gabe «gauza onak» emango dizkigun Norbaitengan, hau da, on egingo diguten gauzak. Gure giza premia sakonenei erantzungo dieten gauzak, eta ez gure nahikeriei eta apetei, ezta une bateko gure larriei beraiei ere. Dei bat, Jainkoaren eskuetan gaudela jakiteko, eta esku horietan, askotan ferekatzen eta beti sostengatzen gaituzten esku horietan, gaudela jakiteak ematen ahal digun atsedenez gozatzeko.

Garizumako 1. astea.

Ostirala / Barikua.

San Alexandro, *martiria*.

Santa Maria Eugenia Milleret, *fundatzailea (Jasokundeko Erlijosak)*.

[Ezekiel 18,21-28: Gaiztoaren heriotza nahi ote dut, bada, nik? Ez ote dut nahi, gaiztoa bide txarra utzi eta bizitzea? Sal 129: Gure erruak gogoan badituzu, Jauna, nor dagoke zutik, Jauna?.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,20-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuen zuentasuna lege-maisuena eta fariseuena baino handiagoa ez bada, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Entzuna duzue nola agindu zitzaizen antzinakoei: “Ez duzu inor hilko”, eta norbait hiltzen duena, errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: senidea haserre hartzen duena, errudun izango da auzitegian. Bere senideari “zoroa” esaten diona, errudun izango da Batzarrean, eta “sinesgabea” esaten diona, su-leizerako errudun izango da. Beraz, zure eskaintza aldarera eramaterakoan, gogorutzen bazaizu zeure senideak baduela zerbait zure aurka, uztazu eskaintza-gaia han bertan aldare aurrean, eta zoaz lehenengo zeure senidearekin bakeak egitera; etorri, orduan, eta egin zeure eskaintza. Egitzazu bakeak lehenbailehen zeure etsaiarekin, bidean harekin zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku utz ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Hara nik egia esan: ez zara handik aterako, azken txanpona ordaindu arte».

Aldarean eskaintza egin aurretik, adiskidetu anaiarekin edo arrebarekin edo... Beste hitz batzuekin esanik: Jainkoarentzat garrantzitsuagoa da senideari nolako tratua ematen diozun, berari eskainiko

diozun kultua baino. Guri, aitzitik, errazago gertatzen zaizkigu Jainkoari egindako ageriko keinuak, senidearen aurrez aurre topo egitea baino, barkatzeko eta adiskidetzeko topo egitea baino. Jainkoak ez du nahi geure anai-arreba artekotasun-faltan bera aitzakiatzat eta zurigarrizat hartzea. Birao bat da hori Jesusen Jainkoaren aurka. Beti galdera hau egiten digunaren aurka: non da zure anaia, arreba...?, zer egin diozu?

[Deuteronomio 26,16-19: Zu izango zaitu Jaunak, zeure Jaungoikoak, bere herri santu. Sal 118: Dohatsu, Jaunaren legean dabiltzanak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue nola dagoen agindua: "Maita ezazu zeure lagun hurkoa, eta gorrota zeure etsaia". Nik, ordea, hau diotsuet: maita itzazue zeuen etsaiak; egin on gorrotoa dizuetenei, eta egin otoitz erasotzen zaituztenentzat, zeruetan dagoen zuen Aitaren seme eta alaba izan zaitezten; hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta okerrentzat egiten euria. Izan ere, maite zaituztenak maite izanik, zer sari zor zaizue? Zerga-biltzaileek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue zor ez duzuenik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, on-onak, zeruetako zuen Aita on-ona den bezala».

Gurea guretzat... guk ekoiztua guretzat... gure gizarte-zerbitzuak guretzat... «Ez al dute gauza bera egiten zerga-biltzaileek eta jentilek?» Deigarria da zenbat kostatzen zaigun itzultzea hizkuntza sozial eta politikora (bai, politikora ere bai) geure portaera pertsonalerako gordetzen ditugun (gordetzen ditugunean) burubide edo printzipioak. Horregatik da, agian, ahaide pobrea (pobregia batzuetan) Elizaren Dotrina Soziala teologian eta moralean. Eta horrela doakigu: zeren eta gurea guretzat delako diskurtsoa solidaritate-ezaren eta axola-ezaren diskurtsoa baita. Eta ez zeruko Aitarena...

§ Hasiara liburutik 12,1-4a.

Egun haietan, Jaunak esan zion Abrami: «Utzi zeure lurraldea, zeure ahaideak eta zeure aitaren etxea eta zoaz Nik erakutsiko dizudan lurraldera. Herri handi egingo zaitut eta bedeinkatuko, izen handia emango dizut eta bedeinkapen-iturri izango zara. Bedeinkatuko ditut zu bedeinkatzen zaituztenak eta madarikatuko zu madarikatzen zaituztenak.

Zure bitartez bedeinkatuko ditut lurreko herri guztiak».

Hala, joan egin zen Abram, Jaunak agindu bezala.

[Sal 32: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, Zugan baitugu geure uste ona.]

§ San Paulok 2 Timoteori 1,8b-10.

Anaia maite: Jainkoaren indarraz fidaturik, eraman itzazu nekeak nirekin batean Berri Onaren alde. Berak salbatu gintuen eta dei egin zigun biziera santura, ez gure egiteengatik, bere erabakiagatik baizik eta mende guztiak baino lehen Kristo Jesusengan eman zigun graziagatik.

Grazia hau orain agertu da, Kristo Jesus gure salbatzailea munduan azaldu denean; Honek heriotza ezereztu du eta bizia eta hilezkortasuna argitara atera, Berri Onaren bidez.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 1-9.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek Berekin Pedro, Santiago eta honen anaia Joan eta mendi garai batera eraman zituen aparte. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean: aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain

zuri. Hartan, Moises eta Elias agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Orduan, Pedrok esan zion Jesusi: «Jauna, bai ederki gaudela hemen! Nahi baduzu, hiru txabola egingo ditut: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliaentzat».

Hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta ahots batek esan zuen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea, berau dut atsegin. Entzuiozue». Hori entzutean, ahuspez lurrera erori ziren ikasleak, beldurraren beldurrez.

Hurbildu zitzaien Jesus, ukitu eta esan zien: «Jaiki zaitezte; ez izan beldurrik». Begiak jasorik, Jesus bakarrik ikusi zuten, beste inor ez.

Menditik behera jaisterakoan, Jesusek agindu zien: «Ez esan inori ikusi duzuen hau, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte».

Gaurko irakurgaiak kristau-esperientzian eta bizitzan Jesus ardatz izateaz mintzo zaizkigu. Bai Timoteori egindako gutunean, bai ebanjelioan, eztabaida ezinezko lehen mailan ageri da Jesus.

Jesus ardatz izate hori begi-bistako gauza dela irudi dakiguke maila teorikoan. Ez da, ordea, hain begi-bistakoa eta, beraz, hain beharrezkoa, geure fedea nola bizi dugunari erreparatzen badiogu. Gure fedearen erdigune ez lukete izan behar sineskizunek eta ideiek, baizik Jesusek berak; eta gure jokabidea argitu beharko lukeen argia ez luke izan behar Jesusen jarduerak baizik: haren jarrera eta sentimenduak gureak izaten joan daitezten desiratu beharko genuke.

Zenbat denbora ematen dugu aurpegi hori kontenplatzan: «eguzkiak bezala distira egiten duena» eta gure bizitza osoa argitzen duena? Hori gabe, izan al daiteke bat benetako kristau? Eta gure otoitza, zenbatetan da geure buruari begira egote bat edota geure arazoez gogoeta egite bat edo geure larrialdian lasaitu bat hartzeko une bat, Jainkoak berak hitz egiten digun Hitz horri begira egote bat eta Hitz hori entzute bat baino gehiago? Hari gehiago begiratzea «geure lurretik» irtetea-edo da; irtetea, zeinetan, Abrahamek bezala, Jainkoaren bedeinkazioa esperimendatuko baikenuke.

Garizumako 2. astea.

Astelehena.

Sana Eufrasia, *birjina*.

Santa Kristina, *birjina*.

San Silvano, *martiria*.

[Danielen liburutik 9,4b-10: Guk bekatu egin dugu, txarke-
ria egin dugu. Sal 78: Ez jardun gurekin, Jauna, gure hobenen
neurrira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,36-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Izan zaitezte erru-
kior, zuen Aita errukior den bezala.

Ez epaitu, eta ez zaituzte Jainkoak epaituko; ez gaitzetsi,
eta ez zaituzte gaitzetsiko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman,
eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporai-
nokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu,
halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

«Izan zaitezte gupidatsu». Jaunaren hitza eta agindua: guztiz beha-
rrezko eta ezinbestekoak, hain justu, onak gabela uste dugunon-
tzat. Onak garelakoan gaudenok izaten dugu arriskurik handiena bes-
teak juzkatzen hasteko, zuzengabeki juzkatzeko; izan ere, gure juzkua,
eskuarki, geure burua gain-baloratzeke izaten da eta besteak behe-ba-
loratzeke (besteren begian lasto-izpia ikusi eta geurean habea ezin).
Uste izan ohi dugu, besteak onak direla gure antzeko baldin badira, eta
ez direla onak gure antzeko ez badira; ez dugu kontuan hartzen, nork
bere era izaten duela ona izateko, bere historia propioa duelako.

[Isaias 1,10. 16-20: Ikasi on egiten, bila ezazue zuzentasuna. Sal 49: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,1-12.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaien jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egin ez. Zama astunak eta ezin eramanak lotzen dituzte, eta besteei leporatzen; baina beraiek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarrietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta guztiek "maisua" deitzea.

Zuek, ordea, ez utzi inori "maisua" deitzen, bakarra baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurrian inori "aita", bakarra baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi "gidari" deitzen ere, bakarra baita zuen gidaria, Mesias.

Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Benetan, asko harritzen naiz ebanjelio hau barne-kilimarik gabe hots egiten ausartzen garela pentsatzean, hain lasai gelditzen garela. Izan ere, ez zait iruditzen duela bi mila urteko testu bat den, atzokoa

baizik, edo gaurkoa. Eta hain gogorra da testua, hain zorrotza, hain kritikoa! Inor ez da inor baino handiago Jainkoaren aurrean, zeren anai-arreba baikara eta inork ez baitu eskubiderik gainerakoei Jainkoak ezartzen ez duen zamarik ezartzeko. Helder Camararena bilduz, inor ez da besteei ezer entzun beharrik eta haiengandik ezer ikasi beharrik ez lukeen bezain buru-argi, eta inor ez da zer esanik edo ekarpenik ez lukeen bezain ezjakin.

Garizumako 2. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

Raimundo santua, Fiterokoa, *abadea (Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan).*

Santa Luisa Marilac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak).*

[Jeremias 18,18-20: Zatozte, zauritu egingo dugu. Sal 30: Salba nazazu, Jauna, zeure errukiaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,17-28.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemera igotzen ari zela, hamabi ikasleak aparte hartu eta esan zien bidean: «Begira, Jerusalemera igotzen ari gara eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuen eskuetara emango dute, heriotzara kondenatuko dute eta atzerritarren eskuetara emango, iseka egin diezaioten, zigorkatu eta gurutziltza dezaten; baina hirugarren egunean piztu egingo da».

Orduan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta berak: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean eser daitezela zure erreinuan».

Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kopatik edateko?» Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!» Jesusek orduan: «Nire kopatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, biziro haserre jarri ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariiek menpean hartzen dituztela herriak, eta

handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzatu izatera, zerbitzatzera baizik, eta bere bizia guztien ordainsari ematera».

«**Z**erbitzari izan»: ebanjelioko hitz handietako bat da bizitzan nola jokatzeari. Hitz handi hauekin askotan gertatzen denez, oso manipulatu eta desitxuratu izan den hitza da. Izan ere, «zerbitzari izatea» ez da edozer gauza, ezta gauza erraza ere... «Zerbitzari izateak esan nahi du, zerbitzariak uko egiten diola edozein protagonismori beste baten onerako, beste baten beharren alde. Zerbitzaria ezin izan da inoiz ere protagonista: kontraesana izango litzateke. «Zerbitzari izateak» eskatzen du: alde batetik, kontenplazioa, entzutea, arrera eta giza sentiberatasuna; bestetik, gauzak bereizten jakitea, prestasuna, sormena...; lehenengoa, beste pertsona baten premia atzemateko; bigarrena, hari egiaz erantzuteko.

Garizumako 2. astea.

Osteguna / Eguena.

San Hilario, *gotzaina*,
Santa Kolunba, *martiria*.

[**Jeremias 17,5-10:** Madarikatua bere itxaropen gizakia duena. Bedeinkatua bere itxaropen Jauna duena. **Sal 1:** Bai dohatsu, Jaunagan itxarobide duen gizona.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,19-31.**

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus fariseuei: «Bazen gizon aberats bat, purpura eta liho finez jantzi eta egunero festa ederrak egiten zituen. Lazaro izeneko eskale bat, berriz, aberatsaren etxe-atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; gogotsu jango zukeen aberatsaren mahaitik erortzen zena... Txakurrak berak ere etorri eta zauriak milikatzen zizkioten.

Honetan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eraman zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hil en Egoitzan oinazetan zegoelarik, begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urrutian eta Lazaro haren altzoan, eta deiadarka esan zuen: "Aita Abraham, erruki zakizkit! Bidal ezazu Lazaro atzamar muturra urean busti eta niri mihia freskatzera, oinaze gorritan bainago sugar honetan". Baina Abrahamek erantzun zion: "Seme, oroit zaitez zuk zorion franko izan zenuela bizitzan; Lazarok, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hark atsegina aurkitu du, eta zuk oinazeak. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin da inor hemendik zuengana igaro, ezta hortik guregana ere".

Aberatsak berriro: "Orduan, aita Abraham, bidal ezazu, arren, Lazaro gure aitaren etxera, bost anaia baditut eta; jar ditzala jakinaren gainean, eurak ere oinaze-leku honetara etor ez daitezten".

Abrahamek erantzun zion: “Hor dituzte Moises eta Profetak; entzun diezaietela”. Hark berriro: “Ez, aita Abraham; hildakoren bat joango balitzaie, bihotz-berrituko lirateke”. Baina Abrahamek erantzun zion: “Moisesi eta Profetei entzuten ez badiete, ez dute sinetsiko ezta hildako bat piztuta ere”».

[**Hasiera 37:** Horra non datorren ameslaria; hil dezagun. **Sal 104:** Ekarki gogora Jaunak egin dituen mirariak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21,33-43. 45-46.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburu eta herriko zaharrei: «Entzun parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu; bertan dolarea egin eta doorea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen.

Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, fruitutik zegokion partea jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berrito beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”.

Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: “Oinordekoa da. Hil dezagun eta geuretzat izango da ondarea”. Heldu, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten”.

Jesusek galdetu zien: “Zer egingo die nekazari horiei mahasti-jabeak itzultzean?»

Erantzun zioten: «Errukirik gabe hilko ditu, eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia».

Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri:

“Etxegileek baztertutako harria

giltzarri gertatu da.
Jaunak egin du hori,
gure begien harrigarri?”

Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio».

Parabola hauek entzutean, apaizburu eta fariseuek Jesus beraingatik ari zela jabetu ziren, eta hura atxilotu nahian zebiltzan; baina jendearen beldur ziren, denek profetatzat baitzeukaten.

Txundigarria da Bibliako hainbat hitz hain gaurko direla ikustea, bai Itun Zaharrekoak, bai Itun Berrikoak. Zeren eta giza bihotzaren gorabeherak eta ahuldadeak iradokitzen baitituzte. Horixe gertatzen zaigu gaurko irakurgetan: «ismaeldarrei saldu zioten hogeitun monetan»; «ea, hil dezagun eta geurea izango dugu ondarea». Pertsonaren gainetik dirua. Ez dio axola pertsonari zer gertatuko, diru gehiago irabaztea badakar. Hiltzen duen ekonomia, eta ez zentzu metaforikoan soilik. Ebanjelioak dio: «apaiz nagusiek eta fariseuek ulertu zuten beraiez mintzo zela». Ez dakit gu ulertzeko gai izango garen...

Garizumako 2. astea.

Larunbata / Zapatua.

San Zirilo Jerusalemgoa, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

San Raimundo Fiterokoa (Toledon hil 1163),
abadea.

[Mikeas 7,14-15.18-20: Itsas azpiraino botako ditu gure bekatu guztiak. Sal 102: Errukior da Jauna eta gupidatsu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-3.11-32.

Aldi hartan, zergalari eta bekatari guztiak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Jesusek parabola hau esan zien: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: "Aita, emadazu dagokidan senipartea". Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteena, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera joan zen, eta han, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen.

Dena xahutu zuenean, gosete handia sortu zen herrialde hartan eta beharra sentitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez sabela betetzeko gogoak ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen.

Orduan, bere baitara itzulirik, esan zuen: "Hamaika langile bada nire aitarenean, nahiko ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Altxa, aitagana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme-izenik merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala". Eta altxatu eta aitagana abiatu zen.

Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta erruki izan zuen, eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: "Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme-izenik merezi..."

Aitak, ordea, esan zien morroiei: "Atera berehala soinekorik ederrena eta jantz iezaiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua, nire seme hau hila baitzegoen eta piztu egin da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu". Eta festa hasi zuten.

Seme zaharrena soroan zen. Etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak sumatu zituen, eta, morroi bati deituta, zer gertatzen zen galdetu zion. Morroiak erantzun: "Zure anaia etorri da eta zuen aitak zekor gizendua hil du, semea onik bereganatu duelako". Seme zaharrena biziki haserretu zen, eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: "Hainbeste urte da zure zerbitzuan nagoela, zure agindurik behin ere huts egin gabe, eta ez didazu sekula antxume bat ere eman lagun artean jateko, eta horrako zure seme hori, emagalduekin zure ondasunak jan dituen hori, etorri denean, zekor gizendua hil diozu".

Aitak erantzun zion: "Seme, zu beti nirekin zaude, eta nire den guztia zeurea duzu. Baina egoki zen festa egitea eta poztea, zure anaia hau hila baitzegoen eta piztu egin da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu"».

«**A**rtean urrun zela... aitak ikusi zuen... eta korrika ekin zion». Hitz ederrak guztiak ere, Aitak nola barkatzen duen... Ez diezaiegula utzi oharkabean ihes egiten: horixe izango da kontenplatzea. Artean urrun dela aitak ikusi badu, bere etxe barnean ez dagoelako da, baizik eta kanpoan dagoelako, zain-zain: ez zaio iruditu ezer ere semearen zain egotea bezain garrantzizko. Eta kanpoan, adi-adi dago: seguru, hamaika bider eman zion barruak semea iristear zela, eta hamaika bider etsi zuen semea ez zetorrela jabetzean. Baina, oraingo honetan, bera zen! Eta korrika ekin zion...

Garizumako 3. astea.

Igandea / Domeka.

**SAN JOSE ANDRE MARIAREN SENARRA, Jesu-
sen Lagundiaren Zaindaria.**

Santa Quintila, *martiria*.

§ Irteera 17,3-7.

Egun haietan, herria egarri zen, eta Moisesen kontra marka ari zen: «Honetarako atera al gaituzu Egiptotik gu, geure seme-alabak eta abereak egarriz hiltzeko?» Moisesek deiar egin zion Jaunari: «Zer egin behar dut nik herri honekin? Harrika emango didate laster».

Jaunak erantzun zion Moisesi: «Jar zaitez herriaren aurrean eta eraman zeurekin herri-arduradun batzuk. Hartu eskuan Nilo ibaia jotzeko erabili zenuen makila, eta zoaz. Han zure aurrean izango nautzu Ni, Horeb mendiko harkaitz gainean. Harkaitza jo eta ura sortuko da handik, herriak edan dezan».

Hala egin zuen Moisesek Israelgo arduradunen aurrean. Toki hari Masa eta Meriba –hau da, Tentaleku eta Auzileku– ezarri zion izena, han berari aurpegi eman eta Jauna tentatu zutelako, esanez: «Gure artean al dago Jauna, bai ala ez?»

[Sal 94, Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gortu zeuen bihotzak».]

§ San Paulok Erromatarrei 5,1-2. 5-8.

Senideok: Fedearen bidez Jainkoak zuzentzat hartu gaitue-
nez gero, bakean gaude berarekin, Jesu Kristo gure Jaunari es-
ker. Beroni esker, sinesmenaren bidez eman digu Jainkoak grazi
egoera honetan bizitzea, eta harro gaude Jainkoaren aintza iri-
tsiko dugun itxaropenez.

Itxaropenak ez du huts egiten, Jainkoak bere maitasuna
isuri baitigu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez.

Izan ere, oraindik bekatupean indargabe geundela, Kristo, Jainkoak erabakitako garaian, gaiztoen alde hil zen. Nekez onartuko luke norbaitek pertsona zuzen baten alde hiltzea; hala ere pertsona on baten alde baliteke norbait hiltzeko prest egotea.

Baina Kristo gu oraindik bekatari ginela hil zen gure alde: honela erakusten du Jainkoak guretzat duen maitasuna.

[Ebanjelio laburragoa nahi bada, utzi kako [] artekoa].

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik Jn 4,5-42.**

Aldi hartan, Jesus Sikar deritzan Samariako hirira iritsi zen, Jakobek bere seme Joseri ondare emandako lur-sail ondora. Han zegoen Jakoben putzua. Jesus, bideaz nekaturik, putzu ertzean eseri zen. Eguerdi ingurua zen.

Ikasleak hirira joanak ziren, jatekoak erostera. Horretan, Samariako emakume bat etorri zen ura ateratzera, eta Jesusek esan zion: «Emadazu edaten».

Emakume samariarrak esan zion: «Nola zuk, judu izanik, eskatzen didazu edatekoa niri, samariar naizen honi?» (Jakin behar da juduek eta samariarrek ez dutela elkarrekin harremanik).

Jesusek erantzun zion: «Jainkoaren dohaina zein den eta edatekoa nork eskatzen dizun jakingo bazenu, zeuk eskatuko zenioke berari, eta hark ur bizia emango lizuke».

Emakumeak esan zion: «Jauna, ez duzu ura zerekin atera, eta putzua sakona da; nondik atera behar duzu ur bizi hori? Gure aita Jakobek eman zigun putzu hau eta hemendik edan zuten hark, haren seme-alabek eta abereek. Hura baino handiago al zara zu?»

Jesusek erantzun zion: «Ur honetatik edaten duena, berriz ere egarritu egiten da; Nik ematen diodan uretik edaten duena, ordea, ez da gehiago egarrituko sekula; zeren Nik emango diodan ura, betiko bizia darion iturburu bihurtuko baita harengan».

Orduan, emakumeak: «Jauna, emadazu ur hori, berriri ega- rri ez nadin, eta hona ur bila etorri beharrik izan ez dezadan».

[Jesusek esan zion: «Zoaz, deitu zeure senarrari eta itzuli hona». Emakumeak erantzun zion: «Ez dut senarririk».

Eta Jesusek: «Ongi esan duzu ez duzula senarririk; bost izan dituzu, eta oraingoa ez duzu senarra; horretan egia diozu».

Emakumeak esan zion:] «Jauna, ikusten dut profeta zarela. Gure gurasoek mendi honetan eman zioten kultu Jainkoari; zuek, juduok, berriz, Jerusalemen eman behar zaiola diozue».

Jesusek erantzun zion: «Sinetsiezadazu, emakume: badator ordua, ez mendi honetan, ez Jerusalemen, Aita adoratuko ez duzuenena. Zuek ez dakizue zer adoratu duzuen; guk badakigu zer adoratu dugun, salbamen juduogandik baitator. Baina badator ordua –hobeto esan, iritsia da– egiazko adoratzaileek Aita espirituz eta egiaz adoratu dutena. Izan ere, Aitak hone-lako adoratzaileak nahi ditu. Jainkoa espiritua da, eta hura adoratu dutenek espirituz eta egiaz adoru behar dute».

Emakumeak esan zion: «Badakit Mesias, Kristo alegia, etortzekoa dela, eta hark, etortzean, gauza guztiak agertuko dizkigu».

Eta Jesusek: «Neu nauzu, zurekin hizketan ari naizen hauxe».

[Une hartan etorri ziren ikasleak eta harritu egin ziren emakume batekin hizketan ari zelako. Hala ere, ez zion inork galde-tu zer nahi zuen edo zertaz ari zen emakumearekin.

Emakumeak ur-ontzia han utzi, hirira joan eta jendeari esan zion: «Zatozte egin dudan guztia esan didan gizona ikustera. Ez ote da bera Mesias?»

Jendea hiritik atera eta Jesusengana joan zen. Bitartean, ikasleak arrenka ari zitzaizkion: «Maisu, jan ezazu!»

Baina hark esan zien: «Badut Nik beste janari bat, zuek ez dakizuen».

Ikasleek galdetu zioten elkarri: «Norbaitek ekarri ote dio, bada, jatekorik?»

Jesusek esan zien: «Nire janaria bidali nauenaren nahia egitea da eta haren salbamen-egintza burutzea. Ez al duzue esaten zuek:

Lau hilabete barru uztaroa dugu? Horra, bada, Nik esan: Jaso begiak eta ikusi gari-soroak, uztarako horituak. Eta dagoeneko ari da igitaria lansaria hartzen eta betiko bizitzarako fruitua biltzen, nola ereilea hala igitaria, biak poztu daitezzen. Honetan bai betetzen dela esaera: "Batek erein, bestek bildu". Zeuek landu ez duzuen biltzera bidali zaituztet Nik: beste batzuek egin dute lana eta zuek haien lanaren saria jasotzen duzue».

Hiri hartako samariar askok sinetsi zuen Jesusengan [emakumeak egindako aitormenagatik: «Egin dudan guztia esan dit».]

Samariarrek, Jesusengana etorri zirenean, beraiekin gelditze-ko eskatu zioten, eta bi egunez egon zen han. Jesusen hitza entzutean, askoz gehiagok sinetsi zuten. Eta emakumeari esaten zioten: «Orain ez dugu zure esanagatik sinesten; geuk entzun diogu, eta badakigu hau dela egiaz munduaren Salbatzailea».

Zer da benetan bizia ematen digun hura? Hainbat aldiz nahasten eta Erratzen dugu horren gainean... Zein ur da benetan egarria kentzen duena, eta zein janari da benetan indarra ematen diguna? Zein putzutatik atera genezake ur hori, eta non eskura genezake ogi hori? Emakume samariarrak uste zuen bera egunero joaten zen hura zela putzua, eta oker zebilen; ikasleek uste zuten herrian erosi berria zuten hura zela, eta oker zebiltzan.

Ebanjelio osoan barna, eta eguneroko eukaristian, bizi-janari agertzen zaigu Jesus, eta bere burua emanez: «bizi-ogi bezala, salbamen-edari bezala».

Arazoa, beraz, «jaunartzea da», eta «Jaunarekin bat egitea». Eta jaunartze horren hasiera, oinarria, harremanak izatea da, pertsonalki topo egitea. Guk uste baino gehiagotan hurbiltzen zaigu Jauna, eta gu joatekoak garen lekuan egon ohi da zain. Uste ez balu bezala egiten du topo, premian balego bezala. Gai izaten al gara gelditu eta berari entzuteko? Ez dio axola hainbeste esango dioguna; benetan axola duena guk entzutea da.

Garizumako 3. astea.

Astelehena.

SAN JOSE, ANDRE MARIAREN SENARRA.

San Eugenio, *martiria*.

Santa Maria Josefa Jesusen Bihotzarena,
fundatzailea (Jesusen mirabeak).

§ 2 Samuel 7,4-5a. 12-14a. 16.

Gau hartan berean Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Zeure egunak bete eta zeure gurasoekin atsedean hartuko duzunean, ondorengoa emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotu egingo dut haren erregetza. Hark eraikiko dio etxea nire izenari, eta Nik betiko sendotuko diot tronua. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura. Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti”».

[Sal 88: Haren leinua betiko izango da.]

§ San Paulok Erromatarrei 4,13. 16-18. 22.

Senideok: Beren oinordekotza mundua izango zutela agindu zien Jainkoak Abrahami eta ondorengoei. Agintzari hau, ordea, ez zegokion Legea betetzeari, sinesmenak duen salbamen-indarrari baizik. Beraz, agintzaria, dohain hutsa izanik, fedeari dagokio; horrela, Abrahamen ondorengo guztientzat balioko du, Legearen arabera ondorengo direnentzat ez ezik, baita Abrahamen sinesmenaren arabera direnentzat ere. Bera aita dugu guztiok, Liburu Santuak dioen bezala: «Herri askoren aita egin zaitut». Abraham aita dugu, beraz, Jainkoaren aurrean, hark sinetsi egin baitzuen hildakoak biziarazten eta izaterik ez dutenak izatera deitzen dituen Jainkoagan.

Abrahamek sinetsi egin zuen, inolako itzarobiderik ez zegoeanean itzaropenari eutsiz; horrela, herri askoren aita egin zen, Jain-

koak esan zionaren arabera: «Horrenbeste izango dira zure ondo-
rengoak». Horrexegatik, hain zuzen, zintzotzat hartu zuen Jainkoak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,16.
18-21. 24a.

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik
jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen
ama, Joserekin ezkontzeko hitzemanan zegoen eta, elkarrekin
bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren
egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez
baitzuen bere emaztea salatu nahi, isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azal-
du zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo
hori, ez izan beldurrik Maria, zeure emaztea, etxean hartzeko,
honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango
du, eta zuk "Jesus" ezarriko diozu izena, berak salbatuko baitu
bere herria bekatuetatik».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu
bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

«Jaunaren aingeruak agindu ziona egin zuen»: horrela, zehatz, xume
eta erraz jarri du ebanjelioak guztia; denak den, iruditzen zait, Joseri
ez zitzaiola gertatuko hau guztia hain xume eta hain erraza; besteak bes-
te, «erabakia hartua zuelako»; hain juxtu, aingeruak agindutako harikoa ez
zena. Eta erabakia ez zen arrazoizkoa bakarrik, baita «gizon zuzen» bati
zegokiona ere.

Jainkoaren misterioa da, giza bizitzan parte hartzen duen Jainko bate-
na, eta, hainbat bider era harrigarrian eta proposamen harrigarriekin parte
hartzen duena, arrazoizkoa baino haragoko moduan eta, are, guri, haste-
ko, ona iruditzen zaiguna baino haragoko eran.

Baina, agian, begi-bistakoa ez den obedientzia zail hori gertatzen da
emankorrena, gutaz hustuena delako, gure «erabakiez» eta gure egitas-
moez hustuena delako. Obedientziaren hasierako urrats hori egina dugu-

larik, fede garbiz eta gardenaz egina, harengan konfiantza jartzea bakarrik falta zaigu, geure burua haren eskuetan ipintzea, eta prest egotea etengabe entzuteko: egitea sekula pentsatu ez genuena nola egin ikasteko, egiteko sekula aukeratu ez genuena nola egin ikasteko. Konfiantzaz bizitze horretan ikusiko dugu Jainkoak beti betetzen dituela bere promesak

Garizumako 3. astea.
Asteartea / Martitzena.
San Benito, *abadea*.
San Filemon, *martiria*.
San Justiniano, *gotzaina*.

[Danielen liburutik 3,25.34-43: Har gaitzazu onez, bihotz damuz baikaude eta gogo apalez. Sal 24: Oroit zaitez zeure errukiaz, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,21-35.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?»

Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko. Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia.

Baina morroiak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-laguna topatu zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain iezadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Beste morroiak, gertatua ikusirik, bizirotsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten. Or-

duan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: "Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaalako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?" Eta nagusiak, haserre bizitan, borre-roen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte. Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue».

Egiaz barkatzea ez da gauza erraza sekula. Barkatzen jakin eta barkatu ahal izatea Jainkoaren grazia da, mesede handi bat. Oso ulergarria da Pedroren galdera: «zazpi aldiz?» Jesusen erantzuna errotikoa izan zen; Jainkoaren errukiaren esperientzia eskatzen du, oso esperientzia sakona. Horixe adierazi nahi du parabolak «hamar mila talentuekin»: jaunak ez du beherapen bat egin zorraren gainean; horrekin berarekin ere jarrera esku-zabala agertu izango zuen; baina ez, osorik barkatu dio. Errukiaren esperientzia horretan eta barkatzeko gaitasunean haziz goaz bizitza osoan... Jainkoaren onginahiari esker.

[Deuteronomio liburutik 4,1.5-9: Gorde eta bete itzazue nire aginduak. Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ez uste izan Moisesen Legea edota Profeten esanak baztertzea etorria naizenik; ez naiz baztertzea etorri, beren betera eramatera baizik.

Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, Legearen letra edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, guztia bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hautsi eta hausten irakasten duena, txikiena izango da zeruetako erreinuan; bete eta betetzen irakasten duena, berriz, handia izango da zeruetako erreinuan».

«Ez naiz etorri desegitera, baizik bere betera eramatera». Eta zer da «bere betera eramatea»? Kasuistika eta moralkeria bilakatu duten legeari arnastu zuen espirituaren bete itzultzea. Izan ere, Jainkoaren legeak, Jainkoak Moisesi eman zionak, ez du izan nahi arau huts bat, zentzutzat bere burua duena, baizik bizi-bide izan nahi du, betetasun-bide. Jainkoak ez du eman legea bere herria hertsatzeko eta mugak ezartzeko, baizik bere betera iristen laguntzeko. Eta galdera ona izango litzateke hau mundu honetako legegileek ezartzen dituzten lege guztientzat: bizirako lege al dira?

[**Jeremias Profetaren liburutik 7,23-28**: Hona, Jaunaren, bere Jainkoaren, mintzoa entzun ez duen herria. **Sal 94**: Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,14-23.**

Aldi hartan, Jesus gizon bat mututurik zeukan deabrua botatzen ari zen. Deabrua atera bezain laster, mutua hizketan hasi zen. Jendea harriturik gelditu zen; batzuek, ordea, honela zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarraz botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten.

Jesusek, haien burutazioak igarririk, esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua hondatu egiten da, eta etxea etxearen gainera erortzen. Satanas ere bere baitan zatiturik badago, nola iraun dezake zutik haren erreinuak? Zuek baitiozue Nik Beeltzebulen indarraz botatzen ditudala deabruak. Baina Nik Beeltzebulen indarraz botatzen baditut, noren indarraz botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, haiek izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarraz botatzen baditut, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua.

Gizon indartsu eta armatuak bere jauregia zaintzen duen birtartean, haren ondasunak seguru daude. Baina indartsuago batek eraso eta menperatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu eta banatu egiten ditu hari harrapaturiko ondasunak.

Nirekin ez dagoena nire aurka dago, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du».

Beti aurkitzen ahal da arrazoi bat, erreal edo fikziozkoa, zintzoa eta po-
breen eta zuzenaren alde jartzen dena izen-gaiztotzeko. Historia hau,
ebanjelioan ageri denez, oso aspaldikoa da. Besteren bizkar bizi direnen-
tzat, gogaikarria izan ohi da beti mutuei hitza ematen diena, edota itsuei
ikusmena ematen diena, edota mendeko eta beldurpean bizi direnak aska-
tzen dituen. Eta zer aterabide hoberik, eta errazagorik, askatzaileari izen
ona kentzea baino! Halaz guztiz, azkenean, egiaren indarra ateratzen da
gailen.

Garizumako 3. astea.

Ostirala / Barikua.

San Segundo, *martiria*.

Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*.

Oscar Romero, dohatsua, *martiria*, *San Salvadorreko artzapezpikua*.

[Oseas Profetaren liburutik 14,2-10: Gure eskuaz eginei ez diegu gehiago gure jainko esango. Sal 80: Ni nauzu Jauna, zure Jainkoa: entzun nire mintzoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena?»

Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: "Entzun, Israel: Jau-na, gure Jainkoa, Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz". Bigarrena, berriz, hau da: "Maitatu lagun hurkoa, zeure burua bezala". Ez da hauek baino agindu handigorik».

Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, eta hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobea dela esatean».

Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik». Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

«Den-dena»: bihotza, arima, gogo, izatea; «den-dena». Zergatik den «den-dena? Den-dena Jainkoagandik hartzen duelako: «Zuk eman zidan, zuri, Jauna, itzuli nahi dizut». Eta noiz edo nola gertatzen da posible den-dena ematea? Jainkoaganako konfiantza betea denean, erabatekoa denean. Geuretzat gordetzen ditugu gauza batzuk, pentsatuz, noiz edo

noiz beharko ditugula, Jainkoak huts egin diezagukeela, eta orduan... Eta den-dena ezeren truke da, ala den-dena zerbaiten truke da? Benetan: den-dena da biziaren betearen truke. «Nigatik... utziko duenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia».

§ Isaias Profetaren liburutik 7,10-14.

Egun haietan, mezu hau eman zion Jaunak Akaz erregeari Isaias profetaren bidez: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jainkoari, ezaugarri bat zeuretzat, lurraren barrenean nahiz zeruen goienean». Akazek erantzun zion: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut tentatuko Jauna».

Orduan Isaiasek esan zuen:

«Entzun, Daviden etxe:

Gutxi al deritzozue gizakientzat aspergarri izateari?

Nire Jainkoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue?

Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria.

Begira, birjina haurdun dago eta semea izango du;

Emmanuel ipiniko dio izena, hau da, "Jainkoa gurekin"».

[Sal 39: Hemen nago, Jauna, zure nahia egiteko.]

§ Hebrearrei 10,4-10.

Senideok: Legeak, etortzekoak diren ondasunen itzala bakarrik izanik eta ez gauzen izatea bera, urtero etengabe eskaintzen diren opari berberen bidez, ez ditzake inola ere bete-beteko egin eskaintza horiek egiten dituztenak. Bestela, amaitu egingo ziren opariak; izan ere, eskaintza horiek egiten dituztenek behin garbituz gero, inongo bekatu-kontzientziarik ez zuten izango. Baina opari horietan urtero berritzen da bekatuen oroitzapena, zezenen eta akarren odolak ez baititzake bekatuak desegin.

Horregatik, Kristok, munduan sartzean, dio:

«Ez zenuen nahi izan opari eta eskaintzarik;

baina gorputza eratu zenidan.

Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik ez zenuen atsegin izan.

Orduan, esan nuen:

Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko; horrela dago nitaz idatzia Liburuan».

Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, opari eta eskaintzarik, ez erre-oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik», nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren, beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko».

Lehendabiziko kultua kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidez Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitetz, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez izan beldurrik, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta "Jesus" ezarriko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi». Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere

itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabete dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

«**G**orputz bat eratu didazu...», «hona hemen Jaunaren mirabea»... Munduan bere salbamen-egitasmoa gauzatzeko, Jainkoak behar duen buru-eskaintza gizon-emakumeok geure burua eskaintzea da. Hori xe: ez gauzak ematea, ez denbora, ez lana, baizik nork bere burua ematea. Gu tratulari hasi ohi gara: lehen bezala, beti bezala. Ez animaliekin, baizik beste gauza batzuekin, geure burua eman nahi ezta. Dudana eskaintzen dut (aski da, ezta?), baina Jainkoak ez dit eskatzen dudana, baizik naizena.

Eta zer esan nahi du honek? Neure bizitzan erdigunea Jainkoari ematea. Jainkoa: ez beste zerbait gehiago bezala, guztiz inportantea izanik ere; Jainkoa: ez lerroko beste norbait bezala, nahiz lehenengoa izan. Jainkoa: erdi-erdian: bihotzaren erdian eta bizitzaren erdian. Erdia, nondik baita eraten eta erabakitzen nire bizitza osoa.

Hori guztia horrela bizitzeak, «egoa» («neua») bere lekutik ateratzea eskatzen du, ondo finkatua eta lotua dagoen lekutik ateratzea, protagonismoari uko egin nahi ez dion lekutik ateratzea. Hori da Adierazpenaren eta Gizakundearen sakrifizioa eta errotikotasuna: «bere buruaz hustu zen». Eta horrek zorabioa eragiten digu... Geure burua hustu, Jainkoak bete dezan.

Garizumako 4. astea.

Igandea / Domeka.

San Braulio, *gotzaina*.

San Kastulo, *martiria*.

§ 1 Samuel 16,1b. 6-7.10-13a.

Egun haietan, Jaunak esan zion Samueli: «Bete adarra olioiz eta zoaz. Betleemeko Jeserengana bidaltzen zaitut, haren semeen artean begiz jo baitut nire errege izango dena».

Jese eta beronen semeak iritsi zirenean, Samuelek Eliab ikusi eta esan zuen bere baitan: «Zalantzarik gabe, aurrean du Jaunak bere gantzutua». Baina Jaunak esan zion Samueli: «Ez begiratu horren itxura eta luzerari, alde batera utzia dut eta. Jainkoak ez dio begiratzen gizakiek begiratzen diotenari, gizakiek itxurari begiratzen baitiote; Jainkoak, berriz, bihotzari».

Jesek bere zazpi semeak eraman zituen Samuelen aurrera; baina Samuelek esan zion: «Jaunak ez du horietatik inor aukeratu». Orduan, Samuelek galdetu zion Jeseri: «Hauek al dituzu seme guztiak?» Hark erantzun: «Txikiena gelditzen da; artzain dabil». Samuelek esan zion Jeseri: «Agindu ekartzeko; ez gara jaten hasiko, bera etorri arte». Ekarrarazi zuen, beraz, mutila: ile-gorria zen, begi-ederra, itxura bikainekoa. Jaunak esan zion Samueli: «Jaiki eta gantzutu ezazu; horixe da».

Hartu zuen, bada, Samuelek olio-adarra eta gantzutu egin zuen bere anaien aurrean. Egun hartan Jaunaren espiritua Davidengan sartu zen eta haren jabe izan zen aurrerantzean.

[Sal 22: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

§ San Paulok Efesoarrei 5,8-14.

Senideok: Garai batean ilunpe zineten; orain, berriz, argi zarete Jaunari esker. Zabiltzate, beraz, argiaren partaide bezala; argiaren fruitu on izatea, zuzentasuna eta egia oro dira. Azter-

tu zer zaion Jaunari atsegin eta ez parte hartu ilunpean bizi direnen egintza hutsaletan; sala itzazue baizik, lotsagarria baita horiek ezkutuan egiten dutena aipatzea ere. Baina argiak salatzen duen guztia agerian gelditzen da, eta agerian gelditzen dena argi bihurtzen da.

Horregatik esan ohi da:

«Esna zaitez, lo zauden hori,

jaiki hilen artetik,

eta Kristok argituko zaitu».

[Ebanjelio laburragoa nahi bada, kendu kako [] artekoa].

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 9,1-41.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoalarik, jaiotzatik itsu zen gizon bat ikusi zuen. [Eta ikasleek galdetu zioten: «Maisu, nork egin zuen bekatu, hau itsu jaiotzeko, honek ala honen gurasoek?»]

Jesusek erantzun zien: «Ez honek, ez honen gurasoek, ez zuten bekatu egin, baizik eta Jainkoaren egintzak honengan ager daitezzen jaiotzean itsu. Egun-argi den bitartean egin behar ditut bidali nauenaren egintzak; badator gaua, eta orduan inork ez dezake lanik egin. Munduan nagoen bitartean, munduaren argia naiz».

Hau esanik, listua bota zuen lurrera, listuaz lohia egin eta lohiaz begiak igurtzi zizkion itsuari; gero, esan zion: «Zoaz eta garbi zaitez Siloeko uraskan». (Siloek "Bidalia" esan nahi du). Joan zen, bada, itsua, garbitu eta ikusten zuela itzuli zen.

Auzokoek eta lehen eskean ikusi ohi zutenek esaten zuten: «Ez al da hau eserita eskean egoten zena?» Batzuek zioten: «Bai, bera da». Beste batzuek: «Ez, ez da hura, haren antzeko bat baizik». Berak, berriz, zioen: «Bai, huraxe naiz». [Orduan galdetu zioten: «Nola ireki zaizkizu, bada, begiak?»] Eta hark erantzun: «Jesus delakoak lohia egin du, begiak igurtzi dizkit

eta agindu: “Zoaz Siloera eta garbitu”; joan, garbitu eta ikusten hasi naiz». Galdetu zioten: «Non da gizon hori?» Hark erantzun: «Ez dakit».]

Larunbata zen Jesusek lohia egin eta begiak ireki zizkion eguna. Horregatik, fariseuengana eraman zuten itsu izana, eta fariseuek berriro galdetu zioten nola hasi zen ikusten. Hark erantzun zien: «Lohia jarri zidan begietan, garbitu nintzen eta ikusi egiten dut».

Fariseuetako batzuek zioten: «Gizon hori ez dator Jainkoa-gandik, ez baitu larunbateko atsedeen-eguna errespetatzen». Beste batzuek, berriz, zioten: «Nola egin dezake bekataria bateg horrelako ezaugarririk?» Eta ez zetozen bat beren iritzietan. Berriz galdetu zioten itsuari: «Eta zuk zer diozu begiak ireki dizkizunaz?» Hark erantzun: «Profeta dela».

[Hala ere, juduek ez zuten sinetsi nahi gizon hura itsu izan eta ikusten hasi zela. Beraz, haren gurasoei deitu eta galdetu zieten: «Hau al da zuen semea, itsu jaio zela diozuen? Nolatan ikusten du, bada, orain?» Gurasoek erantzun zieten: «Guk badakigu gure semea dela eta itsu jaio zela; baina orain nola ikusten duen edo begiak nork ireki dizkion, hori ez dakigu. Galdetu berari, badu adina-eta bere buruaren berri emateko». Juduen beldurrez hitz egiten zuten gurasoek honela, ordurako agintariek erabakia baitzuten Jesus Mesias zela aitortzen zuena beren elkartetik botatzea. Horregatik esan zuten gurasoek: «Badu adina, galdetu berari».

Juduek bigarren aldiz deitu zioten itsu izanari eta esan zioten: «Aitortu egia Jainkoaren aurrean. Guk badakigu gizon hori bekataria dela». Hark erantzun zien: «Bekataria den ala ez, nik ez dakit. Dakidan gauza bakarra hau da: itsu nintzela eta orain ikusi egiten dudala».

Haiek berriro: «Zer egin dizu? Nola ireki dizkizu begiak?» Hark erantzun zien: «Esan dizuet lehen ere, eta ez didazue jara-

monik egin. Zergatik entzun nahi duzue berriro? Zuek ere haren ikasle izan nahi duzue, ala?»

Haiek irainez bete eta esan zioten: «Zeu izango zara horren ikasle; gu Moisesen ikasle gara. Guk ziur dakigu Jainkoak Moisesi hitz egin ziola, baina hori nongoa den ere ez dakigu».

Hark orduan: «Hori bai harrigarria! Zuek nongoa den ere jakin ez, eta hark niri begiak ireki. Jakina da Jainkoak ez diela bekatarietara entzuten, baizik eta jainkozale denari eta beraren nahia egiten duenari entzuten diola. Egundaino ez da entzun itsu jaiotako bati inork begiak ireki dizkionik. Gizon honek, Jainkoagandik ez baletor, ezin izango luke ezer egin».] Haiek erantzun zioten: «Goitik beheraino bekatari jaio zinen, eta zu guri irakatsi nahian?» Eta kanpora bota zuten.

Jakin zuen Jesusek bota egin zutela eta, aurkitu zuenean, galdetu zion: «Sinesten al duzu Gizonaren Semeagan?» Hark erantzun: «Esadazu nor den, Jauna, sinets dezadan». Jesusek esan zion: «Ikusi duzu; zurekin hizketan ari dena bera da». Hark orduan: «Sinesten dut, Jauna». Eta aurrean ahuspeztu zitzaion.

[Ondoren, Jesusek esan zuen: «Epai baterako etorri naiz Ni mundu honetara; ondorioz, ikusten ez dutenek ikus dezaten, eta ikusten dutenak itsu bihur daitezten». Jesusekin zeuden fariseu batzuek, hori entzunik, esan zioten: «Gu ere itsu ote gara, bada?» Jesusek erantzun zien: «Itsu bazinete, ez zenukete bekatuak. Baina ikusten duzuela diozuenez, zeuen bekatuan irauten duzue».]

Duela urte batzuk, ikusmenean erasan zidan burmuin-gorabehera bat izan nuen. Gogoan dut sendagileak komentatua: «Zuk uste zenuen aurretik ikusten dugula; ba, ez: atzetik ikusten dugu». Anekdotak pertsonal hori (zorionez ondo konpondua) etorri zait gogora gaurko ebanjelioa kontenplatzean, gaurko ebanjelio ederra. Nondik ikusten dugu? Zerk ematen digu ikusteko gaitasuna?

Itsu zena, Jesusen ekintzaren ondoren, hari ukitzen utzi ondoren, literaliki («begiak lohiaz igurtzi zizkion») hasi zen ikusten. Itsu ez direnek, baina

bihotza gogor eta harro dutenek, ezin ikusi dute, itsu izandakoak eta haren gurasoek beren testigantza behin eta berriz errepikatu arren. Temakeriak eta bihotz-gogorkeriak eragotzi egiten diete ikustea. Bihotz gogorra beti izan ohi da eragozpen ikusteko.

Loiolako Ignaziok ere honela adierazten du Manresan egin zuen aldaketa, Jesusi konkista zezan utziz: beste begi batzuez ikusten nituen gauzak. Ez, beste gauza batzuek ikusten zituelako, baizik eta beti ikusi ohi zituen gauzak «lehenak ez bezalako begiz» ikusten zituelako. «Beste begi batzuez» ikusteak eguneroko bizitzan Jainkoa ikusteko modua ematen digu, eta «beste begi batzuez» ikusteak pobreengan Jesus ikusteko moduan ematen digu.

[Isaias Profetaren liburutik 65,17-21: Ez da han gehiago entzungo ez negarrik, ez garrasirik. Sal 29: Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 4,43-54.

Aldi hartan, Jesus Samariatik atera eta Galileara joan zen. Jesusek berak aitortua zuen, profeta ez dutela bere herrian aintzat hartzen. Hala ere, Galileara iritsi zenean, galilearrek harre-ra ona egin zioten. Izan ere, Jerusalemen izanak ziren berak ere eta ikusiak zituzten Jesusek Pazko-jaietan egin zituen guztiak.

Jesu Galileako Kanara joan zen berriro, ura ardo bihurtu zuen herrira. Bazen han errege-funtzionario bat, semea Kafarnaumen gaixorik zeukana. Funtzionarioak, Jesus Judeatik Galileara etorri zela jakitean, harengana joan eta bere semea sendatzera jaisteko eskatu zion, hiltzorian zegoela eta. Jesusek erantzun zion: «Ezaugarriak eta egintza harrigarriak ikusten ez badituzue, ez duzue sinesten». Baina errege-funtzionarioak berriro: «Zatoz, Jauna, nire haurra hil baino lehen». Jesusek esan zion: «Zoaz etxera, semea onik duzu eta». Gizonak sinetsi egin zuen Jesusek esana eta joan egin zen.

Etxerakoan, morroiak atera zitzaizkion bidera, semea onik zuela esanez. Orduan galdetu zien zer ordutan hasi zen oneratzan. Eta haiek erantzun: «Atzo eguerdiko ordu batean utzi zion sukarrak». Konturatu zen aita ordu hartan esan ziola Jesusek: «Onik duzu semea». Eta sinetsi egin zuten Jesusengan berak eta etxeko guztiek.

Judeatik Galileara itzuli zenean egin zuen Jesusek bigarren ezaugarri hau.

Jesusek ezin eroan, ezin jasan du jendeak beragan sinestea «seinaleak eta mirariak» egiten dituenen bakarrik, eta ez irakasten duenagatik eta egiten duen testigantzagatik; halere, beti bezala, hunkitzen utzi dio bere buruari, hurbiltzen zaizkionen sufrimenduagatik, eta miraria egin du. Askotan jardun ohi gara ezbai abstraktu antzuetan, egin behar dena zer ote den: premia materialei kasu egin ala Hitza hots egin. Jakina, guztioi gustatuko litzaiguke hurbiltzen zaizkigun guztiek Jesusen mezua aurkitzea, baina horrek ez du izan behar eragozpen sufritzen ari denari laguntzeko.

Garizumako 4. astea.

Asteartea / Martitzena.

San Sixto III.a, 44. aita santua.

Santa Gundelina, abadesa.

San Kastor, martiria.

[Ezekiel Profetaren liburutik 47,1-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik ateratzen; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. Sal 45: Gudari-taldeen Jauna gurekin. Jakoben Jainkoa gaztelu sendo gurekin.]

† Jesu Kristoren Ebanjelio San Joanen liburutik 5,1-3a.5-16.

Aldi hartan, juduen jai bat ospatzen zen, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Bada Jerusalem, Ardien Atea delakoaren ondoan, hebreeraz Betzata deritzan uraska bat, bost aterpe dituena. Aterpeetan gaixo asko egon ohi zen, lurrian etzanda: itsu, herren eta elbarri.

Bazen han hogeita hemezortzi urtez gaixorik zegoen gizon bat. Jesusek, han etzanda ikusi eta aspalditiko egoera hartan zegoela jakinik, esan zion: «Nahi al duzu sendatu?» Gaixoak erantzun zion: «Jauna, ez dut inor ura mugitzean uraskara sartuko nauenik; ni iristerako, besteren batek aurrea hartzen dit». Jesusek esan zion: «Jaiki, hartu ohatila eta ibili». Une berean sendaturik gertatu zen gizona, ohatila hartu eta ibiltzen hasi zen.

Larunbata zen egun hura, atsedeen-eguna. Horregatik, juduek esan zioten sendatuari: «Larunbata da, eta ez duzu zilegi ohatila eramatea». Hark erantzun zien: «Sendatu nauenak berak esan dit: "Hartu ohatila eta ibili"». Orduan, galdegin zioten: «Nor da ohatila hartu eta ibiltzeko esan dizuna?» Sendatuak, ordea, ez zekien nor zen, Jesus ezkutatu egin baitzen inguruko jendearen artean.

Gero, Jesusek tenpluan aurkitu zuen eta esan zion: «Begira, sendaturik zaude. Ez egin bekaturik berriro, okerragorik gerta

ez dakizun». Joan zen gizon hura, eta juduei jakinarazi zien Jesus zela sendatu zuena. Horregatik, hain zuzen, erasotzen zioten juduek Jesusi: larunbatez halako gauzak egiten zituelako.

«Sendatu nahi al duzu?» Lehen begiratuan, galdera bitxia da. Bistakoa da, erantzuna «bai» izango dela... Baina «etzanik daramatzen hogeita hemezortzi urte» horiena susmagarria-edo da. Zeren eta, eguneroko esperientziak dioskunez, «gaixo bizitze hori ere» izan baitaiteke bizimodu bati lotzeko era bat; eta erdipurdiko biziera ere izan daiteke Jesusi jarraitzea ulertzeko eta bizitzeko modu bat. «Sendatua izateak» hautsi egiten du bizitzako zurruntasuna, eta mugitzera eta ibiltzera eragiten digu. Askotan nahiago izaten dugu geure kontraesanekin «hitzartu» eta erlatibizatu, halakoan kontra borroka egin baino eta Jesusi eskatu baino, halakoak gainditzen lagundu gaitzan.

[Isaias Profetaren liburutik 49,8-15: Herriaren elkargo zai-
tut zu egin, lurraldea eraiki dezazun. Sal 144: Gupidatsu da Jau-
na eta errukiorra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,17-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Nire Aita lanean ari da beti, eta Ni ere lanean ari naiz».

Esandako honengatik, juduak are gehiago zebiltzan Jesus hil nahian; larunbateko atsedena ez errespetatzeaz gainera, Jainkoa bere Aita zuela baitzioen, bere burua Jainkoaren pareko eginez.

Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Semeak ez dezake ezer ere bere kabuz egin, Aita egiten ikusten duena besterik: Aitak zer egin, huraxe bera egiten du Semeak ere. Izan ere, Aitak maite du Semea eta berak egiten dituen guztiak erakusten dizkio, eta hauek baino egintza handiagoak ere erakutsiko dizkio, harritu egingo zaituztetenak.

Aitak hilak piztu eta bizia ematen dien bezala, Semeak ere bizia ematen die nahi dituenei.

Aitak ez du inor epaitzen, baizik eta epaitzeko ahalmen guztia Semearen esku utzi du, guztiek, Aita ohoratzen duten bezala, Semea ere ohora dezaten; Semea ohoratzen ez duenak, hura bidali duen Aita ere ez du ohoratzen. Egi-egiaz diotsuet: nire hitza entzun eta bidali nauenagan sinesten duenak, betiko bizia du; ez da kondenatua izango, heriotzatik bizira igaroa baita dagoeneko.

Egi-egiaz diotsuet: Badator ordua –hobeto esan, iritsia da–, hildakoek Jainkoaren Semearen ahotsa entzungo dutena,

eta entzuten dutenak bizi egingo dira. Aitak bizia bere baitan duen bezala, Semeari ere bizia bere baitan izatea eman dio. Gainera, epaitzeko ahalmena eman dio, Gizonaren Semea delako. Ez harritu esaten dizuedanaz; badator-eta ordua, hildako guztiek haren ahotsa entzungo dutena, eta hilobietatik aterako direna: on egin zutenak betiko bizirako piztuko dira; gaitz egin zutenak, aldiz, kondenatuak izateko.

Nik ez dezaket neurez ezer egin: Aitari entzun bezala epaizten dut, eta nire epaia zuzena da, ez baitut helburu neure nahia egitea, bidali ninduenarena baizik».

«**S**emearen ahotsa entzungo dutenak biziko dira». Egiatia da Semearen ahotsa: egiaz esaten du zerk eramango gaituen bizira; ez dira sasi-promes, ezta hitz hutsal ere. Semearen ahotsak bizia ematen du: haren hitzak ez dira izaten askotan oso errazak, ezta oso gozoak ere belarrirako: eskakizun handiko hitzak izaten dira, interpelatzen dutenak, zuzengabekeria salatzen dutenak, eta hipokresia eta sasi-erlijioa salatzen dutenak. Baina bizia ematen duten hitzak dira. Non eta nola entzun dezakegu Semearen ahotsa? Otoitzaren barne barnekoian eta entzuteko arretaz eta jarreraz bizitako bizitzan.

Garizumako 4. astea.**Osteguna / Eguena.**San Joan Klimako, *abadea*.Santa Irene, *martiria*.

[Irteera liburutik 32,7-14: Utzi alde batera, Jauna, zure herriari egin diozun mehatxua. Sal 105: Oroit zaitetz gutaz, Jauna, herri hau maite duzunaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,31-47.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Nik neure buruaren alde egingo banu aitormen, nire aitormenak ez luke balioko. Beste bat da nire alde aitormen egiten duena, eta jakin badakit Hark nire alde egiten duen aitormenak balio duela. Zuek mandariak bidali zenizkieten Joani, eta hark egiari aitormen egiten zion. Ez dut hau esaten giza aitormenaren beharrik dudalako, zuek salba zaitetzten baizik. Joan Bataiatzailea argi egiten zuen kriseilu piztua zen, eta zuek, alditxo batez, haren argiaz poztu nahi izan zenuten. Baina nik badut Joanena baino balio handiago aitormena: Nik betetzeko Aitak eman dizkidan egintzak, hain zuzen; nire egintza hauek egiten dute aitormen nire alde eta Aitak bidali nauela frogatzen. Bidali nauen Aitak berak ere egiten du aitormen nire alde. Baina zuek ez duzue inoiz haren mintzorik aditu, ez haren aurpegirik ikusi, eta haren hitzak ere ez du zuen baitan lekurik, Hark bidaliagan ez sinesteak erakusten duen bezala. Aztertzen dituzue Liburu Santuak, betiko bizia haietan aurkituko duzelakoan, eta horiek dira, hain zuzen, nire alde aitormen egiten dutenak; hala ere, ez duzue nigana etorri nahi, betiko bizia izateko.

Ez dut gizakiengandik aintzarik onartzen; baina ongi eza-gutzen zaituztet eta badakit ez duzuela Jainkoa maite. Ni neure Aitaren izenean etorria naiz, baina zuek ez nauzue onartu; nor-

bait bere izenean etorriko balitz, hura bai, onartuko zenukete. Nola sinets dezakezue zuek, elkarrengandik onartzen baduzue aintza, eta Jainko bakarragandik datorren aintzak ez badizue axola? Ez uste izan Aitaren aurrean Nik salatuko zaituztedanik; bada norbait salatuko zaituztena: Moises bera, zeuen itxaropen duzuen. Izan ere, Moisesi sinetsiko bazeniot, neuri ere sine-tsiko zenidakete, nitaz idatzi baitzuen hark; baina hark idatzia sinesten ez baduzue, nola sinetsiko duzue nik esana».

«**B**idali ninduen Aita». Aitak «bidalikotzat» du Jesusek bere burua, eta Aitaren desira betetzeko bidalitakotzat aurkezten da. Aitaren misioa da, gehiena maite duenari eta konfiantza handiena eskaintzen dionari gomendatua: Seme bakarrari. Bidalikotzat du Jesusek bere burua, eta misio laritzat. Misioak bete-betean osatu du haren bizitza. Bizitza-bukaeran egiaz esan ahalko dio Aitari: «Bete da den-dena». Bere buru-eskaintzaz bizia eman dio munduari. Semeak gurekin partekatu nahi izan duen misioa da.

[Jakinduria liburutik 2,1a.12-22: Eman diezaioگون heriotza lotsagarria. Sal 33: Hurbil dute Jauna bihotz-urratuek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7,1-2.10.25-30.

Aldi hartan, Jesus Galilean zebilen; ez zuen Judean ibili nahi, juduek hil egin nahi baitzuten. Hurbil zen Etxola-jai, juduen jaietariko bat. Jesusen senideak jaietara joan zirenean, Jesus ere joan egin zen; baina ez agerian, erdi ezkutuan baizik.

Jerusalem dar batzuek zioten: «Ez al da hau hil nahi dute-na? Lasai asko ari da, bada, hizketan, eta ez diote ezer esaten. Onartu ote dute agintariek berau dela Mesias? Baina hau badakigu nongoa den; Mesias etorriko denean, ordea, ez du inork jakingo nongoa den».

Orduan, Jesusek, tenpluan irakasten ari zela, oihuka esan zuen: «Ni ezagutzen nauzue eta badakizue nongoa naizen. Baina Ni ez naiz neurez etorri, baizik eta fidagarria denak bidali nau, eta zuek ez duzue hura ezagutzen. Nik, bai, ezagutzen dut, harengandik bainator eta hark bidalia bainaiz».

Orduan, atxilotu egin nahi izan zuten; baina ezin izan zion inork eskurik erantsi, ez baitzen artean iritsia haren ordua.

«**E**zin ezarri izan zion eskua inork...». Jakina, ezintasun hori ez zen ezintasun fisikoa. Joanek hau nahi du azpimarratu: «artean ez zela iritsia haren ordua»: Jesus bera dela bizia emango duena, bere gogoz eskaintzen duena, Aitak gomendatu dion misioari leial eutsiz onartutako buru-**eskaintzaren** azkena dela haren heriotza. Azkeneraino egindako buru-**eskaintza**, azken ondorioetaraino, azken muturreraino. Aitarekiko eta gizon-emaku-

meekiko maitasuna, azken-azkeneraino. Hainbat eta hainbat gure anai-arrebena bezala, gaur ere beren buru-eskaintza azkeneraino egiten dutena. Emazkiogun eskerrak Jainkoari horien guztiengatik.

APIRILA / JORRAILA



[Jeremias Profetaren liburutik 11,18-20: Hiltzera daramaten bildots ezta bezala nintzen ni. Sal 7: Jauna, ene Jainko, zugana biltzen natzaizu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7,40-53.

Aldi hartan, jende arteko batzuek, Jesusen hitzak entzutean, honela zioten: «Hauxe da egiaz etortzekoa den Profeta». Beste batzuek esaten zuten: «Hauxe da Mesias». Beste batzuek, berriz: «Galileatik etor ote daiteke Mesias? Ez al dio Liburu Santuak Mesias Daviden jatorrikoa izango dela eta haren herritik, Betleemetik, etorriko dela?» Iritzi kontrajarriak zeuden, bada, jendearen artean Jesusi buruz. Batzuek atxilotu egin nahi zuten; baina ez zion inork eskurik gainean jarri.

Guardiak apaizburu eta fariseuengana itzuli ziren, eta hauek galdetu zieten: «Zergatik ez duzue ekarri?»

Guardiek erantzun zieten: «Ez du sekula inork gizon horrek bezala hitz egin». Fariseuek erantzun zieten: «Zer? Zuek ere liluratu al zaituzte? Sinetsi ote du harengan agintari edo fariseuetako batek ere? Baina Legea ezagutzen ez duen jendilaje hori madarikatua dago».

Orduan, Nikodemok, fariseu haietako batek, behinola Jesusengana joan zenak, esan zien: «Zilegi al da gure Legearen arabera inor gaitzestea, berari entzun eta zer egin duen jakin gabe?» Besteek erantzun zioten: «Galilearra al zara zu ere? Aztertu Liburu Santuak eta ikusiko duzu Galileatik ez dela inoiz profetarik sortu». Ondoren, nor bere etxera joan zen.

Ebanjelioko esaldirik gogorrenetako bat ageri da gaurko ebanjelio honetan. Apaiz nagusiek eta fariseuek esana da, Jesusi entzuten dion jendeaz: «Legeaz ezer ez dakien jende hau jende madarikatua da». Mespretxu eta gaitzespen guztizkoa. Jainkoaren Legea eta erlijioa bera baztertze-sistema bihurturik ageri da hor. Benetan hitz egiteko, hondo-hondoan, beste era batean bada ere, ez zait iruditzen jarrera hau bera erabat gainditua dugun, zoritxarrez. Egiaz Legea ezagutzen ez duten gizon-emakumeak, baina Jainkoak maite dituen seme-alabak direnak, Jainkoaren izenean mespretxatzen eta baztertzen ditugunean gertatzen den gauza da.

§ Ezekiel Profetaren liburutik 37,12-14.

Honela mintzo da Jauna: «Nik irekiko ditut zuen hilobiak, ateraraziko zaituztet zuen hilobietatik, ene herri, eta Israelgo lurraldera eramango.

Eta zuen hilobiak ireki eta horietatik ateraraziko zaituztedanean, ene herri, orduan jakingo duzue Neu naizela Jauna. Neure espiritua ezarriko dut zuengan, eta biziberrituko zarete. Zeuen lurraldean ezarriko zaituztet, eta jakingo duzue, Nik, Jaun honek, esandakoa bete egiten dudala». Hala dio Jaunak.

[Sal 129: Jaunagan dago errukia, harengan askatasun ugaria.]

§ San Paulok Erromatarrei 8,8-11

Senideok: Grina txarren menpean bizi direnak ezin izan gogoko Jainkoari. Zuek, ordea, ez zarete grina txarren menpean bizi, Espirituaren menpean baizik, Jainkoaren Espiritua zuengan bizi baita.

Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Kristo zuengan baldin badago, berriz, gorputza bekatuagatik hilik egon arren, espirituak badu bizia Jainkoaren salbamen-indarrari esker. Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi bada, Kristo hilen artetik piztu zuenak berak bizi-raziko ditu zuen gorputz hilkorrak ere, zuengan bizi den Espirituaren bitartez.

[Ebanjelio laburragoa nahi bada, kako [] arteko utzi daiteke.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11,1-45.

Aldi hartan, [gizon bat, Lazaro izenekoa, gaixo zegoen. Betaniakoa zen, Maria eta honen ahizpa Martaren herrikoa. (Ma-

ria hau –gaixo zegoen Lazaroren arreba– Jesus ukenduz igurtzi eta oinak bere ile-adatsez xukatu zizkiona zen)]. Lazaroren bi arrebek albiste hau bidali zioten Jesusi: «Jauna, zure adiskidea gaixorik dago». Jesusek, hori aditzean, esan zuen: «Gaitz hau ez da hiltzeko gaitza, Jainkoaren aintza azaltzeko baizik, gaitz honen bidez Jainkoaren Semearen aintza azal dadin».

Jesusek oso adiskide zituen Marta, honen ahizpa eta Lazaro. Hau gaixorik zegoela jakinda ere, Jesus zegoen lekuan gelditu zen beste bi egunez. Ondoren, esan zien ikasleei: «Goazen berriz ere Judeara».

[Ikasleek esan zioten: «Maisu, oraintsu juduek harrika egin nahi zizuten, eta hara joan behar al duzu berriro?» Jesusek erantzun zien: «Ez al ditu egunak hamabi ordu? Egunez dabilenak ez du estropezu egiten, eguzkiak argitzen baitio bidea; gauez dabilenak, ordea, estropezu egiten du, ez baitu argirik». Eta jarraitu zuen: «Lazaro gure adiskidea lo dago; baina banoa esnatzera».

Ikasleek esan zioten: «Jauna, lo badago, sendatuko da». (Jesusek Lazaroren heriotzaz esan zuen hori; baina ikasleek ohiko loaz ari zela uste zuten).

Orduan, Jesusek garbi esan zien: «Lazaro hil egin da eta pozten naiz han ez izanaz, zuen onerako izango baita, horrela sinets dezazuen. Goazen, bada, haren etxera». Tomasek, Bikia zeritzanak, esan zien ikaskideei: «Goazen gu ere, berarekin hiltzera».]

Jesus iritsi zenean, jadanik lau egun zeramatzan Lazarok hi-lobian. [Betania hurbil dago Jerusalemetik, hiru bat kilometrora. Eta judu asko etorri zen Marta eta Mariagana, nebarengatik doluminak ematera.]

Marta, Jesus zetorrela entzun orduko, bidera atera zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen. Martak esan zion Jesusi: «Jauna, hemen izan bazina, gure neba ez zen hilko. Hala ere, badakit eska diezaiozun guztia emango dizula Jainkoak».

Jesusek erantzun zion: «Piztuko da zure neba». Eta Martak: «Badakit piztuko dela azken egunean, hildakoen piztuera-koan».

Jesusek esan zion orduan: «Neu naiz piztuera eta bizia; nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da, eta bizi dena, nigan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hori?» Martak erantzun zion: «Bai, Jauna, sinesten dut Zeu zarela Mesias, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena».

[Ondoren, Marta bere ahizpa Mariari deitzera joan zen, eta esan zion isilka: «Maisua hemen dago eta dei egiten dizu». Hori entzutean, berehala jaiki eta Jesusengana joan zen. Jesus artean herrian sartu gabe zegoen, Martak topatu zuen lekuan bertan. Etxean Mariari nahigabean laguntzen zeuden juduek, hura bat-batean jaiki eta irten egin zela ikustean, jarraitu egin zioten, negar egitera hilobira zihoalakoan.

Mariak, Jesus zegoen tokira iristean, ikusi zueneko, oinetara ahuspez erori eta esan zion: «Jauna, hemen izan bazina, gure neba ez zen hilko».]

Maria eta harekin etorritako juduak negarrez ikusirik, barruak zirraratu egin zion Jesusi eta, zeharo hunkiturik, galdetu zuen: «Non ipini duzue?» Erantzun zioten: «Jauna, zatoz eta ikus». Jesusek negarrari eman zion.

Han zeuden juduek esan zuten: «Begira zein maitea zuen!» Baina haietako batzuek esan zuten: «Itsuari begiak ireki zizkion honek, ez al zezakeen hau hiltzea galarazi?»

Jesus, osterata ere hunkiturik, hilobira hurbildu zen. Haitzuloa zen, harlauzaz estalia. Jesusek esan zuen: «Ken harlauza!»

Hildakoaren arreba Martak esan zion: «Jauna, kiratsa botako du, lau egun baditu eta». Jesusek erantzun zion: «Ez al dizut esan, sinesten baduzu Jainkoaren aintza ikusiko duzula?»

Kendu zuten, bada, harria. Jesusek, begiak zerurantz jasorik, esan zuen: «Aita, eskerrak zuri, entzun didazulako. Nik ba-

dakit beti entzuten didazuna; baina inguruan dudan jendeagatik diot, Zuk bidali nauzula sinets dezaten».

Hau esanda, oihu egin zuen ozenki: «Lazaro, zatoz kanpora!» Eta hildakoa atera egin zen. Esku-oinak oihal-zerrendaz loturik eta aurpegia zapiz estalirik zituen. Jesusek esan zien: «Aska ezazue eta utzi joaten».

Jesusek egina ikusi zutenean, Maria ikustera joandako judu askok sinetsi zuen harengan.

«**J**auna, hemen egon bazina, gure anaia ez zen hilko». Ahizpa biek, izaera desberdineko eta leku desberdinetan, esaldi bera jaulki diote Jesusi. Askotariko sentimenduak agertzen dituen esaldia da: nahigabea anaia hiltzeagatik, kexua Jesusi berandu etortzeagatik, baina baita konfiantza eta fedea ere: Lazaroekin zuen adiskidetasunaz, bizia emateko duen ahalmenaz. Gutako zenbatek ikusten ahal dugun geure burua esaldi honetan! Ez, agian, anaia baten heriotza bezalako inguruabar mingarri batean, baina bai bizitzako beste gorabehera zail batzuetan: «hemen egon bazina...» halako hartan!

Fedean urrats bat aurrera egitera animatu ditu Jesusek: «piztuko da zure anaia»; «sinesten baduzu, ikusiko duzu Jainkoaren aintza». Eta fede hori berari begira izateko eskatu die: gogorarazi die beragan bete dela profetia: «neure espiritua isuriko dizuet eta biziko zarete»; esan die, gainera, bere Espiritua emango digula bera hiltzean, bizia emango digun Espiritua.

Garizumako bidea eta biziarena berarena, Pazkoranzko bidea da, Jesusekiko elkartasunean egiten bada. Eta ez, heriotzarik eta sufrimendurik izango ez delako («lau egun daramatza jadanik»), baizik eta Jesusen Espiritua heriotza eta sufrimendua baino indartsuagoa delako.

[Danielen liburutik 13,1-9.15-17.19-30.33-62: (Susana zintzoak:) Ni errugabe izanik, hiltzera noa. **Sal 22:** Ibar ilunetan banabil ere, ez nago gaitz-beldur, zu nirekin baitzaude.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 1-11.**

Aldi artan, Jesus Oliamendira joan zen. Biharamun-egun-sentian tenpluan agertu zen berriro, eta herri guztia etorri zitzaion; Jesus eseri eta irakasten hasi zitzaien.

Lege-maisuek eta fariseuek adulterioan harrapatutako emakume bat ekarri zioten eta, erdian ipiniz, esan zioten Jesusi: «Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek horrelakoak harrika hiltzeko agindu zigun Legean. Zuk zer diozu?» Azpikeriaz esaten zioten hori, zertan salatu izateko.

Jesus, ordea, makurtu eta atzamarrez lurtean idazten hasi zen. Baina haiek galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu eta esan zion: «Zuetan bekaturik gabe dagoenak bota diezaio-la lehenengo harria». Eta, berriro makurturik, lurtean idazten jarraitu zuen. Haiek, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziren, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela.

Jesusek, zutiturik, esan zion: «Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork gaitzetsi?» Hark erantzun: «Inork ere ez, Jauna». Orduan Jesusek: «Ezta Nik ere, ez zaitut gaitzesten. Zoaz eta ez egin berriro bekaturik».

Erdian emakume bekatari bat adulterioan berean harrapatu. Haren aurrean, jada eskuan harriak dituztela, legea betetzen prest, talde bat. Inondik ere, beren bekatuak ezkutatu nahi dituzte harri horien atzean. Je-

sus ere emakumearen aurrean, taldeari buruz buru; ez du erruki-hitzak beste ezer. Batzuk eskutik harriak kenduz eta nor bere egiaren aurrean jarriz salbatuko ditu. Emakumea bere harrerarekin eta barkazioarekin salbatuko du. «Ez gehiago bekatu egin»: ez da ezarpen bat, ezta baldintza bat ere, baizik maitasunaren xehetasun bat. Zeinen aldean jarriko gara?

[Zenbakiak liburutik 21,4-9: Sugeak hozkatuak izan diren guztiak, tupikizko sugeari begiratzen badiote, sendatuko dira. **Sal 101:** Entzun nire otoitza, Jauna, betor nire oihua zugana.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,21-30.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien fariseuei: «Ni banoa, eta nire bila ibiliko zarete; baina zeuen bekatuan hilko zarete. Ni noan tokira zuek ezin zarete joan». Orduan, entzuleek esan zuten: «Bere burua hil behar ote du? Horregatik esan ote du "Ni noan tokira zuek ezin zarete joan"?»

Jesusek jarraitu zuen: «Zuek behekoak zarete, Ni goikoa naiz; zuek mundu honetakoak zarete, Ni ez naiz mundu honetako. Horregatik esan dizuet, zeuen bekatuetan hilko zaretela; zeren, "Ni naizela" sinesten ez baduzue, zeuen bekatuetan hilko baitzarete». Orduan, esan zioten: «Nor zara zu?»

Jesusek erantzun: «Hasieratik ari natzaizue esaten. Badut zuetaz zer esanik eta zer gaitzetsirik asko. Baina bidali nauena fidagarria da; eta Nik hari entzun diodana, horixe bera esaten diot munduari». Haiek ez ziren jabetu Aitaz mintzo zitzaiela.

Jesusek, beraz, esan zien: «Gizonaren Semea jasoko duzuenean, orduan jakingo duzue Ni naizela, eta ez dudala neurez ezer egiten; baizik eta Aitak erakutsi didana bakarrik esaten dudala. Ni bidali nauena nirekin dago; ez nau bakarrik utzi, hark atsegin duena egiten baitut beti».

Jesusek gauza hauek esan zituenean, askok sinetsi zuen beragan.

«**B**idali ninduenak.. ez nau bakarrik utzi». Esapide honetan bi bizipen adierazi ditu Jesusek, oso garrantzizkoak beretzat: Aitak bidalitako

bezala bizi da, misio baterako, aldi berean handiosa eta zaila, eta gomen-
dio hori konfiantza osoaz bizi du, bidali duen hark ez duela une batean ere
bakarrik utziko. Hari bereko gonbita jaso du gutako bakoitzak ere, Jesuse-
kiko geure elkartasuna bizitzeko gonbita: esker onez, jakinik eta sentiturik
geu ere bidaliak garela salbamenaren misterio handian partaide izatera,
beti bere lagunartea eskaintzen digulako konfiantzaz.

[Danielen liburutik 3,14-20.91-92.95: Jainkoak aingerua bidali eta onik atera ditu bere zerbitzariak. Sal: Dn 3,52.53-54.55-56: Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,31-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien beragan sinetsi zuten juduei: «Nire hitzean irauten baduzue, egiaz nire ikasle izango zarete; ezagutuko duzue egia, eta egiak aske egingo zaituzte».

Erantzun zioten: «Gu Abrahamen ondorengoak gara, eta ez gara inoiz inoren esklabo izan. Nola diozu aske izango garela?»

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Bekatu egiten duena bekatuaren esklabo da. Esklaba ez da betiko etxean geratzen; semea, bai, betiko geratzen da. Beraz, Semeak askatzen bazaituzte, benetan aske izango zarete. Badakit, bai, Abrahamen ondorengoak zaretena; baina Ni hil nahian zabiltzate, nire hitza ez baita zuengan sustraitzen. Neure Aitaren ondoan ikusi dudana mintzo naiz Ni; zuek, berriz, zeuen aita-gandik ikasi duzuen egiten duzue».

Haiek erantzun zioten: «Abraham dugu aita». Jesusek orduan: «Abrahamen seme bazinete, Abrahamek egin zuena egingo zenukete. Zuek, ordea, Ni hil nahian zabiltzate, eta Jainkoari entzundako egia besterik ez dizuet esan. Abrahamek ez zuen horrelakorik egin. Zuek zeuen aitak egiten duena egiten duzue».

Erantzun zioten: «Gu ez gara sasikume; aita bakarra dugu, Jainkoa». Jesusek orduan: «Zuen aita Jainkoa balitz, maite izan-go nindukezue, Ni Jainkoagandik atera bainaiz eta etorri; ez naiz neure kabuz etorria, Hark bidalia baizik».

«Ez gara izan inoiz ere inoren esklabo...». Hori ausardia hori esateko! Batez ere «inoiz ez» hori... Norberaren esperientzia, eta benetako auto-ezagutza, erabateko barne askotasuna zein zaila den esanez mintzo zaizkigu. Kanpotik datozkigun eraginetatik eta norberaren barnetik erasotzen gaituzten grinetatik aske! Askatasuna, gizaki ororentzat bizi helburu da, eta Jesusekin bat egin ahala, haziz joan ohi gara askatasunean: «Se-meak aske egiten zaituzte, benetan aske». Uste dut, ebanjelioari lotuenetakoak diren baieztapenetako bat dela hau; baita erakargarrietakoa ere... Sekula isildu ezineko irrika, sekula ase ezinekoa.

[**Hasiera liburutik 17,3-9:** Herri askoren aita egiten zaitut.
Sal 104: Gogoan du Jaunak betiko egin zuen ituna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,51-59.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko».

Juduek esan zioten: «Orain bai dakigula deabruaren menpe zaudela. Abraham hil egin zen eta profetak ere bai; eta zuk diozu: "Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko"? Gure aita Abraham baino handiago al zara, bada, zu? Hura hil egin zen eta profetak ere bai; nor zarelakoan zaude?»

Jesusek erantzun zien: «Nire burua neuk ohoratuko banu, nire ohore horrek ez luke ezer ere balioko; baina Ni Aitak ohortzen nau, zeuen Jainkoa omen duzenak; zuek, ordea, ez duzue ezagutzen; Nik, bai, ezagutzen dut, eta ezagutzen ez dudala esango banu, gezurti izango nintzateke zuek bezalaxe; baina ezagutzen dut eta baita haren hitza gordetzen ere. Zuen aita Abraham pozik zen nire eguna ikusiko zuen itzaropenez; ikusi zuen eta alaitasunez bete zen».

Orduan, juduek esan zioten: «Ez dituzu oraindik berrogeita hamar urte, eta Abraham ikusi duzula?» Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Abraham sortu baino lehenagokoa naiz Ni».

Orduan, harriak hartu zituzten hari jaurtitzeko; baina Jesus ezkutatu egin zen eta tenplutik atera.

Jesusen diskurtsoa eta juduena paraleloki mugitzen dira; jakina, horrela, ezin topo egin. Ematen du gauza beraz mintzo direla (kasu honetan, Abrahamez), baina ez; juduak azalean mugitzen dira; Jesusek, berriz, hon-

dora jo du; haiek hitzen literaltasunean mugitzen dira; Jesus, berriz, biziaren hondoa agertzeko baliatu da hitzez. Ebanjelioa mezu bat da, hitzak baino harago dagoena adierazten duena hitzez. Bizia ematen duen Hitza da Jesus: «Nire hitza gordeko duenak ez du jakingo betiko hiltzea zer den».

[Jeremias Profetaren liburutik 20,10-13: Nirekin dut Jauna, gudari indartsu. Sal 17: Neure larrialdian Jaunari nion dei egin, eta entzun ninduen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,31-42.

Aldi hartan, juduek berriro harriak hartu zituzten Jesusi harrika egiteko. Jesusek esan zien: «Egintza onik asko egin dut zuen aurrean Aitaren izenean; horietako zeinengatik egin nahi didazue harrika?»

Erantzun zioten: «Ez zaitugu egintza onak egiteagatik harrikatu nahi, birao egiteagatik baizik; gizaki izanik, zeure burua Jainko egiten duzulako».

Jesusek erantzun zien: «Ez al dago idatzirik zuen Liburu Santuan: "Nik esan dut: jainko zarete?" Beraz, Jainkoak "jainko" esaten die bere hitza zuzendu zienei, eta Liburu Santuak esana ukaezina da. Nola diozue, bada, Nik, Aitak sagaratu eta mundura bidali nauen honek, birao egiten dudala, Jainkoaren seme naizela esateagatik? Nire Aitaren egintzak egiten ez baditut, ez sinetsi niri; baina egiten baldin baditut, niri sinesten ez badidazue ere, sinetsi egintzei. Horrela, behin betiko jakingo duzue Aita nigan dagoela eta Ni Aitagan».

Berriz ere atxilotu egin nahi izan zuten, baina ihes egin zien eskuetatik.

Berriro Jordanez bestaldera joan zen Jesus, garai batean Joan bataiatzen ari izan zen lekura. Han gelditu zen aldi batez, eta jende asko joaten zitzaion. Honela zioten: «Joanek ez zuen ezaugarririk batere egin, baina honetaz esan zuen guztia egia zen». Eta han askok sinetsi zuen Jesusengan.

Joan ebanjelariak agertzen digun Jesus, bizitza osoan eta, bereziki, Nekaldi aurreko uneetan eta Nekaldian berean, egiaren lekuko leiala den Jesus da, gorabehera zailenetan beretan ere. Ez dio sekula uko egingo hari bai esateari, jokoan bizia badu ere. Desberdina da Pilatorekiko: eszeptikoa da hau, duda du egia bakar bat ere baden. Gure kasua ez da Pilatorenena; gu, gai izaten gara egia saltzeko unean uneko komenentzien arabera, edozein motatako probetsuren arabera. Jesusi jarraitzea, apustua beti egiaren alde egitea da.

[Ezekiel Profetaren liburutik 37, 21-28: Herri bat bakar bihurtuko ditut. Sal: Jeremias 31,10.11-12ab.13: Artzainak ardaldea bezala zainduko gaitu Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11,45-57.

Aldi hartan, Jesusek Lazarorekin egina ikusi zutenean, Maria ikustera joandako judu askok sinetsi zuen harengan. Haie-tako batzuk, ordea, fariseuengana joan ziren, eta Jesusek egin zuena kontatu zieten.

Orduan, apaizburu eta fariseuek Batzarra bildu zuten, eta esan: «Zer egin? Gizon hau ezaugarri asko egiten ari da. Horrela jarraitzen uzten badiogu, denek sinetsiko dute berorren-gan, etorriko dira erromatarrek eta suntsitu egingo dizkigute bai tenplua eta bai herria». Batzarkideetako batek, urte hartan apaiz nagusi zen Kaifasek, esan zien: «Zuek ez dakizue ezer. Ez al zarete konturatzen hobe duzuela gizon bat herriagatik hiltzea, herri osoa galtzea baino?»

Kaifasek ez zuen hori bere kabuz esan; baizik eta, urte hartan apaiz nagusi zenez, profeta bezala hitz egin zuen, Jesus herriaren alde hilko zela adieraztean; eta ez herriaren alde bakarrik, baita sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak elkartzeko ere. Eta egun hartan, Jesus hiltzea erabaki zuten.

Horregatik, Jesus ez zen agerian ibiltzen juduen artean. Basamortu ondoko bazter batera alde egin zuen, Efraim izeneko herrira, eta han egon zen bere ikasleekin.

Juduen Pazkoa gainean zen, eta herrialdeko jende asko Jerusalemera igo zen Pazkoa baino lehen, garbikuntzak egiteko. Jerusalemera etorriak Jesusen bila zebiltzan eta, tenpluan topo

egitean, galdetzen zioten elkarri: «Zer deritzozue? Ez ote da jaietara etorriko?» Apaizburu eta fariseuek agindua zuten, baldin inork Jesus non zen jakiten bazuen, sala ziezaiela, atxilotu ahal izateko.

Bai sarritakoa dela gaurko ebanjelioak aurkezten digun jokabidea: norberaren probetxua, egoismoa edo beldurra besteekiko probetxuaren arropaz, altruismoz... jantzi nahi izatea! Hitz politik, aitzakiarik eta zurigarrik ez dugu falta izaten; batez ere, beste hori alde ahula denean. Xenofobiari geureen defentsa-izena ematen diogu, ahulei eskatutako sakrifizioari premia-izena, probetxu pribatuari guztien ona... «Komeni zaizue bat hiltzea»... Batzuen komenientzia eta Zintzoaren heriotza... «Herriagatik, nazioagatik». Hain antzinakoa eta hain egungoa, hain egiazkoa...

9

§ Isaias Profetaren liburutik 50,4-7.

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriei adore-hitza emateko. Goizero dit belarria ernearazten, ikasle onak bezala entzun dezadan. Jainko Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo. Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei, masailak, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei. Jauna dut laguntzaile; horregatik, ez naiz kikildu; horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala, bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

[Sal 21: Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?]

§ San Paulok Filipoarrei 2,6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari;
bestela baizik, bere izaeraz hustu egin zen
morroi-izaera hartuz,
eta beste edozein bezala azalduz.
Eta, gizon bezala agerturik,
apaldu egin zuen bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino
Horregatik, Jainkoak goratu egin zuen
eta izen guztien gaineko izena eman zion,
Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezen,
zeruan, lurrian eta lurpean,
eta mihi guztiek aitor dezaten:
Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako

K Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Mateoren liburutik 26,14–27,66.

K Aldi hartan, [Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaizburuengana joan eta esan zien:

S «Zenbat agintzen didazue, Jesus zuen eskuetara emateagatik?»

K Haiek zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zizkieten. Orduz gero, Jesus haien eskuetara emateko egokiera bila zebilen Judas.

Non prestatzea nahi duzu pazko-afaria?

K Legamiagabeko Ogien jaiko lehen egunean, ikasleek Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten:

S «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?»

K Jesusek erantzun zien:

† «Zoazte hirira, halakoagana, eta esaiozue: “Maisuak dio hurbil dela beraren ordua, eta zuen etxean ospatu nahi duela Pazkoa bere ikasleekin”».

K Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta pazko-afaria prestatu zuten.

Zuetako batek saldu egingo nau.

K Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin eta, afaltzen ari zirela, esan zuen:

† «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau».

K Ikasleak, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion banaka:

S «Nik ote, Jauna?»

K Hark erantzun:

† «Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaio izan ez balitz».

K Orduan, Judasek —salduko zuenak— galdetu zion:

S «Ni al naiz, Maisu?»

K Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk esan duzu».

Hau nire gorputza da. Hau nire odola da.

K Afaltzen ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen eta, bedeinkapen-otoitza eginez, zatitu eta bere ikasleei eman zien, esanez:

† «Hartzazue, jan: hau nire gorputza da».

K Gero, kaliza hartu eta esker oneko otoitza eginez, eman zien, esanez:

† «Edan guztiok honetatik: hau nire odola da eta, itunaren odola, bekatuak barkatzeko guztien alde isuria. Hara Nik esan: Hemendik aurrera ez dut gehiago ardorik edango, neure Aitaren erreinuan zuekin ardo berria edango dudan eguna arte».

K Gorazarreak abestu ondoren, Oliamendira atera ziren.

**Joko dut artzaina,
eta sakabanatuko dira artaldeko ardiak.**

K Jesusek esan zion:

† «Gaur gauean zuen guztion sinesmenak huts egingo du ni naizela eta, honela baitago idatzirik Liburu Santuan: "Joko dut artzaina eta artaldeko ardiak sakabanatu egingo dira". Baina Ni, piztu ondoren, aurretik joango natzaizue Galileara».

K Orduan, Pedrok esan zion:

S «Beste guztiek zugatik huts egiten badute ere, nik inola ere ez».

K Jesusek erantzun zion:

† «Benetan diotsut: Gaur gauean bertan, oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

K Pedrok esan zion:

S «Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut inola ere ukatuko».

K Eta gauza bera esaten zuten ikasle guztiek.

Nahigabetzen hasi zen eta larritzen.

K Jesus bere ikasleekin Getsemani zeritzan landa batera iritsi zen, eta esan zien:

† «Zaudete hemen, Ni hara otoitz egitera noan bitartean».

K Pedro eta Zebedeoren bi semeak eraman zituen berekin. Tristura eta larria sentitzen hasi zen, eta esan zien:

† Hiltzeko zorian nago tristuraz; gelditu hemen eta zaudete erne nirekin batean».

K Eta aurreraxeago joanik, ahuspez erori zen eta otoitz egin zuen, esanez:

† «Ene Aita, ahal bada, urrun ezazu nigandik kaliza mingots hau. Baina ez bedi egin Nik nahi bezala, zuk nahi bezala baizik».

K Joan zen ikasleengana eta lo aurkitu zituen. Pedrori esan zion:

† Beraz, ordu bete ere ezin izan zarete nirekin erne egon? Zaudete erne eta egin otoitz, tentaldian eror ez zaitezten: go-goiz gartsu izan arren, ahula baita gizakia».

K Bigarren aldiz aldendu eta otoitz egin zuen, esanez:

† «Ene Aita, kaliza mingots hau derrigorrez edan behar badut, egin bedi zure nahia».

K Eta berriro itzulirik, lo aurkitu zituen, begiak astun baitzituzten. Haiek utzita, berriro ere aldendu eta hirugarren aldiz otoitz egin zuen, lehengo hitz berak esanez. Gero, ikasleengana joan eta esan zien:

† Egin lo eta hartu atsedena. Hara, iritsi da ordua Gizonaren Semea bekatarien eskuetara emana izateko. Jaiki, goazen, hurbil da salduko nauena».

**Eskuak erantsi zizkioten Jesusi,
eta lotu egin zuten.**

K Oraindik hizketan ari zela, han azaldu zen Judas, Hama-

bietako bat; jende-talde handia zetorren harekin, apaizburuek eta herriko zaharrek bidalita, ezpatak eta makilak eskuetan ziztuztela. Saltzaileak seinale hau emana zien:

S «Nik musu emango diodana, huraxe da; atxilotu ezazue».

K Berehala Jesusengana hurbildu eta esan zion:

S «Agur, Maisu!»

K Eta musu eman zion. Jesusek esan zion:

† «Adiskide, egizu egitekoa»

K Orduan, besteek, Jesusengana hurbildurik, heldu eta atxilotu egin zuten. Jesusekin zeudenetariko batek, eskua luzatuz, ezpata atera zuen, apaiz nagusiaren morroia jo eta belarria moztu zion. Jesusek esan zion:

† «Itzuli ezpata bere lekura; ezpata darabilena ezpataz hilko da. Zer uste duzu? Ezin diodala neure Aitari dei egin laguntza eske? Hamabi aingeru-talde eta gehiago ipiniko lituzke berehala nire esku. Baina nola beteko lirateke orduan Liburu Santuak, honela gertatu behar duela baitiote».

K Une hartan, Jesusek jendeari esan zion:

† «Lapur baten bila bezalaxe etorri zarete, ezpata eta makilekin, Ni harrapatzera. Egunero esertzen nintzen tenpluan irakasten, eta ez ninduzuen atxilotu. Baina hau guztia Profetek idatzia bete dadin gertatu da».

K Orduan, ikasle guztiek Jesus utzi eta ihes egin zuten.

Ikusiko duzue Gizonaren Semea,

Ahaguztidunaren eskuinaldean jartzen.

K Jesus atxilotu zutenek Kaifas apaiz nagusiaren etxera eramán zuten, han baitzeuden bilduta lege-maisu eta herriko zaharrak. Pedro, Jesusi urrutitik jarraituz, apaiz nagusiaren jau-regiraino joan zen eta, barrura sarturik, morroiekin eseri zen, hura guztia zertan bukatzen zen ikusteko.

Apaizburuak eta Batzar Nagusi osoa Jesusen kontra gezurrezko testigantza bila zebiltzan, heriotzara kondenatzeko;

baina ez zuten aurkitzen, gezurrezko testigu asko azaldu arren. Azkenean, bi azaldu ziren, esanez:

S «Honek esan zuen: "Jainkoaren santutegia desegin dezaket eta hiru egunetan berriro eraiki"».

K Zutitu zen orduan apaiz nagusia eta esan zion:

S «Ez al diezu ezer erantzun behar zure kontrako salaketa horiei?»

K Baina Jesus isilik. Apaiz nagusiak esan zion:

S «Jainko biziagatik eskatzen dizut: Esaguzu zu zaren Mesias, Jainkoaren Semea».

K Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk esan duzu. Eta gehiago diotsuet: Oraintxetik Gizonaren Semea Jainko ahalguztidunaren eskuinean eserita eta zeruko hodei gainean etortzen ikusiko duzue».

K Orduan, apaiz nagusiak bere jantziak urratu zituen, esanez:

S «Biraoa esan du. Ba al dugu lekuko beharrik? Zeuek entzun duzue biraoa. Zer deritzozue?»

K Haiek erantzun:

S «Heriotza merezi du».

K Orduan, aurpegira listua bota eta ukabilkadak eman zizkioten; beste batzuek masailekoak ematen zizkioten, esanez:

S «Asma ezak, Mesias: zeinek jo hau?»

Zin eginez ukatu zuen:

«Nik ez dut ezagutzen gizon hori!»

K Pedro kanpoan zegoen eserita, patioan; neskame batek hurbildu eta esan zion:

S «Zu ere Jesus Galilearrarekin ibili ohi zinen».

K Pedrok guztien aurrean ukatu zuen:

S «Ez dakit zertaz ari zaren».

K Atarira irten zen, eta beste neskame batek ikusi eta esan zion ingurukoei:

S «Hau Jesus Nazaretarrekin ibili ohi zen».

K Pedrok berriro ukatu zuen, zin eginez:

S «Ez dut ezagutzen gizon hori!»

K Handik laster, han zeudenek Pedrogana hurbildu eta esan zioten:

S «Bai, zu ere horietakoa zara; hizkeran ezagun duzu».

K Orduan Pedro biraoka eta madarikazioka hasi zen:

S «Ez dut ezagutzen gizon hori!

K Eta berehala oilarrak jo zuen. Pedrori Jesusek esana gogoratu zitzaion: "Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu", eta, kanpora irtenik, negarrari eman zion saminki.

Pilato agintariagana eraman zuten Jesus.

K Eguna argitu zuenean, apaizburu eta herriko zahar guztiek bildu eta Jesusen aurkako erabakia hartu zuten, heriotzara kondenatzeko. Eta loturik eraman eta Pilato gobernadorearen eskuetan jarri zuten.

Ez da zilegi diru hau atabakara botatzea, odol-saria da eta.

K Judas saltzaileak, Jesus kondenatua zutela ikusirik, damu izan zuen eta zilarrezko hogeita hamar txanponak apaizburu eta herriko zaharrei itzuli zizkien, esanez:

S «Bekatu egin dut errugabea heriotzara emanetz».

K Baina haiek erantzun zioten:

S «Eta guri zer? Hor konpon!»

K Orduan, dirua tenpluan jaurtirik, handik atera eta bere bu-rua urkatu zuen. Apaizburuek dirua jaso eta esan zuten:

S «Ez da zilegi diru hau tenpluko dirutegira botatzea, odol-saria da eta».

K Eta, elkarrekin erabakia hartu ondoren, "Eltzegilearen Soroa" erosi zuten, kanpotarren hilerritarako. Horregatik, gaur egun ere,

soro hari «Odol Soro» deritza. Honela bete zen Jeremias profetak esana: «Zilarrezko hogeita hamar txanpon hartu zituzten; hori izan zen israeldarrek ezarri zioten salneurria. Eta Eltzegilearen Soroa erosteko erabili zituzten, Jaunak agindu zidan bezala».]

Zu juduen erregea al zara?

K Jesus Gobernadorearen aurrera aurkeztu zuten. Gobernadoreak galdetu zion:

S «Zu al zara juduen erregea?»

K Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk diozu».

K Apaizburuak eta herriko zaharrak salatu eta salatu ari ziren Jesusen aurka, baina hark ez zuen hitzik erantzuten. Pilatok esan zion:

S «Ez al duzu entzuten zenbat gauza ateratzen duten zure kontra?»

K Jesusek salakuntza bakar bati ere ez baitzion erantzunik ematen, zeharo harriturik zegoen Gobernadorea. Pazko-jai guztietan preso bat askatzeko ohitura zuen Gobernadoreak, herriak nahi zuena. Bazen orduan preso sonatu bat, Barrabas zeritzana. Herria bildu zenean, Pilatok galdetu zion:

S «Nor nahi duzue askatzea, Barrabas ala Jesus, Mesias delakoa?»

K Bai baitzekien bekaitzez emana ziotela Jesus. Auzitegian eseririk zegoela, emazteak mandatu hau bidali zion:

S «Ez zaitез sar errugabe horrekin; asko sufritu dut bart ametsetan hori dela eta».

K Baina apaizburuek eta herriko zaharrek jendea berotu zuten, Barrabasen askapena eta Jesusen heriotza eska zitzaizkien. Gobernadoreak berriro galdetu zion:

S «Bietako zein nahi duzue askatzea?»

K Haiek erantzun:

S «Barrabas».

K Pilatok esan zien:

S «Eta zer egin behar dut Jesusekin, Mesias delakoarekin?»

K Denek erantzun zuten:

S «Josi gurutzean!»

K Eta hark:

S «Zer oker egin du, bada?»

K Haiek, gero eta deiadar handiagoz:

S «Josi gurutzean!»

K Pilatok, dena alferrik zela eta gainera iskanbila sortzera zihola ikusirik, ura hartu eta eskuak garbitu zituen jendearen aurrean, esanez:

S «Ez naiz gizon honen heriotzaren erantzule. Zeuek ikusi!»

K Herri osoak erantzun zuen:

S «Geu eta gure ondorengoak egiten gara horren heriotzaren erantzule!»

K Orduan, Barrabas askatu zien eta Jesus, zigorkarazi ondoren, haien eskuetara eman zuen, gurutziltza zezaten.

Agur, juduen errege!

K Gobernadorearen gudariak jauregira eraman zuten Jesus eta gudari-talde osoa bildu zuten haren inguruan. Soinekoak erantzi eta purpurazko kapa jantzi zioten. Arantzas eginiko koroa ezarri zioten buruan eta kanabera eskuan. Eta, aurrean belaunikaturik, iseka egiten zioten, esanez:

S «Agur, juduen erregea!»

K Listua botatzen zioten eta, kanabera kendurik, buruan josten zuten. Nahiko iseka egin ondoren, kapa kendu eta bere soinekoak jantzi zizkieten. Gero, gurutzean jostera eraman zuten.

Harekin batean

bi gaizkile josi zituzten gurutzean.

K Ateratzean, Zireneko gizon bat aurkitu zuten, Simon ze-

ritzana, eta Jesusen gurutzea eramatera behartu zuten. Golgota izeneko lekura iritsi zirenean —Golgotak “Buru-hezur” esan nahi du—, behazunez nahastutako ardoa eman zioten edatera; Jesusek dastatu zuen, baina ez zuen edan nahi izan. Gurutzean josi zutenean, gudariak Jesusen jantziak banatu zituzten, zotz eginez, eta han gelditu ziren eserita hura zaintzen.

Buruaren gainaldean kondenzazioaren arrazoia ipini zuten idatzita: HAU JESUS DA, JUDUEN ERREGEA. Jesusekin batean bi gaizkile gurutziltzatu zituzten, bata eskuinean eta bestea ezkerrean.

**Jainkoaren Seme baldin bahaiz,
jaits hadi gurutzetik!**

K Handik igarotzen zirenek irain egiten zioten Jesusi, buruari eragin eta esanez:

S «Santutegia desegin eta hiru egunetan berriro eraikitzen omen huen horrek, salba ezak heure burua, Jainkoaren Seme baldin bahaiz! Jaitsi hadi gurutzetik!»

K Era berean, apaizburu, lege-maisu eta herriko zaharrek ere burla egiten zioten, esanez:

S «Besteak salbatu dizkik, eta bere burua ezin salbatu. Israelgo erregea omen duk; jaitsi dadila orain gurutzetik, eta sinetsiko diagu beragan. Jainkoagan jarria dik uste ona; libra dezala orain, maite baldin badu; ez zian, bada, Jainkoaren Seme zela esaten?»

K Berarekin gurutzean josirik zeuden bi gaizkileek ere irain egiten zioten.

Eli, Eli, lema sabaktani.

Eguerditik hirurak arte, ilundu egin zuen lurbira osoan. Hirurak inguruan, Jesusek oihu handiz esan zuen:

† «Eli, Eli, lema sabaktani»,

K —hau da:

† «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?»—

K Hau entzutean, bertan zeuden batzuek esan zuten:

S «Eliasi deika ari duk».

K Berehala, haietako batek, lasterka joan, ozpinetan bustitako belakia hartu eta, kanabera bati muturrean erantsiz, edartera eman zion. Besteek, ordea, zioten:

S «Egon, ea datorkion Elias salbatzera».

K Baina Jesusek, berriro deiadar handia eginez, azken arnasa eman zuen.

**Hemen belauniko jarri
eta egonalditxo bat egiten da.**

K Orduan, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen, goitik beheraino; lurrikara izan zen eta harkaitzak zartatu egin ziren; hilobiak ireki eta hilik zeuden santu asko piztu egin ziren. Hauek, beren hilobietatik atera eta, Jesus piztu ondoren, hiri santuan sartu ziren eta jende askori agertu zitzaizkion. Lurrikara eta gertakari guztiok ikustean, erromatar ehuntariak eta harekin Jesus zaintzen zeuden besteek, beldurrak jota, esan zuten:

S «Benetan, hau Jainkoaren Semea zen».

[K Baziren han emakume asko ere, urrutitik begira; Jesusi jarraituz Galileatik etorriak ziren, beraren zerbitzari; haien artean, Maria Magdalena, Santiago eta Joserren ama Maria, eta Zebedeoren semeen ama.

**Josek beretzat zulatutako hilobi berrian
ipini zuen Jesusen gorpua.**

K Ilunabarrean, Jose zeritzan Arimateako gizon aberats bat etorri zen, bera ere Jesusen ikaslea. Pilatogana aurkeztu eta Jesusen gorpua eskatu zion. Orduan, Pilatok emateko agindu zien. Josek, Jesusen gorpua harturik, izara garbi batean bildu eta harkaitzean zulatutako bere hilobi berrian ipini zuen. Gero, ha-

rri handi bat irauliz, hilobiko sarrera itxi zuen eta joan egin zen. Maria Magdalena eta beste Maria hilobi aurrean eserita zeuden.

**Hor dituzue zaintzaileak;
zoazte zeuek eta zaindu dakizuen eran.**

K Pazko-jaiak prestatzeko egunaren ondoren, larunbatean, apaizburuek eta fariseuek Pilatogana elkarrekin joan eta esan zioten:

S «Jauna, oroitu gara gezur-saltzaile hark, artean bizi zela, esan zuela: "Hiru egunen buruan piztu egingo naiz". Agindu ezazu, beraz, hilobia zaintzeko hirugarren eguna arte; ez dadila gerta haren ikasleek gorpua ostu eta gero "Piztu da hilen artetik" herriari esanez etortzea. Azken engainu hau lehenbizikoa baino okerragoa izango litzateke».

K Pilatok erantzun zien:

S «Badituzue zeuen guardiak. Zoazte eta zaindu dakizuen eran».

K Joan ziren, bada, eta hilobia segurtatu zuten, harria zigilatuz eta guardia ipiniz.]

Bada aintza iheskor eta arin bat: balio edo itzarobide mundutarrei dagokien jendetzaren txaloen aintza. Jesusek Jerusalem sartzeari jaso dituen jendetzaren txaloak asko du horretarik: Mesias bat txalotzen duen jendetza da, baina Mesias hori ez dator bat Jesusek eskaintzen duen itzarobidearekin. Jendetza handi baten txaloak dira, baina arinak bezain iheskorak: segur aski, igande horretan Jesus txalotu duten asko, egun bakan batzuk geroago gurutziltzatzeko eskatuko dutenak dira. Ez da komeni horrelako txaloak aintzat hartzea, ez da komeni aintza horren bila borroka egitea...

Bada beste aintza bat barnekoia, ez iheskorra, baizik behin betikoa, Jainkoak ematen duen aintza: «Izen ororen gaineko lzena eman zion». Zinezko aintza da, pena merezi duena.

Nori ematen dio Jainkoak aintza hori? Jainkoa izatearen mailari uko egin dionari, beheratu denari, eta hainbeste jenderen arteko bat eginik gurutzeari hil denari.

Jesusen Nekaldia, buru-eskaintza baten historia da, bizitza oso baten eskaintzari gailurra ematen dion eskaintza batena, ondorioei begira eta kalkuluak egiten gelditzen ez den buru-eskaintza batena; azkeneraino doan buru-eskaintza da, probaldian ere eutsi dion eskaintza. Bere burua Jainkoari eta gizon-emakumeei eskaintzea: horrek dio balioa ematen pertsona baten bizitzari.

[Isaias Profetaren liburutik 42,1-7: Ez da deiadarka ariko, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Sal 26: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,1-11.

Pazkoa baino sei egun lehenago, Jesus Betaniara joan zen; han bizi zen Lazaro, Jesusek hilen artetik piztu zuena. Afaria eskaini zioten; Marta ari zen afaria zerbitzatzan, eta Lazaro Jesusekin mahaian zeudenetako bat zen. Mariak, nardo jatorrezko kilo erdi bat ukendu usain gozoduna, balio handikoa, harturik, oinak igurtzi zizkion Jesusi, eta bere ile-adatsez xukatu. Etxea lurrin-usainez bete zen.

Judas Iskariotek, salduko zuen ikasleak, esan zuen: «Zergatik ez da saldu ukendu hori hirurehun denariotan, eta dirua behartsuei eman?» (Hori esan zuen, ez behartsuak axola ziztaizkiolako, lapurra zelako baizik, eta, diru-poltsa berak zuezez, hara botatzen zutenetik ostu egiten zuelako.)

Jesusek esan zion: «Utziozu bakean; nire hilobiratze-egunerako egin du hori. Izan ere, behartsuak beti dituzue zeuen artean; baina Ni ez nauzue betiko izango».

Juduetariko askok jakin zuten Jesus Betanian zegoela, eta bertara joan ziren, Jesusengatik ez ezik, baita hilen artetik piztu zuen Lazaro ikusteagatik ere. Apaizburuek, orduan, Lazaro ere hiltzea erabaki zuten, hura zela-eta herritar askok haiengandik alde egiten baitzuten eta Jesusengan sinesten.

Jesusen txera eta pobreekiko haren konpromisoa kontrajarri. Horra zer egin duen Judasek, asmo eta argudio maltzurrez. Eta, zoritxarrez, jarrera

horrek horrela jarraitu du izaten eta horrela jarraitzen du, askotan. Jesusekiko txera pobreekiko konpromisoaren kaltetan biziko balitz bezala, edota konpromiso hau hain egiazkoa eta hain errotikoa izango ez balitz bezala Jaunarekin ditugun harreman pertsonaletan. Kontrakotasun hori azpimarratuz bizitzea, saldukeria egitea izango litzateke ebanjelioaren muin-muinari. Jaunarekiko maitasun den ebanjelioari, alegia, eta, ondorioz, pobreekiko, Jaunaren adiskideekiko, maitasun den ebanjelioari.

[Isaias Profetaren liburutik 49,1-6: Atzerritarren argi egiten zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin. **Sal 70**: Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,21-33.36-38.

Aldi hartan, larritu egin zitzaion Jesusi barrua, eta argi adierazi zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Zuetako batek salduko nau». Ikasleak elkarri begiratzen hasi ziren, zeinez ari zen asmatu ezinik.

Ikasleetako bat, Jesusek hain maite zuena, beraren ondo-ondoan zegoen mahaian. Simon Pedrok keinu egin zion, zeinez ari zen galdetzeko adieraziz. Hark, burua Jesusen bular gainean jarriz, galdetu zion: «Zein da, Jauna?»

Jesusek erantzun zion: «Ogi-puska busti hau emango diodana, huraxe da». Eta ogi-puska bustiz, Judasi, Simon Iskarioteraren semeari, eman zion. Eta ogi-puskarekin batera Satanas sartu zen haren barrura.

Orduan, Jesusek esan zion: «Egin behar duzuna, egizu berehala». Mahaikideetako inork ez zuen ulertu zergatik esan zion hori. Judasek diru-poltsaren ardura zuenez, zenbaitek uste izan zuen jairako behar zena erosteko edota behartsuei zerbait emateko esan ziola. Judas ogi-puska hartu eta berehala atera zen. Gaua zen.

Atera zenean, esan zien Jesusek: «Oraintxe azaltzen da Gizonaren Semearen aintza, eta haren bidez Jainkoarena. Jainkoaren aintza haren bidez azaltzen bada, Jainkoak ere bere aintzaz beteko du hura, eta berehala gainera».

«Semetxook, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Nire bila ibiliko zarete, baina juduei esan niena bera esaten dizuet zuei ere: "Ni noan tokira, zuek ezin zarete joan"».

Simon Pedrok galdetu zion: «Jauna, nora zoaz?» Jesusek erantzun: «Ni noan lekura zuk ezin jarraitu orain niri; geroago bai, jarraituko didazu».

Pedrok esan zion: «Zergatik ezin dizut jarraitu orain? Neure bizia emango dut zugatik». Jesusek erantzun zion: «Zeure bizia emango duzula nigatik? Egi-egiaz esaten dizut: Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

«**B**erehala irten zen»... Afarian, Jesusen maitasunaren eta buru-eskaintzaren keinu goren horretan, parte hartu eta berehala. Argibiderik aurkitzen ez diogun hainbatetako giza jokabidea da; eta esperientzia, gogorra, saltzaile baten dinamika aldatzeko ahamenik ez duen maitasun batena. «Gaua zen»: iluna, argirik eza, mundua eta bizitza... argitzen dituen argi horren eza. Judasen saldukeriaz gogoeta egiteak apaltasunera eragiten digu; maitasunean eusten diguna Jainkoaren grazia dela ahazten ez duen apaltasunera; grazia hori gabe, ilunpean, urrats oso okerrak egiten ahal genituzkeela gogora ekartzen digun apaltasunera.

[Isaias Profetaren liburutik 50,4-9a: Ez diet aurpegia saihestu irainei. Sal 68: Hain onbera baitzara, Jauna, entzun nazazu zure grazi egunean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 26,14-25.

Aldi hartan, Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaizburuengana joan eta esan zien: «Zenbat agintzen didazue, Jesus zuen eskuetara emateagatik?» Haiek zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zizkieten. Orduz gero, Jesus haien eskuetara emateko egokiera bila zebilen Judas.

Legamiagabeko Ogien jaiko lehen egunean, ikasleek Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten: «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?» Jesusek erantzun zien: «Zoazte hirira, halakoagana, eta esaiozue: "Maisuak dio hurbil dela beraren ordua, eta zuen etxean ospatu nahi duela Pazkoa bere ikasleekin"». Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta pazko-afaria prestatu zuten.

Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin eta, afaltzen ari zirela, esan zuen: «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau». Ikasleak, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion banaka: «Nik ote, Jauna?» Hark erantzun: «Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaio izan ez balitz». Orduan, Judasek —salduko zuenak— galdetu zion: «Ni al naiz, Maisu?» Jesusek erantzun zion: «Zeuk esan duzu».

«Hogeita hamar txanpon agindu zizkieten...». Ezer gutxi... adiskidea eta Maisua haien esku jartzeko. Ez da dirua Judasi Jesus saltzera

eragin diona. Zer da, ba? Berak pentsatzen zuena ez bezalako egitasmo batek eragindako desilusia? Berak buruan zuen mesianismo borrokari eta garaile baten itxarobidea betetzen ez zelako desilusia? Giza bihotzaren sekretuak. Nahasgarri gertatzen zaizkigun hainbat eta hainbat giza jokabideren misterioa, ezin ulertu ditugunena... Orobat da gure misterioa ere: «ez dut egiten nahi dudan ongia, baizik eta nahi ez dudan gaizkia» (Erromatarrei 7,19). Argitasuna eskatzeko deia.

Aste Santua: Jaunaren Afaria.

Osteguna / Eguena.

San Martin 1.a, *aita santua eta aita santuen artean azken martiria.*

San Hermenegildo, *martiria.*

Irteera liburutik 12,1-8.11-14.

Egun haietan, honela mintzatu zitzaien Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hil hau izango duzue hil nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren elkarte osoari: «Hil honen hamarrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko du, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat lagun behar den kontuan harturik. Aberea akatsik gabea izango da, arra, urtekoa, arkume nahiz antxume. Hilaren hamalaua arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar elkarteko guztiek hilko dute. Gero, odola hartu eta jango duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua odoleztatuko dituzue. Gau horretan, suan errea jango duzue haragia, legamiagabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik.

Honela jango duzue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita, hau da, Jaunaren igarotzea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango duzue ezaugarri zaudeten etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz; horrela, Nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte zuek suntsituko.

Egun hau gogoangarri izango duzue eta jai nagusiz ospatuko duzue Jaunaren ohorez. Jai honen ospakizuna betiko lege izango duzue belaunez belau».

[Sal 115: Esker oneko kalizak Kristoren odolean elkartzen gaitu.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei.

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker oneko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire gorputza da, zuentzat ematen dena. Egizue hau nire oroigarri».

Afal ondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire odolaz ezarria; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri». Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, bera etorri arte.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,1-15.

Pazko-jaia gainean zen. Jesusek, jakinik mundu hau utzi eta Aitagana joateko ordua iritsi zitzaiola, munduan ziren bereak maite izanik, azkenean bete-bete maitatu zituen.

Afaltzen ari ziren. Ordurako deabruak sartua zion buruan Simon Iskarioteraren seme Judasi Jesus saltzeko asmoa. Jesus, jakinik Aitak dena bere esku jarri ziola, Jainkoagandik etorria zela eta Jainkoagana zihoala, jaiki zen mahaitik, erantzi zuen soingainekoa eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen; gero, ontzi bat urez bete eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzaien, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen.

Simon Pedrogana iritsi zenean, honek esan zion: «Jauna, zuk niri oinak garbitu?» Jesusek erantzun zion: «Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen; geroago ulertuko duzu».

Pedrok berriro: «Zuk ez didazu sekula niri oinik garbituko». Jesusek erantzun: «Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango».

Simon Pedrok esan zion: «Jauna, orduan oinak ez ezik, baita eskuak eta burua ere». Jesusek erantzun zion: «Garbitua

hartu duenak ez du oinak baizik garbitu beharrik, erabat garbi baitago; eta zuek garbi zaudete, baina ez guztiok». Izan ere, bazekien nork salduko zuen; horregatik esan zuen: «Ez zaudete guztiok garbi».

Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zien: «Ulertzen duzue egin dizuedana? Zuek Maisu eta Jauna deitzen didazue, eta ongi deitu ere, halaxe naiz eta. Beraz, Nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue. Jarraibide eman dizuet, zuek ere Nik zuekin bezalaxe joka dezazuen».

«Egizue hau nire oroigarri»; «etsenplu eman dizuet, nik zuekin egina, zuek ere egin dezazuen». Ostegun Santu honetan, Jainkoaren Hitzak bi gonbit utzi dizkigu: Jesusen keinua egitea; ez, ordea, azaleko keinua soilik, baizik azalekoa egitera bultza egiten digun barne jarrera.

Bihotz-hondoko jarrera hau, esan digu Joanek, «azkenerainoko maitasuna» da, «azkenerainoko» hau har dezakegun esangura guztietan.

Azkenerainoko maitasun hori, Eukaristiak adierazten duen eskaintza betean konkretatzen da: «ematen dudan neure gorputza». Geure buruaren emate edo eskaintza hori gabe Eukaristia ez da betea, ez dugu errepikatzen Jaunaren keinua bera: haren oroitzapena egiteko, ez da aski hitz batzuk esatea; oroitzapen betea nork bere bizia eskaintzea da.

Eta eskaintza hori eta azkenerainoko maitasun hori eguneroko zerbitzuko xehetasun xumeetan konkretatzen dira, anai-arreben oinetan jartzean, zerbitzari-jarrera hartuz. Eukaristia eta anai-arrebekiko zerbitzu apala elkarrekin doaz Jaunaren oroitzapenean; eukaristiak eta anai-arreben oinetako zerbitzuak bata bestearen beharra dute, oroitzapen hori bizia izango bada.

§ Isaias Profetaren liburutik 52,13–53,12.

Hara, nire zerbitzaria aurrera aterako da; handia egingo da eta goratua izango. Asko hartaz ikaturik gelditu baziren ere –hartaraino baitzuen giza itxura galdu, eta gizona zenik ere ez baitzuen irudi–, gero harriturik geldituko dira herri asko, eta erregeak haren aurrean hitzik gabe geldituko dira, egundaino esan ez zena ikustean, eta entzun ez zena begiratzean. Nork sinetsi du guk esandakoa? Nori agertuko zaio Jaunaren besoa? Kimua bezala hazi zen haren aurrean; zuztarra lur lehorrean bezala, ederrik eta giza antzik gabe ikusi genuen eta itxura atseginik gabe, barregarri eta gizonetan azkeneko eta oina-ze-gizon egina, nekeen berri dakiena, ezikusia egiten zaienetakoa, gaitzetsia eta baztertua. Gure nekeak hartu zituen hark eta gure minak eraman. Lepraduntzat geneukan, Jaungoikoak joa eta lotsarazia. Gure bekatuengatik alderik alde zulatua; gure gaiztakeriengatik txikitua. Haren gainera erori zen guri bakea ematen digun zigorra; haren zauriek sendatu gaituzte. Gu denok, ardi galduak ginen, bakoitza bere bidetik, eta Jaunak haren gainean ezarri zituen gu guztion txarkeriak. Gaizki zerabilten, baina bera makurtu egin zen, eta ez zuen ahoa ireki. Harategira daramaten arkumea bezala, ile-moztaileen aurrean ardia bezala, isilik egin zen, ahoa ireki gabe. Zuzengabeko auzitan galdu zuten. Nork hartu zuen aintzakotzat haren etorkizuna? Bizidunen lurretik kendu egin zuten; nire herriaren bekatuengatik hil zuten. Gaizkileen artean lur eman zioten, eta bekatariekin haren hilobia; nahiz eta berak bidegabekiarik ez egin,

eta haren ahotik gezurrik ez jalki. Jaunak nekeetan lehertu nahi izan zuen. Bere bizia ordain ematen badu, izango du ondorengo ugari, luzatuko zaizkio egunak, beteko da Jaunaren nahia haren bitartez. Bere oinazeen sari, ikusiko du argia eta aseko da. Jasan duenaren bidez, nire zerbitzariak zuzentasuna emango dio askori, haien hutsegiteak bere gain hartuz. Horregatik, jendetzak emango dizkiot nik bere parte, giza taldeak izango ditu harra-pakin; heriotzara eman baitzuen bere burua, eta bekataritzat hartu baitzuten. Bere gain hartu zituen askoren hutsegiteak, eta bitarteko izan zen bekatarientzat.

[Sal 30: *Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!*]

§ Hebrearrei gutunetik 4,14-16;5, 7-9.

Senideok: Jesus, Jaungoikoaren Semea, dugu zeruetan sartu zen apaiz nagusi handia; eutsi diezaiogun, beraz, sinemen-aitormenari; gure apaiz nagusia ez baita gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, baizik gure antzera gauza guztietan aztertua, baina bekatutik garbia. Goazen, beraz, uste osoz, graziaren aulkira, errukia iritsi eta behar orduko laguntza emango digun mesedea aurki dezagun. Kristok, haragizko bere bizitzaldian, heriotzatik gorde zezakeenari, deiadar handiz eta negarez, otoitzak eta eskariak egin zizkion, eta bere begiruneagatik entzun egin zioten. Eta Semea izanik ere, bere neke artean ikasi zuen esaneko izaten, eta, bere betera iritsirik, haren esaneko direnentzat betiko salbamen-iturri egin zen.

† Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Joanen liburutik 18,1-19,42.

Getsemanin, Jesus hartu eta lotu.

C. Aldi hartan, Jesus Zedrongo erreka besterik beste aldera atera zen bere ikasleekin. Bazen han baratze bat, eta hantxe sartu zen ikasleekin. Judas saltzaileak ere bazuen leku haren berri,

maiz joaten baitzen hara Jesus ikasleekin. Judas, orduan, apaizburuen eta fariseuen morroi-talde bat eta zaintzaile batzuk harturik, han sartu zen argiontzi, zuzi eta armekin. Jesusek – ondo baitzekien zer zetorkion gainera– bidera atera eta esan zien: † «Noren bila zatozte?» C. Eta haiek: S. «Nazareteko Jesusen bila». C. Eta Jesusek: † «Ni naiz». C. Han zetorren, haiekin batean, Judas saltzailea ere. «Ni naiz» esan zienean, atzeraka-atzeraka lurrera erori ziren. Jesusek galdetu zien berriz ere: † «Noren bila zatozte?» C. Eta haiek: S. «Nazareteko Jesusen bila». C. Jesusek erantzun: † «Esan dizuet ni naizela. Nire bila bazatozte, utziezue hauei joaten». C. Horrela bete zen berak esandakoa: «Zuk nire ardurapean utzi zenizkidanetatik, ez dut inor galdu». Orduan, Simon Pedrok, zeraman ezpata atera eta apaiz nagusiaren morroia jo zuen, eta eskuineko belarria moztu zion. Morroi honek Malko zuen izena. Jesusek esan zion Pedrori: † «Sar ezazu ezpata zorroan. Ez al dut, bada, edan behar Aitak eman didan kaliza?»

Jesus Anasenera eraman zuten lehenengo.

C. Gudari-taldeak, haien agintariek eta juduen morroiek hartu zuten Jesus eta, loturik, Anasenera eraman zuten lehenengo; Anas hori Kaifasen aitaginarreba baitzen, eta Kaifas bera urte hartako apaiz nagusia; Kaifas zen, gainera, juduei harako aholku hura eman ziena: «Hobe da gizon bakarra hiltzea herriarengatik». Simon Pedro eta beste ikasle bat Jesusen atzetik zihoazen. Beste ikasle hori apaiz nagusiaren ezaguna zen, eta Jesusekin batean apaiz nagusiaren jauregian sartu zen; Pedro, berriz, atarian gelditu zen. Atera zen beste ikasle hori, apaiz nagusiaren ezaguna, alegia, hitz egin zion neskame-atezainari, eta Pedro barrura sarrarazi zuen. Neskame atezainak esan zion Pedrori: S. «Ez ote zara zu ere gizon horren ikasle?» C. Eta Pedrok: S. «Ez! Ni ez!» C. Morroiak eta zerbitzariak sua

piztu eta berotzen ari ziren –hotz baitzen–. Pedro ere hantxe zegoen besteekin batean zutik, berotzen. Apaiz nagusiak, bere ikasleen eta bere irakaspenen galdera egin zion Jesusi. Eta Jesusek erantzun: † «Nik mundu guztiaren aurrean hitz egin izan dut; sinagogan eta jauretxean, judu guztiak biltzen diren lekuan irakatsi dut nik beti, eta ezkutuka ez dut ezer esan. Zergatik galdetzen didazu niri? Galde iezaiezu nire entzuleei, zer esan diedan. Berek dakite nik esandakoa». **C.** Hori esan bezain laster, han zegoen morroi batek masaileko bat eman zion, esanez: **S.** «Horrela erantzuten al diozu apaiz nagusiari?» **C.** Eta Jesusek: † «Gaizki hitz egin badut, esadazu zertan; baina ongi hitz egin badut, zergatik jotzen nauzu?» **C.** Orduan, Anasek Kaifas apaiz nagusiagana bidali zuen Jesus lotuta.

Zu ere ez al zara horren ikasleetakoa? Ez! Ni ez!

Han zegoen zutik Simon Pedro berotzen, eta esan zioten: **S.** «Ez al zara zu ere horren ikasleetakoa?» **C.** Pedrok ukatu zuen, esanez: **S.** «Ez! Ni ez!» **C.** Apaiz nagusiaren zerbitzari batek –Pedrok belarria moztu zionaren ahaide batek– esan zion: **S.** «Ez ote zaitut, bada, neuk ikusi harekin baratzean?» **C.** Pedrok berri ere ukatu zuen, eta berehala jo zuen oilarrak.

Nire erregetza ez da mundu honetakoa.

Kaifasen etxetik auzitegira eraman zuten Jesus. Eguna argitzen hasi zuen, eta haiek ez ziren auzitegian sartu, beren burua ez kutsatzeagatik, Pazko-afaria egin ahal izateko. Atera zen Pilato haiek zeuden lekuraino, eta esan zien: **S.** «Zer salakuntza dakarzue gizon honentzat?» **C.** Eta haiek: **S.** «Gaizkile ez balitz, ez genizuke ekarriko». **C.** Eta Pilatok: **S.** «Eramazue zeuekin, eta epaitu zeuen Legez». **C.** Juduek orduan: **S.** «Guk ez dugu inor hiltzeko eskubiderik». **C.** Horrela bete zen Jesusek alde zuzenetik esandakoa, nolako heriotzaz hilko zen, alegia. Sartu zen be-

rriz Pilato auzitegira, Jesusi deitu eta esan zion: **S.** «Zu juduen errege al zara?» **C.** Jesusek erantzun: **†** «Zeure buruz galdetzen al didazu hori, ala besteren batek esan dizu niretzat?» **C.** Pilatok: **S.** «Judua ote naiz, bada, ni? Zure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana; zer egin duzu?» **C.** Jesusek orduan: **†** «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Mundu honetakoa izango balitz nire erregetza, nire zaintzaileek gogor egingo lukete, ni juduen esku geldu ez nendin. Nire erregetza, ordea, ez da hemengoa». **C.** Pilatok: **†** «Errege zara, beraz?» **C.** Jesusek erantzun: **†** «Zeuk diozu: errege naiz. Horretarako jaioa naiz, eta horretarako etorria mundura: egiari aitormen egiteko. Egia-rena denak entzuten du nire hitza». **C.** Pilatok orduan: **S.** «Zer da egia?» **C.** Hori esanda, berriz ere juduengana atera eta esan zien: **S.** «Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi. Baina ohitura da zuen artean Pazkoan gaizkile bat askatzea: Nahi al duzue juduen erregea askatzea?» **C.** Haiek, berriz, deiadarka: **S.** «Ez hori, baizik Barrabas». **C.** (Barrabas hau lapurra zen).

Agur, juduen errege!

Pilatok, orduan, Jesus hartu eta zigortzeko agindu zuen. Eta gudariak arantzazko koroa egin eta buruan ezarri zioten, eta sorbalda gainean purpurazko soingainekoa jantzi eta, erdian harturik, esaten zioten: **S.** «Agur, juduen errege!» **C.** Eta masailekoka zerabilten. Atera zen Pilato berriz, eta esan zien juduei: **S.** «Hemen dakarkizuet berriz ere gizon hau, jakin dezazuen ez diodala errurik aurkitzen». **C.** Atera zen, bada, Jesus buruan arantzazko koroa eta sorbaldan purpurazko soingainekoa zituela. Eta Pilatok esan zien: **S.** «Hemen duzue gizona». **C.** Apaizburuak eta gudamutilak, hura ikustean, deiadarka hasi ziren: **S.** «Josi hori! Josi gurutzean!» **C.** Pilatok, ordea: **S.** «Hartzazue, eta josi zeuek gurutzean; nik ez diot errurik aurkitzen». **C.** Juduek, orduan: **S.** «Guk badugu Legea, eta gure Legez heriotza merezi du, Jainkoa-

ren Seme egin baitu bere burua». **C.** Pilato, hitz horiek entzutean, gehiago beldurtu zen eta, berriz ere auzitegira sarturik, honela mintzatu zitzaion Jesusi: **S.** «Nongoa zara zu?» **C.** Baina Jesusek ez zion erantzun. Pilatok orduan: **S.** «Ez al didazu ezer erantzun nahi? Ez al dakizu, badudala nik aginpide zu askatzeko, eta aginpide zu gurutzean josteko?» **C.** Jesusek: † «Ez zenuke nire gain horrelako aginpiderik izango, goitik eman ez balitzaizu. Horregatik, ni zure esku utzi nauenak, erru handiagoa du».

Ken hori, ken! Josi gurutzean!

C. Handik aurrera, Jesus askatu nahian zebilen Pilato. Baina juduak deiadarka hasi zitzaizkion: **S.** «Hau askatzen baduzu, ez zara Zesarren adiskide. Bere burua errege egiten duena, Zesarren aurka dago». **C.** Pilatok, hitz horiek entzutean, atera zuen Jesus berriz ere, eta auzi-aulkian eserarazi zuen, «Harri-solairu» deitzen zioten lekuan –hebreeraz, berriz, Gabbata–. Pazkorako Prestaera Eguna zen, eguerdia inguru. Eta Pilatok esan zien juduei: **S.** «Horra zuen erregea». **C.** Haiek deiadarka erantzun zioten: **S.** «Ken hori, ken! Josi gurutzean!» **C.** Eta Pilatok: **S.** «Zuen erregea gurutzean josi behar al dut?» **C.** Apaizburuek: **S.** «Guk ez dugu Zesar beste erregerik». **C.** Orduan haien esku utzi zuen Jesus, gurutzean josi zezaten.

Gurutzean josi zuten, eta harekin batean beste bi.

Hartu zuten Jesus eta, gurutzea sorbaldan zeramala, «Buru-hezurtegi» –hebreeraz, Golgota– izeneko lekura atera ziren. Han josi zuten gurutzean, eta harekin batean beste bi: bata alde batean eta bestea bestean, eta erdian Jesus. Gurutze buruan idazkun bat ipintzeko agindu zuen Pilatok; hau zioen idazkiak: Jesus nazaretarra, juduen erregea. Judu askok irakurri zuen idazkuna, hiritik hurbil baitzegoen Jesus gurutzean jositako lekua, eta idazkuna hiru hizkuntzatan idatzi baitzuten: hebreeraz, latinez

eta grekoz. Juduen apaizburuek esan zioten Pilatori: **S.** «Ez ipi-
ni "Juduen erregea", baizik eta "Honek esan du: Juduen erregea
naiz"». **C.** Baina Pilatok: **S.** «Idatzi dut, eta idatzirik dago».

Nire jantziak beren artean banatu zituzten.

C. Gudariak, Jesus gurutzean josi zutenean, haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, gudari bakoitzarentzat zati bana; soinekoa, berriz, bere hartan utzi zuten. Josturarik gabea zen soinekoa, goitik behera erabat ehoa. Eta elkarri esan zioten: **S.** «Ez dezagun zatitu, baizik eta txotx egin dezagun, nori ateratzen zaion». **C.** Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: «Nire jantziak beren artean banatu zituzten, eta nire soinekoa txotx egin zuten». Hori egin zuten gudariak.

Horra zeure semea. Horra zeure ama!

Jesusen gurutzearen oinean zeuden haren ama, amaren ahizpa –Kleofasen Maria– eta Maria Magdalena. Jesusek bere ama ikus-
tean eta, han bertan, berak hain maite zuen ikaslea, esan zion amari: **†** «Andrea, horra zeure semea!» **C.** Eta gero ikasleari: **†** «Horra zeure ama!» **C.** Orduz gero, ikasleak bere etxean hartu zuen Maria.

Bete da dena.

Gero Jesusek, dena bete zela ikusirik, Liburu Santua bete zedin, esan zuen: **†** «Egarri naiz». **C.** Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Eta ozpinetan bustitako belaki bat kanabera-muturrean loturik, ezpainetara eman zioten. Ozpina hartu ondoren, esan zuen Jesusek: **†** «Bete da dena». **C.** Eta, burua makurturik, azken arnasa eman zuen.

(Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egiten da).

Odola eta ura atera ziren.

Juduek orduan, Prestaera Eguna zelako, gorpuak larunbatez gurutzean gelditu ez zitezen –Larunbat hura egun handia baitzen–,

berna-hezurak hautsi eta gorpuak handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Etorri ziren gudariak, eta Jesusekin batean gurutzean jositako lehenengoari eta besteari berna-hezurak hautsi zizkieten; Jesusengana iritsi zirenean, ordea, hila zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta berehala odola eta ura atera ziren. Ikusi zuenak berak aitortzen du hori, eta egiazkoa da haren aitormena; badaki egia dioela, zuek ere sinets dezazuen. Hori guztia, Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen: «Ez diote hezurrik hautsiko». Beste leku batean, hau dio: «Ikusiko dute zulatu zutena».

*Jesusen gorpuzta, usain gozoz gantzuturik,
oihaletan bildu zuten.*

Gero, Arimateako Josek –hura ere Jesusen ikaslea baitzen, nahiz ezkutuka, juduen beldurrez– Jesusen gorpua eramaten uzteko eskatu zion Pilatori; Pilatok eman zion baimena. Hark, orduan, joan eta eraman zuen Jesusen gorpua. Etorri zen Nikodemo ere –lehenengo aldiz Jesus ikustera gauez joan zena– mirraz eta aloezko nahastura batetik ehun bat libra zekarrela. Hartu zuten, beraz, Jesusen gorpua eta, usain-gozoz gantzuturik, oihaletan bildu zuten, juduen ehorzketa-ohitura den bezala. Jesus gurutzean jositako lekuan, bazen baratze bat, eta baratzean ordu arte inor ehortzi gabeko hilobi berri bat. Eta juduentzat Prestaera Eguna zelako, eta hilobia hurbil zegoelako, han bertan ipini zuten Jesus.

Jaunaren Nekaldia handiro ospatzen dugun honetan, Joanen nekaldi-ebanjelioaren aurretik beste bi irakurgai entzungo ditugu: Isaiasek dakarren Yahveren Zerbitzariaren kantika, bata, eta Hebrearrei idazkitik hartua, bestea. Jesusen Nekaldiaz gogoeta egiteko giltza ematen digute, Nekaldia eratzen duten gertaeren sakoneko esanahiaren giltza, alegia.

«Haren zauriek sendatu gaituzte»: nekaldia «pro vobis et pro multis», nekaldia, hau da, anai-arreben aldeko buru-eskaintza, mugarik eta neurririk ez duen eskaintza, azkeneraino doana. Den-dena eskaini du Jesusek,

dena benetan, ezertxo ere gorde gabe. Eta eskaintza horrek beteak salbatu gaitu.

Eskaintza horretara eragin dion indarra, Aitarekiko leialtasuna izan da («Semea izan arren, obeditzen ikasi zuen sufritud») eta bere anai-arrebekiko gupida («ez da gupidatzeko gai ez den Apaiz Nagusia»). Leialtasuna eta gupida edota, nahiago bada, Aitak gizakiaz duen asmo gupidatsuari ñabar-duririk gabeko leialtasuna.

«Hau da gurutzearen zuhaitza...». «Etorri, gurtu dezagun». Eskaintza-ren betetasun horrek eta gupidarako gaitasun horrek gaur kontenplazten dugun misterioa adoratzera eta gurtzera garamatzate, esker oneko jarrera apalez.

§ Paulok Erromatarrei 6,3-11.

Senideok: Bataioz Kristo Jesusi lotuak izan garenok, haren heriotzari lotuak izan gara. Bataioaren bitartez harekin heriotzan hobiratuak izan gara; Kristo hilen artetik Aitaren aintzaz piztua izan zen bezala, gu ere biziera berri batean ibil gaitezen. Izan ere, gure izatea harekin bat eginik baldin badago harena bezalako heriotzan, berdin egongo da harena bezalako piztueran ere. Ezagutu dezagun, gure antzinako gizakia Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko izaera hau ezereztua geldi zedin eta, horrela, gu geu bekatuaren murrontzatik askatuak izan gaitezen. Norbait hiltzen denean, bekatutik askatua gelditzen baita. Beraz, gu Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela; izan ere, badakigu, Kristo, hilen artetik piztu zenez gero, ez dela berriro hilko; heriotzak ez du haren gan gehiago aginterik. Haren hiltzea, bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitza, Jaungoikoarentzat bizitza da. Horrela, bada, zuek ere eduki ezazue zeuen burua bekatuarentzat hila bezala eta Jaungoikoarentzat bizia, Kristo Jesus gure Jaunagan.

[Sal 117: Aleluia, aleluia, aleluia. Eman eskerrak Jaunari, ona baita, haren errukia betikoa baita.]

† Jesu kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,1-10.

Larunbat-biharamunean, astearen lehenengo eguna argitzean, Maria Magdalena eta beste Maria hilobia ikustera joan ziren. Eta, halako batean, lurrikara handi bat izan zen; Jaunaren

aingeru bat zerutik etorri baitzen eta, hurbildurik, harria bere lekutik irauli zuen eta gainean eseri. Aingeruaren aurpegiak tximista zirudien, eta soinekoek, elur zuria; zaintzaileak bel-durrez dar-dar eta hilda bezala gelditu ziren. Aingerua honela mintzatu zitzaien emakumeei: «Zuek ez izan beldurrik! Bada-kit Jesus gurutziltzatuaren bila zatoztela; ez dago hemen; piztu da, berak esan zuen bezala. Zatozte eta ikus ehortzirik zegoen lekua. Zoazte azkar haren ikasleengana, eta esaiezue: "Piztu da hildakoen artetik, eta hor doakizue aurretik Galileara. Han ikusiko duzue". Horra Nik esan». Hilobitik arin-arin alde egin, eta bihotz-ikaraz eta pozaren pozez lasterka joan ziren ikasleei berri ematera. Halako batean, bidera atera zitzaien Jesus, eta esan zien: «Poztu zaitetze!» Haiiek hurbildu ziren eta ahuspez oinak besarkatu zizkioten. Orduan Jesusek esan zien: «Ez izan beldurrik! Zoazte eta esan nire senideei, Galileara joateko; han ikusiko naute».

Hiru hitz nabarmendu nahi ditut Jesusen Piztueraren iragarpen honetan, Mateo ebanjelariak aurkeztuan.

«Poztu zaitetze»: Jaun Berpiztuaren lehen hitzak dira. Laburrak, baina esanahi handikoak. Loiolako San Ignaziok dioen moduan, kontsolatzailearen lana egiten du Jaunak. Jaunaren Piztueraren lekuko izatea, pozik bizitzea da eta poza kutsatzea.

«Ez beldur izan», esan diete bi aldiz: hilobiko aingeruak eta Jesusek berak. Bi aldiz esan behar da, zeren, hainbat eta hainbat aldiz, beldurak zurrundu gaitzake eta zurruntzen gaitu. Esperientzia izugarri bat bizi izan dute: Jesusen Nekaldia; baina Gurutziltzatua bera da, orain Berpizturik, dei egiten diena beldurra alde batera uztera eta konfiantzaz bizitzera. Jesusen Piztueraren lekuko izateak aukera egitea esan nahi du: konfiantzaren alde, eta ez beldurraren alde.

«Galilea»: hau ere bi aldiz esana, aingeruak eta Jesusek berak. Eguneroko bizitza da Galilea: arrantza, deia eta jarraitzea, jendetza, gogo berotzen direnak eta sinesten ez dutenak, hurbiltzen diren gaixoak, parabolak... Eguneroko bizitzan dugu zain-zain Jauna, hara joan da «gure aurretik»...

Jesusen Piztuera.

PAZKOA

Igandea / Domeka.

Toribio Santua Liebanakoa.

Santa Bernardita Soubirouskoa, *birjina*.

§ Apostoluen Eginak 10,34a.37-43.

Egun haietan, Pedrok esan zuen: Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek erakutsitako baitaioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia, Jainkoak Espiritu Santuaren indarrez gantzutua, eta on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen bizi izan zena: Jainkoa harekin baitzegoen. Gu gara hark juduen lurretan eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Haiek habe batetik zintzilikatu eta hil egin zuten. Baina, hirugarren egunean Jainkoak piztu egin zuen, eta agertzea eman zion; ez, ordea, herri guztiari, Jaunak lehendik aukeratutako testigui baizik: guri, hura hilen artetik piztu ondoren, harekin jan eta edan genuenoi. Eta agindu zigun, herriari irakatsi geniezaiola eta aitortu, hura dela Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiek egiten diote aitormen, harengan sinesten duten guztiek hartzen dutela, haren ize-nean, bekaturen barkamena.

[Sal 117: Hau da Jaunak egin duen eguna, gu pozteko eta alaitzeko eguna.]

§ San Paulok Kolosarrei 3,1-4.

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, zabilzate goi-ondasunen bila, han baitago Kristo Jainkoaren eskuinaldean jarririk. Hil baitzarete, eta zuen bizia Kristorekin Jainkoan ezkutaturik dago. Gure bizia den Kristo agertuko denean, zuek ere agertuko zarete aintza betean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,1-9.

Astearen lehenengo egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, oraindik ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Lasterka batean, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasle harengana joan, eta esan zien: «Hilobitik eraman egin dute Jauna, eta ez dakigu non jarri duten». Atera ziren Pedro eta beste ikaslea, eta hilobira abiatu ziren. Biak batera abiatu ziren lasterka, baina beste ikasle hark Pedro baino bizkorrago ibili eta aurrea hartu zion, eta lehenago iritsi zen hilobira. Begiratu zuen eta lurrean oihalak ikusi zituen, baina ez zen sartu. Iritsi zen atzetik Pedro ere, sartu zen hilobian eta ikusi zituen oihalak lurrean; buru gainean edukitako zapia, ordea, ez zegoen oihalekin batera, alde batean bildua baizik. Orduan, sartu zen hilobian lehendabizi iritsitako ikasle hura ere; ikusi zuen, eta sinetsi; ordu arte ez baitzuten ulertu Liburu Santuak dioena: «Piztu egin behar zuela hildakoen artetik».

«**E**z dakigu non ipini duten...». Jesusen hilobia hutsik ikusteak nahas-mendua eragin dio Maria Magdalenari, atsekabea eta tristura... Simon Pedro, lehen izan da hilobian sartzen, ikusi ditu bendak eta zapia... baina ez du sinetsi. «Ikusi» eta «sinetsi» zuen lehena «beste ikaslea» izan zen.

Kontrastea ageri da Joanen testu honen eta Eginak liburukoaren artean; azken honetan jendaurrean eta handiro eta, irmo, aitortu du Pedrok Jesusen Piztuera. Esapide esanguratsua erabili du: «Jainkoak piztu zuen eta ikustera eman zigun guri».

Guk geuk ere, fede-historiak hainbat urte dituen arren, Jesusi jarraitzen nork bere historia egin dugun arren, hainbat eta hainbat lekuko ditugun arren, eszeptiko jarraitzen dugu askotan Jesusen Piztuerari dagokionez. «Jesus bizi da» diogu, baina askotan bizi ez balitz bezala pentsatzen, hitz egiten eta jokatzeko dugu; iraganeko pertsonaia soil bat izango balitz bezala, nahiz miresgarriena izan. Jesusez hitz egiten dugu, baina ez diogu hitz egiten Jesusi; miresten dugu egin zuena, baina ez dugu atzematen egi-

ten ari dena; jadanik gurekin ez dagoela deitoratzen dugu, bidelagun dugula konturatu eta aitortu gabe.

Horregatik guztiagatik, Jainkoaren graziaren beharra dugu, «ikustera eman diezagula», gutako bakoitza izan daitekeen «beste ikasle» horrek bezala sinetsi ahal izateko.

[Apostoluen Eginak 2,14.22b-32: Jesus hori piztu egin du Jainkoak; gu denok gara horren testigu. Sal 15: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,8-15.

Aldi hartan, emakumeak, hilobitik arin-arin alde egin eta bihotz-ikaraz eta pozaren pozez lasterka joan ziren ikasleei berri ematera. Halako batean, bidera atera zitzairen Jesus, eta esan zien: «Poztu zaitzete!» Haiek hurbildu ziren eta ahuspez oinak besarkatu zizkioten. Orduan Jesusek esan zien: «Ez izan beldurrik! Zoazte eta esan nire senideei, Galileara joateko; han ikusiko naute». Emakumeak bidean zihoazela, zaintzaileetako batzuk herrira joan ziren, eta gertatuko guztiaren berri eman zieten apaiz-buruei. Hauek, zaharrekin batzarra eginik, diruketa handia eman zieten gudariei, eta agindu: «Esan, ikasleek gauez etorri eta gorpua lapurtu dutela, zuek lo zeundeten bitartean. Eta hori agintariak jakingo balu, guk gozatuko dugu eta ez duzue okerrik izango». Haiek dirua hartu eta irakatsi zitzairen bezala egin zuten. Eta hau zabaldua dago juduen artean gaurdaino.

Jesusen Piztuera nola gertatu den kontenplatzean, zirrara eragiten dute Piztueraren diskrezioak, zalapartarik ezak, apaltasunak... Berpiztua ez da agertu eta azaldu modu handios eta txundigarri batean, beraren arerioak nahas-mahas eta umiliaturik uzteko moduan. Ez zen izan hori Jesusen bizi-estiloa, ez du gaur egun ere estilo hori. Triunfalismo guztiei ihes eginik, lurreko bizitzan bere inguruan izan zituenen bihotzari eta fedeari eragin nahi die. Uste dut irakaspena dela guretzat, geure bizitzan Jainko biziaren presentziaz: ez dezagun espero txundigarritasunik eta triunfalismorik... Ez da hori Jesusen estiloa.

[Apostoluen Eginak 2,36-41: Bihotz-berri zaitetze eta baitaiatu guztiok Jesu Kristoren izenean. Sal 32: Jaunaren graziaz beterik dago lurra.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,11-18.**

Astearen lehenengo egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Negarrez zegoen Maria hilobi ondoan. Eta negarrez zegoela, hilobi barnera begiratu eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua ipinitako lekuan eserita: bata buru aldetik, eta bestea oin aldetik. Haiek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?» Mariak erantzun: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten». Hori esanik, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zekien Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabiltza?» Mariak, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut». Jesusek orduan: «Maria!» Eta honek, itzulirik, esan zion bere hizkuntzan: «Rabbuni!» –hau da: «Maisu!»–. Eta Jesusek: «Uztazu; oraindik ez naiz Aitagana igo. Zoaz nire senideetara eta esaiezu: “Banoa neure Aitagana eta zuen Aitagana; neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”». Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jauna ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

«Utz nazazu...». Gure beti tentazioa Jainkoa preso hartzea izaten da, hesitzea geure kontzeptuetan, geure planteamenduetan; are, Jainkoaz ditugun geure esperientzien barruan hura zedarritu nahi izatea. Eta

Jainkoa askoz handiagoa da beti, gainditzen gaituena, beti norbait berria... «Beti hazten eta betiko aurkitzen», Teilhard de Chardin-ek esaten zuenez. Horregatik, kristau-jarrera ez da iraganari begira egotea, izan zenaz eta jadanik ez denaz lantuka, baizik eta bereiztea geure orainean Jainkoaren presentzia beti berria, orain bereko haren deiak... Eta hori, bizitzako hainbat eta hainbat arlotan! Ez pertsonaletan bakarrik, baita erakundeen arlotan ere.

[Apostoluen Eginak 3,1-10: Daukadana ematen dizut: Jesu Kristoren izenean, jaiki zaitez eta ibili. **Sal 104**: Poztu bedi Jau-naren bila dabiltzanen barnea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,13-35.

Jesusen bi ikasle Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalem-dik hamaika kilometrora. Jerusalem-en gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus bera hurbildu zitzaien eta haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu. Jesusek esan zien: «Zertaz zoazte bidean elkarrekin hizketan?» Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek, Kleofas zeritzanak, erantzun zion: «Zeu izango zara Jerusalem-en egun hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!» Jesusek galdetu zien: «Zer gertatu da, ba?» Haiek erantzun zioten: «Jesus Nazaretarrarena; profeta ahaltsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina gure apaizburuek eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutzean josi. Guk uste genuen hark askatuko zuela Israel, baina bada hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela: goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutako batzuk ere izan dira hilobian, eta emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina hura ez dute ikusi». Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesias-ek hori guztia sufritu behar, bere aintzan sartzeko?» Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Li-

buru Santuek hartaz dioten guztia azaldu zien. Zihozen herrix-kara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitetz gurekin, berandu baita eta iluna gainean». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. Haiekin mahaian zegoela, Jesusek, ogia hartu, bedeinkapen-otoitza esan, zatitu eta eman zien. Orduan begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu zuten, baina Jesus desagertu egin zitzaien. Haiek elkarri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?» Eta berehala altxatu eta Jerusalemara itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio». Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean.

«**G**uk uste genuen...». Gure esaldi gogoenetako beste bat: uste genuen... gauzak beste era batekoak izango zirela, jendeak jaramon handiagoa egingo zigula, Jainkoa era agerikoagoan agertuko zela, elkar-teko bizitza errazagoa eta atseginagoa izango zela... Hainbat eta hainbat gauza espero genituen... Jainkoaren egitasmoarekin zerikusirik ez dutenak, baizik ikusteko, egiteko eta ulertzeko geure moduarekin... Ebanjelioak entzutera gonbidatzen gaitu: geure burua hain erdikotzat ez hartzera eta irekiago bizitzera bidelagun dugun eta bidelaguntzat hartzen badugu argi eta garbi hitz egiten digun Jesusi entzuteko.

[Apostoluen Eginak 3,11-26: Bizi-iturria hil zenuten. Jainkoak, ordea, piztu egin du hilen artetik. Sal 8: Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena, lurbira osoan!]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,35-48.**

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ezagutu zuten Jauna ogia zatitzean. Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldur-ikaraz, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Neu naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta nik bai, ikusten duzue». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien. Haiek, ordea, beren pozean oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?» Erretako arrain-puska bat eskaini zioten. Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen Legean, Profetetan eta Salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela». Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzen. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zeuek zarete gauza hauen testigu».

«**A**dimena ireki zien Liburu Santuak ulertzeko...». Haien hondo sakona ulertzeko, entzuten edo irakurtzen ditugun mementoko giza egoe-

raren esanahia ulertzeko... Beharrezkoa izaten dugu Jainkoaren grazia, hitz horien bidez, gizakiek idatziak diren hitz horien bidez, Jainkoak esan nahi diguna atzemateko eta ulertzeko... Liburu Santuen gaineko otoitzean irekitzen gatzazkio grazia horri, Jainkoaren argi horri... Liburu Santuak ez dira irakurtzeko soilik, baizik eta, batez ere, otoitz bihurtzeko dira... Eta otoitzean aurkitu ohi dugu zein pertsonala den Hitz hori guretzat eta zein bizia bizitzen ari garen uneko gorabeheretako.

[Apostoluen Eginak 4,1-12: Ez dugu beste salbatzailerik. Sal 117:Etzegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,1-14.

Aldi hartan, Jesus Tiberiades itsasbazterrean agertu zitzaizen berriro ikasleei. Honela agertu zitzaizen. Elkarrekin zuden Simon Pedro, Bikia zeritzan Tomas, Natanael Galileako kanatarra, Zebedeoren semeak eta ikasleetako beste bi. Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Haiek erantzun: «Bagoaz gu ere zurekin». Atera ziren, eta ontzira igo. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu. Egunsentian Jesus ur-ertzean agertu zen, baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue arrainik?» Eta haiek: «Ez!» Jesusek: «Bota sarea ontziaren eskuinaldean, eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta ezin zuten atera arrainketaren handiaz. Jesusek hain maitea zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela aditu zueneko, atorra lotu (beste jantzirik ez baitzuen) eta jauzi egin zuen itsasora. Beste ikasleak ontzian etorri ziren, sarea arrastaka zekartela (lehorretik ehunen bat metrora besterik ez baitzegoen). Lehorrera jaitsi zirenean, sua aurkitu zuten, eta su gainean arrain bat, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekar itzazue arrain batzuk, harrapatu berri horietatik». Igo zen ontzira Simon Pedro, eta lehorreraino ekarri zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea, eta, hainbeste izanik ere, ez zen urratu sarea. Jesusek esan zien: «Zatozte eta jan». Eta ikasleetako inor ez zen ausartu, hari «nor

zara zu?» galdetzera, bai baitzekiten Jesus zela. Orduan Jesus-
sek, hurbildu, ogia hartu eta eman zien; baita arraina ere. Hau
izan zen Jesussek ikasleei egindako hirugarren agerraldia, hilda-
koen artetik piztu ondoren.

Bai inportanteak direla otorduak ebanjelioan...! Baita Jesus Berpiztuaren
agerpenetan ere. Ebanjelioko otorduen esanahia oso zabala da, baina,
gaurko kontakizun honen hariari eutsiz, otordua partekatze denez azpima-
rratu nahi dut. Bizi-eremua da, non partekatu egiten baitira, ez janaria soi-
lik, baita oroitzapenak, esperientziak, kezkek, barrea... ere. Ez dute jaten
Jesussek ekarria bakarrik («ekarri harrapatu berri dituzuen arrain batzuk»),
ezta apostoluek ekarria bakarrik ere («sua ikusi zuten arrain batekin eta
ogiarekin»). Partekatzea, Jainkoa agertzearen eta harekin topo egitearen
eremu da. Partekatze guztietan ateratzen gara irabazten...

Pazkoaldia: Zortziurrena.

Larunbata / Zapatua.

[Jesusen lagundian: Andre Maria, Jesusen Lagundiaren Ama]

(ikus beheraxeago Meza berezia)

San Sotero, 13. aita santua.

San Apeles, aitorlea.

[Apostoluen Eginak 4,13-21: Gu ezin gintezke egon, geuk entzun eta ikusi duguna esan gabe. **Sal 117:** Eskerrak zuri, Jau-na, entzun nauzulako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,9-15.

Astearen lehenengo egunean piztu zen Jesus goizean goiz, eta Maria Magdalenari –zazpi deabru atera zizkion hari– agertu zitzaion aurrena; Maria Magdalena Jesusen lagunei berri ematera joan zen, triste baitzeuden eta negarrez. Eta, bizi zela eta ikusi zuela entzun ziotenean, ez zioten sinetsi. Ondoren, auzora bidean zihoazela, haietako biri agertu zitzaien, itxura aldatuta. Hauek ere joan ziren besteei berri ematera, baina hauei ere ez zieten sinetsi. Azkenik, Hamaiketik azaldu zitzaien Jesus, mahaian zeudela, eta beren sinesgaitza eta bihotz gogorra aurpegiratu zien, bera piztuta ikusi zutenei sinetsi ez zitelako. Eta esan zien: «Zoazte mundu guztira, eta hots egin berri ona gizaki guztiei».

Gauza paradoxikoa da gaurko ebanjelioak bere azken txataletan dioena. Jesusek, alde batetik, «beren fede-gabezia eta bihotz-gogortasuna aurpegiratu zien». Eta, segidan, Ebanjelioa hots egitera bidali ditu. Beren fede-falta ikusarazi die eta, halaz guztiz, haiengan konfiantza izaten jarraitzen du Ebanjelioa hots egiteko. Haiiek ez dira fidatu Jesusen hitzaz, ezta Piztueraren beste lekukoez ere; Jesus, ordea, fidatu da beraiez bere misioaren jarraitzaile izateko. Ez da gure perfekzioa ebanjelizatzaile egiten gaituena, baizik Jesusen hitzak eta gudan ezarri du konfiantzak.

[Jesusen lagundian: Andre Maria, Jesusen Lagundiaren Ama]

[Apokalipsia liburutik 21,1-5: Hona hemen Jainkoaren egoitza gizon-emakumeen artean. **Salmoa: Judit:** Zu zara gure herriaren ohorea.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 19,25-27.**

Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea, eta Magdalako Maria. Jesusetik, bere ama eta honen ondoan maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zure semea». Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zure ama». Eta ordudanik ikasleak bere etxean hartu zuen Jesusen ama.

Apirilaren 22an, 1541ean, Aita Santuak Lagundia onetsi eta sei hilabetez, Loiolako Ignazio santuak eta bost lagunek boto nagusiak egin zituzten San Paulo Harresiz Kanpoko Andre Mariaren kaperan, Erroman. Hori dela eta, Ordenaren jaiotza-eguntzat ematen da egun hau, eta Andre Mariaren eguna ospatzen da, Jesusen Lagundiaren Ama bezala. San Ignaziok beti jo ohi zuen Andre Mariagana erabaki handiak hartzean: Montserraten, gaubeila bat egin zuen Jaunaren Gizakundearen Adierazpenaren jai-bezperan. Bere lehen botoak Montmartre-n (Parisen) egin zituen Jasokundearen festaburu-bezperan. Bere lehen meza Eguberri egun batean eman zuen Santa Maria Handiaren Basilikan, Erroman.

§ Apostoluen Eginak liburutik 2,42-47.

Senideek zintzo irauten zuten apostoluen irakaspenak entzuten eta elkarte bizitzan, ogia zatitzen eta otoitzean.

Jende guztia txunditurik zegoen apostoluek egiten zituzten hainbeste mirari eta ezaugarriekin. Sinestedun guztiak bata-sunean bizi ziren eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldu eta guztien artean banatzen zuten dirua, ba-koitzaren beharrari zegokionez.

Egunero bildu ohi ziren elkarrekin tenpluan eta etxeetan za-titzen zuten ogia, otorduak pozik eta bihotz xaloz eginez. Jain-koa goستن zuten, eta herri osoak begi onez ikusten zituen. Eta Jaunak egunetik egunera gehitzen zizkion elkarteari salba-tzen zirenak.

[Sal 117: Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna be-tikoa baita.]

§ San Pedro 1 P 1,3-9.

Bedeinkatua Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita! Bere erruki handiaz itxaropen bizira sortu gaitu berriro, Jesu Kristo hilen artetik piztuz. Horrela, hondatu, zikindu edo zimeldu ez daitekeen ondarea itxaro dugu, zuentzat zeruetan gordea da-goena. Jainkoaren indarrak zaintzen zaituzte sinesmenari es-ker, azken garaian agertuko den salbamera irits dezazuen.

Horregatik, pozik zaudete, nahiz eta oraindik alditxo batez zenbait probaldi sufritu behar izango duzuen. Horrela zuen si-nesmenak bere jatortasuna erakutsiko du, galkorra izan arren

suan garbitzen den urreak bezala; eta urrea baino askoz baliotsuagoa den zuen sinesmenak gorespena, aintza eta ohorea iritsiko ditu, Jesu Kristo agertuko denean.

Maite duzue Jesu Kristo, ikusi ez baduzue ere. Eta ikusi gabe beragan sinesten duzuela, esan ezin ahalako pozez, poz distiratsuz, alaitzen zarete eta zeuen sinesmenaren helburua, zeuen salbamena, iristen duzue.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,19-31.

Astearen lehenengo egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, hala bidaltzen zaituztet Nik zuek». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek barkatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Beste ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez badituz, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez badituz, ez dut sinetsiko».

Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela, eta erdian jarririk esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuei; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Beste ezaugarri asko ere egin zituen Jesusek bere ikasleen aurrean, liburu honetan idatzirik ez daudenak; hemen idatziak Jesus Mesias, Jainkoaren Semea, dela sinets dezazuen idatzi dira eta, sinetsiz, haren izenean bizia izan dezazuen.

Kontenplatzekoa da Jesusek Tomas sinesgabearekin erabili duen «pedagogia». Kontenplatu eta ikasi hartatik, ebanjelizaziorako erabiltzen ditugun prozesuetarako, zeinetan arrakasta lasterrak eta errazak nahi izaten baititugu askotan.

Hasteko, Jesusek ez du «iraintzat» hartu Tomasen hasierako fede-gabezia, eta, nola ez, beste aukera bat eskaini dio. Jakina, inolako zalapartarik eta presarik gabe: «handik zortzi egunera»; denbora eman dio Tomasi, bere ibilbidea egin dezan; ez du azpian hartu nahi, ezta ezer ezarri ere.

Jesus elkartean, oraingoan Tomas barne, berriro aurkeztu denean, «amore eman die» Jesusek Tomasen eskakizunei. Ez die erantzun harro-harro, baizik eta apal-apal eskuak eta saihetsa eskaini dizkio, ikasleak bera Maisu gurutziltzatua dela egiazta dezan.

Tomasek ez du jada bere eskua Jesusen gorputzean sartu beharrik. Froga handiago bat bizi izan du bere fedearen sostengu: pazientzia hori, erruki hori, apaltasun hori Maisuak bakarrik eskaini ditzake: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Tomas fedegabeak ebanjelioko fede-aitorpenik errotikoenetakoa egin du. Konbentzigarri gertatu zaio, ez hainbeste ikusi eta ukitu duena, baizik esperimentatu duena.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,23-31: Otoitza bukatu zute-nean, Espiritu Santuaz bete ziren guztiak, eta beldur gabe hots egiten zuten Jainkoaren hitza. **Sal 2:** Bai dohatsu, Jauna, zure-gana biltzen diren guztiak!]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,1-8.**

Bazen fariseuen taldean Nikodemo izeneko gizon bat, juduen buruzagietakoa. Honek gauzez Jesusengana etorri eta esan zion: «Maisu, badakigu Jainkoak guri irakasteko bidali zaituela; inork ez baitezake egin zuk egiten duzun ezaugarririk, Jainkoa berekin ez badu».

Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: Ezin du inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada».

Nikodemok galdetu zion: «Nola jaio daiteke norbait, jadanik zaharra izanik? Sar ote daiteke amaren sabelean eta berriz jaio?»

Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: Ezin da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik jaiotzen ez bada. Gizakitik jaioa gizaki da, Espiritutik jaioa espiritu. Ez harritu berriro jaio behar duzuela esan dizudalako. Haizeak edonondik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaio denarekin».

«**B**erriro jaio...». Gauza guztiak eraberritzen dituen Jainkoaren Espiritua, eta gu ere eraberritzen gaituen Jainkoaren Espiritua... Benetako sormenaren sorburua den Espiritua, gure buruaren asmakizun argien multzoa ez, baizik eta Espirituaren berritasuna: gure artera datorrena, erantzuna eman ahal izateko, garai bakoitzean eta gorabehera bakoitzean ebanjelioa hots egiteak planteatzen dizkigun erronkei. Profeten berritasuna eta sormena, adin handiko izanik ere, gai diren horiena berrikuntzarako proposamenak eskaintzeko. Adibideak historian, asko...

§ 1 Pedro 5,5b-14.

Senide maiteok: Izan zaitezte apalak guztiok elkarrekin, Jainkoak gogor egiten baitie harroei; apalei, berriz, bere grazia ematen. Makur zaitezte Jainkoaren esku indartsuaren azpian, berak bere garaian jaso zaitzaten. Utzi haren gain zeuen kezka guztiak, hura baita zuen ardura duena. Izan zaitezte neurritsu, eta zaudete erne; zuen etsaia –deabrua–, orroka ari den lehoia bezala, hor dabil inguruan, nor irentsiko. Gogor egiozue, sinesmenean sendo; jakinik, lur zabalean dituzuen beste senideak ere neke beretan dabiltzala. Eta kristau bezala bere betiko zerura deitu zaituzten grazia guztien Jainkoak bizkortuko zaituzte, gogortuko, indartuko eta sendotuko neke-aldi labor baten ondoren. Berea du indarra gizaldi eta gizaldietan. Amen. Niretzat anaia zintzo den Silbanoren eskuz idatzi dizuet esku-titz labor hau, zuei indar emateko eta zuei aitortzeko hori dela Jainkoaren zinezko grazia; zaudete sendo horretan. Zuek bezala aukeratua den Babiloniako elkarreak agur egiten dizue, baita nire seme Markosek ere. Agur egiozue elkarri, senideen maite-laztanaz. Bakea zuei guztioi, kristauoi.

[Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko dut beti eta beti.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-20.

Aldi hartan, Jesusek Hamaiketi agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: Nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta,

edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jaso izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baietsiz.

«**J**auna partaide zen...». Baina bere erara, «hitza baietsiz», ez ikasleak txalotuz, ezta arrakasta berehala bermatuz ere. Izan ere, hitza «baietsi egiten da» edo ez, fededun bakoitzaren, entzule bakoitzaren bihotzean, Jainkoaren onginahiak ukitu edo harrapa dezakeen pertsona bakoitzaren bihotzean, gure hitza dela medio, bai, baina ez gure hitza dela medio bakarrik... Joera izan ohi du bi gauza hauek bateratzeko: norberaren atsegina edo arrakasta eta pertsonen bihotzean ebanjelioak aurrera egitea; baina ez dira beti bat etortzen: berrikasi beharra dugu geure arrakastak edo porrotak irakurtzen eta bizitzen... Saia gaitezen ebanjelioaren zerbitzari apal izaten.

[Apostoluen Eginak liburutik 5,17-26: Kartzelan sartu zenituzten gizonak hor dira tenpluan, eta herriari irakasten ari dira. **Sal 33:** Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,16-21.**

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: Hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, haren gan sinesten duenik inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali, mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harengan sinesten duena ez dago kondenatua; sinesten ez duena, berriz, kondenatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Hauxe da kondenazioaren arrazoa: argia mundura etorria dela, eta gizakiek ilunpea nahiago izan dutela argia baino, haien egiteak gaiztoak zirelako. Izan ere, gaizki egiten duenak gorrotoa dio argiari, eta ez dator argitara, bere egiteak agerian geldi ez daitezen. Egiaren arabera ari dena, berriz, argitara dator, haren egiteak Jainkoak nahi bezala eginak direla ager dadin».

«**H**ainbesteraino maite zuen Jainkoak mundua...». «Hainbesteraino» hori ulertezina da guretzat, erabat gaingitzen gaitu. Jainkoak mundua bere maitasun mugagabeaz eta baldintza gabeaz maite zuen eta du. Berak beste inork baino hobeto ezagutzen duen mundua da, ezkutuan duen ontasuna eta guzti, eta handia du ontasuna, eta begi-bistakoa duen bere mugapena eta guzti, hau ere handia. Eta maite zuen. Eta maite zuelako salbatu zuen. Eta «hainbesteraino» maite zuelako, errespetatu egin du giza ahalbidea, giza ahalbide itsua, argiari eta maitasunari uko egin ahal izatekoa. Gure otoitza gaur hau izan liteke: eman diezagula zerbait munduari dion maitasun horretatik...

APIRILA
JORRALA

27

Pazkoaldiko 2. astea.

Osteguna / Eguena

San Pedro Kanisio, *apaiza eta eliz irakaslea*.

Maria Antonia Bandres (Tolosan 1896 – 1919),
dohatsua, birjina.

San Pedro Chanel, *apaiza eta martiria*.

[Apostoluen Eginak 5,27-33: Gu gara gauza hauen testigu, baita Espiritu Santua ere. **Sal 33**: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,31-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Goitik datorrena guztien gainetik dago. Lurretik sortua lurrekoa da eta lurrekoaz mintzo da. Zerutik datorrena guztien gainetik dago; ikusi eta entzun duena aitortzen du; baina haren aitormena ez du inork onartzen. Haren aitormena onartzen duenak Jainkoak egia dioela baieztatzen du. Izan ere, Jainkoak bidali zuenak Jainkoaren hitzak esaten ditu, neurririk gabe ematen baitio bere Espiritua.

Aitak Semea maite du, eta haren esku jarri du dena. Semeagan sinesten duenak betiko bizia du; baina Semeagan sinesten ez duenak ez du bizia ikusiko, baizik eta Jainkoaren haserrea du gainean».

«Jainkoak bidali zuena...». Jesus Jainkoaren «bidalitakotzat» bizi da. Horregatik, munduan bizi duen jarduera, hitzez eta egitez, «misiotzat» bizi du, Aitak gomendatutako misiotzat: «ikusi eta entzun duenez egiten du testigantza». Ezin deitu diogu «misisio» egiten dugun edozeri, edozein jarduerari: «bidali» bat izan behar du. Gure kasuan, Eliza bitarteko dela hartua izaten da. Elizarekin dugun benetako elkartasunak jartzen gaitu «misiogintzan». Elizarekiko elkartasunak egiten gaitu misiolari eta eskumeneko.

[Apostoluen Eginak 5,34-42: Apostoluak pozik atera ziren Batzarretik, Jesusen izenagatik irainak jasateko gai aurkitu zituztelako. Sal 26: Gauza bat diot eskatzen Jaunari: Jaunaren etxean nadila bizi.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,1-15.

Aldi hartan, Galilea edo Tiberiadeseke itsasoz bestaldera joan zen Jesus. Jendetza handia zihoakion ondotik, ikusten baitzuten nolako ezaugarriak egiten zituen gaixoengan.

Jesus, orduan, mendira igo eta han eseri zen bere ikaslee-kin. Hurbil zen Pazkoa, juduen jai nagusia. Jesusek, jende asko zetorkiola ikusirik, esan zion Feliperi: «Non erosiko dugu ogia hauei jaten emateko?» (Zirikatzeko esan zion hori, ongi baitzekien berak zer egin behar zuen). Felipek erantzun zion: «Berrahun denarioren ogia ez litzateke izango nahikoa, bakoitzak puska bat izateko».

Ikasleetako batek, Simon Pedroren anaia Andresek, esan zion: «Bada hemen bost garagar-ogi eta bi arrain dituen mutiko bat; baina zer da hori horrenbesterentzat?» Jesusek jendea eserarazteko agindu zien ikasleei. Belar ederra zen leku hartan eta denak eseri ziren. Bost milaren bat gizonezko ziren.

Jesusek ogiak hartu eta, esker oneko otoitza esan ondoren, eseritakoen artean banatu zituen, eta orobat arrainak ere, nahi adina. Ase zirenean, Jesusek esan zien ikasleei: «Bil itzazue hondarrak, ezer gal ez dadin». Bildu zituzten, bada, eta hamabi saski bete zituzten bost garagar-ogietatik jan zutenek utzitako hondarrez.

Jendeak, orduan, Jesusek egindako ezaugarria ikusirik, honela zioen: «Hauxe da, benetan, mundura etortzekoa zen profeta». Jesusek, ordea, errege egiteko indarrez eraman nahi zutela oharturik, mendira alde egin zuen berriro berak bakarrik.

«**Z**er da hori hainbat jenderentzat...», dio Andresek: hemen dugun apur hau (bost ogi eta arrain pare bat) hainbat jenderentzat. «Zer da hori hainbat jenderentzat?», esan ohi dugu behin eta berriz guk, konparatzen ditugunean geure ahalbideak eta baliabideak ikusten dugun premiekin. Okerrera da, askotan, galdera horren ondoan, zentzuzkoa egia esateko, geure partaidetza-gabezia eta egoismoa ezkutatu ohi ditugula. Jesusek esan dio: jar ezazu martxan... eta neure gain gainerakoa. Arrupek esan ohi zuten: «egia da, inguruan ditugun erronka handien aurrean ezer gutxi dela egiten ahal duguna. Baina egiten ahal duguntxo hori, osorik egiten al dugu?»

[1 Joan 1,5–2,2: Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu. Sal 102: Ene anima, goretsazu Jauna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-30.

Aldi hartan, Jesusek ezan zuen: «Bedeinkatua zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde, eta jende xumeari erakutsi baitizkiozu. Bai, Aita, hala nahi izan duzu. Nire Aitak dena eman dit; inork ez du ezagutzen Semea, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi izan dionak baizik. Zatozte nigana nekatuok, lanpetuok; eta Nik arinduko zaituztet. Har ezazue nire uztarria eta ikasi nigandik: bihozbera naiz eta apala, eta aurkituko duzue arimarentzat atseden. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

«**G**auza hauek...». Zein «gauza» dira jende xumeak ezagutzen dituen horiek, Aitak agertu dizkiolako, baina jakintsuek eta adituek ezagutzen ez dituztenak, berek aztertzen dituzten teoretan ez daudelako? Imajinatzen dut, bizitzaren zentzu sakonarekin eta giza bizitzako erronka handiei aurre egiteko moduarekin zerikusia dutenak izango direla. Imajinatzen dut, Jainkoa eta Jainkoaren presentzia eguneroko bizitzan, batzuetan hain iluna, aurkitzeko moduarekin zerikusia dutenak izango direla. Imajinatzen dut, norberaren pobreak esperantzaz, eta are gehiago pozik, bizitzeko gaitasunarekin zerikusia dutenak izango direla.

§ Apostoluen Eginak liburutik 2, 14. 22b-33.

Mendekoste-egunean, Pedrok, hamaika apostoluen artean zutik, ahotsa altxatuz, honela hitz egin zuen: «Juduok eta Jerusalem bizi zareten guztiok, entzun arretaz nire hitzak: Guztiok dakizuenez, Jainkoak Nazaretoko Jesus zuen aurrean sinesgarri egin zuen, haren bidez egintza ahaltsuak, mirariak eta ezaugarriak eginez. Jainkoak zuen eskuetara eman zuen, bere asmoaren eta aurrez hartutako erabakiaren arabera, eta zuek hil egin zenuten, sinesgabeen eskuz gurutzean josiz; baina Jainkoak piztu egin zuen, heriotzaren lokarrietatik askatuz, heriotzak ezin baitzuen hura bere menpean eduki.

Izan ere, honela dio Davidek hartaz:

“Begi aurrean ikusten nuen beti Jauna;

eskuinean dudala, ez naiteke dardara.

Horregatik alai dut bihotza, pozik mihia,

eta nire gorputzak ere itxaropenean du atsedean.

Ez baituzu nire bizia Herio-leizera egotziko,

ezta zeure fededuna hilobian usteltzen utziko.

Bizirako bidea erakutsiko didazu,

zeure aurrean alaitasunez beteko”.

Senideok, uztazue argi eta garbi esaten gure aita David hil egin zela eta hobiratu egin zutela, eta haren hilobia geure artean dugu gaurdaino. Baina profeta zen eta bazekien Jainkoak zin eginez agindu ziola beraren odoleko bat eseriko zela beraren tronuan. Beraz, aurrez ikusi zuen Mesias piztuko zela, eta honetaz mintzo zen hau esatean: haren bizia ez zuela Herio

-leizera egotziko eta ez zela haren gorputza hilobian ustelduko. Jesus hori piztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara horren testigu». Jainkoak bere eskuinaldera altxatu duelarik, agindutako Espiritu Santua hartu du Aitarengandik eta guri isuri; hauxe da zuek ikusten eta entzuten ari zaretena.

[Sal 15: Bizirako bidea erakutsiko didazu, Jauna.]

§ San Pedro 1 P 1,17-21.

Senide maiteok: Nor bere egintzen arabera, bereizkeriarik gabe, epaitzen duenari «Aita» deitzen diozueenez gero, joka ezazue begirunez munduko erbestealdian bizi zareten bitartean. Badakizue zuen gurasoengandik hartutako biziera zentzugabetik askatuak izan zaretela, ez gauza ustelkorrez, urrez nahiz zilarrez, baizik eta bildots garbi eta akasgabe bezala zuen alde bere burua eskaini duen Kristoren odol baliotsuaz. Mundua mundu izan aurretik zegoen Kristo Jainkoaren asmoan eta azken garai hauetan agertu da zuen onerako. Eta zuek beronen bidez sinesten duzue hilen artetik piztu eta aintzaz bete zuen Jainkoagan; horrela, zeuen sinesmena eta itxaropena Jainkoagan jarriak dituzue.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 13-35.

Jesusen bi ikasle Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalemetik hamaika kilometrora. Jerusalemen gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus berbera hurbildu zitzaian eta beraiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu.

Jesusek esan zien: «Zeri buruz zoazte bidean elkarrekin hizketan?» Haiak gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek, Kleofas zeritzanak, erantzun zien: «Zeu izango zara Jerusalemen egun hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!» Jesusek galdetu zien: «Zer gertatu da, ba?»

Haiek erantzun zioten: «Jesus Nazaretarrarena; profeta ahaltsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina gure apaizburuek eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutzean josi. Guk uste genuen berak askatuko zuela Israel; baina bada hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela: goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gureetako batzuk ere izan dira hilobian, eta emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina bera ez dute ikusi».

Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesiasek hori guztia sufritu behar, bere aintzan sartzeko?» Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek berari buruz zioten guztia azaldu zien.

Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaituzte gurekin, berandu baita eta iluna gainean baitugu». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko.

Haiekin mahaian zegoela, Jesusek, ogia harturik, bedein-kapen-otoitza esan, zatitu eta eman egin zien. Orduan begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu egin zuten; baina Jesus desagertu egin zitzaien.

Haiek elkarri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?» Eta berehala altxatu eta Jerusalemara itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, honela ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio».

Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ogia zaitzuan ezagutu zuten.

«**H**aien begiak ez ziren gai hari antzemateko...», bidelagun zuten arren. Eta ez ziren antzemateko gai, fede-falta zutelako, gure begiratua argitzen duen eta gauzen agerikoa baino harago, lehen begiratukoa baino harago ikusteko gai egiten gaituen fedea. Eta Jesusek egin duena, bere lagunarte pazientziatzko eta apalean, haien fedea biziberritzea izan da, ez galdua baina bai lokartua.

Fedea biziberritu die Jainkoaren hitza gogora erakarriz, Jainkoaren etengabeko hitza, «Moisesengandik hasi eta profetekin jarraituz» jaulkia, bere herriarekiko Jainkoak duen maitasunaren eta salbazio-promesaren baietza den hitza, gizakienak ez diren bideez baliatzen bada ere. Fedea lausotzen zaigu, lokartzen zaigu, Jainkoa gure asmoetara egokitzen ez denean, gure aurreikuspenekin, gauzak egiteko gure erarekin bat ez datorrenean.

Biziberritu egin du ikasleen fedea, ogia zatitu eta haien begi aurrean bere buru-eskaintzaren keinua eta oroitzapena errepikatu dituenean. Biziberritu egiten da, bihotza hunkitzen duen Jaunaren presentzia bizia den eukaristia partekatzen dugunean. «Ez al genuen bihotza sutan...?» Eta jada hunkitua zuten bihotzetik «begiak ireki zitzaizkien eta antzeman zioten».

MAIATZA / ORRILA



Pazkoaldiko 3. astea.

Astelehena.

SAN JOSE LANGILEA.

(ikus beheraxeago San Joserren Meza)

(Astearen eguneko Meza)

[Apostoluen Eginak liburutik 6,8-15: Ezin erantzun zieten haren jakinduriari eta haren hitzaren indarrari. **Sal 118:** Dohatsu, Jaunaren legean dabiltzanak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,22-29.**

Aldi hartan, itsasoz bestaldean zegoen jendea ohartu zen han txalupa bat bakarra izan zela, eta Jesus ez zela ikasleekin ontziratu, baizik eta hauek bakarrik joan zirela. Bitartean, beste zenbait txalupa etorri zen Tiberiadesetik, Jaunak esker oneko otoitza eginik, ogia jan zuten ingurura.

Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikustean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoz bestaldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?» Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Nire bila zabilzate, ez ezaugarriak ikusi dituzuelako, ogia asetzeraino jan duzuelako baizik. Ahalegin zaitezte, ez galtzen den janariagatik, irauten duenagatik baizik, betiko bizia ematen duenagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, Berau egin baitu Jainko Aitak bere aginpidearen ordezkari».

Orduan, galdetu zioten: «Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?» Jesusek erantzun zien: «Hau da Jainkoak nahi duena: Berak bidali duenagan zuek sinestea».

«**Z**er egin behar dugu...?» Horixe da gure galdera ere eta geure kezka: egin, egin, egin... Eta Jesusek trukatu egin die logika: ez duzue zertan egin, baizik sinetsi... Funtsezkoa ez dira egintzak, baizik fedea, zergatik eta zertako egin egiten dugun hura. Agian, gutxiago beharko da egin eta gehia-

go zaindu nork bere fedea, nork bere harreman pertsonala fedearen Jesusekin. Zeren garrantzizkoa ez baita izango egiten dugun gauzen kopurua, baizik egiten dugunaren kalitate gizabidezkoa eta ebanjelikoa. Eta kalitatea ez da inprobisatzen; hartu egiten da.

SAN JOSE LANGILEAREN MEZA

§ Apostoluen Eginak liburutik 15,1-2.22-29.

Egun haietan, Judeatik jaitsitako batzuek irakaspen hau ematen zieten senideei: «Moisesengandiko ohituraz erdaintzen ez bazarete, ez zaitzekete salba». Horretatik iskanbila eta eztabaida izugarriak sortu ziren, Paulo eta Bernaberen aurka. Eta Paulo, Bernabe eta beste batzuk Jerusalemara igo zitezela erabaki zuten, apostolu eta arduradunekin auzia argitzeko. Apostoluek eta arduradunek elkarte osoarekin batera, beren arteko norbaitzuk aukeratzea erabaki zuten, eta Paulo eta Bernaberekin Antiokiara bidaltzea: Barsaba zeritzan Judas eta Silas aukeratu zituzten, biak itzal handiko gizonak senideen artean. Eta hauen bidez eskutitz hau bidali zuten: «Apostoluek, arduradunek eta senideek, Antiokian, Sirian eta Zilizian zaudeten jentil izandako senideoi, agur. Jakin dugu, gutako batzuek, guk agindu gabe zuengana joanda, beren hitzez kezkatan jarri zaituztela eta nahastu. Horregatik, gogo batez erabaki dugu, gizon batzuk aukeratu eta zuengana bidaltzea geure Paulo eta Bernabe maiteekin. Jesu Kristo gure Jaunaren izenagatik beren biziak eskaini dituzten horiekin. Beraz, Judas eta Silas bidaltzen dizkizuegu, eta horiek hitzez esango dizkizue gauza hauek berak. Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu, behar-beharrezko direnak beste zamarik zuei ez ezartzea: ez zaitzela zikindu sasi-jainkoak zerbitzatuz, ez dezazuela jan, ez odolik, ez abere itorik, eta utzi dezazuela lohikeria. Ongi egingo duzue holakoetatik alde eginez. Izan ongi».

[Sal 66: Ene Jainko, ospa zaitzatela herriek, ospa zaitzatela herri guztiek.]

§ Apokalipsia liburutik 21,10-14.22-23.

Ni, Joan, hartu ninduen aingeruak, eta espirituz mendi handi goi batera eraman ninduen, eta Jerusalem hiri santua erakutsi zidan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintza berekin zuela. Haren distira harribitxi baten antzekoa zen, kristal-argizko jaspere-harriaren antzekoa. Harresi handi eta goi bat zeukan, hamabi aterekin, eta ateetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatzita: israeldarren leinuen izenak. Sortaldean hiru ate; iparraldean hiru ate; hegoaldean hiru ate, eta sartaldean hiru ate. Hiriaren harresiak hamabi oinarri zituen, eta hauetan hamabi izen: Bildotsaren hamabi apostoluenak. Ez nuen han jauretzerik ikusi; Jauna, Jainko ahalguztiduna, eta Bildotsa ditu bere jauretze. Hiriak ez du, ez eguzki, ez ilargi beharrik, argi egoteko; Jainkoaren aintzak argitzen du, eta Bildotsa du bere argiontzi.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,23-29.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni maite nauenak, beteko du nire hitza; nire Aitak maite izango du, eta harengana etorriko gara eta harengan egingo dugu bizileku. Ni maite ez nauenak, ez ditu betetzen nire hitzak. Eta entzuten duzuen hitza, ez da nirea, Ni bidali ninduen Aitarena baizik. Oraindik zuen artean nagoelarik esan dizuet hau. Baina Aitak nire izenean bidaliko dizuen laguntzaileak, Espiritu Santuak, hark irakatsiko dizue dena, eta oroitaraziko Nik esan dizuedan guztia. Bakea uzten dizuet, neure bakea ematen; ez dizuet ematen munduak bezalakoa. Ez izan beldurrik zeuen bihotzean; ez larritu. Entzun dizue Nik esana: “Banoa, baina etorriko natzaizue berriro”. Maite baninduzue, poztuko zinatekete Aitagana noalako, Aita Ni baino handiagoa baita. Orain esan dizuet, hori gertatu baino lehen, gertatzean sinets dezazuen».

Apostoluen Eginak liburuko testuan, Espirituaren egintzak ezereztu egin du bereizketa eta desberdintasun oro: juduak eta jentilak banatzen zi-

tuen murrak lurra jo du, eta bataiokoa hauen gain esandako Jesusen ize-
nak lotura sortu du guztien artean, banatze guztiak baino sendoagoa. Beste
bi irakurgetan sendotu egin dute anai-arreba arteko errealitate berri hori: ez
da gure lana hori sortzea eta mantentzea, nor izango litzateke horretako gai?
Joanek gogoraziko digu, maitasun horren iturburua Jainkoagan dagoela eta
gure gain isuri nahi izan duela hark. «Froga» begi aurrean dugu: zuenik eta
hoberena eman digu Aitak: bere Semea; Semeak, berriz, Aitak duen mai-
tatzeko era horren ikasle on gisa, gure esku ipini du bere bizia. Ez gara jada
obeditzen eta aginduak betetzen ditugun neskame-morroj; Beste Batek au-
keratu gaituen adiskide gara, beste batzuegana bidaliak, gonbidatzera mai-
tasun-korrante horretan murgildu eta pozez bete daitezten.

[Apostoluen Eginak liburutik 7,51–8,1a: Jesus Jauna, hartzazu nire arnasa. Sal 30: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure arnasa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,30-35.

Aldi hartan, jendeak esan zion Jesusi: «Zer ezaugarri egi-ten duzu, guk ikusi eta zugar sinesteko? Zer egiten duzu? Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan, Liburu Santuak dioen bezala: “Zeruko ogia eman zien jaten”».

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia, baizik eta nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; zeren Jainkoaren ogia zerutik jaitsi eta munduari bizia ematen diona baita».

Orduan, haiek Jesusi: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik».

Jesusek erantzun zien: «Neu naiz bizia ematen duen ogia; nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango».

Ageriko seinaleen bila...: hamaika bider ageri da ebanjelioan dinamika hori: «Zer seinale ikusiko zaitugu egiten?» Gu geu ere batzuetan seinaleen bila mugitu ohi gara, ageriko frogen bila, sinesten lagundu gaitzaten. Eta Jesusek beste logika bat eskaintzen die: sinetsi, eta orduan ikusiko duzu, sinetsi, eta orduan esperimentatuko duzue... Sinetsi, orduan nabarituko dituzu aserik zeure gosea eta zeure egarria... Azken batean, konfiantzaren dinamika ez da ipini behar seinaleetan, baizik Jesusengan beragan, eta Jesusengatik beragatik, eta ez ageriko egintzengatik... Zeren kontua Pertsonagan sinestea baita.

[1 Korintoarrei 15,1-8: Jauna Santiagori agertu zitzaion, gero apostolu guztiei. **Sal 18:** Lur guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,6-14.**

Aldi hartan, Jesusek esan zion Tomasi: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ez doa inor Aitagana nire bitartez ez bada. Ni ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete; dagoeneko ezagutzen duzue, eta ikusten». Felipek, orduan: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu». Eta Jesusek: «Hainbat denbora zuekin egon, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nolatan diozu, "erakutsiezaguzu Aita"? Ez al duzu sinesten, Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Esaten dizuedana, ez dizuet Nik neurez esaten. Nigan dagoen Aitak, berak egiten ditu bere egintzak. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Sinetsi, bestela, haren egintzengatik. Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak, Nik egiten ditudan lanak egingo ditu hark ere, eta handiagoak ere bai; Ni Aitagana bainoa, eta nire izenean zerbait Aitari eskatzen badiozue egingo dut Nik, Aita Semeagan goretsia izan dadin. Nire izenean zerbait eskatzen badidazue, egingo dut Nik».

Felipe ez da konformatzen gutxi batekin: «Erakutsiezaguzu Aita eta aski dugu»: bai gutxi!... Egiati agertu du bere gogoa, azken batean gu guztiona: argitasuna Jainkoaz; baina kostatu zaio berea, guri ere kostatzen zaiguna: Jainkoari bidelagunagan antzematea, beraren kasuan zein izango eta Jesus den bidelagunagan. Horregatik, esan dio Jesusek: «neu nauzu bidea», bidea Aitagana iristeko. «Ni ezagutzen banauzue...»: Jainkoa ezagutzeko, Jesusekin bizitako adiskidetasun barnekoiaeren bidea hartu behar da, topo eginez bizi izandako esperentziaz ezagututako Jesusen bidea.

[Apostoluen Eginak liburutik 8,26-40: Bihotz-bihotzez sinesten baduzu, bataiatua izan zaitezke. Sal 65: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,44-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ezin da inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu. Eta Neuk piztuko dut azken egunean. Hau esaten da Profeten liburuan: "Jainkoaren ikasle izango dira guztiak". Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena nigana dator. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoagandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita.

Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Neu naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, halere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia: honetatik jaten duena ez da hilko. Neu naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudan ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

«**N**ik emango dizuedan ogia nire haragia da...»: hitz errotsuak eta erro-tikoak. Jesusek janarizat eskaintzen diguna bere buru-eskaintza da, bere biziaren eskaintza. Ez dira hitz hutsak, arnastuenak direlarik ere; ezta egintza batzuk ere, esanguratsuenak gerturik ere. Hitzak eta egintzak «kanpoko» zerbait dira; Jesusek jokoan jarri duena bere burua da, bere iza-terik barnekoiena... Eta Jesusen beraren buru-eskaintza da «munduari bizia» ematen diona. Gu geu ere, nor bere neurrian, bizia ematera deituak gara: ez hitz politikak, ezta egintza distiratsuak ere: geure buruaren eskaintza da funtsezkoa.

[Apostoluen Eginak liburutik 9,1-20: Nik gizon hori auke-ratua dut, jentilei nire izena adieraz diezaien. Sal 116: Zoazte mundu guztira, eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,52-60.

Aldi hartan, juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?»

Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semea-ren haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez du-zue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Neuk piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta Ni harengan.

Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena, niri esker biziko da. Hau da zerutik jai-tsi den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da».

Hau guztia Kafarnaumeko sinagogan irakatsi zuen Jesusek.

Gaurko ebanjelio hau, Joanen ebanjelioko 6. kapituluko hitzaldi guztia bezala, Jesusekin elkartasuna egiteko deia da: elkartasunak edo komu-nioak esan nahi duen guztiarekin: Jesusen biziarekin eta zoriarekin identifika-tzea eta hartan parte hartzea. Horregatik, «ogi honetatik jango duena betiko biziko da». Jesusen nekaldian berean parte hartu, behartsuak eta txikiak dire-la medio, Jesusen bizi-balioen eta irizpideetan parte hartu, haren «azkenerai-noko» buru-eskaintzan parte hartu, horregatik eta horrekin bizitza hau baino harago doan haren Bizian parte hartu.

[Apostoluen Eginak liburutik 9,31-42: Eraikitzen zihoan Eliza, eta gero eta handiagoa egiten ari zen, Espiritu Santuak eraginda. **Sal 115:** Zer bihurtuko diot Jaunari, eman dizkidan guztiengatik?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,60-69.

Aldi hartan, Jesusen ikasleetako askok esan zuen: «Gogorra da hizkera hau. Nork adi dezake?»

Jesusek, bere baitan oharturik ikasleak marmarka ari zirela, esan zien: «Onargaitza iruditzen al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da bizia ematen duena; gizakia berez ez da ezertako. Nik esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira. Baina badira zuen artean sinesten ez duten batzuk». Izan ere, Jesusek hasieratik zekien nortzuk ez zuten sinesten eta nork salduko zuen. Eta esan zuen gainera: «Horregatik esan dizuet ezin dela inor ere nigana etorri, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen».

Ordutik, haren ikasleetako askok atzera egin zuen, eta aurre-rantzean ez ziren harekin ibili. Orduan, esan zien Jesusek Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?» Erantzun zion Simon Pedrok: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute. Eta guk sinetsi dugu eta badakigu Zu zarela Jainkoaren Santua».

Krisialdia da, erabakitzeko unea, aukeratzeko unea... «Jesusen ikasle-
tarik askok atzera egin zuen»... Eta, dudarik gabe, «askok» atzera egite horrek erasan zion Jesusi: «zuek ere bai?»... Pedro da gelditu direnen buru: «norengana joango gara?»; alabaina, ez da gelditze etsi bat da soilik, ez da soilik «ezagun txarra hobe ezezagun ona baino» delakoak dioena; baieztapen positiboa da Pedrorena: «Zuk betiko bizirako hitzak dituzu; guk sinesten dugu...». Jesusekiko fedea ez da gehiengoaren eta gutxiengoaren arazoa; askotan, krisialdian uraz goiti egindako aukera izaten da

Pazkoaldiko 4. astea.

Igandea / Domeka.

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*.San Juvenal, *martiria*.San Benedikto II.a, *aita santua*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 2,14a. 36-41.

Mendekoste-egunean, Pedrok honela hitz egin zien juduei: «Jakin beza ziur Israel herri osoak, Jainkoak Jaun eta Mesias egin duela zuek gurutziltzatu zenuten Jesus hau».

Hitz hauek bihotza ukitu zieten, eta Pedrori eta beste apostoluei esan zieten: «Anaiok, zer egin behar dugu?»

Pedrok erantzun zien: «Bihotz-berri zaitetze eta bataiatu guztiok Jesus Mesiasen izenean, bekatuak barka dakizkizuen, eta Espiritu Santua hartuko duzue dohain. Izan ere, zuentzat eta zuen seme-alabentzat agindu zuen Jainkoak dohain hau, baita Jaunak, gure Jainkoak, deituko dituen atzerritar guztientzat ere».

Beste hitz askoren bidez ere egiten zien Pedrok testigantza, eta arrenka eskatzen zien, esanez: «Salba ezazue zeuen burua gizaldi galdu honengandik».

Pedroren hitza onartu zutenak bataiatu egin ziren, eta egun hartan hiruren bat mila lagun bildu zitzaizkion taldeari.

[Sal 22: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

§ San Pedro: 1 P 2,20b-25.

Senide maiteok: On egiteagatik nekeak jasan behar badi-tuzue, hori gauza ederra da Jainkoaren begietan. Horretarako deitu zaituzte Jainkoak; izan ere, Kristok berak ere nekeak jasan zituen zuengatik, zuei eredia utziz, beraren urratsei jarrai diezaiezuen. Hark ez zuen bekaturik egin, haren ahoan ez zen maltzurkeriarik. Iraintzen zutenean, ez zuen irainez erantzu-

ten; nekeak jasatean, ez zuen mehatxurik egiten; aitzitik, zuzen epaitzen duenaren eskuetan jartzen zuen bere burua.

Gure bekatuak bere gain hartu eta gurutzera eraman zituen, gu, bekaturako hilik, zuzentasunaren arabera bizi gaituzen; haren zauriek sendatu zaituztete. Ardi galduak bezala zentzuz gaituzten; baina orain zeuen artzain eta zaintzaileagana bihurtu zarete.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,1-10.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Egi-egiaz diotsuet: Artegian, atetik ez, baina beste nonbaitetik sartzen dena lapurra da eta harrapatzailea. Atetik sartzen dena, berriz, artzaina da. Honi ireki egiten dio atezainak, eta ardiek aditzen dute haren ahotsa; ardi bakoitzari bere izenaz deitzen dio, eta kanpora ateratzen ditu. Bere ardi guztiak atera ondoren, aurretik joaten zaie eta ardiek jarraitu egiten diote, ezagutzen baitute haren ahotsa. Arrotzari, ordea, ez diote jarraituko; aitzitik, ihes egingo diote, arrotzaren ahotsa ez baitute ezagutzen».

Jesusek adibide hau eman zien, baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Orduan, honela azaldu zien Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet: Neu naiz ardien atea. Nire aurretik etorritako guztiak lapurrak ziren eta harrapatzaileak; horregatik, ardiek ez zieten jaramonik egin. Neu naiz atea. Ate honetatik sartzen dena onik izango da, lasai sartuko da eta aterako, eta aurkituko du jatekoa. Lapurra ez doa artaldera ostu, hil eta hondatzera baizik; Ni, berriz, bizia izan dezaten etorri naiz, eta bizia ugari izan dezaten».

Rakurri berria dugu ebanjelioko txatalik ederrenetako bat: «Bizia izan dezaten etorri naiz ni eta ugari izan dezaten». Eta Jesus da bizi horretako atea: horretatik sartzea bete-betean sartzea da, biziaren ugaritasunean sartzea. Guri bizia emateko, bere bizia eman zuen Jesusek: «haren zauriek sendatu

zaituzte». Azkenerainoko haren bizitzak «ugaritasuneko» gure bizitza ahalbidetzen du.

Gaurko liturgiaren lehen deia, aitorpenerako eta esker onerako deia da. Azter dezagun, une batez, gutako bakoitzarentzat fede-bizitzak zer esan nahi izan duen eta zer esan nahi duen. Azter dezagun, zentzuaz, giza betearen beteaz, esperantzaz egin digun ekarpen guztia. Eta pentsa dezagun, den-dena emana dugula, erabat emana, geure merezimendurik gabe, berak maite gintuelako.

Eta Jainkoaren beste dei bat gaur, guk geuk ere bizia emateko deia da, hartua duguna geure ingurunean partekatzen dakigun pertsonak izateko deia: zentzua, poza, esperantza, bizia. Nola bete? Jesus da berriro ere atea: harekiko elkartasuna, bihotz barnekoian eta eguneroko lanean eta sufri-menduan. Zeren eta ez baita gure egintzen arazoa bakarrik; gure zauriek ere, harekiko elkartasunean bizirik, eman dezakete bizia.

[Apostoluen Eginak liburutik 11,1-18: Atzerritarrei ere eman die, beraz, Jainkoak bizira daraman bihotz-berritzea. **Sal 41**: Nire gogoa Jainko biziarek egarri da.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,11-18.**

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Neu naiz artzain ona. Artzain onak bere bizia ematen du ardiaren alde. Ez, ordea, morroiak, artzain ez denak eta ardiak ere bereak ez dituenak; honek, otsoa etortzen ikustean, ardiak utzi eta ihes egiten du; eta otsoak ardiak harrapatu eta sakabanatu egiten ditu. Izan ere, morroiari lansaria zaio axola eta ez ardiak.

Neu naiz artzain ona. Ezagutzen ditut neure ardiak, eta neurek ezagutzen naute Ni, Aitak Ni ezagutzen nauen eta Nik Aita ezagutzen dudana bezalaxe. Nik neure bizia ematen dut ardiaren alde. Badituzte ardiak honetakoak ez diren beste ardi batzuk ere; hauek ere erakarri egin behar dituzte; adituko dute nire ahotsa eta artalde bakarra izango dira, artzain bakarraren gidaritzapean.

Horregatik maite nau Aitak: neure bizia ematen dudalako, berriro eskuratzeko. Ez dit bizia inork kentzen, baizik eta Nik neure kabuz ematen dut. Neure esku dut ematea eta neure esku berriro eskuratzea. Hori da neure Aitagandik hartu dudana agindua».

«Inork ez dit bizia kenduko... neuk emango dut neure kabuz». Baina Jesusen buru-eskaintza hori «ardiengatik» ematea da: ardiak zaizkio axola-eta. «-gatik» horrek ematen dio zentzua kristauen buru-eskaintzari; ez da masokista baten eskaintza, ezta suizida batena ere. «-gatik» eta «-rentzat»

bizi garen neurrian izan dezake zentzua gure buru-eskaintzak eta, beste modu batean esateko, orduan bihurtzen da gizatar. Kristau izatea, Jesusen jarraitzailea izatea, ez datza nork bere burua zigortzean, askoz gutxiago nork bere burua nabarmenki erakustean, baizik «-gatik» eskaintzean. Hori bai, azkenerainoko eskumeneko buru-eskaintzan.

[Apostoluen Eginak liburutik 11,19-26: Greziarrei ere hitz egin zieten, Jesus Jaunaren berri emanaz. Sal 86: Goretsazue Jauna, atzerri guztiak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelio San Joanen liburutik 10,22-30.

Aldi hartan, Jerusalem tenpluaren sagarapen-jaiak ospatzen ziren. Negua zen. Jesus tenpluan zebilen, Salomonen aterpean. Inguratu zuten juduek eta esan zioten: «Noiz arte eduki behar gaituzazu zalantzan? Zu bazara Mesias, esaguzu argi eta garbi».

Jesusek erantzun zien: «Esan dizuet, eta ez duzue sinesten. Nik neure Aitaren izenean egiten ditudan egintzek ematen dute nire alde testigantza; zuek, ordea, ez duzue sinesten, nire ardietaoak ez zaretelako.

Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa; Nik ezagutzen ditut, haiek jarraitu egiten didate, eta Nik betiko bizia ematen diet: ez dira betiko galduko, eta ez dizkit inork ere eskutik kenduko.

Haiek eman dizkidan nire Aita beste denak baino handiagoa da, eta ezin ditu inork ere kendu nire Aitaren eskutik. Aita eta biok bat gara».

«**A**ita eta biok bat gara». Ebanjelio guztian barna, behin eta berriz errepikatzen du Jesusek Aitarekin duen batasun hori, bere buruaren gauzarik barnekoien bezala eta egiten duen ororen azken arrazoi bezala. Aitagandik bizi da eta dihardu, Aitarekiko elkartasun sakonetik. Horrek guztiak planteatzen digu galdera, oso errotikoa eta oso erabakitzailea: «nondik bizi gara eta non bizi dugu geure burua», «nondik ulertzen dugu geure burua eta non kokatzen gara». «Nondik» horren sakontasunetik eta errotikotasunetik jokatzeko ditugu garenaren eta dagigunaren balioa eta gizatar kalitatea.

[Apostoluen Eginak liburutik 12,24–13,5a; Bereiziez azalduz Saulo eta Bernabe. Sal 66: Ene Jainko, ospa zaitzatela herriek, ospa zaitzatela herri guztiek.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,44-50.**

Aldi hartan, Jesusek oihu eginez esan zuen: «Nigan sinesten duenak ez du nigan bakarrik sinesten, baita Ni bidali nauenagan ere. Eta Ni ikusten nauenak Ni bidali nauena ere ikusten du.

Ni argi bezala etorri naiz mundura, nigan sinesten duenik inor ilunpetan gelditi ez dadin. Nire hitzak entzun bai, baina betetzen ez dituenak, ez dut Nik gaitzesten, ez baina mundua gaitzestera etorri, mundua salbatera baizik.

Ni ukatu eta nire hitzak onartzen ez dituenak badu nork gaitzetsi: Nik adierazitako hitzak berak gaitzetsiko du azken egunean; Nik ez baitut neure kabuz hitz egin, baizik eta bidali nauen Aitak agindu dit zer esan eta zer irakatsi. Eta badakit haren aginduak betiko bizia ematen duela. Horrela, bada, Nik esaten dudana, Aitak agindu bezala esaten dut».

«**H**aren agindua betiko bizia da»... Aitaren agindua bizi-agindu dira eta bizirako agindu: gu hazten joatea eta bete-beteaz bizitzea dute helburu. Errealitate hau errotik desberdina, Jainkoaren aginduak askotan agertu izan dizkiguten moduan ondoan: agertu izan baitzizkigute, giza izaeraren kontrakoak bailiran edota bizitzan guri zailtasunak nola sortuko emanak bailiran. Agindu horiekin bizi-bideak urratu nahi dizkigu biziaren Jainkoak; egia hori oinarritzat gogoan harturik berrirakurri eta birbizi beharko ditugu, beraz, Jainkoaren aginduak. Lehenengotik azkenera. Eta bizi-egitasmo horretan sartuko ez dena, koloka jarri beharra izango dugu.

Pazkoaldiko 4. astea.
Osteguna / Eguena.

San Jeremias, *profeta*.

Santa Susana, *martiria*.

Domingo Iturrate (Dima ? – Cuencan 1927),
dohatsua, *apaiza, trinitarioa*.

[Apostoluen Eginak liburutik 13,13-25: Daviden hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea, Jesus. Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,16-20.

Jesusek, bere ikasleei oinak garbitu ondoren, esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Morroia ez da nagusia baino handiago, ezta bidalia ere bidaltzailea baino handiago. Horretaz jabeturik, zorionekoak izango zarete, horren arabera jokutzen baduzue.

Ez naiz zuek guztiotaz ari; badakit, bai, nortzuk aukeratu ditudan; baina bete beharrekoa da Liburu Santuak dioen hau: “Nire ogitik jaten duena kontra altxatu zait”. Aurrez, gertatu baino lehen, esaten dizuet, gerta dadinean, “Ni naizela” sinets dezazuen.

Egi-egiaz diotsuet: Nik bidalia onartzen duenak Neu onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali ninduena onartzen du».

«Zorionekoak zuek betetzen baduzue...»: oinetan jartzen bazarete, gainerakoen zerbitzura. Joanen ebanjelioko zorientasunetako bat da, zeinen logika ez baita, inolaz ere, sinoptikoetako zorientasunen desberdina. Zerbitzuaren zorientasuna. Jesusek erakutsi digu bere etsenpluaz, ezin dela bete besteen gainetik jarriz: zerbitzari izatea, ezinbestean, beheratzea da, makurtzea, besteen oinetan jartzea... Hori, Jesusekin topo egiteko eta harekin bat egitea ahalbidetzeaz gain, zorientasunaren eta barne gozamenaren iturri da. Gora jotzeko geurezko joerari, gainerakoen gainetik jartzekoari... kontrajartzen bazaio ere.

Pazkoaldiko 4. astea.

Ostirala / Barikua.

Santo Domingo Ozkabartekoa (de la Calzada, Errioxan), *erlijiosoa*.

San Nereo eta Akileo, *martiriak*.

San Pankrazio, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 13,26-33: Agintzaria, Jainkoak guri bete digu; piztu egin baitu Jesus. Sal 2: Nire seme zara zu; Nik zaitut gaur zu sortu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,1-6.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez izan kezkarik: sinetsi Jainkoagan eta sinetsi nigan ere. Nire Aitarenean bizi-toki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, Ni nagoen tokian zuek ere egon zaitetzten. Zuek badakizue Ni noan tokirako bidea».

Tomasek esan zion: «Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea?» Jesusek erantzun: «Neu naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik».

«**B**idea...». «Bidea ezagutzen duzue...». «Ni naiz bidea...». Baina ohi-koak ditugun bideen desberdina da. Guk, ekin aurretik ezagutu nahi izaten dugu bidea, edota, gutxienez, mapa on bat nahi izaten dugu eskura nondik nora joango garen jakiteko, zein oztopo izango ditugun, bidegurutzeetan zein hartu jakiteko... Hemen ez da horrelako ezer: bidea pertsona bat da, Jesus, eta bide horretarako seinale bakarra eta askia konfiantza da: Jesusez fidatzea, bera da Aitaganako bide bakarra.

Pazkoaldiko 4. astea.

Larunbata / Zapatua.

Andre Maria Fatimakoa.

San Mikel Garikoitz (Naf. Beherea 1797- Betharram 1863), *apaiza eta fundatzailea* (Jesusen Bihotzaren Apaizak).

San Andres Huberto Fournet, *apaiza*.

[Apostoluen Eginak liburutik 13,44-52: Atzerrira goaz. Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek, gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,7-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue».

Orduan, Felipek esan zion : «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, Felipe, eta ez nauzu ezagutzen? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: "Erakutsiezaguzu Aita"? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik.

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan azal dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

«**E**ta ez nauzula ezagutzen, Felipe?» Horrenbeste denbora-eta... Galde-
ra bat, gutako bakoitzak izen bat ezartzen ahal diona. Zeren, hainbat denboraren ondoren, haren gauza asko eta hura bera ezagutu gabe jarrai-

tzen baititugu... Bai, jakina, ebanjelioko testuak kasik buruz dakizkigu. Baina ezagutu jabe jarraitzen dugu zein errotikoak diren haren maitasuna eta haren buru-eskaintza gurekiko, haren hitzean konfiantza izan gabe jarraitzen dugu, haren balioak eta bizi-irizpideak geure balio eta irizpide egin gabe... «Hainbat denbora zuekin nagoela, eta ez nauzula ezagutzen...?»

Egun haietan, ikasleak ugaritu zirelarik, marmarra sortu zen greko hizkuntzakoen artean hebreera hizkuntzakoen aurka, haien andre alargunak eguneroko janari-banaketan bazterrera uzten zituztelako.

Hamabiek, ikasleen batzar orokorra bildurik, esan zuten: «Ez da bidezko guk Jainkoaren hitzaren predikua alde batera uztea janari-banaketa arduratzeko. Beraz, senideok, aukera itzazue zeuen artean izen oneko zazpi gizon Espiritu Santuaz eta jakinduriaz beteak, eta haiei emango diegu egiteko hori; guk, horrela, otoitzean eta hitzaren zerbitzuan jardungo dugu».

Batzar osoak ontzat eman zuen proposamena, eta hauek aukeratu zituzten: Esteban —sinesmenez eta Espiritu Santuaz beterik zegoen gizona—, Felipe, Prokoro, Nikanor, Timon, Parmenas eta Nikolas, Antiokiako judu berria; aurkeztu zizkieten apostoluei, eta hauek, otoitz eginez, eskuak buruan ezarri zizkieten.

Jainkoaren hitza zabaltzen ari zen; ikasleen taldea franko ugartuz zihoan Jerusalem, eta apaiz asko ere sinestedun egiten zen.

[Sal 32: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugar baitugu geure uste ona.]

§ San Pedro: 1 P 2,4-9.

Senide maiteok: Harri bizia da Jauna, gizakiek baztertua, baina Jainkoaren begietarako aukeratua eta bikaina; Harengana hurbiltzen zaretelarik, zuek ere, harri bizi bezala, espirituzko tenpluaren eraikuntzan parte hartzen duzue eta apaizgo santu zarete, Jainkoari atsegina zaizkion espirituzko opariak Jesu Kristoren bitartez eskaintzeko.

Hau dio, izan ere, Liburu Santuak:

«Hona Nik Sionen harria ipini,
giltzarri aukeratu eta bikaina.

Horretan sinesten duenik
ez da lotsaturik geldituko».

Zuentzat, beraz, sinesten duzuenentzat, harri hori aintzagarri da; sinesten ez dutenentzat, berriz, «etxegileek baztertu-tako harria giltzarri bihurtu da, eta baita behaztopa-harri ere, erorarazteko harkaitz». Hitza onartzen ez dutenek egiten dute behaztopa: hori da ezarri zaien zoria.

Zuek, ordea, jatorri hautatu zarete, errege-apaizgo, nazio santu, Jainkoak beretzat eskuratutako herri, ilunpetatik bere argi zoragarriara deitu zaituzten Jainkoaren egintza bikainak iragar ditzazuen.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,1-12.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez izan kezkarik: sinetsi Jainkoagan eta sinetsi nigan ere. Nire Aitarenean bizitoki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, Ni nagoen tokian zuek ere egon zaitezten. Zuek badakizue Ni noan tokirako bidea».

Tomasek esan zion: «Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea?» Jesusek erantzun: «Neu naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik».

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue».

Orduan, Felipek esan zion : «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, Felipe, eta ez nauzu ezagutzen? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du.

Nola diozu: "Erakutsiezaguzu Aita"? Ez al duzu sinesten Ni Aitagana nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagana nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik.

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan azal dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

«**N**igan sinesten duenak, egingo ditu nik egiten ditudan obrak ere»... Ebanjelioko esaldi hau nahasgarri gertatzen zaigu, ezin sinetsia-edo... Zer nahiago genuke, Jesusen obrak berak egitea baino? Zein gustukoa izango genukeen, hainbat aldiz, geure ezintasunaren mugak gainditu ahal izatea besteen oinazeari dagokionez eta, are gehiago, hainbat aldiz penatzen gaituzten geure mugapenei dagokionez!

Jesusek geure esku utzi diguna beraren salbazio-eginkizuna da eta bizia ematearena. «Zeren ni Aitagana bainoa». Eginkizunarekin batean, Jesusek bere grazia ematen digu, bere Espiritua bidaliko digu: ezin izan bestela. Bada, beraz, atzematen, ulertzen ez dugun zerbait... Edota, agian, bada zerbait aldatu beharko genukeena gauzak ulertzeko moduan.

Zeren «nik egiten ditudan obrak egite hori» geure bizia ematea baita, hondo-hondoan, besteei bizia emateko, eta, egia esan, geure bizia eman ez bizia ematen dugu. Ikustekorik gutxi du bizia emate horrek edo Jesusen eginkizuna jarraitze horrek batzuetan gogoan izaten ditugun beste gauza batzuekin: protagonismoa, nabarmentzea, garaipena edo arrakasta. Halakoekin oso ondo geldituko ginatke geure buruari dagokionez, baina ez genieke emango bizirik besteei. Beste bizia ematea da Jesusek geure esku utzi digun «obra».

Pazkoaldiko 5. astea.

Astelehena.

San Isidro, *nekazaria*.Santa Joana Lestonac-ekoa, *fundatzailea (Mariaren Lagundia)*.

[Apostoluen Eginak liburutik 14,5-17: Berri Ona dakarkizuegu, gezurrezko jainkoak utzi eta Jainko biziagana itzul zaitzeten. Sal 113B: Jauna, ez guri; emaiuzu ospe zeure izenari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,21-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite, eta Ni maite nauena nire Aitak maite izango du, eta Nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio».

Esan zion Judasek —ez Iskariotek, besteak baizik—: «Jau-na, zer dela-eta agertuko zatzaizkigu guri eta ez munduari?»

Jesusek erantzun zion: «Ni maite nauenak gordeko du nire hitza; nire Aitak maite izango du, eta Aita eta biok beragana etorriko gara eta beragan egingo dugu bizileku. Ni maite ez nauenak, ordea, ez ditu gordetzen nire hitzak. Eta entzuten du-zuen hitza ez da nirea, bidali ninduen Aitarena baizik.

Zuekin naizen artean esan dizuet hau. Baina Aitak laguntzailea, Espiritu Santua, bidaliko dizue nire izenean; berak irakatsiko dizue dena eta gogoraraziko Nik esan dizuedan guztia».

«Espiritu Santua... izango da den-dena irakatsiko dizuena eta den-dena oroitaraziko dizuena»: gaurko ebanjelioko Jesusen hitz hauek egin-behar hau dakarkigute: bereizketa egin beharra, Jesusen hitza gure bizitzan barneratzen eta eguneratzen duen Espirituari etengabe entzun beharra. Planto egiteko era eta fundamentalismo guztien kontra, Jesusek Espirituari entzutera gonbidatzen gaitu: entzun eta ikasi etengabe. Bada jenderik, bere ikasketak edo formazioa bukatu ondoren, liburu bat ere irakurtzen ez duenik. Iraganean ikasitakotik bakarrik bizitzea, kristau-hizkuntzan, hiltzea da.

Pazkoaldiko 5. astea.

Asteartea / martitzena.

San Andres Bobola, *apaiza eta martiria.*

San Ubaldo, *martiria.*

Santa Gema Galgani, *birjina.*

[**Apostoluen Eginak liburutik 14,19-28:** Beren bidez Jainkoak egindako guztia azaldu zioten elkarteari. **Sal 144:** Ezagutaraz bezate zure zintzoek, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,27-31a.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Bakea uzten dizuet, neure bakea ematen; nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez izan beldur. Entzun duzue esan dizuedana: “Banoa, baina itzuliko naiz zuengana”. Benetan maite baninduzue, poztu egingo zinatekete Aitagana noalako, Aita Ni baino handiagoa baita.

Orain esan dizuet, gertatu baino lehen, gerta dadinean sinets dezazuen. Ez dut jadanik luze hitz egingo zuekin, bai baitator mundu honetako buruzagia. Horrek ez du nire gain ahalmenik; baina munduak jakin behar du Nik maite dudala Aita eta Aitaren agindua bete egiten dudala».

«**... den eta ikasleen fedea koloka ipiniko duen hori?: Jesusen heriotza.** Ez luke ezerk ere koloka ipini behar Aitagan dugun ustea. Edota hobeto esanik: koloka jarrarazten duten gauzen aurrean, uste eta fede honi irmo eutsi behar diogu; izan erem Aitak seme-alabekiko, Jesusekiko eta baita gurekiko ere, duen maitasuna dudaezineko maitasuna da eta: «Zuen bihotzak ez dezala dar-dar egin, ezta koldartu ere». Badoaz urteak eta ez gara iristen bete-beteko konfiantzara. Jabetu gaitezen eskatu beharreko grazia dela...

[Apostoluen Eginak liburutik 15,1-6: Jerusalemera igo zitezela erabaki zuten, apostolu eta arduradunekin auzia argitzeko. Sa1 121: Bagoaz pozik Jaunaren etxera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik Jn 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Neu naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, ezta zuek ere, nigan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, horrek fruitu asko ematen du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitarenen aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

«Ni gabe ezin egin duzue ezer...». «Ezer» horrek harridura eragiten digu eta, segur aski, ahoberokeria irudituko zaigu: gizakia, ezer ez, ezer ez... Jakina, ekialdetarren hiperboleetako bat da hori, esango dugu. Baina testuinguru horretako baieztapena, hain zorrotza, «fruitua ematearena» da, egiazko bizia, bizi betea ematearena. Gauzak, asko egin ahalko ditugu, baina beste gauza bat da fruitu eman dezaten egitea, bizia eman dezaten egitea. Egiten ahal dugun edozer gauza ez da bizi-iturri. Eta zenbat eta itsatsiago egon Jesusi, mahatsondoari, posibleago izango da gure egintzek edo hitzek bizia ematea. Horretan ez da hiperbolirik.

Pazkoaldiko 5. astea.

Osteguna /Eguena.

San Joan I.a, 53. *aita santua eta martiria.*

Santa M^a Josefa Sancho Guerra (Gasteiz 1842 – Bilbo 1912), *birjina eta fundatzailea.*

[Apostoluen Eginak liburutik 15,7-21: Uste dut ez direla kezkarazi behar Jainkoagana itzultzen diren jentilak. Sal 95: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,9-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete dituzalako, haren maitasunean irauten dudan bezala.

Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin».

Gure poza bere betera doa, bere betera iritsiko da, jabetzen goazen neurrian Jesusek maite gaituela Aitak bera maite duen bezala. Ebanjelioetan esapide asko dator, zeinetan Aitak berari dion maitasunez mintzo baita Jesus. Bere bizitzako unerik latzenetan ere aitortu eta sentitu duen maitasuna da: ez Getsemanin, ez Kalbario-mendian utzi dio Jesusek Jainkoari Aita esateari. Inoiz ez, bizitzako inolako une edo gorabeheratan du etenik Jesusek gurekiko duen maitasunak. Horixe da bere betera iristen ari den poza.

Pazkoaldiko 5. astea.

Ostirala / Barikua.

San Zelestino V.a, 192. *aita santua.*

San Frantzisko Coll, *apaiza eta fundatzailea (La Anunciata-ko moja domingotarrak).*

Apostoluen Eginak liburutik 15,22-31: Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu, behar-beharrezko direnak beste zamarik zuei ez ezartzea. **Sal 56:** Goretsiko zaitut, Jauna, herrietan.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,12-17.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handigorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, nire Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitzuet.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Neuk aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia eman egingo dizue.

Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

Joanen ebanjelioko lerro bakan hauek esaten dizkiguten gauzak hainbat dira, non neke baita bat aukeratzea... Maiteak, adiskideak, hautatuak, bidaliak, entzunak... Eta horien guztien hondoan hitz bat, aipatua ez dena, baina guztien sostengu dena: doakotasuna, dohaina... Jainkoaren eta Jesusen maitasunaren doakotasuna gurekiko. Hori guztia guk merezi izan gabe eta, gehienetan, gure erantzunik gabe gelditua, gutxienez emana zaigun neurrian. Gainezka dagien honelako doakotasun-misterioaren aurrean, lehenengo eta funtsezko jarrera eskerrak ematea da: «sustraia eta oinarria».

[Apostoluen Eginak liburutik 16,1-10: Zatoz Mazedoniara, eta laguniezaguzu. **Sal 99**: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,18-21.**

Aldi artan, Jesusek esan zien bere ikasleei: «Munduak gorroto badizue, jakizue zuei baino lehen neuri izan didala gorroto. Mundukoak bazinete, munduak maite izango zintuzkete, nork berea maite duen legez; baina Nik aukeratu eta mundutik atera zintuztedanez, munduak gorroto dizue, mundukoak ez zaretelako.

Gogoratu esan nizuena: Morroia ez da nagusia baino handiago. Ni pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituztete; nire hitza gorde badute, gordeko dute zuena ere. Nire izenagatik egingo dizuete hori guztia, bidali nauena ezagutzen ez dutelako».

«**Z**uek ere pertsegituko zaituzte». Tamalez, Jesusen hitz hauek ez dute galdurik gaurkotasunik XXI. mende beteanean: munduko hainbat zonatan, pertsekuzioa jasaten dute Jesusen jarraitzaileek, hiltzeraino ere bai, jarraitzaile izate hutsagatik. Halakoen etsenplua dei bikoitza da guretzat: gonbita, zintzo jokatzeko eta adoretu fedean eta geure testigantzan; gonbita, biktimismoari eta kexaka bitzeari uko egiteko, eta gure bizipenak eta geure fedearen testigantza egiteak aurkituko dituzten oztopo koskor eta aurkariak ez handiestea. Askoz gutxiago geure porrotari pertsekuzioa deitzea.

Pazkoaldiko 6. astea.

Igandea / Domeka.

San Konstantino, *enperadorea*.San Eutikio, *martiria*.San Timoteo, *martiria*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 8,5-8.14-17

Egun haietan, Felipe Samaria hirira jaitsi eta Mesiasen berri ematen hasi zen. Jendeak, Felipek esaten zuena entzun eta egiten zituen mirariak ikustean, gogo batez onartzen zuen haren predikua; izan ere, deabrudun askorengandik ateratzen ziren espiritu gaiztoak deiadarka, eta elbarri eta herren asko sendatzen ziren. Poz handia izan zen hiri hartan.

Jerusalemen zeuden apostoluek, Samariak Jainkoaren hitza onartu zuela jakitean, Pedro eta Joan bidali zituzten hara. Iritsi zirenean, haien alde otoitz egin zuten, Espiritu Santua har zezaten. Izan ere, artean haietako inorengana jaitsi gabe zegoen Espiritua; Jesus Jaunaren izenean bakarrik zeuden bataiatuak. Orduan, Pedrok eta Joanez eskuak buruan ezarri zizkieten eta Espiritu Santua hartu zuten.

[Sal 65: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.]

§ San Pedro 1 P 3,15-18.

Senide maiteok: Gora ezazue Jauna, Kristo, zeuen bihotzean, eta egon beti prest zeuen itxaropenaren arrazoia emateko eskatzen dizueten guztiei; baina egizue apaltasunez eta begirunez, kontzientzia garbiz jokatuz. Horrela, kristau bezala duzuen jokabide onaz gaizki esaka ari direnak lotsatu egingo dira zuen kontra esaten dutenaz. Hobe da, izan ere, ongi egiteagatik sufritzea, Jainkoak hala nahi izanez gero, gaizki egiteagatik sufritzea baino.

Kristok heriotza jasan zuen bekatuengatik behin betiko —Errugabeak errudunengatik—, zuek Jainkoagana eramate-

ko. Gizakia zenez, heriotza jasan zuen, baina bizia hartu zuen berriro Espirituagandik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,15-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Maite banauzue, bete-ko dituzue nire aginduak. Nik Aitari eskatuko diot, eta beste laguntzaile bat emango dizue, beti zuekin egon dadin, egiaren Espiritua. Munduak ezin du hartu, ez baitu ikusten, ez ezagutzen; zuek, ordea, ezagutzen duzue, zuengan bizi baita eta zuekin egongo betiko.

Ez zaituztet umezurtz utziko, itzuliko naiz zuengana. Las-ter munduak ez nau ikusiko; zuek, ordea, ikusiko nauzue, Ni bizi bainaiz eta zuek ere biziko baitzarete. Egun hartan ulertu-ko duzue Ni Aitagan nagoela, eta zuek nigan eta Ni zuengan. Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite, eta Ni maite nauena nire Aitak maite izango du, eta Nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio».

Gaurko ebanjelioa Presentziaz mintzo zaigu. Jesus gure bizitzan benetan dagoela presente esaten digunaz, ageriko itxura arin batek absente dagoela esan arren. «Munduak ez nau ikusiko, baina zuek ikusiko nauzue eta biziko zarete». Bizi-iturri da hura ikustea, haren presentzia sumatzea. Espiritua da, «egiaren Espiritua» da argi egiten diguna Jesusen Presentzia kontsolatzaile eta bizigarria sumarazten diguna, askotan kanpo eta barne sentitzen dugun absentsia fisikoa eta guzti, opakotasuna, iluntasuna eta guzti.

Geure burua Espirituari ireki beharra dugu, haren eginari ireki beharra. Eta hari ireki, otoitzean irekitzen gatzaizkio, Hitza entzutean, buru-eskaintza eta bereizketa egitean. Horrek guztiak bizitza beste era batean, beste begi batzuekin ikusteko aukera ematen digu: besteak Presentzia bizigarri baten «bizileku» bezala ikusteko aukera. Naturan, geure historiako gertaeretan, jendeagan.

Presentzia hori sentitzea da behar dugun barne indarra, historian jarduteko, hura eraldatzeko, zuzenaren alde borroka egiteko. Geure barruari darion bulkada da, zorionez geldiezina eta atzeraezina; Jainkoaren seme-alaben sufrimena etetea bakarrik aseko eta beteko dena.

Pazkoaldiko 6. astea.

Astelehena.

Santa Joakina Vedruna, *fundatzailea (Karitateko Karmeldarrak).*

Santa Rita Casia-koa, *erlijiosa.*

[Apostoluen Eginak liburutik 16,11-15: Jaunak bihotza ireki zion, Paulok zioena gogoz onar zezan. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,26–16,4.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nik laguntzailea, Aitagan jatorria duen egiaren Espiritua, bidaliko dizuet Aitagan-dik. Hark, etortzean, aitormen egingo du nire alde. Eta zuek ere egingo duzue aitormen, hasieratik nirekin baitzaudete.

Zuen sinesmenak huts egin ez dezan esan dizuet hau. Zeren eta judu-elkartetik bota egingo baitzaituztete; are gehiago, badator ordua, zuek hilko zaituztenak Jainkoari kultu ematen diola uste izango duena. Eta horrela jokatuko dute ez Aita, ez Ni, ezagutu ez gaituztelako. Aurrez esaten dizuet, hori gertatzean esana nizuela gogora dezazuen».

Zailtasunetan joera izaten dugu pentsatzeko, «Jainkoa gutaz ahaztu egin dela», geu garelarik Jesusen hitzez ahazten direnak. «Honetaz mintzatu natzaizue, ordua iritsiko denean gogora zaitetzten». Baina zertaz gogoratu? Zailtasunak bizitzako eta Jesusi jarraitzearen osagarri direla, kristau izateak ez gaituela ateratzen giza izaeratik; alabaina, inoiz ez gaudela geu bakarrik zailtasunean, eta, itxurak eta guzti, azken hitza maite gaituen Jainkoak duela beti.

[Apostoluen Eginak liburutik 16,22-34: Sinets ezazu Jesus Jaunagan, eta salbatuko zara zeu eta zeure etxeokak. **Sal 137:** Zure eskuinak nau salbatzen, Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,5-11.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Orain, bidali nin-duen Aitagana noa, eta zuetako inork ez dit nora noan galde-tzen. Baizik eta hori esan dizuedalako, tristurak bete du zuen bihotza.

Hala ere, egia diotsuet: Hobe da zuentzat Ni joatea; izan ere, joaten ez banaiz, ez zaizue etorriko laguntzailea. Joaten banaiz, ordea, bidali egingo dizuet.

Hura etortzean, agerian jarriko du munduaren errua beka-tuari, zuzentasunari eta epaiari buruz: bekatuari buruz, nigan sinesten ez duelako; zuzentasunari buruz, Aitagana noalako, eta ez nauzue gehiago ikusiko; epaiari buruz, mundu honetako buruzagia jadanik gaitzetsia dagoelako».

«**K**omeni zaizue ni joatea». Imajinatzen al dugu ikasleen barne-atseka-bea edota, are, barne asaldura Jesusen hitz hauek entzutean? Nolan komeni zaigu bakarrik gelditzea, dei egin digun, argitzen gaituen eta bihotz ematen digun hura gabe? Halaz guztiz, hartarainoko egia dute hitz hauek berekin... Eta hainbeste gogoeta gaur guretzat: bere ikasleengan «konfiantza» duen Jesus da, pedagogia jakintsua da: heldutasunera iristeko gizon-emakumeek bizi behar ditugun erak eta ibilbideak ezagutzen dituen, oharpen bat da bihar eguneko elkartearantzat «ikasleen» eta «irakasleen» arteko harremanez...

[Apostoluen Eginak liburutik 17,15.22–18,1: Zuek ezagutu gabe gurtzen duzuen horren berri ematera natorkizue. **Sal 148:** Zeru-lurrak beterik ditu zure distirak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,12-15.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Badut oraindik gauzarik asko zuei esateko, baina oraingoz ez zarete gai ulertzeko. Baina egiaren Espiritua etortzean, berak gidatuko zaituzte egia beteraino. Ez da bere kabuz mintzatuko, baizik eta entzungo duena esango dizue eta etorkizuna iragarriko. Hark nire aintza azalduko du, adieraziko dizuena niretik hartuko baitu.

Aitak duen guztia nirea da; horregatik esan dizuet Espirituak niretik hartuko duela adieraziko dizuena».

«**E**giaren espirituak egia beteraino gidatuko zaituzte... Hau da: bada biderik aurrean, bada biderik egiteko; bada egiarik aurkitzeko... Ez dago den-dena esana. Gauzak horrela badira, ezinbestekoa da arreta, ezinbestekoa entzun beharra, ezinbestekoa bereizketa. Batere errazak ez diren bertuteak dira bizi garen kulturaren: barreiaketaren kultura, zaratarena (kanpo eta barne), modari atxikitzearena... Kezka dut fedearen pedagogiaz, entzuten eta bereizten irakatsiko digunaz; izan ere, orduan fedea ez da ibiliko bizitzaren erritmora (hau ez baita gelditzen), eta fedeak eta bizitzak zeinek bere hizkuntza izango du.

Pazkoaldiko 6. astea.

Osteguna / Eguena.

Santa Bizenta Lopez Bikuña (Kaskante 1847–Burgos 1890), *birjina, fundatzailea (Maria Sortzez Garbiaren Erlijiosak).*

San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea.*

San Gregorio VII.a, *aita santua.*

Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina.*

[Apostoluen Eginak liburutik Eg 18,1-8: Haien etxean gelditu zen, haiekin batean lan eginez, eta sinagogan eztabaidan ari ohi zen. Sal 97: Agertu du Jaunak atzerrien aurrean beragandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,16-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira berriro ikusiko nauzue».

Ikasleetako batzuek honela zioten elkarren artean: «Zer ote da esaten digun hau: "Gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira berriro ikusiko nauzue", eta "Aitagana noa"? Zer esan nahi ote du harako "gutxi barru" horrekin? Ez diogu antzik ere ematen zertaz ari den».

Konturatu zen Jesus galdegin nahi ziotela, eta esan zien: Eztabaidan ari zarete zeuen artean esan dizuedan honetaz: «Gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira berriro ikusiko nauzue». Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aiene; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da».

«**P**oza»: oinarrizko hitza ebanjelioan, hainbat alditan ahaztua geure predikuan eta fedea bizitzeko geure eran. Halere, Jainkoari esker, eta Frantzisko aita santuaren «Ebanjelioaren poza» erregua dela medio, berreskuratuz goaz. Nolatan ez da pozik biziko gai den hura, beraren bizitzako

egun bakoitza dohain bat dela aitortzeko, eta beraren bizitza etenik gabeko dohain-segizio bat? Nolatan ez da pozik biziko bizitzako bideetan Jainkoarekin topo egiten duen hura? Nolatan ez da pozik biziko sinesten duena azken hitza, beti, biziaren Jainkoak duela?

[Apostoluen Eginak liburutik 18,9-18: Asko dira hiri hone-
tan nire herriko. **Sal 46:** Jainkoa da lurbira osoan errege.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,20-23a.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aiene; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egingo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da.

Emakumea, erditzerakoan, triste egon ohi da, ordua etorri zaiolako; haurra izan ondoren, ordea, ahaztu egiten da larrialdiaz, munduari gizaki bat jaio zaiolako pozik.

Zuek ere triste zaudete orain; baina agertuko natzaizue be-
rriro, eta poztu egingo zarete, eta zuen poza ez dizue inork ken-
duko. Egun hartan ez didazue ezer galdetuko».

Berriro mintzo zaigu ebanjelioa pozaz. Poz sakona da, eta ez pasakorra; pa-
sadizo gutxi-asko atsegini atxikia edota garaipen eta arrakasta gutxi-asko
igarokorri lotua ez dena, baizik bizi berri baten esperientziari. Bizi berri bat,
askotan edozein giza bititza bezala sortzen dena, sufrimendurik, oinazerik
edo tristurarik ez den prozesuetan. «Bizi berria» da, leial zaizkionei Jainkoak
ematen diena, espermentatu arren, leialtasun horrek, askotan, bere kostuak
dituela: besteek ulertua ez izatearen kostua edo norberaren ukapena.

[Apostoluen Eginak liburutik 18,23-28: Liburu Santutik garbi irakasten zuen Apolok, Jesus zela Mesias. Sal 46: Jainkoa da lurbira osoan errege.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,23b-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Aitari zerbait nire izenean eskatzen badiozue, emango dizue. Orain arte ez diozue ezer eskatu nire izenean. Eskatu eta hartuko duzue, zuen poza bete-betea izan dadin.

Orain arte irudi bidez hitz egin dizuet; baina badator ordua irudi bidez hitz egingo ez dizuedana, baizik eta argi eta garbi emango dizuet Aitaren berri. Egun hartan nire izenean eskatuko duzue, eta ez dizuet esaten Nik Aitari zuen alde eskatuko diodanik; zeren Aitak berak maite baitzaituzte, zuek Ni maite izan nauzuelako eta Jainkoagandik etorri naizela sinetsi duzuelako.

Aitagandik irten eta mundura etorri nintzen; orain mundua utzi eta berriro Aitagana noa».

«**E**skatu nire izenean»... Zer da Jesusen «izenean» eskatze hori, Aitaren dohaina segurtatzen duen eskatze hori? Jesusen harira eta haren ebanjelioaren arabera eskatzea da, Jesusek eskatuko lituzkeen gauza haiek berak eskatzea. Ez da, beraz, eskari egoista batzuen kontua, ezta ebanjelio-koei baino gehiago mundu honetako logikari eta irizpideei erantzungo lieketen eskariak egitea. Ez da eskari hutsal batzuk egitea ere. Askotan, geure apetei dagozkien eskariak egiten ditugu, eta Jainkoak halakoak bete ditzan nahi izango genuke. «Jesusen izenean eskatu»: Gure Aitak adierazten du eskari horien esparrua.

§ Apostoluen Eginak liburutik 1,1-11.

Teofilo maitea: Neure lehenengo liburuan, hasieratik zerura jaso izan zen eguna arte Jesusen egin eta irakatsi zuen gutzia idatzi nuen. Zerura igo aurretik, Espiritu Santuaren eraginez aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu zitzaizen bere nekaldiaren ostean eta bizirik zegoeneko frogatik asko eman zizkien, berrogei egun bere burua ikustera emanez eta Jainkoaren erreinuaz hitz eginez.

Haiekin bazkaltzen ari zen batean, agindu zien: «Ez alde egin Jerusalemetik. Zaudete han Nik Aitarekin partetik egin dizuedan agintzaria bete zain. Joanek urez bataiatu zuen; baina zuek Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak egun gutxi barru».

Orduan, bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?» Jesusen erantzun zien: Aitak bakarrik du hori erabakitzeke ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalem, Judea osoan, Samarian eta lurraren azken mugaraino».

Hori esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte. Oraindik zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizaseme azaldu zitzaizkien ondoan, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor zerura begira? Zuen ondotik zerura jaso izan den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro».

[Sa1 46,2-3. 6-7. 8-9: Oihu alaien artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz, Jauna.]

§ San Paulok Efesoarrei 1,17-23.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazkizuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera deitu zaituzten, zeinen aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua duen aintza, eta zeinen handia den sinesten dugunon alde erabiltzen duen ahalmena. Ahalmen eta indar hori Kristogan erakutsi zuen Jainkoak, berau hilen artetik piztu eta zeruan bere eskuinaldean eserarazi zuenean. Jainkoak aginte, botere, indar eta nagusigo ororen gaintetik ezarri du Kristo, eta mundu honetan ez ezik, datorren munduan ere aipa daitekeen izen ororen gaintetik.

Dena jarri du Jainkoak Kristoren oinazpian, eta berau ezarri du denen gaintetik Elizaren buru. Haren gorputza da Eliza, unitertsoa erabat betetzen duen Kristok betea.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,16-20.

Aldi hartan, hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek adierazi zien mendira. Ikusi zutenean, gurtu egin zuten; batzuk, ordea, zalantzan zeuden.

Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzaizen: «Ahalmen osoa eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren ize-
nean bataiatuz eta Nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta Ni zuekin izango nauzue egunero munduaren azkena arte».

«**B**atzuk zalantzan zeuden...». Azken arte, duda-mudak. Ez dute aski izan Piztueraren aurretik eta ondoren bizi eta espermentatu izan duten guztia. Giza izaera da: haiena eta gurea. Inoiz ez dugu aski ikusi, ezta aski garbi ere; joera dugu, Jaunak munduaren historian eta geure historian egin duen guztia ahazteko.

Halaz guztiz, dudak, zalantzak eta guzti, misio bat gomendatu die Jesussek: «Zoazte eta egin ikasleak». Harrigarria: egundoko misio bat jende ahulari gomendatua, duda-mudak dituenari. Gure kasua da, gu geu gara. Geure esku dugu guztiz gainezka egiten digun misio edo eginkizun bat. Gainezka egiten bai, baina zapaltzen ez.

Zeren «ni zeuekin izango bainauzue egunero munduaren azkena arte». Ez gaude bakarrik. Gora joan da, bai, baina gurekin dago. Geure misioa hartaz ahaztuz egin nahi badugu, hura bazter utziz, geuk bakarrik, porrot bat izango da. Gurekin dagoenarekin elkartasuna biziz egin daiteke soilik. «Egun guztietan»: eta guztiak esatean, den-denak esan nahi da. Ez arrakasta sentitzen dugun egunetan bakarrik, arrakasta geure garaitza dela usten dugunean bakarrik. Egun guztietan: zeren eta Jainkoaren Erreina orobat gertatzen da presente ezer ez dugula lortu iruditzen zaigunean ere.

[Apostoluen Eginak liburutik 19,1-8: Hartu al zenuten Espiritu Santua, sinetsi zenutenean? Sal 67: Lurreko erreinuak, egin eresi Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,29-33.

Aldi hartan, ikasleek esan zioten Jesusi: «Orain bai argi hitz egiten duzula, eta ez irudi bidez. Orain badakigu dena dakizula eta ez duzula inork galdetu beharrik; horregatik sinesten dugu Jainkoagandik etorri zarela».

Jesusek erantzun zien: «Orain sinesten duzuela? Hara, bator ordua –hobeto esan, etorria da– nor bere aldetik sakabatu eta Ni bakarrik utziko nauzuen. Baina Ni ez nago bakarrik, nirekin baitut Aita.

Hau esan dizuet, nigan bakea izan dezazuen. Izango duzue larrialdirik munduan; baina izan adore! Nik garaitu dut mundua».

«**M**unduan borroka izango duzue...». Bai, borroka egin beharra dugu, Jaunari eta haren ebanjelioari leial eutsi ahal izateko. Borroka, batzuetan, kanpoko etsaien aurka izaten da: agian, hau da aurre egiteko «erazena» (nolabait esateko): etsaia ezaguna da, eta gogor erasotzen dio geure jarrera borrokalariak. Beste batzuetan, etsaia geure barnean egon ohi da: hau korapilatsuagoa izan ohi da. Gehiago kostatzen zaigu hau identifikatzea, buru-engainurako eta nork bere burua zuzitzeko joera izaten baitugu. Barneko etsaiaren aurkako garaipen handia geure buruari azti begiratzen jakitea da. Azti izate hori graziatzat ematen digu Jesusek berarekin topo egitean.

[Apostoluen Eginak liburutik 20,17-27: Nire ibilaldia burutu behar dut, eta Jesus Jaunagandik hartutako zerbitzua bete. **Sal 67:** Lurreko erreinuak, egin eresi Jainkoari.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17, 1-11a.**

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: «Aita, iritsi da ordua. Azal ezazu zeure Semearen aintza, Semeak zure aintza azal dezan. Gizon-emakume guztien gain aginpidea eman diozunez gero, betiko bizia eman diezaiela zuk berari emandakoei. Hau da betiko bizia: Zu, egiazko Jainko bakar hori, eta zuk bidalitako Jesus Mesias ezagutzea.

Nik zure aintza azaldu dut munduan, Zuk eman zenidan egi-tekoa betez. Orain, Aita, emadazu aintza zeure ondoan, eman mundua mundu izan baino lehen zure ondoan nuen aintza.

Agertu diet zure izena mundutik bereizi eta eman zenizkidan gizon-emakumeei. Zeureak zenituen, zuk neuri eman zenizkidan, eta haiek onartu dute zure hitza. Badakite orain zuk eman didazun guztia zugandik datorrela. Zuk niri eman zenizkidan hitzak eman dizkiet Nik, eta hauek onartu egin dituzte. Eta benetan jakin dute zugandik atera nintzela, eta sinetsi zeuk bidali ninduzula.

Hauen alde erregutzen dizut; ez dut munduaren alde erregutzen, zeuk eman dizkidazunon alde baizik, zureak direlako. Bai, dudan guztia zurea da eta zuk duzuna nirea, eta hauengan azaldu da nire aintza. Ez naiz aurrerantzean munduan egongo; hauek, bai, munduan jarraituko dute. Ni, berriz, zugana noa».

Jainkoaren aintza, Jesusen aintza... Zenbat oker ulertze historian barna bi kontzeptu hauen inguruan eta zenbat nahaste «Jainkoaren aintza» giza aintzarekin, jendearen edo erakundeen aintzarekin! On egingo digu entzuteak eta gogoeta egiteak zerekin lotzen duen Jesusek aintza hori: «koroatu dut gomendatu zenidan egintza», «agertu diet zure izena gizon-emakumei», «esan dizkiet zuk eman zenizkidan hitzak»... Hitz batean, «aintzatua izan naiz haiengan». Jesusen aintza bere buruz egin duen eskaintza da, eta, horrenbestez, bizi baterako ahalbidea ireki die hura onartzen dutenei.

Pazkoaldiko 7. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

Andre Mariaren ikustaldia Elisabeti.

Santa Gertrudis, *aitorlea*.

San Noe Mawaggali, *martiria*.

Luis Eduardo Cestak (1801-1868), *dohatsua*,
Baiona, apaiza eta fundatzailea.

[Ikus Andre Mariaren jaiko meza, beheraxeago]

[Apostoluen Eginak liburutik 20,28-38: Jainkoaren eskue-
tan uzten zaituztet; badu indar etxea eraikitzeke eta zuei oi-
nordekotza emateko. Sal 67: Lurreko erreinuak, egin eresi Jain-
koari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,11b-19.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: «Aita
santu horrek, zaindu itzazu zeure ahalmenaz zeuk eman dizki-
dazunok, bat izan daitezen gu geu bat garen bezala. Hauekin
izan naizen bitartean, neuk zaindu ditut zure izenean eman diz-
kidazunok. Hauen ardura izan dut eta ez da bat ere galdu, galdu
behar zuena baizik; horrela, Liburu Santuek diotena bete da.

Orain, ordea, zugana noa. Hau guztia oraindik munduan
nagoela esaten dut, nire poza berengan izan dezaten, eta bete-
-betea izan ere. Zure hitza eman diet Nik; baina munduak go-
rroto die, mundukoak ez direlako, Ni ere mundukoa ez naizen
bezala. Ez dizut eskatzen mundutik ateratzeko, gaiztoagandik
gordetzeko baizik. Ez dira mundukoak, neu ere mundukoa ez
naizen bezala.

Sagara itzazu egiaren bidez: zure hitza da egia. Ni mundura
bidali ninduzun bezala, Nik ere mundura bidali ditut. Eta hauen-
gatik sagaratzen dizut neure burua, hauek ere sagara ditzazun
egiaren bidez».

«**A**ita zerukoa, gorde itzazu... bat izan daitezen». Eguneroko bizitzan Aikusten dugu, ez dela batere erraza elkartasuna, komunioa. Ez geure elkarte zehatzen maila «mikroan», ez Eliza osoaren maila «makroan». Zail bihurtzen dute, nola pertsona arteko alde arruntek (pentsaerak, izaerak...), hala egoismoak, errezeloak, areriotasunek, ez hain arruntek baina bai sarritakoek... Elkartasuna edo komunioa Jainkoaren grazia da, eskatu beharrekoa. Anai-arreben aldeko otoitza eta elkartasunaren aldekoa beharrezko ditugu egunero, egunero bizi ohi baitugu hartarako zailtasuna.

Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti: Meza.

[**Sofonias 3,14-18:** Jauna izango da Israel herriko errege zuen artean. **Salmo: Isaias 12:** Handi da Israelgo Santua zuen artean.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-56.**

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabeti, Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, nire Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!»

Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, / pozaren pozez daukat neure barrua; / Jainkoa baita nire salbamena, / ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. / Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, / handiak egin baitizkit Ahalguztidunak: / Santua da haren izena, / eta haren errukia gizaldiz gizaldi, / beldur diotenengana. / Bere besoaren indarra erabili du, / buruharroak suntsitu ditu; / bota ditu beren aulkitik handikiak, / eta gora jaso ditu ezerezak; / ondasunez bete ditu gose zeudenak, / eta esku-hutsik bidali asko zutenak. / Bere gain hartu du Israel, bere morroia, / errukia gogora zaiola;

/ gure gurasoei hala zien hitzemaña, / Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Hiru hilabete inguru egon zen Maria Elisabetekin, eta gero etxera joan zen.

Bai Mariak, bai Elisabetek bisita izan dute beren agorraldian; biek bizi izan dute tentazioa «Ezina!» esateko. Baina esperientzia ederra egin dute: «ezer ez da ezinezko Jainkoarentzat». Eta beren gabezia garaitu izana dute beren pozaren jatorria. Haiek biak bezala, gutako bakoitza ere bizi-misterioaren eroale da, eta gaurko jai honek hori guztia eskertzera gonbidatzen gaitu. Aldi berean, aitortzera eta errespetatzera, topo egiten dugun pertsona bakoitzarengan bizi den bizi gorde hori.



[Apostoluen Eginak liburutik 22,30; 23,6-11: Erroman ere aitormen egin beharko didazu. Sal 15: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17, 20-26.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: «Aita, ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita berauen hitzaren bidez nigan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu guztiak bat izan daitezela. Aita, zu nirekin eta Ni zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin, munduak sinets dezan zuk bidali nauzula.

Zuk eman zenidan aintza bera eman diet Nik, bat izan daitezen, Gu biok bat garen bezala: Ni hauekin bat eta zu nirekin bat. Horrela guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du zuk bidali nauzula eta Ni Neu maitatu nauzun bezala maitatu dituzula hauek ere.

Aita, zuk eman dizkidazunak Ni nagoen tokian nirekin egoitea nahi dut, nire aintza, mundua izan baino lehen maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten.

Aita zuzen hori, munduak ez zaitu ezagutu; Nik, ordea, ezagutu zaitut, eta hauek jakin dute zuk bidali nauzula. Jakinarazi diet zure izena, eta aurrerantzean ere jakinaraziko, zuk niri didazun maitasuna hauengan izan dadin, eta Ni Neu ere hauengan izan nadin».

«**B**at izan daitezela, gu, ni eta zu, bat garen bezala...». Esan nahi baita, bat izan daitezela, Aitak eta Semeak duten batasun-era izanez: batasuna beraien arteko maitasunean eta munduaz duten maitasunean. Beraz, Hirutasuna, gure arteko batasunaren irudi eta erreferentzia. Batasun-era

gutziz zehatza da, ustezko beste batasun batzuetatik urrun dena; agian, batasun lortu edo ezarri errazagoak dira hauek, baina maitasunaren batasun izan gabe. Uniformetasun ez den batasunaz ari gara, baizik eta askotarikotasunean estimu eta elkartasun denaz. Isolamendu ez den batasunaz ari gara, baizik eta partekaturiko misio denaz

Apostoluen Eginak liburutik 25,13-21: Eztabaidak hildako Jesus bati buruz zituzten, Paulok bizi zela esaten baitzuen. **Sal 102:** Jaunak zeruan ezarri du bere aulkia.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,15-19.**

Jesusek, bere ikasleei agertu eta gosaldu ondoren, esan zion Pedrori: «Simon, Joanen semea, hauek baino maiteago al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudana». Jesusek, orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak».

Bigarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudana». Jesusek, orduan: «Zaindu itzazu nire ardiak».

Hirugarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion: «Jauna, zuk dena dakizu; zuk badakizu maite zaitudana». Orduan, Jesusek esan zion: «Bazka itzazu nire ardiak. Bene-benetan diotsut: Gazteago zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nahi zenuen tokira joaten zinen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun tokira eramango zaitu».

Horrela, zer-nolako heriotzaz Jainkoari aintza emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion: «Jarraitu niri».

«Jarraitu niri»... Zenbait egun lehenago, Jesusi uko egin baino lehenago, esandako hitz bera eta gonbit bera. «Jarraitu niri»: barkatzeko era xume bat, Nekaldiak etena zuen normaltasunera itzultzeko era. «Jarraitu niri»: izanak izan eta eginak egin, berriua den konfiantzaren adierazpena da;

barkazioaren agerpen eginkorra den konfiantza berritua da. «Jarraitu niri» honetan, guztiok gara hartuak sentitzen, lehenengo «jarraitu niri» hari egingdako hainbat desleialtasunen ondoren. Eta jarraitzen badiogu, ez da geure indarraz fidatzen garelako, ezta geure merezimenduez harro garelako ere, baizik Jesusen onginahiaz eta errukiaz esker oneko garelako.

[Apostoluen Eginak liburutik 28,16-20. 30-31: Erroman gelditu zen, Jainkoaren erreinua hots egiten. Sal 10: Zure aurpegia zintzoek ikusiko dute, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,20-25.

Aldi hartan, Pedrok itzuli eta Jesusek maite zuen ikaslea ondoren zetorrela ikusi zuen —afarikoan, Jesusen bular gainean jarririk, «Jauna, nor da salduko zaituena?» galdetu ziona—. Hura ikusi zuenean, bada, Pedrok galdetu zion Jesusi: «Jauna, eta hori zer?» Jesusek erantzun zion: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer? Zuk jarraitu niri».

Hitz hauek zirela eta, ikasle hura hilko ez zelako zurrumurrua sortu zen senideen artean. Jesusek, ordea, ez zion esan ez zela hilko, beste hau baizik: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer?»

Ikasle huraxe da gauza hauez guztiez testigantza egiten duena eta idatzi dituena, eta badakigu egiazkoa dela haren testigantza.

Beste gauza asko ere egin zituen Jesusek. Guztiak banan-banan bilduko balira, nik uste mundu osoan ere ez lirakeela sartuko idatz litezkeen liburuak.

«Jauna, eta hori zer?» Bai ondo ikusten dugula geure burua Pedroren galdera honetan, «Jesusek hartaraino maite zuen ikasleaz» egin dion honetan! Bai ondo doakigula geuri ere konparatzen jarduteko jarrera hori, alde batera eta bestera begira biziz, edota atsegina sentitzekoa balizko geure gailentasunaz, edota beste jende bati eskainitako balizko mesede-trataeraz kexatzekoa! «Eta hori zer?» Argia eta biribila da Jesusen erantzuna: «Eta zer axola zuri? Zuk jarraitu niri». Zuk, jarraitu zeure deia eta zeure bidea; hori duzu, segur aski, zuri Jainkoak prestatu dizun bizirako bidea...

§ Apostoluen Eginak liburutik 2,1-11.

Mendekoste-eguna iritsi zenean, leku berean bildurik zeuden ikasle guztiak. Bat-batean, haize-bolada indartsu batena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta ikasleak zeuden etxe guztia bete zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk agertu zitzaizkien, eta, banatuz, bakoitzaren gainean kokatu ziren. Guztiak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion bezala.

Bazen egun haietan Jerusalemen judu jainkozalerik asko, zerupean diren herri guztietakoak. Burrunba hura entzutean, jendetza handia bildu zen eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien.

Harri eta zur, honela zioten: «Mintzo direnok, ez al dira guztiak galilearrak? Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badira partiar, mediar eta elamdarrrak; baita Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton eta Asian bizi direnak ere; badira Frigia eta Panfiliakoak, Egipto eta Zirene inguruko Libiakoak, baita erromatarrak ere; eta denok, judu nahiz judu berri, kretar nahiz arabiar, nork geure hizkuntzan entzuten diegu Jainkoaren egintza harrigarriak hots egiten».

[Sal 103: Bidal ezazu, Jauna, zeure arnasa, eta berriarazi lur-azala.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 12,3b-7.12-13.

Senideok: Ezin du inork esan «Jesus da Jauna!» Espiritu Santuak eraginda ez bada.

Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten duena. Bakoitzari guztien onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak.

Gorputzak, bat izanik ere, atal asko ditu; baina atal guztiak, asko izanik ere, gorputz bat bakarra osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berean izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu.

Neurtitza

Zatoz, bai, Gogo Guren, / eta bidal zerutik / zeure argi izpia.
/ Zatoz, gaixoen aita, / zatoz, dohain-emaile, / zatoz, bihotzen argi.

Poz-emaile bikaina, / etxelagun atsegin, / sargorian haize fin.
/ Lan artean atsedeen, / nekean aringarri, / malkoetan pozgarri.

Bete, argi dohatsu, / zintzoen bihotzeko / zirrikiturik barnena.
/ Zure laguntza gabe / ez du gizonak ezer, / ez du ezer on denik.

Garbitu, zikin dagoena, / busti, lehor dagoena, / zauriak oro senda.
/ Zurrun dena bigundu, / makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.

Zugan uste on duten / zintzoei isuri / zazpi dohain zerutik.
/ Zintzo saria eman / osasun hil artean, / poza betierean. / Amen. Aleluia.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,19-23.

Astearen lehenengo egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, atek itxita, juduen beldurrez. Sar-

tu zen Jesus eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, Nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Mendekoste igande honetako irakurgaiek Espirituaren egintza askotariko jendea batzearekin eta errukiarekin erlazionatzen dute.

Askotarikotasuna Elizan gauza ugaria da: hizkuntzak direla, kulturak direla, bizi- eta gizarte-egoerak direla, baita ebanjelioa ulertzeko eta bizitzeko erak ere. Eta aitortu dezagun ez zaigula batere erraza gertatzen askotarikotasun hori: guztiok dugu nor bere sentiberatasuna, eta guztiongan izaten dira harrigarri gertatzen zaizkigun ebanjelioa bizitzeko sentiberatasunak eta erak, eta, guri ez iruditu arren, geureak bezain baliozkoak direla onartzea kostatzen zaizkigunak. Arazoa ez da batzen gaituena (eta bada horrelakorik) bakarrik ikustea; hor dago aurre egin beharreko erronka handiago hau: bereizten gaituenaren aberastasuna baloratzea. Eskari-gai egokia izan daiteke hori Espirituaren jai honetan.

Gainera, errukiaren lekuko izatera deituak gaude. «Barkatzera» eta «ukatzer» deituak: horrek, ordea, bereizmena eskatzen du, Espirituari irekirik bizitzeko gaitasuna, Espiritu hori izan dadin, eta ez gure era partikularra, bizitza eta ebanjelioa interpretatzea bideratuko duena.

Elkartasuna (komunioa) eta errukia: Eliza. Eliza, Espirituak eraikia eta gidatua historian barna. Kristoren gorputza gaur egungo historian.

[Tobit 1,3; 2,1b-8: Tobias, erregearen baino Jainkoaren bel-
durrago zen. Sal 111: Dohatsu Jaunaren beldur den gizakia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,1-12.

Aldi hartan, Jesus parabola bidez hitz egiten hasi zitzaizen apaizburuei eta herriko zaharrei: «Gizon batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu, bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen. Gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen. Bere garaian, morroi bat bidali zien nekazariei, mahastiko fruitutik zegokion partea jasotzera; baina haiek morroiari heldu, jo eta esku hutsik bidali zuten. Berrito beste morroi bat bidali zien; hau ere buruan jo eta irainez bete zuten. Beste bat ere bidali zien geroago, eta hil egin zuten. Ondoren, beste asko bidali zizkien, eta batzuk jo eta besteak hil egin zituzten. Bazuen oraindik beste norbait, bere seme maitea, eta huraxe bidali zien azkenik, bere baitarako esanez: "Izango diote begirune nire semeari". Nekazariak, ordea, esan zioten elkarri: "Oinordekoa duk! Hil dezagun eta mahastiaren jabe izango gaituk". Hartu, hil eta mahastitik kanpora bota zuten. Zer egingo ote du mahasti-jabeak? Joan eta garbitu egingo ditu nekazari horiek, eta mahastia beste batzuen esku utziko. Ez al duzue irakurri Liburu Santuetako hura:

"Etxegileek baztertutako harria

giltzarri gertatu da.

Jaunak egin du hori,

gure begien harrigarri"?»

Apaizburu eta herriko zaharrak Jesus atxilotu nahian ze-

biltzan, ongi jabetu baitziren beraiengatik esan zuela parabola hura. Baina jendearen beldurrez, utzi eta alde egin zuten.

Agintzen duena zikoiztasuna eta diru-gosea denean, ez da izaten begirunerik, ez ezerentzat, ez inorentzat. Benetan, hiltzailea den logika izan ohi da. Eta ez zentzu metaforikoan, baizik zentzu errealean: sufrimena eta heriotza eragiten die Jainkoaren seme-alabei. Jesusen parabola hau, zorroztza baina egiazkoa, «apaiz nagusiei, lege-maisuei eta zaharrei» zuzendua da, hau da, garaiko elite erlijiosoari. Inor ez dago aske diruaren logika honen kutsaduratik. Ezta geu ere: ez gaude immunizatuak gure gizartea pozoitzen duen airearen aurka. Erne eta adi bizi beharra dugu.

Urteko 9. astea.**Asteartea / Martitzena.**San Norberto, *gotzaina*.San Martzelino Champagnat, *fundatzailea*
(*Maristak*).

[**Tobit 2,10-23**: Ez zuen Jainkoaren aurka hitz erdirik ere esan, bidali zion itsutasunagatik. **Sal 111**: Bizkor du zintzoak bihotza Jaunagan itxaroten.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,13-17.**

Aldi hartan, fariseu eta Herodesen alderdiko batzuk bidali zizkioten Jesusi, hitzen batean harrapatzeko asmoz. Etorri eta esan zioten: «Maisu, badakigu egiazale zarela eta ez dizula axolarik inoren zeresanak; zuk ez diozu gizakiaren itxurari begiratzen, baizik eta Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzu. Zilegi da Zesarri zerga ordaintzea ala ez? Ordaindu behar diogu ala ez?»

Baina Jesusek, haien azpikeriaz oharturik, esan zien: «Zergatik zatozkidate zirika? Ekarri txanpon bat, ikusteko». Ekarri zioten, eta Jesusek galdetu zien: «Norenak dira irudi eta izen hauek?» Haien erantzun: «Zesarrenak». Jesusek, orduan: «Eman Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari». Eta txunditurik gelditu ziren.

Berriro, bereizmena egiten jakiteko dei bat. Mundu honetako herritar gara; ez geure fedea, ez geure kristau-izaerak ateratzen gaituzte mundutik. Eta munduko herritar garenez, izaera honi dagozkion betebeharrak ditugu. «Zesarrena Zesarri». Baina bada beste zerbait ere: «Jainkoarena dena», eta hori Jainkoarentzat da. Batzuetan «Jainkoarenak» gaina hartzen dio Zesarrenari; are gehiago, kontrajarri ere egiten ahal zaio. Eta horrelakoetan geure fedearen hariko izan behar dugu. «Jainkoarena», dudarik gabe, pobreei eta txikiei lehentasuna eskaintzea da, eta sufritzen direnekin konprometitzea.

Urteko 9. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

Santa Eugenia, *martiria*.San Roberto, *abadea*.

[Tobit 3,1-11a. 16-17a: Bien otoitzak entzunak izan ziren Jainko Handiaren aurrean. Sal 24: Jauna, zugana jasotzen dut bihotza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,18-27.

Aldi hartan, saduzear batzuk etorri zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla). Eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: "Norbaiti anaia hiltzen bazaio, emaztea seme-alabarik gabe utziz, ezkon bedi alarguntsarekin, anaiari ondorengoa emateko". Behin batean, baziren zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena alarguntsarekin ezkondu zen, eta seme-alabarik gabe hil zen; berdin hirugarrena ere. Horrela, zazpiak ondorengorik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, hildakoak piztuko omen direnean, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?» Jesusek erantzun zien: «Ez ote zabiltzate oker, eta oker, hain zuzen, Liburu Santuek diotena eta Jainkoaren ahalmena ezagutzen ez dituzuelako? Izan ere, hildakoak piztean, ez da inor ezkonduko; zeruko aingeruak bezalakoak izango dira denak. Gainera, hildakoen piztueraz, ez al duzue irakurri Moisesen liburuan, sutan zegoen sasiaren pasartean, Jainkoak berak nola esaten dion: "Ni Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoben Jainkoa naiz"? Ez da hilen Jainkoa, biziena baizik. Oker zaudete oso».

Kasuistika, beste behin... Gauzen muina, bizi- edo pentsaera-eskema aldatzeko eskatzen dien muina, onartzea nekoso gertatzen zaien baliabide kaxkarra da kasuistika; beraiek Jainkoak proposatzen dien berritasunean

murgildu ordez, Jainkoa beraien ikusmoldera edo gauzak ulertzeko modura egokitzea nahi luketenen baliabide zikoitz eta errepikatua da. Jesusek kasuistikaren gainera jo du, ez da narrastu proposatu dioten hartan, eta Jainkoa egiaz den eremura bideratu ditu, ezin onargarria gertatu zaien arren. «Bizidunena da Jainkoa. Oso oker zabiltzate». Ezin argiagoa.

Urteko 9. astea.

Osteguna / Eguena.

JESU KRISTO BETIEREKO APAIZ NAGUSIA

San Santiago Berthieu, *s.j. apaiza eta martiria.*San Maximo, *gotzaina.*San Heraklio, *gotzaina.*

§ Isaias Profetaren liburutik 52,13–53,12.

Hara, nire aurrera aterako da; handia egingo da eta goratua izango. Jende asko hartaz ikaraturik gelditu bazen ere —hartaraino baitzuen giza itxura galdua, eta gizona zenik ere ez baitzuen irudi—, gero harriturik geldituko dira herri asko, eta erregeak haren aurrean hitzik gabe geldituko dira, egundaino esan ez zena ikustean, eta entzun ez zena begiratzean. Nork sinetsi du guk esandakoa? Nori agertu zaio Jaunaren besoa? Kimua bezala hazi zen haren aurrean, zuztarra lur lehorrean bezala, ederrik eta giza antzik gabe ikusi genuen eta itxura atseginik gabe, barregarri eta gizakietan azkeneko, oinaze-gizon egina, nekeen berri dakiena, ezikusia egiten zaienetakoa, gaitzetsia eta baztertua. Gure nekeak hartu zituen hark eta gure minak eraman. Lepradun bezala geneukan, Jaungoikoak joa eta lotsarazia. Gure bekatuengatik alderik alde zulatua; gure gaiztakeriengatik txikitua. Haren gainera erori zen guri bakea ematen digun zigorra, haren zauriek sendatu gaituzte. Gu denok ardi galduak ginen, bakoitza bere bidetik, baina Jaunak haren gainean ezarri zituen gu guztion txarkeriak. Gaizki zerabilten, baina bera makurtu egin zen, eta ez zuen ahoa ireki. Harategira daramaten arkumea bezala, ile-moztaileen aurrean ardia bezala, isilik egon zen, ahoa ireki gabe. Zuzengabeko auzitan galdu zuten. Nork hartu zuen aintzakotzat haren etorkizuna? Bizidunen lurretik kendu egin zuten; nire herriaren bekatuengatik hil zuten. Gaizkileen artean lur eman zioten, eta bekatariekin haren hilobia; nahiz eta berak bidegabekeriarik ez egin,

eta haren ahotik gezurrik ez jalki. Jaunak nekeetan lehertu nahi izan zuen. Bere bizia ordain ematen badu, izango du ondorengo ugari, luzatuko zaizkio egunak, beteko da Jaunaren nahia haren bitartez. Bere oinazeen sari, ikusiko du argia eta aseko da. Jasan duenaren bidez, nire zerbitzariak zuzentasuna emango dio askori, haien hutsegiteak bere gain hartuz. Horregatik, jendetzak emango dizkiot nik bere parte, giza taldeak izango ditu harrapakin; heriotzara eman baitzuen bere burua, eta bekatarizat hartu baitzuten. Bere gain hartu zituen askoren hutsegiteak, eta bitarteko izan zen bekatarientzat.

[Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egiteko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 22, 14-20.

Ordua etorri zenean, jarri zen Jesus mahian bere apostoluekin, eta esan zien: «Baneukan gogo, Pazko-afari hau zuekin jateko, neure nekaldiaren aurretik. Hara nik esan: Ez dut berriro jango, Jaungoikoaren erreinuan beteko den arte. Eta edalontzi bat hartu, esker-rak eman eta esan zuen: «Hartu eta banatu zeuen artean. Hara nik egia esan: Ez dut gehiago ardorik edango, Jaungoikoaren erreinua etorri arte». Gero ogia hartu eta esker-otoitza eginez, zatitu zuen eta eman zien, esanez: «Hau nire gorputza da, zuentzat ematen dena. Egizue hau nire oroigarri». Afalondoan gauza bera egin zuen edalontzia hartu eta esanez: «Edalontzi hau itun berria da, zuentzat isurtzen den nire odolaz Jainkoak ezarria».

«**N**ire gorputza zuentzat emana...», «nire odola zuentzat isuria»: hauek dira Jesusen apaizgoaren ezaugarriak, beste erlijioetako eta beste aldi-tako apaizgoen ondoan: pertsona bera eskaintza, apaizak bere bizia bera ematea. Nork bere burua eskaintzea, eta ez kanpoko gauza batzuk. «Egizue hau nire oroigarri»: nork bere burua eskaintzeko deia da; hori egiten ez badugu, ezin esku hartuko dugu Jesusen apaizgoan; beste zer bait egingo dugu. Norberaren eskaintzarik gabe, gure eukaristiak bere esanahirik hondokoena galtzen du, ederrena delarik ere zeremonia.

Urteko 9. astea.

Ostirala / barikua.

San Efrem, *diakonoa eta eliz irakaslea.*

San Jose Antxietakoa s.j. *apaiza (Brasilen apostolu).*

[**Tobit 11,5-17:** Zuk nahigabetu nauzu eta zuk salbatu, eta nik orain ikusten dut nire semea. **Sal 145:** Goretsazu Jauna, nire barrena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,35-37.**

Aldi hartan, Jesusek, tenpluan irakasten ari zela, esan zuen: «Nolatan esan dezakete lege-maisuek Mesias Daviden ondorengo dela? Hona zer dioen Davidek Espiritu Santuaren argiaz: "Hona Jaunak nire Jaunari esana: Eseri nire eskuinean, zure etsaiak oinazpian jartzen dizkizudan bitartean". Davidek berak "Jauna" esaten dio; beraz, nola izan dezake ondorengo?» Jendetza ugariak atseginez entzuten zion.

«Jendetza ugariak atseginez entzuten zion». Galde genezake: zergatik entzuten zion jendeak «atseginez»? Segur aski, beraren irakaspena azaltzeko era erakargarria baino zerbait gehiago zegoen jokoan, haren hitzei zerien gizatasun jatorra baino zerbait gehiago ere bat, hori ere bazuen arren. Uste dut, muina zuela gauzarik bereziena: Jesusen mezua askatzailea zen, kontsolatzailea. Ohiturik zeuden entzutera, Jainkoaren eta norberaren aurrean gaizki sentiarazten zituen hizkuntza erlijioso bat, edota «betikoa» errepikatzen ziena; Jesusen hitz berri eta askatzaileak, berriz, «gozarazi» egiten zituen.

[Tobit 12,1.5-15.20: Bidali nauen harengana itzuliko naiz. Zuek bedeinka ezazue Jainkoa. **Sal Tobit 13:**Bedeinkatua Jainkoa, beti bizi dena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,38-44.**

Aldi hartan, Jesusek, bere irakatsaldian, esan zion jendea-ri: «Zabiltzate kontuz lege-maisuekin! Gogoko dute harro-harro jantzita ibiltzea eta plazetan jendearen agurrak hartzea; gogoko dituzte sinagogetan aurreneko aulkiak eta jai-otorduetan mahai-buruak. Eta, azkengabeko otoitzen aitzakiaz, alargunen ondasu-nak irensten dituzte. Horrelakoek epairik zorrotzeta izango dute».

Jesus tenpluko dirutegiaren aurrean eseria zegoen, jendeak kutxetara dirua nola botatzen zuen begira. Aberats askok ugari ematen zuen. Etorri zen emakume alargun behartsu bat ere, eta bi txanpon bota zituen, huskeria bat. Jesusek, ikasleei dei egin eta esan zien: «Benetan diotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du kutxara. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik eman dute; honek, ordea, bere eskasian, zeukan guztia, bizitzeko behar zuena, eman du».

Bai esanguratsua dela gaurko ebanjelioa! Alargunak bi aldiz ageri dira tes-tuan: lehena, lege-maisuen diru-gosearen subjektu jasaile bezala; bigarre-na, muga-mugako eskuzabaltasunaren subjektu eginkor bezala. Boterea ber-ren esku dutenen diru-goseak ez du eragozpenik izaten pertsonaren gainetik pasatzeko, ezta pobreenak direnen gainetik ere. Behartsuek agertzen duten partekatze gaitasunak ez du mugarik, norberaren biziraupena ere baino harago joan ohi da. Jesusek azaldu duen kontrastea ez da kontraste literario hutsa: bizitzak agertzen digu, biak ere egoera aski errealak izaten direla...

§ Irteera liburutik 34,4b-6.8-9.

Egun haietan, Moises, goizean goiz, Sinai mendira igo zen, Jaunak agindu zion bezala, bi harlosa eskuetan zeramazkiela. Jaitsi zen hodeian Jauna, eta han gelditu zen harekin, eta Moisesek Jaunaren izenari dei egin zion. Eta Jaunak, aurretik igarotzean, oihu egin zuen: «Jauna, Jauna, Jaungoiko errukitsu eta bihozbera, haserrerako nagi, errukian aberats eta leial». Moisesek, berehala lurreraino makurturik, ahuspez gurtu zuen, esanez: «Jauna, zure begietan ederra aurkitu baldin badut, ibil zaitez gure artean, herri hau lepagogorra bada ere; barka gure gaiztakeriak eta bekatuak, eta har gaitzazu zeuretzat».

[Salmoa (Daniel 3): Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.]
§ San Paulok 2 Korintoarrei 13,11-13.

Poztu zaitezte; saia zaitezte onak izaten; gora zuen bihoztzak; izan iritzi bereko, eta bizi bakean. Eta maitasunaren eta bakearen Jaungoikoa zuekin izango da. Agur egiozue elkarri, musu santua emanez. Kristau guztiak agurtzen zaituzte. Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jaungoikoaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuek guztiokin.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Hain maite izan baitu Jainkoak mundua, / bere Seme bakarra eman dio; / Hari sinesten dionik inor gal ez dadin, / baizik betiko bizia izan dezan. / Jainkoak ez baitu bere Semea, / mundua galtzera bidali; / baizik haren bitartez mundua salbatzeko. / harengan sinesten

duenak, ez du auzirik izango; / sinesten ez duenarentzat, berriz,
/ erabakia dago auzia, / Jainkoaren Seme bakarraren izenean /
sinetsi ez duelako».

Hirutasuna misterio bat da... Maitasun-misterioa. Bera osatzen duten hiru pertsonen arteko maitasuna, eta hiru pertsona horiek munduari dioten maitasunaren misterioa. Maitasuna, bere bame-indarrez, kanporantz zabal-tzen da, mundua onartu eta salbatzeko. Gaurko hiru irakurgaiak zerbaitetan bat baldin badatoz, Jainko Hirutasunak gizadiari dion maitasuna nabarmen-tzean da.

Lehen irakurgaia, «errukitsua» eta «gupidatsua» den Jainkoaz mintzo zaigu; beti ere, topatzen duen erantzuna baino harago doan maitasuna da, giza ahuldadeaz eta makaltasunaz gupidatzen den maitasuna, eta bi horiei aurre egitera datorren maitasuna. Bigarren irakurgaian, «maitasuna-ren eta bakearen» Jainkoaz mintzo zaigu Paulo. Eta Joanek, ebanjelioan, mirespenez gorai patzen du: «hartaraino maite izan du Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitio». Bere burua ematen, eskaintzen duen Hirutasuna.

Hirutasunean sinestea eta Hirutasunaren misterioa aitortzea, Maitasun den harengan eta maitasunean dugun fedea aitortzea da. Paulok ere argiro adierazi ditu Hirutasunean dugun geure fedearen ondorioak: «poztu zaitetze, bihotz-berritu, izan bihotz, izan sentiera bereko eta bizi bakean».

Urteko 10. astea.

Astelehena.

San Joan Sahagungoa, *apaiza*.

Santa Paula Frassinetti, *fundatzailea (Santa Dorotearen ahizpak)*.

San Onofre, *ermitaua*.

[**San Paulok 2 Korintoarrei:** Jainkoak pozten gaitu, guk ere besteak edozein saminalditan poztu ahal ditzagun. **Sal 33:** Dasta ezazue eta ikus zein samur den Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,1-12.**

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten:

«Zorionekoak gogoz behartsu direnak, / berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak atsekabetuak, / beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko.

Zorionekoak apalak, / beraiek izango baitute agindutako lurrarekiko.

Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, / beraiek baititu Jainkoak aseko.

Zorionekoak errukitsuak, / beraiek baititu Jainkoak erruki izango.

Zorionekoak bihotzez garbi direnak, / beraiek ikusiko baitute Jainkoa.

Zorionekoak bakegileak, / Jainkoaren seme-alaba izango baitira.

Zorionekoak zuzentasunagatik eraso jasaten dutenak, / berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean.

Poztu zaitzte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan».

Zoriontasunetan, pobreei, sufritzen ari direnei, xumeei eta bihotz garbiei, errukitsuei... Jainkoaren bihotzetik begiratzen dien norbait bezala ageri zaigu Jesus. Giza begiz ikusirik, ezin esan da ezer onik pobre, sufritzen edo injustiziapean bizi direnez; giza begiz ikusirik, bihotz-garbitasuna eta errukia bizimolde egiten dituztenek ez dute zer eginik. Baina bestelakoa da Jesusen begiratua, harago doa, bai baitaki halakoak direla lehenak Jainkoaren bihotzean.

Urteko 10. astea.

Asteartea / Martitzena.

San Antonio Paduakoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.San Fandila, *apaiza eta martiria*.

[**San Paulok 2 Korintoarrei:** Jesus ez zen izan batean «bai» eta bestean «ez»; harengan dena «bai» izan zen. **Sal 118:** Era-kutsi, Jauna, aurpegia argi zure morroiari.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,13-16.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurra-ren gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baizik.

Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean ipintzeko, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien.

Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita goretz dezaten».

«**M**unduaren argia zarete zuek». Jesusen baieztapen hau proposamen bikaina eta erakargarria dugu haren ikasleok; aldi berean, egundoko erronka. «Argi egitea»: eskain dezakegun zerbitzurik handienetakoa da, segur aski, jende asko eta asko duda-mudan eta ilun bizi den hainbat eta hainbat egoeratan; gehienik eskertuko diguten zerbitzua. Argi egiteak, ordea, geuk argitasuna izatea eskatzen digu, geurea ez dena, baizik hartua duguna; hain zuzen, geu ere, geurez, geure anai-arreben duda-mudan eta ilunean partaide gara. Argi egiteak Jainkoaren argia hartzeko irekirik bitztea eskatzen digu.

[San Paulok 2 Korintoarrei 3,4-11: Elkargo berri baten zerbitzari izateko gai egin gaitu, ez letra soilean oinarritua, Espirituan baizik. **Sal 98**: Santua zara, Jauna, gure Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ez uste izan Moisesen Legea edota Profeten esanak baztertzerat etorria naizetik; ez naiz baztertzerat etorri, beren betera eramatera baizik.

Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, Legearen letra edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, guztia bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hautsi eta hausten irakasten duena, txikiena izango da zeruetako erreinuan; bete eta betetzen irakasten duena, berriz, handia izango da zeruetako erreinuan».

«**L**egea bere betera eraman»... Letra baino harago joan: giza hitzetan, berez mugatuak diren horietan, Jainkoak adierazten duen nahiaren hondo-hondora joan, alegia. Askotan heltzen diogu letrari, burdina gori-gori bati heltzen dionak bezala, geure alferkeria, geure erosokeria, geure eskasutasuna zuritu nahiz. Jesusek egiten duena, legeak edo profetek adierazten dutenaren esanahi «betea» agertzea izaten da. Aginduen, txiki nahiz handi, azpian Jainkoak gizadiari dion maitasuna dago pil-pil, egundoko maitasuna. Eta maitasun handiak bihotz handi baten erantzuna eskatzen du, kalkulutan ibiltzen ez dena, letra gainditzen duena...

Urteko 10. astea.

Osteguna / Eguena.

Santa Maria Mikaela, *birjina, fundatzailea (Aldareko Sakramentuaren Adoratzaileak).*

San Amos, *profeta.*

[San Paulok 2 Korintoarrei 3,15-4,1.3-6: Jainkoak egin du argi gure bihotzean, guk ere argi egin dezagun, Jainkoaren handitasuna ezagutzera eman ez. Sal 84: Gure lurrean Jaunaren aintza biziko da.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,20-26.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari zoroa esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta sinesgabea esaten diona infernuko surako errudun izango da. Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazaizu zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenengo senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia. Konpon zaitz lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako, azken txanpona ordaindu arte».

Anai-arrebekin adiskidetzea «aldare gaineko eskaintzaren» gaineratik dago. Argi dakusagu hori; baina neke zaigu onartzea. Horregatik, askotan saiatzen gara anai-arrebekin adiskidetze hori aldare gaineko eskaintzaz ordezkatzeko. Adiskidetzeari aurrez aurre heldu ordez, «barne» goxotasun bat hobes-

ten dugu. Jainkoak, ordea, ez du onartuko sekula alibi edo zurigarri bat, pertsonarekin aurrez aurre ez egoteko; izan ere, Jainkoari, edozein aitari bezala, asko axola zaio seme-alabak beren artean haurride bezala bizitzea. Ondoren joan gintezke, elkarrekin eta adiskide, aldarera, eskerrak ematera haurridetasuna berreskuratu dugulako.

[San Paulok 2 Korintoarrei 4,7-15: Jesus piztu duenak berak piztuko gaitu gu ere Jesusekin eta bere ondoan ipiniko zuekin batera. Sal 115: Eskainiko dizut, Jauna, gorespen-oparia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,27-32.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez egin adulteriorik”. Nik, ordea, hau diotsuet: Emakume bati irrikaz begiratzetik diot egin du jadanik adulterioa bere bihotzean.

Eskuineko begia galbide bazaizu, atera eta bota zeuregandik urruti: hobe duzu gorputz atal bat galdu, oso-osorik infernura jaurtia izan baino. Eskuineko eskua galbide bazaizu, moztu eta bota zeuregandik urruti: hobe duzu gorputz atal bat galdu, oso-osorik infernura joan baino.

Agindua dago hau ere: “Emaztea uzten duenak eman diezaiola dibortzio-agiria”. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak –legez kontra elkartuak ez badira behintzat–, adulteriora bultzatzen du emaztea; eta utzitako emakumearekin ezkontzen denak adulterioa egiten du.

Lege-eztabaida bat baino harago doa Jesus; gizonak emakumeari zor dion begirune sakona aldarrikatu nahi du, gizonaren duintasun eta eskubide berak dituela. Ezin utz genezake oharkabean, ebanjelioak irakurtzean, emakumeari aitortzen dioten garrantzia, ezta Jesusek emakumeekin agertu ohi dituen harremanak nolakoa diren ere: zinez erlazio profetikoak bizi izan ditu bere garaian... baita gurean ere. Munduan eta Elizan bide luzea dugu egiteko, oraino, emakumeari dagokion trataera emateko.

[San Paulok 2 Korintoarrei 5,14-21: Bekaturik ezagutu ez zuen hura Jainkoak gugatik bekatu bihurtu zuen. Sal 102: Errukior da Jauna eta gupidatsua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,33-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindu zitzaiena: “Ez egin gezurrezko zinik”, eta “Bete Jaunari egindako zinak”. Nik, ordea, hau diotsuet: Ez egin inolako zinik, ez zeruagatik, Jainkoaren tronua baita; ez lurrarengatik, haren oin-aulkia baita; ezta Jerusalemengatik ere, Errege handiaren hiria baita. Ez egin zinik zeure buruagatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihur. Zuek esan ezazue “bai”, bai denean, eta “ez”, ez denean; gainerakoa gaiztoarengandik dator».

Hainbat eta hainbat egia hiltzen edo gezurtatzen ditugu ñabarduren ñabarduraz; baliogabetu eta desitxuratu egiten ditugu ezerezean uzteko... Zenbat aitzakia eta zurigarri, argiak diren konpromisoerik ihes egiteko... Zenbat galdera itxuragabe edo azpizokozko, bakean uzten ez gaituzten egiak koloka ipintzeko... Gaurko ebanjelioak barne egiazale izatera deitzen digu, ñabarduren tranpaz ez ihes egitera, bizitzeko hartu ditugun konpromisoekin zintzo izatera. San Ignazio, bereizmenaren arauetan, etsaiaren jokabideaz mintzo da, espirituzko pozari eta kontsolazioari eraso egin baitie: «itxura hutseko arrazoiak, azkarkeriak eta etengabeko iruzurrak aurkeztuz» (Gogo Jardunak 329. zenb.). Ba, horixe...

Urteko 11. astea.

Igandea / Domeka.

KRISTOREN GORPUTZ ODOL SANTUAK.

San Markos eta San Martzelino, *martiriak*.

San Ziriako eta santa Paula, *martiriak*.

§ Deuteronomio liburutik 8,2.3.14b-16a.

Moisesek honela hitz egin zion herriari: «Gogora ezazu, basamortuan barrena berrogei urtez Jaunak, zeure Jaungoikoak, eginarazi dizun bidea. Zu apaltzeko eta aztertzeko izan da, eta zure bihotzondoa ezagutzeko: Haren aginduak betetzen ote dituzun ala ez. Berak apaldu zintuen, eta goseak eduki; eta gero, ez zuk, ez zeure gurasoek, ezagutu ez zuten mana eman zizun jateko; ikas dezazun, gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi, Jaungoikoaren ahotik ateratzen den guztitik baizik.

Ez ahaztu, Egiptoko lurretik, morrontza-etxetik, atera zintuen Jauna, zeure Jainkoa. Hark eraman zintuen, pozoidun sugez eta arrabioz betetako basamortu beldurgarrian barrena; lur lehor eta urik gabean, Hark atera zuen su-harrizko harkaitzetik ura zuretzat. Hark eman zizun jateko basamortuan, zure gurasoek ezagutu ez zuten mana».

[147. Salmoa: Jerusalem, ospa ezazu Jauna.]

§ San Paulok 1. Korintoarrei 10,16-17.

Senideok: Bedeinkatzen dugun esker onezko kalizak, ez al gaitu guztiok Kristoren odolean elkartzen? Eta zatitzen dugun ogiak, ez al gaitu guztiok Kristoren gorputzean bat egiten?

Ogia bat denez gero, guztiok gorputz bat gara, ogi bakarretik hartzen baitugu guztiok.

† Jesu kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,51-58.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jende-taldeari: «Ni naiz ogi bizia, zerutik jaitsia. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da;

eta Nik emango dudan ogia nire haragia da munduaren bizirako». Juduak eztabaidan ari ziren: «Nola eman diezaguke Honek jatera bere haragia?». Eta Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia ez baduzue jaten eta haren odola edaten, ez duzue izango bizirik zeuengan. Nire haragia jaten duenak eta nire odola edaten, badu betiko bizia, eta Nik piztuko dut hura azken egunean. Nire haragia egiazko janaria da, eta nire odola egiazko edaria. Nire haragia jaten duena eta nire odola edaten Nigan dago eta Ni harengan. Bizi den Aitak bidali nau, eta Ni Aitagandik bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena Nigandik biziko da. Hau da zerutik jaitsitako ogia; ez zuen gurasoena bezalakoa; jan eta hil egiten baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da».

«**B**asamortu handi eta izugarri hura...» eroangarria eta jasangarria izan zen, Jainkoak zerutik, doan, jaitsarazten zuen mana-janaria zela medio, eta Jainkoak arrotatik «aterarazi zuen ura» zela medio.

Jainkoaren ardura eta txera horiek beren betera iritsi dira «zerutik jaitsi den» haren Semea dela medio; bizi-ogia baita Seme hori, bizitza honetako frogaldia gainditzeko ahalbidea emateaz gain, beragan txertatzen baikaitu, eta «betiko» bizitzeko ahalbidea ematen. Semeak bere buruaz egin duen eskaintzak posible bihurtu du guretzat bizi bete eta azken gabe bat. Janari horretan parte hartzera gonbidatu gaitu Semeak, eta Jainkoari esker ematera, ahal dugun bezain sakon, bizi-dohain horrengatik.

Dohain horrek, gainera, herri bihurtu gaitu, elkarte, Eliza; izan ere, ogi bera jaten dugunok, asko eta askotariko izan arren, gorputz bat osatzen dugu. Ez gaituzte batzen, ez ideiek, ez tankerak, ez jarduerak... baizik Jau-nak berak: nor geure barnetik gonbidatzen gaitu hark basamortu honetako errones guztiok elkarrekin topo egitera, Jainkoaren maitasunaren esperientzia bera partekatuz.

Urteko 11. astea.

Astelehena.

San Romualdo, *abadea*.Santa Juliana Falconieri, *birjina*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 6,1-10: Ager gaitezen Jainkoaren zerbitzari. Sal 97: Ezagutarazi du Jaunak beragandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,38-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: "Begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain". Nik, ordea, diotsuet: Gaizkileari ez erantzun gaizki; bestela baizik, eskuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere; norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu».

Indarkeriaren dinamika ez da galgatzten indarkeria handiagoz, baizik ez-indarkeriaz erantzunez; makurkeria ez da garaitzen makurkeria handiago batez, baizik ongiaz. Bihotz-zabaltasuna anai-arreba arteko harremanetan, ebanjelioaren deia da. Mendiko Hitzaldian balio-multzo bat ageri da, kristau-jarduera zehazten duena, argiro kontrastatzen duena, ez jada antzinako legeko balioekin, baizik gure gizartean nagusi direnekin. Gaur finago eta sotilagoak dira, baina hondo-hondoak gauza bera... Ebanjelioak «kontra-kultura» izaten jarraitzen du.

[San Paulok 2 Korintoarrei 8,1-9: Jesu Kristo behartsu egin zen zuengatik. Sal 145: Goretsazu Jauna, ene barrena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: "Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia". Nik, ordea, diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz erasotzen dizuetenen alde zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme eta alaba izan zaitetzten, Hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria.

Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitetzte, beraz, guztiz onak, zeruetako zuen Aita guztiz ona den bezala».

«Izan on-onak zeruko zuen Aita on-ona den bezala» delako hori askotan interpretatzen dugu oker: «bezala» hori zeruko zuen Aita on-on den «adina» bezala... Eta hori ezinezkoa da, ez gara izango inoiz ere hura adina. Zergatik ez dugu ipintzen «adina» horren ordez, «bezalako»? Izan on-onak, zeruko zuen aita on-ona den «tankeran», «moduan». Eta on-ontasun hori bihotz zabal izatea da, doan maitatzea da, errukitsu izatea... Ebanjelioak eskatzen digun on-ontasuna, Aitak guztiokiko duen maitasunaren antzekoa izatea da: doakotasunez eta errukiz betea den maitasuna.

Urteko 11. astea.

Asteazkena / Eguaztena-

San Luis Gonzaga, *erlijioso*.

San Ramon Rodakoa, *gotzaina*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 9,6-11: Emaila alaia maite du Jainkoak. Sal 111: Dohatsu, Jaunaren beldur den gizakia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,1-6. 16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien bere ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango.

Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zure Aitak emango dizu ordaina.

Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala, aurpegia itsusi ipintzen baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zure Aitak emango dizu ordaina».

Dudarik gabe, limosna, otoitza eta baraua gauza onak dira. Baina, gauza guztiak, hoberenak ere, zikindu daitezke. Horixe da gaurko ebanjelioan Jesusek egin nahi digun oharra. Limosna, otoitza eta baraua zikindu egiten ditugu, gainerakoen aurrean nabarmentzeko egiten ditugunean, haien aurrean harro agertzeko, edota geure merezimendutzat erabiltzen ditugunean, irabazpen efektiboa edo afektikoa ateratzeko. Gure limosnaren edo otoitzaren edo barauaren benetako balioa Jainkoak aitortzen diena da; hark gure bihotzaren txokoenean ikusten du horien guztien hondoan dagoen egiatasuna. Izurriak jotakoentzat Luis Gonzagak agertu zuen eskaintza eskuzabal eta doakoa ikusi zuen bezala.

Urteko 11. astea.
Osteguna / Eguena.

San Paulino Nolakoa, *gotzaina*.

San Joan Fisher, *gotzaina* eta Tomas Moro santua, *aita familiakoa, martiriak*.

[San Paulok 2 Korintoarrei 11,1-11: Hutsean agertu nizuen Jainkoaren berri ona. **Sal 110:** Zuk eginak Jauna, zintzo eta zuzen.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,7-15.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien bere ikasleei: «Otoitz egi-tean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo zaiela. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz:

“Gure Aita, zeruetan zarena:
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia,
zeruan bezala lurrian ere.
Emaguzu gaur egun honetako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere geure zordunei
barkatzen diegunez gero,
eta ez gu tentaldira eraman,
baina atera gaitzazu gaitzetik”.

Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

«Zuen Aitak badaki zeren beharra duzuen...». Eta geuk baino hobeto daki; askotan gehiago lotzen gatzaizkio geure apetari, benetan behar dugunari baino. Horrela bada, zertan otoitz egin?, zertan eskatu? Gauza askotarako; batzuk bakarrik aipatuko ditut. Beharrea garelako aitortzeko, ez garelako buruaski aitortzeko; geure bihotza eta bizia Jainkoaren jarduerari irekitzeko; sakontzeko eta ohartzaile izateko egiaz behar dugunaren inguruan; geure otoitza eta, batez ere, geure bizitza irekitzeko munduak dituen premietara, eta geure egoismoa gainditzeko... Ez da gutxi...

Urteko 11. astea.**Ostirala / Barikua.****JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA.**Santa Agripina, *martiria*.San Urbano, *martiria*.**§ Deuteronomio liburutik 7,6-11.**

Egun haietan, Moisesek honela hitz egin zion herriari: «Herri santu zera zu Jaunarentzat, zure Jainkoarentzat, bere herri izan zaitezten aukeratu zaitu berak, lurraren gainean diren herri guztien artean. Jaunak ez zaituzte maitatu eta aukeratu, beste herriak baino handiago zaretelako; izan ere, herri txikiena zarete. Bestela baizik: maite zaituztelako, eta zuen gurasoei zin eginez emandako hitza bete nahi izan duelako atera zaituzte Jaunak esku indartsuz, eta askatu morrontza-etxetik, Egiptoko errege Faraoiaren menpetik. Jakin ezazu, beraz, Jauna, zure Jaungoikoa, dela egiazko Jainkoa, Jainko leiala; bere elkargoari eta errukiari mila gizalditan barrena eusten diona, Hura maite dutenentzat eta haren aginduak gordetzen dituztenentzat, baina, gorroto diotenentzat zigorra dauka, haiek zigortzeko; horrelakoak hondatu egiten ditu, berandutu gabe, eta beren bizkarrean, zigortzen. Gorde itzazu, beraz, aginduak, eta Nik gaur ematen dizkizudan legeak eta arauak».

[Sal 102: Jaunaren maitasuna betidanik betidaino beldur diotenentzat.]

§ San Joan Apostoluaren I. epistolatik 4,7-16.

Senide maiteok: Maita dezagun elkar, maitasuna Jaungoikoagandik baitator, eta maite duen guztia Jaungoikoagandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. Maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, Jaungoikoa maitasuna baita. Jaungoikoak digun

maitasuna honetan agertu zen: Jaungoikoak bere Seme bakarra bidali zuela lurrera, gu haren bidez bizi gaitezen. Maitasuna badela, honetan agertzen zaigu: ez guk Jainkoa maite izan dugulako, baizik hark gu maite izan gaituelako, eta bere Semea gure bekatuen bake-opari bidali zuelako. Senide maiteok, Jaungoikoak gu hain maite izan bagaitu, guk ere elkar maitatu behar dugu. Jaungoikoa ez du inork inoiz ikusi. Elkar maite badugu, Jaungoikoa gurekin dago, eta haren maitasuna bere betera iritsi da gure artean, honetan ikusten dugu berarekin gaudela eta bera gurekin: bere Espiritutik eman baitigu. Guk ikusi dugu eta aitortzen, Aitak bere Semea bidali zuela munduaren Salbatzaile. Norbaitek aitortzen badu Jesus Jaungoikoaren Semea dela, Jaungoikoa harekin dago, eta bera Jaungoikoarekin. Guk ezagutu dugu eta sinetsi Jaungoikoak digun maitasuna. Jaungoikoa maitasuna da; maitasunean dagoena Jainkoarekin dago eta Jainkoa harekin.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde, eta jende xumeari irakatsi baitizkiozu. Bai, Aita, hala nahi izan duzu. Nire Aitak dena eman dit; inork ez du ezagutzen Semea, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi izan dionak baizik. Zatozte nigana nekatuok, lanpetuok; eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikas nigandik: bihozbera naiz eta apala; eta aurkituko duzue zeuen arimentzat atsedeen. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama, arina».

Bitxia da gaurko irakurgaiak aurkeztu diguten kontrastea... Batetik, Joanen lehen gutuneko testua Jainkoaren barne izaeraz mintzo zaigu, biziki sakon; bestetik, ebanjelioak jakinduria bat aurkezten digu, bihotz xumeek bakkarik atzematen dutena, jakintsuei eta adituei ezkutuan gelditzen zaiena. Hain juxtu, irakurgai biak gurutzatuz, hobeto ulertuko ditugu biak.

Jainkoaren barne izaera maitasuna da, beraren herriarekiko («zuetaz maitemindu zen») eta gutako bakoitzarekiko txera. Maitasun hori ezin ulertu eta atzeman da, ez arrazoiketaren arrazoiketaz, ez giza jakinduriaz, baizik geure bihotzean xume garenean Jainkoaren maitasun ulertezinaren eta gainez dagionaren aurrean.

Segur aski, arrazoi bidez ez ginen iritsiko sekula Jainkoa maitasun dela atzematera. Jainkoa Maitasun dela onartu dugularik ere, ezin ulertua dugu berak, garenak garela eta azken-azkeneraino, gu maitatzen jarraitzea. Maitasun-molde hori, maitasunaren bizitasun eta doakotasun horiek, gure gaintetik daude erabat. Gaur liturgiak Maitasun den Jainko hori ulertzeko bide bakarra proposatu digute: xume izatea, maitatu gaitzan uzteko, barkatu diezagun uzteko, atzeman eta lilura gaitzan uzteko...

Urteko 11. astea.**Larunbata / Zapatua.****SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA.**San Orentzio, *martiria*.**Andre Maria Birjinaren Bihotz Guztiz Garbia.**

[Andre Mariaren Meza ikus beheraxeago.]

§ Isaias 49,1-6.

Uharteak, entzun! Urrutiko herriak, aditu! Amaren sabeletik deitu ninduen Jaunak, amaren erraietan nengoela zidan izena eman. Ezpata zorrotz egin zuen nire ahoa, bere gerizpean gorde ninduen; gezia bezala zorrotzurik, gezi-ontzian sartu ninduen. Eta esan zidan: «Zu, Israel, nire morroi zara, zugaran dut gorespena». Nik neure baitan esaten nuen: «Alferrikakoak dira nire nekeak; hutsean erre ditut neure indarrak». Baina egiaz, Jaunak zeukan nire zuzenbidea; nire Jainkoak zeukan nire saria. Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabeletik bere zerbitzurako deitu ninduen, Jakob beregana bihurtzeko eta Israel biltzeko; izan ere, halako ospea eman zidan Jaunak, eta Jainkoa izan zen nire indar. Eta esan dit: «Oso gutxi da zu nire zerbitzari izatea, Jakob leinuak eraikitzeko eta gelditzen diren israeldarrak herriratzeko. Atzerritarren argi egiten zaitut, nire salbamena lur-raren azken-mugaraino iritsi dadin».

[Sal 138: Gora zu, Jauna, hain harrigarriro egin nauzulako.]**§ Apostoluen Eginak liburutik 13,22-26.**

Egun haietan, Paulok zioen: «Jainkoak David eman zien errege, harentzat aitormen hau eginez: «Aurkitu dut David, Jerseren semea, neure gogoko gizona, nire agindu guztiak beteko dituen». Hitzemana zuenez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea, Jesus. Berau etorri baino lehen, Joanek

bihotz-berritzeko bataioa hots egin zion Israel herri osoari. Eta, bere bizia bukatzera zihoanean, Joanek zioen: «Ez naiz ni zuek uste duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor haren oinetakoak askatzeko ere». Senideok, Abrahamen ondorengo eta Jainkoaren beldur zaretenok: «Zuei bidali zaizue salbamen-hitz hau».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,57-66.80.

Etorri zitzaion ordua Elisabeti, eta semea izan zuen. Entzun zuten auzokoek eta ahaideek Jaunak egin zion erruki handiaren berri, eta zorionak ematen zizkioten. Zortzigarren egunean haurra erdaintzera eraman zuten, eta «Zakarias» deitzen zioten, aitari bezala. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! "Joan" izango du izena». Haiek, berriz: «Ez duzue zeuen senitartean inor, izen hori duenik». Orduan aitari keinuka hasi zitzaizkion, ea zer izen eman nahi zion haurrari. Eta hark idazteko ohol bat eskatu eta idatzi zuen: «"Joan" du bere izena». Eta denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean askatu zitzaion mihia Zakariasi, eta hitz egi-ten hasi zen eta Jainkoa goresten.

Joan Bataiatzailea hitzaren irudiaren eta bihotz askearen ordezkari da. Guztiz aske hitz egin du, guztiz aske bizi izan da, guztiz aske da bere buruari, bere balizko egitasmoei edota igurikipen pertsonalei dagokienez, bere misio edo eginkizunaren zerbitzari izateko. Joan Bataiatzailea: gizon askea, profeta askea. Gaurko ebanjelioak dioskunez, erdaintzeta bera askatasunaren lehen une eta aurre-adierazpen izan zuen jada: «Joan du bere izena».

Joanen askatasuna, garaiko boteretsuen, adibidez Herodesen, aurrean bizi izan zuen askatasuna da, aginpide erlijiosoaren jabe direnen aurrean bizi duen askatasuna, beti egiaz erantzuteko askatasuna galdetzen diotenei. Horrek guztiak barne askatasuna du oinarri, beretzat ezer bilatzen ez duen baten barne askatasuna.

Haren bizimoldea, anekdota zehatzak eta garaiko moldeak baino harago, basamortuan bizitzea eta basamortuak ematen dionetik bizitzea alegia, askatasun horren irudi da, edozein motatako handinahi pertsonalak

gainditzea esan nahi duen askatasunaren irudi. Joan Bataiatzailearen nor-tasun apartak geure buruari galdera egitera garamatza; ez beste batzuek kentzen edo murrizten diguten askatasunaz, baizik geuk geure buruari kentzen diogun askatasunaz.

Andre Maria Birjinaren Bihotz Guztiz Garbia.

[San Paulok 2 Korintoarrei 5,14-21: Bekatuarekin zerikusirik ez zuen hura, gugatik bekatuarekin bat egin zuen Jainkoak. **Salmoa: 1 Samuel 2:** Jauzika daukat bihotza Jaunagan, neure Salbatzaileagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,41-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukaturik gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaide eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren haren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak.

Urteko 12. astea.

Igandea / Domeka.

San Felix, *ermitaua*.Santa Orosia, *birjina*.San Adalberto, *diakonoa eta abadea*.**Jeremias Profetaren liburutik 20,10-13.**

Honela mintzo zen Jeremias: «Jendearen mehatxuak entzuten ditut, beldur-ikara nonahi: "Salatu, sala dezagun". Adis-kideak berak ere begira ditut, nik noiz huts egingo: "Ea engainatzen dugun —diote—; orduan menperatuko dugu eta mendekatuko gara hartaz". Baina neurekin dut Jauna, gudari indartsu; eroriko dira nire etsaiak, ezin izango naute garaitu; haien asmoek porrot egingo dute, haien lotsa sekulakoa izango da, behin ere ahaztezina. Jaun ahalguztiduna, zuzen aztertzen duzuna, gizakiaren buru-bihotzak ikusten dituzuna, zure esku utzi dut neure auzia: ikusiko ahal dut zure mendekua etsaien bizkar! Kanta Jaunari, goretsazue Jauna, hark askatu baitu gaiztoen eskutik behartsuaren bizia».

[Sal 68: Entzun, Jauna, zeure maitasun handiaz.]**San Paulok Erromatarrei 5,12-15.**

Senideok: Gizon baten bidez sartu zen bekatua mundura, eta bekatuaren bidez heriotza; horrela, heriotza gizaki guztiengana zabaldu zen, guztiek egin zutelako bekatu. Egia da legea baino lehen bazela bekatua munduan; baina bekatua ez zaio inori ezartzen, legerik ez badago. Hala ere, Adamengandik Moisesenganaino nagusi izan zen heriotza gizakien gain, baita Adamen hutsegitearen antzeko bekatuak egin ez zutenen gain ere. Adam etortzekoa zenaren irudi da. Baina Jainkoaren dohai-narekin ez da bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, gizon bakar baten bekatuaz guztiak hil badira, askoz ugariago zabal-

du dira guztientzat Jainkoaren grazia eta dohaina, beste gizon bakar bati esker, Jesu Kristori esker, alegia.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,26-33.

Aldi hartan, Jesusek esan zien bere apostoluei: «Ez izan gizakien beldurrik. Ez baita ezer ezkuturik, agertuko ez denik; ez ezer gorderik, jakingo ez denik. Gaueko ilunpetan esaten dizuedana, esazue eguneko argitan, eta belarrira entzuten duzuen, hots egin etxe gaineratik. Ez izan beldurrik gorputza hiltzen dutenei, baina arima ezin hil dezaketenei; izan beldur, inori izatekotan, gorputz-arimak su-leizean gal ditzakeenari. Ez al dira, txanpon batean saltzen bi txori? Eta haietako bakar bat ere ez da lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe. Zuen buruko ile guztiak ere kontaturik daude. Beraz, ez izan beldurrik; txori guztiak baino gehiago zarete zuek. Gizakien aurrean nire alde ateratzen denak, bere alde izango nau Ni ere, zeruetan dagoen nire Aitaren aurrean. Gizakien aurrean Ni ukatzen nauena, ordea, ukatu egingo dut Neuk ere zeruan dagoen nire Aitaren aurrean».

«**E**z beldur izan...» dio gaurko ebanjelioak. «Ez beldur izan» hori ebanjelioan eta liburu santuetan gehienik errepikatzen diren esaldietako bat da. Eta hau da ez beldur izatearen arrazoia: Aita gutaz arduratzen dela, haren eskuetan gaudela.

Beldurra giza sentimendu bat da. Nor ez da zerbaiten beldur?, nork ez du noizbait beldurra sentitu? Ez dago beldurra izan ez duen pertsonarik, eta nork bere beldur partikularrak izan ohi ditu. Bizitzako arlo batzuetan oso adoretzu edo ausart direnek ere beren beldurra izan ohi dute, gero, gauza oso txikietan...

Baina Aita gutaz arduratzen da... Konfiantza izateko deia dagigu Jainak; konfiantza da beldurraren aurkako arma handia. Erabakirik ez hartzeko eskatzen digu beldurraren eraginpean; erabaki okerrak hartzera eragiten du beldurrak. Beldurrez ez bizitzeko gonbidatu gaitu; beldurrez bizitzea guztiz gerarazlea da.

Eta konfiantza hori oroimenaz elikatzen da; Jaunak gugatik eta haren-
gan konfiantza izan dutenengatik egin duena oroituz: «behartsuaren es-
kuak atera ditu gaizkileen esku-mendetik». Ez gara iritsiko sekula guztizko
konfiantza izatera. Eskatu beharreko grazia da.

[**Hasiera liburutik 12,1-9:** Hala joan zen Abram, Jaunak esan bezala. **Sal 32:** Zorionekoa Jaunak ondare aukeratu zuen herria.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,1-5.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez gaitzetsi inor, Jainkoak ere gaitzetsi ez zaitzaten. Izan ere, zuek besteak nola epaitu, hala epaituko zaituzte Jainkoak; eta zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak.

Nolatan ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta ez zara zeure begiko habeaz ohartzen? Eta nola esan diezaiokezu senideari: “Uztazu zeure begitik lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean habea duzula? Itxurazale hori! Atera lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

Lehengo egun batean entzun nion neure familiarteko bati, aski argia eta autokritikoa bera: «nire senarrak mania hauek ditu; neuk ere, seguru, izango ditut, nahiz ez dakidan zein diren...». Seguru. Oso «buruargi» izan ohi gara gainerakoei zer gertatzen zaien ikusteko, eta zer egin beharko luketen ebazteko edota zer komeni litzaiekeen; aski gutxiago izan ohi gara nork berea ikusteko. Are gehiago, gogaikarri gertatzen zaigu norbaitek halakorik iradokitzea bera. Gaurko ebanjelioan dei bikoitza dator: apalak izatekoa geure buruari dago-kionez, eta Jainkoaren esku uztekoa besteei dagozkien ebazpenak.

Urteko 12. astea.
Asteartea / Martitzena.

San Zirilo Alexandriakoa, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

San Zoilo, *martiria.*

[**Hasiera liburutik 13,2.5-18:** Ez bedi eztabaidarik izan gu bion artean, senideak baikara. **Sal 14:** Jauna, nor bizi daiteke zure etxean?]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,6.12-14.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez eman zakurrei gauza sakratuak, ez bota zerriei zeuen harri bitxiak, hankapean erabil ez ditzaten eta, zuen kontra itzulirik, zatika ez zaitzaten.

Besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia, egin zuek ere besteei: horretan datza Liburu Santuek irakatsia.

Sar zaitezte ate estutik; zabala baita hondamenerako atea eta lasaia bidea, eta asko dira hortik doazenak. Baina bai estua dela bizirako atea eta meharra bidea, eta gutxi direla aurkitzen dutenak!»

Bide batean kasuan, joan nahi dugun lekura eraman gaitzan da garrantziko gauza; erosoagoa edo nekosoagoa izatea bigarren mailakoa da. Zentzugabekeria izango litzateke bide zabal eta eroso bat hartzea, baina aukeratua dugu lekura ezin eraman gaituena. Bereizmena, lehenik eta behin, galdera egitea da: nora joan nahi dugu?; izan ere, galdera horri emango diogun erantzuna izango da giltzarria bigarren mailako beste aukera batzuk egiteko orduan. Agian garrantzikoak, baina bigarren. Eta lehen galdera hori ez egiteak edota erantzunik gabe uzteak eraman ohi gaitu aukera okerrak egitera. Nora joan nahi dugu?

[**Hasiera liburutik 15,1-12.17-18:** Sinetsi zion Jaunari, eta Jaunak aintzat hartu zion zuzentasunerako. Jaunak elkargoa egin zuen Abramekin. **Sal 104:** Jaunak beti-betiko du gogoan bere elkargoa.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,15-20.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Kontuz sasiprofete-kin! Ardi-larruz jantzita datozkizue, baina barrutik otso harrapariak dira. Beren egintzetatik antzemango diezue. Elorritik biltzen ote da mahatsik edota laharretatik pikurik? Zuhaitz onak fruitu ona ematen du, eta zuhaitz txarrak fruitu txarra. Zuhaitz onak ezin du fruitu txarrik eman, ezta zuhaitz txarrak ere fruitu onik.

Fruitu onik ematen ez duen zuhaitza moztu eta sura botatzen da. Beraz, beren fruituetatik antzemango diezue sasi-profetei».

«**B**eren fruituetatik ezagutuko dituzue...»: baita «espiritualitateak» eta pertsona «espiritualak» ere. Izan ere, askotan, espiritualitate-azal horren pean, gauza ez oso sanoak eta ez oso gizakoiak ezkutatzen dira... Ez hitz eta ez aire: fruituak. Eta zein fruituz mintzo da ebanjelioa? Lagun hurkoagana eta hurkorik premiatsu edo/eta makalarengana hurbiltzeaz. Zeren «otso harrapari» baitira kalte egitera hurbiltzen direnak, harreman pertsonalen aitzakian gainerakoen ahuldadearen bizkar norberaren onura ateratzera hurbiltzen direnak... Fruitu onak buru-eskaintzarekin du zerikusia, zuzentasunarekin, solidaritatearekin, azkenak direnen aldeko konpromisoarekin.

Urteko 12. astea.**Osteguna / Eguena.****SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.**Santa Maria, *San Markosen ama.***§ Apostoluen Eginak liburutik 12,1-11.**

Egun haietan, Herodes erregea gogor erasotzen hasi zen eliztar batzuen aurka, eta Joanen anaia Santiagori ezpataz lepoa moztu zion. Eta, juduei poza ematen ziela ikusirik, bahitu arazi egin zuen Pedro ere. Pazko-astea zen. Eta, loturik, espetxean sarrarazi zuen, eta launa gudariko lau sailek zaindu zezatela agindu. Pazko-ondorenean herriaren aurrean hilarazteko asmoa zuen. Pedro giltzapean ondo zainduta zeukaten bitartean, Eliza otoitzean ari zitzaion Jainkoari haren alde, etengabe. Herodesek hura atera behar zuen aurreko gauean, lo zegoen Pedro, bi gudariren artean, haiei katez loturik. Eta espetxe-zainak ate aurrean zeuden hura zaintzen. Bat-batean Jaunaren aingerua agertu zen, eta gela barrua argitu zen. Eta, saihetsean ukituz, esnarazi zuen Pedro, esanez: «Jaiki, azkar». Kateak eskuetatik erori zitzaizkion. Eta aingeruak berriro: «Lotu gerrikoa eta jantzi oinetakoak». Hala egin zuen Pedrok, eta aingeruak berriro: «Jantzi soingainekoa, eta jarrai niri». Pedro, atera eta atzetik zihoakion. Ez zuen uste, ordea, aingeruak ari zuena egia zela, irudipena zerizkion. Eta lehenengo eta bigarren zaintzaille-taldeak igaro ondoren, herrira daraman burdinazko ateraino iritsi ziren, eta berez zabaldu zitzairen. Atera eta kale bat igaro zuten; orduan, aingerua bat-batean ezkutatu egin zitzaion. Pedrok, bere baitara etorririk, zioen: «Bai, egia zen, Jaunak bere aingerua bidali du, Herodesen eskuetatik eta juduen ikusnahi guztietatik ni ateratzeko».

[Sal 33: Beldur guztietatik atera ninduen Jaunak.]

§ San Paulok 2 Timoteori 4,6-8.17-18.

Anaia maite: Neure odola isurtzeko zorian nago, nireak laster egingo du. Borroka ona egin dut, ibilaldia bukatu dut, gorde dut sinesmena. Orain prestaturik dago niretzat zuzentasunaren koroia, Jaunak, epaile zuzenak, egun hartan emanngo didana; ez, ordea, niri bakarrik, baita haren etorrera maite duten guztiei ere. Zatozkit lehenbailehen. Jauna nire alde nuen eta berak indartu ninduen, berri on osoa nire bidez zabal zedin eta herri guztiek entzun zezaten; berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau berriro ere gaitz guztietatik; salbatuko nau eta bere zeruko erreinura eramango. Berari aintza gizaldiz gizaldi. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesarea aldera etorri zelarik, galdetu zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Eta haiek: «Batzuek, Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek, Elias; besteek, Jeremias edota profetaren bat». Jesusek orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Eta Simon Pedrok erantzun zion: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea». Jesusek orduan: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea! Ez haragik, ez odolek, ez baitizu adierazi hori zuri, zeruan dagoen nire Aitak baizik. Eta horra nik esan: Zu "Harria" zara; harri horren gainean eraikiko dut nik neure Eliza, eta herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zuri emango dizkizut zeruetako erreinuaren giltzak. Eta zuk lurrean lotua, zeruan ere lotua izango da, eta zuk lurrean askatua, zeruan ere askatua».

Pedro eta Paulo, Paulo eta Pedro... Elizaren bi zutabe. Bi historia pertsonal, aski desberdin Jesusi jarraitzen hasi arte; bi tenperamendu pertsonal oso desberdin ebanjelioa bizitzeko eran; bi ikuspegi eta uste desberdin ebanjelizazioa ulertzeko moduan... Baina biak Eliza bat beraren eta bakarraren zutabe, sekula ere koloka jarri gabeko Pedroren buruzagitzaaren pean.

Zer duten batera? Asko honetan ere. Konpromiso pertsonala Jesusekiko: funtsezko datua bien bizitzan. Ebanjelizazioa, Erreinua hots egitea, bien lan nekaezinen helmuga eta helburu. Jesusen izenean sufrimendua, pertsekuzioa eta zailtasunak onartzeko gaitasuna. Bizia ematea martirioan. Ikasle izatea, apostolu izatea.

Gaurko hiru irakurgetaieku mezu bera dakarkigute: nola sostengatzen dituen biak Jaunak beren eginkizun eta zailtasunetan. Pedro kartzelatik atera du; Pauloren sostengu eta askatzaile izan da Jainkoa arrisku askotan. «Infernuaren botereak ez du hondatuko», borrokarik. eta batzuetan latza, izango den arren.

[**Hasiera liburutik 17,1. 9-10. 15-22:** Erdaindu zeuen gizonetako guztiak, nire elkargoaren seinale. Sarak seme bat eman-go dizu. **Sal 127:** Hau da Jaunaren beldur den gizakiaren bedeinkazioa.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,1-4.**

Jesus menditik jaitsi zen eta jende askok jarraitu zion. Legenardun bat hurbildu zitzaion eta, aurrean ahuspezturik, esan zion: «Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu».

Jesusek eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahidut, izan zaitez garbi» Eta berehala garbitu zitzaion legenarra. Jesusek agindu zion: «Kontuz gero! Ez esan ezer inori. Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini Moisesek agindutako oparria, ezaugarri izan dezaten».

«**Z**oaz apaizagana...»: hau da, berreskura ezazu zeure duintasuna, sar zaitez gizartean eskubide osoko. Ez dio axola gaixotasun fisikotik sendatze soila, garrantzizkoa izan arren; osasuna bezain garrantzizkoa da duintasuna, oso-osorik bizia. Gaurko ebanjelio honek mezu bat eman digu geure egintza sozial eta karitatezkorako ere: joan-etorri handikoa da jendeari bere duintasunaren ustea itzultzea, bazterketa eta zokoratu izatea bateratze bihurtzea. Ez da ebanjelioaren araberakoa alde materialean laguntzen duen egintza soziala, baina pertsonaren duintasuna berregin gabe, edota, are, kaltetuz.

UZTAILA / GARAGARRILA



Urteko 12. astea.
Larunbata / Zapatua

San Aaron (*Moisesen anaia*).
Santa Regina, *aitorlea*.
Santa Ester, *erregina*.

[**Hasiera liburutik 18,1-15:** Jaunarentzat ba ote da ezer ezinik? Etorriko natzaizu berriz, eta Sarak ordurako izango du seme bat. **Sal: Lukas 1:** Gogoan izan du Jaunak bere errukia.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,5-17.**

Aldi hartan, Jesus Kafarnaum herrian sartu zelarik, erromatar ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarri eta oinazetan dago nire morroia etxean». Jesusek esan zion: «Joan eta neuk sendatuko dut».

Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor zu nire etxean sartzeko; baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere –neu besteren menpean egon arren– baditut neure mende gudamutilak, eta bati “hoa” esaten diot eta joan egiten da, beste bati “hator” eta etorri egiten da, eta nire morroiari “egik hau” eta han egiten du».

Hori entzunik, harritu egin zen Jesus eta ondoren zetozkionei esan zien: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrenbesteko sinesmenik. Eta hau diotsuet: Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian jarriko dira, Abraham, Isaak eta Jakobekin; erreinuaren oinordeko zirenak, berriz, kanpoko ilunpeetara botako dituzte; han izango dira negarra eta hortz-karraska!»

Ondoren, ehuntariari esan zion: «Zoaz, eta gerta bekizu sinetsi duzun bezala». Eta ordu hartan bertan, sendatua gertatu zen morroia.

Gero, Jesus Pedroren etxera joan zen, eta honen amaginarreba oheratua aurkitu zuen sukarrarekin. Jesusek eskua hartu eta sukarrak alde egin zion; orduan, emakumea jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzairen.

Arratsean deabrudun asko eraman zioten Jesusi, eta honek deabruak bere hitzez bota eta gaixo guztiak sendatu zituen. Horrela bete zen Jainkoak Isaias profetaren bidez esana: «Hark gure ahuleriak hartu zituen bere gain, eta gure gaitzak eraman».

Gaurko ebanjelioan, bere bizi- eta salbazio-egitasmoa unibertsala dela esan digu Jesusek. Harentzat ez dago inolako mugarik, ez dago inolako diskriminaziorik, arrazoi politiko, erlijioso, familiar edo sozialak direla eta. Jesusen salbazioa ez da inoren ondare, ez du inor baztertzen. «Gaixo guztiak sendatu zituen»: ehuntariaren morroia, Pedroren amaginarreba, doazkion pertsona anonimo edo izen gabeak, ilunabarrean berean ere. Ez dezagun gal sekula ikuspegi unibertsal hori; gainditu dezagun betiko tentazio hori: Jesusen salbazioa «geureengana» mugatzekoa, gu bezalako diren, guk bezala pentsatzen edo jokatzeko dutenengana mugatzekoa.

Urteko 13. astea.
Igandea / Domeka.

Santuak: Bernardino Realino, Juan Francisco Régis eta Francisco de Gerónimo; dohatsuak: Julián Maunoir eta Antonio Balducci, *apaizak*.
San Juvenal, *martiria*.
San Odon, *gotzaina*.

§ 2 Erregeak 4,8-11.14-16a.

Behin batean, Eliseo Xunemetik igaro zen. Bazen han andre handiki bat, eta bere etxera eraman zuen Eliseo bazkaltzera. Harrez gero, handik igarotzen zen bakoitzean, bertan gelditu ohi zen Eliseo bazkaltzen. Behinola, andreak esan zion senarrrari: «Begira, badakit gure etxera etorri ohi den hori Jainkoaren gizon santua dela. Egin diezaiogun goian gela txiki bat; ohea, mahaia, aulkia eta argiontzia ipiniko dizkiogu, gurera etortzean bertan geldi dadin».

Etorri zen behin Eliseo eta, goiko gelara sarturik, bertan etzan zen. Eliseok Gehazi bere morroiari esan zion: «Zer egin dezakegu andre honen alde?» Gehazik erantzun zion: «Begira, ez du haurrik eta senarra zahartua du». Eliseok esan zion morroiari: «Dei egiozu».

Dei egin zion eta andrea atean agertu zen. Eliseok esan zion: «Datorren urtean, garai honetan, semea izango duzu besoetan».

§ San Paulok erromatarrei 6,3-4.8-11.

Senideok: Ez al dakizue bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugula bat? Bataioaren bi-tartez berarekin heriotzan hobiratuak izan gara, Aitaren aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun.

Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu bizi ere berarekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko: herioak ez du harengan gehiago aginterik; haren hiltzea bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitzea Jainkoarentzat bizitzea da. Berdin zuek ere: hartu kontuan bekatuarentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,37-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Aita nahiz ama Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai. Bere gurutzea hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai. Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du.

Zuek onartzen zaituztenak Neu onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du.

Profeta bat profeta delako onartzen duenak profetari zor zaion saria izango du, eta pertsona zuzen bat zuzena delako onartzen duenak pertsona zuzenari zor zaion saria izango du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, baso bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko».

«baso bat ur fresko bakarrik bada ere», «gela txiki bat...»: eskuzabal-
«...tasuna ez da neurtzen ematen denaren tamainaz, baizik ematen duenaren bihotzaren handitasunaz. Etengabeko mezua du hori Jesusek, bere ebanjelioan. Bestela balitz, aberatsak izaten ahal lirateke eskuzabal; bizitzak, ordea, erakusten digu, egunero, behartsuak direla eskuzabalenak, ez emandakoaren kantitateaz, baina bai esku-irekitasunaz. Segur aski, gaitasun handiagoa dutelako erreparatzeko janari-ezari, etxe-gabeziari, afektu-faltari...

Eta, paradoxikoki, gauzarik txikiena ematea baloratzen duen Jesusek berak gauzarik baliotsuena, handiena, emateko eskatzen digu: «nigatik

bere bizia galduko duenak». Nolatan gerta daiteke hori? Jesusi ematea ez delako, inolaz ere, fondo-galeran ematea; izan ere, handia baldin bada gure eskuzabaltasuna, mugagabeki handiagoa da harena: ez du onartuko sekula gureak gainditu dezan. «Bizia» emateko eskatu digu, «letra xehez», letra handiko «Bizia» itzultzekotan. Izan ere, berari geure bizia ematen ari garen neurrian, zentzuz eta beterik itzultzen digu.

[San Paulok Efesoarrei 2,19-22: Apostoluen oinarri gainean eraikiak zarete. Sal 116: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,24-29.

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Beste ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez baditut, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez baditut, ez dut sinetsiko».

Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela, eta erdian jarririk esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Jesussek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Tomasen zortzi egunak... «Handik zortzi egunera... iritsi zen Jesus». Froga ederra Jainkok gurekiko duen jokabideaz, pedagogiaz. Jesus ez da aurkeztu berehala Tomas eszeptiko eta konfiantzarik gabekoaren aurrean; ez zaio agertu arrapaladan bere federik eza eta lagunekiko errespetu-falta aurpegian emateko: zortzi egun igarotzen utzi ditu... Tomasek behar izan duen denbora, bere prozesua burutzeko, barnez heltzen joateko, gauzak bere gisa kontuan hartzen joateko...; hala, Jesus iritsi denean, ez du egiaztapenik egin beharrik izan... Nola errespetatzen duela, gero, Jainkoak giza prozesua, beronen gainetik pasatu gabe!

Urteko 13. astea.
Asteartea/Martitzena.

San Valentin Berrio-Otxoa (Elorrio 1827 – Vietnam 1861), *domingotarra, gotzaina, eta lagunak, martiriak.*

[**Hasiera liburutik 19,15-29:** Jaunak suzko eta sufrezko euri-erauntsia bota zuen

Sodoma eta Gomorra gainera. **Sal 25:** Begi aurrean daukat, Jauna, zure ontasuna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 23-27.**

Aldi hartan, Jesus txalupara igo zen eta ikasleek jarraitu egin zioten. Bat-batean, ekaitz handia sortu zen itsasoan, eta olatuek txalupa estali egiten zuten. Jesus, berriz, lo zegoen. Ikasleak hurbildu eta esnatu egin zuten, esanez: «Salba gaitzazu, Jauna! Galtzera goaz!»

Hark esan zien: «Zergatik zarete hain beldur, sineste gutxi-kook?» Eta, zutiturik, haserre egin zien haizeari eta itsasoari, eta barealdi handia egin zen.

Ikasleek, harriturik, honela zioten: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?»

«**I**go zen Jesus ontzira eta ikasleek jarraitu zioten...»: Jesusen ondoren, konfiantzaz, poz-pezik... Halaz guztiz, laster, dena nahasiko da: ekaitza, olatuak... Itsasaldi lasai eta gozagarria izango zela uste izan zutena, tragedia bihur daiteke. Eta Jesus lo! Ez ote dugu bizi izan tentsazio hori bera geure bizitzan askotan?: berari jarraitzeko historia eta saltsa horretan gu jarri eta, gauzak okertzen direnean, ematen du ez zaiola ezer axola, ematen du lo dagoela... Guretzat, federako unea da, zailtasunean sendotzen eta heltzen joaten den federako unea.

Urteko 13. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

San Antonio Maria Zaccaria, *apaiza, fundatzailea (bernabitak).*

Santa Elisabet Portugalekoa, *erregina.*

[**Hasiera liburutik 21,5.8-20:** Neskamearen semeak ez du parterik izango ondarean nire semearekin. **Sal 33:** Atsekabe-tuak dei egiten badio, Jaunak entzungo dio.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,28-34.**

Aldi hartan, Jesus beste itsasertzera, geratarren lurraldera, iritsi zenean, bi deabrudun irten zitzaizkion bidera, hilobi artetik aterata. Hain baitziren gaiztoak, ez zen inor ausartzen bide hartatik ibiltzen. Deiadarka esan zioten: «Zer duzu gurekin, Jainkoaren Seme horrek? Garaia baino lehen guri oinaze ematera etorri al zara?»

Handik urrutira gabe, txerri-talde handi bat zebilen uxarean, eta deabruak eskatu zioten Jesusi: «Botatzekotan, bidal gaitzazu txerri-taldera».

Jesusek esan zien: «Zoazte». Haiek atera eta txerrietan sartu ziren, eta txerri-talde osoa ezpondan behera itsasora amildu zen eta urean ito.

Txerrizainek ihes egin zuten eta, hirira joanik, dena kontatu zuten, baita deabrudunarena ere. Orduan, herri osoa atera zen Jesusengana eta, ikusi zutenean, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten.

«**T**xerrizainek... den-dena kontatu zuten, deabrudunena barne»... Hau da: lehenik eta behin txerriena kontatu zuten, hori izan zen zirrara eragin eta min eman ziena. Txerriak galdu izana...; deabrudunak ez die axola, beraiengatik lehenean ere jarraitzen ahal zuten. Logika hori zela medio, bistan da, «beren lurraldetik alde egiteko eskatu

zioten» Jesusi: bertako ekonomia arriskuan jarri besterik ez zuen egi-
ten, jendea askatzeko bere irrika zuela-eta. Historia hau niri oso gaur-
ko iruditzen zait; erreparatu logikari: hain gurea bezain ebanjelio-kutxu
txikikoari: lehenik ekonomia, pertsonak gero.

[**Hasiera liburutik 22,1-19:** Sinesmenean geure aita dugun Abrahamen oparia. **Sal 114:** Jaunaren begi-bistan ibiliko naiz biziaren lurraldean.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,1-8.**

Aldi hartan, Jesus txalupara igo, itsasoz bestaldera igaro eta bere herrira etorri zen. Horretan, elbarri bat ekarri zioten, ohatilan etzana. Jesusek, lagun haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Izan bihotz, seme! Barkatuak dituzu bekatuak».

Orduan, lege-maisu batzuek hau zioten beren baitan: «Biraoka ari duk hau».

Baina Jesusek, haien burutapenak ezaguturik, esan zien: «Zergatik dituzue burutapen gaizto horiek zeuen baitan? Zer da errazago, "barkatuak dituzu bekatuak" esatea ala "jaiki eta zabilta" esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: "Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera"». Hura jaiki eta etxera joan zen.

Hau ikustean, izaturik gelditu zen jendea eta Jainkoa gores-ten zuten, gizakiei horrenbesteko ahalmena eman zielako.

Zerk ditu eskandalizatu pasadizoaren lekuko izan diren lege-maisuak? Jesusen barkatzeko erraztasunak. Hain zuzen, ez elbarriak, ez hura Jesusengana ekarri dutenek aitortu dute inolako kulparik, ez eskatu dute barkaziorik, berariaz bederen. Jesusentzat aski izan da hurbiltzearen keinua, beraien barnera begiratzea: «zuten fedea ikusirik». Eta horrek ditu eskandalizatu. Errukia beti izan ohi da eskandalu-bide errukigabeentzat. Baina Jesusek ez du atzera egin, ez die utzi atzera eragin diezaioten, baizik eta urrats bat gehiago egin du: «Zer da errazago esatea?» Jainkoaren errukiak gaina hartzen dio beti gizakiarenari.

Urteko 13. astea.

Ostirala / Barikua.

San Fermin (Iruñea III. mendean? – Amiens ?),
gotzaina eta martiria.

[**Hasiera liburutik 23,1-4.19; 24,1-8.62-67:** Isaakek Rebe-
ka maite izan zuen, eta horrela arindu zitzaion ama galdu zue-
lako nahigabea. **Sal 105:** Eskerrak eman Jaunari, ona baita.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,9-13.**

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon
bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion:
«Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu egin zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste
zergalari eta bekatari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren
Jesusekin eta honen ikasleekin.

Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan ja-
ten du zuen Maisuak zergalari eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundu-
nek behar sendagilea, gaixoek baizik. Hobe zenukete Jainkoak
esandako honetaz jabetuko bazinete: "Nahiago dut errukia sa-
krifizioak baino". Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatari
baizik».

Atzo bezala, errukiaz mintzo gara. Erruki mugagabeaz, gizakiaren
begientzat erruki sinestezinaz. Gaurkoa, «bekatariei dei egiten
dien» errukia da, lagunarteko otordura eta jarraitzera dei egiten diena.
Hamabien talde maitera Mateori, publikano eta zerga-biltzaileari, dei
egiten dio errukia, zeinak harriduraren harriduraz eta esker onez «jai-
ki eta jarraitu egin baitzion». Historia bat, Mateorena, behin eta berriz
errepikatua; gure historia bera da, barkatuak izanik jarraitzera deituak
garenona. Eta trukean eskatzen diguna argi eta garbi dago: «errukia
nahi dut eta ez opariak».

Urteko 13. astea.

Larunbata/Zapatua.

Santa Priszila, *martiria*.San Prokopio, *martiria*.

[**Hasiera liburutik 27,1-5.15-29:** Jakobek bere anaiari lehen-
-semetza kendu zion, eta haren bedeinkapena jaso. **Sal 134:**
Goratu Jauna, ona baita.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,14-17.**

Aldi hartan, Joanen ikasleek Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Nolatan egiten dugu fariseuek eta guk hainbeste barau, eta zure ikasleek ez?» Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon ote daitezke triste, senar-berria berekin dutelarik? Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan egingo dute barau».

Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, adabakiak jantzia behartu eta zerratada handiagoa egingo bailuke. Ez da ardo berririk ere sartzen zahagi zaharretan; bestela, zahagiak lehertu egingo lirateke, eta ardoa isuri eta zahagiak galdu. Ardo berria zahagi berrietan sartzen da, eta horrela biek irauten dute».

«**Z**ergatik guk... eta zure ikasleek oster...». On ustekoen «nahi-karietako» bat da: guztiek egin dezatela norberak egiten duen gauza bera. Ezinbesteko erreferentzia-gune bihurtu nahi izaten dute: nik egina behar dute egin beste guztiek; nik nola uste izan, hala uste izan behar dute beste guztiei, nik nolako harremanak Jainkoarekin halakoak izan behar dituzte besteek... Erreferentzia, ordea, beste bat da: Jainkoa bera da erreferentzia eta pertsona bakoitzarekin Jainkoak duen erlazio bigun eta barnekoa. Ez dago tokirik auzirik eta konparaziorik egiten hasteko. Baina hori bai: zentzu handia du bata bestearen sostengu izanez bizitzeko Jainkoarekin topo egiteko bidean.

§ Zakarias Profeta 9,9-10.

Honela mintzo da Jauna: «Poztu biziro, Sion hiri eder! Egin irrintzi, Jerusalem hiriburu! Hara, badatorkizu zeure erregea: zuzen eta garaile dator, apal eta asto baten gainean, astakume baten gainean. Berak hondatuko ditu Efraimeko guda-gurdiak eta Jerusalemeko zaldiak; hautsiko ditu guda-uztaiak, eta ba-kea iragarriko die nazioei. Itsasotik itsasora aginduko du, Eufra-tes ibaitik lurraren azken mugetaraino».

[Sal 144: Ene Jainko, ene Errege, bedeinkatuko dut zure ize-na betiere.]

§ San Paulok Erromatarrei 8,9. 11-13.

Senideok: Zuek ez zarete grina txarren menpean bizi, Espirituaren menpean baizik, Jainkoaren Espiritua zuengan bizi baita. Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Jesus hildakoen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi bada, Kristo hildakoen artetik piztu zuenak berak biziara-ziko ditu zuen gorputz hilkorak ere, zuengan bizi den beraren Espirituaren bitartez.

Zorretan gaude, beraz, senideok, baina ez grina txarrekin, horien arabera bizitzeko. Horrela bizitzen bazarete, hil egingo zarete; baina Espirituaren bidez giza egintza gaiztoei uko egiten badiezue, bizi egingo zarete.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua zu, Aita, ze-ru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde

eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea eza-gutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik.

Zatozte nigana nekatu eta zamapean zaudeten guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigan-dik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedeen. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Jesusek «apala» deitzen dio bere buruari... eta giltzarria ematen digu «apaltasunak» zer esan nahi duen ulertzeko, askotan oker hartua izan den hitza.

Apaltasuna, Jainkoak egin dizkigun mesedeak aitortzeko eta haiengatik eskerrak emateko gaitasuna da, etengabe eskertasun-jarreran bizitzeko gaitasuna. Apala da, emana zaion guztiaren jabe sentitzen ez dena, emana zaionaren gainean eskubiderik, merezimendurik, jabetasunik sentitzen ez duena; aitzitik, den-dena dohaintzat hartzen duena, eta dohain horretan Jainkoa aitortzen eta eskertzen duena on guztien Emailletzat: «den-dena Aitak emana dut». Apaltasuna, Jainkoaren aurrean agertzeko era bat da: esker ona.

Apala, gainerakoen gainean jartzen ez den hura da, estutzen ez ditue-na, ez aginduez, ez uztarriez, ez zamak ezarriz...; oster, bere asmo guztia nekea eta estutasuna arintzea duena, premian edo zailtasunean bizi dena-ri lagundu nahi izatea, xume-xume eman dezakeenez. Apala, txikienekin bere barne esperientzia partekatzen duena da, denik eta hoberena eta duenik eta hoberena eskainiz, eta guztiarekin bihotz eta animo emanez. Apaltasuna, beraz, anai-arreben aurrean agertzeko era bat da: zerbitzari agertuz.

[**Hasiera liburutik 28,10-22a:** Zurubi bat ikusi zuen, eta Jainkoaren aingeruak, gora eta behera zebiltzala. **Sal 90:** Ene Jainko, zugar nago sendo.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,18-26.**

Aldi hartan, Jesus mintzatzan ari zela, buruzagietako bat etorri zitzaion eta, ahuspezturik, esan zion: «Hil berria dut alaba; baina zatoz hari eskua ezartzera, eta biziko da». Jesus jaiki eta ondoren joan zitzaion bere ikasleekin.

Honetan, hamabi urte haietan odol-jarioz zegoen emakume bat atzetik hurbildu zitzaion Jesusi eta soineko-ertza ukitu zion, honela baitzioen bere baitan: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz».

Itzuli zen Jesus eta, emakumea ikustean, esan zion: «Izan bihotz, alaba! Zeure sinesmenak sendatu zaitu». Eta ordu beretik sendatua gelditu zen.

Iritsi zen Jesus buruzagiaren etxera eta, hango erostariak eta jendearen istilua ikustean, esan zion: «Alde hemendik! Neskatxa ez dago hila, lo dago». Haiek barre egiten zioten.

Jesusek, jendea bidali zutenean, sartu eta eskutik heldu zion neskatxari, eta neskatxa jaiki egin zen. Inguru hartan guztian zabaldu zen gertatuaren berri.

«**H**aiek barre egiten zioten»... Pentsatzen dut, ez direla izango erlijio asko, ez gizakunde asko, esaldi hau beren fundatzaileaz esana agertuko dutenak. Guztiok dakigu nolako atsekabea jasaten dugun «gutaz barre egiten dutenean», eta nola erasaten digun horrek: umiliaturik, jota, zauriturik sentitzen gara nor geure estimuan. «Nitaz ba-

rrrez ari zarela?»: irain handitzat hartzen dugu. Jesusek ez dio horrelako ezeri jaramonik egiten; ez zaio axola ez bere ohorea, ez bere estimua, baizik, kasu honetan, neskatzat honen bizia. Eta ez dio ezerk ere atzera eragin...

[**Hasiera liburutik 32,22-32:** Israel izango duzue izena; jainkoen aurka ari izan baitzara eta garaile atera. **Sal 16:** Nik zuzentasunean zure begitartea dut ikusiko, Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 32-38.**

Aldi hartan, gizon deabrudun mutu bat eraman zioten Jesusi; bota zuen deabrua, eta mutua hizketan hasi zen. Jendeak, harriturik, esaten zuen: «Ez da inoiz horrelakorik ikusi Israelen». Fariseuek, berriz, hau zioten: «Deabruaren buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak».

Herriz herri eta auzorik auzo ibili ohi zen Jesus, haien sinagotetan irakasten, erreinuko berri ona hots egiten, eta gaitz eta min guztiak sendatzen. Gizataldeak ikustean, erruki izan zituen, nekatu-rik eta lur jota baitzeuden, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara».

Jainkoak gaixotasuna sendatzen du Ebanjelioetan zehar agertzen diren sendaketen kopurua, berrogei ingurukoa da, hilean bi gutxi gorabehera, beraz, hemen Mateok puztu egiten du, gaitz eta min guztiak sendatzen zituela esatean. Asmo bat izan zuen horretan: argi uztea, Jesus igarotzen zen lekuan presente egiten zela sendatzen duen Jainkoa. Eta hau da mezua: Jainkoak ez du gaitza bidaltzen, sendatu egiten du baizik; Jainkoak ez du zigortzen bekatua, baizik salbatu egiten du bekatutik. Baina hori ere ez zaie gogoko haren etsaiei: Jainkoa Salbatzaile izatea, eta ez epaile, deabruaren kontua dela iruditzen zaie. Hau da, «nik bezala pentsatzen ez duen guztia deabruarena da». Ikasbide ona da, baita katoliko askorentzat ere, denera ixten baitira beren ziurtasunetara izan ezik.

Urteko 14. astea.
Asteazkena / Eguaztena.
San Joan Gualberto, *abadea*.
San Hilario, *martiria*.

[**Hasiera liburutik 41,55-57; 42,5-7a. 17-24a:** Egiaz bekatu egin genuen geure anaiaren kontra. **Sal 32:** Betor gugana, Jau-na, zure maitasuna, zuga baitugu geure uste ona.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 1-7.**

Aldi hartan, Jesusek, hamabi ikasleei dei eginik, ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko.

Hona hemen hamabi apostoluen izenak: lehenbizi Simon, Pedro deritzana, eta honen anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta honen anaia Joan; Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zerga-biltzailea, Santiago Alfeorena eta Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.

Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samaria herrialdean ere, baizik eta joan Israel herriko ardi galduetara. Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua.

Jesusek emana da misioa: «Zoazte eta hots egin»; hori gauzatzeko gaitasuna ere Jesusek emana da: «aginpidea eman zien»; gauzatzeko era eta modua ere Jesusek markatua du: «argibide hauek emanez bidali zituen»; oinarria Jesusek aukeratu izana da, eta ez norberaren gaitasuna edo kalitateak edo merezimenduak: «Jesusek dei egin zien hama-biei». Jesusez ahazten bagara, harekiko harremanak hausten baditugu, geure burua erdigune egiten badugu edota misioaren jabe, erraturik ibiliko gara sustraian. Gure ahalegina edo proiektzioa izango da, baina ez Jesusen misioa.

Urteko 14. astea.

Osteguna / Eguena.

San Enrique, *enperadorea*.San Silas, *San Pauloren laguna*.

[**Hasiera liburutik 44,18-21.23b-29; 45,1-5:** Zuen bizia salbatzeko bidali ninduen Jainkoak Egiptora. **Sal 104:** Ekarri gogorra Jaunak egin dituen mirariak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,7-15.**

Aldi hartan, esan zien Jesusek apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu duzue, eman hutsean. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan; ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen jatekoa.

Edozein herri edota auzotan sartzan zaretela, jakizue ba ote den konfiantzako inor, eta gelditu haren etxean, herri hartatik atera arte. Etxean sartzean, egin bake-agurra; etxeok duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira.

Onartzen ez bazaitzute eta zuen hitza entzun nahi ez, etxe edota herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa. Benetan diotsuet: auzi-egunean Sodomak eta Gomorrrak zigor bigunagoa izango dute herri hark baino».

«**D**oan hartua, eman doan». Doakotasuna da ebanjelioaren arabera ebanjelizatzeke, laguntzeko, zerbitzari izateko ezaugarri oinarrizko eta bazterrezinetako bat... Doakotasun eginkorra eta baita, batez ere, doakotasun bihozkoa ere; batzuetan eginkorra baino nekagarriago gertatzen zaigu hau; batez ere, maila materialean bizitza ongi moldatua dugunean. Doakotasun bihozkoa; esan nahi da, sari bila ez dabilena, ezta norberaren arrakasta bila edo eskertuko dioten bila ere, ezta inor mendeko egiteko edo eskainitako zerbitzuen ordeztu inor leial bihurtzeko ere. Ebanjelioaren arabera askatasun bete da, kanpoko presioen eta barneko grinaren aurrean.

[**Hasiera liburutik 46,1-7.28-30.** Orain, bai, hil naiteke, zure aurpegia ikusi dudanez gero. **Sal 36:** Zintzoek salbamena Jai-nagandik dute.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,16-23.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Hara, ardiak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Izan zaitezte, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo.

Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sinagogetan zigorkatuko; agintari eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitaren Espiritua mintzatuko da zuen bidez.

Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua.

Herri batean pertsegitzen bazaituztete, egin ihes beste batera. Benetan diotsuet: Gizonaren Semea etorri aurretik, ez dituzue Israelgo herri guztiak igaroko».

«**N**igatik... ». «Nigatik» horrek bereizten du pertsekuzioa, Jesusi jarraitzearen benetako gurutzea, ebanjelioaren arabera, beste edozein biktimismo-motatatik; batzuetan, hura honekin nahasteko joera izan ohi baitugu. Ezin zirtzildu edo gezatu dugu gurutzea, ezta eman ere Erreinuagatik jasandakotzat bizi ohi dugun edozein

zailtasun edo une jakin batean jasandako edozein sufrimendu. «Nigatik»: Jesusekin bat egin dugulako eta hura pertsegitu zutenean eta bizia eman zuenean jokoan zegoen arazoa defenditzeko ahalegina-gatik.

Urteko 14. astea.
Larunbata / Zapatua.

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
Joan Maiorga (Donibane Garazi 1530 – Brasile-
ra bidean kortsarioek hil 1570), *dohatsua, jesuita*
eta lagunak, martiriak.

[**Hasiera liburutik 49,29-32; 50,15-26:** Jainkoa etorriko zai-
zue, eta herrialde honetatik igoaraziko zaituzte. **Sal 104:** Apa-
lok, bila ezazue Jainkoa, eta birbiztu bekizue bihotza.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,24-33.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, ezta morroia ere nagusia baino gehi-
ago. Nahikoa du ikasleak irakaslea adina izatea, eta morroiak nagusia adina. Etxeko jaunari Beeltzebul deitu badiote, zer ez diete deituko haren etxekoei?

Ez izan jendearen beldur! Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere jakingo ez denik. Gau-ilunez esaten dizuedana esan zuek egun-argiz, eta be-
larrira entzuten duzuen hots egin etxe-gainetatik. Ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina bizia kendu ezin dutenei; izan beldur, gorputza ez ezik, pertsona osoa ere infernua gal de-
zakeenari.

Ez al dira bi txori txanpon batean saltzen? Hala ere, ez da bat bakarra ere lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe. Zuen buruko ileak ere zenbatuak dauzka Jainkoak. Ez izan, bada, beldurrik: zuek txori guztiak baino gehiago balio duzue.

Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut Neuk ere zeruko neure Aitaren aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dut Neuk ere zeruko neure Aitaren au-
rrean».

«**E**z beldur izan...»: hiru aldiz errepikatu du dei hori Jesusek Ierro hauetan, eta mila bider irakur daiteke Liburu Santuetan. Segur aski, beldurra giza emoziorik sarrienetakoa delako... eta pertsona gehienik geldiarazten duena delako. Beldurrak jo eta zurrundu egiten gaitu, «galdu» nahi ez ditugulako: batzuetan, balio funtsezkoak, adibidez bizia; beste batzuetan, berriz, balio txikiagoko gauzak, pribilegioak edo ondasun koskorrak, zeini atxikiak baititugu geure bihotza eta geure segurtasuna. Beldurretik askatzea, beldurra gainditzea, konfiantza izatea da: Aita arduratsuan konfiantza ipintzea, bere sor-kariak zaintzen baititu, gu besteak beste.

Urteko 15. astea.
Igandea / Domeka.

Karmelo Mendiko Andre Maria (Karmengo Ama). Larreako Andra Maria, Karmengo Ama.

§ Isaias 55, 10-11.

Honela mintzo da Jauna: «Euria eta elurra zerutik jaisten dira eta ez dira berriro hara itzultzen, lurra ase, ernaldtu eta er-namuindu gabe, lur horrek ereiteko hazia eta jateko ogia eman ditzan; hala izango da nire ahotik ateratako hitza ere: ez da nigana hutsik itzuliko, baizik eta egingo du Nik nahi dudana eta beteko nik ezarritako helburua».

[Sal 64: Lur onean erori zen haziak ugari eman zuen alea.]

§ San Paulok Erromatarrei 8, 18-23.

Senideok: Nire iritzian, oraingo neke-lanak ezer gutxi dira gero guregan azalduko den aintzaren aldean. Izadia bera ere irrikaz dago, zain-zain, Jainkoak noiz agertuko bere seme-alaba izatea zer den. Izadiak bere benetako helburua galdua izan arren —ez bere gogoz, baizik horretara behartu zuenarengatik—, badu itxaropena, esklabotzatik eta hondamenetik askatua izan eta Jainkoaren seme-alaben aintzazko askatasunean parte izateko.

Badakigu, jakin ere, izadi osoa erdiminetan intzirika dagoela orain arte. Eta hura ez ezik, geu ere bai: Espiritua lehen-dohain bezala hartu dugunok intzirika gaude geure barruan, Jainkoak noiz askatuko eta bere seme-alaba noiz egingo gaituen zain.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 1-23.

Egun hartan, Jesus etxetik irten eta itsasertzean eseri zen. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion inguruan, txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, hondartzan ze-

goen. Gauza asko esan zien parabola bidez hitz eginez: «Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta axaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuten hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun, hirurogei nahiz hogeita hamar. Belarrik duenak, entzun beza». Ikasleek hurbildu eta galdera egin zioten Jesusi: «Zergatik hitz egiten diezu parabola bidez?» Jesusek erantzun zien: «Zuei eman zaizue zeruetako erreinuaren misterioak ezagutzea; horiei, ordea, ez. Izan ere, duenari eman egingo zaio eta gainezka izango du; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu egingo zaio. Hona zergatik hitz egiten diedan parabola bidez: begiratu bai, baina ikusten ez dutelako; entzun bai, baina aditzen ez dutelako, ezta ulertzen ere. Horrela, Isaias Profetak esana betetzen da horiengan: "Entzungo duzue, bai, baina ulertu ez; ikusiko duzue, bai, baina ohartu ez. Izan ere, herri honek gogortu egin ditu buru-bihotzak, gortu belarriak, itsutu begiak.

Ez bezate begiez ikus,
ez belarriez entzun,
ezta buruaz ulertu ere,
horrela nigana bihur ez daitezen
eta salba ez ditzadan".

Zorionekoak, ordea, zuen begiak, ikusten dutelako, eta zuen belarriak, entzuten dutelako. Benetan diotsuet: profeta eta zintzo askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuen ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuen entzun». Jesusek esan zien ikasleei: «Entzun ereilearen parabolaren esanahia: Erreinuaren hitza entzun bai, baina ulertzen

ez duenari, Gaiztoak etorri eta kendu egiten dio bihotzean erein zaiona. Hori da bide-bazterrean ereindakoa. Harri artean ereindakoa hauxe da: hitza entzutean, berehala pozik hartzen duena; baina, sustrairik gabea eta iraupen gutxikoa izanik, hitza dela-eta estutasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, berehala huts egiten du. Sasi artean ereindakoa hauxe da: hitza entzun bai, baina mundu honetako ardurak eta diru-goseak ito egiten diote hitza, fruiturik gabe utziz. Lur onean ereindakoa, berriz, hauxe da: hitza entzun eta ulertzen duena. Honek fruitua ematen du: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar».

Gaurko ebanjelioak dakarren parabola ederra, Mateoren ebanjelio-ko 13. kapitulua hasten duena, besteak beste, iraupenaz mintzo zaigu, pazientziaz eta ereilearen doakotasunaz. Irakurgai hau oso arnas emalea dugu geure eginkizun apostolikorako. Hitzez nahiz egitez ereiten dugun guztiak fruitu eman dezan eta jada eman dezan nahi dugun eginkizunerako. Horrela gertatzen ez denean, edota errua besteiei leporatzen baitiegu edota etsi egiten, edota gauza biak egiten baititugu.

Ereitearen logikan sartzen da hazi-zati bat galtzea, arrazoi desberdinengatik, eta, halere, ez dago zertan utzi ereiteari. Gauza normala da, orobat, lur guztiak hazi-hartzaile berdin ez izatea, eta, halere, ez dago zertan utzi ereiteari. Azken batean, ereitearen logikaren sartzen da egindako ahaleginaren zati bat alferrik egina izatea, eta, halere, ez dago zertan utzi ereiteari. Izan ere, lur onean erortzen denak gainezka ordaintzen du galdutakoa: «batzuek bateko ehun, bestek hirurogei, bestek hogeita hamar».

Nahiz eta, Paulok gogorarazten digunez, Jainkoaren erregetza bete-betean agertzeak bere denbora behar duen...

[Irteera liburutik 1,8-14.22: Menpera dezagun Israel, gu baino handiagoa eta indartsuagoa egiten ari baita. **Sal 123:** Gure laguntza, Jaunaren izena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,34–11,1.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ez uste izan munduari bakea ekartzera etorri naizenik; bakea ez, baino banaketa ekartzera etorri naiz. Bai, semea aitagandik banatzera etorri naiz, alaba amagandik eta erraina amaginarrebagandik banatzera. Eta nork bere etxeokak izango ditu etsai. Aita nahiz ama Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai. Bere gurutzea hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai. Bere bi-ziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zuek onartzen zaituztenak Neu onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du. Profeta bat profeta delako onartzen duenak profetari zor zaion saria izango du, eta pertsona zuzen bat zuzena delako onartzen duenak pertsona zuzenari zor zaion saria izango du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, baso bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko». Jesus, hamabi ikasleei argibide hauek ematen amaitu zuenean, joan egin zen handik, herri haietan irakastera eta mezua hots egitera.

«**Z**uek onartzen zaituenak ni neu onartzen nau...». Ebanjelio honek zerbait azpimarratzen badu, berari jarraitu eta beraren egintzan parte hartzen dutenekin Jesusek dituen lotura bihozkoia

eta konpromisoa dira. Eta Jesusek, bere aldetik, guri eskatzen duen konpromisoa ez da txikia, ez arina; baina jarraitzen dionarekin berak hitzematzen duena handiagoa da. Nortasun-konpromisoa, zori partekatua konpromisoa. Loiolako Ignazioaren «nirekin» hura, Gogo Jardunetako betiko Erregearen deian. Eta konpromiso horretaz dugun ustea eta konfiantza dira gure indarra «ezpaten» eta «gurutzearen» mementoan.

[Irteera liburutik 2,1-15a: Moises ezarri zion izena, uretik atera baitzuen, eta, gizon egin zelarik, bere senideetara joan zen. Sal 68: Apalok, bila ezazue Jainkoa eta birbirtu bekizue bihotza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 20-24

Aldi hartan, Jesus miraririk gehienak egin zitueneko herriak gaitzesten hasi zen, bihotz-berritu ez zirelako: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan bezainbeste mirari gertatu izan balitz, bihotz-berrituak ziratekeen aspaldi, dolu-jantziz eta hautsez estalirik. Horregatik, hara nik esan: auzi-egunean, Tiro eta Sidonek zigor bigunagoa izango dute zuek baino.

Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko al zara? Lurraren barreneraino eroriko zara! Izan ere, zuregan bezainbeste mirari gertatu izan balitz Sodomak, gaurdaino iraungo zukeen. Horregatik, hona nik esan: auzi-egunean, Sodomak zigor bigunagoa izango du zuk baino».

Gure begi-bistan ere egunero gertatzen da mirari-kopuru handia; baina, edota ez dakigu halakoak ikusten, edota ez dakigu halakoak aintzat hartzen. Horra biziaren beraren miraria; horra naturaren miraria, guk hainbat hondamen egin arren Jainkoaren edertasuna agertzen jarraitzen duena; horra gure gorputzaren funtzionamendu zehatz eta etengabea, bere konplexutasun osoan; horra hainbat eta hainbat pertsonaren miraria, kalkulutan eta neurketan denbora galdu gabe, bere burua besteei eskaini dietenen miraria, egoera zailenetan ere; horra hainbat eta hainbat jenderen miraria, oinazeen eta sufrimeanean esperantzari eusten dionarena... Erregutu diezaiogun Jainkoari, horrek guztiak gu ohartu gabe ihes egin ez diezagun.

Urteko 15. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

Kordobako Santa Aurea, *martiria*.

[Irteera liburutik 3,1-6.9-12: Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasi artetik ateratzen zen su-garretan. Sal 102: Errukior da Jauna eta gupidatsua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea eza gutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Bai; jende xumeak bakarrik suma ditzake gauza txikien handitasuna eta hitz xumeen Jainkoa. Izan ere, xumea da Jainkoa eta xume dena du maite: jantzi nahi izaten dizkiogun jantzi hanpurutsuei muzin egiten die. Xume izatea ez da ezjakina eta kulturagabea izatea: bihotzaren tasun bat da xumetasuna. Xume, labur eta sakon adierazten du salmogileak: «Jauna, nire bihotza ez da handinahi... Ez nabil gai naizen baino gehiagoren bila... Zugan dut nik atsedena, konfiantzaz eta lasai haur txiki bat bezala amaren altzoan.

[Irteera liburutik 3,13-20: Naizena naiz Ni. «Ni-naiz»ek bidali nau zuengana. Sal 104: Gogoan du Jaunak betiko egin zuen ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamapean zaudeten guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Har-tzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atseden. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

«**N**ik arinduko zaituztet... Aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena»: Jainkoarekiko erlazioa, arintzearen eta atsedetearen eremu eta esperientzia bezala. Horrela sentitzen al dugu ala zama bezala bizi dugu, bizitza are gehiago «korapilatzen duten» betebeharraren multzo bezala...? Laguntzen al diogu jendeari horrela bizitzen ala Jainko «errazegi» bat proposatzea dela uste dugu hori? Gaurko ebanjelioa, hiru lerro hauek, benetako test bat da/dira, bizi eta proposatzen dugun Jainkoa Jesusena den ala ez jakiteko. Badu Jesusek «uztarri» bat, baina eroangarria da; badu «zama» bat, baina arina da. Inoiz ez gizakiak ahal duena baino handiagoa; inoiz ez gizakia hondoratu edo zapaltzeko.

[Irteera liburutik 11,10–12,14: Arratsaldean bildots bat hilko duzue; odola ikustean, aurrera igaroko naiz. **Sal 115:** Salbamen-edontzia dut hartuko, eta Jaunaren izena deituko.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,1-8.**

Aldi hartan, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Iakasleak goseak zeuden eta galburuak moztu eta jaten hasi ziren.

Hori ikustean, fariseuek esan zioten Jesusi: «Begira, larunbatez zilegi ez dena egiten ari dira zure ikasleak». Hark erantzun: «Ez al duzue irakurri zer egin zuen Davidek, bera eta lagunak goseak aurkitu ziren batean? Nola Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituzten, legez ez berak ez bere lagunek, baizik eta apaizek bakarrik jan zitzaizketenak? Edota ez al duzue irakurri Moisesen Legean apaizek larunbatero hausten dutela tenpluan atsedean-legea, horregatik errudun izan gabe? Ba, Nik diotsuet: bada hemen tenplua baino gehiago den norbait. Ulertu bazenute zer esan nahi duen Jainkoak esandako honek: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”, ez zenituzketen errugabeok gaitzetsiko. Zeren Gizonaren Semea larunbataren nagusi baita».

«**G**osea»: ebanjelioan askotan ageri den hitza da; haren aurrean hunkitu egiten da Jesus beti. Pertsonaren oinarrizko premien alderdi bat eta sinbolo bat da; gaurko kasu honetan eta ebanjelioaren beste hainbat kasutan aurrea hartzen dio, bai arauari, bai Jesusen beraren asmo edo ekintza bati. «Gosea», zoritxarrez, eta bi mila urteren buruan, hitz erreala da mundu honetan milioika pertsonarentzat. Hori bai, goi mailako bilerak eragiten ditu, irudi noizbehinkako eta zirrara-garriak ere bai komunikabideetan... baina ezer gutxi besterik. «Jakingo bazenute zer esan nahi duen errukiak...».

[Kantarik Ederrena 3,1-4a: Aurkitu dut nire bihotzak maite duena. Sal 62: Zure egarriz dut gogoia, Jauna, ene Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,1.11-18.

Asteko lehen egunean Magdalako Maria hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Maria hilobi ondoan gelditu zen, kanpoan negarrez. Halako batean, oraindik ere negarrez, hilobirantz makurtu zen, eta bi aingeru ikusi zituen zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen tokian eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Emakume, zergatik ari zara negarrez?» Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten». Berehala, atzera begiratu eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Emakume, zergatik ari zara negarrez? Noren bila zabilta?» Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baldin baduzu, esadazu non ipini duzun, eta neuk jasoko dut». Jesusek esan zion: «Maria!» Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni! (hau da, Maisu)». Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz igo Aitarengana. Ea, zoaz nire senideengana eta esaiezu neure eta zuen Aitarengana noala, neure eta zuen Jainkoarengana». Magdalako Mariak joan eta ikasleei berri hau eman zien: «Jauna ikusi dut». Eta hark esana kontatu zien.

Bi galdera ditu erdi-puntu gaurko ebanjelioak: «zergatik ari zara negarrez?», «noren bila zabilta?» Lehenengoak Maria Magdalenak Jesusi dion maitasuna agertzen du: maite den bat galtzeagatik egin ohi da negar. Bigarren galderak, berriz, Jesusek Maria Magdalena-ri dion maitasuna agertzen du, Jesusen hurbiltasuna, fisikoa ez ezik,

baita, batez ere, gizakoa ere. Eta galdera biek topaketa bat bideratzen dute, hitz bakar bat aski duena: «Maria»; hitz bakarra eta xumea, baina esateko moduz Mariak berehala ezagutu duena. Horrelako topaketa bat gu guztioi eskaintzen digu Jaunak kontenplazioan eta bizitzan.

Urteko 16. astea.
Igandea / Domeka.

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea (Salbatzaile Santu-santuaren Ordena) (Europako Zaindaria).*

Zakarias Fernandez, *dohatsua.*

§ Jakinduria liburutik 12,13.16-19.

Ez da gauza guztiez arduratzen den zu beste jainkorik, ez duzu zure epaia zuzena dela inori frogatu beharrik. Zure indarra da justiziaren oinarria, eta gauza guztien nagusi izateak guztiekin errukior izatera zaramatza. Guztiz ahaltsu zarela sinesten ez dutenei zeure indarra erakusten diezu, eta, nahiz eta zure indar hori aitortu, ausardiaz jokaten dutenak salatzen (nahasten) dituzu; baina zuk, zeure indarraren nagusi zaren horrek, neurritasunez epaitzen duzu eta bihozberatasun handiz gobernatzen; zeure esku duzu nahi duzunean indarraz baliatzea. Horrela jokatuz erakutsi diozu zeure herriari gizon zuzenak gizakiaren adiskide izan behar duela, eta, bekatariei bihotz-berritzeko aukera emanez, itxaropenez bete dituzu zeure seme-alabak.

[Sal 85: Ona zara, Jauna, eta gupidatsua.]

§ San Paulok Erromatarrei 8,26-27.

Senideok: Badakigu izadi osoa erdiminetan intzirika dagoela orain arte. Eta hura ez ezik, gu geu ere bai: Espiritua lehen dohain bezala hartu dugunok intzirika gaude geure barruan, Jainkoak noiz askatuko eta bere seme-alaba noiz egingo gaituen zain.

Salbatuak gaude, bai, baina itxaropenean bakarrik. Eta itxarro duguna ikusiko bagenu, hori ez litzateke itxaropena. Izan ere, nola itxaron ikusten duguna? Baina ikusten ez duguna itxaroten badugu, iraupenez behar dugu itxaron.

Era berean, Espiritua datorkigu geure ahulerian lagun, guk ez baitakigu behar bezala otoitz egiten; baina Espirituak berak erregutzen du gure alde, esan ezin ahalako intziriz. Eta bihotzak aztertzen dituen Jainkoak ezagutzen du zein den Espirituaren gogoia, Espirituak Jainkoaren asmoen erara erregutzen baitu fededunen alde.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,24-43.

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinuarekin gizon batek soroan hazi ona erein zue-nean bezala gertatzen da. Jendea lo zegoela, etorri zen etsaia eta gari artean olo gaiztoa erein eta alde egin zuen.

Garia hazi eta burutu zenean, han azaldu zen olo gaiztoa ere. Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiagana eta esan zioten: “Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik du, bada, olo gaiztoa?” Nagusiak erantzun zien: “Etsaiaren lana da hori”. Morroiek, orduan: “Joango al gara olo gaiztoa biltzera?” Eta nagusiak: “Ez! Ez dadila gerta, olo gaiztoa biltzean garia ere ateratzea. Utzi biak batera hazten uztaroa iritsi arte; orduan, igitariei esango diet: Bildu lehendabizi olo gaiztoa, lotu eta erre; garia, berriz, jaso nire mandiora”».

Jesusek parabola hau esan zion jendeari: «Zeruetako erreinua gizon batek soroan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da eta zuhaitz egiten, txoriek etorri eta haren adarretan habiak egiteko moduko zuhaitza».

Beste parabola hau ere esan zion jendeari: «Zeruetako erreinua legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta oraldi guztia harrotzen da».

Irakaspen hau guztia parabola bidez eman zion Jesusek jendeari, eta ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik. Honela bete zen Jainkoak profetaren bidez esana:

«Parabola bidez mintzatuko naiz, munduaren hasieratik gordea zegoena azalduko». Orduan, jendea agurturik, etxera joan zen Jesus. Orduan, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Argi iezaguzu soroko olo gaiztoaren parabola». Jesusek erantzun zien: «Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da, soroa mundua; hazi ona erreinuko seme-alabak dira; olo gaiztoa, berriz, gaiztoarenak; olo gaiztoa erein duen etsaia deabrua da; uzta munduaren azkena, eta uzta-biltzaileak aingeruak. Olo gaiztoa bildu eta suan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenean ere. Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta haren erreinutik bereizi egingo dituzte gaizki-leak eta besterentzat gaizpide izan direnak, eta su-labera botako dituzte. Han izango dira negarra eta hortz-karraska! Orduan, zintzoek eguzkiak bezala egingo dute distira, beren Aitaren erreinuan. Belarririk duenak entzun beza».

«**Z**intzoak gizakoi izan behar duela irakatsi zenion zeure herriari», diosku lehenengo irakurgaiak. Eta zintzoa den «izaki gizakoi» horren ezaugarriak deskribatu dizkigu: barkatu, gupida agertu, damua gauzatu.

Ildo berekoa da gaurko ebanjelioaren irakaspena ere, erdigunetzat galsoroko olo gaiztoa hartuz. Laborariak, borondate onez dudarik gabe, baina pazientzia-apurrik gabe, atera egin nahi du olo gaizto hori. Jaunak, orde, bakean uzteko esaten dio garia ere haziz doan bitartean.

Olo gaiztoa eta garia, garia eta olo gaiztoa. Bai parabola bikaina bizi-tzarako! Olo gaiztoa eta garia, lehenik eta behin geure baitan: zenbat nahi genukeen, eta bai desira jatorra, gari garbi izatea! Eta amorrazioak jotzen gaitu, konturatzen garenean hor dugula geure baitan ere olo gaiztoa, atera ezin duguna. Haserretu egiten gara geure buruaren aurka, baina Jainkoa ez gure aurka. Olo gaiztoa eta garia, garia eta olo gaiztoa giza erakundeetan, mota guztietakoa: eta epaile zorrotz bihurtzen gara, eta olo gaiztoaz itsuturik ezin ikusi izaten dugu garia.

Espirituak, orduan, «dagokiguna eskatzen ez dakigunoi», pazientzia eta epailtza alde batera uztera eragiten digu, eta Jainkoaren irispeida atxikitzen.

Urteko 16. astea.

Astelehena.

Joan Pedro Bengoa (Arrasate 1890 – Carrion de Calatrava 1936) eta Nizeforo Jesusena eta Mariarena, *dohatsuak, martiriak* 1936.

Zakaria Fernandez (Zentroniko 1917 – Ciudad Real 1936), *dohatsu, pasiotarra*, eta lagunak *martiriak*.

Santa Kristina, *martiria*.

San Arnulfo, *martiria*.

[Irteera liburutik 14,5-18: Ikusiko dute Ni naizela Jauna, aintzaz beteko naizenean, faraoiaren bizkar. Sal: Irteera 15: Kanta diezaiogun Jaunari garai-garai delako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,38-42.

Aldi hartan, lege-maisu eta fariseu batzuek esan zioten Jesusi: «Maisu, zuk egindako seinale bat ikusi nahi genuke». Jesusek erantzun zien: «Seinale eske ari da gizaldi gaizto eta desleial hau; baina ez zaio seinalerik emango, Jonas profetarena besterik. Zeren Jonasek arrainaren sabelean hiru egun eta hiru gau egin zituen bezala, hala egingo baititu Gizonaren Semeak ere hiru egun eta hiru gau lurraren barruan. Auzi-egunean ninivetarrek gizaldi honen aurka altxatu eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuaz, eta baduzue hemen Jonas baino gehiago den norbait. Auzi-egunean hegoaldeko erreginak ere gizaldi honen aurka altxatu eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriazko hitzak entzutzer, eta baduzue hemen Salomon baino gehiago den norbait».

Kristau-fedea ez da oinarrizko «seinaletan», ageriko gertaeratan, gutxi-asko handiosetan, baizik Jesusengan beragan. Fedea Jesusi atxikitzea eta harengan konfiantza jartzea da. Batzuetan, honek edo beste hark fedea galarazten digula esatea, giza mailan ulergarriak diren erreakzio eta hitz egiteko modu dira; alabaina, jarrera horrek berak agerian ipintzen du gure fedea ez dela oraino betea edo heldua; izan ere, Jesusi atxikitzearekin zerikusirik ez duten gertaerari eta gorabeherari loturik ageri baita; izan dezagun gogoan, fedearen arrazoi bakarra Jesusi atxikitzea da.

§ Apostoluen Eginak liburutik 4,33; 5,12.27-33; 12,2.

Egun haietan, apostoluek kementsu ematen zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta haien eskuz herrian mirari eta harrigarri asko egiten ziren. Batzar Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak galdetu zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu, horren izenean ez irakasteko? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez, eta gizon horren odolaren erantzukizuna guri ezarri nahi diguzue». Pedrok eta apostoluek erantzun zioten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin zuen, zuek habetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, eta Buruzagi eta Salbatzaile egin, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Gu gara gauza hauen testigu, baita Jainkoak bere esana egiten dutenei ematen dien Espiritu Santua ere». Erantzun honek haserretu zituen bizi-ro batzarrekoak, eta hiltzea erabaki zuten. Eta Herodes erregeak Joanen anaia Santiagori ezpataz lepoa moztu zion.

[Sal 66: Ene Jainko, goratu zaitzatela herriek, goratu zaitzatela herri guztiek.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 4,7-15.

Senideok: Ondasun hau buztinezko ontzitan darabilkigu, honenbesteko indarra Jainkoagandik dela ager dadin eta ez gugandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina ito ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita

ez; lurrera botatzen gaituzte, baina ez hiltzen. Nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu gorputzean, Jesusen bizia ere gure gorputzean ager dadin. Bizi garen bitartean, beti heriotzara eramaten gaituzte Jesusengatik, Jesusen bizia ere ager dadin gure izate hilkor honetan. Horrela, gugan heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia. Liburu Santuak dio: «Sinetsi dut, eta horregatik hitz egin dut». Eta guk ere sinesmen-espíritu bera dugularik, sinesten dugu, eta horregatik hitz egiten dugu; jakinik, Jesus Jauna piztu duenak berak piztuko gaituela geu ere Jesusekin, eta bere ondoan ipiniko zuekin batera. Hau guztia zuen onerako da; graziadunak ugaritzen direlarik, haien esker ona ere ugaria-goa izan dadin Jainkoaren aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,20-28.

Aldi hartan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin, eta aurrean ahuspeztu, eskabide bat egiteko.

Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta hark: «Esereraz ditzazula nire bi seme hauek, bata zeure eskuinean eta bestea zeure ezkerrean, zeure erreinuan». Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete zuek, nik edango dudan kaliza edateko?» Haiek: «Bai, gauza gara?» Jesusek orduan: «Nire kaliza edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori ez dago nire esku inori ematea; hori nire Aitak erabakitzen duen haientzat da». Beste hamarrak, hori entzutean, bizi-ro haserre jarri ziren bi anaiekin. Jesusek, berriz, beregana bildu eta esan zien: «Badakizue, herrietako agintariek gogor hartzen dutela menpean herria, eta handikiek azpian hartzen dutela. Ez bedi izan horrela zuen artean, baizik eta zuen artean handi izan nahi duena, bego zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena, bego zuen menpeko. Gizonaren Semea ere ez baita etorri besteen zerbitzuak hartzera, besteak zerbitzatzera baizik, eta bere bizia askoren erospen-sari ematera».

Santiago apostoluaren, Espainiako «patroiaren» festa ospatzen dugu gaur. «Patroi» terminoari esanahi asko egozten dizkiote hiztegiek. Lehenengoa, defendatzaile izatea da, babesle izatea. «Patroi» terminoak «eredu» ere esan nahi du, erreferentzia izatea, alegia. Bi esanahiak biltzeak lagunduko digu Santiago apostoluak erakutsi digun bidea ulertzen; apostoluetan lehena izan zen bere bizia ematen Jesusengatik. Liturgiako testuak agertzen digute zertan datzan bizi-eredu hori eta Jesusen jarraitzaile izate hori.

Lehen irakurgaia pertsona aske batez mintzo zaigu, barnez aske denaz, Jainkoaren esaneko denaz direnak direla gorabeherak eta hartzen dituen presioak. Bigarren irakurgaiak, berriz, pertsona hau jartzen digu begi aurrean: bizitzako zailtasunei eta, zehazkiago, fedearen arabera bizitzek sortzen dizkionei iraupentsu eta konfiantzaz eta adorez aurre egiten die-na. Ebanjelioak, azkenik, zerbitzua proposatzen digu Jesusei jarraitzearen gailurtzat; zerbitzua: bizia ematean bukatzen dena. Askatasuna, adorea, zerbitzua: horra bizi-eredua, gaur egun ere balio-baliokoa; horretara dei egiten digu Santiagok, gure fedearen defendatzailea eta babeslea den apostoluak.

Urteko 16. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

San Joakin eta Santa Ana, Andre Mariaren gu-
rasoak.

[Irteera liburutik 16,1-5. 9-15: Ogi-auria eginaraziko dut
Nik zuentzat zerutik. Sal 77: Zeruko ogia eman zien Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,1-9.

Egun hartan, Jesus etxetik irten eta itsasertzean eseri zen. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion inguruan, txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, hondartzan zegoen. Gauza asko esan zien parabola bidez hitz eginez: «Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta axaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuten hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun, hirurogei nahiz hogeita hamar. Belarririk duenak, entzun beza».

O hituak gaude pentsatzera, parabola honek aipatzen dituen lur desberdinek pertsona desberdinak adierazten dituztela... Alabaina, imajina genezake orobat lur desberdin horiek gutako bakoitzari dagozkiola, geure bizitzako aro desberdinetan harturik, horietako bakoitzean gure jarrera nolako den. Zabar eta arin bizitzetik, Jainkoaren hitzari gogor kontra egiteraino, beste interes edo afektu nahas-mahas batzuekin talka egin duelako, edota geure harmenak eta harrera onak lur on bihurtzen gaituenera. Hauxe dugu geure erronka.

Urteko 16. astea.

Osteguna / Eguena.

San Galaktario, *gotzaina eta martiria (Baionako elizbarrutian).*

[Irteera liburutik 19,1-2.9-11.16-20b: Jaitsiko da Jauna Sinai mendira herriaren aurrean. Sal: Daniel 3: Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,10-17.

Aldi hartan, Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten ikasleek: «Zergatik hitz egiten diezu parabola bidez?» Jesusek erantzun zien: «Zuei eman zaizue zeruetako erreinuaren misterioak ezagutzea; horiei, ordea, ez. Izan ere, duenari eman egingo zaio eta gainezka izango du; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu egingo zaio. Hona zergatik hitz egiten diedan parabola bidez: begiratu bai, baina ikusten ez dutelako; entzun bai, baina aditzen ez dutelako, ezta ulertzen ere. Horrela, Isaias Profetak esana betetzen da horiengan: Entzungo duzue, bai, baina ulertu ez; ikusiko duzue, bai, baina ohartu ez. Izan ere, herri honek gogortu egin ditu buru-bihotzak, gortu belarriak, itsutu begiak. Ez bezate begiez ikus, ez belarriez entzun, ezta buruaz ulertu ere, horrela nigana bihur ez daitezen eta salba ez ditzadan». Zorionekoak, ordea, zuen begiak, ikusten dutelako, eta zuen belarriak, entzuten dutelako. Benetan diotsuet: profeta eta zintzo askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuen ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuen entzun».

Esanguratsua da gaurko ebanjelioan Jesusek dioena: bihotzak ditu irekitzen begiak ikusteko eta belarriak entzuteko: «gogortua du bihotza herri honek... itxi ditu begiak ez ikusteko eta belarriak ez ikusteko». Hara-ko hura da: komeni zaiguna ikusi eta probetxugarri duguna entzun. Jarrera honi dagokionez, hau da galdera: zerk du gogortzen bihotza?, eta zerk eusten dio eginkor, esna, adi? Beste era batean esanik, zer gaitu lotzen eta zerk gaitu libre gordetzen loturetatik?

Urteko 16. astea.

Ostirala / Barikua-

Julian Plazaola (Donostia 1915), Lazaro Mujika (Idiazabal 1867), Braulio Maria Corres (Torralba [Nafarroa] 1897), *dohatsuak*, eta lagunak, *erlijio-soak eta martiriak* (1936).

Pedro Poveda, *fundatzailea (Teresatar Institutioa) eta martiria*.

[Irteera liburutik 20,1-17: Legea Moisesen bidez eman zuen Jainkoak. Sal 18: Zuk dauzkazu, Jauna, betiko biziaren hitzak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,18-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzun ereilearen parabolaren esanahia: Erreinuaren hitza entzun bai, baina ulertzen ez duenari, Gaiztoak etorri eta kendu egiten dio bihotzean erein zaiona. Hori da bide-bazterrean ereindakoa. Harri artean ereindakoa hauxe da: hitza entzutean, berehala pozik hartzen duena; baina, sustrairik gabea eta iraupen gutxikoa izanik, hitza dela-eta estutasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, berehala huts egiten du. Sasi artean ereindakoa hauxe da: hitza entzun bai, baina mundu honetako ardurak eta diru-goseak ito egiten diote hitza, fruiturik gabe utziz. Lur onean ereindakoa, berriz, hauxe da: hitza entzun eta ulertzen duena. Honek fruitua ematen du: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar».

«**H**itza entzun eta ulertzen duenak, horrek eman du fruitua...». Gutxi gorabehera (ehun, hirurogei, hogeita hamar), baina emango du fruiturik. «Fruitua eman»: hau ere esapide esanguratsua ebanjelioan (gogora gaitezen mahatsondoaren eta aihenen hitzaldiaz): zer esan nahi duen? Fruitua ematea bizia ematea da, eta hori da garrantzizko gauza. Askotan uste izaten dugu, garrantzizko gauza hau eta bestea egitea dela, gauza asko egitea dela, gauza nabarmen-

nak egitea dela... Baina ez; ebanjelioaren arabera, garrantzizko gauza fruitua ematea da, bizia ematea. Eta hori ez dago egin ditzakegun gauzen kopuruan, ezta gauzen giza inportantzian ere, baizik Jesusekin bat egitean.

[1 Joan 4,7-16: Elkar maite badugu, Jainkoa gugan dago-ke. Sal 33: Dasta eta ikus ezazue zein ona den Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11,19-27.

Aldi hartan, judu asko etorri zen Marta eta Mariagana, neba-rengatik doluminak ematera. Marta, Jesus zetorrela entzun orduko, bidera atera zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen. Martak esan zion Jesusi: «Jauna, hemen izan bazina, gure neba ez zen hilko. Hala ere, badakit eska diezaiozun guztia emango dizula Jainkoak». Jesusek erantzun zion: «Piztuko da zure neba». Eta Martak: «Badakit piztuko dela azken egunean, hildakoen piztuerakoan». Jesusek esan zion orduan: «Neu naiz piztuera eta bizia; nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da, eta bizi dena, nigan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hori?» Martak erantzun zion: «Bai, Jauna, sinesten dut Zeu zarela Mesias, Jainkoaren semea, mundura etortzekoa zena».

Miresgarria da Martak Jesusengan duen konfiantzaren eredu-
dua. Lehenik eta behin, konbentzimendu hau azaldu du: Jesus
han egon balitz, Lazaro ez zela hilko. Jesus adiskide eta sen-
datzeko gai delako fedea da. Halere, tristura eta, are, Jesusen
absentziaz dezepzioa azaldurik, Martaren konfiantza ez da txi-
kiagoa: «badakit, eskatuko diozun guztia emango dizula Jain-
koak ». Jesusek piztuera aginduz erantzun dio, baina noizkoa
zehaztu gabe. Anaiaren heriotzaren minak erasanik ere, Martak
ez dio utzi Jesusengan konfiantza izateari.

§ 1 Erregeak 3,5.7-12.

Egun haietan, Gabaonera joan zen Salomon erregea opariak eskaintzera, hura baitzen kultu-lekurik nagusiena. Mila erre-opari eskaini zituen Salomonek aldare gainean. Gau hartan Jauna agertu zitzaion ametsetan Gabaonen, eta esan zion: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Salomonek erantzun zion: «Jauna, ene Jainko, nire aita Daviden ordeztu ni, zeure zerbitzari hau, egin nauzu errege. Ni, ordea, gaztea naiz eta ez dakit nola gobernatu. Zure zerbitzari hau Zuk aukeratu duzun herriaren erdian dago, herri izugarria, ugariaren ugariz ezin konta ahalakoa. Emaiozu zeure zerbitzari honi adimen argia, zure herria gobernatzeko, eta ona eta txarra bereizteko. Bestela, nola gobernatu zure herri handi hau?» Atsegin izan zitzaion Jaunari Salomonen eskaria, eta esan zion: «Hori eskatu duzulako, eta ez zeuretzat urte asko, aberastasunak edota zeure etsaien heriotza, baizik eta zuzen gobernatzeko jakinduria eskatu duzulako, beteko dut zuk eskatua: zure aurretik inork izan ez dituen eta zure ondoren ere inork izango ez dituen adinako jakinduria eta adimena emango dizkizut. Gainera, eskatu ez duzuna ere emango dizut: aberastasunak eta ospea, zure egunetan inongo erregeak izango ez dituen neurrian».

[Sal 118: Bai maite dudala, Jauna, zure legea.]

§ San Paulok Erromatarrei 8,28-30.

Senideok: Badakigu bera maite dutenen onerako bideratzen dituela Jainkoak gauza guztiak, bere aurre-erabakiaz deitu dituenen onerako, alegia.

Aurrez ezagutu zituenak aukeratu ere egin zituen Jainkoak, bere Semearen irudiko izan zitezen eta, horrela, Semea senide askoren artean lehen- seme izan zedin. Aurrez aukeratu zituenak deitu ere egin zituen; deituak, berriz, zuzentzat hartu zituen: eta zuzentzat hartuak aintzaz bete.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,44-52.

Aldi hartan, esan zien Jesusek ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin soroan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du eta, pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta soro hura erosten du.

Era berean, zeruetako erreinuarekin, harri bitxi bila dabilen merkatariarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du.

Era berean, zeruetako erreinuarekin itsasora bota eta mota guztietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. Beterik dagoenean, bazterrera ateratzen dute eta, eseririk, onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da munduaren azkenean: aingeruak etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereizi egingo dituzte eta su-labera botako. Han izango dira negarra eta hortz-karraska!» Jesusek galdetu zien ikasleei: «Ulertu al duzue hau guztia?» «Bai», erantzun zioten. Eta Jesusek: «Beraz, zeruetako erreinuko ikasle egin den lege-maisua, bere altxorretik zahar eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da».

Bai argigarri direla igande honetako irakurgaiak! Batez ere, urteko igandeetan gertatu ohi denez, bata bestearen argitzaile bezala irakurtzen direnean.

Gaurko lehen irakurgaia jakinduriaz mintzo zaigu, bereizmenaz. Ebanjelioaren araberako jakinduria hau ez da ezagutza-multzo bat, baizik eta Jainkoaren dohainak sumatzeko gaitasuna da, garrantzizkoa dena eta ez

dena bereizteko gaitasuna. Salomonek ez du eskatu buru adimentsu bat, baizik «bihotz jakintsu eta adimentsua».

Eta jakinduria hori dute biek: bai landan altxor bat aurkitu eta jokabide inportantea landa hura erostea uste izan duen hark, nahiz eta horretarako duen «guztia» saldu beharra izan duen, bai harribitxi finetan aditua izanik, aurkitu duen harribitxiaren balio berezia sumatzen jakin eta, hura erosteko, duen «guztia» saltzea erabaki duen hark. Benetan inporta duena bereiztea eta uko egitea gutxiago balio duenari: horra benetako jakinduria. Nola landako pertsonak, hala harribitxiaren adituak, «aurkitu» egin dituzte biek balio duten altxorrak: bizitzak begi aurrean ipini dizkien zerbait dira. Baloratzea eta ukatzen jakitea da jakinduria.

Urteko 17. astea.

Astelehena.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA (Loiola 1491 – Erroma 1556), *apaiza, fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria).*

§ Deuteronomio liburutik 30,15-20.

Jauna mintzatu zitzaion herriari Moisesen ahoz: «Begira, bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut gaur aurrean. Aditzen badituzu gaur ematen dizkizudan aginduak, Jauna zeure Jainkoa maitatuz, haren bidetik ibiliz, eta haren aginduak, erabakiak eta esanak betez, biziko zara eta ugarituko, eta bedeinkatuko zaitu Jaunak zeure Jainkoak, jabe izateko sartuko zaren lurraldean. Baina zure bihotza okertzen bada, aditzen ez baduzu eta zeure burua liluratzen uzten baduzu, jainko arrotzei belauna makurtzen badiezu eta haiei zerbitzu egiten, gaurtik esaten dizut, nahitaez hondatuko zarela, eta ez duzula luzaro iraungo, Jordan igarota menperatzera zoazen lurraldean. Zeru-lurrak deitzen ditut gaur testigu: bizia eta heriotza, bedeinkapena eta madarikapena jartzen dizkizuedala aurrean. Zuk eta zure ondorengoek bizi nahi baduzue, aukera ezazue bizia, Jauna zure Jainkoa maitatuz, haren esana adituz, eta hari loturik; hura baita zure bizia eta zure egunen luzagarria, eta biziko zara Jaunak zure guraso Abrahami, Isaaki, eta Jakobi emango ziela hitzeman zien lurraldean».

[Sal 1: Zorionekoa Jainkoaren legea gau eta egun hausnartzen duena.]

§ San Paulok 1 Timoteori 1,12-17.

Anaia maite: Eskerrak ematen dizkiot Kristo Jesus gure Jaunari; izan ere, gai egin ninduen, niregan ustea izan zuen eta eginkizun hau nire eskuetan jarri; nahiz eta ni hasiera batean

biraolari izan, erasotzaile eta laidogile. Jauna, ordea, errukitu zitzaidan, sinesgabea izanik, ezjakinez egiten bainuen egiten nuena. Eta Jainkoak gainezka isuri zuen bere grazia niregana, sinesmena eta kristau-maitasuna emanaz. Benetako hitza da eta erabat onartzekoa: Jesu Kristo bekataria salbatzera etorri zela lurrera, eta hauetan aurrenekoa naiz ni. Horregatik iritsi nuen errukia, Jesu Kristok nigan erakuts zezan, lehenengo, bere bihotz handia, eta eredu izan nendin harengan sinetsi eta betiko bizitza iritsiko dutenentzat. Gizaldien Erregeari, Jainko hilezkor, ikusezin eta bakarrari, aintza eta omena gizaldi eta gizaldietan. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,18-26.

Jesus bakardadean otoitzean ari zen batean, ikasleak bildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «ni nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek, Joan Bataiatzailea; beste batzuek, Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Hark orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias». Baina Jesusek inori ez esateko agindu zien zorrotz. Eta esan zien: «Beharrezkoa da Gizonaren Semeak neke handiak jasatea: zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsiko dute eta hilko, baina hirugarren egunean piztuko da». Eta Jesusek esan zien guztiei: «nirekin etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza egunero bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galduko du; baina bere bizia nigatik galduko duenak salbatuko. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu? Norbait nitaz eta nik irakatsiaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatuko da hartaz, bere edertasunean eta Aitaren eta aingeru santuen aintzan etorriko denean».

Ignazio Loiolakoa, erromes «zoroa Kristogatik»: Montserrateko monje hark eman zion izena. Paulo bezala, hau izan zen Ignazio eraldatu zuen esperientzia: «Jainkoak nigan esku betean xahutu du bere onginahia» sumatu izana. Kristorekiko maitasun sutsuak aldarazi zuen Ignazio, eta haren bizitzari errotiko bira eman zion.

Kristoren esperientzia hori izan zuenetik, errotikoa izan zen Ignazioren buru-eskaintza: bere buruari uko, Jesusi hurbilagotik jarraitzeko. «Jau-na barnez ezagutu, gehiago maitatu eta jarrai diezaiodan»: Ignazioren «gehiago» eta «erabat» dira. Boluntarismotik doakotasunera, kanpoko izatetik barneko izatera, eboluzionatuz eta helduz doan «gehiago» bat. Bihotz-zabaltasuna, handia bezain eroapeneko den bihotzaren tasuna.

Eta heldutasunarekin, bihotz-zabaltasunak bereizmenera jo du, ireki egin da, lehen irakurgaiak dioenez; eta ireki, «hautatzeko», bide egiteko, ez norberari gustatuko litzaiokeen bidetik, baizik Jainkoak markatzen duen bidetik; askotan, ez uste izan zen bidetik, ez giza begientzat distiratsua den bidetik, ez itxuraz eginkorra den bidetik. Bereizmena dela medio, bihotz-zabaltasuna apaltasunera irekitzen da, apaltasun egiten da bihotz-zabaltasuna bera.

Kristorekiko irrika, bihotz-zabaltasuna, apaltasuna: horra hiru hitz Ignazio eta haren espiritualitatea nolakotzeko.

LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

R/- Loiolako semea gure zaindaria,
entzun, arren, gure eskaria.

Jainkoaren aurrean izan zaitez

gure lagun,

zerua irabazi dezagun.

1.-lruñan zauriturik,

Loiolan santutu,

Andre Mariaren bitartez

zinen bihotz-berritu,
santu handia,
zerutik iguzu lagun,
gure bihotzak berri ditzagun.-R/.

2.-Zure gazte bizitza
bekataria zen,
ta gero santutasunaren
mendirra igo zinen.

Gure bihotzak
zurekin jaso ditzagun,
Jaunaren aintza bila dezagun.-R/.

ABUZZUA / DAGONILA



Urteko 17. astea.

Asteartea / Martitzena.

San Alfontso Maria Ligorio, *gotzaina eta eliz irakaslea, fundatzailea (erredentoristak).*

[Irteera liburutik 33,7-11;34,5b-9. 28: Jaunak aurpegiz aurpegi hitz egiten zuen Moisesekin. Sal 102: Errukior da Jauna eta gupidatsua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,36-43.

Aldi hartan, jendea agurturik, etxera joan zen Jesus. Orduan, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Argi iezaguzu soroko olo gaiztoaren parabola». Jesusek erantzun zien: «Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da, soroa mundua; hazi ona erreinuko seme-alabak dira; olo gaiztoa, berriz, gaiztoarenak; olo gaiztoa erein duen etsaia deabrua da; uzta munduaren azkena, eta uzta-biltzailak aingeruak. Olo gaiztoa bildu eta suan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenean ere. Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta haren erreinutik bereizi egingo dituzte gaizkileak eta besterentzat gaizpide izan direnak, eta su-labera botako dituzte. Han izango dira negarra eta hortz-karraska! Orduan, zintzoek eguzkiak bezala egingo dute distira, beren Aitarren erreinuan. Belarririk duenak entzun beza».

Gaurko ebanjelioa pazientziaz eta astiaz mintzo zaigu. Asti horrek guretzat gauza bat esan nahi du eta era jakin batean neurtzen dugu; Jainkoaren astiaz hitz egitea, berriz, gutxienez zehaztasun-falta bat da; eta beste neurri batzuk ditu. Dena den, bizitzako eskarmentuak ondo asko adierazten digu zein kaltegarria izaten den presaka ibiltzea geure iritziak moldatzean eta zein kaltegarria izaten den presaka ibiltzea beste pertsona batzuei laguntza ematean; are gehiago, ahulago eta hauskorrago diren heinean. Ez genuke alferrik jardungo, soro-jabeari beraren pazientzia pixka bat eskatuko bagenio.

Urteko 17. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

Aingeruen Andre Maria.

San Eusebio Vercelli-koa, *gotzaina*.

San Pedro Julian Eymard, *apaiza, fundatzailea*
(*Sakramentu Santuaren Apaizak*).

San Pedro Fabro, *apaiza*.

[*Irteera liburutik 34,29-35*: Moisesi begiratzeko ziotenak, beldur ziren harengana hurbiltzeko. *Sal 98*: Santua zara, Jauna, gure Jainkoa.]

† *Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,44-46*.

Aldi hartan, esan zien Jesusek ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin soroan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du eta, pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta soro hurara erosten du.

Era berean, zeruetako erreinuarekin, harri bitxi bila dabilen merkatariarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du.

«**P**oz-pozik»: gauzarik hobena aurkitu duenaren poza. Bihotzeko poza, galezina, barnekoa, kutsagarria... Poza, Ignazioren lagun izan zen San Pedro Fabrok, bidaiari eta erromesak, bere bidean kutsatu ohi zuena. Poza, hainbat jende Jesusekin topo egitera eraman izan duena; jarraitzearen bidera eragin izan dien poza. Bokazio-kanpainarik hobena Jesusi jarraitzen diotenen poza da. Poz hori bizi duzunean, neke txikia sentitzen duzu edozer gauza saltzean, ez da luzatzen egin behar dena egiten... Poza, norberaren bizitzan Jauna presente dagoenaren seinalea.

Urteko 17. astea.

Osteguna / Eguena.

Santa Candida Maria Jesusena (Andoain 1845–Salamanca 1912), *fundatzailea (Jesusen Alabak)*.

San Pedro Osmakoa, *gotzaina*.

Santa Lidia, *martiria*.

[**Irteera liburutik 40,16-21.34-38:** Lainoak estali zuen baztar-txabola, eta Jaunaren aintzak bete santutegia. **Sal 83:** Zure egoitza, gudari-taldeen Jauna, bai maitagarri dela.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,47-53.**

Aldi hartan, esan zion Jesusek jendeari: Era berean, zeruetako erreinuarekin itsasora bota eta mota guztietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. Beterik dagoenean, bazterrera ateratzen dute eta, eseririk, onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da munduaren azkenean: aingeruak etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereizi egingo dituzte eta su-labera botako. Han izango dira negarra eta hortz-karraska!» Jesusek galdetu zien ikasleei: «Ulertu al duzue hau guztia?» «Bai», erantzun zioten. Eta Jesussek: «Beraz, zeruetako erreinuko ikasle egin den lege-maisua, bere altxorretik zahar eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da».

Jesusek, parabola hauek amaitu zituenean, alde egin zuen handik.

«**A**ldiaren azkenean...»: orduan izango da behin betiko auzia, Jainkoari bakarrik dagokion auzia: «aingeruak irtengo dira». Guk ahaleginak egiten ditugu egoerak juzkatzen eta, batez ere, pertsonak, eta garaia baino lehen, oker bikoitza eginez: batetik, ez dago-kigun ahalmena egozten diogu geure buruari; bestetik, garaia baino lehen juzkatzen dugu. Zenbat bider ez ote gara erratu pertsonak eta

egoerak presaka epaitzean! Eta zenbat bider ez ote dugu sentitu eta jasan, gu geu presaka eta zuzengabeki ginela epaituak! Erratzen badugu, gure juzkuak itxurazko gauzatan oinarritzen ditugulako izaten da; baina egiazko auziak, Jainkoarenak, bihotzari begiratzen dio.

[Levitarrak liburutik 23,1.4-11.15-16.27.34b-37: Jaunaren jaietan batzar santuak egingo dituzue. **Sal 80:** Goratu dezagun geure indarra dugun Jainkoa.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,54-58.**

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen eta irakasten ari zitzaizen sinagogan. Jendeak, harriturik, honela zioen: «Nondik ditu honek horrelako jakinduria eta nondik mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotzaren semea? Honen amak ez al du izena Maria, eta honen anaiek Santiago, Jose, Simon eta Judas? Eta honen arrebak ez al dira gure artean bizi? Nondik du, beraz, honek hori guztia?» Eta ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik». Eta, haien sinesgogorkeriagatik, ez zuen han miraririk asko egin.

«**A**rotzaren semea...»: horrela ezagutzen dute Jesus bere herritarrek. Gizakundearen dinamika da: «behetik» salbatzen du Jesusek, hurbiletik, gertutik... Eta ez giza mesianismoek bezala, sasi-mesianismoek alegia: hauek beti gaintetik jokatu behar izaten dute eta beraiei ohore egiteko eskatzen. Bistan da, eta gaurko ebanjelio hau frogatzen du: «behetik» salbatu nahi izateak bere arriskuak ditu: funtsean, aintzat hartua ez izatekoa, mespretxatua izatekoa: «federik ez zuten». Eta arrisku horrekin, zaurgarri (zaurigarri) izatekoa: ukatua eta desegina izatekoa sasi-profetatzen emanez, esaten duena gustukoa ez denean.

Urteko 17. astea.
Larunbata / Zapatua.

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea Erroman.
Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre
Maria (Ikusi beheraxeago Elurretakoaren Meza).

[Levitarrak liburutik 25,1.8-17: Jubileu urtean, bakoitza lehen bereak zituenen jabe egingo da berriro. Sal 66: Ene Jainko, ospa zaitzatela herriek, ospa zaitzatela herri guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14,1-12.

Aldi hartan, Jesusen berri jakin zuen Herodes Galileako gobernariak, eta esan zien bere zerbitzariari: «Joan Bataiatzailea da! Hildakoen artetik piztu da, eta horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori». Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta, loturik, kartzelan sartu zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Filiporen emaztea zen Herodias. Joanek esaten zion Herodesi: «Ez zaizu zilegi emazte hori edukitzea». Herodesek hil egin nahi zuen, baina jendearen beldur zen, profetatzat baitzuten denek. Baina Herodesen urtebetetzean, Herodiasen alabak dantzan egin zuen guztien aurrean eta atsegin izan zitzaion Herodesi. Hargatik, eskatu ahala guztia emango ziola agindu zion neskatxari zin eginenez. Neskatxak, bere amaren aholkuari jarraituz, esan zion Herodesi: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea; baina mahai-kideen aurrean egindako zinagatik, eskatua emateko agindu zuen, eta Joani lepoa moztu zioten kartzelan. Azpilean burua ekarri eta neskatxari eman zioten, eta neskatxak amari.

Joanen ikasleek haren gorpua jasotzera etorri eta lur eman zioten; gero, Jesusi berri ematera joan ziren.

Ebanjelioak Herodesez egin duen argazkia biziki latza da. Irizpiderik gabekotzat aurkeztu du, jendearen iritziazen arabera jokatzeko duen gizontzat: «hiltzea agindu nahi zuen, baina beldurra zion jendea-ri»; «erregeak sentitu zuen, baina zinagatik eta gonbidatuengatik... agindu zuen Joan lepo egiteko». Batean eta bestean, ondo agertzea da kontua. Garai hartako munduaren bertsioa da: iritzien eta inkesten arabera erabakitzen da... Baina, joka dezagun jator: jokabide hori ez da politikoena edo agintariena bakarrik: zenbat aldiz erortzen gara gu geu ere inkoherentzian, ondo agertzeagatik, harrokeriaz!

[Elurretako Andre Mariaren meza. Zakarias 2,1-13: Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu eta! Apokalipsia 21,1-5a: Jerusalem berria ikusi nuen, bere senargaiarentzat apainduta-ko andregai bezala. Sal: Judit 13: Zugan du gure herriak bere edertasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesus jendeari hizketan ari zitzaiola, jende arteko emakume batek, deiadar batean, esan zuen: «Zorionekoa, zu ekarri zintuen sabela eta bularra eman zizun emakumea!» Baina Jesusek esan zuen: «Zorionekoak, bai, Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

Andre Maria Zuriaren omenezko ospakizunak oso aspalditik datoz, Gasteiz hiriburuko zaindari izendatu baino askoz lehenagotik. 1883. urte arte, iraileko lehen astean egiten ziren ospakizunak, «Gasteizko Jaiak» izenpean. 1884. urtean, abuztuan hasi ziren ospatzen, era ofizialean, Ama Zuriaren omenez. Elurretako Andre Maria izena ere ematen zaio. Azkenean, abuztuaren 5ean finkatu zen haren festaburua egutegi liturgikoan.

§ Daniel Profetaren liburutik 7,9-10.13-14.

Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen.

Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi!

Haren aulkia eta gurpilak
sugar kiskalgarri!

Suzko ibai bat

ateratzen zen haren aurretik.

Jendetza izugarria zuen zerbitzari,

milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik.

Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak. Oraindik begira nengo, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruetako hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zizkieten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzen zuen.

Haren agintea betierekoa,

ez da inoiz ere bukatuko;

haren erregetza

ez da inoiz hondatuko.

[Sal 96: Errege da Jauna, Goi-goiko, lur guztiaren gainetik,]

§ San Pedro 2 P 1,16-19.

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jauna ahalmenezko etorriko den egunari buruz hitz egin genizuenean, ez ginen oinarritu irudipenezko ipuinetan, geure esperientzian baizik, geure be-

giz ikusi baikenuen haren handitasuna. Jesusek bere Aita Jainkoagandik hartu zituen ohorea eta aintza, honela esan baitzion Jainkoaren aintza bikainetik etorritako mintzoak: «Hau da nire Semea, nire maitea; honengan dut neure atsegina». Guk geuk entzun genuen zerutik etorritako mintzo hori, Berarekin mendi santuan ginela. Badugu profeten hitza ere, hitz guztiz sendoa, eta zuek ederki egiten duzue hitz horri adi-adi egonez: toki ilunean argi egiten duen kriseilua bezala da zuentzat, eguna zabaldu eta goizeko izarra zuen bihotzetan jaiki arte.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17,1-9.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek Berekin Pedro, Santiago eta honen anaia Joan eta mendi garai batera eraman zituen aparte. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean: aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain zuri. Hartan, Moises eta Elias agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan. Orduan, Pedrok esan zion Jesusi: «Jauna, bai ederki gaudela hemen! Nahi baduzu, hiru txabola egingo ditut: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat». Hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta ahots batek esan zuen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea, berau dut atsegin. Entzuiozue». Hori entzutean, ahuspez lurrera erori ziren ikasleak, beldurraren beldurrez. Hurbildu zitzaion Jesus, ukitu eta esan zien: «Jaiki zaitetze; ez izan beldurrik». Begiak jatorik, Jesus bakarrik ikusi zuten, beste inor ez.

Menditik behera jaisterakoan, Jesusek agindu zien: «Ez esan inori ikusi duzuen hau, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte».

«**H**au ene Semea da, maitea, nire kutuna. Entzun berari». Beharrezko ohar-deia ikasleentzat, eta beharrezko deia guretzat ere. Behin betiko hitza entzun eta onartzeko gonbita da, Jainkoak mundu honetara bidali duen biziaren Hitza, alegia, Moisesek eta Eliasek espero izan zuten eta prestatu zuten Hitza.

Antzaldatzearen lekuko izan direnei berei ere kostatuko zaie Hitz hori onartzea, berek giza bidez espero dutenaren kontra doanean. Antzaldatzearen zuzeneko lekuko izan diren arren, Pedro kontra atera da Hitz hori sufrimenduan eta gurutzean bizia emateaz mintzo denean; Santiagok eta Joanek, berriz, beren logikari lotu zaizkio: lehen postuak nahi dituzte, giza erreinuko pribilegioa.

Guk sinesten dugu Jesusen Piztueran. Halere, baditugu haren hitzak, sinestea eta onartzea kostatzen zaizkigunak. Azken batean, apostoluen tzat gogorrak ziren hitz berak kostatzen zaigu geure egitea: gurutzea, bizia eskaintzea, buru-eskaintza, zerbitzua, apaltasuna... Kostatu bazaigu, ezkortzat ematen ditugulako da. Geure bihotzean dei hura entzun beharra dugu: «Jaiki zaitezte, ez beldur izan». Eta ez beldur izan: ez beldur izan, Jesusi jarraitzea bizi beterako bidea delako, edozein giza itxaropen baino harago.

Urteko 18. astea.

Astelehena.

San Sixto II.a, *aita santua* eta lagunak, *martiriak*.
San Kaietano, *apaiza*.

[Zenbakiak liburutik 11,4b-15: Nik bakarrik ezin dut eram herri honen guztiaren zama. Sal 80: Egin pozez oihu, laguntzaile dugun Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14,13-21.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen heriotzaren berri jakitean, Jesus bazter batera joan zen bera bakarrik txalupaz. Baina ohartu zen jendea eta oinez jarraitu zion herrietatik. Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen eta gaixoak sendatu zizkien. Ilunabarrean, ikasleak hurbildu eta esan zioten: «Leku bazterra da hau eta orduak aurrera doaz. Bidal ezazu jendea, auzoetara joan eta jatekoa eros dezan». Jesusek esan zien: «Ez dute zertan joan; emaezue zeuek jaten». Haiek, orduan: «Ez dugu hemen bost ogi eta bi arrain besterik». Eta Jesusek: «Ekarri hona». Jendeari belar gainean esertzeko agindu ondoren, hartu zituen bost ogiak eta bi arrainak eta, begiak zerura jasorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Asetzeraino jan zuten guztiek, eta gelditutako hondarrekin hamabi saski bete bildu zituzten. Bost mila gizon inguru ziren jan zutenak, emakumeak eta haurrak aparte.

«A gur esaiozu jendetzari...»: ikasleen ahoan aski arrazoizkoa ematen duen esaldia da: asko dira eta guk ezer gutxi daukagu. Zoritxarrez, gure mundu honetan eta gure aldi honetan entzuten eta errepikatzen den esaldia da. Gure ahoan ez da garai hartan bezain arrazoizkoa: asko daukagu, baina ez dugu partekatu nahi; ez dugu bizi

nahi zerbait okertxoago beste batzuk askoz hobeto bizi daitezten. Harritzeko gauza (ala ez?): ongizate handiagoa eta egoismoa are handiagoa. Ba ote honek guztiak aterabiderik? Teknikoki, baietz esaten digute. Giza mailan? Korapilatuagoa, ematen duenez. Nola bihur ditzakegu bihotz axolagabeak bihotz gupidatsu?

[Zenbakiak liburutik 12,1-13: Moises ez da beste profetak bezalako: nolaz ausartu zarete beraren kontra gaizki esaten? Sal 50: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14,22-36.

Jendea ase ondoren, Jesusek bere ikasleak ontzian sarrarazi zituen eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, Berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali eta gero, mendira igo zen Jesus bakarrik, otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik. Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihoan, olatuek astindua, haizea kontra baitzuen. Goizaldera, Jesus haiengana joan zen ur gainean oinez. Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, ikaratu egin ziren, mamuren bat zelakoan, eta beldurraren beldurrez deiadarka hasi ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Neu naiz; ez izan beldurrik!» Orduan Pedrok esan zion: «Jauna, benetan zeu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko». Jesusek erantzun: «Zatoz!» Pedro ontzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion eta, urperatzen hasi zelarik, deiadar egin zuen: «Jauna, salba nazazu!» Berehala Jesusek, eskua eman eta heldu egin zion, esanez: «Sinesmen gutxiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?» Ontzira igo zirenean, haizea gelditu egin zen. Eta ontzian zeudenak Jesusen aurrean ahuspez jarri ziren, esanez: «Egiaz Jainkoaren Semea zara zu!» Itsasoa igaro ondoren, Genesareten iritsi ziren lehorra. Bertakoek, Jesus ezagutu zutenean, inguruko lurralde guztian zabaldu zuten berria, eta

gaixo guztiak eraman zizkioten. Soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

«**N**olatan zure duda hori?» Pentsa nezake, esaldi hau pena-pixka batekin esango zuela Jesusek. «Nolatan zure duda hori?»: ikusia duzun guztiaren ondoren, zugatik egina dudan guztiaren ondoren. Urrunago joan gabe, ikusi ondoren ogiak ugaltu egiten zirela zure eskuetan edota ur gainean ibili ondoren... Min ematen digu, norbaiten alde atera eta mila eratan berari geure samurtasuna behin eta berriz agertu ondoren, gutaz dudak dituela ikusteak. «Nolatan zure duda hori?»: Jesusek guri ere, agian askotan, esan ahal izan digu esaldia da.

Urteko 18. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein),
erlijiosa eta martiria, Europako Zaindaria.

[Oseas 2,16b.17b.21-22: Neure emazte egingo zaitut leialtasun iraunkorrez. Sal 44: Entzun, alaba! Zaude erne eta adi!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,1-13.

Aldi hartan parabola hau esan zien Jesusek ikasleei: Jainkoaren erregetzarekin, kriseiluak hartu eta senar ezkonberriari bidera irten zitzaizkion hamar neskatzekin bezala gertatzen da. Neskatzetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senarrak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen. Gauerdian oihu bat izan zen: «Hemen da senarra! Irten bidera!» Jaiki ziren denak eta beren kriseiluak pres-tatu zituzten. Orduan, zentzugabeek zentzudunei esan zieten: «Emaguzue olio pixka bat, kriseiluak itzaltzera doazkigu eta». Zentzudunek erantzun zieten: «Ea ez dugun nahikoa denontzat; hobe duzue badaezpada dendara joan eta erosi». Baina, eroatera joanak zirelarik, senarra iritsi zen, eta prest zeudenak ezteietara sartu ziren berarekin. Eta atea itxi zuten. Irtsi ziren, azkenik, beste neskatzak ere eta dei egin zuten: «Jauna, jauna! Zabaldu!» Baina jaunak erantzun zien: «Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten». Zain egon, beraz, ez baitakizue, ez egunik, ez ordurik.

Gaurko parabola honek agerian ipintzen du ebanjelioak behin eta berriz gogoratzen diguna: Jainkoaren aldia aldi luzea dela, eta ez epe laburrekoa. Gauzak egiteko duen moduan, jokatzeko... Kontraste handia du Jainkoarenak gure epe laburrekoarekin, gauza guztietan:

jardutean, juzkatzean, prozesuak korrika bukatu nahi izatean... Zain egon behar denerako hornitu egin behar izaten da! Hornitu, zertaz? Fedez, animoz, pazientziaz... Kontua ez da berehalakoari erantzuna ematea bakarrik, baizik eta zain egon behar den aldirako prestatu egin behar da.

§ San Paulok 2 Korintoarrei 9,6-10.

Izan kontuan urri ereiten duenak urri biltzen duela, eta oparo ereiten duenak bildu ere oparo biltzen. Eman beza bakoitzak bere kontzientzian erabaki duena, baina ez gogo txarrez eta behartuta bezala, alai ematen duena maite baitu Jainkoak. Eta ahaltsua da Jainkoa era guztietako dohainak zuei oparo emateko, zeuentzat denetik nahikoa izanik, egintza on guztietarako sobera izan dezazuen, Liburu Santuak dioen bezala: *Esku be-tean ematen die behartsuei, haren eskuzabaltasunak betiko dirau*. Ereiteko hazia eta jateko ogia ematen dituen Jainkoak emango dizue hazia, ugarituko du zuek ereindakoa eta oparo gehituko zuen eskuzabaltasunaren emaitzak.

[Sal 111: Zorionekoa, errukitu eta ematen duen gizakia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,24-26.

Aldi hartan esan zien Jesusek ikasleei: Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du.

Bai hitz eder eta ebanjelikoa: «emankorra»! Emankortasuna, bizia sortzeko gaitasuna da, eta emankortasun hori ez dago lotua egiteari bakarrik, gauza gehiago edo gutxiari egiteari, garrantzi handia-

goko eta gutxiagokoari. Ebanjelioak, beste behin, era desberdinetan, Jesusi eta Jesusek gauzak egiteko duen erari atxikirik egotearekin lotzen du emankortasuna. Zehazki, gaurko ebanjelioak emankortasuna nork bere burua emateari, buru-eskaintzari, zerbitzuari, ondorio guztiekin, lotzen dio... Jokatzeko era hori emankorra da, fruitu-emailea... , gutxi asko galkor izan ohi diren giza emaitzak baino harago.

[Deuteronomio liburutik 4,32-40: Zure arbasoak maite izan zituen, eta haien jatorria aukeratu zuen. **Sal 76:** Oroitzen naiz Jainkoak eginez.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,24-28.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu? Eta zer eman dezake gizakiak berriro bizia eskuratzeko? Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruekin, eta orduan bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio. Egia diotsuet: hemen direnetako batzuk ez dira hilko, Gizonaren Semea errege bezala etortzen ikusi arte».

Egiazko bidea Bizirako, Jesusi jarraitzea da: gaurko ebanjelioko «etor zaitetz nirekin» delakoa. Alabaina, harekin joate horrek, geure buruari uko egitea esan nahi du askotan, guregan den azalekoenari eta egoistari uko egitea, eta gurutzea onartzea: hari jarraitzeak berekin duen kostua da hori. Bere nekea du, jakina! Baina horretan geure bizia dugu jokoan: salbatu ala galdu. Inork ez digu eskatu Jesusek bere jarraipenean eskatzen digun adinako erradikaltasunik, baina inork ezin eman izango digu inoiz ere Jesusek agintzen diguna. Eta bidearen zailtasuna adieraztean egiatia den bezala, egiatia da bere promesak egitean ere.

Urteko 18. astea.
Larunbata / Zapatua.

Santa Joana Frantziska Chantalekoa, *erlijiosa, fundatzailea Salesko Frantziskorekin batean (Ahizpa Bisitarien Ordena)*

[Deuteronomio liburutik 6,4-13: Maita ezazu Jauna bihotz-bihotzez. Sal 17: Maite zaitut, Jauna, zu zaitut neure gotorleku.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 14-20.

Aldi hartan, gizon bat hurbildu zitzaion Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Jauna, erruki zakizkio nire semeari; epileptikoa da eta gorriak ikusten ari da. Maiz erortzen da sura eta urera. Ekarri diet zure ikasleei, baina ezin izan dute sendatu».

Jesusek esan zion: «Hau gizaldi sinesgogor eta makurra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarri mutila hona». Jesusek gogor eraso zion deabruari eta atera egin zen mutilagandik; ordu hartatik sendatua gelditu zen.

Ikasleek, Jesusengana hurbildurik, bakarrean galdetu zioten: «Eta guk, zergatik ezin izan dugu bota deabrua?» Jesusek erantzun zion: «Zuen sinesmena eskasa delako. Egia diotsuet: sinesmena bazenute, mostaza-hazia bezain txikia izanik ere, mendiari "aldatu hemendik hara" esanez gero, aldatu egingo litzateke; ez litzateke zuentzat ezinezkorik izango».

Jesusek ebanjelio honetan fedearen balioa defenditu du, egundoko indarrez gainera: norberak sinesten duenaren alde, alegia, eta azkeneraino jokatzea. Jainkoagan sinesteak, bizitzako zailtasunei eta kontraktotasunei aurre egiteko orduan, adorea ematen digu guztiak garaitzeko, baita geuk espero genuena baino harago joateko ere. Jainkoak bizitzan eta historian ari duen egintzari dagokionez fede sakona eta eginkorra izatea da adorea ematen diguna borroka egiteko, bai aldaketa pertsonala gauzatzeko, bai mendiak bezain mugiezineko direla ematen duten errealitateak eraldatzeko.

Urteko 19. astea.
Igandea / Domeka.

San Pontziano, 18. *Aita Santua*, eta San Hipolito, *apaiza, martiriak*.

Felipe Jesusena Munarriz (Allo 1875 – Barbas-
tro 1936), dohatsua, eta lagunak, *martiriak*.

§ 1 Erregeak 19,9a.11-13a.

Egun haietan, Elias Horebera, Jainkoaren mendira, eto-
rri eta hango leize-zulo batean gelditu zen. Jaunak esan zion:
«Atera eta zaude zutik mendian, Jaunaren aurrean; Jauna iga-
roko da».

Jaunaren aurretik haize zakar indartsuak jo zuen, mendiak
urratzen eta harkaitzak zartatzen zituela; baina Jauna ez ze-
goen haizean. Haizearen ondoren, lurrikara izan zen; baina Jau-
na ez zegoen lurrikaran. Lurrikararen ondoren sua; baina Jauna
ez zegoen suan. Suaren ondoren haizekirri fin baten hotsa en-
tzun zuenean, Eliasek aurpegia estali zuen soingainekoaz; gero,
irten eta zutik gelditu zen leizearen aurrean.

[Ageriezaguzu, Jauna, zeure errukia, eta emaguzu zeure
salbamena.]

§ San Paulok Erromatarrei 9,1-5

Senideok: Egia diot —Kristo dut lekuko—; ez diot gezurrik,
neure kontzientziak ere, Espiritu Santuak argituta, hala aitort-
zen dit: handia da nire nahigabea, etengabea nire bihotzaren
mina.

Ni neu madarikatua, Kristogandik aldendua, izatea ere
onartuko nuke, baldin eta hori nire odoleko senideen onerako
izango balitz. Israelen ondorengoak dira eta Jainkoak seme-a-
labatzat hartu zituen; beraiek dituzte Jainkoaren presentzia
aintzatsua, itunak, Legea, kultua eta agintzariak; beraienak

dira arbasoak eta, giza jatorriari dagokionez, beraiengandik dator Kristo, gauza guztien gainetik dagoen Jainkoa. Bedeinkatua izan bedi mendeetan. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 22-33.

Jendea ase ondoren, Jesusek bere ikasleak ontzian sarrarazi zituen eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali eta gero, mendira igo zen Jesus bakarrik, otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik.

Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihoan, olatuek astindua, haizea kontra baitzuen.

Goizaldera, Jesus haiengana joan zen ur gainean oinez. Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, ikaratu egin ziren, mamuren bat zelakoan, eta beldurraren beldurrez deiadarka hasi ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Neu naiz; ez izan beldurrik!» Orduan Pedrok esan zion: «Jauna, benetan zeu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko». Jesusek erantzun: «Zatoz!» Pedro ontzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion eta, urperatzen hasi zelarik, deiadar egin zuen: «Jauna, salba nazazu!» Berehala Jesusek, eskua eman eta heldu egin zion, esanez: «Sinesmen gutxiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?»

Ontzira igo zirenean, haizea gelditu egin zen. Eta ontzian zeudenak Jesusen aurrean ahuspez jarri ziren, esanez: «Egiaz Jainkoaren Semea zara zu!»

«**P**edro ontzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen ur gainean oinez»... Ur gainean ibiltze hori irudi eder bat da: bizitzan hainbat aldiz lur gaina ez zen zerbaiten gainean egin izan dugun ibilia islatzen du: segurua ez zen zerbait zapaldu dugula, baina hondoratu gabe, Jaunak dei egin dugulako eta geure begiak harengan genitue-

lako. Begiak harengandik kendu izan ditugunean beldurra sartu izan zaigu, eta beldurrak hondora garamatza beti.

«Nolatan zure duda hori?»... Zergatik gure dudak? Eta duda izaten jarraitzen dugu, dena dela: batez ere, geure bizitzan Jaunaren presentzia eta ardura behin eta berriz esperimendu izan dugun arren. Haizekirria bezalako presentzia gozoa, baina benetakoa. Hondoratzen gaituzte, ez bizitzako zailtasunek, baizik geure beldurrak eta duda-mudak, geure konfiantza geure indarrean ezarri izanak edota geure baliabideetan, haren presentzia baino gehiago.

Bistan da, geure bizitzako itsasbidean ezin espero dugula haizea beti alde izatea, eta arraunean jarraitu beharko dugula kontrako haizearekin. Aldeko nahiz kontrako haizearekin, hura presente egiten zaigu geure itsasbidean. Beldurrak ez gaitzala eraman mamuak ikustera...

[Deuteronomio liburutik 10,12-22: Erdaindu zeuen bihotza. Maita arrotza, zuek ere arrotzak izan zineten eta. Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17,22-27.

Aldi hartan, Galilean zehar zebiltzala, esan zien Jesusek ikasleei: «Gizonaren Semea gizakien eskuetara emango dute; hil egingo dute, baina hirugarren egunean piztu egingo da». Ikasleak oso nahigabeturik gelditu ziren.

Kafarnaumera iritsi zirenean, tenplurako zerga biltzen zutenek Pedrorengana joan eta esan zioten: «Zuen maisuak ez al du tenplurako zerga ordaintzen?» «Bai», erantzun zien.

Pedro etxeratu zenean, Jesusek aurrea hartu zion, esanez: «Zer deritzozu, Simon? Munduko erregeek zeinengandik hartzen dituzte zergak edo kontribuzioak, etxeoengandik ala arrotzengandik?» Pedrok erantzun zion: «Arrotzengandik». Jesusek, orduan: «Etxekoak libre daude, beraz. Halaz guztiz ere, inori zeresanik ez emateko, zoaz itsasora, bota amua eta hartu lehenengo aterako duzun arraina; ireki iezaiozu ahoa, eta biren zerga ordaintzeko dirua aurkituko duzu. Hartu eta ordaindu zeure eta bioi dagokiguna».

Ebanjelioa, geure hizkuntzara eta gorabeheratara itzultzean, esaten ari zaigu, geure fedea, gauza «tenporalen» balioa erlatibizatzeraz eragiten badigu ere, ez gaituela libratzen mundu honetako hiritar izatetik. Hiritar: geure eskubideekin, geure konpromisoekin eta geure betebeharrekin. Geure zervertza «harago» jarria dugu, baina «hemen eta orain» hauek dira fedea bizitzeko lekua eta aldia, eta horietan ipini beharko ditugu jokoan amesten ditugun balio iraunkorrak. Fedearen eta ebanjelioaren izenean, ezin «ihes egin» diegu mundu honetako geure erantzukizunei.

Urteko 19. astea.

Asteartea / Martitzena.

ANDRE MARIAREN ZERURATZEA.

Ondarroan, Antiguako Andra Maria.

Durangon, Uribarriko Andra Maria.

San Tarsizio, *martiria*.

§ Apokalipsia liburutik 11,19a; 12,1.3-6a.10ab.

Ireki zen zeruan dagoen Jainkoaren etxea, eta haren barruan itun-kutxa agertu zen. Ikuskari handi bat agertu zen zeruan: emakume bat, eguzkiz jantzia eta ilargia oinpeko, eta hamabi izarreko koroa buruan. Beste ikuskari bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat; zazpi buru eta hamar adarrekoa, eta buruetan zazpi koroa zituena. Haren isatsak zeruko izarren hirutik bat arrastaka zeraman eta lurrera bota zuen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko. Emakumeak izan zuen semea, herri guztiak burdin zigorrez zuzenduko dituen semea; seme hori hartu eta Jainkoaren aulkira eraman zuten. Emakumeak, berriz, ihes egin zuen basamortura, Jainkoak prestatutako leku batera. Eta oihu handi bat entzun nuen zerutik: «Orain etorri da salbamena, gure Jainkoaren indarra eta erregetza, eta haren Kristoren ahalmena».

[Sal 44: Erregina, Ofirko urrez apaindurik, zure eskuinean dago zutik.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 15,20-26.

Senideok: Piztu da Kristo hildakoen artetik, lo daudenen lehen fruitu bezala. Izan ere, gizon baten bidez etorri bazen heriotza, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Adamengan guztiak heriotza duten bezala, Kristorengan bi-

zia izango dute guztiek. Baina bakoitzak bere mailan: aurrena Kristok, lehen fruitu bezala; gero, kristau guztiek, hura berriro etortzean. Ondoren, azkenekoek, Kristok Jainko Aitari erreinua itzuliko dioenean, ahalmen, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren. Berak izan behar baitu erregetza, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Heriotza izango da azkenik ezereztuko den etsaia; izan ere, guztiak haren oinazpian ezarri ditu.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera; Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabeti, Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, nire Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!» Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, / pozaren pozez daukat neure barrua; / Jainkoa baita nire salbamena, / ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. / Dohatsu deituko naut gaurdanik gizaldi guztiek, / handiak egin baitizkit Ahalguztidunak: / Santua da haren izena, / eta haren errukia gizaldiz gizaldi, / beldur diotenengana. / Bere besoaren indarra erabili du, / buru-harroak suntsitu ditu; / bota ditu beren aulkitik handikiak, / eta gora jaso ditu ezerezak; / ondasunez bete ditu gose zeudenak, / eta esku-hutsik bidali asko zutenak. / Bere gain hartu du Israel, bere morroia, / errukia gogora zaiola; / gure gurasoei hala zien hitzemaña, / Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Hiru hilabete inguru egon zen Maria Elisabetekin, eta gero etxera joan zen.

Gaurko hau kristau-urte osoko egunik gozagarrienetakoa dugu. Gozamena eta poza, Maria, gure izaerako pertsona bat, baina gu guztion artean hobena, Jainkoak bere aintzara jaso duelako. Maria Jainkoaren ondoan, bere izatearen gorenean, gozatzen ikustea, haren seme-alabon gozamena da: ikusten dugulako, Jainkoak gainezka betetzen dituela bere promesak, eta ez duela utzi saririk gabe Mariaren buru-eskaintza eta mugarik gabeko fideltasuna. Kristau-herri osoak, Eliza osoak, partekatzen du gaur, inoiz baino gehiago, Mariaren kanti-ka hau: «Handiesten du nire arimak Jaunaren handitasuna, pozik dago nire espiritua Jainko neure Salbatzaileagan».

Eta gozamen handi eta unibertsal horri beste gozamen hau gehitzen zaio: Maria ama erregutzaile ikustea Jainkoaren aurrean, geure premia guztietan eta geure miseria guztien gainetik. Zein erregutzaile hoberik Hirutasun Santuaren aurrean Maria baino, zeini Jainkoak ezin baitio ezer ukatu! Maria sentibera da, emakume eta ama denez, gure mugapen guztiekiko, gure desira hondo-hondokoekiko, gure giza estutasun handienekiko... Beti, edozein unetan, esaten ahal diogu: «Andre Maria, Jainkoaren Ama, erregutu ezazu gu bekatariongatik».

[Deuteronomio liburutik 34,1-12: Han hil zen Moises, Jau-nak esan bezala. Ez zen gehiago sortu hura bezalako profetarik. Sal 65: Bedeinkatua Jainkoa, nire arimari bizia eman diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zure senideak bekatu egiten badu, zoaz beragana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, har itzazu zeurekin lagun bat edo bi, auzi oro bi edo hiru lekukoren aitopenaz erabaki behar da eta. Hauei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko.

Benetan diotsuet: zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua.

Beste hau ere esaten dizuet: zuetako bik elkar hartzen badute mundu honetan Jainkoari zerbaite eskatzeko, eman egingo die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han izango naiz Ni beraien erdian».

Gaurko ebanjelioak gai asko aurkeztu dizkigu. Horien guztien artean, bati zor diogu arreta berezia eta beharrezkoa: anai-arreba arteko zentzarazpena; elkarri laguntza emateko era bat da; benetan anai-arreba artekoa izango bada, behin batean Frantzisko aita santuak esan bezala, hiru baldintza bete behar ditu zentzapena egiten duenak: maitasuna, egia eta apaltasuna. Horietako bat falta bada, ez da izango benetako anai-arreba arteko zentzarazpena. Gehiegitan

gertatzen zaigu errazagoa atzetik kritika egitea; horrekin egiten dugun gauza bakarra, geure barnea hustea da; ez diogu laguntzen geure anai-arrebari, eta hau da egin beharrekoa: «zeure anaia / arreba salbatu duzu».

Urteko 19. astea.

Osteguna / Eguena.

Santa Beatriz Silvakoa, *fundatzailea (Kontzepzionista Frantziskotarrak).*

San Eusebio, *aita santua.*

[Josueren liburutik 3,7-10a.11.13-17: Jaunaren elkargo -kutxa zuen aurrean sartuko da Jordanen. Sal 113: Aleluia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,21-19,1.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?» Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-ala-bak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko. Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: "Emadazu astia eta dena ordainduko dizut". Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroiak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-laguna topatu zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: "Ordain iezadak zor didaana". Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: "Emadak astia eta dena ordainduko diat". Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Beste morroiak, gertatua ikusirik, biziro atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten. Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: "Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaalako;

ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitzaz errukitu nintzen bezala?” Eta nagusiak, haserre bizi-tan, borreroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte. Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue».

Hitzaldi hau bukatu zuenean, Galileatik alde egin eta Judea-ko mugetan sartu zen Jesus, Jordanez bestaldera igaroz.

«**Z**azpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz»: Jesusek esapide honekin adierazi nahi duena, ez da kontatu beharreko zenbaki bat, baizik zaindu beharreko jarrera iraunkor bat: barkatzeko jarrera, barkatzailearen izaera. Hori gabe ezinezkoa da giza bizikidetasuna eta ezinezkoa kristau-elkarte bateko bizikidetasuna; izan ere, kristau-elkartea ez da sekula on-onen elkartea, baizik eta, ni neu bezalaxe, barkatuak izan diren bekatarien elkartea. Xume-xume barkatzeko jarrera, sekula ez bestea umiliaraztekoa, baizik galdua den harremana berregiteko jarrera; keinu handiosez neurtzen ez den barkazioa, baizik eta konfiantza egunero itzultzeko jarreraz emana.

Urteko 19. astea.

Ostirala / Barikua.

San Agapito, *martiria*.

Santa Juliana, *martiria*.

San Alberto Hurtado, *apaiza*, eta Manex de Guzman, *dohatsua*.

[Josueren liburutik 24,1-13: Nik hartu nuen Abraham, zuen aita, ibaiaren bestaldetik; Egiptotik atera zintuztedan; lurraldea eman nizuen. Sal 135: Haren maitasuna betikoa baita.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,3-12.

Aldi hartan, fariseu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi eta, zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari bere emaztea edozein arrazoigatik uztea?» Hark erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena? Hasieratik Egileak gizaseme eta emakume egin zituela, alegia, eta esan zuela: "Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta bere emazteari elkartuko zaio, eta biak bat izango dira". Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak uzartu duena, ez beza gizakiak banatu». Haiek galdetu zioten: «Zergatik eman zuen, bada, Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena?» Jesusek erantzun zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek emaztea uzteko baimena; baina hasieran ez zen horrela. Hona Nik esan: bere emaztea uzten duenak —legearen kontra elkartuak ez badira behintzat— eta beste batekin ezkontzen, adulterioa egiten du».

Ikasleek esan zioten orduan: «Horrelakoa bada senar-emazteen arteko lotura, ez du merezi ezkontzea». Jesusek erantzun zien: «Ez dira denak hori onartzeko gai, Jainkoak gaitzen dituenak baizik. Batzuk ez dira ezkontzen jaiotzaz ezin

dutelako; beste batzuk giza eskuz ezinduak izan direlako; beste batzuk, berriz, zeruetako erreinuagatik hala erabaki dutelako. Onar dezakeenak onar beza».

Jainkoarekin eta gainerako jendearekin hartzen diren konpromisoen leialtasuna eta erradikaltasuna ebanjelioan etengabe ageri diren tasunetakoak dira. Dela ezkontza-bizitzan, dela bizitza sagaratuan. Erradikaltasun eta leialtasun horien adibide da Jesusen Lagundiak gaur ospatzen duen santua, San Alberto Hurtado. Konprometitua Jainkoarekin eta konprometitua behartsuekin, Jainkoaren lehenetsi diren horiekin, erabateko buru-eskaintzaraino. Konpromisoa, benetan ebanjelikoa bada, pozik bizi eta eragin ohi da: «Pozik, Jauna, pozik»: horixe zuen bere ikurra San Albertok, lanari eta zailtasunei Jesusetikiko maiteminetik aurre egitean.

Urteko 19. astea.

Larunbata / Zapata.

San Joan Eudes, *apaiza, fundatzailea (eudistak).*

Ezekiel Moreno Santua, *gotzaina (Iruñeko eta Tu-
terako elizbarrutietan).*

[Josueren liburutik 24,14-29: Aukeratu gaur zuek, nor zer-
bitzatu. Sal 15: Zu zara, Jauna, nire ondarea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,13-15.

Aldi hartan, haurrak eraman zizkioten Jesusi, haien gainean eskuak ezarri eta otoitz egin zezan; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Jesusek esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena da-eta zeruetako erreinua». Eta, haurrei eskuak gainean ezarri ondoren, joan egin zen handik.

Jesusen lehentasun «bitxiak»: gaur, haurrak. Inondik ere, haur behartsuak, kaleko haurrak... Ikasleak urduri jarri dira, ezin dute ulertu Jesusen portaera: haurrek zalaparta ateratzen dute, atentzioa galarazten dute, ez zaie zor arretarik, ez aintzat hartzerik, ez baitute ulertzen diskurtsoa eta gogaikarri izaten baitira entzuleentzat... Jesusen lehentasunak, ebanjelioaren lehentasunak, guretzat ere harrigarri eta nahasle izaten dira: geure inguruan jende isila, arretatsua, giza-bidetsua nahi izaten dugu... Halaz guztiz, «horiek bezalako direnentzat da zeruetako erreinua». Zertan dugu txikiago egin beharra? Agian xume izan beharra, onar, bedeinka, eskolatu gaitzaten utziz.

Urteko 20. astea.

Igandea / Domeka.

San Bernardo, *abadea eta eliz irakaslea.*

San Samuel, *Israelen epailea eta profeta.*

§ Isaias Profetaren liburutik 56,1. 6-7

Honela mintzo da Jauna:

«Gorde zuzenbidea, egin justizia, iristear baitago nire salbamena, agertzeaz nire garaipena.

Jaunaren kultu-zerbitzurako, haren izena maitatzeko eta haren morroi izateko, larunbata profanatu gabe gordetzen eta nire itunean leial irauten duten guztiak nire mendi santura ekarriko ditut, eta pozez beteko nire otoitz-etxean; onartuko ditut nire aldare gainean haien erre-opariak eta sakrifizioak; nire etxea otoitz-etxe baita, eta hala deituko dute herri guztiek».

[Sal 66: Jauna, ospa zaitzatela herriek, ospa zaitzatela herri guztiek.]

§ San Paulok Erromatarrei 11,13-15.29-32

Senideok: Zuei, jentiloi, diotsuet: «Jentilen apostolu naizeenez, ospetsu egin nahi dut neure zerbitzu hau, ea neure jatorrikoen jelosia pizten dudan eta horietako batzuen batzuk salbatzen ditudan. Israeldarrak baztertzetik Jainkoarekin baketzea etorri baldin bazaio munduari, zer ote datorke Jainkoak haiek berriro onartzetik? Heriotzatik bizira itzultzea izango litzateke hori!

Behin betikoak dira Jainkoaren dohainak eta deia. Zuek, garai batean Jainkoarekin errebelde zinetenok, orain, israeldarren errebeldiari esker, errukia duzue. Era berean haiek ere: orain errebelde bihurtu dira, zuei egin zaizuen errukiari esker errukia lor dezaten. Jainkoak errebelde izaten utzi baitzien gizon-ema-kume guztiei, denei erruki izateko».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15,21-28.

Aldi hartan, Jesus Tiro eta Sidongo lurraldera aldendu zen. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion: «Jauna, Daviden Semea, erruki zakizkit! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba». Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun. Ikasleak, hurbildurik, erreguka ari zitzaizkion: «Egiozu kasu, eta doala, deiadarka datorkigu-eta atzetik». Jesusek, ordea: «Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak». Baina emakumea, hurbildurik, ahuspez jarri zitzaion, esanez: «Lagun iezadazu, Jauna!» Jesusek, orduan: «Ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea». Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak». Orduan, Jesusek esan zion: «Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzuna». Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba.

Emakumearen fede-etsenplua harrigarria da, merezi du kontentatzea. Fede atxikia, dudarik gabe, alabarekiko maitasunagatik. Fede bat, igarotzen dena, urrunean «hots egitetik», aurrez aurre topo egitera, hurbileko elkarrizketa bihurtuz; lehen mementoan ezer lortu ez arren, atxikia den fedea, apaltasun-jarrera hunkigarriaz. Kanaandar emakume honena, ebanjelioan baztertuek egiten dituzten hainbat eta hainbat otoitzetako bat da, alde eta kontraste nabarmena dutenetako bat gure otoitz antsiazko eta harroekin, eskakizun huts direnekin, Jainkoari apal-apal erregutu ordez, hura mendean hartu nahi dutenekin

Urteko 20. astea.

Astelehena.

San Pio X.a, 257. aita santua.

San Bonoso eta San Masimiano, *martiriak*.

[Epaileen liburutik 2,11-19: Jaunak epaileak sortu zituen, baina haien esanak ere ez zituzten egiten. Sal 105: Oroitu zaitetz nitaz, Jauna, zeure herriari diozun maitasunagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,16-22.

Aldi hartan, gazte batek Jesusengana hurbildu eta esan zion: «Maisu, zer onik egin behar dut, betiko bizia eskuratzeko?» Jesus-ek erantzun zion: «Zergatik galdetzen didazu onari buruz? Jainkoa bakarrik da ona. Betiko bizian sartu nahi baduzu, bete aginduak».

Hark, berriz: «Zein agindu?» Eta Jesusek: «Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, hartu aintzat aita-amak, eta maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala».

Gazteak, orduan: «Hori guztia bete dut; zer falta dut oraindik?» Jesusek erantzun zion: «Gutziz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri».

Hitz hauek entzutean, nahigabeturik joan zen gaztea, ondasun handien jabe baitzen.

«**B**ete dut»: «bete», oso anbigua den hitza da. Jakina, ona eta beharrezkoa da emana duzun hitza betetzea. Alabaina, «betetzeak», Jainkoarekiko eta gizakiekiko harremanei aplikaturik berderen, bi arrisku ditu: batetik, gutxienekoa egite bezala ulertzekoa: «bete dut, ez niri eskatu besterik»; bestetik, betetakoa norberaren merezimenduztat hartzekoa, eta ordaindua izateko eskubidea ematen didan zerbait bezala hartzea: bai ona naizela, betetzen baitut, eta orain zer? Jesusi jarraitzea, elkarrizketa honetan berak adierazi duenez, betetzearen logika baino harago doa.

Urteko 20. astea.

Asteartea / Martitzena.

Andre Maria Birjina Erregina.

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*.

[Andre Mariaren meza: Isaias 9,2-4.6-7. Sal 112,1-2.3-4.5-6.7-8. Jesu Kristoren Ebanjelioa Lukas 1,26-38.]

[Epaileak liburutik 6,11-24a: Gedeon, aska ezazu Israel. Nik bidaltzen zaitut! Sal 84: Bakezkoa da Jaunaren hitza bere herriarentzat.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,23-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Benetan diotsuet: aberatsa nekez sartuko da zeruetako erreinuan. Berriro diotsuet: orratzaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino».

Hitzok entzutean, ikasleek, zeharo harriturik, honela zioten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezkoa da hori, baina Jainkoak dena dezake».

Orduan, Pedrok esan zion: «Hara, guk dena utzi dugu, Zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?»

Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean, Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak eta lurrak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare. Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

«Guk, dena utzi dugu»: baieztapen hau ez genuke egin behar geure errazegi. Zeren «dena» «dena» da, eta ez «ia dena». Duela urte batzuk, jesuita-lagun batek, Marc Vilarrasau-k, gogoeta bikain bat idatzi zuen, titulu honekin: «Fondos reservados» («Fondo gordeak»). Esaten zuen, nor bere burua Jesusi eta gainerakoei ematean, funtsezko aldea ez dagoela «denaren» eta «ezenen» artekoa, baizik «denaren» eta «ia denaren» artekoa. Afektu, gauza, apeta, ohi-tura... ukiezin horiena da aldea; badakigu, makaldu egiten dutela gure jarraipena, baina jarraitzeari erabat utzi gabe. Gaurko ebanjelioak jarraitze osorako laguntza eskatzera animatzen gaitu.

Urteko 20. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

Santa Arrosa Lima-koa, *birjina*.

San Julian Leskar-ekoa, *gotzaina* (*Baionako elizbarrutian*).

San Zakeo Jerusalemekoa, *gotzaina*.

[Epaileak liburutik 9,6-15: «Errege bat izan bedi gure artean» esaten ari zarete, eta Jauna izaki zuen erregea. **Sal 20:** Jauna, erregea zure indarrez pozten da.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,1-16a.**

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Eguneko zilarrezko txanpon batean hizketatu ondoren, mahastira bidali zituen langileak. Goizeko bederatziak aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plazan lan zain ikusirik, esan zien: “Zoazte zuek ere nire mahastira eta ordainduko dizuet bidezko dena”. Eta haiek ere joan egin ziren. Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen. Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, beste batzuk oraindik geldirik aurkiturik, esan zien: “Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?” Haiek erantzun zioten: “Ez gaitu inork lanerako hartu”. Hark, orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”. Iluntzean mahasti-nagusiak esan zion arduradunari: “Deitu langileei, eta emaiuzu bakoitzari bere soldata, azkenekoetatik hasi eta lehenengoetara”. Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaizenean, besteek baino gehiago hartuko zutela uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana hartu zuten.

Orduan, nagusiaren kontra gaizki esaka hasi ziren, eta esan zioten: "Azkeneko hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun guztiko nekea eta beroa jasan dugunokin". Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: "Adis-kide, ez dizut bidegabekeriarik egiten. Ez al ginen zilarrezko txanpon batean hizketatu? Tori dagokizuna eta zoaz. Zuri beste eman nahi diot azkeneko honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala inbidia duzu, ni ona naizelako?"

Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkeneko».

Honetan datza Jainkoaren ontasuna: ez gu saritzean geure merezimenduen arabera, baizik bere samurtasunaren eta gure premien arabera. Jainkoaren jokabide hau arraro samar gertatzen zaigu geuri ere, parabolako lehen ordukoei gertatu zitzaien bezala. Baina horrelakoa da Jainkoa. Jainkoaren ontasunak gainez egiten die beti gure kalkuluei, gure logikari, gure merezimenduei; baina utz diezaiozun Jainkoari Jainko izaten: «Zuk inbidia izan behar al duzu, ni ona naizelako?» Eta are gehiago oraindik: Jaun honen deiaz eta Jaun honen lanean lan egitea bera ere merezi gabekoa da eta egundoko zerbeit, benetako bizi- eta zentzu-erregalua.

§ Apokalipsia liburutik 21,9b-14.

Aingeruak esan zidan: «Zatoz, andregaia erakutsiko dizut, Bildotsaren emaztea». Hartu ninduen aingeruak, eta espiritu z mendi handi goi batera eraman ninduen, eta Jerusalem hiri santua erakutsi zidan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintza berekin zuela. Haren distira harribitxi baten antzekoa zen, kristal argizko jaspe-harriaren antzekoa. Harresi handi eta goi bat zuen, hamabi aterekin, eta ateetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatzita: israeldarren leinuen izenak. Sortaldean hiru ate, iparraldean hiru ate, hegoaldean hiru ate eta sartaldean hiru ate. Hiriaren harresiak hamabi oinarri zituen, eta hauetan hamabi izen: Bildotsaren hamabi apostoluenak.

[Sal 144: Ezagutarazi dezatela zure zintzoek, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,45-51.

Aldi hartan, Felipek Natanael aurkitu eta esan zion: «Moisesek Legean eta Profetek aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joseren semea, nazaretarra». Natanaelek erantzun: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?» Eta Felipek: «Zatoz eta ikus». Jesusek Natanael beragana etortzen ikusi eta esan zion: «Hona hemen egiazko israeldarra, azpikeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zeundela ikusi zintudan». Natanaelek erantzun: «Rabbi, Jainkoaren Semea zara zu, Israelgo Erregea zara zu». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Hori baino han-

diagorik ikusiko duzu». Esan zion gainera: «Hara nik egia esan: Zeruia zabalik ikusiko duzue, eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera, Gizonaren Semearen gainean».

«**L**ehenago... ikusi zintudan...». Hondo-hondoan, Natanaelen historia geure historia dugu, ez xehetasun zehatzetan, baina bai hondo-hondoan. «Lehenago»: Frantzisko aita santuaren esanetan, Jainkoa da beti lehena. Haren begiratu samurra da lehena; haren begiratu da funtsezkoa. Guri begira jarri da hura... Eta lehen eta doako begiratu horretan dago guri dei egin izanaren sekretua. Ez da beste argibiderik. Bera da aukeratu gintuena, eta Jesusek egindako aukeratzeen misterio sakona da guri egindako deiaren misterioa ere. Ez da, beraz, lekurik harrokeriarako, hantusterako, ezta geure burua inor baino handiago sentitzeko ere: soil-soilik, esker ona.

[Ruten liburutik 1,1.3-6.14b-16.22: Itzuli zen Noemi, eta harekin batera Rut moabtarra; eta Betlemera iritsi ziren. Sal 145: Goretsi ezazu Jauna, ene barrena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,34-40.

Aldi hartan, Jesusek saduzearrak hitzik gabe utzi zituela jakitean, elkarrekin bildu ziren fariseuak, eta beraien arteko lege-gizon batek azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zein da legeko agindurik nagusia?»

Jesusek erantzun: «Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz». Hau da agindurik nagusia eta lehena. Eta bigarrena horren parekoa da: «Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala». Bi agindu hauetan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak».

Jesusi galdera egin dion fariseuak singularrean egin du galdera: «Zein da agindua?» Jesusek, berriz, pluralean erantzun dio: ez bat, baizik bi agindu dira: «nagusia eta lehena» eta «bigarrena»; azken honetaz dio, «antzekoa» dela, eta ez mendekoa, ezta bigarren mailakoa ere. Maitasuna Jainkoari eta maitasuna anaiari eta arrebari. Biak bat; guk hainbat aldiz eten izan dugu batasuna. Batasuna Jainkoari eta anai-arrebei dagokien maitasunean, batasuna fedeari eta zuzentasunari dagokien maitasunean, batasuna barne bizitza sakonari eta munduko behartsuekiko konpromiso solidarioari dagokien maitasunean, batasuna bihotz barneko adorazioari eta bizitza emateari dagokien maitasunean.

Urteko 20. astea.
Larunbata / Zapatua.

Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, *birjina* (Adin handikoen Zaindaria).

Santa Joana Elisabet Bichier des Âges, *birjina*, fundatzailea (Gurutzearen Alabak).

[Ruten liburutik 2,1-3.8-11;4,13-17: Jaunak ez zaitu ondorengorik gabe utzi nahi izan. Hau Jeseren aita izan zen, Daviden aitaren aita. **Sal 127:** Hala izango da bedeinkatua gizakia, Jainkoari beldur diona.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,1-12.**

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen irakatsiak adierazteko eginkizuna dute. Saia zaitezte, beraz, haiek esaten duten guztia betetzen, baina ez egin egiten dutena: esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak lotu eta besteei leporatzen dizkiete, baina beraiek ez dituzte atzamar batez ere mugitu nahi. Egiten duten guztia, jendeak ikus ditzan egiten dute; larrutxa zabalak eraman ohi dituzte bekokian, eta borlaxo luzeak jantzietan; gogoko dituzte jai-otorduetan mahaiburuak eta sinagogetan aurreneko aulkiak, plazetan jendeak beraiiei agur egitea eta guztiek "maisua" deitzea.

Zuek, ordea, ez utzi inori "maisua" deitzen, bat bakarra baita zuen maisua, eta zuek guztiok senide baitzarete. Eta ez deitu lurrean inori "aita", bat bakarra baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi inori "gidaria" deitzen, bat bakarra baita zuen gidaria, Mesias.

Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena, beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Bai gogorra Jesusen mezua, Mateoren ebanjelioko 23. kapitulu honetako hau! Lege-maisuei eta fariseuei zuzendutako kapitulua da: bere garaiko jende onari eta erlijiosoari. Baina egia maite badugu, bai gaurkoa dela Jesusen hitzaldi hau; ez genuke pentsatu behar gurekin ez duela ezer ikustekorik! Izan ere, puntu anekdotiko batzuk (larrutxak, borlatxo luzeak etab.) baino harago, jarrerak salatzen ditu Jesussek: tolerantzia-eza, hipokresia, hantustea, harrokeria... Jarrerak, zoritxarrez elite erlijiosoei itsatsirik bizi izan direnak beti. Ez utzi zuei, ez maisu, ez aita, ez aholkulari... esaten!

Urteko 21. astea.

Igandea / Domeka.

Santa Monika, *aitorlea*.

San Lizerio, *gotzaina*.

§ Isaias 22,19-23.

Hona zer diotson Jaun ahalguztidunak Xebnari, errege-jau-regiko arduradunari:

«Bota egingo zaitut kargutik eta zauden lekutik kendu. Egun hartan neure zerbitzari Eliakimi, Hilkiasen semeari, egingo diot dei; zure soingainekoa jantzarazi, zure gerrikoa ezarri eta zure aginpidea emango diot. Aita baten pareko izango da Jerusalemeko bizilagunentzat eta Judako herriarentzat. Daviden jauregiko giltzak jarriko dizkiot lepoan; hark irekia ez du inork itxiko; hark itxia ez du inork irekiko. Itzea egur gogorrean bezain sendo ezarriko dut, bere senitartearen harrogarri izango da».

[Sal 137: Betiko da, Jauna, zure maitasuna, ez eskutik utzi zeure eskuz egin duzuna.]

§ San Paulok Erromatarrei 11,33-36.

Bai handi eta sakonak Jainkoaren eskuzabaltasuna, jakin-duria eta ezaguera! Bai aztergaitzak beraren erabakiak eta sumaezinak beraren bideak! Nork ezagutu ditu Jaunaren pentsamendua? Nor izan da haren aholkulari? Nork eman dio hari lehenengo, gero hark itzuli behar izateko? Beragandik dira gauza guztiak, beraren bidez eta berarentzat. Aintza berari betierean. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,13-20.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio

jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara, "harkaitza", eta harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Orduan, bera Mesias zela inori ez esateko agindu zien Jesusek ikasleei.

«**Z**u Pedro zara, "harkaitza", eta harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza»... Gaurko ebanjelioa kontenplatzean, errepara diezaiogun Jaunak Pedrori «eskatzen dionari» eta ematen dionari... Eskatzen diona fedea da, Aitareen dohaina den fedea: ez dio eskatzen beste giza kualitaterik, ez titulurik, baizik berarekiko eta bere misioarekiko konfiantza ezin hondatua: jendeak zernahi gauza esan lezake, baina nik badakit zu Jainko biziaren Semea zarela.

Ematen diona: egundoko erantzukizun bat, erantzukizun erabakitzailea eta ñabardurarik gabea. «Zuk lotua, loturik geratuko da; zuk askatua, askaturik geratuko da»; erantzukizun bat, konfiantza betea ere dena. Pedroren eskuetan ipini du bere misioaren jarraipena.

Gaurko ebanjelioa, lehenik eta behin Elizaren buru den aldetik Pedrori dagokio; baina badu zerikusirik gurekin ere, Eliza horretako harri garen aldetik. Ez gara zimentarri, baina bai harri bizi Elizaren eraikinean. Jesusekiko fedea eskatzen digu horrek, batzuen eta besteen iritziak baino harago. Eta bere misioa jarraitzeko erantzukizuna eman digu Jesusek. Gure hitzek, gure egintzek, gure jarrerek... atek irekitzen dituzte eta ixten.

Urteko 21. astea.

Astelehena.

San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa.*

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 1,1-5.8b-10: Sasijainkoetatik Jainkoagana itzuli zineten, honek berpiztutako bere Semea noiz etorriko den zain egoteko. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,13-22.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok, jendeari zeruetako erreinuko sarrera ixten diozuenok. Zeuek ez zarete sartzen eta sartu nahi dutenei ez diezue uzten.

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Norbait judu-berri egiteagatik itsaso eta lehor zabiltzate eta, egin duzue nean, zeuek baino bi aldiz gaiago bihurtzen duzue infernurako.

Ai zuek, gidariitsuok! Honela irakasten duzue: "Tenpluagatik zin egiteak ez du baliorik; tenpluko urreagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du". Zoroitsuok halakook! Zer da handiago, urrea ala urrea sagaratzen duen tenplua? Beste hau ere irakasten duzue: "Aldareagatik zin egiteak ez du baliorik; aldare gaineko opariagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du". Itsuok halakook! Zer da handiago, oparia ala oparia sagaratzen duen aldarea? Aldareagatik zin egiten duenak, aldareagatik eta gainean dagoen guztiagatik egiten du zin; tenpluagatik zin egiten duenak, tenpluagatik eta bertan bizi den Jainkoagatik egiten du zin; zeruagatik zin egiten duenak, Jainkoaren tronuagatik eta bertan eserita dagoenagatik egiten du zin».

Guztiok gara besteentzat, bizikide ditugunentzat eta ikusten gaituztenentzat eragile edota oztopo. Eragile edota oztopo biziaren bidean eta fedearen bidean. Esaten ahal ditugun hitzak baino harago,

eta, are, esaten ahal ditugun hitzak baino lehen edo bazterretik. Beste batzuk gure bidean eragile edota oztopo izan diren bezala. Besteei eragiten diete gure zintzotasunak, gure koherentziak, gure apaltasunak, gure xumetasunak, gure buru-eskaintzak... Eta hori guztia sumatu egiten da, nabari gertatzen da, lehen begiratuan uste izan dezakeguna baino gehiago.

Urteko 21. astea.

Asteartea / Martitzena.

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN MARTIRITZA.

San Adelfo, *martiria*.

Santa Sabina, *martiria*.

§ Jeremias 1,17-19.

Egun haietan, Jaunaren hitza etorri eta esan zidan: «Lotu ezazu gerria; zoaz eta esaezu nik agintzen dizudana. Ez izan haien beldurrik; bestela nik sartuko dizut haien beldurra. Begira, nik gaztelu jartzen zaitut gaur, burdinazko zutabe eta tupikizko hesi, herrialde honen guztiaren aurrean: Judako erregeen eta lehen-agintarien aurrean, apaizen eta herriaren aurrean. Borroka egingo dizute, baina ez zaituzte menperatuko; ni zurekin bainago, salba zaitzadan».

[Sal 70: Nire ahoak zure zuzentasuna iragarriko du.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,17-29.

Aldi hartan, Herodesek Joan bahiarazi zuen eta presondegian lotu; Herodias, bere anaia Filiporen emaztea, beretzat hartua baitzuen emazte, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaren emaztea edukitzea». Herodias erremindata zebilen Joanen kontra, eta hilarazi nahi zuen; baina ezin, Herodesek beldurra zion-eta Joani, bai baitzekien gizon zintzoa eta santua zela, eta babes egiten zion. Hari entzutean, kezka gelditu ohi zen; hala ere, atsegin ez entzuten zion. Gertatu zen, ordea, egun egokia: Herodesek, bere urtebetetze-eguna zuela-eta afaria eman zien bere handiki, gudalburu eta Galileako jauntxoei. Sartu zen Herodiasen alaba, eta haren dantzatzea atsegin izan zitzairen Herodesi eta mahaikideei. Honetan, erregeak esan zion neskatxari: «Eska iezadazu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin egin zion: «Eskatzen didazun guztia emango di-

zut, nire erreinuaren erdia bada ere». Neskatzak atera eta esan zion amari: «Zer eskatuko diot?» Eta amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua». Joan zen neskatzak erregeagana lasterka, eta esan zion: «Hau nahi dut: emadazu oraintxe berean Joan Bataiatzailearen burua plater batean». Goibeldu zen erregea, baina, zinagatik eta mahaikideengatik, ez zion nahigaberi eman nahi izan. Eta berehala zaintzaile bat bidali eta Joanen burua ekartzeko agindu zion. Joan zen zaintzailea, eta lepoa moztu zion presondegian Joani, eta burua platerean ekarri eta neskatzari eman zion, eta neskatzak amari. Joanen ikasleak, hori entzutean, etorri ziren haren gorpuaren bila eta hilobi batean ehortzi zuten.

«Zinagatik eta gonbidatuengatik...» egin du Herodesek zuzena ez den eta ordu arte saihesten saiatu den hilketa. Itxura ona egiteagatik edota, besterik gabe, itxura txarrik ez emateagatik. Guri ere behin baino gehiagotan kentzen digu askatasuna, trakesten du gure bereizmena eta zikintzen ditu gure erabakiak itxura ona egin nahiak, itxura txarrik ez eman nahi izateak, esker ona edo mesedeak espero ditugunengan desilusiorik ez sortu nahi izateak. Geure burua bilatu nahia, geure irudiaren esklabo izatea... Jesusekiko jarraipenean bizi beharko genukeen koherentziaren etsaiak dira. Joanen martiritzaren erak baino harago, utz diezaiozun martiritza horren arrazoiek interpela gaitzaten.

Urteko 21. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

Esteban Zudairikoa (Amezkoa ? eta Brasilera bidean kortsarioek hil 1570) eta Joan Maiorga -koa (ik. uztaila 15), *apaizak*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 2,9-13: Gau eta egun lan egin ez adierazi genizuen berri ona. Sal 138: Jauna, zuk aztertu nauzu eta ezagutu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,27-32.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Hilobi zurituen antzeko zarete: kanpotik itxura ederrekoak, baina barrutik hil-hezurrez eta ustelkeriaz beteak! Zuek ere honelakoak zarete: kanpotik zintzoak jendearen aurrean, baina barrutik itxurakeriaz eta gaiztakeriaz beteak.

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Profeten hilotzak eraikitzen eta gizon zintzoen hilarriak apaintzen dituzue, esanez: "Gure arbasoen egunetan bizi izan bagina, ez genukeen parterik hartuko haiekin profeten hilketan". Horrela, zeuek aitoritzen duzue profetak hil zituztenen ondorengoak zaretela. Bete ezazue, bada, zeuen gurasoen egintza gaiztoen neurria!»

«Profetak erail»: Jesusen akusazio larria, eta historian etengabeko delitua. Zenbat profeta erailak eta zenbat lekutan! Profeta beti izan ohi da gogaikarri, deseroso edota kezkarri toleragarria baino harago. Mateoren kapitulu honetan guztian bezala, ezin esan dugu: «hau ez doakit niri». Agian, «erail» hitzak ematen digu bide geure burua akusazio horretatik urrun ikusteko; batez ere, tartean odola ageri delako. Baina erailketa «garbiak» egiteko era asko daude: hitzez, jendea zokoratuz edo isilaraziz, izen ona kenduz... Hori guztia errazago gertatzen zaigu, gure injustiziak eta koherentzia-faltak salatzen dituen hitza entzutea baino.

Urteko 21. astea.

Osteguna / Eguena.

San Ramon Nonnato, *apaiza, kardinala*.

San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, *Jesusen ikasleak*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 3,7-13. Jaunak gehitu eta ugarri dezala, zuek elkarrentzat eta denontzat duzuen maitasuna. Sal 89: Zeure maitasunaz ase gaitzazu, Jauna, poztu gaitezen zuegan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 24,42-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete erne, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zueen Jauna. Hartu hau gogoan: etxeko nagusiak baleki gaueko zein orduan etorriko den lapurra, erne egongo litzateke eta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Egon, bada, prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko zaizue-eta Gizonaren Semea.

Izan zaitezte morroi leial eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak etxeko morroiei bere orduan janaria banatzeko eginkizuna eman diona bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du.

Baina morroi gaizto hura, nagusiak luzatu egingo duela koan, bere morroi-lagunak jotzen eta mozkorrekin jan-edanean hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, eta zorrotz zigortuko du eta itxurazaleek merezi duten zoria emango. Han izango da negarra eta hortz-karraska!»

«Zaudete erne», zaudete adi... Dei ona dugu gau hartarainoko barreiaketa dugun aldi eta kultura honetan: egon erne, Jauna ondoan sumatzeko eta badatorrela antzemateko, ustekabeen etortzen baita eta,

askotan, gutxiena espero dugun txoko batetik. Gainera, adi egoteko, Jau-naren etorrera prestatzeko eta hari antzemateko gai egingo gaituen mo-duaz ere mintzo zaigu gaurko ebanjelio hau: zerikusia du bizi dugun jator-tasunarekin eta gainerakoekin portatzeko dugun erarekin, batez ere behe-koagotzat ditugunekin.



Urteko 21. astea.

Ostirala / Barikua.

San Josue, *patriarka*.San Gil (Egidio), *ermitaua*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 4,1-8: Hau nahi du Jainkoak zuengandik: bizitza santua. Sal 96: Poztu zaitezte, zintzoak, Jaunagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senar ezkonberriari bidera irten zitzaizkion hamar neskatzekin bezala gertatzen da. Neskatzetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senarrak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen.

Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!” Jaiki ziren neskatzak guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio pixka bat, kriseiluak itzaltzera doazkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”.

Baina, eroatera joanak zirelarik, senarra iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi egin zen.

Iritsi ziren, azkenik, beste neskatzak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”.

Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Funtsezkoa dena ez da inprobisatzen... Bizitzako funtsezko erronken aurrean egokia den erantzuna ez da sortzen ezerezetik, baizik eta prestatu eta janaritu egin behar izaten da fedearekin eta egunean eguneko lanarekin. Unean unekoarekin konforme bizitzeak, errentaz edo ohikeriaz bizitzeak aukera emango dizute, agian, gaur bizitzeko bihar ere eguzkia irten-go dela pentsatuz... eta biharra gaurkoa adinakoa izango dela uste izanez. Baina bizitzak fede plus bat, adore eta buru-eskaintza plus bat eskatuko digunean... aldez aurretik prestatu ez badugu, ezin emango dugu. Ezin eskatuko diogu ere inori gure ordeztan.

Urteko 21 astea.**Larunbata / Zapatua.**

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 – Paris 1792, Iraultzakoan), dohatsua, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan)*.

Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 4,9-11: Jainkoak berak erakutsi dizue elkar maitatzen. Sal 97: Badator Jauna, herriak zuzentasunez epaitzera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,14-30.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Gizon batek, urrutira joaterakoan, bere morroiei dei egin eta bere ondasunak utzi zizkien. Bati bost talentu eman zizkion, beste bati bi, beste bati bakarra: bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Eta gero joan egin zen.[Bost talentu hartu zituen haiekin lanean hasi zen berehala, eta beste bost irabazi zituen. Bi hartu zituenak ere gauza bera egin zuen, eta beste bi irabazi zituen. Bat hartu zuenak, ordea, lurrean zulo bat egin eta han gorde zuen bere nagusiaren dirua.

Handik luzarora, etorri zen morroi haien nagusia, eta kontrak garbitzen hasi zitzaien.

Hurbildu zen bost talentu hartu zituenak, eta beste bost eraman zizkion, esanez: "Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; begira, beste bost irabazi ditut". Nagusiak esan zion: "Ederki, morroi zintzo eta leiala! Gutxian zintzo izan zarela, askoren buruzagi egingo zaitut; sar zaitez zeure nagusiaren pozetara".

Hurbildu zen bi talentu hartu zituenak, eta esan zion: "Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; begira, beste bi irabazi ditut". Nagu-

siak esan zion: "Ederki, morroi zintzo eta leiala! Gutxian zintzo izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sar zaitetz zeure nagusiaren pozetara".

Azkenean, hurbildu zen talentu bat hartu zuena, eta esan zion: "Jauna, banekien gizon zorrotza zarela; erein ez duzun tokian igitatzen duzuna, eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna. Beraz, beldurrez joan nintzen, eta lurpean gorde nuen zure talentua. Hor duzu zeurea!"

Nagusiak erantzun zion: "Morroi gaizto eta alferra! Baze- nekien, beraz, nik, erein ez dudan tokian igitatzen dudala, eta zabaldu ez dudanean biltzen. Horregatik, nire dirua bankuan jarri behar zenuen, nik, etortzean, irabazi eta guzti jaso nezan. Ken iezaiozue talentu hori, eta eman hamar dituenari. Duenari eman egingo baitzaio, eta gainezka izango du; ez duenari, be- rriz, duen hura ere kendu egingo zaio. Eta morroi alfer huts hori bota kanpoko ilunpeetara. Han izango dira negarra eta hortz -karraska!"»

Jesusek bizitzarako ematen dizkigun ikasgaiekin jarraitzen dugu... Bizi- tzan inporta duena ez da sarrera-piloa, baizik eta eman zaigunarekin zer egiteko gai garen. Eta hori ez da gaitasun-arazoa, baizik jarrera-arazoa da. Zein jarrera dugu bizitzari aurre egiteko? Parabola honetan Jesusek koloka jarri duen arazoa pasibotasuna da, bizi-jarreratzat harturik; izan ere, pasi- botasuna Jainkoari, garena eta duguna eman digunari, ez erantzutea da. Gutxi edo asko, den-dena da dohaina, eta dohain orok merezi du erantzun bat, esker on eta zerbitzu bezala.

Urteko 22. astea.

Igandea / Domeka.

San Gregorio Handia, 64. *aita santua eta eliz irakaslea.*

Angostoko Andre Maria (iraileko 1. igandean).

§ Jeremias profetaren liburutik 20,7-9.

Liluratu egin nauzu, Jauna,
 eta ni zure lilurapean erori;
 bortxatu egin nauzu eta menperatu.
 Barregarri gertatu naiz egun osoan;
 burlaka ari zaizkit denak.
 Hitz egiten dudan bakoitzean,
 garrasi egiteko da;
 indarkeria eta zapalkuntza salatuz
 hots egin behar dut;
 Jaunaren hitza irain- eta iseka-bide da niretzat egun guztian.
 Esaten nuen neure baitarako:
 «Gogoratu ere ez dut egingo;
 ez dut gehiago haren izenean hitz egingo».
 Baina, orduan, sua bezalako zerbait sentitzen nuen barruan,
 hezurretaraino erretzen ninduen;
 saiatzen nintzen itotzen, baina ezin!

[Sal 62: Zure egarriz daukat gogoa, Jauna, ene Jainkoa.]**San Paulok Erromatarrei 12,1-2**

Senideok: Jainkoaren errukiagatik eskatzen dizuet eskain ditzazuela zeuen buruak opari bizi, santu eta Jainkoarentzat atsegingarri; hori da egiazko zuen kultura. Ez egokitu mundu honen iritzietara, baizik eta eraberri zaitezte, zeuen pentsaera aldatuz; horrela bereizi ahal izango duzue zer den Jainkoak nahi duena, zer den ona, atsegingarri zaiona eta bikaina.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,21-27.

Aldi hartan Jesus bere ikasleei azaltzen hasi zitzaien beharrezko zela bere Jerusalemara igotzea, eta han asko sufritu behar zuela apaizburu eta lege-maisuen aldetik; hil egingo zutela eta hiru egunen buruan piztu egingo zela. Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion: «Inola ere ez, Jauna! Ez zaizu horrelakorik gertatuko!»

Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori: «Alde nire ondolik, Satanask! Oztopo zara niretzat, zure asmoak ez baitira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

Jesusek esan zien, gainera, ikasleei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin diezaiola bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai diezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia negatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du.

Zertao du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu? Eta zer eman dezake gizakiak berriro bizia eskuratzeko? Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruekin, eta orduan bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio».

Askotan galdetzen diot neure buruari, ea otoitz egiten diogun eta bizi dugun Jesus hori benetako Kristo Gurutziltzatua ote den edo guk ere, Pedrok bezala, ez ote dugun gurutzea alboratu nahi izaten Jesusen ebanjeliotik eta bizitzatik. Orduan Jesus ur-ardo batekin geldituko ginatke, pertsona ona, atsegina, are hurbila pobreentzat... baina ez bere burua eman duen Jesus, profeta, etsaiek pertsegitua, eta bere odolaz salbatu gaituena,

Eta zer axola du horrek? Ba al du nolabaiteko ondorio praktikorik? Nire ustez, handia. Gurutzerik gabeko Jesusek «jende on» bihurtuko lituzke bere jarraitzaileak edota jende adeitsu eta ondo hezitako, baina nor bere baitan biribildua eta besteen onerako ezer bererik emateko gai ez dena. Sistema edo bizi-molde bati itsatsitako jende bihurtuko lituzke, kezka nork bere salbazioa bakarrik duen jende. Eta sufritzen ari direnekiko solidarita-

tea ongi-egite huts bihurtuko luke («nik, ona izanik, lagundu nahi dizut»); baina ez litzateke gai izango pobrearen, injustiziapean dagoenaren, sistematik kanpo ezarri dutenaren aurpegian Kristoren aurpegi zauritua ikusteko. Kristok, berriz, salatu egiten du bizia ematean kontuan izan duen pertsona suntsitzen duen egitura edo gauzen egoera oro.

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 4,13-18: Jesusengan hil direnak Jainkoak harekin batean bereganatuko ditu. Sal 95: Badator Jauna lurra epaitzera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,16-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera joan zen, bera hazi zen herri-
ra, eta larunbatean sinagogan sartu zen, ohi zuenez, eta zutik
jarri irakurgaia egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten
eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:

«Jaunaren Espiritua nire gainean dago,
berak gantzutu bainau,
behartsuei berri ona emateko.
Gatibuei askatasuna
eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau,
zapaldueti askatasuna ematera,
Jaunaren grazia-urtea hots egitera».

Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri egin
zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan. Bera honela hasi
zitzaian: «Gaur bete da, orain entzun duzuen Liburu Santuko
hitz hau». Guztiek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harritu-
rik zeuden Jainkoaren onginahiaz esaten zituengatik. Baina
zioten: «Ez al da, bada, hau Joseren semea?» Orduan, Jesusek
esan zien: «Harako esaera hura gogoraraziko didazue, noski:
"Sendagile, sendatu zeure burua", eta esango: "Egitzazu hemen
ere, zeure herrian, Kafarnaumen egin omen dituzun gauzak"». Eta
erantsi zuen: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere he-
rrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alar-

gunik asko Israelen Eliazen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik». Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikita zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

«**G**aur» bete da Liburu Santuak dioena; «gaur» hau salbazio-eguna da Jesusengana konfiantzaz hurbiltzen diren guztientzat ere. «Gaurko» pobre, gatibu, itsu, zapalduak ere liberatuak direla sentitzen dute Jesusen benetako jarraitzaileak hurbiltzen zaizkienean, halakoek bertako egiten baitute Jesus historiaren «gaur» honetan... «Gaur» ere, legea bizia eta jendearen sufrimendua baino gehiago inporta zaienek koloka jartzen dute graziaren berri ona. Halaz guztiz, eta hainbat denboraren ondoren, Jesusen Nazaretoko sinagogan esandako hitzek bizirik jarraitzen dute.

Urteko 22. astea.

Astearta / Martitzena.

San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*.Santa Teresa Kalkutakoa, *fundatzailea (Karitateko Misiolariak)*

[San Paulok 1 Tesalonikarrei 5,1-6.9-11: Guregatik hil da, gu berarekin bat eginik bizi gaitezen. Sal 26: Jaunaren ontasuna ikusi ustean nago bizidunen lurreen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,31-37.

Aldi hartan, Jesus Galileako Kafarnaum hirira jaitsi zen, eta larunbatetan jendeari irakasten zion. Txunditurik zegoen jendea haren irakaspenaz, nagusitasunez hitz egiten baitzuen.

Bazen sinagogan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihu bizian esan zuen: «Zer duk gurekin, Jesus, nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua».

Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horren-gandik!» Deabruak jendartean lurrera bota zuen gizona, baina batere kalterik egin gabe atera zen harengandik.

Ikaraturik gelditu ziren denak, elkarri galdezka: «Zer da hau? Nagusitasunez eta indarrez agintzen die espiritu gaiztoei, eta hauek atera egiten dira».

Jesusen entzutea herrialde hartako bazter guztietara zabaldu zen.

Gaurko ebanjelioa Jesusen adoreaz mintzo zaigu: ez du beldurrik sentitu deabruak hartua duenaren garrasiekin eta ukoarekin, baizik adoretzu egin dio aurre eta askatu du. Jesusi aurka eta uko egin bazioten, guri ere egingo digute. Ez dezagun uste izan alfonbra gorriak edo berdeak ipiniko dizkigutenik guk desfilatzeko... Beraz, kontua ez da izango halakoetan gaitzespen apokaliptikoen dinamikari ekitea, kexu-lantuetan edo alferrikako lantuetan denbora galtzea: Jesusek bezalako adoreaz erreakzionatzea da kontua, San Ignaziok bereizmen-arauetan esaten digunez.

[San Paulok Kolosarrei 1,1-8: Zuengana iritsi da berri ona, eta lur osora. Sal 51: Zugan uste onez beterik nago, Jauna, gizaldien gizaldietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,38-44.

Aldi hartan, Jesus sinagotatik atera eta Simonen etxean sartu zen. Simonen amaginarreba sukar handiaz zegoen, eta haren alde zerbait egiteko eskatu zioten.

Orduan, harengana makurturik, zorrotz agindu zion sukarrari, eta sukarrak alde egin zion. Berehala jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzaien amaginarreba.

Eguzkia sartu zenean, gaixoak zituzten guztiek, edozein zela ere haien gaitza, Jesusi eramaten zizkieten, eta hark, bakoitzari eskuak ezarriz, sendatu egiten zituen.

Askorengandik deabruak ere ateratzen ziren, deiadarka esanez: «Zu Jainkoaren Semea zara!» Jesusek zorrotz galarazten zien hitz egitea, bazekiten-eta Mesias zela.

Eguna argitu orduko, atera eta bazter bakarti batera joan zen. Jendea haren bila zebilen eta, aurkiturik, eutsi egin nahi zioten, alde egin ez ziezaien. Baina Jesusek esan zien: «Beste herriei ere adierazi behar diet Jainkoaren erreinuaren Berri Ona, horretarako bidali bainau Jainkoak». Eta Judeako sinagogetan ibili zen Berri Ona hots egiten.

«Eusten ahalegindu ziren, alde egin ez zezan»: Jesus haientzat segurua bat zen, eta Jesusentzat han gelditzea tentagarri izango zen: arrakastaz eta jende arteko ospeaz gozatzeko. Baina Jesusek argi eta garbi du bere lehenengo gauza bere misioa duela, bidali duenaren gogoia betetzea. Eta horregatik ekingo dio berriro bideari. Beti bidaiatzen.

ri, inoiz ez onartu dezaten edo atseginez bete dezaten bila, baizik eta, hain juxtu, Jainkoaren Erreinuaren berri ona entzun beharra duten lekuen eta jendearen bila. Guri guztioi eta Eliza osoari egindako deia: ez itsasteko egoera bati, baizik eta zerbitzari izateko.

[San Paulok Kolosarrei 1,9-14: Ilunpearen menpetik atera gaitu, eta bere Seme maitearen erreinura aldatu. Sal 97: Ezagutarazi du Jaunak beragandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,1-11.

Aldi hartan, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren hitza entzuteko; Jesus Genesaret aintzira-ertzean zegoen. Bi txalupa ikusi zituen ur-bazterrean geldituta; arrantzaleak, ontzietatik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen txalupa haietako batera, Simonenera, eta lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion. Gero, eseri eta txalupatik jendeari irakasten jardun zuen.

Hitzaldia bukatu zuenean, esan zion Simoni: «Jo ur handietara eta bota sareak arrantzurako». Simonek erantzun zion: «Maisu, gau guztian eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; hala ere, zuk diozunez gero, botako ditut sareak». Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak lehertzeko zorian baitzeuden. Beste txalupako lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; etorri ziren, eta bi txalupak bete zituzten, ia-ia hondoratzeraino.

Gertatua ikusirik, Simon Pedro Jesusen oinetara erori zen, esanez: «Alde nigandik, Jauna, bekataria naiz eta». Izan ere, zur eta lur zeuden Simon eta berarekin ziren guztiak, eginiko arrantzuagatik, eta gauza bera gertatzen zitzaaien Simonen arrantzu-lagun ziren Zebedeoren seme Santiago eta Joani ere. Baina Jesusek esan zion Simoni: «Ez beldurtu, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara».

Haiek txalupak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

Deigarria da benetan kontakizun honetan Pedrok Jesusekiko duen fedearen sakontasuna; are, esango nuke ere, gizabidez ezin ulertua dela. Lehenik, arrantzale aditu bat, gau osoan ezer harrapatu ez duen larik ere, ezezagun batez fidatu da. Ondoren, harrigarriena izanik ere arrantza, ikusgarria da erantzunaren erradikaltasuna jarraitzeko deiari: «dena utzirik». Jesusen deiaren indarra sekulakoa da eta bazter utzi ezineko erakarmena du. Galdua ote du dei horrek bere indarra? Edota, hobeto esan, ez dugu asmatzen jendea Jesusekin harremanetan ipintzea, era pertsonal eta hurbilekoan?

Urteko 22. astea.**Ostirala / Barikua.****ANDRE MARIA BIRJINAREN JAIOTZA.**

Artziniagako, Koruko, Guadalupeko, Arrateko, Haizpeko Andre Maria.

§ Mikeas profetaren liburutik 5,2-5a.

Honela mintzo da Jauna: «Zu, Efratako Betleem, Judako herrixketan txikienetakoa zara; baina zugandik jaioko da Israelen aginduko duena. Aspaldikoa du jatorria, antzina-antzinakoa. Bitartean bertan behera utziko du Jaunak bere herria, ama izan behar duenak haurra izan arte. Orduan, atzerrian gelditutako senideak Israelgoekin elkartuko dira. Buru berriak Jaunaren indarrez gidatuko du herria, Jaunaren, bere Jainkoaren, izen handia agertuz. Lasai biziko da herria, handi agertuko baita hura lurraren mugetaraino eta bakea ekarriko baitu.

[Sal 12: Pozez beterik nauka Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,1-16.18-23.

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesus Mesiasen arbasoen zerrenda: Abrahamek Isaak sortu zuen; Isaakek Jakob; Jakobek Juda eta honen anaiak; Judak Fares eta Zara, Tamarrengandik; Faresek Esrom; Esromek Aram; Aramek Aminadab; Aminadabek Naason; Naasonen Salmon; Salmonen Booz, Rahabengandik; Boozek Obed, Rutengandik; Obedek Jese, eta Jese David erregea. Davidek Salomon sortu zuen, Uriasen emazte izanagandik; Salomonen Roboam; Roboamen Abia; Abiak Asaf; Asafek Josafat; Josafatek Joram; Joramen Ozias; Oziasek Joatam; Joatamen Akaz; Akazek Ezekias; Ezekiasen Manases; Manasesen Amon; Amonen Josias, eta Josiasen Jononias eta honen anaiak, israeldarrak Babiloniara erbesteratu

zituzten garaian. Babiloniako erbestealdiaren ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen; Salatielek Zorobabel; Zorobabelek Abiud; Abiudek Eliakim; Eliakimek Azor; Azorrek Sadok; Sadokek Akim; Akimek Eliud; Eliudek Eleazar; Eleazarrek Matan; Matanek Jakob, eta Jakobek Jose, Mariaren senarra; eta Mariagandik jaio zen Jesus, Mesias deritzana.

Jesu Kristoren jaiotza honela gertatu zen: Jesusen ama Maria, Joserekin ezkontzeko hitzemanana zegoelarik, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Haren senar Josek, gizon zintzoa baitzen, eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, isilka utzi eta joatea erabaki zuen. Baina, asmo hori gogoan zerabilkiela, Jainkoaren aingeruak ametsetan azaldu eta esan zion: «Daviden seme Jose, ez izan beldurrik, Maria, zeure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk "Jesus" ezarriko diozu izena, horrek salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia gertatu zen, Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin: «Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta "Emmanuel" ezarriko diote izena, hau da: "Jainkoa gurekin"».

Elizak poz-pezik ospatzen du gaur Andre Mariaren jaiotza; izan ere, jaiotza horrekin hasi dira betetzen Jainkoaren mesiastar promesak: «amak argia erdiko duen aldia». Maria emakume eta ama maite-maitea da kristau guztientzat; izan ere, Jainkoaren egitasmo salbatzaileari egin dion bere eskaintza xume eta betearekin, mundu honetako ateak ireki dizkio Biziari. Xumetasuna eta eskaintza: Mariarentzat izan diren bezala, gu guztiontzat dei diren bi jarrera, gauzatzen diren guztietan emankor izaten direnak, eta esperantzari, pozari, mundu «berri» bati bidea irekitzen dietenak.

Urteko 22. astea.**Larunbata / Zapatua.**

Arantzazuko Andre Maria.

San Pedro Claver, *apaiza, misiolaria, jesuita.*

[Ikus beheraxeago Urteko Meza]

[Arantzazuko Andre Maria Birjinaren Meza. Galaziarrei 4,4-7: Bere Semea bidali zuen Jainkoak, emakumeagandik jaioa. **Salmoa: Lukas 1:** Zorionekoa zu, Andre Maria, betiko Aitaren Semea ekarri zenuena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi-aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabetek Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, neure Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!» Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barnea».

Arantzazuko Andre Ama

Gaur Arantzazuko Andre Maria, Birjina, Gipuzkoako Zaindariaren eguna ospatzen ari gara. Tradizioak dioenez, Rodrigotxok (Baltzategi baserrikoak) Andre Mariaren harrizko irudi txiki bat aurkitu zuen, Jesus Haurra besoetan zuela.

«Arantzan zu?», galdetu omen zuen txunditurik. Gaurko festa egun honetako ebanjelioak garbi esaten digu: fede sako-naz onartu du Mariak Jainkoaren hitza. Elisabeten senar Zaka-

rias ez da fidatu aingeruaren hitzaz; Mariak, aldiz, konfiantza osoa eskaini dio: «gerta bekit zuk diozuna». Arantzazuko Andre Mariaren goratasun betea ospatzen dugun honetan, goratasun horretarako bidea zein dugun agertzen digu zeruko amak: biho-tza besteengana irekitzea da bidea.

Urteko Meza:

[**San Paulok Kolosarrei 1,21-23:** Jainkoak Berekin baketu zaituzte, haren aurrean herri santu, garbi eta bekaturik gabea ager zaitezten. **Sal 53:** Nik Jainkoa dut laguntzaile.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,1-5.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak galburuak moztu, eskuetan aletu eta jaten ari ziren.

Fariseu batzuek esan zieten: «Nolatan ari zarete egiten, larunbatez zilegi ez dena?»

Jesusek erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Davidek egin zuena, bera eta beraren lagunak goseak gertatu zirenean? Jainkoaren etxean sartu eta, Jaunari eskainiriko ogiak hartuz, jan egin zituen, eta bere lagunei ere eman zizkien, legez apaizek bakarrik jan zitzaketen ogiak izanik».

Eta esan zien: «Gizonaren Semea larunbataren nagusi da».

Profithek urratu egin izan dute «ezarria zegoena», eta urratu, giza arau eta giza akordio ororen gainetik Jainkoaren samurtasuna eta errukia adierazi nahi dituztelako. Gauza bera egin zuen Jesusek eta, Jesusi jarraituz, horixe bera egin zuen Pedro Claver-ek, bere garaian modu basatian ustiatuak zirenen esklabo bihurtuz, hain juxtu eta are gehiago, bere garaiko teologo askorentzat, inolako begirunerik merezi ez zutenen esklabo bihurtuz: esklabo beltzen esklabo, alegia. Profeta, horrengatik, ezin ulertua izaten da eta pertsegitua: hala izan zen Jesus, hala Pedro Claver, Jesusen Lagundiko anaia askorentzat ere bai. Baina profeten oroitzapena ahaztezina da.

Urteko 23. astea.

Igandea / Domeka.

San Nikolas Tolentino-koa, *aitorlea*.Frantzisko Garate (Loiola 1857 - Bilbao 1929),
dohatsua, jesuita.**§ Ezekiel Profetaren liburutik 33,7-9.**

Honela mintzatu zitzaidan Jauna: «Gizaseme, Israel herriaren begirale (jagole) izendatu zaitut. Nik esandakoa entzutean, ohartarazi egin behar dituzu nire izenean. Gaiztoren bati hil egin behar duela esaten badiot, eta zuk ez baduzu ohartarazten bere jokabidea alda dezan, gaiztoa bere erruz hilko da, baina zuri eskatuko dizut haren heriotzaren kontua. Aitzitik, zuk ohartarazten baduzu gaiztoa, bere jokabidea alda dezan, eta hark ez badu aldatzen, gaiztoa bere erruz hilko da, baina zuk onik aterako duzu zeure bizia».

[Sal 94: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren ahotsa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

§ San Paulok Erromatarrei 13,8-10.

Senideok: Ez izan zorrik inorekin, elkar maite izatekoa izan ezik, zeren lagun hurkoa maite duenak betea baitu legea. Izan ere, harako «ez adulteriorik egin, ez hil inor, ez ostu, ez guti-ziatu» eta beste edozein agindu, esaera honetan biltzen dira: «Maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala».

Lagun hurkoa maite duenak ez dio gaitzik egiten. Maite duenak, beraz, erabat betetzen du legea.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zure senideak bekatu egiten badu, zoaz beragana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten

ez badizu, berriz, har itzazu zeurekin lagun bat edo bi, auzi oro bi edo hiru lekukoren aitorpenaz erabaki behar da eta. Hauei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko.

Benetan diotsuet: zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua.

Beste hau ere esaten dizuet: zuetako bik elkar hartzen badute mundu honetan Jainkoari zerbaite eskatzeko, eman egingo die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han izango naiz Ni beraien erdian».

Mateoren ebanjelioko 18. kapitulua, zeinetakoa baita gaurko ebanjelioa, kristauen elkarte-bizitzaren kapitulutzat eman ohi da. Elkarte-bizitza inoiz ez da izaten gauza erraza; izan ere, kristauak giza pertsona izaten jarraitzen du, eta pertsona arteko harremanak beti izaten dira konplexuak eta askotan korapilatsuak.

Bi oharpen dakartza gaurko ebanjelioak elkarte-bizitza hori bizitzen laguntzeko. Bata, otoitz partekatua, elkarrekin otoitz egitea (elkarrekin, eta ez bata bestearen alboan direla), esker onak ematea, eskariak eta Jaiuren aurreko esperientzia partekatuz.

Bigarrena, oharpen txit baliotsua da, baina, praktikan oso erraza gertatzen ez zaiguna: anai-arreba arteko zentzarazpena. Batak besteari esatea maitasunez, egiazaletasunez, apaltasunez eta askatasunez anaiari edo arrebari laguntzen ahal diona, eta onartzea, jarrera beraz, besteak esan nahi diguna. Zaila gertatzen zaigu anai-arreba arteko zentzarazpen hori, min ematen digulako inork guri ezer esatea eta konpromisoa delako esatea bera. Horregatik, askotan, anai-arreba arteko zentzarazpenaren dinamikan baino gehiago, atzetik egindako kritikaren, txutxu-mutxuren eta, are, difamazioaren dinamikan murgiltzen gara, lortzen den gauza bakarria elkarte zatitzea izaten delarik.

Tomas Zumarragako (Gasteiz 1577 – Japonia 1622), dohatsua, *apaiza, domingotarra*, eta lagunak, *martiriak (Gasteizko elizbarrutian)*.

[San Paulok Kolosarrei: 1,24–2,3: Jainkoak Elizaren zerbitzari egin nau gizaldietan ezkutuan egona den misterioa zuei adierazteko. Sal 61: Jainkoagan dauzkat edertasuna eta salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,6-11.

Beste larunbat batez, Jesus sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Bazen han eskuineko besoa elbarri zuen gizon bat.

Lege-maisu eta fariseuak zelatan zegozkion, larunbatez sendatzen ote zuen, zertan salatu izateko. Jesusek, haien go-goetak igarririk, beso-elbarriari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona erdira». Hura jaiki eta zutik gelditu zen.

Jesusek esan zien, orduan: «Galdera bat: larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala hondatzea?».

Eta, inguruko guztiei begira, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen eta sendatu egin zitzaion.

Lege-maisu eta fariseuak beren onetik atera ziren eta Jesusi zer egingo ari ziren beren artean.

Gurko ebanjelioak kontatzen diguna Jesusen probokazio bat da argi eta garbi. Ez da harritzeko «haiek haserre jarri izana eta Jesusekin zer egin beren artean eztabaidatu izana». Sendatzen ahal zuen Jesusek pertsona hori beste edozein egun eta lekutan, edota egiten ahal zuen han berean modu eratsuagoan, guztien erdian, guztien begi-bistan jarrarazi gabe. Jesusek nahi duena, ez da besoa elbarri duena sendatzea bakarrik, baizik eta nabarmendu egin nahi du, «erakutsi», beste edozein pentsamolderen gainetik pertsonaren ongia dagoela. Ez du balio, ez erlijioak, ez ekonomiak, ez politikak, pertsonaren ongia bilatzen ez badu.

[Ikus beheraxeago, Urteko Meza]

[Estibalizko Andre Mariaren Meza. Ben Sirak 24,1-2.5-6.12-16.26-30: Maria, jakinduriaren aulkia. Sal: 1 Samuel: Jauzika daukat bihotza Jaunagan, nire Salbatzaileagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabeti, Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, neure Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!» Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, / pozaren pozez daukat nire barnea».

Estibalizko Andre Maria Birjina

Estibalizko santutegiaren lehenbiziko albiste idatzia 1074koa da, Estibalizko Jaun edo Kondeak elizako eskuineko aldarea Donemiliaga Kukulako (Errioxa) monasterioari emate-agirian. Sortzez, bertako jaunaren otoitz-leku izango zen santutegia. XII-XVI mende artean joera eta debozio handia zion Arabako herriak Estibalizko santutegiari. Bi jai nagusi izan ohi ziren Estibalitzen: Jainkoaren Semearen Gizakundekoa –gehienetan Garizuman izaten denez, maiatzaren 1ean ospatu ohi zuten– eta iraileko igande batean, ziur aski Estibalizko Andre

Mariari uztarengatik eskerrak emateko. 1608an Frantziskotarrak beren ardurapean hartu nahi izan zuten Estibalizko santutegia, eta Gasteizko Udalak baimena ere eman zien; baina ez zuten antolatu anaidirik. XIX. mendeko gerrateak zirela eta, santutegi oineko Villafrancako parrokiara jaitsi zuten Andre Mariaren irudia. XX. mendean berpiztu eta indarberritu egin zen Estibalitzeko joera eta debozioa, batez ere 1906an santutegia eraberritu eta urriaren 21ean Andre Maria berriz ere hara igo zutenez geroztik. 1915ean aldare nagusi berria sagaratu zuen apezpikuak. 1923az geroz, antzina kaperauarena zen etxea handiturik, beneditar lekaide-taldea kokatu zen Estibalitzen. (*Dionisio Amundarain*).

[Urteko Meza: **San Paulok Kolosarrei 2,6-15**: Jainkoak bera-
rekin bizia eman zizuen zuen bekatu guztiak barkatuta. **Sal 144**:
Ona da Jauna guztientzat.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,12-19.**

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua.

Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon —honi Pedro izena ezarri zion— eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon —Zelote zeritzana—, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile gertatu zena.

Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemetik eta Tiro eta Sidongo itsasaldetik etorria, Hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende

guztiak Jesus ukitu nahi izaten zuen, halako indar bat baitze-
rion, denak sendatzen zituen.

«**J**ainkoari otoitz egiten eman zuen gaua... Haietako hamabi aukeratu zituen... Denak sendatzen zituen indar bat irteten zen harengandik». Hauek guztiak elkarrekin trabaturik ageri dira, ez dira gauza bakanak bata besteagandik bereiziak... Jesusek Jainkoaz duen esperientziatik, bere otoitzean sakondutik, jaio dira hamabi apostoluak aukeratzea eta denak sendatzeko indarra. Jainkoaz duen esperientziak lotura ematen dio Jesusen bizitza osoari, alde guztiak eta harreman guztiak bateratzen ditu. Jainkoaren esperientzia Jesusengan aldi bat baino zerbait gehiago da: haren funtsezko alderdia da.

[San Paulok Kolosarrei 3,1-11: Kristorekin hil zarete. Hil ezazue, beraz, zeuen gorputzean lurkoi den guztia. Sal 144: Ona da Jauna guztientzat.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,20-26.

Aldi hartan, Jesusek, ikasleei begira, esan zien:

«Zorionekoak behartsuok, zuena baita Jainkoaren erreinua. Zorionekoak orain gose zaretanok, aseko baitzaituzte Jainkoak.

Zorionekoak orain negar egiten duzuenok, barre egingo baituzue.

Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela-eta jendeak gorrotatu, beren artetik bota eta madarikatuko zaitzutenean eta izen txarra emango dizuetenean. Alaitu zaitetze egun horretan eta egin pozez jauzi, handia izango baita zuen saria zerruan; gauza bera egin zieten profetei jende horren gurasoek.

Baina ai zuek, aberatsok, bai baituzue zeuen poza.

Ai zuek, orain aseak zaudetenok, gose izango baitzarete.

Ai zuek, orain barre egiten duzuenok; aiene eta negar egingo baituzue.

Ai zuek mundu guztiak zuetaz ondo hitz egingo duenean, gauza bera egin baitzieten sasiprofetei jende horren gurasoek».

Mundua Jainkoaren begiez eta Jainkoaren irizpideez ikusi: hori da Jesusek egin duena eta Zoriontasunetan adierazi duena. Eta ondorioa ondotxo desberdina izan ohi da pertsonak eta egoerak munduaren begiez eta irizpideez ikusten direnean. Gaurko ebanjelio hau bi gauza kontra jartzean dituen ebanjelioa da, eta nagusiki Jainkoarenak eta gure balorazioak kontra jartzen dituena, Jainkoarena eta guk baliotsutzat ematen duguna kontra jartzen dituena. Gure bihotzaren irizpideak Jesusenak ote diren adierazten digu edota, hondo-hondoan, erabiltzen ditugun balio-irizpideek zerikusi handirik ez dutela ebanjelioarekin.

Urteko 23. astea.**Osteguna / Eguena.****GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.**Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*.**§ Zenbakiak liburutik 21,4b-9.**

Egun haietan, Hor menditik, Itsaso Gorri aldera abiatu ziren hebrearrak, Edomeko lurraldea inguratuz. Bidez aspertuta, Jainkoaren eta Moisesen aurka marmarrean hasi ziren: «Zertako atera gaituzu Egiptotik, basamortuan hiltzeko? Ez da, ez ogirik, ez urik, eta asperturik gaude janari txar honekin». Orduan Jaunak pozoi-miztodun sugeak bidali zizkion herriari; hauek hozka egiten zieten, eta israeldar asko hil zen. Herria Moisesengana joan eta esan zion: «Bekatu egin dugu Jaunaren eta zure kontra marmar eginez. Eska iezaiozu Jaunari ken ditzala sugeak gugandik». Egin zuen otoitz Moisesek herriaren alde, eta Jaunak esan zion: «Egizu suge bat, eta ipini haga baten muturrean. Sugeak hozkatuak izan diren guztiak, hari begiratzen badiote, sendatuko dira». Egin zuen Moisesek tupikizko suge bat eta hagaren muturrean ipini zuen. Sugereren batek inori hozka egiten zionean, tupikizko sugeari begiratzen zion eta sendatu egiten zen.

[Sal 77: Ez ahaztu Jainkoak eginak.]**§ San Paulok Filipinoarrei 2,6-11.**

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari; bestela baizik, bereaz hustu egin zen, morroi-izaera hartuz, eta beste edozein bezala azalduz. Eta gizon bezala agerturik, apaldu egin zuen bere burua, mendeko eginez heriotzaraino, gurutzeko heriotzaraino. Horregatik, Jainkoak goratu egin zuen, eta izen guztien gaineko izena eman zion, Jesusen izenera belaun guztiak makur daite-

zen, zeruan, lurrean eta lurpean, eta mihi guztiek aitortzen: Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,13-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Inor ez da zerura igo, zerutik jaitsi zena besterik: Gizonaren Semea. Moisesek basamortuan sugea altxatu zuen bezala, hala altxatu beharra da Gizonaren Semea, sinesten dion guztiak betiko bizia izan dezan. Hain maite izan baitu Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitio, hari sinesten dion inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitu bere Semea bidali mundua galtzera, baizik eta haren bitartez mundua salba dadin».

«**H**aren bitartez mundu salba dadin». Eta mundua salbatzeko hark duen modua bere buruaz hustea da, beheratzea, Aitarengatik esaneko eta leial izatea, bere burua ematea heriotzaraino... «Zulatu zutenari begiratuko diote» eta begiratu horretan, jarraikia eta sakona bada, lortuko dute salbazioa. Den-dena bai desberdina mundu honetako egitasmo mesiastarretatik! Ezin eman dutena agintzen baitute, ez baitute ematen beren bizia, baizik eta besteen bizia jartzen dute jokoan, helburua ez baitute zerbitzari izatea baizik dominatzea.

Urteko 23. astea.**Ostirala / Barikua.****DOLORETAKO ANDRE MARIA.**

[Ikus Urteko Meza beheraxeago]

Andre Mariaren Meza:**§ Hebrearrei 5,7-9.**

Senideok: Kristok, haragizko bere bizitzaldian, heriotzatik gorde zezakeenari, deiadar handiz eta negarrez, otoitzak eta eskariak egin zizkion, eta bere begiruneagatik entzun zion Aitak. Eta Semea izanik ere, bere neke artean ikasi zuen esaneko izaten, eta, bere betera iritsirik, haren esaneko direnentzat betiko salbamen-iturri egin zen, Jainkoak apaiz nagusi izendatua, Melkisedeken sailean.

[Sal 30: Salba nazazu, Jauna, zeure errukiaz.]

Neurtitza

Zutik, gurutze ondoan, / Ama samina zegoan, / eta Semea zintzilik. / Haren arimaren mina!, / zazpi ezpatek egina, / han zegoen larririk.

Hain estu eta atsekabea, / Seme bakardun Andrea, / Ama bedeinkatua! / Oinazez eta atsekabez, / Seme kutunaren lanez / zegoen kupitua.

Nork ez du negar egingo, / Jesusen Ama halango oinazez ikusita? / Ama Semeak ikustean / biak oinaze berean / elkarrekin josita?

Bazekien beretarren / erruz zutela zigortzen / Jesus, bere maitea. / Inortxok ere ez laguntzen, / eta azken arnasa ematen / han zekusan Semea.

Hots, Ama, maite-iturri, / zurekin oinaze bizi / har dezadan egizu. / Sutu Kristoren maitean / bihotz hau, eta haren aurrean / eder egin nazazu.

Ama, nire bihotzari / Kristoren zauriak jarri, / otoi, mami
-mamian. / Seme horren neke-lanak / erdiz bidal niregana, /
maite nauen sarian.

Zurekin negar bizian / naukazu, eta haren zorian, / hil nadin
arteraino. / Zurekin gurutze ondoan / lagunduz, negar malkoan
/ nagon bizi naizeino.

Birjinetan ederrena, / zakizkit samurrena, / niri negar era-
gin. / Kristoren neke-herio / zauriak hartzeko, bihotz / hau ado-
retsu egin.

Zauri ni zeure zauriez, / zora ni zeure odolez, / gurutze-itu-
rripean. / Sugarrez erre ez nazaten / nire alde jarri, arren, / Ama
azken egunean.

Hemendik irtetekoan, / Amaren bidez ni noan, / Kristo, ga-
raipenera. / Nire gorputz hau hiltzean, / arima doala hegan /
Zeruko pozetara. Amen.

Ebanjelioa urtekoa bera.

[Urteko Meza: San Paulok 1 Timoteori 1,1-2.12-14: Ni
lehenago biraolari izan nintzen, baina Jauna errukitu zitzaidan.
Sal 15: Zu zara, Jauna, nire ondarea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 39-42.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Izan
ote daiteke itsua itsuaren gidari? Ez ote dira biak zulora erori-
ko? Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ondo eskolatu-
riko ikaslea bere irakaslea adina izango da.

Nolatan ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta
zeure begiko habeaz ohartzen ez? Nola esan diezaiokezu se-
nideari: "Adiskide, uztazu begian duzun lasto-izpia ateratzen",
zeuk zeurean duzun habea ikusten ez duzula?

Ixturazale halako hori! Atera lehenik zeure begitik habea, eta or-
duan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko.

Ez da zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarrik ere fruitu ona ematen duenik. Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; elorritik ez da pikurik biltzen, ezta sasitik ere mahatsik hartzen. Ona denak ona ateratzen du bere barneko ondasun-altxorretik, eta gaiztoak gaitza bere gaiztakeri altxorretik; ahoak esan, bihotzari gainezka darionetik esaten baitu».

Andre Maria Jesusen gurutze ondoan zutik, gurutzean josi duten Semearen ondoan... Tristura eta oinazea jasanez, isilik lagun eginez, ezinaren zori latza onartuz, bere burua eskainiz, beste behin!, bere burua eman duen Semearekin... «Horra zeure Ama». Kontenplatu beharra dugu geure Ama gurutzean den Semearen oinetan, berak erakuts diezagun eta lagundu «aurpegia ez estaltzen [Semea] ez ikusteko» (Is 53,3), eta erakuts diezagun aurpegia ez estaltzen injustiziak, egoismoak edo gizatasun-ezak gurutziltzatuak dituen Amaren beste hainbat eta hainbat seme-alaba ez ikusteko. Haien ondoan zutik egotean...

Urteko 23. astea.**Larunbata / Zapatua-**San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano, *gotzaina, martiriak*.

[**San Paulok 1 Timoteori 1,15-17:** Bekatariak salbatzera etorri zen lurrera. **Sal 112:** Jaunaren izena bedeinkatua izan bedi, gizaldiz gizaldi.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,43-49.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarririk ere fruitu ona ematen duenik. Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; elorritik ez da pikurik biltzen, ezta sasitik ere mahatsik hartzen. Ona denak ona ateratzen du bere barneko ondasun-altxorretik, eta gaiztoak gaitza bere gaiztakeri altxorretik; ahoak esan, bihotzari gainezka darionetik esaten baitu.

Zergatik esaten didazue "Jauna, Jauna!" eta ez duzue egiten esaten dizuedana? Erakutsiko dizuet noren antzeko den nigana etorri eta nire hitzak entzun eta betetzen dituen: etxea eraikitzean, zulatu, sakondu eta zimenduak harkaitzean hartu zituen gizonaren antzekoa da. Uholdea gertatzean, jo zuen ur-boladak etxea, baina ezin izan zuen dardararazi, sendo eraikia baitzegoen.

Entzun bai, baina betetzen ez dituen, berriz, etxea lur gainean, zimendurik gabe, eraiki zuen gizonaren antzekoa da. Jo zuen ur-boladak eta berehala erori zen eta erabat porrokatua gelditu.

Gogoratzen naiz, behin batean arkitekto batek, estimu profesional handirik ez zion beste batez hitz eginez, esan zidala: «Bai, hau dekoratzaile ona da»: itxura handia eta oinarri txikia. Horrelako zerbaitez mintzo zaigu gaurko ebanjelioa ere: gure bizitza apaindura hutsa ote

den ala oinarri sendoa ote duen. Oharpen aproposa; izan ere, apaindurari oinarriari baino garrantzi handiagoa ematen dion kulturen bizi gara. Apaindura gauza polita da, batzuetan oso polita, baina hauskorra: kontrakotasun txikiena gertatzean pikutara joan daiteke eta gelditzen dena biluzik uzten du.

Urteko 24. astea.

Igandea / Domeka.

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita.***§ Ben Siraken liburutik 27,33–28,9.**

Amorrua eta haserrea higuingarriak dira; horietan maisu da gizon bekataria.

Mendekatzen denak Jaunaren mendekua jasan beharko du, bekatuen kontu zorrotza hartuko dio.

Barkatu lagun hurkoari egin dizun iraina, eta, zuk erregu-
tzean, barkatuko dizkizu Jainkoak ere zeure bekatuak.

Gizaki batek, amorrua badio beste bati, nola eska diezaioke Jaunari osasuna? Bere kidekoari errukirik ez dionak, nola eskatuko du bere bekatuen barkamena?

Gizaki huts baino ez denak amorruari eusten badio, nork lortuko dio bere bekatuen barkamena?

Gogoratu amaiera eta egin uko gorrotoari; gogoratu ustelkeria eta heriotza, eta jarraitu leial aginduei.

Gogoratu aginduak, eta ez izan gorrotorik lagun hurkoari; oroitu Goi-goikoaren itunaz, eta ez hartu iraina kontuan.

[Sal 102: Errukior da Jauna eta gupidatsua, berant haserre eta onbera.]

§ San Paulok Erromatarrei 14,7-9.

Senideok: Gutako inor ez da beretzat bizi, ezta beretzat hiltzen ere. Bizi bagara, Jaunarentzat gara bizi, eta hiltzen bagara, Jaunarentzat gara hiltzen. Beraz, nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara.

Honetarako hil eta piztu zen Kristo: hildakoen eta bizien Jauna izateko.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 21-35.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?»

Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz.

Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko. Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia.

Baina morroiak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-laguna topatu zuen, eta, leptik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain iezadazu zor didazuna”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Beste morroiak, gertatua ikusirik, biziरो atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten. Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu dizut nik, eskatu didazulako; ez al zen bidezkoa zu ere zeure morroi-lagunaz errukitzea, ni zutaz errukitu nintzen bezala?” Eta nagusiak, haserre bizi-tan, borreroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte. Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruetako nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue».

«**H**irurogeita hamar aldiz zazpi»: barkatzea ez da kontabilitate-arazo bat, baizik jarrera-arazo bat. Jarrera iraunkorra da, ez du jotzen zenbatzera zenbat bider gauzatu behar den jakiteko.

Gaurko parabolak, bere egundoko adierazgarritasunez, bi gauza nabarmentzen ditu. Lehenengo, barkatzeko orduan sentitzen dugun zailtasuna da. Barkazio-sentimendua ez zaigu irteten berez eta lehenengo; aitzitik, jaiotzen zaigun lehenengo sentimendua zorra ordaindu beharrekoa dela da. Neke dugu barkatzea, eta, zertaz den kontuan harturik, oso neke. Jasotako kaltea sakon sartzen zaigu barneraino, eta kontra egiten diegu guztia ahazteari eta egin diguna berriro laguntzat onartzeari.

Hau da parabola honek agerian jartzen digun bigarren gauza: barkatzeko zailtasun hori gainditzeko ahal dugula, Jainkoagandik geuk hartu dugun barkazioaren esperientziara jotzen badugu. Barkazio mila bide eskuzabalagoa eta baldintzarik gabea, guk geuk inoiz eskaini dezakeguna baino. Baina, ba al dugu Jainkoak barkatu digunaren usterik? Izan ere, uste horrek bizitza sakon bizitza eskatzen du eta bizitzaz ikuspegi sakona izatea; baldin eta itsatsirik bizi bagara «edozein gauzak balio du» delakoari, edota «berdin dio denak» delakoari, edota «ez da ezer» delakoari..., nekez izango dugu uste hori.

Urteko 24. astea.

Astelehena.

Karlos Eraña (Aretxabaleta 1884 – Ciudad Real 1936), marianista, Fidel Fuidio eta Jesus Hita, dohatsuak, *erlijioso eta martiriak*.

San Jose Kupertino-koa, *erlijiosoa*.

[San Paulok 1 Timoteori 2,1-8: Egin otoitz Jainkoari gizaki guztien alde, denak salbatzea nahi du-eta berak. Sal 27: Be-deinkatua Jauna, entzun baitu nire otoitz-oihua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,1-10.

Aldi hartan, Jesus, herriari egindako hitzaldia amaiturik, Kafarnaumen sartu zen. Bazen han erromatar ehuntari bat, eta honek morroi bat zuen oso maitea; morroia gaizki zegoen, hiltzorian. Ehuntariak, Jesusen berri entzunik, judu buruzagi batzuk bidali zizkion, morroia sendatzera etortzeko erreguaz.

Haiek, Jesusengana joanik, arren eta arren eskatu zioten: «Merezi du zuk hori egitea, maite baitu gure herria eta berak egin digu sinagoga ere».

Jesus haiekin joan zen. Etxera hurbilduxea zela, lagun batzuk bidali zizkion ehuntariak, esatera: «Ez hartu nekerik, Jauna, ni ez bainaiz inor zu nire etxean sartzeko. Horregatik, ez naiz ausartu neu zugana joaten; aski duzu hitz bat esatea, nire morroia sendatzeko. Neuk ere, besteren menpean egon arren, soldaduak ditut neure menpean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du».

Hau entzutean, Jesus harritu egin zen hartaz eta, ondoren zetorkion jendeagana itzulirik, esan zuen: «Egia esan, Israelen bertan ere ez dut aurkitu horrelako sinesmenik». Mandatariak etxera itzuli zirenean, sendatua aurkitu zuten morroia.

Atentzinoa ematen du kontakizun honetan, Jesusek eta ehuntariak bat-tak bestearekin aurrez aurre topo egin ez izanak. Lehenik, juduen arteko adin handiko batzuk hurbildu zaizkio Jesusi; ondoren, adiskide batzuk. Ehuntariaren jarreran, Jesusek miresten duen fedeez gain, apaltasun sakon bat, gupida eta eskerrona nabari ditugu; izan ere, morroi baten aldeko eskaria egin du. Honek guztiak miresgarri bihurtu du izenik gabeko pertsona hau: fedea, apaltasuna, gupida. Dudarik gabe, ezagutzen ditugun hainbat eta hainbat pertsona iradokitzen dizkigu: titulurik eta ondasunik gabeak, baina fede sakonekoak, zinezkoak apaltasunean eta doakoak gupidaz.

[San Paulok 1 Timoteori 3,1-13: Gotzainak akatsik gabea izan behar du; diakonoek ere sinesmenaren misterioa bihotz garbian gordetzen dutenak. Sal 100: Bihotz errugabez ibiliko naiz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,11-17.

Aldi hartan, Nain izeneko herrira joan zen Jesus, bere ikasleak eta jende asko lagun zituela. Herriko sarrerara hurbildu zenean, hildako bat, ama alargun baten seme bakarra, zeramaten lur ematera. Herriko jende asko zihoan amarekin.

Hau ikustean, errukitu egin zitzaion Jauna eta esan zion: «Ez egin negarrik!» Hurbildurik, hilkutxa ukitu zuen, eta zeramatenek gelditu egin ziren. Orduan, esan zuen: «Gazte, zuri diotsut: Jaiki!» Jaiki zen hildakoa eta hizketan hasi, eta Jesusek amari eman zion.

Beldurrak hartu zituen denak eta Jainkoa goستن zuten, esanez: «Profeta handia sortu da gure artean». Eta hau ere bazioten : «Jainkoa bere herria salbatzera etorri da». Judea eta inguruko lurralde guztian zabaldu zen gertaera honen berri.

«**H**ilkutxara hurbildu zen»: Jesus gupidatsu gerturatu da giza sufrimenera eta heriotzara. Inork ez dio eskatu hurbiltzeko: «hau ikustean»... Oinaze indibidual eta pertsonal batera hurbildu da, «jendetza handira» baino harago. Behartsurik behartsuagana hurbildu zen: emakume bat «alargun zen» eta bere seme bakarra galdu zuena. Bizitzan jokatzeko era bat da, Jesusek duen modu bat bizitzan, guretzat ere bizi-proposapen bat: adi ibiltzea, bidean aurki genezakeen sufrimenari erreparatuz eta sufritzen ari den jendearengana hurbilduz.

Urteko 24. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak (Koreako martiriak)*.

[San Paulok 1 Timoteori 3,14-16: Handia da gurtzen dugun misterioa. Sal 110: Handiak egin ditu Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,31-35.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Norekin konparatuko nuke gizaldi honetako jendea? Noren antzekoa da? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da, honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: "Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek negarrik ez".

Izan ere, etorri da Joan Bataiatzailea, ez ogirik jan ez ardorik edan egiten ez zuela, eta deabruak hartua dagoela esaten duzue. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta honela diozue: "A zer tripazaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea". Baina bera onartzen dutenek arrazoi eman diote Jainkoaren jakinduriari».

Gure bizitzan ezin bizi gara besteen irizpidearen mende, zer esango duten edota ez duten... Gaurko ebanjelioak, azpimarratu duelarik zein aldartekorra den jendearen pentsatzeko era, nor bere irizpideak izatera eta jende jatorraren askatasuna bizitzera gonbidatu gaitu. Askatasuna eta jatortasuna edo egiatasuna: Jainkoaren Hitza entzutean eta Hitz horrek bakoitzari eskatzen dionaren bereizmen pertsonalean oinarrituak. Bizitzera eta jokatzera gonbidatzen gaitu, opinioen esklabo izan gabe eta bata bestearekin konparatzera emanik bizi gabe: leial nor bere bokazioarekin.

Urteko 24. astea.

Osteguna / Eguena.

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA.San Jonas, *profeta*.**§ San Paulok Efesoarrei 4,1-7.11-13.**

Senideok: nik, Jaunagatik bahitua nagoen honek, eskatzen dizuet, zabiltzatela egin zaizuen deiari dagokionez. Izan beti apal, maitagarri, bihotz handiko; eraman edo eroan elkar maitekiro; saia zaitetze Espirituaren batasunari eusten, bakearen lokarriz. Bat bakarra da gorputza, bat bakarra Espiritua, bat bakarra den bezala zuek izan duzuen deiaren itxaropena ere. Bat bakarra Jauna, bat sinesmena, bat Bataioa, bat bakarra Jainkoa, guztion Aita, gauza guztien gaintik dagoena, guztien barruan eta guztiengan. Grazia gutako bakoitzari Kristoren dohainaren neurritz eman zaigu. Eta hark berak egin ditu batzuk apostolu, beste batzuk profeta, beste batzuk ebanjelari, beste batzuk artzain eta irakasle, eliztarrak nor bere zerbitzu-lanerako eratzeko, eta Kristoren gorputza eraikitzeko, guztiok Jainkoaren Semearen sinestez eta ezagueraz bat izatera iritsi arte, gizon heldu izateraino –Kristoren adin beteko izateraino–.

[Sal 18: Lur guztira zabaltzen da haien hotsa.]**† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,9-13.**

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zerga-biltzaileen mahaian eseria, eta esan zion: «Jarrai niri». Eta Mateok zutitu eta jarraitu zion. Jesus Mateoren etxean mahaian zegoela, zerga-biltzaile eta bekatari asko etorri zen, eta mahaian eseri zen Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek hori ikusi-eta esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten du zuen Maisuak zerga-biltzaile eta bekatariekin?» Jesusek, hori

entzunik, esan zien: «Ondo daudenek ez, baino gaixo daudenek behar dute sendagilea. Zoazte, bada, eta ikasi zer esan nahi duen esaera hark: "Opariak ez, baino errukia nahi dut nik". Ez bainaiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Zergatik aukeratu ditu ikasleak Jesusek «zerga-biltzaileen eta bekatarien» artean? Jesusek berak bakarrik erantzuten ahal dion galdera da hori... Guk imajinatu edo sumatu bakarrik egin ditzakegu arrazoi batzuk: agian, ikasleak aukeratzean, berek esperimentatu izan duten erruki hura bera beste batzuei agertzeko gai izango diren pertsonak aukeratu nahi dituelako; agian, beren bizitzan Jainkoaren erruki harrigarria eta doakoa atzemateko gai izan diren pertsonak bakarrik ekingo diotelako misioari behar den eskuzabaltasunez eta doakotasunez; agian, pertsona horiek bakarrik agertu ahal izango dietelako anai-arreba ahulenei hurbiltasun bat, jendea beraiengana beldurrik gabe hurbiltzea erraztuko duen modukoa.

Urteko 24. astea.
Ostirala / Barikua.

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897), Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), Klara Ezkurra (Arrasate 1896), Feliziana Uribe (Muxika 1893), Kotsuelo Cuñado (Bilbo 1884), Antonia Gosenz Saez de Ibarra (Gasteiz 1970), Daria Campillo (Gasteiz 1873) eta lagunak, Vedrunatarrak, dohatsuak, *birjinak eta martiriak*, 1936.

[San Paulok 1 Timoteori 6,2c-12: Zuk, ordea, Jainkoaren gizon horrek, bila ezazu zuzenbidea. Sal 48: Zorionekoak, gogoz behartsu direnak, berena dute-eta zeruetako erreinua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,1-3.

Honen ondoren, herriz herri eta auzorik auzo ibili zen Jesus, Jainkoaren erregetzaren Berri Ona hots egiten. Berekin zituen Hamabiak, baita espiritu gaiztoetatik eta gaitzetatik sendatuak zituen zenbait emakume ere: Maria Magdalena —honengantik zazpi deabru bota zituen—, Joana —Herodesen ethezain Kusaren emaztea—, Susana eta beste asko; hauek beren ondasunez laguntzen zieten Jesusi eta honen ikasleei.

«Jesusi lagun egin»: Jesus ez zen gizon bakarti bat, bakarrik egoteko une batzuk hartzen zituen arren, zeinetan leku bazter batera joaten baitzen Aitarekin bihozko egoteko. Baina lagunak onartu izan ditu beti; bere misioaren hasieratik ibili da lagun egingo dion jende baten bila. Berari atxikitzen zaion jendea da, hautatua, ikasleak adibidez, edota esker onez, «laguntzen zioten» emakumeak, adibidez. Lagunak onartzen ditu eta laguntza onartzen du. Onartzen du esker ona eta ez ditu mespretxatzen laguntza-keinuak. Bizitzeko modu bat da, bere xumetasunean bereziki gizatarra... Lagunak onartu, laguntza onartu...

[San Paulok 1 Timoteori 6,13-16: Bete agindua kutsurik gabe, Jaunaren agertze eguna arte. Sal 99: Jaunaren aurrera pozez oihuka sar gaitezen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,4-15.

Aldi hartan, herri guztietatik jendetza handia bildu zitzaion batean, Jesusek parabola hau esan zien: «Behin batean, aterra zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta zapaldu egin zuten eta txoriek jan. Beste zenbait harri artean erori zen eta, erne orduko, ihartu egin zen, hezetasunik ez zuelako. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, harekin batera ernerik, ito egin zuten hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne eta bateko ehun eman zuten fruitua».

Hau esanik, oihu egin zuen: «Entzuteko belarririk duenak entzun beza».

Orduan, parabola honek zer esan nahi zuen galdetu zioten ikasleek Jesusi. Honek erantzun zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioak ezagutzea; besteei, ordea, parabola bidez hitz egiten diet. Horrela, begiratzen dute, baina ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez. Hona hemen, bada, parabolaren esanahia: Hazia Jainkoaren hitza da. Bide bazterreko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzuten dutenak, baina deabrua etortzen zaie eta kendu egiten die hitza beren bihotzetik, sinetsi eta salba ez daitezten. Harri arteko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzutean pozik hartzen dutenak; baina, sustrairik gabeak izanik, denboraldi batean sinestuten dute, baina tentaldi-garaian atzera egiten dute. Sasi artean

eroritako hazia bezalakoak, berriz, hauek dira: hitza entzuten dutenak, baina bizitzako ardua, diru eta atseginen artean itota gelditzen dira eta ez dira iristen fruitua ematera. Lur oneko hazia bezalakoak hauek dira: hitza bihotz on eta zabalez entzunik, barruan gorde eta iraupenez fruitua ematen dutenak».

Lur onean erortzen den haziak berak ere bere denbora behar du hazteko eta fruitu emateko. Badaki hori ereileak: ez du espero hazia gauetik goizera ernetzea, ez da urduri jartzen fruitu eman zain egon behar duela. Badaki badela ekidin ezineko prozesu bat eta, are, prozesu hori mantso gauzatzea, prozesu horrek bere denbora hartzea, mesedegarri dela haziak izan behar duen kalitatea izan dezan. Horrela doa haziz Jainkoaren Erreinua ere. Jainkoa pazientziaz dago beraren egintza noiz helduko zain. Eta guk Jainkoarena hobetu egin nahi izaten dugu askotan!

§ Isaias Profetaren liburutik 55,6-9.

Bila ezazue Jauna, aurki dezakezuen artean, dei egiozue, hurbil dagoen artean.

Utz beza gaiztoak bere bidea, gaizkileak bere asmo txarrak.

Bihur dadila Jaunagana, gupidaz hartuko baitu; bihurtu gure Jainkoagana, guztiz barkabera baita.

Hau dio Jaunak: «Nire asmoak ez dira zuenak bezalakoak, ezta zuen jokabideak ere nireak bezalakoak.

Nola zerua lurraren gainetik garai, halaxe nire jokabideak zuenen gainetik eta nire asmoak zuenen gainetik».

[Sal 144: Hurbil da Jauna dei egiten dioten guztiengandik.]

§ San Paulok Filipoarrei 1,20c-24. 27a.

Senideok: Ni bizi nahiz hil, Kristok bere handitasuna agertuko du nigan. Izan ere, niretzat, bizitzea Kristo da eta hiltzea irabazpide. Baina bizitzen jarraituz lan onuragarria egin ahal badut, ez dakit nik zer aukeratu.

Bi aldeetatik nago estu: batetik, hil egin nahi nuke, Kristorekin egoteko; niretzat hau askoz hobea delarik; baina bestetik bizitzen jarraitzea beharrezkoago da zuentzat.

Hauxe bakarrik eskatzen dizuet: bizi zaitezteela Kristoren Berri Onari dagokion bezala.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,1-16a.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Eguneko zilarrezko txanpon batean hizketatu ondoren, mahastira bidali zituen langileak.

Goizeko bederatzia aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plazan lan zain ikusirik, esan zien: "Zoazte zuek ere nire mahastira eta ordainduko dizuet bidezko dena". Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen. Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, beste batzuk oraindik geldi aurkiturik, esan zien: "Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?" Haiek erantzun zioten: "Ez gaitu inork lanerako hartu". Hark, orduan: "Zoazte zuek ere nire mahastira".

Iluntzean mahasti-nagusiak esan zion arduradunari: "Deitu langileei, eta emaiozu bakoitzari bere soldata, azkenekoetatik hasi eta lehenengoetara". Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaientean, besteek baino gehiago hartuko zutela uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana hartu zuten.

Orduan, nagusiaren kontra gaizki esaka hasi ziren, eta esan zioten: "Azkeneko hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun guztiko nekea eta beroa jasan dugunokin". Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: "Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egiten. Ez al ginen zilarrezko txanpon batean hizketatu? Tori dagokizuna eta zoaz. Zuri beste eman nahi diot azkeneko honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala inbidia duzu, ni ona naizelako?"

Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkeneko».

«**N**i ona naizelako»... Joera dugu pentsatzeko, on izatea zer den guk uste dugun bezala izan behar duela Jainkoaren on izateak, Jainkoak behar duela egokitu gure pentsatzeko modura, gauzak egiteko gure modura, gure irizpideetara... Alabaina, Jainkoak esan digu: «nire bideak zuenak baino garaia goak dira, altuagoak». Gure ontasunak du egokitu beharra Jainkoaren ontasunera.

Gaurko parabola nahasmenduaz mintzo da Jainkoaren jarduera dela-eta, haserrea eta protesta eragiten dituen nahasmenduaz. Oso ondo islatzen gaitu gu geu: kanpotik edo barnetik haserretzen eta protesta egin dugunean Jainkoaren jardueragatik, gure aurreiritzien eta gure planteamenduen araberakoa ez delako, pentsatzen dugunean Jainkoak beste batzuk hobeto tratatzen dituela, gure ustez guk baino merezimendu txikiagoa dutelarik eta, ondorioz, gu bezala tratatzea merezi ez dutelarik.

Halakoetan ahaztu egiten gara Jainkoak gugatik egin duenaz, eta zeoak izaten ditugu Jainkoak gainerakoengatik egiten duenaz, guri eman diguna baino handiagoa ez bada ere. Baina horixe: uste izaten dut nik gehiago merezi dudala, Jainkoa ez dela zuzena... Eta halaxe da; Jainkoa ez da zuzena gure modura, Jainkoa ona da!

[Esdrasen liburutik 1,1-6: Jainkoaren herriko direnak igo bitez Jerusalemera eta eraiki biezaiote etxe bat Jaunari. Sal 125: Jainkoak handikiro jokatu du gurekin.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Inork ez du krisei-lua pizten eta ontzipean gordetzen edo ohepean ipintzen, baik eta argimutilaren gainean ipintzen du, sartzen direnek argia ikus dezaten. Izan ere, ez dago ezer gordeta agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere jakingo eta argitaratuko ez denik.

Kontu izan, beraz, nola entzuten duzuen! Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, eduki uste duena ere kendu egingo zaio».

Hartu ditugun dohainak (eta guztiok hartu ditugu) jokoan jartzeko dira, eta ez ezkutatzeko edo zikoizkeriaz gordetzeko, denbora-pasa bere ondasunak zenbatuz atsegintzen denak bezala... Eta orduan gauza harrigarri bat gertatzen da, baina benetakoa, geure bizitzako egunerokotasunean egiaztatu genezakeena: benetakoa eta gizabidez baliotsua den hura biderkatu egiten da besteri eman eta partekatzen denean; aitzitik, galdu egiten da gorde eta xuhur jokatzen denean. Har dezagun, adibidez, maitatzeko gaitasuna: maitatzen eta jokoan jartzen den neurrian baka-rik hazten eta iristen da heltzera.

[Esdrasen liburutik 6,7-8. 12b. 14-20: Bukatu zuten jauretxea eraikitzea, eta Pazkoa ospatu zuten. **Sal 121**: Bagoaz pozik Jaunaren etxera.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,19-21.**

Aldi hartan, ama eta anai-arrebak joan zitzaizkion Jesusi, baina jendearen jendeaz ezin iritsi ziren beragana. Eta jakinazioten Jesusi: «Ama eta anai-arrebak dituzu kanpoan, zu ikusi nahian».

Jesusek erantzun zien: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba: Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak».

Jainkoaren hitza entzun eta betetzeak harreman estu-estuan, familiar-tekoan jartzen gaitu Jesusekin. Ezin bestela izan: Jesus errotik zaio leial Jainkoaren nahiari, bizia emateraino leial. Aitaren nahiari leial izateak eta geure buru-eskaintzak kateatzen gaitu gu Jesusekin era erro-errotikoan. Ez dira etiketak, ez konpromisorik gabeko jabetasun hutsalak, ez gizarte-jokabideak Jesusen anai-arreba egiten gaituztenak. Jesusek seme-alabatzat hartu, berarekin eta berak bezala buru-eskaintza egiten dugunean hartzen gaitu.

[**Esdrasen liburutik 9,5-9:** Gure morrontzaren erdian Jainkoak ez gaitu erabat utzi. **Sal: Tobit 13:** Bedeinkatua Jainkoa, beti-beti bizi dena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,1-6.**

Aldi hartan, Jesusek, Hamabiak beregana bildurik, deabru guztiak botatzeko ahalmena eta gaitzak sendatzeko indarra eman zien. Eta Jainkoaren erreinua hots egitera eta gaixoak sendatzera bidali zituen, esanez: «Ez hartu ezer biderako, ez makilarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez dirurik, ez aldatzeko soinekorik ere. Etxe batean sartzen zaretela, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta onartzen ez bazaituztete, herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa, beraien kontrako seinaleztat».

Atera ziren, bada, eta herriz herri joan ziren, Berri Ona hots eginez eta alde guztietan gaixoak sendatuz.

Ikasleak Berri Ona hots egitera bidaltzean, estilo bat ere adierazi die Jesusek, gauzak nola egin ere bai, gaurko ebanjelioan ageri denez. Estilo horren bi ezaugarri nabarmentzen ditu ebanjelioak: pobre eta doan hots egitea. Pobre: gure aberastasuna, balio duena, hots egiten dugun mezua bera delako; hala, geure konfiantza eta segurantzaz bidali gaituen eta lagun dugun Jaunagan ipintzen ditugu. Doan: ez dagoelako ez sari, ez ordain handiagorik misio honetarako hautatuak izana eta Erreinuko poza partekatzea baino.

Urteko 25. astea.**Osteguna / Eguena.**

San Domingo Erkizia (Errezil 1589), San Mikel Aozaraza (Oñati 1598), San Lorenzo, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak* (Japonian 1637).

[Ageo Profetaren liburutik 1,1-8: Eraiki jauretxea, Nik poza izan dezadan. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,7-9.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes agintariak gertatzen zen guztia, eta zer pentsa ez zekiela zegoen. Batzuek Joan Bataiatzailea hilen artetik piztu zela zioten; beste batzuek Elias profeta agertu zela; beste zenbaitek, berriz, antzinako profetaren bat piztu zela.

Herodesek, ordea, honela zioen: «Joani neuk moztu nion lepoa. Nor da, beraz, hau, horrelakoak entzuten baititut beroni buruz?» Eta Jesus ezagutzeko egokiera bila zebilen.

«Joan...» «Elias...» «Antzinako profetak...». Gaurko ebanjelioa omenaldi edo oroitzapen bezalako bat da, Jesusen aurretik Jainkoaren hitza askatasunez eta beren bizitza arriskuan jarritz hots egin zuten hainbat eta hainbat profetari. Haiei jarraituz, baina era besterik ez bezalakoan, Jesusek bere egin du eta gailurrera eraman tradizio profetiko hori. Halere, ez profetia, ez profetak bukatu dira Jesusekin. Honi jarraituz, pertsona askeren tradizio profetikoa haragitzuz jarraitu dute historian barna gizon-emakumek, zuzengabekeria salatzeke eta Jainkoaren Erreinua hots egiteko, beren bizia emanez ere.

[Daniel 7,9-10.13-14: Milaka zituen morroiak. Sal 137: Eresi egingo dizut, Jauna, aingeruen aurrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,47-51.

Aldi hartan, Jesusek Natanael beragana etortzen ikusi eta esan zion: «Hona hemen egiazko israeldarra, azpikeriarik ga-bea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zeundela, ikusi zintudan nik». Natanaelek erantzun: «Rabbi, Jainkoaren Semea zara zu; Israelgo Erregea zara zu». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako sines-ten al duzu? Hori baino handiagorik ikusiko duzu». Esan zion gainera: «Hara nik egia esan: Zerua zabalik ikusiko duzue, eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera, Gizonaren Semearen gainean».

«**J**ainkoaren aingeruak gora eta behera...»: Jainkoak gizon-emakumeekin komunikatu nahi duela adierazi nahi digute aingeruek. Jainkoaren ontasuna eta samurtasuna hurbildu nahi diete gizon-emakumei, eta gure desirak eta kezak Jainkoari aurkeztu. Eguneroko geure borrokarako adoretu nahi gaituela agertu nahi digu Mikelek; Jainkoak geure bizitzako bideetan gure bide-lagun izan nahi duela agertu nahi digu Rafael; Gabrieleak Jainkoaren gonbita agertu nahi digu: beraren egitasmo salbatzailean parte hartzeko gonbita. Eska diezaiegun beraiei, itzul diezazkiotela Jainkoari gure esker ona eta berari zerbitzatzeko gure prestasuna.

[Zakarias Profetaren liburutik 2,5-9.14-15a: Etorriko naiz eta zure erdian biziko. Sal Jeremias 31: Artzainak artaldea bezala zainduko gaitu Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,43b-45.

Aldi hartan, Jesusek egiten zituenengatik txundituta zeuden guztiak. Hark esan zien ikasleei: «Hartu ongi gogoan hitzok: Gizonaren Semea gizakien eskuetara emango dute».

Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; ilun gertatzen zitzaien, eta ez ziren esanahiaz jabetzen; galdetzeak, berriez, beldurra ematen zien.

«**E**giten zuenagatik denak txunditurik zeudela, Jesusek esan zuen... gizonaren Semea gizakien esku jarriko dute... Ez zuten ulertzen». Jakina, ba, ez zutela ulertzen! Gauza bera gertatuko zitzaigun geuri ere: bere «garaipena» eta herri-ospea bizitzen ari den batek Jesusen akabera izan behar duela esatea! Horregatik dio «sar ezazue buruan ondo» hori: ez zaitezte engainatu, ez zaitezte itsutu gaurko gora-deiekin, erabat bes-telako izango baitira bihar. Jainkoari, haren egitasmoari eta ebanjelioari leializatea ez da giza «garaipenerako», ez bidea, ez bermea. Guri ere zail gertatzen zaigu ulertzea...



CESAR JARRO 99

§ Ezekiel Profetaren liburutik 18,25-28.

Honela mintzo da Jainko Jauna:

«Zuek diozue: “Ez da bidezkoa Jaunaren jokabidea”.

Entzun, bada, israeldarrok:

Nire jokabidea bidezkoa ez dela?

Ez ote da zuena bidezkoa ez dena?

Zintzoa, bere zuzentasunetik aldendu,

txarkeria egin eta hiltzen bada,

egin duen txarkeriagatik hiltzen da.

Eta gaiztoak, egin duen gaiztakeriatik aldendu

eta zuzenbidez eta justiziaz jokutzen badu,

bizirik iraungo du.

Egindako txarkeriez ohartu

eta haietatik aldentzen bada,

biziko da, bai, eta ez da hilko».

[Sal 24:Oroitu zaitetz zeure errukiaz, Jauna.]

§ San Paulok Filipinoarrei 2,1-11.

Senideok: Egia bada Kristok adore ematen dizuela eta maitasunak kementsu egiten, egia bada Espirituagan bat eginik bizi zaretela eta bihozbera eta erruki zaretela, bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. Ez egin ezer norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, besteak norbera baino hobeak direla pentsatuz; ez norberaren onari bakarrik begiratuz, besteena ere bilatuz baizik. Izan itzazue zeuengan Kristo Jesusi dagozkion asmoak:

Hark, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari;
bestela baizik, bere izaeraz hustu egin zen
morroi-izaera hartuz,
eta beste edozein bezala azalduz.
Eta, gizon bezala agerturik,
apaldu egin zuen bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino
Horregatik, Jainkoak goratu egin zuen
eta izen guztien gaineko izena eman zion,
Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezen,
zeruan, lurlean eta lurpean,
eta mihi guztiek aitoren deizateen:
Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21,28-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburu eta herriko zaha-
rrei: «Zuek zer deritzozue? Gizon batek bi seme zituen, eta ba-
tarengana joan eta esan zion: "Seme, zoaz gaur mahastira, la-
nera". Hark erantzun: "Ez dut nahi". Baina gero damutu eta joan
egin zen. Bestearengana ere joan eta gauza bera esan zion. Eta
hark erantzun: "Banoa, jauna"; baina ez zen joan. Bietan zeinek
egin zuen aitaren nahia?» «Lehenengoak», erantzun zioten.

Orduan, Jesusek esan zien: «Egiaz diotsuet: Zerga-biltzai-
leak eta emagalduek zuek baino lehenago sartuko dira Jainkoa-
ren erreinuan. Izan ere, etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jain-
koaren nahiari dagokion jokabidea hots eginez, eta ez zenioten
sinetsi; zerga-biltzaileak eta emagalduek, berriz, sinetsi egin
zioten. Zuek, ordea, ikusi eta gero ere, ez zineten bihotz-berri-
tu, hari sinesteko».

Jesusen beste «jorraldi» bat, zeinen kontra?, eta «apaiz nagusien eta herriko zaharren kontra»; hau da: judu-herriaren agintari moral gorenen aurka. Eta «jorraldi» guztiz gogorra: haien aurretik ipini ditu, zein?, eta «zerga-biltzaileak eta prostituituak», gizarteko jenderik mespretxagarriena, gizon nahiz emakume. «Aurrea hartu dizuete Jainkoaren erreibidurako bidean». Imajinatzen al dugu antzeko zerbait geure kulturako termino baliokidetan emanik? Zail dugu pentsatzea ere...

Eta zer dago horren guztiaren azpian? Gaitzespen biziki latza. Bene-benetako gaitzespena: beren hitz handiosen eta zeregin sozial duda ezineko eta izen handikoetan babesturik, predikatzen dutenaren kontra jokatzeko duten eta gainerakoak neurririk gabeko gogortasunez juzkatzen dituztenen hipokresiaren eta harrokeriaren gaitzespena; beti ere, jakina, beren burua edozein gauzaz zuritzen dutelarik.

Jakina, dei eta interpelazio askok jarraitzen du bizirik guretzat gaurko ebanjelio honetan. Soilik, bat azpimarratu nahi dut: jatortasun edo egia-tasunerako deia, egiatasun xume eta apalerako deia, norberaren inkoherentziak kontuan hartu gabe gainerako guztiak goitik eta harro juzkatzeko eskubidedun sentitzen ez dena.

[Zakarias Profetaren liburutik 8,1-8: Nik salbatuko dut nire herria, sortaldeko lurretatik eta sartaldekoetatik. Sal 101: Berre-raiki du Sion Jaunak, eta bere ederrean agertu da.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,46-50.

Aldi hartan, eztabaida sortu zen ikasleen artean, nor ote zen beraietan handiena.

Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta, haurtxo bat hartu, haien ondoan jarri eta esan zion: «Haur hau nire izenean onartzen duenak neu onartzen nau, eta ni onartzen nauenak bidali nauen hura onartzen du. Zeren zuetan txikiena, horixe baita handiena».

Orduan, Joanek esan zion: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa».

Baina Jesusek erantzun zion: «Ez galarazi, zeren zuen aurka ez dagoena zuen alde baitago».

«Zaindu»: arretaz eta arduraz zerbait gorde da hiztegieta ematen den definizioa. Arreta eta ardura bereziaz gorde ohi da era berezian maite den hura. Jainkoak bere sorkari txikienez eta ahulenez duen arreta eta ardura berezi hori agertzen digute aingeru guardakoek; arreta eta ardura berezia: hain zuzen ere, txikiak eta ahulak direlako. «Haien aingeruak nire Aitaren aurpegia ikusten ari dira beti»: bere seme-alaba txikientzat arretatsu eta arduratsu den Aitagandik hurbilenik daudenak dira aingeru guardakoak. Beraz, «kontuz halakoak gutxiestearekin»: Jainkoak maiteen dituenak mespretxatuko genituzke.

Urteko 26. astea.

Asteartea / Martitzena.

San Frantzisko Borja-koa, *apaiza, jesuita*.

San Virila Leirekoa, *abadea (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*.

[Zakarias Profetaren liburutik 8,20-23: Herri asko etorri-ko dira Jerusalemera Jaunaren bila. Sal 86: Jaungoikoa gurekin dago.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,51-56.

Jesusek, mundu honetatik eramana izateko garaia bazetorkiolarik, Jerusalemera joateko erabakia hartu zuen. Mandatariak bidali zituen aurretik, eta Samariako herri batean sartu ziren, Jesusi ostatua prestatzera. Baina herrikoek ez zuten hartu nahi izan, Jerusalemera zihoalako.

Hori ikusirik, Santiago eta Joan ikasleek esan zioten: «Jau-na, aginduko al dugu zerutik sua jaitsi eta garbi ditzan?» Baina Jesusek, haiengana itzulirik, haserre egin zien. Eta beste herri batera joan ziren.

«Jerusalemera joateko erabakia hartu zuen»: esaldi honek, itxuraz oso soila, Jesusen erabaki bipila agertzen digu: Aitaren nahiari leial izan eta gugatik bere bizia ematekoa. «Erabakia hartu zuen» honek Jesusen gogoia adierazten du, zori hori bere-bere egitekoa. Jesusi jarraitzeko geure bizitzan ere «erabakiak hartu» beharko ditugu; erabakiak: agian geure biderako aldaketa handiak ekarriko dituztenak. Gaur ospatzen dugun santu batek ere, Borjako Frantziskok, bere bizitza goitik behera aldatu zion «erabaki bat hartu zuen». Jaun mundukoien zerbitzari izatetik, Jaun bakarraren zerbitzari izatera jo zuen. Erabakiak hartzeko adorea...

[Nehemiasen liburutik 2,1-8: Erregeari ondo iruditzen bazaio, bidal nazazu nire gurasoen hirira, berriro eraiki dezadan. Sal 136: Nire mihia ahosabaian itsatsi bedi, zutaz oroitzen ez banaiz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,57-62.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak bidez zihoazela, batek esan zion: «Noranahi jarraituko dizut». Jesusek erantzun zion: «Azetiek badituzte zuloak eta zeruko hegaztiek habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri».

Beste bati esan zion: «Jarraitu niri». Baina hark erantzun: «Jauna, uztazu lehenik neure aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Utzi hildakoei beren hildakoei lur ematen; zu zoaz Jainkoaren erreinua hots egitera».

Beste batek, berriz, esan zion: «Jarraituko dizut, Jauna, baina uztazu lehenik etxekoei agur egiten». Jesusek erantzun zion: «Goldeari heldu eta atzera begiratzen duena ez da gai Jainkoaren erreinurako».

Askotan, Jainkoari esker, ebanjelioa pertsona batzuetan haragi bizi egiten da, eta, horrelako pertsonak ikusiz, hobeto ulertzen dugu ebanjelioa. Horrelako zerbait gertatzen da gaur: ebanjelioko hitzak, dudarik gabe hitz bortitzak, gaur ospatzen dugun santuagan haragitu dira: Asisko Frantzisko santuagan. «Burua non ezarri ez izatea», «Jainkoaren Erreinua hots egitea», «atzera ez begiratzea»: Asisko santu honengan gauzaturik ageri diren esaldiak dira. Eta are gauza inportanteagoa: santu honengan nabari dezakegu hau: nola ebanjelioaren eskakizunei leial izateak poza, bakea, barne harmonia sortzen dituen pertsona batengan.

Urteko 26. astea.**Osteguna / Eguena.****ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA.***San Froilan Leon-goia, ermitaia eta gotzaina.*

§ Deuteronomio liburutik 8,7-18.

Egun haietan, Moises-ek hitz egin zion herriari: «Jaunak, zeure Jainkoak, lur onera eramango zaitu: ibar eta mendietan errekek, iturriak eta ur handiak sortzen diren lurrera; gari, garagar, mahasti, pikondo, pikor-sagar, oliondo, olio eta ezta dakarzkien lurrera; ogia neurri gabe jango duzun eta ezer ere faltako ez zaizun lurrera. Han, harriek burdina dute, eta mendietatik tupikia aterako duzu. Han, jango duzu eta aseko zara, eta eman dizun lurrarengatik Jauna, zeure Jainkoa, bedeinkatuko duzu. Baina, ibil zaitez erne: ez ahaztu Jauna, zeure Jainkoa; ez utzi bete gabe gaur esan dizkizudan haren agindu, lege eta arauak. Bestela, nahikoa jan eta asetzen zarenean, bizitzeko etxe ederrak eraikitzen dituzunean, zure behiak eta ardiak ugaritu, eta zilar, urre eta zure ondasun guztiak gehitzen ari direla ikustean, harrotu egingo da zure bihotza, eta Egiptoko lurretik, morrontza-etxetik, atera zintuen Jauna, zeure Jainkoa, ahaztu egingo duzu. Hark eraman zintuen, pozoidun sugez eta arrabioz betetako basamortu beldurgarrian barna; lur lehor eta urik gabean, hark atera zuen suharrizko harkaitzetik ura zuretzat. Hark eman zizun jateko basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana, zu atsekabetu eta aztertu ondoren, azkenean zuri on egiteko. Ez esan zeure bihotzean: "Neure ahalmenak eta neure eskuaren indarrak ekarri dizkidate on hauek guztiak". Izan ezazu gogoan Jauna, zeure Jainkoa: Berak eman baitizu ahalmena ondasun horiek sortzeko, eta horrela betetzen du gaur ere zure gurasoei egindako agintzaria».

[Salmoa: 1 Kro 29: Zureak dira, Jauna, indarra eta handitasuna.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 5,17-21.

Senideok: Kristorena den oro, sorkari berri da; zaharrarenak egin du; berria hasi da. Eta hau guztia Jainkoagandik dator, Kristoren bitartez bere adiskide egin baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua ezarri digu. Izan ere, Jainkoa mundua berekin adiskidetzen ari zen Kristogan, gizon-emakumeei bekaturen kontua eskatu gabe, eta guri eman zigun adiskidetzearen hitza. Gu Kristoren ordezeko bezala ari gara. Kristoren izenean esaten dizuegu: Adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekaturik ezagutu ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatu bihurtu zuen, guk harekin bat eginda Jainkoaren salbamena irits dezagun.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,7-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eska ezazue, eta emango zaizue; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko zaizue. Eskatzen duenak, hartzen du; bilatzen duenak, aurkitzen, eta atea jotzen duenari, zabalduko zaio. Zuetako norbaitek, semeak edo alabak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edo arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago emango dizkie zuen zeruko Aitak gauza onak, berari eskatzen dizkiotenei!

«**Z**eruko zuen Aitak gauza onak ematen dizkie...». Eta hau da kontua: zer ematen dugu gauza «ontzat»? Izan ere, askotan nahasten ditugu gauza onak gauza atseginekin, gustuko ditugun gauzekin, gure aberastasuna edo ospea handitzen dutenekin, besteak baino handiago garelako agertzen dutenekin... Eta gauza «onak» esatean hori hartzen badugu, sarritan gertatuko gara dezepzionaturik Jainkoak ez digula ematen ikustean, eta desilusionaturik ematen digunarekin. Zer gauza «on» ematen dizkiete gurasoek seme-alabei? Hazten laguntzen dietenak, pertsona hobe eta seme-alaba eta anai-arreba hobe izaten laguntzen dietenak...

[Baruk Profetaren liburutik 1,15-22: Bekatu egin dugu Jau-naren aurka, hari aditu gabe. Sal 78: Zure izenaren ederragatik, atera gaitzazu, Jauna, gaitzetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,13-16.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan hainbat mirari gertatu izan balitz, aspaldi bihotz-berrituak ziratekeen, do-lu-jantziz estali eta hautsetan eserita. Horregatik, Tiro eta Sidonek zigor bigunagoa izango dute auzian zuek baino.

Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko al zara? Lurraren barreneraino eroriko zara!

Zuei entzuten dizuenak niri entzuten dit, eta zuek onartzen ez zaituztenak neu ez nau onartzen; ni onartzen ez nauenak, berriz, bidali nauen hura ez du onartzen».

Ebanjelioko lerro hauetan bere samina agertu nahi du Jesusek bera-ren hurbilekoenak harrerarik egin ez dietelako beraren seinaleei eta hitzei. Baina ez da samintasun egoista bat: ez da porrot pertsonal batek eragindako samina; aitzitik, ukapen horrek jende hori Jainkoak eskainita-ko salbaziotik urrundu izanak sortutako samina da. Haiekiko samina da, eta ez berekikoa. Ebanjelio honek bereizmen-beharra planteatzen digu, porrot egin dugula edo ukatuak garela sentitzean: zerk gaitu egiaz sa-mintzen? Izan ere, samintzen gaituena geure porrota baldin bada, gure samin hori ez da Jesusena.

Urteko 26. astea.

Larunbata / Zapatua.

Arrosarioko Andre Maria Birjina.

Santana Justina, *birjina eta martiria*.

[Baruken liburutik 4,5-12.27-29: Izan bihotz, ene herri, Israelen izenari bizirik eusten diozun horrek! Sal 68: Behartsua du Jaunak aditzen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,17-24.

Aldi hartan, hirurogeita hamabi ikasleak pozez beterik itzuli ziren, eta esan zioten Jesusi: «Jauna, deabruak ere menpean jartzen zaizkigu zure izenean».

Jesusek erantzun zien: «Tximista bezala zerutik erortzen ikusi dut Satanas. Begira, sugeak eta eskorpioiak zapaltzeko eta etsaiaren indar guztiak menperatzeko ahalmena eman dizuet, eta ezin izango dizue ezerk ere kalterik egin. Hala ere, ez poztu espirituak menpean jartzen zaizkizuelako; poztu, bai, zuen izenak zeruan idatzirik daudelako».

Une hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei gorde eta jende xumeari agertu dizkiozulako. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Gaurko ebanjelioa pozez, eskerronez gainezka ageri da... Hirurogeita hamabiak «poz-pozik itzuli ziren». Jesus «Espiritu Santuaren pozaz beterik» ageri da... eta «zorioneko» deitzen die ikasleei... Hondo-hondoan eta poz honen esperientziaren arrazoia, bizitzan Jainkoa lanean ari dela ikustea da, eta ikustea gauzarik soilenetan eta pertsonarik xumeenetan ari dela. Zinez, fededunok hainbat arrazoi ditugu pozik bizitzeko: Jainkoak gure izena tatuaturik du bere esku-barnean; albisterik hoberena eman digu ezagutzera, Jesusen ebanjelioa; zentzuz bete du gure bizitza...!

§ Isaias Profetaren liburutik 5,1-7.

Nire adiskidearen izenean nator kantatzera adiskidearen eta beraren mahastiaren kantua.

Nire adiskideak bazuen mahasti bat,
mendi-malda jorian.

Lurra harrotu, harriak kendu
eta landare aukeratuak landatu zituen.
Erdian talaia eraiki zuen
eta dolarea egin.

Mahats ona espero zuen,
eta sasi-mahatsa eman zion.

Orain, bada, Jerusalemeko bizilagunok,
Judako gizon-emakumeok,
erabaki zeuek

nire eta nire mahastiaren arteko auzia.
Zer egin niezaiokeen neure mahastiari,
egin diodanaz gainera?

Mahats ona espero nuen:
zergatik eman dit sasi-mahatsa?

Esango dizuet, bai,
zer egingo diodan neure mahastiari:
hesia kenduko diot, larre bihur dadin;
harresia zulatuko, zapal dezaten;
lugorri bihurtuko dut:

ez dute inausiko, ez jorratuko,
eta sasiek eta laharrek hartuko dute;
bertan euririk ez egiteko aginduko diet hodeiei.

Horra, bada: Israel da
Jaun ahalguztidunaren mahastia,
Judako herria haren landare-sail kuttuna.
Zuzenbidea espero zuen Jaunak harengandik,
eta horra: zuzengabekeria!
Justizia espero zuen, eta horra: aieneak!

[Sal 79: Jaunaren mahastia Israelgo etxea da.]
§ San Paulok Filipinoarrei 4,6-9.

Senideok: Ez izan ezeren kezkarik, baizik eta gorabehera guztietan agertu zeuen eskabideak Jainkoari, otoitz eta erregu eginez eta eskerrak emanez. Eta guk pentsa dezakeguna baino handiagoa den Jainkoaren bakeak gordeko ditu zuen gogo-bihotzak Kristo Jesusen bidez.

Gainerakoan, senideok, hartzazue aintzakotzat egiazko, gizabidetsu, zuzen, garbi, maitagarri eta goresgarri, bertutetsu eta onargarri den guztia. Egizue nigandik ikasi, hartu eta entzun zenutena eta niregan ikusia. Eta bakea ematen digun Jainkoa zeuekin izango duzue.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21,33-43.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburu eta herriko zaharrei: «Entzun parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu; bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen.

Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, fruitutik zegokion partea jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu eta bata jo, bestea hil eta beste harrikatu egin zituzten. Berrito beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: "Izango diote begirune nire semeari".

Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: "Oinordekoa da. Hil dezagun eta geuretzat izango da ondarea". Heldu, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten".

Jesusek galdetu zien: «Zer egingo die nekazari horiei mahasti-jabeak itzultzean?»

Erantzun zioten: «Errukirik gabe hilko ditu, eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia».

Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri:

"Etxegileek baztertutako harria
giltzarri gertatu da.

Jaunak egin du hori,
gure begien harrigarri"?

Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio».

Lehen irakurgaiak eta gaurko ebanjelioak gai bat bera dute: mahastia batez eta mahastiaren Jaunaz mintzo dira. Kasu bietan Jaun batek samurkiro zaintzen du bere mahastia eta esperantza osoa du mahastia fruitua emango diola. Irakurgai biek batera duten gai horren azpian, lehen irakurgaiak mahastia bera du jardungai; ebanjelioak, berriz, hura zaindu behar duten laborariak.

Isaiasen irakurgaietan, Jauna kexu da, hainbeste zaindu duen mahastia horrek ez diolako eman espero zuen fruiturik, basa-mahatsa bakarrik eman diolako. Hainbat lan eta hainbat ardura zapuztua, galdua! Interpelazio bat da guretzat: Jainkoak eman dizkigun gaitasunei eta dohainei probetxurik ez atera izana, hainbat dohain aintzat ez hartu izana...

Ebanjelioan kexua mahastiko laborarien gain doa: fruitua berentzat gorde nahi izan dutelako, egoki zen bezala Jaunari eman orde; Jaunaren semea hiltzeraino iritsi dira. Diru-goseari eta zekenkeriari egindako interpelazioa da: Jaunak guztientzat landu nahi izan dituen ondasunak nork beretzat gorde izana, lapurreta egin izana salatzen du.

Jainkoaren dohainak oker erabiltzeko bi era: probetxurik ez ateratzea eta nork beretzat hartzea.

Urteko 27. astea.

Astelehena.

San Dionisio, *gotzaina*, eta lagunak, *martiriak*.
San Joan Leonardi, *apaiza*.

[Jonas Profetaren liburutik 1,1–2,1.11: Jaiki zen Jonas, eta Jaunaren aurretik ihes egin zuen. Sal: Jonas 2: Zuk atera duzu, Jauna, zulotik nire bizia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,25-37.

Aldi hartan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?» Jesusek esan zion: «Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?»

Hark erantzun: «Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz; eta lagun hurkoa zeure burua bezala». Jesusek erantzun zion: «Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu». Baina, lege-maisuak, galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, esan zion Jesusi: «Eta nor da nire lagun hurkoa?»

Jesusek, orduan: «Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemetik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan erori zen. Lapurrek zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz.

Hain zuzen, apaiz bat gertatu zen bide hartan behera eta, gizona ikusi zuenean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Beste horrenbeste egin zuen handik igaro zen tenpluko levitar batek ere: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen.

Baina bidaiari zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olioaz eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean jarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamu-

nean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: "Zaindu ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut".

Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren eskuetan eroritako gizonarekin?» Lege-maisuak erantzun zion: «Hartaz errukitu zenak». Jesusek esan zion, orduan: «Zoaz eta egin zeuk ere beste horrenbeste».

Oso gordin izango naiz gaurko ebanjelio honetaz egindako iruzkinean, norbaiti min emateko arriskua eta guzti. Lege-maisuaren galderak, zeinekin «bere burua zuzen» agertu nahi baitu, «zein da nire lagun hurkoa»? delakoak alegia, neuri zenbait aldiz egin izan didaten galdera bat gogorazi dit; egia esateko, aski min egin izan didana, ez baitzait iruditu sekula batere egiatia: «eta zein dira behartsuak?» Jesusen erantzunak berak balio dit: «lapurren eskuetan erori den hura», «egurtu duten hura» eta «erdi-hilik gelditu dena» bizitzako bidean.

Urteko 27. astea.

Asteartea / Martitzena.

Santo Tomas Villanueva-koa, *gotzaina*.

San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak)*.

[Jonas Profetaren liburutik 3,1-10: Ninivetarrak beren bide okerretik itzuli ziren, eta Jainkoa errukitu zitzairen. **Sal 129:** Gure erruak gogoan badituzu, Jauna, nor dagoke zutik?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,38-42.

Aldi hartan, Jesus herrixka batean sartu zen, eta Marta zerritzan emakume batek bere etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan eserita, haren hitza entzuten zegoen.

Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko zereginetan. Orduan, Martak Jesusen aurrean jarri eta esan zion: «Jauna, ez al zaizu axola nire ahizpak lan guztia nire gain uztea? Esaiozu laguntzeko».

Jaunak, ordea, erantzun zion: «Marta, Marta, gauza askorengatik zabilta kezkatua eta larri; baina bat bakarra da beharrezko. Alderdirik onena aukeratu du Mariak, eta ez dio inork kenduko».

Zerbitzatzea gauza txarra ote? Bai zera, zerbitzatzea ez da inolaz ere gauza txarra, eta nolatan kritikatu du zerbitzua eta zerbitzu-jarrera, bere buruaz hau esan duenak: «ez naiz etorri zerbitza nazaten, zerbitzari izatera baizik». Zerbitzua protagonista bihurtzea, zerbitzua gainerrakoen aurrean norberaren merezimendutzat hartzea, beste guztiek nik bezala eta nik egindako moduan zerbitzatu behar dutela uste izatea, nire zerbitzua abagunetzat hartzea besteak juzkatzeko, egin beharko luketela iruditzen zaidan moduan egiten ez dutelako... «Esaiozu lagundu diezadala» delako hura...

Urteko 27. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

Begoñako Andre Maria (Bizkaiko zaindaria).

Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea (Mariaren Mirabeak)*.

San Joan XXIII.a, 261. aita santua.

[Ikus beheraxeago Urteko Meza]

[Begoñako Andre Mariaren Meza: Ben Sirak 24,17-22: Maria, jakinduriaren aulkia. **Sal: Lukas 1:** Handiesten du nire arimak Jauna. **Galaziarrei 4,4-7:** Bere Semea bidali zuen Jainkoak, emakumeagandik jaioa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,43-51.

Jai-egunak bukatu zirenean etxera itzuli ziren; Jesus haurra, ordea, Jerusalemen gelditu zen, bere gurasoek ez zekitelako. Eta lagunen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren [gurasoak] taldeko ahaide eta ezagunen artean. Baina aurkitzen ez, eta Jerusalemera itzuli ziren haren bila. Hiru egunen buruan, jauretxean aurkitu zuten, irakasleen artean eseria, haiei entzun eta galde. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden haren adimenarekin eta ematen zituen erantzunekin. Gurasoak ere, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren. Amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Jesusek orduan: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten, nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?» Gurasoek, ordea, ez zuten ulertu, Jesusek esan nahi zuena. Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean jarraitu zuen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak.

Begoñako Andre Maria

Begoñako Andre Mariaren, Bizkaiko Zaindariaren, egun honetan, liturgia-ospakizunerako aukeratutako ebanjelioak, Jesus Haurraren gertakiaz, «galdu eta tenpluan aurkitua» izan zenaz, hitz egin digu. Lukas ebanjelariak, zera esanez amaitu du ebanjelioko pasarte hau: «Haren amak bere bihotzean gordezten zituen gauza hauek guztiak». Mariaren bizitzako ezaugarriarik sakonenetakoa laburbiltzen duen esaldia da: sinesmena bihotzean bizi; Jainkoaren hitzaz fidatu zen Deikunde egunetik beretik; zeruratua izan zenean, hara eraman zezan utzi zion Jainkoari. Mariak jakin zuen Jainkoari entzuten bere bizitzan, eta gure belarriak irekitzen ditu, Jesusen hitza gure barnera eresar dadin. Andre Maria, otoitz egizu gure alde!

Urteko Meza:

[Jonas Profetaren liburutik 4,1-11: Zu, Jonas, nahigabeturik zaudelantoreagatik, eta nik ez ote dut erruki izango Ninive hiri handia? Sal 85: Zu, Jauna, nagi zara haserretzeko eta aberats errukirako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,1-4.

Aldi hartan, Jesus otoitzean ari zen leku batean; bukatu zuenean, bere ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsi zien bezala». Jesusek esan zion: «Otoitz egitean, esazue:
"Aita, santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
emaguzu egunean eguneko ogia,
eta barkatu gure bekatuak
guk ere zor diguten guztiei
barkatzen diegunez gero,
eta ez gu tentaldira eraman"».

Ez dakit asko merezi ote duen ebanjelio hau komentatzea... Iruditzen zait gauza soil bat korapilatzea izango litzatekeela eta hitz-jarioa eranstea funtsezko hitzei... Baina gustatuko litzaidake nabarmentzea, funtsezkoa jotzeko dei bat dagoela hor, askotan gauzak asko nahasten ditugun alor batean: otoitzaren alorrean. Eta funtsezkoa hor, Jainkoa Aitatzat aitortzea da eta Jainkoarekin Aitatzat hartuz topo egitea, bizitzan egunerokoena denetik, eta eskatzea lagun diezagula gainerakoekin topo egiten, guztiak anai-arrebatzat hartuz, geure giza harremanek egiazkoena eta korapilatsuenaren duten puntutik.

[Ikus beheraxeago Urteko Meza]

[Pilareko Andre Mariaren meza. 1 Kronikak 15,3-4.15-16; 16,1-2: Ekarri zuten Jainkoaren kutxa, eta Davidek harentzat eraikitako oihal-txabolaren erdian ipini zuten. **Sal 26:** Jaunak goratu nau eta itxaropen-zutabe egin. **Apostoluen Eginak 1,12-14:** Guztiak etengabe otoitzari emanak bizi ziren, Jesusen ama Mariarekin.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.**

Aldi hartan, Jesus jendeari hitz egiten ari zitzaiola, jende arteko emakume batek, deiadar batean, esan zuen: «Zorionekoa, zu ekarri zintuen sabela eta bularra eman zizun emakumea!» Baina Jesusek esan zuen: «Zorionekoak, bai, Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

Jendartean emakume batek ozenki oihu egin zuen Maria gorestekoa; historian barna gauza bera egin duten beste askoren arteko lehena izan zen hura. Eta goretsi badute, bere buru-eskaintzarekin Mariak Jainkoa gizon egitea ahalbidetu izan duelako izan da. Pilareko Andre Maria izan da eta da jende asko Jainkoaren ontasunera eta beraren seme Jesu-sengana hurbilarazi duena.

Jerusalemen Hamaikena bezala, Jesusen jarraitzaileen bidelagun izan da Maria, beraien bizitzako egun guztietan, esperantza-egunetan eta tristura-egunetan. Mariaren presentzia otoizlaria gure ondoan bedeinkazio bat da eta laguntza guztiz estimagarria. Harekin otoitz egitea, Pilare ondoan, grazia berezi bat da.

Guztioi gogorazten digu Jesusek, Mariaren handitasuna Jainkoaren hitza entzuten jakin izana dela eta hitzarekiko leial izana. Ezerk ez du poztu-

ko Maria gu Jainkoaren hitza entzuten eta hitzarekiko leial, berak egin zuen bezala, ikusteak baino gehiago. Orduan gaitu aitortuko pozik handienaz bere seme-alabatzat.

Urteko Meza:

[Malakias Profetaren liburutik 3,13-20a: Hona non dato-
rren Jaunaren eguna, labea sutan bezala. Sal 1: Zorionekoa gi-
zakia, bere konfiantza Jaunagan ipini duena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,5-13.

Aldi hartan, esan zien Jesusek ikasleei: «Eman dezagun, zuetako batek adiskide bat duela eta gauerdian datorkiola, esanez: "Adiskide, emazkidak hiru ogi, itzuliko ditiat eta; lagun bat etorri zaidak bidaian eta ez zeukaat zer eskaini". Eman de-
zagun, besteak barrutik erantzuten diola: "Utz nazak bakean! Atea itxia zegok eta haurrak eta neu oheratuak; ezin naitekek ematera jaiki". Hona nik esan: adiskidea duelako ez bada ere, aspergarri izan ez dakion behintzat, jaiki eta eman egingo dio behar duena».

Hauxe esaten dizuet, beraz: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitu, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten zaio. Zuetako norbaitek, aita izanik, semeak arraina eskatuta, sugea eman-
go ote dio arrainaren orde? Edota arrautza eskatuta, eskor-
pioia emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez die zeruko zuen Aitak Espiritu Santua emango es-
katzen diotenei?»

Sakoneko ikasbidea ez da eskatzen duguna lortuko dugula, Jainkoa nekaraziz, baizik geure Aitaz fio gaitetzkeelak. Zuek gaiztoak zarete,

baina zuen seme-alabekin oso onak zarete. Noiz ikasiko dugu Jesusengan uste osoa izaten. Jainkoa nekarazten jarraitzen dugu, behin eta berriro barkatzeko eskatzen eta «ea entzuten digun» saiatzen ari garenean. Jesusengan sinesten dugula esaten dugu, baina ez diogu Jesusi benetan sinesten. Eta Berri Onaren bihotza hauxe da: Jainkoak zure amak baino askoz gehiago maite zaituela.

Urteko 27. astea.**Ostirala / Barikua.**San Romulo, *gotzaina*.San Fausto, *martiria*.Santa Zeledonia, *birjina*.

[Joel Profetaren liburutik 1,13-15; 2,1-2: Jaunaren eguna egun iluna eta beltza. Sal 9: Jaunak epaituko du zuzentasunez lurbira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,15-26.

Aldi hartan, Jesusek deabru bat bota ondoren, jendarteko batzuek zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten. Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanas ere: bere baitan zatiturik badago, nola iraun dezake haren erreinuak? Zuek diozuenek, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen baditut, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen baditut, garbi dago iritsi dela zuen artera Jainkoaren erreinua.

Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen bitartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago batek eraso eta menperatzen badu, segurantza ematen zioten armak kendu eta hari harrapatutako gauzak banatu egingo ditu. Nire alde ez dagoena nire kontra dago, eta nirekin biltzen ez duena sakabanatzen ari da.

Espiritu gaiztoa, norbaitengandik atera ondoren, leku idoretan barrena ibili ohi da atsedean bila; baina aurkitzen ez due-

larik, bere buruari esaten dio: "Itzul nadin atera nintzeneko neure etxera". Iristean, etxea garbitua eta apaindua aurkitzen du. Orduan, joan eta beste zazpi espiritu hartzen ditu, bera baino gaiztoagoak, eta gizakiagan sartu eta bertan jartzen da bizitzen. Horrela, pertsona horren azken egoera lehengoa baino okerragoa gertatzen da».

Edozein giza egintzak, baikorrenak berak ere, arriskua izaten du okertu izateko, haizearen alde jokatzegatik edota asmo txarragatik. Ezin bizi gara bestek zer iritziko, ezta aldakor diren pentsatzeko moduen baitan ere, edota gaur ona dela ematen duen eta bihar ez denaren baitan, edota batzuei ona eta beste batzuei txarra iruditzen zaienaren baitan. Ebanjelioaren arabera jarduera-irizpidea ez da besteren irizpidea, ezta norberaren ospe ona nahiz txarra, itxura ona edo txarra ematea; inporta duena, besteei laguntzen diegun ala ez da, jendea askatzen dugun ala ez.

Urteko 27 astea.

Larunbata / Zapatua.

San Romulo, *gotzaina*.

San Kalisto I.a, *16. aita santua eta martiria*.

[Joel Profetaren liburutik 4,12-21: Sartu igitaia, uzta ondu da. **Sal 96**: Poztu zaitezte, zintzoak, Jaunagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesusek gauza hauek esaten ziharduela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!»

Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak!»

Herenegun, Pilareko Andre Mariaren jaia zela eta, ebanjelio hau bera izan genuen gogoeta-gai. Biribilki mintzo da. Jesusek bere amaren egiazko balioa nabarmendu nahi izan du hor: Maria duin izan bada Jesus bere sabelean eraman eta hazteko, Jainkoaren hitza entzun eta hari bere buru-eskaintzaz erantzun diolako izan da. Jainkoaren hitza entzun eta leial gordetzen badugu, posible izango dugu geuk ere, alde handi batekin bada ere, baina egiaz, Jesus geure munduan presente egitea.

§ Isaias Profetaren liburutik 25,6-10a.

Egun hartan, jai-otordua emango die
Jaun ahalguztidunak
mendi honetan herri guztiei,
jaki guri eta edari bikainekin,
haragi mamitsu eta ardo zahar finekin.
Mendi honetan kenduko du
herri guztien gainean hedatua dagoen estalkia,
nazio guztiak estaltzen dituen oihala.
Betiko hondatuko du heriotza;
xukatuko ditu Jainko Jaunak
aurpegi guztietako negar-malkoak
eta lur osotik aldenuko du
bere herriaren lotsabidea,
Jaunak hitz egin baitu.
Eta egun hartan esango da:
«Hara gure Jainkoa!
Itxaropen genuen salbatuko gintuela;
Jauna da, beragan genuen itxaropena.
Poztu gaitezen eta alaitu,
salbatu gaituelako.
Jaunaren eskua mendi honetan kokatuko da».

[Sal 22: Jaunaren etxean naiz biziko luzaroen luzaro.]

§ San Paulok Filipoarrei 4,12-14. 19-20.

Senideok: Badakit urritasunean nahiz ugaritasunean bizi-

tzen; edozein egoeratako zaildua eta edozertara jarria nago: aserik nahiz goseak egotera, ugari edukitzera nahiz beharrizaz-nera. Dena dezaket indartzen nauen Kristogan. Nolanahi ere, ondo egin zenuten nire atsekabeen zeuen solidaritatea agertzean.

Ordainetan, nire Jainkoak oparo beteko du zuen eskasia guztia, bere aberastasunen arabera Kristo Jesusengan. Aintza Jainko gure Aitari menderen mendetan. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,1-14.

Aldi hartan, Jesusek, berriz ere parabolatan, esan zien apaiz nagusi eta herriko zaharrei: «Zeruetako erreinua, bere semearen ezteiak ospatzen zituen errege baten antzekoa da. Bidali zituen morroiak ezteietarako deituei hots egitera; baina, hauek ez zuten etorri nahi izan.

Berriz ere bidali zituen beste morroi batzuk, esanez: “Esaiezue deituei: prest dut nire jai otordua; zekorrak eta haragitarako gizenduak hilak ditut, eta dena prest da; zatozte ezteietara”. Haiek, ordea, ez zuten egin zuten, eta bata bere lurretara joan zen; bestea bere salerosketara; gainerakoek, berriz, morroiei heldu eta gaizki erabili ondoren, hil egin zituzten.

Haserretu zen erregea, eta bere gudamutilak bidali zituen, hiltzaile haiek galtzera eta haien herriari su ematera.

Gero, honela mintzatu zitzairen bere morroiei: “Ezteiak prest dira, baina deituek ez zuten merezi. Zoazte, beraz, bidegurutzeetara, eta aurkitzen dituzuen guztiei dei egiezue ezteietara”. Atera ziren morroiak bideetara, eta bildu zituzten aurkitutako guztiak, txar eta on. Eta, hala, bete zen bazkaldarrez ezteilekua.

Sartu zen erregea bazkaldarrak ikustera, eta eztei-jantzirik gabeko bat ikusi zuen han, eta esan zion: “Adiskide, nolaz sartu zara hemen, eztei-jantzirik gabe?” Eta hark hitzik ez. Erre-

geak, orduan, esan zien bere zerbitzariei: "Esku-oinak loturik, bota ezazue kanpoko ilunpeetara. Han izango da negarra eta hortz-karraska!"

Asko baitira deituak; baina gutxi aukeratuak».

Gaurko liturgia Jainkoaren bihotz-handitasun eta esku-zabaltasunaz mintzo zaigu, nola lehen irakurgaian hala ebanjelioan iradokiak, jai eta otordu ugari eta kalitatezko baten irudiz. Ezteietako gonbidatuak izan diren lehenengoek ez diote erantzun bihotz-handitasun eta esku-zabaltasun horiei; batetik, mespretxatu egin dute jaunaren keinu hori; bestetik, gehiago estimatzen dituzte beren interes koxkorrak. Esker txarreko agertu dira gonbit eskuzabalarekiko.

Jaunak ez du burua galdu, eta ez du bertan behera utzi jaiia, ezta otordua ere. Beste gonbidatu batzuei egin die dei, gonbidatzen dituenaren eskuzabaltasuna estimatzeko gai direnei, agian interes propio gutxiago dutelako eta eskubide gutxiago dutelako ustean daudelako. «Aretoa mahai-kidez bete zen», jaunaren pozerako, zeina agian orduan jabetu baitzen, zeinek merezi dute jaiian parte hartzea eta zeinek ez.

Baina «jai-jantzirik gabe» aurkitu zuen lagun bat. Eta haserrea eragin zion horrek... Zein da «jai-jantzi» hori, beharrezkoa dena, bistakoa denez, otordura sartzeko? Eskerronaren jantzia. Guri ere eskatzen zaigun jantzia da, otordu horrek adierazten duen Jainkoaren biziaren betera sartzeko.

[San Paulok Erromatarrei 1,1-7: Kristogandik hartu genituen guk grazia hau eta eginkizun hau: jentilak sinesmenera ekartzea. **Sal 97**: Ezagutaraziko du Jaunak beragandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zela, Jesus honela hasi zitzaien esaten: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango, Jonas profetarena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat.

Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jen-dearen aurka jaiki eta gaitzetsi egingo du, lurraren azken mu-getatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduria entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena.

Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta gaitzetsi egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuaz, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

«**B**elaunaldi honek seinale bat eskatzen du...». Jakina, badakigu zer esan nahi duen horrek: miraritxoak, gauza ikusgarriak, bat-batean ezkututzen diren zailtasunak edota ahaleginik gabe konpontzen direnak, ondoriorik gabeko kausak..., hitz batean: ezinak diren gauzak. Eta Jesusek garrantzizko puntu bat gogorarazi du: Jainkoaren presentziaren benetako seinaleak pertsonak dira. Pertsonak, gizakiak, bai, beren muga, akats eta guzti, baina beren bizitzaz Jainkoa agerian jartzeko gai direnak. Eta, nola ez?, Jesus bera: Jesus da Jainkoaren seinale apelaezin eta dudan jarri ezina, gure historian eta gure munduan bizi izan dena. Izango ahal da gure bizitza Jainkoaren «seinale», Jesusek «esan nahi zuena» islatzen duelako.

[San Paulok Erromatarrei 1,16-25: Jainkoa ezagutu ondoren, ez diote aintzarik eman, Jainkoari dagokion bezala. Sal 18: Ortziaik Jaunaren ospea du zabaltzen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,37-41.

Aldi hartan, Jesusek hitzaldia bukatu zuenean, fariseu batek bere etxean bazkaltzera gonbidatu zuen. Jesus sartu eta mahaiari jarri zen. Fariseua harriturik gelditu zen bazkal aurretik eskuen garbikuntzarik ez zuela egin ikustean.

Orduan, Jaunak esan zion: «Zuek, fariseuok, edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, zeuek barrutik lapurretaz eta gaiztakeriaz beterik zaudeten bitartean. Zentzugabeok halakook! Ez ote du kanpokoa egin zuenak berak egin barrukoa ere? Hobe zenukete daukazuena limosnatzat emango bazenuete! Horrela, gauza guztiak garbi izango lirateke zuentzat».

«**E**man limosna barnekotik»: esapide ederra eta esanguratsua. Bai erraza dela batzuetan itxura egitea; are gehiago, egoismoa estaltzea, kanpoko zerbaitekin limosna emanik! Jesusen deia ebanjelio honetan, emateko deia da, ez gauzak, baizik nork bere burua. Baina, jakina, barnekotik limosna emateak barnean zerbait ukaitea eskatzen du, emateak merezi duen eta gainerakoei laguntzen ahal dien zerbait. Eta nekez ukan dezake norbaitek barnean, Jainkoagandik hartzeko irekitzen ez bada eta Jainkoak emandako dohainak lantzen ez baditu.

[2 Timoteori 4,9-17a: Lukas bakarrik dago nirekin. Sal 144: Ezagutarazi dezatela zure zintzoek, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi aukeratu zituen, eta bere aurretik bidali binaka, bera joatekoa zen herri eta auzo guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte; begira, arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman zeuekin, ez diru-poltsarik, ez bide-zorrorik, ez oineta-korik. Eta ez gelditu bidean, inori agur egiten. Etxe batean sartuko zaretenean, hau izan bedi zuen aurreneko hitza: "Bakea etxe honetan!" Eta han bakezko jenderik bada, haien gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, zuengana itzuliko da. Etxe hartan berean egon zaitetzte; jan ezazue eta edan daukatenetik, zor zaio-eta langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herri batean sartu eta ongi hartzen bazaituzte, jan jartzen dizuetenetik, sendatu gaixoak eta esaiezue: "Gainean duzue Jainkoaren erregetza"».

«**B**era joatekoa zen lekuetara bidali zituen...». «Esazue: hurbil da Jainkoaren erreinua». Hots egin erreinuaren hurbiltasuna, etorrera: hau da Jesusek hirurogeita hamabiei gomendatu dien eginkizuna. Prestatu jendea berarekin, Salbatzaile bakarrarekin topo egiteko. Geure protagonismorik gabe, geure burua salbatzailatzat eman gabe, erreinuaren etorrera gure etorrerarekin nahasi gabe... Ipini jendea bidean eta egoeran, Jaunarekin berarekin topo egin ahal izateko. Guztiz argi izan, zer garen eta zer zaigun eskatzen.

Urteko 28. astea.

Osteguna / Eguena.

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Jogues, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

San Pedro Alkantarakoa, *apaiza*.

San Paulo Gurutzekoa, *apaiza*.

San Grat (Zuberoa VI. mendea), *gotzaina*.

[San Paulok Erromatarrei 3,21-30a: Gizakiak fedearen bidez iristen du zuzentasuna, Legeko egintzarik gabe. Sal 129: Jaunagan dago errukia, harengan askatasun ugaria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,47-54.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Ai zuek, zuen arbasoek hildako profetei hilarriak eraikitzen dizkiezuenok. Horrela, arbasoek egindakoarekin ados zaudetela aitortzen duzue; zeren haiek hil egin baitzituzten profetak, eta zuek hilarriak eraikitzen baitzkiezue.

Zerbaitegatik esan zuen Jainkoaren jakinduriak: “Profetak eta apostoluak bidaliko dizkiet eta batzuk hil eta besteak erasoka erabiliko dituzte”. Baina Jainkoak munduaren hasieratik isuri den profeta guztien odolaren kontuak eskatuko dizkio gizaldi honi: hasi Abelen odoletik eta aldaretik santutegira bitartean hil zen Zakariasen odolerraino. Bai, Nik diotsuet gizaldi honi eskatuko dizkiola kontuak.

Ai zuek, lege-maisuok, jakintzaren ateko giltzaren jabe egin zaretenok. Zeuek ez zarete sartu, eta sartu nahi zutenei ez diezue utzi».

Jesus handik atera zenean, fariseuek eta lege-maisuek gupidarik gabe eraso zioten, galderak egin eta egin, ea erantzun okerreren batean harrapatzen zuten.

«**B**atzuk pertsegitu eta hilko dituzte...»: gaur martiri hildako jesuita batzuen oroitzapena egiten dugu; garau hartan mendebaldekoentzat urruneko leku eta kultura ezezagun zirenetan ebanjelioa hots egiteagatik hil zituzten. Eta funtsezkoaren eta gehigarriaren arteko aldea kontuan hartzeko eskatzen digu ebanjelio honek; izan ere, askotan galtzen dugu denbora eztabaida antzuetan geure etxean eta zentzu handirik ez duten keinu eta gorabehera txikietan; eta ahaztu egiten gara funtsezko deiaz: «ausartzeko» deiaz, alegia, hainbat frontera geografiko, bizitzako, kultural edo sozial baino harago joateaz, bizitzako ikuspegi berriak agerian ipintzeko.

[San Paulok Erromatarrei 4,1-8: Abrahamek sinetsi zion Jainkoari, eta sinesmen hori aintzat hartu zitzaion zuzentasunerako. Sal 31: Zu zaitut ihesleku, askatasun-pozez inguratzen nauzu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,1-7.

Aldi hartan, milaka eta milaka lagun bildu zen, elkar zapaldu beharrean. Jesus hizketan hasi zitzaien, lehenik ikasleei zuzenduz: «Ibili kontuz fariseuen legamiarekin, hau da, itxurazalekeriarekin. Ez dago ezer gordeta agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere jakingo ez denik. Zeren gau-ilunez esan duzuen egun-argiz entzungo baita, eta etxe-zokoan belarrira esan duzuen etxe gainetatik hots egingo.

Zuei diotsuet, ene adiskideoi: ez izan beldurrik gorputza hila, baina hortik aurrera ezer egiterik ez dutenei. Esango dizuet nori izan beldur: izan beldur hiltzeko eta ondoren infernura botatzeko ahalmena duenari. Bai, izan beldur horri!

Ez al dira bost txori bi txanponetan saltzen? Hala ere, haietako bat bakarra ere ez dauka Jainkoak ahazturik. Zuen buruko ile guztiak ere zenbatuak dauzka Jainkoak. Ez izan, bada, beldurrik: zuek txori guztiak baino gehiago balio duzue».

«**E**z izan beldurrik»: Jesusek ebanjelioan, gorabehera desberdinenetan, behin eta berriz errepikatzen duen erregua da. Gaurko ebanjelioan dei hau bereziki da ausarta: «ez beldur izan gorputza hiltzen dutenei». Gorputza hiltzea izango genuke gauzarik txarrena, dramatikoena, Jainkoaren ardua eta probidentzia kontuan izango ez bagenu, harengan konfiantzarik izango ez bagenu. Baina bada Jainko bat, zeinen maitasuna heriotza baino indartsuagoa baita, zeinaren probidentzia gutako bakoitzaz arduratzen baita. Beldurraren indarra ez da konfiantza-faltaren indarra baizik.

Urteko 28. astea.**Larunbata / Zapatua.**Santa Ursula eta lagunak, *martiriak*.Diego Luis de San Vitores, dohatsua, *apaiza*, eta san Pedro Calungsod, *martiriak*.

[**San Paulok Erromatarrei 4,13.16-18:** Itxaropenean oinarriturik, sinetsi egin zuen itxaropen guztien kontra. **Sal 104:** Gogoan du Jaunak betiko egin zuen ituna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,8-12.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko du Gizonaren Semeak ere Jainkoaren aingeruen aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dute Jainkoaren aingeruen aurrean. Gizonaren Semearen aurka zerbait esaten duenari barkatuko dio Jainkoak; baina, Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenari ez dio barkatuko.

Sinagogetara, buruzagien eta agintarien aurrera, eraman-go zaitzuten, ez ibili kezkatzen nola hitz egin edo zer esan zeuen alde, Espiritu Santuak adieraziko baitizue une hartan bertan zer esan behar duzuen».

Espiritu Santuaren dohainetatik bat da adorea. Gaur egun jarraitzaile askorik ez duen bertutea. Komeni da ez nahastea ez oldarkortasunarekin, ez tolerantzia-ezarekin, ez malgutasun-faltarekin. Adorea barneko indarra da zailtasunei aurre egiteko bizitzako zailtasunetan, eta Jesusi jarraitzean, atzera egin gabe eta uko egin gabe geure oinarrizko balioei. Norberaren barnetik jaiotzen da, Espirituari irekirik bizitzearen ondorio gisa, egunero eta etengabeko barneko lanaren ondorio gisa, ebanjelioaren arabera bizi direnak, gaurko ebanjelioak dioen bezala, gizonaren Semeak inoiz ere bakarrik uzten ez gaituelako konfiantzaren ondorio gisa.

Urteko 29. astea.
Igandea / Domeka.

San Joan Paulo II.a, *aita santua*.

Nunilo (Novila) eta Alodia santuak, ahizpak, *birjinak eta martiriak (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*.

§ Isaias Profetaren liburutik 45,1.4-6.

Honela mintzo zaio Jauna Ziro erregeari, berak aukeratu eta sagaratuari:

«Eskutik heldu dizut, nazioak zure menpean jarri eta erregeei soinetik armak kentzeko; zure aurrean hirietako atea erabat zabaltzeko. Jakob neure zerbitzariagatik, Israel neure aukeratuagatik deitu zaitut zeure izenaz eta ohorez bete zaitut, zuk Ni ezagutzen ez nauzun arren. Neu naiz Jauna, eta ez da besterik; ez da jainkorik, Ni baizik. Aginpidez jantzi zaitut, zuk Ni ezagutzen ez nauzun arren, ekialdetik mendebaldera jakin dezaten ez dela inor Ni besterik. Neu naiz Jauna, eta ez da besterik».

[Sal 95: Eman Jaunari ospe eta gorapen.]

§ San Paulok 1 Tesalonikarrei 1,1-5b.

Paulo, Silvano eta Timoteok, Jainko Aitarekin eta Jesu Kristo Jaunarekin bat eginik dagoen Tesalonikako eliz elkarteari: grazia eta bakea zuei.

Eskerrak ematen dizkiogu beti Jainkoari zuek guztiongatik, gure otoitzetan gogoan zaituzteguna. Jainko gure Aitaren aurrean gogorra dakartzagu etengabe zuen sinesmen ekintzailea, zuen maitasun saiatua eta Jesu Kristo gure Jaunagan duzuen itxaropena iraunkorra.

Badakigu, senideok, Jainkoaren maiteok, berak aukeratu zaituztela. Izan ere, guk zuei hots egindako Berri Ona ez zitzaizuen hitz hutsez eman, Espiritu Santuaren indar beteaz baizik. Ongi dakizue zuen artean egin genuen guztia zuen onerako izan zela.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,15-21.

Aldi hartan, fariseuek elkar hartu zuten, Jesusi galdera bat eginez tranpa jartzeko. Beraz, ikasle batzuk bidali zizkioten, Herodesen alderdikoekin, galdetzera: «Maisu, badakigu egiazale zarela eta Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzula, Zuk ez baitiozu begiratzen gizakiaren itxurari. Emaguzu, bada, zeure iritzia: zilegi da Zesarri zerga ordaintzea ala ez?»

Jesusek, haien maltzurkeria igarriz, esan zien: «Zergatik zatozkidate zirika, itxurazaleok? Ea, erakutsi zerga-txanpona». Haien denario bat aurkeztu zioten. Jesusek galdetu zien: «No-renak dira irudi eta izen hauek?» Haien erantzun: «Zesarrenak».

Jesusek, orduan: «Eman, bada, Zesarrena Zesarri, eta Jainkoarena Jainkoari».

Bai gaurkotasun handikoa dela ebanjelioak planteatzen duen egoera! Hau da arazoa: Jainkorekiko ditugun betebeharrak eta, hiritar gisa, gizartearekiko eta beronen legeekiko ditugun betebeharrak. Zeren kristaua hiritar ere bai baita, eta Jainkoarekiko konpromisoa ez baita aitzakia bat, ez zurigarri bat hiritar bezala dituen betebeharrak ez betetzeko.

«Zesarri Zesarrenak eta Jainkoari Jainkoarenak». Fededun eta katoliko izateak ez gaitu libratzen hiritar bezala ditugun geure erantzukizunetatik, ez da aitzakia bat haiek alde batera uzteko. Elizaren Dotrina Sozialak eta aita santuen entziklikek beren konpromiso zibilak ez ahaztera eta beren erantzukizun zibil, politiko, sozialak... aintzat hartzera animatzen dituzte kristauak, eta hartara eragiten.

Orduan sortzen da problema: «Zesarrek» eskatzen duenaren eta Jainkoaren nahiaren edo gizadiarekiko Jainkoak duen egitasmoaren artean kontraktotasuna edo kontraesana sortzen denean. Kasu horietan ere konpromisoa eskatzen zaio kristauari, eta ez inhibizioa edo utzikeria. Konpromisoa: kritikoa eta adoretua izan beharko duena, balio ebanjelikoak baie-tsiko dituen koloka edo arriskuan jarriak direnean. Bereizmenaren ordua da hura; kristauak gizartean duen konpromisorako bertute eta oinarrizko jarduera du bereizmena.

[San Paulok Erromatarrei 4,20-25: Liburu Santuak guregatik ere esaten du; guri ere aintzat hartuko zaigu, harengan sinesten badugu. **Sal: Lukas 1:** Bedeinkatu Jauna Israelgo Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,13-21.**

Aldi hartan, jende arteko batek esan zion Jesusi: «Maisu, esaiozu nire anaiari senipartea nirekin erdibanatzeko».

Jesusek erantzun zion: «Lagun, nork jarri nau Ni zuen artean epaile edo ondasun-banatzaile?» Eta jendeari esan zion: «Kontuz! Gorde diru-gosetik, ondasunek ez baitiote inori bizia segurtatzen, ugari izanda ere».

Gero, parabola hau kontatu zien: «Gizon aberats bati lurrak uzta handia eman zion. Eta honela hasi zen berekiko pentsatzen: “Zer egin, ez baitut uzta non jasorik”. Eta beretzat esan zuen: “Badakit zer egin: mandio zaharrak bota eta handiagoak egingo ditut eta haietan jasoko ditut garia eta gainerakoak. Gero, esango diot neure buruari: “Ea, motel! Baduk hor gordeta urtetarako ondasunik aski; hartu atsedena, jan, edan eta bizi ongi!”

Baina Jainkoak esan zion: “Burugabea halakoa! Gaur gauean bertan hil behar duk. Norentzat izango duk pilatu duana?”» Eta amaitu zuen Jesusek: «Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, ondasunak beretzat pilatzen di-tuenari».

Gaurko ebanjelioak geure aldi honetako engainurik ohikoenetako batez ohartarazten gaitu: aberastasunen engainua. Aberastasunak bizitzan zoriona, segurtasuna, atsedena emango digulako engainua. Eta engainua

dela behin eta berriz egiaztatu arren, aberastasunak duen liluratzeko boterea ikusgarria da! Aberastasunak atsegina baino atsekabe handiagoa eragiten du, atsedena baino estutasun eta estres handiagoak, egiazko adiskideak baino etsai gehiago... Ongizate-iturri den horrek, edo, hobeto esan, ongizate-iturri dela ematen duen horrek, ez du asetzen pertsonaren sakoneko irriketako bakar bat ere.

[San Paulok Erromatarrei 5,12.15b.17-19.20b-21. Gizon bakarraren bekatuagatik nagusitu zen heriotza. Zenbatez gehiago biziko dira orain eta nagusituko! **Sal 39:** Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egiteko.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,35-38.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete prest, jantziak loturik eta kriseiluak pizturik; izan zaitezte nagusia ezteietatik noiz itzuliko zain dauden morroiak bezalako, iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko prest dauden morroiak bezalako.

Zorionekoak morroi horiek, nagusiak, iristean, zain aurkitzen baditu! Egia diotsuet: arropak aldaturik, mahaian eseraziko ditu eta zerbitzatzen hasiko zaie. Eta gauerdian nahiz goizaldean badator eta horrela aurkitzen baditu, zorionekoak haiek!»

«Irekitzeko prest, hark etorri eta atean jo orduko...». Zein larri itxaroten diogun ikustea gogoko dugun bati! Zain egon beharreko segundoak bukatu ezineko gertatzen zaizkigu, eta, minuturen bateko atzerapena gertatzen bada, kezkatzen hasi ohi gara eta «zer gertatu ote da» galdezka. Eta azkenean ateko txirrina jotzen duenean, korrika joan ohi gara... Horrelakoa al dugu Jainkoarekiko gogo? Edota, agian, jakindakotzat eman ohi dugu, arrazoirik gabe, ez dela etorriko eta ez duela pena merezi itxarotea eta zain egotea? Gaurko ebanjelioak diosku berriro, garaiz edo berandu joko duela gure atean.

[San Paulok Erromatarrei 6,12-18: Hildakoen artetik bizira atera diren antzera, jarri zuen buruak Jainkoaren zerbitzurako. **Sal 123:** Gure laguntza Jaunaren izena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,39-48.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hartu gogoan hau: etxeko nagusiak, lapurra zein ordutan etorriko den jakingo balu, ez luke etxea zulatzen utziko. Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea».

Pedrok galdetu zion: «Jauna, guretzat ala guztientzat esan duzu parabola hau?» Jaunak erantzun: «Izan zaitezte ethezain leial eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak bere orduan behar den janaria banatzeko morroien buru ipini duena bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina morroia, nagusiak luzatu egingo duelakoan, morroi-lagunak eta neskameak jotzen eta jan-edanean eta mozkorkeria hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia eta zorrotz zigortuko du eta desleialek merezi duten zoria emango dio.

Nagusiaren nahia zein den jakin arren, gauzak hark nahi bezala eratzten edo egiten ez dituen morroiak zigor zorrotza izango du; nagusiaren nahia zein den jakin gabe, zigorra merezi duen zerbait egiten duenak, berriz, biguna. Asko eman zitzaionari, asko eskatuko zaio; eta askoren kargua eman zitzaionari, are kontu handiagoa eskatuko».

Prest egon, zain egon... Gaurko ebanjelioak azaltzen digu, ebanjelioaren araberako «zain egotea» ez dela zain egote pasiboa; ez dela etxean egonik ekaitza igaro zain dagoena bezala egotea edota egonean egonik gauzak Jainkoak «konpondu zain» dagoena bezala... Eginkizun bat gomendatu digu Jesusek, Jainkoaren erreinua eraikitzen joateko eginkizuna, eta kristauaren itzarotea aktiboa da, eginkizun horretan jardutea, dakigun arren ez dugula guk bukatuko, baina Jaunak bai burutuko duela... Pasibotasuna ez da inoiz ere zurigarri fedearen eta ebanjelioaren dohaina hartu dugunontzat.

[San Paulok Erromatarrei 6,19-23: Bekatuaren menpetik askaturik, Jainkoaren morroi eginak izan zarete. Sal 1: Bai dohasua Jaunagan itxarobide duen gizakia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,49-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego! Heriotza-uretan murgildu behar dut, eta hau larria hori bete arte!

Munduari bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Bakea ez, banaketa baizik. Zeren hemendik aurrera, etxe bateko bost senideak banaturik egongo baitira: hiru biren kontra eta bi hiruren kontra; aita semearen aurka eta semea aitaren aurka, ama alabaren aurka eta alaba amaren aurka, amaginarreba errainaren aurka eta erraina amaginarrebaren aurka».

Gizarteko banaketa ez da berez on bat, ez helburu bat... baina batzuetan ordaindu beharreko prezio bat izaten da ebanjelioaren zuzenbidea eraikitzeko. Edozein bake ez da izaten zinezko bake; izan ere, bakea ez da lasaitasun soil bat edota gatazarrik ez izate hutsa: zuzentasunean oinarritzen dena da zinezko bakea. Gaurko ebanjelioak arazoan hondora joatera gonbidatzen gaitu, ez geratzea azalean; hondo hori, berriz, gizartea ebanjelioaren balioetan eraikitzea da, hartatik sor litezkeen ondorioei aurre eginez.

[San Paulok Erromatarrei 7,18-25a: Nork askatuko nau, herio-gorputz honetatik? Sal 118: Erakuts niri. Jauna, zuk aginduak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,54-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Sartaldean lainoa ikusi orduko, "Euria dator" esaten duzue, eta hala gertatzen da. Hegoak jotzen duenean, berriz, "Sargoria dugu" esaten duzue, eta gertatu egiten da. Itxurazaleok! Badakizue zero-lurren itxurari antzematen, eta nolaz ez diozue antzematen garai honi?

Zergatik ez duzue zeuen kabuz zuzen dena erabakitzen? Esate baterako, zeure etsaiarekin auzitegira zoazela, saia zaitetz bidean harekin konponbidea aurkitzen; bestela, epaileagana eramango zaitu eta epaileak ertzainaren esku jarriko, eta ertzainak kartzelara botako. Hara Nik esan: ez zara handik aterako, azken xentimoa ordaindu arte».

Gaur eguneko problemetako bat, agian, ez dakigula da, jotzen duen hai-zearen noranzkoa interpretatzen: eguraldiaren gizon edo emakumeek telebistan esaten digutenarekin gelditzen gara soil-soilik. Zantzu bizia da: medioetako iritzien menpeko bihurtu gara eta geurez bereizteko gaitasuna galdu dugu. Hori oso arriskutsua da, Jesusi jarraitzeaz ari garenean; izan ere, medioetako edo ingurumariko iritziek gehiegitan hartu ohi dute ebanjelioarena ez den norabide bat. Gaur egun, eta gure gizarte honetan, ez da benetak jarraipenik norberaren edo/eta elkartearen bereizmenik gabe.

[San Paulok Efesoarrei 2,19-22: Apostoluen oinarri gainean eraikiak zarete. **Sal 18:** Lur guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,12-19.**

Egun haietako batean, Jesus mendira joan zen otoitz egi-tera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena eman zion–, honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome [Natanael], Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote –Jesusen saltzaile gertatuko zena–. Jesus, ikasleekin menditik jaitsi ondoren, zelaigune batean gelditu zen. Ikasleetariko asko harekin ziren; baita herriko jende-talde handia ere, Judea osotik, Jerusalemetik eta Tiro eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta berak gaitzetatik senda zitzan. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendaturik gelditzen ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi izaten zuen, denak sendatzen zituen halako indar bat baitzerion.

Apostolu batzuk «ospetsuak» dira eta gauza asko dakigu halakoez; adibidez, Pedro, Santiago eta Joan; beste batzuk ez dira hain «ospetsuak», halakoez doi-doi ezagutzen dugu izena eta beste apurren bat; gaur ospatzen ditugun bien kasua da: San Simon eta San Judas. Baina hain ezagunak ez izateagatik, ez dira aurrekoak baino apostolu txikiago eta santu txikiago. Zerk egiten ditu apostolu, zerk egin ditu aurreko haiek bezalako?: Jesusek deituak izanak, Jesusekin bizi izanak eta haren misioari buru-eskaintza egin izanak bizia emateraino. Guk geuk ere, deituak garelarik, handitu genezake zerrenda hori...

§ Irteera liburutik 22,20-26.

Honela mintzo da Jauna: «Ez gaizki erabili, ez zapaldu etorkina, zuek ere etorkin izan baitzarete Egipton.

Ez egin kalterik alargunari eta umezurtzari; zeren, kalte egi-ten badiezue, haiek nigana laguntza eske deiadar egitean, entzun egingo baitiet, sutuko da nire haserrea eta ezpataz hilko zaituztet; orduan, zuen emazteak bihurtuko dira alargun, eta zuen seme-alabak umezurtz.

Zuekin bizi den nire herriko behartsuren bati dirua maileguz ematen badiozu, ez izan zikoitz berarekin, ez ezarri interesik. Zeure lagun hurkoari soingainekoa hartzen badiozu bahituran, itzul iezaiozu eguzkia sartzerako; ez baitu hori beste estalkirik. Zerekin babestuko da, bestela, lo egiteko? Laguntza eske deiadar egitean, entzun egingo diot, errukiorra bainaiz Ni».

[Sal 17: Maite zaitut, Jauna, nire indar.]

§ San Paulok Tesalonikarrei 1,5c-10.

Senideok: Ongi dakizue zuen artean egin genuen guztia zuen onerako izan zela. Eta zuek gure eta Jaunaren ereduari jarraitu zenioten, Espiritu Santuaren pozez onartu baitzenuten Jainkoaren mezua, atsekabe askoren artean izanik ere. Horrela, eredu gertatu zarete Mazedoniako eta Akaiako fededun guztientzat.

Izan ere, zuenetik zabaldu da Mazedoniara eta Akaiara Jaunaren mezua; eta eskualde horietara ez ezik, bazter guztietara iritsi da Jainkoagan duzuen sinesmenaren entzutea, guk ezer esan beharrik gabe. Izan ere, beraiek kontaktzen dute nolako ha-

rrera egin zeniguten zuengana joan ginenean eta nola, sasijainkoak utzirik, Jainko bizi eta egiazkoagana itzuli zineten, Berau zerbitzatzeko eta zerutik etorriko den beraren Seme Jesusen zain egoteko. Jainkoak hildakoen artetik piztu zuen Jesus, eta honek askatu gaitu etortzekoa den haserre-zigorretik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,34-40.

Aldi hartan, fariseuak, jakin zutenean Jesusek saduzearrak isilarazi zituela, elkarrekin bildu ziren eta beren arteko legegizon batek, azpikeriaz, galdetu zion: «Maisu, zein da Legeko agindurik nagusiena?» Jesusek erantzun zion: «“Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo-gogoz, adimen osoz”. Hau da agindurik nagusiena eta lehenengoa. Eta bigarrena horren parekoa da: “Maita ezazu lagun-hurkoa zeure burua bezala”. Bi agindu horietan dute oinarri Lege osoak eta Profetek».

Maitasuna, benetakoa bada, konkretua izaten da: ezin izan dira hitz huts, ezta zehaztu gabeko asmo on huts ere, ezta kanpoan gauzatu gabeko sentimendu huts ere. Maitatzeak zehaztea eskatzen du. Eta gaur gogoetarako dugun Jainkoaren hitzak maitasunaren konkretzio-maila desberdinak proposatzen dizkigu, egiazkoa ote den ala ez ikusteko

Jainkoa maitatzeak ezinbestean eskatzen du konkretatzea anai-arrebak, lagun hurkoa maitatuz. Lagun hurkoarekiko maitasun hau gabe Jainkoarekiko maitasuna hitz oso politak esatean gera daiteke, oso politak, baina oso azalekoak edo engainagarriak. Zeren eta, nola jakin dezaket maite dudana benetako Jainkoa dela, eta ez Jainkoaz dudana ideia bat, edota neure irudira, antzera eta komenientziara eraikitako Jainko bat

Eta Irteerako irakurgaiak bigarren mailako konkretzio batera gonbidatzen gaitu. Lagun hurkoarekiko maitasuna egiazkoa dela egiaztatzeko bidea, pobrea, umezurtza, alarguna, atzerritarra... maitatzea da. Izan ere, halakoak dira ezin ordaindu didatenak, ezin erantzun, ezin eskertu, ezin konpentsatu didatenak. Zeren eta maite ditudanak haiengandik zerbait espero dudanak badira, susma nezake nire maitasuna ez doala pertsona batengana, baizik harengandik espero dudana zerbaitera.

[**San Paulok Erromatarrei 8,12-17:** Seme-alabatzako Espiritua hartu duzue, eta horrek hots eginarazten digu: «Abba! Aita!» **Sal 67:** Gure Jainkoa, Jainko salbatzailea da.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,10-17.**

Aldi hartan, larunbatez sinagoga batean irakasten ari zen Jesus. Bazen han emakume bat, hemezortzi urte haietan espiritu baten menpe gaixo zegoena: erabat konkortua zegoen eta ezin zen inola ere zuzendu.

Ikustean, Jesusek deitu eta esan zion: «Emakume, geldi zaitetz libre zeure gaitzetik». Eskuak ezarri zizkion, eta bat-batean zuzendu zen eta Jainkoa goresten hasi.

Sinagogako buruzagiak, Jesusek larunbatez sendatu zuelako haserre, esan zion jendeari: «Astean sei egun daude lanerako; etorri egun horietan sendatzera, eta ez larunbatean».

Jaunak erantzun zion: «Itxurazaleok! Zuetako nork ez du larunbatez idia nahiz astoa ukuilutik askatzen eta ura edatera eramaten? Eta Abrahamen ondorengo den honi, hemezortzi urtez Satanasek lotua eduki duen honi, ez ote zitzaion larunbatez lokarri hori askatu behar?»

Hitz hauekin, lotsa-lotsa eginik geratu ziren Jesusen etsai guztiak; jendetza, ordea, pozik zegoen hark egiten zituen gauza miragarri guztiengatik.

Zein irizpide gogorreko eta errukigabeko izan daitezkeen beren burua ontzat dutenak! «Etorri egun horietan senda zaitzaten eta ez larunbatetan!» Askoz gehiago axola zaie legea edo araua jendearen oinazea baino. Zein handia izan daitekeen boteretsuen eta indartsu sentitzen direnen sen-

tiera-falta! Axola handiagoa dute beren diruaz, beren segurtasunaz, beren ongizateaz, beren patxadaz, beren legez jendearen oinazeaz baino. Jesus bereziki zorrotza da Jainkoaren seme-alaben, geure anai-arreben oinazeaz izan genezakeen sentiera-falta horrekiko.

[San Paulok Erromatarrei 8, 18-25: Izadia bera ere zain-zain dago, Jainkoaren seme-alaben agerkunde beteari itxaroten. **Sal 125:** Gurekin handikiro jokatu du Jaunak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 18-21.**

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeren irudiko da Jainkoaren erreinua? Zeren antzekoa dela esango nuke? Gizon batek bere baratzean botatzen duen mostaza-haziaren antzekoa da: hazten da eta zuhaitz egiten, eta txoriek haren adarretan egiten dituzte habiak».

Esan zuen gainera: «Zeren antzekoa dela esango nuke Jainkoaren erreinua? Legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta oraldi guztia harrotzen da».

Zer da mostaza-hazi bat?: gauza oso txikia, ia ezer ez. Eta zer da legamia-pixka bat?: ez da nabari, baina hura gabe oreka ez da harrotzen. Zer izan zen gaur ospatzen dugun jesuita santua? Alonso Rodriguez: ia inor bat, anaia atezain ezdeus bat. Baina txiki batengan, itxuraz ahul den batengan, ezdeus batengan egiten du Jainkoak bere egintza. Ez dio axola itxura, baizik eragiten duen fruitua, ezta gizartean gutxi-asko nabarmen izatea ere, baizik gauzatzen den ona. Ebanjelioaren arabera balioztatzea: horixe da erronka. Kontenplaziorik eta bereizmenik gabe, aurre ezin egin diogun erroka.

AZAROA / ZEMENDIA



Urteko 30. astea.**Asteazkena / Eguaztena.****SANTU GUZTIEN OROIPENA.**Pedro Asuakoa (Balmaseda 1890–Liendo [Kantabria] 1936), *apaiza, dohatsua, martiria*.**§ Apokalipsia liburutik 7,2-4.9-14.**

Nik, Joanek, beste aingeru bat ikusi nuen sortaldetik igotzen. Jainko biziaren zigilua zeukan, eta oihu handiz hots egin zien itsasoa eta lurra zigortzeko zeuden lau aingeruei, esanez: «Ez zigortu lurrik, ez itsasorik, ez zuhaitzik, harik eta gure Jainkoaren zerbitzariei ezaugarria bekokian ezarri arte». Eta entzun nuen ezaugarri-dunen kopurua: ehun eta berrogeita lau mila [144.000], Israelgo leinu guztietatik. Horren ondoren, talde handi bat ikusi nuen, inork ezin zenbatu ahalakoa, enda eta leinu, herri eta hizkuntza guztietakoa, aulkiaren eta Bildotsaren aurrean zutik, zuriz jantziak, eta palma-adarrak eskuetan. Eta oihu handiz hots eginez, zioten: «Salbamentuarena, aulkiaren eserita dagoen gure Jainkoarena da eta Bildotsarena». Aulkiaren, zaharren eta lau bizidunen inguruan zeuden aingeru guztiak ahuspez erori ziren aulkiaren aurrean, eta Jainkoa gurtu zuten, esanez: «Amen! Bedeinkapena, aintza eta jakinduria, esker ona eta ospea, ahalmena eta indarra gure Jainkoarenak dira, gizaldi eta gizaldietan. Amen!» Eta zaharretako batek esan zidan: «Nor dira eta nondik datoz zuriz jantzirik dauden hauek?» Nik erantzun nion: «Hauek nekaldi handitik datozenak dira. Bildotsaren odoletan garbitu dituzte eta zuritu beren jantziak».

[Sal 23: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]**§ 1 Joan 3,1-3.**

Senide maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak: Jainkoaren seme-alaba izena daramagu, baita iza-

na ere. Hona zergatik ez gaituen munduak ezagutzen, Jainkoa ere ezagutu ez zuelako. Anai-arreba maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena, oraindik ez da ageri. Badakigu, Jauna agertuko denean, haren antzeko izango garela, bera den bezalakoa ikusiko baitugu; harengan itxaropen hau duen guztia garbitu egiten da, hura garbia den bezala.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,1-12a.

Aldi hartan, jende-taldea ikusirik, mendira igo zen Jesus; eseri zenean, ikasleak inguratu zitzaizkion, eta berak irakasten zien: «Zorionekoak, gogoz behartsu direnak; / berena dute-eta zeruetako erreinua. / Zorionekoak otzanak; / berak izango dira-eta lurraren jabe. / Zorionekoak, negar egiten dutenak; / poztuak izango baitira. / Zorionekoak, zuzentasunaren gose eta egarri direnak; / aseak izango baitira. / Zorionekoak errukitsuak; / hauek iritsiko dute-eta errukia. / Zorionekoak, bihotzez garbi direnak; / hauek ikusiko dute-eta Jainkoa. / Zorionekoak bakegileak; / Jainkoaren seme eta alaba esango baitzaie. / Zorionekoak, zuzenagatik eraso jasango dutenak; / hauena da-eta zeruetako erreinua. / Zorionekoak zuek, nigatik biraoka eta erasoka erabiliko zaituztenean, eta gezurretan asma ahalak zuentzat esango dituztenean; poztu zaitetze eta alaitu, handia izango da-eta zuen saria zeruetan».

Gaurko jai honek, Santu Guztienak, poz berezia dakarkigu. Gogora dakarkigu historia guztian barna bizi izan den jende «santu» guztia, Jainkoaren Erreinua presente egin izan duena. Ebanjelioko zoriontasunen testuak hainbat santutasun-motari begira jarri nahi gaitu: Jainkoa bere erdigune eta aberastasun egin dutenak; beren sufrimenduari esku-zabal eta fedez aurre egin diotenak, beren bizia eskaintzeraino; gupidatzeko gai izan direnak; beren burua erdigune izateari utzi, eta biziaren helmuga Jainkoaren bila ibiltzean ezarri dutenak... Hainbat eta hainbat gizon eta emakume...

Jai honek, eskuharki ihes egiten digun gauza bat kontenplatzera gonbidatzen gaitu: mundu honetan den «ongitasun ezkutua». Hainbat ongitasun-mota eta ongia egiten duen hainbat pertsona, zeinen izenak ez baitira agertuko lehen mailan telebistako eta egunkarietako albisteetan, baina mundu hau gizatiartzearen eta Jainkoak bere seme-alabez duen egitasmoaren lehen lerroan egongo direnak.

§ Joben liburutik 19,1.23-27a.

Jobek esan zuen: «Ai, idatziak balira nire hitzak! Ai, liburu batean jarriak baleude, burdinazko eztenez berunean eta harrian betiko ezarriak! Nik badakit, nire Salbatzailea bizi dela, eta azkenean zutituko dela lurraren gainean. Nire larrua galdu ondoren, haragirik gabe ikusiko dut Jainkoa. Neuk ikusiko dut, eta ez bestek».

[Sal 24: Zugana jasotzen dut neure arima.]

§ San Paulok Filipinoarrei 3,20-21.

Senideok: Guk zerua dugu geure herri, eta, itxaro, handik itxaroten dugu Salbatzailea, Jesu Kristo gure Jauna. Berak aldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren antzeko eginez, gauza guztiak menperatzeko duen indarrez.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 15,33-39; 16,1-6.

Eguerdian lurralde hura guztia ilunpean gelditu zen, arratsalde erdia arte. Eta arratsalde erdian Jesusek oihu handiz esan zuen: «Eloi, Eloi, lema sabaktani» –hau da: «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?»—. Han zeuden batzuek, hau entzutean, zioten: «Eliasi deika ari da». Eta batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera-muturrean jarrita, edateko eman zion, esanez: «Utziozue; ikus dezagun, ea etortzen zaion Elias, gurutzetik jaistera». Eta Jesusek, deiadar handi bat eginez, azken arnasa eman zuen. Jauretxeko oihala erdibi egin zen goitik beheraino. Haren aurrez aurre zegoen gudari-ehuntariak, berriz, era horretan hil zela ikustean,

esan zuen: «Gizon hau, benetan, Jainkoaren Semea zen». Ba-
zeuden han, urrutitik begira, emakume batzuk ere; haien ar-
tean, Maria Magdalena, Santiago gaztearen eta Joserren ama
Maria, eta Salome –Jesus Galilean ibili zenean, laguntzaile eta
zerbitzari izaten zituenak– eta beste emakume asko, Jesusekin
batean Jerusalemera igo zirenak. Ilunabarrean, Prestaera Egu-
na, larunbat-bezpera, zelako, etorri zen Arimateako Jose –Ba-
tzarreko gizon argia, Jainkoaren erreinua itxaroten zuena bera
ere–, eta ausardiaz Pilatogana joan zen, Jesusen gorpua eska-
tzera. Harritu zen Pilato, ordurako hila zelako, eta, ehuntariari
dei eginez, aspaldi hil al zen galdetu zion. Ehuntariaren eran-
tzuna jakin zuenean, utzi zion gorpua Joseri. Honek, izara bat
erosi eta, gurutzetik jaitsirik, izaran bildu zuen; harkaitz bizioan
zulatutako hilobi batean ipini eta, hilobiko sarreran, harri biribil
bat ezarri. Maria Magdalena eta Joserren Maria begira zeuden
non jartzen zuten.

Heriotzari aurrez aurre eta bekoz beko begiratzen ez dion gizarte ba-
tean bizi gara. Hildakoak pelikuletan edo telesailetan bakarrik ageri
ohi dira: itxurazko hilak... Alabaina, benetako hilak ezkutatu egiten dira
hainbat eratan: beilatokiko hoztasunetik hasi eta axola-gabeziaren kru-
deltasunera. Halaz guztiz, beharrezkoa da heriotzari aurrez aurre begira-
tzea: bizitzaren egia, esanahia eta balioa ulertzeko; benetan axola diren
galderak egiteko; heriotzaren mina gainditurik, Biziaren ateak irekitzen
dizkigun Maitasuna aintzat hartzeko.

[San Paulok Erromatarrei 9,1-5: Anatema izan nahi nuke nik, nire senideen alde. **Sal 147:** Goretsi ezazu Jauna, Jerusalem.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,1-6.

Aldi hartan, larunbatez, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Gizon urmindun bat zegoen han Jesusen aurrean. Jesusek, orduan, lege-maisu eta fariseuei galdetu zien: «Zilegi da larunbatez sendatzea ala ez?» Haiek isilik gelditu ziren.

Orduan, Jesusek, gaixoa eskutik hartu, sendatu eta bidali zuen. Gero, haiei esan zien: «Zuetako nork, semea nahiz idia putzura erortzen bazaio, ez du berehala ateratzen, larunbata izanagatik?» Ezin izan zioten erantzun.

Beste behin, Jesusen hitz profetikoa. Hitz profetikoa, beti ahularen ongia nahi duena da, eta horixe izan ohi da profezia benetan ebanjelioaren araberakoa den seinalea. Ahularen ongiagatik indartsuak, pertsona nahiz erakunde izan, koloka jartzen dituenak. Profeta izan zen gaur ospatzen dugun Rupert Mayer jesuita dohatsua ere: nazien astakeriari gogor egin zion, eta kontzentrazio-eremu batera eraman zuten eta atxilotu. Boteretsuek, «zer erantzun ez dakitela gelditzean», beren erantzuna koloka jartzen dituenak isilaraztea izaten dute, indarkeria ere erabiliz. Baina benetako profeten ahotsak aldiak zeharkatzen ditu...

[San Paulok Erromatarrei 11,1-2a.11-12.25-29: Juduen gaitzespenak munduari baketzea badakarkio, zer izango da haiek berriz onartzea, heriotzatik bizira itzultzea baizik? **Sal 93:** Ez du zapuztuko Jaunak bere herria.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,1.7-11.**

Aldi hartan, larunbat batez, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ohartu zen Jesus gonbidatuek aurreneko jarlekuak hartzen zituztela eta ohar hauek egin zizkien:

«Ezteietara gonbidatzen zaituztenean, ez jarri mahaiburuan, baliteke-eta zu baino gonbidatu ospetsuagoren bat izatea; hala balitz, biok gonbidatu zaituztenak etorri eta esango lizuke: "Utzi tokia honi". Orduan, azkeneko lekuan eseri behar-ko duzu lotsa gorritan. Alderantziz, gonbidatzen zaituztenean, jarri azkeneko tokian, gonbidatu zaituenak, datorrenean, esan diezazun: "Adiskide, igo gorago!" Horrela, oso toki onean geldituko zara mahaikide guztien aurrean. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jaunak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Lehen irakurraldi batean, azalekoan, ematen du, gaurko ebanjelioa zentzuzko arau soil bat dela, protokolozkoa edota, are, itxura ona agertzeko estrategikoa. Alabaina, irakurraldi sakonekoa egin beharra dugu. Ebanjelioaren araberrako «apaltzeak» garen azken egia bizitzearekin du zerikusia, bizitzan kokatzearekin. Gizarteak esleitzen digun postua baino areago, Jainkoaren sorkari gara guztiok, eta hori da gure benetako handitasuna eta gure duintasunik handiena. Jainkoaren gainerako sorkari guztiekin partekatzen dugun duintasuna da: inor ez inor baino duinago.

Urteko 31. astea.
Igandea / Domeka.

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak
[Meza berezia beheraxeago].

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak.*

§ Malakias Profetaren liburutik 1,14b–2,2b.8–10.

«Errege handia naiz Ni –dio Jaun ahalguztidunak–, eta begirune diote herriek nire izenari.

Orain, apaizok, hona hemen zuentzako oharpena: Entzun nahi ez baduzue eta nire izenari aintza emateko axolarik ez baduzue –dio Jaun ahalguztidunak–, madarikazioa bidaliko dut zuen gainera.

Zuek, apaizok, okertu egin zarete bidetik eta asko eta asko erorarazi duzue zeuen irakaspenaz. Hautsi egin duzue Levirekin nuen ituna –dio Jaun ahalguztidunak–. Horregatik, Nik ere mespretxagarri eta kaxkar egingo zaituztet eta zirtzil herri guztiarentzat, nire bideak jarraitu ez dituzuelako eta erabakiak nor zein den begiratzuz hartu dituzuelako.

Ez al dugu guztiok Aita bat bera? Ez al gaitu guztiok Jainko berak egin? Zertan gabiltza, bada, elkar engainatzen, Jainkoak gure gurasoekin egin zuen ituna hautsiz?»

[Sal 130: Zaindu ezazu nire bizia bakean zeure baitan, Jauna.]
§ San Paulok Tesalonikarrei 2,7b-9.13.

Senideok: Maitasun samurrez jokatu genuen zuekin, bere haurrak maitekiro zaintzen dituen amak bezala. Hain bihotzeko zintuztegunez, prest ginen, Jainkoaren Berri Ona ez ezik, baita geure bizia ere zuei emateko. Hainbestearaino maite zintuztegun. Izan gogoan gure neke eta ahaleginak; gau eta egun egin genuen lan zuetako inorentzat zama ez izateagatik, Jainkoaren Berri Ona hots egin genizuenean

Horregatik, eskerrak ematen dizkiogu etengabe Jainkoari; zeren, haren hitza hots egin genizuenean, onartu egin baitzenu- ten, ez giza hitz huts bezala, Jainkoaren hitz bezala baizik; hala da, izan ere, eta lanean ari da zuengan, sinesten duzuenongan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,1-12.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaien jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egin ez. Zama astunak eta ezin eramank lotzen dituzte, eta besteei leporatzen; baina beraiek atzamar batez ere ez dituzte mugit- zen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo dei- garriak mantu barrenean. Afarietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta guztiek "maisua" deitzea.

Zuek, ordea, ez utzi inori "maisua" deitzen, bakarria baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurrean inori "aita", bakarria baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi "gidari" deitzen ere, bakarria baita zuen gidaria, Mesias.

Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Igande honetako ebanjelioa oso errotikoa da. Proposatu nahi nituzke gure kontenplazioaren erdigunetzat, ez lege-maisuen eta fariseuen kontrako kritika, baizik eta ebanjelio honen bukaeran datozen hiru baieztapen handiak.

«Bat bakarria da zuen maisua, eta zuek guztiok anai-arreba zarete»: maisu bakarria den Jesusen anai-arreba eta ikasle zarete guztiok. «Ekinean kontenplari» izatean datzan bizi-ikaskuntzaren prozesuan gaude guztiok. Horretan beste batzuen lagun gara eta lagun gaitzaten

uzten diegu. Guztiok dugu zer irakatsiren bat eta guztiok dugu zer ika-siren bat.

«Bat bakarra duzue Aita, zerukoa»: zeren Bat Bakarra baita egunero-egunero gu kreatzen ari dena, sostengu duguna, bizitza posible egiten duena. Ez da beste aitarik, ez dagozkigun aitatasunak esleitu nahi izan dituzten eta izaten ditugunak gorabehera. Ez espirituzko aitarik, ez espirituzko seme-alabarik: edota bai, baina bizitzaren arnasa guztioi ematen diguna Jainkoaren Espiritua bakarrik dela pentsatzen badugu.

«Bat bakarra duzue zeuen kontseilu-emailea: Kristo». Erreferentzia-tzat Kristo ematen diegun mailan bakarrik norabidetzen ditugu egoki guga hurbiltzen direnak, ipintzen ditugu bide egokian.

Jesuiten Jaia

[Deuteronomio 30,11-14: Agindua zeugandik oso hurbil duzu; bete esazu. **Sal 15:** Zu zaitut, Jauna, neure ondarea.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,23-26.**

Aldi hartan, Jesusek erantzun zien ikasleei: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxies-ten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du.

Hiltzen eta fruitu ematen duen gari-aleari buruzko sententziaren aurretik hebrear zinaren formula solemne hau dator: «Amen, amen». Hau esango balu bezala da: «Finkoa eta sendoa da hau, hitz hau har deza-kezue sostengutzat». Kristau-bizitza guztia Jesusen konbentzimenduei «bai» esatea da, bai bizitzea edo hiltzea zer denari dagokionez, bai nork bere burua gordetzeari edo galtzeari dagokionez. Zorionekoak gu, geure bizitza haren hitzaren arrokian eraikitzen ari bagara.

Urteko 31. astea.

Astelehena.

Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak.

San Severo, *martiria*.

Eugenio Mari (Lazkao 1902 – Pedralves [Katalunia] 1936), anaia beneditarra, *dohatsu eta martiria*.

Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak.

[Ikus beheraxeago Jesusen Lagundiko Hildakoen Meza]

[San Paulok Erromatarrei 11,29-36: Jainkoak obeditzen ez dutenen arteko egin gaitu gizon-emakume guztiak, guztioi erruki egiteko. **Sal 68**: Hain onbera zarelako, entzuniezadazu, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion bazkaltzera deitu zuen fariseu handiki bati: «Bazkari edo afariren bat ematean, ez gonbidatu zeure adiskideak, ezta senide, ahaide edo auzoko aberatsak ere; zeren beraiek ere gonbidatu egingo baitzintuzkete, eta horrela ordaina hartuko zenuke. Otordu bat ematean, gonbidatu behartsu, elbarri, herren etaitsuak. Zorionekoa zu, orduan, ezin izango baitzute ordaindu! Zintzoak piztuko direnean jasoko duzu ordaina».

«**B**ehartsuak, elbarriak, herrenak etaitsuak»: a zer-nolako gonbidatu-zerrenda proposatzen digun Jesusek! Jakina, beraren lagunak gonbidatzeko proposatzen digu, beraren lehenetsiak. Jesusi jarraitzeak trukatu egiten ditu gure lehentasun afektiboak ere, gure harremanen mundua ere. «Beraren adiskide behartsuak», esan ohi zuen San Ignaziok. Haiek ote dira gure «adiskide»? Edota, nahiago baduzue, eta beste erabatean esanik, zenbat behartsu, elbarri, herren edo itsu ageri dira gure

zerrendetan? Gure adiskideen, gure gonbidatuen, beren sufrimendua-
gatik kezkatzen gaituztenen, geure zerbitzua eskaintzeko lehenesten
ditugunen... zerrendetan, alegia. Hau guztia guztiz errotikoa? Bai, segur
aski... Baina irakur dezagun berriro ebanjelio hau...

Jesuiten jai

[Erromatarrei 14,7-9: Nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara.
Sal 116: Jaunaren aurrean ibiliko naiz, bizen lurraldean.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,37-40.**

Aldi hartan esan zien Jesusek: «Aitak niri ematen dizkidan
guztiak nigana hurbilduko dira, eta nigana hurbilduko denik ez
dut inola ere kanpora botako, ez bainaiz zerutik jaitsi neure
nahia egitera, bidali nauenaren nahia egitera baizik. Eta hauxe
da bidali nauenaren nahia: berak eman dizkidan guztietatik, ez
deзадala inor ere galdu, baizik eta piztu ditzadala azken egu-
nean. Hauxe da nire Aitak nahi duena: Semea ikusi eta haren-
gan sinets dezanak betiko bizia izan dezala, eta neuk piztuko
dut azken egunean».

Bizitzan eta heriotzan Jaunarenak gara, diosku San Paulok. Jesu Kristo-
renak izatea, berme bat da bizitza honetarako eta besterako. Jesuiten
ideala, kristau ororena bezala, «Jesusen jende» artekoa izatea da, haren
jarraitzaileetako izatea. Gogo Jardunetan, behin eta berriz errepikatzen
den eskaria da: eman diezagula Kristorekin osoenik identifikatzea eta au-
kera gaitzala beraren hurbilenetakoak izatea. Horregatik, seguru gaude
lagun izango gaituela zeruko erreinuan ere. Ez da ustekeria, haren Biho-
tzean konfiantza izatea da.

[San Paulok Erromatarrei 12,5-16a: Atal bakoitza beste atalen zerbitzurako da. Sal 130: Gorde, Jauna, nire arima banean zeure ondoan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,15-24.

Aldi hartan, Jesusekin mahaian zegoen batek esan zion: «Zorionekoa Jainkoaren erreinuko otorduan parte hartuko duena».

Orduan, Jesusek esan zion: «Gizon batek afari handi bat ematen zuen eta jende asko gonbidatu. Afarirako ordua iritsi zenean, morroia bidali zuen gonbidatuei esatera: "Zatozte, prest dago dena". Baina bata bestearen ondoren aitzakiak jartzzen hasi ziren denak. Lehenengoak esan zion: "Soroa erosi dut, eta ikustera joan behar dut; barkatu, arren". Beste batek, berriz: "Bost idi-pare erosi ditut, eta probatzera joan behar dut; barkatu, arren". Eta hurrengoak: "Ezkondu berria naiz eta ez naiteke joan".

Itzuli zen morroia eta guztiaren berri eman zion nagusiarri. Etxeko nagusia biziki haserretu zen eta esan zion morroiarri: "Hoa bizkor herriko plaza eta kaleetan barrena, eta ekarri behartsu, elbarri, itsu eta herrenak". Geroago, morroiak esan zion: "Jauna, egin dut agindu duzuna, eta oraindik bada lekurik". Orduan, nagusiak esan zion: "Hoa bidez bide eta bazterrik bazter eta sarrarazi jendea barrura, etxea bete dakidan. Egia esan, gonbidatu haietako batek ere ez du nire afaria dastatuko"».

Berriro mintzo zaigu ebanjelioa gaur otorduez eta gonbidatuez. Baina atzo ez bezalako alderdi batetik. Jainkoagandik hartzen ditugun deiek eta gonbitek esan nahi dutenari kasurik ez egiteko gaitasunaz eta gonbidatzen gaituen Jaunarekin esker txarreko izateaz. Edozein atzekia

aski izaten da: eman dituzten arrazoiak objektiboak dira; are gehiago, arrazoizkoak. «Ni»arekin dute zerikusia: nik erosi dut, ni ezkondu berria naiz; interes eta zaletasun propioak, bidezkoak, baina Jesus eta haren gonbitak esan nahi duen guztia ahaztarazten gaituztenak. Erantzun al diegu Jesusen gonbitei?

[San Paulok Erromatarrei 13,8-10: Maitatzea da Lege osoa betetzea. Sal 111: Zorionekoa gupidatzen eta aurreratzen duena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; Honek, haiengana bihurturik, esan zien: «Norbaitek nirekin etorri badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua ere baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle.

Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren bukatu ezin izango balu, hori ikustean, barre egingo liokete guztiek, esanez: "Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu".

Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde aurretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hogei milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, bestea oraindik urruti dela, mandariak bidaliko dizkio bakea eskatuz.

Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

Lukasen ebanjelioko 14. kapitulu honek gonbitez eta deiez hitz egiten jarraitzen du... Gaur, hurbiletik jarraitzearen deiaz. Eta deia baldintza miresgarriz borobildua da. Inolako ikustekorik ez kanpaina engainagarri edo proposamen erraztxoekin. «Bere ondasun guztiei uko egiten ez diena»: beste inork ez bezala, mugagabeki, aitak edo

anai-arrebek baino gehiago maite gaituenak dei egiten ahal digu horrela. Norbaitek horrela maite gaituela sentitzean bakarrik jotzen ahal dugu horrelako jarraipen baterantz... Zorakeria? Ez, eskerrona. Nork bere buruz beste egitea? Ez, bizia eskaintzea. Gizatasunari ukapena? Ez, betearen beterako bidea.

[Ezekiel 47,1-2.8-9.12: Ura ikusi nuen jauretetik ateratzen, eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. **Sal 45:** lbai-adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria, Goi-goikoaren bizileku guztiz santua. **1 Korintoarrei 3,9c.11.16-17:** Jainkoaren etxe zarete.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2,13-22.**

Aldi hartan, juduen Pazkoa hurbil zen, eta Jesus Jerusalem-era igo zen. Jauretxean idi, ardi eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-tratulariak eserita. Zigor bat lokarriz egin eta jauretetik bota zituen denak, ardi eta idiekin, diruak sakabanatuz eta mahaiak irauliz. Eta uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Eta ikasleak, idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure etxearekiko maitemina erreko nau». Orduan, juduek tartean sartu eta esan zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu, hori egiteko?» Eta Jesusek: «Xehatu ezazue jauretxe hau, eta hiru egun barru jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren jauretxe hau egiteko, eta zuk hiru egunean jaso?» Baina Jesusek bere gorputzaren jauretxea esan nahi zien. Hildakoen artean bertatik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak honetaz, eta sinezki zuten Liburu Santuak eta Jesusek esandako hitza.

Harrizko tenplutik haragizko tenplura: hori da gaurko liturgiak proposatzen digun ibilbidea. Paulok dio: «Santua da Jainkoaren tenplua: zuek zarete tenplu hori», eta Joaneke diosku Jesus «bere gorputzaren tenpluaz mintzi zela». Tenpluaren ideia hau Jainkoaren presentziarekin lotzen da eta, beraz, leku sakratuarekin, begirune berezia

merezi duen lekuarekin. Begirunea geure buruari Jainkoaren tenplu garelako, eta begirunea gainerakoei hala direlako haiek ere. Jator bizi beharra, geure bizona eta balioak merkatu-gai bihurtu gabe, eta gainerakoengana hurbildu beharra eremu sakratua zapaltzen ari zarela gogoan izanik.

Urteko 31. astea.

Ostirala / Barikua.

San Leon Handia, 45. *aita santua eta eliz irakaslea.*
San Andres Avelino, *apaiza.*

[**San Paulok Erromatarrei 15,14-21:** Jesu Kristoren zerbitzari naiz jentilentzat, haien eskaintza atsegingarri izan dakion. **Sal 97:** Agertu du Jaunak atzerritarren aurrean beragandiko garaipena.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,1-8.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats bategi etxezain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitzaioela salatu zioten.

Deitu egin zion eta esan: “Zer da zutaz entzun dudan hori? Emadazu etxezaintzaren kontu, kargutik bota egiten zaitut eta”.

Etxezainak, orduan, honela zioen bere baitan: “Zer egin behar dut nik orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako lotsa naiz. Badakit zer egin, kargutik botatzen nautelarik etxean nork hartu izan dezadan”.

Banan-banan bere nagusiaren zordun guztiei deitu, eta lehenengoari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiarri?” Hark erantzun: “Ehun upel olio”. Etxezainak, orduan: “Hona zure ordain-agiria; agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”. Gero, hurrengoari galdetu zion: “Zuk zenbat zor diozu?” Hark erantzun: “Ehun anega gari”. Etxezainak, orduan: “Hona zure ordain-agiria; idatzi laurogei”.

Eta nagusiak txalotu egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhur jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino».

Zertan datza Jesusek etxezainagan goratzen duen «ernetasuna»? Ernetasun bikoitza da: bizi duen unea atzemateko ernetasuna eta une horrek eskatzen duen moduan jokatzeko ernetasuna. Jesusek entzuleei egindako interpelazioak bizirik jarraitzen du guretzat: erne al gara ebanjelioak eskatzen duen moduan? Alderdi desberdinak ditu horrek: atzematen al ditugu gaur egunaren zentzua eta deia, iraganaren nostalgiarik gabe eta geroaz ameskeriarik izan gabe?, prest al gaude orainak eskatzen dituen erabakiak hartzeko?, ba al dakigu baloratzen eta bereizten egiaz axola duena?... Beste hitz batzuekin, bereizmen-jarrera bizi al dugu?...

Urteko 31. astea.

Larunbata / Zapatua.

San Martin Tours-ekoa, *gotzaina*.

Toribio santua, *monjea*.

[**San Paulok Erromatarrei 16,3-9.16.22-27:** Agur egiozue elkarrri, musu santua eman ez. **Sal 144:** Ene Jainko, ene Errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,9-15.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Irabaz itzazue adiskideak bidegabeko dirutik, diruz; horrela, dirua amaitzean, betiko bizilekuan hartuko zaituzte Jainkoak. Gauza txikietan fidagarri dena, handietan ere fidagarri da, eta gauza txikietan zuzengabea dena, handietan ere zuzengabe. Bidegabeko dirua erabiltzen fidatzekoak izan ez bazarete, nork utzi zuen esku ondasunak? Zeuena ez duzuen aberastasunarekin fidatzekoak izan ez bazarete, nork eman benetan dagokizuen?»

Ezin da morroi bat bi nagusiren zerbitzari izan. Izan ere, bata gorroto izango du, eta bestea maite; edota bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi».

Entzun zuten hau guztia fariseu diruzaleek, eta barre egiten zioten Jesusi. Honek esan zien: «Zuek zeuen buruak zintzo agertzen dituzue jendearen aurrean, baina ezagutzen du Jainkoak zuen barrua; izan ere, gizakiak baliotsutzat daukana, Jainkoarentzat mespretxagarri da».

«**D**iruaren adiskideek» iseka egiten zioten Jesusi... Erraz imajina genitzake iseka edo burla horiek: «ez da horrenbesterako», «ez da zertan jarri horrela», «batera daitezke Jainkoa maitatzea eta diruaren zaletasuna»... Jesusek azpimarratzen duena, berriz, horixe da: ezina dela aldi berean Jainkoaren zerbitzari eta diruaren zerbitza-

ri izatea. Atentzioa ematen du «diruaren zerbitzari» esapideak: dirua jainko bihurtzea, dirua bizitzaren helburu egitea, balioen eta pertsonen gaintetik jartzea... Esango genuke inor ez dela gai horretarako; baina bizitzak erakusten digu, zoritxarrez, oso sarritako gauza dela hori.

Urteko 32. astea.
Igandea / Domeka.

San Josafat, *gotzaina eta martiria.*

San Millan [Emiliano] Donemiliaga Kukulakoa
(Errioxa), *apaiza.*

§ Jakinduria liburutik 6,12-16.

Argitsua da jakinduria, itzalezina haren distira;
nekerik gabe ikusten dute maite dutenek,
baita aurkitzen ere hura bilatzen dutenek.
Irrikatzen dutenei, aurea hartzen die
eta bere burua ezagutzera ematen.

Haren bila goiz-goizetik doanak ez du nekerik izango,
ate ondoan aurkituko baitu eserita.

Zuhurtziarik handiena da hartaz gogoeta egitea;
harengatik gauak beilan ematen dituen
laster izango da kezkarik gabe,
zeren jakinduria bera ibiltzen baita hara eta hona
beraren duin direnen bila;
onginahiz agertzen zaie bideetan
eta beren gogoeta bakoitzean aurkezten.

[Sal 62: Zure egarriz dut gogoia, Jauna, ene Jainko.]

§ San Paulok 1 Tesalonikarrei 4,13-18.

Senideok: Ez dugu nahi hildakoen zoriari buruz zuek ezjaki-
nean egoterik, atsekabetu ez zaitezten, itxaropenik ez dutenen
antzera. Jesus hil eta piztu zela egiaz sinesten badugu, Jesuse-
kin bat eginik hil direnak ere Jainkoak berekin hartuko ditu.

Hau diotsuegu Jaunaren hitzean oinarrituta: guk, Jauna
etortzean bizirik gertatuko garenok, ez diegu hil direnei aurea
hartuko. Zeren, goiaingeruaren oihuz eta Jainkoaren turuta-ho-
tsez seinalea emanik, Jauna bera jaitsiko baita zerutik, eta au-

rrena, Kristorekin bat eginik hildakoak piztuko dira; gero gu, ar-
tean bizirik izango garenok, haiekin batean eramango gaituzte
hodeietan, airean, Jaunarekin topo egitera. Eta horrela, beti Jau-
narekin egongo gara. Adoretu ezazue, beraz, elkar hitz hauekin.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Ze-
ruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta
senar ezkonberriari bidera irten zitzaizkion hamar neskatz-
ekin bezala gertatzen da. Neskatzetako bost zentzugabeak zi-
ren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek
ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera
olioa ere hartu zuten ontzietan. Senarrak luzatzen zuenez, lo-
galetu egin ziren denak eta loak hartu zituen.

Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten
zakizkiote bidera!” Jaiki ziren neskatzak guztiak, eta beren krisei-
luak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zen-
tzudunei: “Emaguzue olio pixka bat, kriseiluak itzaltzera doaz-
kigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa
geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan
eta erosi”.

Baina, eroatera joanak zirelarik, senarra iritsi zen, eta prest
zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi egin zen.

Iritsi ziren, azkenik, beste neskatzak ere eta dei egin zuten:
“Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan dio-
tsuet, ez dakit nor zareten”.

Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Jakinduriaz mintzo zaigu gaurko liturgia.... Gauza asko jakitearekin
zerikusirik ez duen jakinduria da; bizitzan ebanjelioaren arabera
«kokatzen jakitea» da kontua. «Kokatzen jakitea»: Jainkoa zer den
eta gu geu zer garen zuzen jakitea. Zenbait pista ematen dizkigu nola
«kokatu jakiteaz».

Kokatzea da, bilatzeko jarreran, ikasteko gogoz eta egunero Jainkoaren berritasunari eta deiari harrera egiteko prest. Jakintsua, dakiena da, beste ezer baino lehen, asko duela artean ikasteko

Eguneroko begi-bistako gauzak baino harago kokatzea da; jakinik, bada, dela Jainkoaren hitz bat munduaz, behin betikoa dena, eta azken hitza giza bizitzaz ez dela heriotzaren hitza, baizik eta Jainkoarekin Bizi-topaketa egitearen hitza. Jakintsua, dakiena da: berarena ez dela azken hitza.

Zain-zain egonez kokatzea da: desirak eta konpromisoak elikatzen duten zain-zain bizitzea da, nagikeriarik eta axolagabetasunik onartzen ez duelarik. Jakintsua, dakiena da ezen egunean eguneko konpromisoak geroaren promesean barneratzen gaituela.

Urteko 32. astea.

Astelehena.

San Estanislao Kotska, *erlijioso*.

San Leandro Sevillakoa, *gotzaina*.

[**Jakinduria liburuaren hasiera 1,1-7:** Jakinduria gizakia maite duen espiritua da; Jaunaren spirituak beterik du lurra. **Sal 138:** Eraman nazazu, Jauna, betiko bidetik.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,1-6.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezinbestekoa da munduan galbideak gertatzea, baina dohakabea inoren sinesmena galbidean jartzen duena! Hobe luke errotarria lepotik lotu eta itsasora botako balute, txiki hauetakoren bat galbidean jartzea baino.

Ibili kontuz! Zure senideak bekatu egiten badu, egiozu haserre, eta, damutzen bada, barkatu. Eta egunean zazpi aldiz zure kontra bekatu egiten badu eta zazpi aldiz etortzen bazaizu “damu dut” esanez, barkatu».

Apostoluek esan zioten Jaunari: «Handiagotu ezazu sinesmena gudan». Jaunak erantzun zien: «Sinesmena bazenute, mostaza hazia bezain txikia izanik ere, pikondo honi “Atera hortik eta landatu itsasoan” esango zeniokete, eta obeditu egingo lizueke».

«**F**edea izango bazenute...»: fedea izango bagenu, Jainkoaz erabat fidatzea den hori, bizia haren alde eskaintzerainokoa... Eskaintza hori bere bizi egin zuen baten oroitzapena ospatzen dugu gaur: Estanislao Kotska. Bere bizi osoa, bere gaztaroa, bere ahalbideak Jainkoagatik eman zituen. Mezua eta interpelazioa da gu guztiontzat eta, era berezian, hainbat eta hainbat gazterentzat, kualitatez eta giza ahalbidez beteak izanik, beren bizia Jainkoagatik eskaintzera ausartzen ez direnentzat. Pena da, zeren, ebanjelioak dioenez, eskaintza horrek ustekabeko ahalbideak sortzen baititu; adibidez, arbola bat zuztarretik atera eta itsasoan aldatzekoa.

Urteko 32. astea.

Asteartea / Martitzena.

San Jose Pignatelli, *erlijiosoa (Jesusen Lagundia berrezarri zuena).*

[**Jakinduria liburutik 2,23–3,9:** Zoroen begietan hilak zirela ziruditen; haiek, ordea, bakean dira. **Sal 33:** Bedeinka dezadan aldioro Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,7–10.**

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Emazue, zuetako batek morroia duela soro-lanean edo artzaintzan. Morroia etxeratzean, "Hator berehala mahaira" esaten ote dio? Ez ote dio beste hau esaten: "Presta iezadak afaria, jantzi amantala eta zerbitza nazak, nik afaldu bitartean; ondoren, afalduko duk heuk?" Morroiari esker ona zor ote dio, agindua bete duelako?

Zuek ere gauza bera: agindutako guztia egin eta gero, esan: "Morroi gizajoak gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin"».

Imajina genezake, Jaunarekin azkenik topo egin zuenean, San Jose Pignatellik, adineko jesuita aragones honek, zeinen oroitzapena egiten baitugu gaur, esango ziola: «egin behar nuena egin dut». Biografia harrigarri bat laburtzeko era soil eta apala da, bizitza pribilegiatu bateko giza ahalbideri uko egitetik barne indar miresgarri batekin bizi izandako sufrimendu- eta pertsekuzio-bizitza batera doan biografia baita Pignatellirena. Laburpen ona gutako bakoitzaren bizitzarako: «egin behar nuena egin dut». Baita egun bakoitzerako ere: «egin behar nuen»... soil hori.

Urteko 32. astea.**Asteazkena / Eguaztena.**San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

[Jakinduria liburutik 6,1-11: Entzun, erregeok, jakinduria ikas dezazuen. Sal 81: Jaiki zaitez, Jauna, eta epaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,11-19.

Aldi hartan, Jesus Jerusalemera bidean, Samaria eta Galilean barna zihoan. Herrixka batean sartzean, hamar legendar-dun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: «Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!» Jesusek, ikustean, esan zien: «Joan eta azaldu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren.

Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadar-ka goratuz itzuli zen eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanaz. Samariarra zen bera.

Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatziak? Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?» Gero, esan zion: «Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu».

«**E**z al da itzuli atzerritar hau baizik Jainkoari aintza emateko?...». Atzerritar bat, arrotz bat, gutakoa ez den bat, eskerronaren eta, are, fedearen etsenplu. Ebanjelioa irekirik ageri da «ofizialki» fededun ez direnen fedea baliozkotzat emateko; beste bat gehiago, kanaanar emakumearekin batera, edota erromatar ehuntariarekin batera, beste etsenplu batzuk aipatzeko... Paradoxikoena iruditu arren, fedea ez da fededunona bakarrik, ezta eskerrona ere, ezta Jainkoarekiko harremana ere... Ondorioz, ez gara inor «atzerritarren» fedea eta balioak juzkatu edo mespretxatzeko.

Urteko 32. astea.

Osteguna / Eguena.

Santa Gertrudis, *birjina*.

Santa Margarita Eskoziakoa, *erregina*.

Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Juan del Castillo santuak, *apaizak* eta *martiriak*.

[**Jakinduria liburutik 7,22–8,1:** Betiko argiaren errainu dis-tiragarria da jakinduria, eta Jainkoaren indarraren ispilu orbain-gabea. **Sal 118:** Betikoa da zure hitza, Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,20-25.**

Aldi hartan, Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zen galdetu zioten fariseuek Jesusi. Honek erantzun zien: «Jainkoaren erreinua ez da nabarmen etorriko. Ezin esango da: "Hona hemen" edo "hara han"; zeren Jainkoaren erreinua zuen artean baitago jadanik».

Gero, ikasleei esan zien: «Iritsiko da garaia, Gizonaren Semea etorri osteko egun bat bederen ikusi nahi izango duzuen, eta ezin izango duzue ikusi. Orduan, "hona hemen", "hara han" esango di-zuete. Baina zuek ez joan, ez atera atzetik lasterka. Izan ere, tximis-tak une batean zero-alde batetik besteraino argi egiten duen beza-la, hala izango da Gizonaren Semea etorriko den egunean. Baina au-rretik asko sufritu behar du, eta gizaldi honek gaitzetsi egingo du».

«**J**ainkoaren Erreinua zeuen barnean duzue»... «Asko sufritzen duten eta belaunaldi honek gaitzesten dituen hainbat eta hainbat perso-na zuzenaren barnean»... Adibidez, gaur ospatzen ditugun jesuita martiri santuen barnean: Paraguain XVII. mendean martiri hil zituztenak edota gaur bezalako egun batean 1989an El Salvadorren hil zituzten sei jesuitak eta bi emakumeak... «Indarkeria jasaten duen» Jainkoaren Erreinua da, bai-na bere zuzentasun-egitasmoarekin bide irekiz doana, Jainkoaren aurrean pertsona guztiek duten duintasun beraren eskakizunei erantzuten dien zu-zentasunarekin, alegia. Lekukoak hiltzen dira, baina Jainkoaren Erreinua ez.

[**Jakinduria liburutik 13,1-9:** Izadia aztertzeke hainbat ikasi badute, nolaz ez dute ezagutu lehenago izadiaren Jauna? **Sal 18:** Ortziak Jaunaren ospea du zabaltzen.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,26-37.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen garaian ere: jan-edanean zebilen jendea eta ezkondu egiten ziren gizon-emakumeak, Noe ontzian sartu zen eguna arte; baina etorri zen uholdea eta denak galdu zituen.

Gauza bera gertatu zen Loten garaian ere: jan eta edan, erosi eta saldu, landatu eta eraiki egiten zuen jendeak; baina, Lot Sodomatik atera zen egunean, su eta sufrezko euria egin zuen zerutik eta denak galdu zituen.

Hala gertatuko da Gizonaren Semea agertuko den egunean ere. Egun hartan, etxe gainean egon eta bere gauzak etxean dituen ez bedi hartzera jaitsi; eta, era berean, soroan dena ez bedi atzera itzul. Oroitu Loten emazteaz.

Bere bizia beretzat gorde nahi duenak galdu egingo du; galzten duenak, berriz, onik aterako du.

Neuk diotsuet: gau hartan bi lagun egongo dira ohe berean: bata hartu egingo dute eta bestea utzi; bi emakume ariko dira batera ehotzen: bata hartu egingo dute eta bestea utzi». Ikasleek galdetu zioten: «Non izango da hori, Jauna?» Jesusek erantzun zien: «Sarraskia non, han bilduko dira putreak».

Gaurko hau bezalako ebanjelio harrigarri eta sustraikoek zer pentsa handia ematen dute. Adierazten dute, ebanjelioa aztura edo ohitura on batzuen edota kristau-heziera on baten esku-liburu bat baino zerbait gehiago

dela...: errotiko proposapena da bitzita ulertzeko edo bizitzan jokatzeko. Nekez ulertzen dugu horrela eta nekez hots egiten, urardo bihurtzeko joera izaten dugu eta haren eskakizunak eskuragarri egiteko joera; horrela, desitxuratu egiten dugu eta, are gehiago, saldukeria egiten diogu. «Bizia gorde» ala «bizia galdu»: hori da Jesusek jarri digun hautabidea. Beldurra ematen digu ebanjelioa hain garbi hots egiteak, beldurra ematen baitigu bizia hain errotik hartzeak.

Urteko 32. astea.
Larunbata / Zapatua.

San Pedroren eta San Pauloren elizak sagaraztea Erroman.

San Odon, *abadea*.

M^a Anjeles Odriozola (Azpeitia), M^a Engrazia Lekuona (Oiartzun), M^a Zezilia (Azpeitia), M^a Ines (Etxarri) eta lagunak, *dohatsu, birjina eta martiri* (1936)

[Jakinduria liburutik 18,14-16; 19,6-9: Bide bezala azaldu zen Itsaso Gorria, eta bildotsak bezala saltoka zebiltzan. **Sal 104:** Ekarri gogora Jaunak egin dituen mirariak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,1-8.**

Aldi hartan, otoitz etengabe egin behar zutela eta ez zutela etsi behar adierazteko, Jesusek parabola hau esan zien: «Bazen herri batean epaile bat, ez Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik ez ziona. Bazen hiri berean emakume alargun bat ere. Hau epaileagana joaten zen, eskatzera: "Egidazu justizia etsaiarekiko auzian". Luzaroan epaileak ez zion kasurik egin nahi izan, baina azkenean bere baitan esan zuen: "Ez diot Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik; baina, alargun hau gogaikarri zaidanez, egingo diot justizia, behingoz bakean utz nazan"».

Eta honela bukatu zuen Jaunak: «Begira zer dioen epaile zuzengabeak. Eta Jainkoak, ez ote die justizia egingo, gau eta egun deiadarka ari zaizkion bere aukeratuei? Zain edukiko ote ditu luzaroan? Justizia berehala egingo diela diotsuet. Baina Gizonaren Semeak, datorrenean, aurkituko ote du sinesmenik munduan?»

Emakume alargunaren fedea: «Gizonaren Semeak, etorriko denean, aurkituko ote du honelako federik lurrean?» Geroago, Lukasek bere ebanjelioan beste emakume alargun bat ipiniko digu eskuzabaltasunaren eredu-tzat. Eta bere ebanjelioaren hasieran, kasik, beste emakume alargun baten atsekabea eta pobretasuna aurkeztu zizkigun, semea galdu zuena, zeinez Jesus gupidatu egin baitzen. Lukasen ebanjelioko emakume alargunek agerian jartzen dizkigute pobreenak direnen bertuteak: fedea, eskuzabaltasuna... Behartsuei begiratzeko era berri eta ebanjeliko bat...

§ Esaera Zaharrak liburutik 31,10-13.19-20.30-31.

Nork aurkituko etxeoandre jatorra?
Harribitxiak baino askoz gehiago balio du.
Konfiantza osoa du senarrak harengan,
eta ez da sekula beharrean aurkituko.
Zoriona ekartzen dio, ez zoritxarra,
bizitzako egun guztietan.
Artilea eta lihoa eskuratzen ditu,
gogotsu egiten dute lan haren eskuek.
Eskuaz goruari heltzen dio
eta atzamarrez ardatzari eragiten.
Dohakabeari eskua zabaltzen dio
eta behartsuari laguntza ematen.
Gezurrezkoa da xarma, hutsala edertasuna;
goresgarria, ordea, Jaunari begirune dion emakumea.
Emazkiozue eskerrak bere eskuen lanagatik,
goretsi herri osoaren aurrean berak egindakoagatik.

[Sal 127: Dohatsu, Jaunaren beldur dena.]

§ San Paulok 1 Tesalonikarrei 5,1-6.

Senideok: Hori noiz eta nola izango den ez duzue nik idatzi beharrik; zeuek dakizue aski ongi Jaunaren eguna ustekabean etorriko dela, lapurra gauetz bezala.

Jendea «hau bakea eta segurtasuna» esaten ariko denean, orduan etorriko zaie hondamendia gainera, ustekabean, haurdun dagoenari erdiminak bezala, eta ez du ihes egiterik izango.

Zuek, ordea, senideok, ez zarete ilunpean bizia, eta egun horrek ez du zuek lapurrak bezala zertan harrapatu. Zuek guztiok egia-
ren eta egunaren aldeko zarete; ez gara gauaren eta ilunaren
menpeko. Beraz, ez dezagun lo egin gainerakoek bezala, baizik
eta egin gaitezen erne eta izan gaitezen neurritsu.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,14-30.**

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Gizon batek, urrutira joaterakoan, bere morroiei dei egin eta bere ondasunak utzi zizkien. Bati bost talentu eman zizkion, beste bati bi, beste bati bakarra: bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Eta gero joan egin zen. Bost talentu hartu zituen haiekin lanean hasi zen berehala, eta beste bost irabazi zituen. Bi hartu zituenak ere gauza bera egin zuen, eta beste bi irabazi zituen. Bat hartu zuenak, ordea, lurrean zulo bat egin eta han gorde zuen bere nagusiaren dirua.

Handik luzarora, etorri zen morroi haien nagusia, eta kontuak garbitzen hasi zitzaien.

Hurbildu zen bost talentu hartu zituen, eta beste bost eraman zizkion, esanez: "Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; begira, beste bost irabazi ditut". Nagusiak esan zion: "Ederki, morroi zintzo eta leiala! Gutxian zintzo izan zarela, askoren buruzagi egingo zaitut; sar zaitetz zeure nagusiaren pozetara".

Hurbildu zen bi talentu hartu zituen, eta esan zion: "Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; begira, beste bi irabazi ditut". Nagusiak esan zion: "Ederki, morroi zintzo eta leiala! Gutxian zintzo izan zarela, askoren buruzagi egingo zaitut; sar zaitetz zeure nagusiaren pozetara".

Azkenean, hurbildu zen talentu bat hartu zuena, eta esan zion: "Jauna, banekien gizon zorrotza zarela; erein ez duzun tokian igitatzen duzuna, eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna. Beraz, beldurrez joan nintzen, eta lurpean gorde nuen

zure talentua. Hor duzu zeurea!”

Nagusiak erantzun zion: “Morroi gaizto eta alferra! Baze-
nekien, beraz, nik, erein ez dudan tokian igitatzen dudala, eta
zabaldu ez dudanean biltzen. Horregatik, nire dirua bankuan
utzi behar zenuen, nik, etortzean, irabazi eta guzti jaso nezan.
Ken iezaiozue talentu hori, eta eman hamar dituenari. Duenari
eman egingo baitzaio, eta gainezka izango du; ez duenari, be-
rriz, duen hura ere kendu egingo zaio. Eta morroi alfer huts hori
bota kanpoko ilunpeetara. Han izango dira negarra eta hortz
-karraska!”»

Emana zaigun guztitik, eta garen guztia dugu bestek emana, ezer ez da
zekenkeriaz edo utzikeriaz gordetzeko: fruitu emanarazteko da den-de-
na. Gaurko liturgiako irakurgaiak gaituzte gonbidatzen, eta hitz gogorrik
erabiliz, konpromiso pertsonal bat hartzera, Jainkoaren eskuzabaltasunari
erantzunez. Bi dira ebanjelioaren arabeko konpromiso-jarrerari kontrajar-
tzen zaizkion mehatxuak.

Batak zerikusia du hartuak ditugun ondasunen jabe garela senti-
tzearekin: geure merezimendu edo lorpen balira bezala hartuz, eta haien
helburua, besterik gabe, norberaren garapena edo atsegina balitz bezala
hartuz. Jarrera okerra bi aldetatik: batetik, kontuan ez hartzeagatik garen
guztia bestek emana dugula; bestetik, ez jakiteagatik gudan giza ikuspe-
gian baliotsuena dena hazi egiten dela partekatzen dugunean eta urritu
ezkutatzen denean.

Beste jarrera okerra utzikeria da, pasibotasuna, bizitzari joaten uz-
tea ezertan arriskatu gabe, ezer ere konprometitu gabe ezer ez galtzeko.
Egundoko okerra! Ebanjelioak gauza aski ausart bat esaten digu, baina oso
egiazkoa: arriskatzen ez duzunean, galdu egiten duzu: «duena ere kendu
egingo diote». Jarrera koldarra, gehienetan frustraziora eta lantura erama-
ten zaituena: jakin izan banu... Zenbat bizitza galdurik koldarkeriagatik!

Urteko 33. astea.

Astelehena.

San Edmundo, *martiria*.

[Makabearren 1. liburutik 1,10-15.41-43.54-57.62-64: Israelen gainera haserre ikaragarria etorri zen. Sal 118: Gorde nazazu bizirik, Jauna, eta gordeko ditut zure arauak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,35-43.

Aldi hartan, Jesus Jerikora hurbildu zelarik, itsu bat zegoen eskean bide-ertzean eserita. Jendea igarotzen sumaturik, zer gertatzen zen galdetu zuen. Jesus Nazaretarra igarotzen zela jakinarazi zioten. Orduan, deiadarka hasi zen: «Jesus, Daviden Seme, erruki zakizkit!» Aurrean zihoazenek gogor egiten zioten isilarazteko; baina hark oihu handiagoz: «Daviden Seme, erruki zakizkit!»

Jesusek, gelditurik, beregana ekartzeko agindu zien. Hurreratu zenean, galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?» Itsuak erantzun: «Berrito ikustea, Jauna!» Jesusek esan zion: «Ikusi, bada; zeure sinesmenak sendatu zaitu».

Berehala ikusmena berreskuratu zuen eta Jesusen ondoren zihoan, Jainkoa goretsiz. Eta herri osoak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu zuen.

«Zer nahi duzu nik zuri egitea?» Jesusen galdera bat, itxuraz alferrik egina: zer nahi izango du, ba, itsu batek Jesusen ondoren oihu eta oihu datorrenak? Alferrik egina izan ordez, gutako bakoitzari ere egunero egiten digun galdera horrekin, Jesusek esnatu eta indartu egin nahi du itsuagan, bai bere ahuldadea aitortu eta adieraztea, bai Jesus bera sendatzeko gai dela sinestea. Ez bata eta ez bestea, ez geure ahuldadea aitortzea eta ez Jesus gu sendatzeko gai dela sinestea, gertatzen zaigu gauza erraza. Ez, galdera ez da alferrik egina, inolaz ere ez...

Urteko 33. astea.

Asteartea / Martitzena.

Andre Maria [haurra] Tenpluan Aurkeztua.
San Gelasio 1.a, *aita santua*.

[Ikus beheraxeago Andre Mariaren meza.]

[Makabearren 2. liburutik 6,18-31: Jarraibide ederra utziko diet, horiek ere gure Legeagatik gogotsu bizia ematen ikas dezaten. **Sal 3:** Jauna dut nik euskarri.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,1-10.**

Aldi hartan, Jesus Jerikon sartu eta herrian barna zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zerga-biltzaileen buru zena, oso aberatsa. Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen Zakeo, baina ezin zuen jendetzagatik, txikia baitzen. Lasterka aurrera joan eta pikondo batera igo zen Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen.

Jesusek, toki hartara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Berehala jaitsi zen eta pozik hartu zuen etxean.

Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: «Bekadari baten etxera joan duk ostatur».

Zakeok, ordea, zutik jarrita, esan zion Jaunari: «Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei emango dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot».

Jesusek esan zion: «Gaur iritsi da salbamena etxe honetara, hau ere Abrahamen ondorengoa baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».

«**G**aldua zena bilatu eta salbatzera»: Galdua zena bilatu eta salbatzera. Jesusena da ekimena, ageriko bekadari batengan ezkutuan duen gogo ona aurkitu du, bere burua haren etxean bazkaltzera gonbidatu du... Pedagogia ebanjelizatzailea, asko ikasi beharra dugu horretatik. Izan ere,

benetan baldin bagoaz beste bat salbatzera edota, soil-soilik, laguntzera, pedagogia ez da izango oihuka joatea, ezta gaitzespenak botatzea ere, ezta haren iritziak epaitzea ere, ezta balizko handiagotasun morala azaltzea edo besterik gabe «gure» artegira etor dadin eskatzea ere... Jesusen pedagogia-
ren efikazia Zakeorekin bistako gauza da...

Andre Mariaren meza

[Zakarias 2, 10-13: Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorki-
zu-eta! Salmoa: Lukas 1: Zorionekoa zu, Maria Birjina, betiko
Aitaren Semea ekarri zenuena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,46-50.

Behin eta berriz entzuna diogu Jesusi zer den garrantzitsua, zer behin
betiko garrantzia duena. Gaur, bere doktrina betetzen ari da Jesus. Ez
zaizkio axola ezta bere ama eta senideak ere bere misioa hainbat, Jainkoaren
nahia egiten duena hainbat; horiek Jesusentzat bere ama eta senideak
baino handiago dira. Jesusek izugarri maite zuen bere ama; gurutzearen
oinetan ikusten dugu hori, bere azkenetan zegoela ere amaz arduratu zen
eta bere ikasle maiteari gomendatu zion. Baina badago zerbait hori baino
garrantzitsuagoa dena: misioa, Jainkoaren nahia.

[Makabearren 2. liburutik 7,1.20-31: Munduaren Egileak itzuliko dizkizue arnasa eta bizia. **Sal 16:** Esnatzean zure aurpegi-az naiz aseko, Jauna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,11-28.**

Aldi hartan, Jesusek beste parabola bat kontatu zion jendeari, Jerusalemetik hurbil baitzen eta jendeak Jainkoaren erreinua une batetik bestera azalduko zela uste baitzuen: «Handiki bat urrutiko lurralde batera joan zen, errege-izendapena hartzera, gero itzultzeko. Bere zerbitzarietako hamarri dei egin eta ontzako urre bana eman zien, esanez: “Ekin irabazian, ni itzuli bitartean”. Baina herritarrek gorroto zuten eta mandatariak bidali zituzten ondotik, esatera: “Ez dugu hori errege nahi”.

Errege-izendapena harturik itzuli zenean, deiarazi zituen dirua banatu zien morroiak, bakoitzak zer irabazi zuen jakiteko. Aurkeztu zen lehenengoa eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak hamar halako eman du”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi ona! Gauza gutxian leial izan zarenez gero, hartzazu hamar hiriren agintea”. Joan zen gero bigarrena eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak bost halako eman du”. Honi ere nagusiak esan zion: “Hartzazu bost hiriren agintea”. Joan zen beste bat eta esan zion: “Jauna, hemen duzu zeure ontzakoak; zapian bilduta eduki dut. Beldur nizun, gizon zorrotza zarelako, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen duzuna”. Nagusiak, orduan: “Zeure esanez kondenatzen zaitut, morroi gaizto hori! Bazekien gizon zorrotza naizena, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen dudana. Nolatan ez duzu, bada, nire dirua banakuan jarri? Horrela, itzultzean, bere interesekin jasoko nuen”.

Eta han zeudenei esan zien: "Ken iezaiozue ontzako, eta eman hamar dituenari". Haiek erantzun zioten: "Jauna, lehen ere badi-tu hamar ontzako". Eta nagusiak: "Hara nik esan: Fruitua dakar-rrenari eman egingo zaio; fruiturik ez dakarrenari, berriz, dau-kan apurra ere kendu egingo zaio. Eta errege nahi ez ninduten etsai horiek, ekarri hona eta hil itzazue nire aurrean"».

Hitz hauek esan ondoren, Jesusek Jerusalemera bidean gora jarraitu zuen denen aurretik.

Lukasen ebanjelioko gaurko parabola honek joan den igandeko Mateo-ren talentuen parabolaren antz handia du. Lukasen bukaera azpimarratu nahi dut: «Hau esanik, Jesusek Jerusalemera bidean gora jarraitu zuen de-nen aurretik»: Jerusalemera igotzea bere bizia eskaintzearen bidea du Je-susek. Gure aurretik doa hartua duen guztia eskaintzeko bidean. Gehienik hartu duena da bera, baita gehienik eskaini duena ere. Gure aurretik doa, eta, aurretik doalako, badakigu buru-eskaintza dela Bizirako bidea.

Urteko 33. astea.
Osteguna / Eguena.

San Klemente I.a, 4. *aita santua eta martiria.*

San Kolunbano, *abadea.*

Migel Agustin Pro, *dohatsua, apaiza eta martiria.*

[**Makabearren 1. liburutik 2,15-29:** Geure gurasoen elkar-goan iraungo dugu. **Sal 49:** Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,41-44.**

Aldi hartan, Jesus, Jerusalemera hurbildu eta hiria ikustean, negarrez hasi zen berarengatik, eta esan zuen: «Ai Jerusalem, ulertuko bazenu zuk ere gaur bakerako bidea! Baina ez zara gauza hori ikusteko. Etorriko zaizu, bai, zeure etsaiek lubakiz inguratu, setiatu eta alde guztietatik erasoko dizuten garaia; txikitu egingo zaituztete zeu eta zure bizilagunak; eta ez dizute harririk harri gainean utziko, Jainkoak eskaini dizun salbamen-aukera aintzat hartu ez duzulako».

«**E**san zion negarrez»... Jesusentzat ez da axola gabea bere herriaren zoria. Negar egin du, bere bihotz elkorrak hondamendira eramango duelako. Jesusen tristura ez da tristura nartzisista bat beraren deiei kasurik egin ez dietelako, baizik eta tristura gupidatsua da jendeagatik eta sufritu beharko duen atsekabeagatik. Gaurko ebanjelioa adi egoteko deia da gure tristuren arrazoia zein den eta arrazoi horren «garbitasuna» aztertzeko. Arrazoa ez da geure porrotak besteei egoztea, guztiaren erruduntzat besteak joz, baizik eta bereizmena egitea da kontua, zer gehiago egin genezakeen besteei laguntzeko.

Urteko 33. astea.**Ostirala / Barikua.**San Andres Dung-Lac, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*.

[Makabearren 1. liburutik 4,36-37.52-59: Aldare berriaren sagaratzeari ospatu zuten, eta poz handiz eskaini zituzten erre-opariak. **Sal: 1 Kronikak 29:** Goresten dugu, Jauna, zure izen aintzatsua.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,45-48.**

Aldi hartan, Jesus, tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen, esanez: «Liburu Santuak dio: "Nire etxea otoitz-etxe izango da". Zuek, ordea, lapur-zulo egina duzue».

Egunero tenpluan irakasten ari ohi zen. Apaizburuak, lege-*maisua* eta herriko handikiak Jesus hil nahian zebiltzan; baina ez zuten asmatzen zer egin, herri guztia aho zabalik baitzegoen hari entzuten.

Ebanjelio honetan giza gaitasun honetaz ohartarazten gaitu: gauzarik sakratuena ere gaiztotzeko gaitasuna dugula gizon-emakumeok, otoitz-leku den tenplua «lapur-zulo» bihurtzeko gaitasuna dugula. Ez da harritzekoa, horrela hitz egiteagatik «apaiz nagusiek, lege-*maisuek* eta herriko handiek Jesus garbitu nahi izana». Historia hau oso errepikatua eta egun-egungoa dela iruditzen zait, bi alderditatik: nola gauza sakratuak portaera duingabeez gaiztotzeari dagokionez, hala horrelako gauzak salatzen dituztenak «garbitu nahi» izateari dagokionez. Osasuntsu al dago kristau-elkartean Jesusen karisma profetikoa? Ez genuke batere kalterik galdera hori geure buruari egitearekin.

[Makabearren 1. liburutik 6,1-13: Jerusalemen egin nituen txarkeriengatik, atsekabe handiz hiltzen naiz. **Sal 9**: Poztuko naiz, Jauna, zure salbamenaz.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 20,27-40.**

Aldi hartan, saduzear batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla). Eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: "Norbaiti anaia ezkondua seme-alabarik gabe hiltzen bazaio, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko". Baziren, bada, zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena eta hirugarrena alargunarekin ezkondu ziren, eta zazpiak berdin. Eta denak seme-alabarik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?»

Jesusek erantzun zien: «Mundu honetan gizon-emakumeak ezkondu egiten dira; baina datorren munduan eta hildakoen piztueran parte hartzeko Jainkoak gai aurkituko dituenak, gizaseme nahiz emakume, ez dira ezkonduko; izan ere, ez daitezke hil, aingeruak bezala baitira eta Jainkoaren seme-alaba, piztueran parte dutenez gero. Gainera, hildakoak pizten direla Moisesek berak adierazten du, sutan zegoen sasiaren pasartean, Jaunari "Abrahamen Jainko, Isaaken Jainko eta Jakoben Jainko" deitzen dionean. Ez da hildakoen Jainko, biziena baizik, denak bizirik baitaude harentzat».

Orduan, lege-maisu batzuek esan zuten: «Maisu, ederki esan duzu». Eta ez ziren ausartzen beste galderarik egitera.

Jesusek agindu digun betiko bizia ez da oraingo bizitza honen luzapen bat, ezta oraingo bizitza honen bigarren edizio bat ere. Beste Bizi bat da, Jainkoaren Bizia, guri, gaurko ebanjelioko saduzearrei bezala, imajinaezina gertatzen zaiguna. Bizi hura da, Jainkoak bere maitasun mugagabeaz gutako bakoitzarentzat gordea duena. Arazoa ez da ahalegin bat egitea –aldeztik aurretik porroterako egina izango litzateke hori– atzeman ezin duguna imajinatzeko; askoz ere soilagoa da guztia: konfiantza izatea. Jainkoak gutaz duen maitasunean, heriotza baino indartsuagoa den horretan, konfiantza ipintzea.

§ Ezekiel Profetaren liburutik 34,11-12.15-17.

Hau dio Jainko Jaunak: «Ni neu egingo naiz artaldearen kargu, neu arduratuko hartaz. Artzaina, artaldea sakabanatu zaionean, ardiez arduratzen den bezala, halaxe arduratuko naiz Ni neure ardiez; egun ospel eta ilunean sakabanaturiko toki guztietatik aterako ditut.

Nik neuk larratuko ditut ardiak eta neuk harraraziko diet atsedean —dio Jainko Jaunak—. Ardi galdua bilatuko dut, desbi-deratua artaldera bilduko, hanka hautsia duenari lotuko, gaixoa indartuko; gizen eta indartsuak zaindu egingo ditut. Behar bezala larratuko ditut ardiak.

Zuei, ene ardiok, hau diotsuet nik, Jainko Jaunak: Neuk epaituko dut ardi batzuen eta besteen artean, aharien eta akerren artean».

[Sal 22: Jauna dut artzain ez naiz ezere beharrean.]

§ San Paulok 1. Korintoarrei 15,20-26.28.

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik guztiak itzuliko dira bizira. Baina, bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitu bezala; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok errege izan behar baitu, Jainkoak

etsai guztiak haren oin azpian ipini arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da.

Jainkoak gauza guztiak menpean jarriko dizkionean, Semea bera menpean jarriko zaio gauza guztiak menpean jarri zizkionari, eta Jainkoa guztietan guztia izango da.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,31-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semea —eta aingeru guztiak harekin— aintzaz beterik etortzean, bere errege-aulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak ahuntzetatik bereizten dituen bezala: ardiak bere eskuinaldean ipiniko ditu, eta ahuntzak ezker aldean.

Orduan, erregeak esango die bere eskuinekoei: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zineten”.

Orduan, zintzoek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik, eta eman genizun jaten, edota egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?”

Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: nire seniderik txikien hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten.” Gero, esango die ezkerrekoei: “Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetxean nengoen, eta ez zineten ni ikustera etorri”.

Haiek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goseak edota egarri, arrotz edota biluzik, gaixorik edota espetxean, eta guk lagundu ez?”

Hark erantzungo die: “Benetan diotsuet: txikien hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”.

Eta hauek betiko zigorrera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

Jesus, Unibertsoko erregea, eta, halakoa izanik, historiaren gainean eta historia bakoitzaren gainean behin betiko epaia emateko gai da. Gaurko ebanjelioak, nahasmendurik izan ez dadin, Erregeak bere auzian izango duen oinarritzko irizpidea adierazten du: maitasuna eta konpromisoa anai-arreba behartsuenekin.

Atentziona ematen digute irizpide horrek eta jarduera horrek, oso ohi-tuak baikaude ikustera mundu honetako boteretsuen irizpideak eta mundu honetako legeenak beste batzuk izaten direla. Legeak behartsuen aldeko lege direnean ere, letra hila izaten dira eta ez da ezer gertatzen, onurak pertsonaren gainetik jartzen baita. Beti izaten da lasterbiderik botere-tsuentzat...

Batzuen eta besteen harriduraren hondoan, jende onaren eta jende gaiztoaren harriduraren hondoan, Jainkoaz eta Jainkoak nahi duenaz irudi faltsu bat ezkutatu ohi da. Aski paganoa izango litzatekeen Jainko baten irudia, bere baitan itxia, nahi izango lukeen gauza bakarra berari begiratzea izango lukeena. Ez da Jesusen Jainkoaren irudia, ez da Hirutasun den Jainkoarena, honek gupidaz begiratzen baitio munduari eta «gizadia salbatzera» dei egin baitigu.

Urteko 34. astea.

Astelehena.

Andre Mariaren medaila mirarizkoa.
San Jakobo Pertiakoa, *martiria*.

[Daniel Profetaren liburutik 1,1-6.8-20: Ez zuen Daniel, Ananias, Misael eta Azarias bezalakorik aurkitu. **Sal: Daniel 3:** Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,1-4.**

Aldi hartan, begira zegoela, aberats batzuk ikusi zituen Jesusek tenpluko dirutegian limosna botatzen. Ikusi zuen emakume alargun behartsu bat ere bi txanpon botatzen. Eta esan zuen: «Benetan diotsuet: alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du. Izan ere, beste guztiek sobera dute netik egin dute limosna; honek, ordea, bere eskasian, bizitzeko zeukan guztia eman du».

Jesusek «ikusi zuen»... Bere begiratu adiarekin, bihotzetik jaioarekin, gehienei oharkabeko gertatzen zaiena ikusi du Jesusek: emakume alargun behartsu baten keinu goitarra. Eta guk, ikusten al dugu? Gure begiak gai al dira arretaz ikusteko gure mundu honetan gertatzen diren hainbat eta hainbat keinu borondatezko eta eskuzabal; «ikusten ez dutenentzat» oharkabeko izaten direnak? Ala komunikabideen begiratu azalekoen esklabo gara, eta haiek erakusten digutena bakarrik dugu ikusten? Landu beharra dugu, eta Jaunari eskatu beharra grazia edo laguntza, gure artean den hainbat ontasun ezkutuko «ikusten» jakiteko.

Urteko 34. astea.
Asteartea / Martitzena.

Santa Teodora, *abadesa*.
San Honesto Nîmeskoa, *apaiza*.
San Zernin, *gotzaina eta martiria*.

[Daniel Profetaren liburutik 2,31-45: Inoiz ezereztuko ez den erreinua eraikiko du Jainkoak, eta beste erreinuak sunsittuko ditu. **Sal: Daniel 3:** Goretsi eta goratu gizaldietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,5-11.

Aldi hartan, batzuk tenpluari buruz ari ziren, harri ederrez eta emaitzez apaindua zegoela aipatuz. Orduan, Jesusek esan zien: «Etorriko da, hor ikusten dituzuen horietatik guztietatik harririk harri gainean geldituko ez den garaia: dena sunsittuko dute».

Ikasleek galdetu zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? Eta zertan ezagutuko dugu gertatzera doala?»

Jesusek erantzun zien: «Kontuz, ez zaitzatela inork engaina! Asko etorriko dira nire izenean, "ni naiz Mesias" edo "gainean da garaia" esaten. Ez joan horrelakoen atzetik. Gerra- eta iraultza-hotsak entzutean, ez ikaratu, lehenbizi gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina ez dator berehala azkena».

Esan zien, gainera: «Nazioa nazioaren aurka eta erreinuaren erreinuaren aurka altxatuko dira; lurrikara handiak izango dira, eta izurrite eta goseteak han eta hemen. Gauza ikaragarriak gertatuko dira, eta seinale handiak agertuko zeruan».

«**E**z zaitzte izutu»: Jesusen deia behin eta berriz errepikatua ebanjelioan, beldurrik ez izateko deia. Alabaina, gaurko ebanjelioko gauza bitxia dei hori egin duen testuingurua da; zorigaitzen testuingurua da: gerralak, iraultzak, lurrikarak, epidemiak, goseteak... Horietako ezerk ez gaitu izutu behar, eta horietako ezerk ez digu eragin behar «zorigaitzen profeten»

ondoren joatera, onura propioa lortzeko edota beren ideiak ezartzeko zailtasun-egoerez baliatzen direnen ondoren joatera. Jesusen ebanjelioak ez dio uzten inoiz ere berri on izateari eta bere herria salbatzeko konprometitu den Jainkoa iragartzeari.

Urteko 34. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

San Zernin (Sazernin), *gotzaina eta martiria, Iruñeko zaindaria.*

Bernardo de Hoyos, *dohatsua, apaiza, jesuita.*

[Daniel Profetaren liburutik 5,1-6.13-14.16-17.23-28: Giza esku baten hatzak agertu ziren idazten. **Sal: Daniel 3:** Gorretsi eta goratu gizaldietan.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,12-19.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: Eskua erantsiko dizue te eta erasoko, sinagogetara eta karteletara eramango zaituzte, eta errege eta agintarien aurrera zuzenduko niregatik. Aitorren egiteko aukera emango dizue horrek guztiak. Hartu gogoan ez duzuela zeuen burua nola defendatuko kezkatan ibili beharrik: Neuk adieraziko dizuet zer eta nola esan, eta zuen etsaietako inork ez du zuei aurre ematerik edo erantzuterik izango.

Zeuen gurasoek eta senideek berek, ahaide eta adiskideek berek salduko zaituztete, eta zuetako zenbait hilko; guztiak gorroto izango zaituztete niregatik; baina ez duzue buruko ile bat ere galduko. Iraupenaren iraupenez lortuko duzue bizia».

«**N**igatik»: garrantzizkoa da hitz hau. Izan ere, berari eta beraren ebanjelioari leial izateagatik gerta dakizkigukeen pertsekuzioez eta zailtasunez mintzo da Jesus... eta ez beste arrazoi batzuenagatik etor dakizkigukeenez. Zeren eta gerta baitaiteke pertsekuzioak eta zailtasunak ez etortzea ebanjelioari leial izateagatik, baizik eta beste arrazoi batzuenagatik; are gehiago, ebanjelioaren aurkako jokabideengatik. «Biktimismoa» saihesteko deia egin digu gaur ebanjelioak, «biktimismoa» ikurtzat ez hartzeko deia. Biktimarena egitea sarritan izan ohi da eliz kargudunen artean era fin eta tentagarria nor bere baitan biltzeko eta mila aitzakia aireratzeko, norberaren hutsegiteak ez aitortzearren.

[Erromatarrei 10,9-18: Esanetik dator sinestea; mezua, berriz, Kristoren hitza da. Sal 18: Lur guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,18-22.

Aldi hartan, Jesusek, Galileako aintzira-bazterrean zehar zebilela, bi anaia, Simon, Pedro deitua, eta Andres, ikusi zituen, sarea urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, besterik gabe, sareak utzi eta jarraitu egin zioten. Aurrerago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpontzen. Eta dei egin zien. Haiek, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

Andres ebanjelioan, ia beti, Simonen anaia da, soil-soilik; bigarren ageri ohi da, beraren anaia Pedrori ematen zaion lehen postu nagusiaren ondoren. Santiago eta Joan Zebedeotar anaiak, gehienetan biak batean ageri ohi dira protagonista; ez da hori gertatzen Andresen kasuan. Honengan dei erakarle eta egungo bat ageri zaigu; adierazi nahi du, apostolu baten balioa ez dagoela hurrenkera zibil edo eliztarrean ematen zaion postuan, baizik eta beraren kalitatean ebanjelioaren lekuko gisa. Ebanjelioan, zeina hobeto hots egiten baita xume eta behartsu izanik, lehen mailak okupatetik baino.

ABENDUA / GABONILA



San Leontzio, *gotzaina*.
Edmundo Campion, Roberto Southwell, *apaizak*,
eta lagunak, *martiriak*.

[Daniel Profetaren liburutik 7,2-14: Gizonaren semea zirudien bat ikusi nuen, zeruetako hodeietan zetorrela. **Sal: Daniel 3: Goretsi eta ospatu gizaldietan.**]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,29-33.**

Aldi hartan, Jesusek irudi bat jarri zien ikasleei: «Begira pikondoari edo edozein zuhaitzi: kimu berritzen hasi direla ikusi eta, besterik gabe, badakizue uda hurbil dela. Era berean, gauza horiek gertatzen ikustean, jakizue hurbil dela Jainkoaren erreinua. Benetan diotsuet: gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza hauek guztiak. Zeru-lurrak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko».

«**P**ikondoa edo edozein zuhaitz: kimu berritzen hasten denean...»: seinale dira bizia jaiotzen ari dela; seinale, dio Jesusek, hurbil dela Jainkoaren Erreinua. Zein dira kimu horiek Elizan, Jesusen Lagundian, edozein kristau-elkartetan? Eskuzabal buru-eskaintza egiten duten pertsonak, ebanjelioagatik bizia ematen duten pertsonak, gaur ospatzen ditugun jesuita martiriak bezala: martiri hil ziren Ingalaterran XVI. mendean. Heriotza itxuraz antzua, munduaren begientzat haien pertsegitzailen eta borreroen garaipena, baina, egiaz, mundu berri baten hazi eta kimu. «Nire hitzak ez dira igaroko».

Urteko 34. astea.
Larunbata / Zapatua.

Santa Bibiana, *birjina eta martiria.*
San Viktorino, *martiria.*

[Daniel Profetaren liburutik 7,15-27: Erregetza, aginpidea eta handitasuna Goi-goikoaren santuen herriari emango zaizkio. **Sal: Daniel 3:**Goretsi eta ospatu gizaldietan.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,34-36.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zabiltzate kontuz! Ez bitez moteldu zuen bihotzak hordikeriaz, mozkorkeriaz eta bizitza honetako kezkaz, egun hura ustekabean gainera etor ez dakizuen, sarea bezala etorriko baita lurrean bizi diren guztien gainera. Beraz, egon erne eta egin otoitz une oro, etorri behar duten horiei guztiei ihes egin ahal izan diezaiezuen eta zutik egon ahal zaitezten Gizonaren Semearen aurrean».

«**E**z dakizuela moteldu gogoia bizioarekin, edariarekin eta bizitzako estutasunekin»... Gogoia moteltzen duten gauzen zerrenda soil eta egiazko bat egin du Jesusek. Pentsa genezake nola eguneratu zerrenda hori: zerk moteltzen dit neuri gogoia?, zerk kentzen dit neuri sentiberatasuna Jainkoaren presentziaren seinaleak bizitzan atzemateko edota inguruan dudan jendearen premiei eta sufrimenari antzemateko? Segur aski, gure zerrenda horretan izango da Jesusek esandako zerbait; agian partikularki «bizitzako estutasunak» direlako horietan

[Gaurko egun honekin A urtea bukatuko dugu.
Bihartik B urtea hasiko, Abendualdiko lehen igandearekin.]

[Ikus Xabierko Frantziskoren Meza beheraxeago]
§ Isaias Profetaren liburutik 63,16b-17; 64,1.3b-8.

Zu zara, Jauna, gure Aita,
«gure Erosle» duzu izena betidanik.
Zergatik utzi diguzu, Jauna,
zeure bideetatik alde egiten,
zure begirunerik ez izateraino
gure bihotzak gogortzen?
Itzul zakizkigu, zeure zerbitzariengatik,
zeure ondare aukeratu dituzun leinuengatik.
Ai, zeruak urratu eta jaitsiko bazina!
Zure aurrean mendiak urtuko lirateke.
Jaitsi zinen
eta mendiak urtu egin ziren zure aurrean.
Inoiz ez du ez belarrik aditu, ez begik ikusi,
zu beste Jainkorik
beragan itxaron dutenen alde horrela jokutzen duenik.
Zeu ateratzen zara,
pozik eta zuzen dabiltzanen
eta zure bideak gogoan dituztenen bila.
Haserre zeunden, bai,
bekatu egin genuelako,
aspaldidanik bekatari garelako,
baina salbatuko gara.
Guztiok kutsatuak geunden,
gure egintza onak ere zapi zikinen antzeko ziren;

orbelaren antzera ihartzen ginen guztiok,
eta gure bekatuek
haizeak bezala eramaten gintuzten.
Ez zion inork zure izenari dei egiten,
ez zen inor zurekin bat egiten ahalegintzen.
Zeure aurpegia gorde egin baitzenuen gugandik,
eta gure erruetan murgilduak utzi gintuzun.
Hala ere, Jauna, zeu zara gure Aita,
gu buztina, eta zu gure buztinlaria:
zure eskuetako lana gara guztiok.
Ez haserretu gehiegi, Jauna,
eta ez hartu gogoan betiko gure errua.
Begira, zure herri gara guztiok.

[Sal 79: Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zure begia leun ager ezazu.]

§ San Paulok 1. Korintoarrei 1,3-9.

Senideok: Grazia zuei eta bakea gure Aita Jainkoagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik. Jainkoari eskerrak ematen ari natzaio beti zuengatik, zuei Jesu Kristogan Jainkoak eman dizuen graziagatik. Izan ere, Kristogan aberastu zaituzte gauza guztietan: bai hitz, bai jakintza-dohain guztietan, Kristori buruz ematen dugun aitormena zuengan sendotu denez gero. Horrela, ez duzue dohainik batere falta Jesu Kristo gure Jaunaren agerraldiaren zain zaudetenok. Berak indartuko zaituzte azkena arte, inork zuen aurka zeresanik izan ez dezan Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera-egunean. Zintzoa da bere Seme Jesu Kristo gure Jaunarekin elkaturik bizitzera deitu zaituzten Jainkoa.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 13,33-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, zaudete erne, ez dakizue-eta garaia noiz den. Gizon bat urrutira joatean beza-

la da: etxea uztean, morroiei ematen die agintea, bakoitzari bere eginkizuna jarriz, eta atezainari erne egoteko agintzen dio.

Zaudete, beraz, erne; ez baitakizue etxeko nagusia noiz etorriko den: ilunabarrean, gauerdian, oilarrak jotzean nahiz egunsentian. Ez zaitzatela lotan aurki, ustekabea etorrita.

Zuei esaten dizuedan hau guztiei esaten diet: Zaudete erne!»

Abendualdiko lehen igandeko ebanjelio honek azti egoteko deia egin digu, eta arrazoi hau dakar horretako: «ez dakizue unea noiz izango den»... Esan liteke, oharpen hau ez dela guretzako, guk bai baitakigu noiz izango den unea: 24ko gauean... Aski genuke ordu batzuk lehenago nagiak ateratzea...

Ebanjelioa axaletik irakurtzea izango litzateke hori. Kontua ez da noiz izango den jakitea; gainera, ebanjelioaren arabera «azti egotea» ez da, besterik gabe, lo ez egotea. Zerbait gehiago da, askoz ere gehiago, inprobisatzen ez den zerbait. Jarrera egokiak indarrean jartzea da, salbatzera datorrigun Jesusi harrera egiteko eta haren etorrera salbatzaileak gudan bere ondorio guztiak izan ditzan. Horrek, Loiolako Ignazioaren hitzetan, «prest egotea» esan nahi du, banez adi-adi egotea, erdi lo dauden eta iratzarri errazak ez diren jarrerak indarrean ipintzea

Ekar dezagun gogora apaltasun-jarrera, salbazio-behara dugula pentsarazten diguna; ekar dezagun Jesusekin topo egiteko gogo sakona ere, saneatu gaitzan; eta konfiantza eta esperantza sakonak, etorriko dela bakarrik ez, baizik eta etorrera hori «nigatik» dela eta ni eraldatzeko gai dela... Ez, jarrera horiek ez dira indarrean ipintzen 24 ordutan.

Xabierko Frantzisko santuaren Meza

[Sofonias 3,9-10.14-20: Herriei ezpain garbiak emango dizkiet, denek Jaunari dei egin diezaioten. Sal 85: Egin dituzun atzerritar guztiak etorriko dira, Jauna, zu jaurestera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,16-20.

Aldi hartan hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek esandako mendira. Ikusi zutenean, gurtu zuten; batzuk, ordea, zalantzan zeuden. Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzairen: Ahalmen osoa eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz eta nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta ni zeuekin izango nauzue egunero munduaren azkena arte.

Ikasleak Erreinua hots egitera bidaltzearen inguruan Mateok aipatzen dituen inguruabarretan pobretasuna eta ahuldadea azpimarratzen dira: hamabi bakarrik dira –Jesus saldu duena beste batek ordezkutzen du– eta duda-mudaz gainezka ageri dira eta koloka. Halaz guztiz, horiek izango dira bidaliak, jende guztia Jesusen ikasle egitera. Horiengan konfiantza izaten jarraitzen du Jesusek, ez die kendu egindako deia, baietsi egin ditu orain apostolu bihurtuz. Bai albiste ona guretzat, hain zalantzatsu eta makal garenontzat: garen bezalako bidali gaitu.

[Isaias Profetaren liburutik 4,2-6: Edergarri izango da, bizirik gelditu diren israeldarrentzat. **Sal 121:** Bagoaz pozik Jau-naren etxera.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,5-11.**

Aldi hartan, Jesus Kafarnaum herrian sartu zelarik, erromatar ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarri eta oinazetan dago nire morroia etxean». Jesusek esan zion: «Joan eta neuk sendatuko dut».

Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor zu nire etxean sartzeko; baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere -neu besteren menpean egon arren- baditut neure mende gudamutilak, eta bati "hoa" esaten diot eta joan egiten da, beste bati "hator" eta etorri egiten da, eta nire morroiari "egik hau" eta han egiten du».

Hori entzunik, harritu egin zen Jesus eta ondoren zetozkionei esan zien: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrenbesteko sinesmenik. Eta hau diotsuet: Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian jarriko dira, Abraham, Isaak eta Jakobekin; erreinuaren oinordeko zirenak, berriaz, kanpoko ilunpeetara botako dituzte; han izango dira negarra eta hortz-karraska!»

Merezi du kontuan hartzea zenbat aldiz agertzen den ebanjelioaren le-
rrero hauetan «joan» aditza. Jesusek dio «ni banoa», ehuntariak nabar-
mendu du «joateko» agintzea aginpidearen seinalea dela eta bera ez dela
nor Jesusi ezer exijitzeko. Azkenik, ekialdetik eta mendebaldetik «etorriko»
direnez mintzo da Jesus. Gure bizitzara «etortze» horretan Jainkoarena da

ekimena; doako etorrera da; gutako inork ezin exijitu diogu Jainkoari etor dadin. Etorri datorren Jainkoari beraren doakotasuna eskertuz bizitzeak gaitu fededun egiten.

Abendualdiko 1. astea.
Asteartea / Martitzena.

Santa Krispina, *martiria*.
San Sabas, *abadea*.
San Mauro, *martiria*.

[Isaias Profetaren liburutik 11,1-10: Haren gainean Jaunaren Espiritua kokatuko da. Sal 71: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari beti.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,21-24.

Aldi hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Eta ikasleengana itzulirik, esan zien beraiei bakarrik: «Zorionekoak, zuek ikusten duzuen a ikusten duten begiak. Hara Nik esan: Profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen a, baina ez zuten ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen a, baina ez zuten entzun».

«**I**nork ez du ezagutzen Aita... bakarrik Semeak ezagutzera eman nahi dion hark»... Jainkoa benetan ezagutzea Semearekin topo eginez bakarrik lor daiteke, eta topaketa horretan agertzen digu Semeak Aita zer den. Gainerakoak ameskeriak dira, giza proiektzioak, teoria gutxi-asko politikak... Hona segidan burura datorkigun galdera: non gertatzen da Aita agertzen digun Semearekiko topaketa hori? Ausartzen naiz seinalatzer a topaketa horretarako hiru leku lehenetsiak: otoitz pertsonal sakona, Elizan anai-arrebekin elkartasuna, behartsuenak direnekin solidaritatea.

[Isaias Profetaren liburutik 25,6-10a: Jai-otordua eman-go die Jaunak herri guztiei eta xukatuko ditu aurpegi guztietako negar malkoak. Sal 22: Jaunaren etxean biziko naiz mendez mende.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15,29-37.**

Aldi hartan, Galileako itsasbazterrera joan zen Jesus, mendira igo eta han eseri zen. Jende asko hurbildu zitzaion, herren, itsu, besamotz, mutu eta bestelako gaixo asko eramanez; oinetan jartzen zizkieten eta hark sendatu egiten zituen. Jendea harritua gelditu zen ikusten zuenaz: mutuak hizketan, besamotzak sendatuak, herrenak ibiltzen eta itsuak ikusten. Eta Israelen Jainkoa goresten hasi ziren.

Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badarama hiru egun nirekin eta ez du jatekorik. Ez ditut baraurik bidali nahi, bidean akitu ez daitezen».

Ikasleek esan zioten: «Nondik atera guk basamortu honetan horrenbeste jende asetzeko lain ogi?» Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue?» Haiek erantzun: «Zazpi, eta arraintxo bakar batzuk».

Lurrean esertzeko agindu zion jendeari; gero, hartu zituen zazpi ogiak eta arrainak eta, esker-otoitza egin ondoren, zatitu zituen eta bere ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Jan zuten denek ase arte, eta gelditutako hondarrekin zazpi saski bete bildu zituzten.

A bendualdia entzuteko aldia da eta Jainkoaren promesak hunki gaitzan uztekoa. Promesa, atzokoa eta gaurkoa; gupida-promesa orobat giza-diaren premia eta sufrimendu oinarritzkoentzat: gaixotasuna, gosea... Eta

aurtengo abendualdi honetan galdezka jarraitzen du Jainkoaren promesak: «zenbat ogi dituzue?» Promesa: ezkututzen uzten ez diguna, ezta babesten ere geure mugapenaren edo ezinaren atzean, ezta zuribide bat bilatzen ere aurre egin beharreko erronkak handi-mandi direla-eta. Aita Arrupek esaten zuena: «ezer gutxi da egin dezakeguna; baina egin dezakegun apurra, osorik egiten al dugu?»

[Isaias Profetaren liburutik 26,1-6: Sar bedi herri zintzoa eta leiala. Sal 117: Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,21.24-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski niri "Jauna, Jauna" esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hauxe da beharrezkoa: zeruan dagoen nire Aitaren nahia egitea.

Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen.

Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari, eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu».

«**E**ntzun eta bete». Mugimendu bikoitza da, zeinetatik ezin baita kendu alde bietatik bat. Lehenik entzun egin behar da, hau da, ez eman betekoa betekotzat, baizik eta irekirik bizi Jainkoaren hitz berriari. Bigarren, bete egin behar da: saiatu erantzun bat ematen Jainkoaren hitzari bizitzako, nire bizitzako, gorabehera zehatzetan. San Ignaziok mugimendu bikoitz hori bi hitzez, hauek ere ezin bereziak, adierazten zuen: «bereizi» eta «hautatu», hau da, bereizi erabakiak hartzeko, eta erabakirik ez hartu bereizmena egin gabe. Hori da arroka gainean eraikitzea.

§ Hasiera liburutik 3,9-15.20.

Jainko Jaunak, gizonari dei egin eta esan zion: "Non zara?" Eta hark erantzun: "Baratzean ibiltzen sumatu zaitut eta, larru-gorri nengoela, beldurrez, gorde egin naiz". Jaunak orduan: "Eta nork esan dizu larru-gorri zeundela? Jatea galarazi nizun zuhaitzetik jan al duzu?" Gizonak erantzun: "Lagun ipini didazun emakumeak eman dit hartatik, eta nik jan". Orduan Jainko Jaunak esan zion emakumeari: "Zer egin duzu?" Emakumeak erantzun: "Sugeak atzipetu nau, eta nik jan". Orduan Jainko Jaunak sugeari esan zion: "Hori egin duzulako, madarikatua izango zara abere guztien eta landako piztia guztien artean; sabel-gainean ibiliko zara arrastaka; zure bizitzako egun guztietan hautsa jango duzu. Haserrea sortuko dut zure eta emakumearen artean, zure jatorriaren eta harenaren artean; honek buruan emango dizu, zuk orpotik helduko diozunean".

[Sal 97: Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.]

§ San Paulok Efesoarrei 1,3-6.11-12.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, Espirituaren era guztietako bedeinkapenez, zeruan Kristorengan bedeinkatu gaituena. Harengan aukeratu baikintuen, mundua sortu baino lehen, bere aurrean, maitasunez, santu eta errugabe izan gaitezen. Aurrez aukeratu gintuen bere semeorde izateko, Jesu Kristoren bidez, bere nahiaren onberatasunez; bere seme maitearengan hain ugari eman digun graziaren aintzak bera gorespenez bete dezan. Kristorengan oinordeko gertatu gara geu ere; horretara deituak izan gara, gauza guztiak

berak nahi bezala egiten dituenaren erabakiz. Eta Kristogan uste on izan genuenok, Jainkoaren aintzaren gorespen izango gara.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret deritzan Galileako herri batera, birjina batengana; Daviden etxeko Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen birjina, eta Maria zuen izena. Aingeruak, haren etxean sarturik, esan zion: «Poztu zaituzte, graziaz bete hori: Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria, hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak, orduan: «Ez izan beldurrik, Maria; Jainkoaren ederra aurkitu duzu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta "Jesus" ezarriko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak haren aita Daviden errege aulkia emango dio; Jakoben etxean errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak orduan aingeruari: «Nola izan daiteke hori? Nik ez baitut ezagutzen gizonik». Eta aingeruak: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana, eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko den Santuari, Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, zure ahaide Elisabet ere, bere zaharrear, haurdun dago, eta agorra omen zena seigarren hilabeteko dago; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak orduan: «Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekik, zuk diozun bezala». Orduan aingeruak utzi egin zuen.

Andre Maria Sortzez Garbiaren jaiko hitzaren liturgian, hasteko, lehenengo eta bigarren irakurgaien kontrasteak ematen du atentzioa. Lehenengo giza zoriak huts egin izanaz mintzo da; bigarrena, aldiz, aintzazko zoriaz mintzo zaigu. Erabateko aldaketa norabidean.

Zerk egin du posible hain errotikoa den norabide-aldaketa hori? Ibilbide horren aldaketa-puntuan Iragarpenaren ebanjelio-kontakizuna dator.

Horretan, bat etorri dira Jainkoaren gogo salbatzailea eta Mariaren pres-tasun xumea. Handiosa eta xumea. San Ignazio bi eszenatokiz mintzo da: batetik, «errege-tronua eta Jainkoaren handitasunaren tronua»; bestetik, Nazareteko Andre Mariaren etxea eta gelak».

Jainkoa eta gizakia beste behin, baina beste era batean. Batetik, Jain-koa; bestetik, gizakia, bere sorkari-izaera onartzen duen gizakia, «Jainkoa-ren mailako den» usterik ez duen gizakia. Mariak Jainkoarekin harremanak izateko era bat erakutsi digu, Adamek eta Evak izan zutenaren bestelakoa, hondamendira eramán zituenaren bestelakoa. Harreman-modu bat: en-tzuteari irekia, galdera egiten garbitasuna, erantzunean prestasuna. Zer-bait xumea, sorkari garela jakitea, sorkari garela aitortzea, sorkari bezala jokatzeta.

Abendualdiko 1. astea.
Larunbata / Zapatua.

Santa Leokadia Toledokoa, *martiria*
San Joan Diego Cuauhtlatoatzin (*Mexikon, Guadalupeko Amaren ikuslea*).

[Isaias Profetaren liburutik 30,19-21.23-26: Errukituko zaizu Jauna zure deiaren hotsera. Sal 146: Zorionekoak Jainkoa esperantza dutenak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 35-10,1.6-8.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekatua eta lur joa baitzegoen, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara».

Eta hamabi ikasleei dei egin eta ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hamabiok bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Zoazte galduak dabiltzan Israel herriko ardieta. Eta bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hilak, garbitu lepradunak, bota deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean».

«**D**oan hartu duzue, eman doan»: ezer esango ez balu bezala... Zeren, zer hartu dugu doan? Den-dena edo, gutxienez, bizitzako funtsezkoena: bizia bera, bizi hori eragin eta zaindu duen maitasuna, fedea, biziaren zentzua eta bokazioa... Ba, «den-dena» bada hartua duguna, «den-dena» dugu doan eman beharrekoa. Nori eman? Uztaren Jaunari, aurrez den-dena eman digunari... «Torizu, Jauna, eta har eza-zu... Zuk emana dut... Den-dena da zurea»... Eskaintza hori da saneatzeko, askatzeko, bizia itzultzeko... gaitasuna ematen diguna.

§ **Isaias Profetaren liburutik 40,1-5.9-11.**

«Kontsola ezazue, kontsolatu nire herria.
Mintza bihotzera Jerusalem, egiozue oihu:
betea duela bere morroi-aldia,
ordaindua bere erruen zorra,
Jaunaren eskutik hartua baitu
bere bekatu guztien ordain bete».

Mintzo bat ari da oihuka:

«Prestatu basamortuan bidea Jaunari;
zelaitu eremuan galtzada gure Jainkoari.
Bete daitezela haranak,
beheratu mendi eta muinoak;
berdindu daitezela malkarrak,
zelaitu lur-maldak.

Orduan Jaunaren aintza agertuko da,
eta gizaki guztiek batera ikusiko dute.
Jaunak berak esan du».

Igo mendi-gailurrera, Siongo mezularia;
egin deiadar handi, Jerusalemeko mezularia;
egin deiadar, ez izan beldurrik.

Esan Judako hiriei:

«Hona hemen zuen Jainkoa.

Hara, indarrez jantzia dator Jainko Jauna
eta haren besoa nagusi da.

Hara, berekin dakar garaipen-agiria
eta bere aurretik berak askaturiko herria.

Artzainak bezala zaintzen du artaldea:

arkumeak besoan hartu
eta altzoan eramaten ditu,
eta ardi-ama berriak arretaz gidatzen».

[Sal 84: Jauna, zure onginahia erakutsiezaguzu, zure salbamenaren emaguzuz.]

§ San Pedroren 2. gutunetik 3,8-14.

Ene maiteok: Zuek ez duzue hau ahaztu behar: Jaunarentzat egun bat mila urte bezala dela, eta mila urte egun bat bezala. Jauna ez da berankorra agintzaria betetzen, batzuek hala uste badute ere; baizik eta pazientzia du zuekin, ez baitu inor galtzea nahi, guztiok bihotz-berritzea baizik. Jaunaren eguna, ordea, lapurra bezala ustekabea etorriko da. Orduan, burrunba handi desagertuko dira zeruak, luraren osagaiak kiskalirik ezereztuko dira, eta lurra eta bertako gauza guztiak agerian geldituko.

Gauza hauek guztiak honela ezereztu beharrekoak direnez gero, begira zeinen santu eta jainkozale izan behar duen zuen bizitzak!

Bizi zaitzete, beraz, Jainkoa etorriko den egunaren zain, eta egin lan lehenbailehen hel dadin. Egund hartan, sutan desegingo dira zeruak eta luraren osagaiak kiskalirik ezereztuko. Guk, ordea, Jaunak agindu bezala, zuzentasunaren bizileku diren zeru berriak eta lur berria itxaroten ditugu.

Beraz, maite-maiteok, hauek itxaroten dituzuela, ahalegin zaitzete Jainkoarekin bakean bizitzen, garbi eta errurik gabe haren aurrean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,1-8.

Mesias eta Jainkoaren Seme den Jesusen Berri Onaren hasiera. Isaias profetaren liburuan honela dago idatzia:

«Begira, neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik, zuri bidea prestatzera.

Mintzo bat oihuka ari da basamortuan:

“Prestatu bidea Jaunari,
zuzendu bidexkak hari”».

Hala agertu zen Joan basamortuan, bataiatzen eta bihotz-berritzeko bataioa hots egiten, bekatuen barkamenerako. Judea osotik eta Jerusalemetik harengana joaten zen jende guztia, eta, beren bekatuak aitorturik, Joaneke bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.

Joan gamelu-larraz jantzia zegoen, eta gerrian larrazko uhala; matxinsaltoak eta basaeztia zituen janari. Eta honela hots egiten zuen: «Nire ondoren dator ni baino ahaltzuagoa dena, eta ni ez naiz inor makurtu eta haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; hark, ordea, Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte».

Joan ez da Jesus, ezta haren predikua ere Jesusena: beste ukitu batzuk ditu, beste dei batzuk... Joan oso oharturik dago bere lekuaz, bere eginkizunaz, bere zereginaz, Jesusen berri onarekin duen zerikusiaz. Joanentzat, «ni baino handiagoa dena da» Jesus; «ez dut merezi haren aurrean belaunikatu eta haren sandaliak askatzea», «nik urez bataiatu zaituztet, hark Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte». Bere protagonismo-ezaz, Jesusekiko bere erlazioaz duen usteagatik merezi du Joaneke postu nabarmen bat ebanjelioan.

Joanengan bertute hauek dira nabarmen: bere jatortasuna, bere adorea eta apaltasuna, bere protagonismo-eza, bere atxikipen-eza Jesus «etortzekoa delakotzat» emanaz. Beste modu batean esanik, bere jatortasuna, bere adorea, jendea erakartzeko duen ahaltasuna, bere lidergoa edo bere ospe morala (lege-maisuek eta fariseuek bere aitortua) ez ditu ipintzen bere zerbitzura, baizik Jesusen zerbitzura.

Uste dut, hau duela Joaneke alderdi bereziki nabarmena guretzat, hain protagonismo zale, hain ospe zale, geure jarraitzaileak izateko, aintzat hartuak izateko hain zale garenontzat... Gauza guztietan gu geu ni-ni-ni dugu helburu ala Jesus?

[Isaias Profetaren liburutik 35,1-10: Jainkoa bera etorriko da eta salbatuko zaituzte. **Sal 84**: Badator gure Jainkoa eta salbatuko gaitu.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,17-26.**

Aldi hartan, Jesus irakasten ari zen. Han zeuden eseriak Galilea eta Judeako auzo guztietatik eta Jerusalemetik etorritako fariseu eta lege-maisu batzuk. Eta Jaunaren indarrak gaixoak sendatzera eragiten zion.

Hartan, etorri ziren gizon batzuk elbarri bat ohatilan zekartela eta barrura sartu nahi zuten, Jesusen aurrean ipintzeko. Baina jendetzagatik ez baitzuten aurkitzen nondik sartu, etxe gainera igo eta, teilak kendurik, ohatila eta guzti eraitsi zuten erdira, Jesusen aurrera. Haien sinesmena ikusirik, Jesusek esan zuen: «Gizona, barkatuak dituzu bekatuak!»

Lege-maisu eta fariseuek zioten beren baitan: «Nor dugu biraoka ari den hau? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak besterik?».

Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zer burutapen darabilzue zeuen baitan? Zer da errazago esaten: "Barkatuak dituzu bekatuak" ala "Jaiki eta zabilta?" Hara, bada, orain ikusiko duzue Gizonaren Semeak baduela lurlean, bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: "Zuri diotsut: Jaiki zaitez, hartu ohatila eta zoaz etxera"». Jaiki zen hura berehala denen aurrean, hartu zuen etzanik zegoeneko ohatila eta etxera joan zen, Jainkoa goretsiz.

Guztiak harriturik gelditu ziren eta Jainkoa gorensten zuten. Eta, beldurrez beterik, honela zioten: «Harritzekoak ikusi ditugu gaur».

Jesusen misioak eta mezuak giza bihotzaren txokorik hondoena dute xede: bekatua barkatzea, hautsia den Jainkoaren eta gizaki bekata-riaren arteko harremana saneatzea. Horixe da Jesusek egin eta hots egin duen lehenengo gauza elbarri horren eta berorren adiskideen aurrean. Horrek ez du baztertu, ordea, gorputza sendatzea; hain zuzen, gizon hari bere gaixotasuna eta makaltasuna sendatu dizkioten hitze-kin eta egintzeekin batean egin du dena; «gizonaren Semeak bekatuak barkatzeko ahalmena duela» agertzeko. Ez dago alor salbuetsirik, Je- susen izenean Jainkoaren egitasmo salbatzailea gauzatu nahi denean.

San Justino, *martiria*.

Santa Amalia, *martiria*.

Andre Maria Guadalupekoa, Mexikon.

[Isaias Profetaren liburutik 40,1-11: Jainkoak poztu egiten du bere herria. **Sal 95:** Badator Jainkoa indarrez beteta.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,12-14.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu –benetan diotsuet–, gehiago poztzen da bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino.

Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

Jesusek ikasleei Jainkoaren jarduera-eredutzat («gauza bera zeruko zuen Aitak») planteatzen diena, geure ikusmoldetik irakurtzen badugu, zorakeria hutsa da: batetik, bat; bestetik, laurogeita hemeretzi. Guk kalkuluak egitera jo eta pentsatuko genuke ehuneko baten galera eroangarria dela; laurogeita hemeretziak mendian bakarrik uztea arrisku handia hartzea izango litzatekeela, bat bakarria salbatzeagatik. Jainkoaren kalkuluak bestelakoak dira; haren estatistikak ez dira gureak; ehuneko logika gure logika baztertzaila da (guztia... ehuneko bat); baina gure hori ez da Jainkoaren logika barne hartzaile eta errukitsua.

Abendualdiko 2. astea.

Asteazkena / Eguaztena.

Santa Luzia, *birjina eta martiria*.

San Eugenio, *martiria*.

[Isaias Profetaren liburutik 40,25-31: Jainko ahalguztidunak ematen dio nekatuari adore. Sal 102: Ene arima gorets ezazu Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedeen. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Zenbat bider bizi izan dugun Jesusi jarraitzea zama gehitu bezala eta bizitzako itomenei gehitutako itomen bezala! Gaurko ebanjelioko Jesusen hitz hauen argitan bada okerren bat, Jaunari jarraitzea horrela ikusten eta bizi dugunean. Inondik ere, jarraipen hori arnasten duen horretan dago problema horren sustraia; izan ere, bizitzan gauzek zama handiago edo txikiagoa ukaitea, itomen handiago edo txikiagoa izatea, ez datza hainbeste beraien edukian, baizik aurre egiteko orduan ipintzen dugun espirituan eta animoan. Eskerrona al da gure segimeneren motorra?

[Isaias Profetaren liburutik 41,13-20: Ni neu nauzu lagun, Israelgo Santua. **Sal 144:** Jauna gupidatsua eta errukiorra da, haserretzeko berankorra eta onginihi handikoa.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,11-15.**

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Egi-egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik Joan Bataiatzailea baino handiagorik. Hala ere, zeruetako erreinuan txikiena hura baino handiago da.

Joan Bataiatzailea agertu zen egunetatik gaurdaino, zeruetako erreinua indarrez hartzen da, eta indar egiten dutenek eskuratzen dute. Profeta guztien eta Moisesen agintzarien garaia Joan Bataiatzailearekin bukatzen da. Joan hau da etortzekoa zen Elias, nahi baduzue onartu. Belarririk duenak entzun beza».

Bai handia dela Joan, profetarik handiena Jesus etorri aurretik, eta bai txikia dela Joan, Zeruetako Erreinuko txikiena baino txikiagoa! Paradoxa honekin, Joani dagokionez samurtasunez eta miresmenez betea, baina aldi berria iragartzean profetikoa eta errotikoa den honekin aurkeztu du Jesusek berak ezarri nahi duen berritasuna. Era berean, berritasuna eta salbazio-promesa adierazten ditu Jesusek aldi guztietako handiusteko profeten eta salbatzaileen aurrez aurre. Entzun dezagun: ez dezagun utzi itxurak eta sasi-promesek engaina gaitzaten. Merezi du «ahalegintzea», Jesusen bidea hautatzea bizirako bidetzat.

[Isaias Profetaren liburutik 48,17-19: Nire aginduak aintzatzat hartu bazenitu. **Sal 1**: Zure ondoren dabilenak izango du bizirako argia.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,16-19.**

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Noren antzeko dela esango nuke gizaldi hau? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da; honela oihu egiten baitiete batzuek besteei:

“Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez;

hiletak jo, eta zuek aienerik ez”.

Izan ere, etorri zen Joan Bataiatzailea, ez jan eta ez edan egiten ez zuela, eta deabruak harturik dagoela diote. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta honela diote: “A zer tripazaina eta mozkorra, zerga-biltzaileen eta bekatarien adiskidea”. Baina egiteek Jainkoaren jakinduriari eman diote arrazoi».

Beti izaten da aitzakiarik... Beti izaten dugu aitzakiarik bete nahi ez duguna ez betetzeko, eta nekoso iruditzen zaigunarekin konpromisorik ez hartzeko... Jesusek salatua du bere garaian jarrera hau: ez Joan ez jaten eta ez edaten ez duelako, ez Jesus jaten eta edaten duelako... Indarrean da gaur egun ere jarrera hori: ez batzuekin erradikal eta mutur-muturreko direlako –gauzak hanpatzen mundialak–, ez besteekin, beren mezua bizitzaz kanpokoa eta etereoa dutelako... Azken batean, neurea egitea da arazoa inorekin gaizki jarri gabe... Nire irudia eta nire erosotasuna dira axola duena...

[Ben Siraken liburutik 48,1-4.9-11: Berriz etorriko da Elias.
Sal 79: Jainko, birbiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17,10-13.

Menditik jaistean, galdetu zioten ikasleek Jesusi: «Nola diote lege-maisuek, lehenbizi Eliasek etorri behar duela?»

Jesusek erantzun zien: «Bai, Eliasek etorri behar zuen eta gauza guztiak eraberritu. Baina hara Nik esan: Elias etorria da, eta ez dute aintzat hartu, baizik eta nahi izan duten guztia egin diote. Era berean, Gizonaren Semeak ere oinazeak jasango ditu horiengandik». Orduan konturatu ziren Joan Bataiatzaileaz ari zitzaiaela.

Gaurko ebanjelioa atzokoaren haritik doa: ez da ikusten ikusi nahi ez denean. Aurreratuz doa, Abendualdian jada, datorren Mesiasi harrerarik egin nahi ez izatea... beste zerbait espero baikenuen, beste uste batzuk genituen guk. Gauza bitxia da: hainbeste denbora Mesias noiz etorriko, eta etorri denean ez hartu nahi aintzat. Bitxia eta tragikoa. Hori gertatzen bada, doakotasunik ez dagoelako da, begiak garbi ez direlako: errealitatea geure ustekizunen arabera izatea nahi dugu, eta ez dugu onartzen errealitateak gure ustekizunak koloka ipintzea. Begiak irekitzearekin batera, bihotza ere ireki behar da...

Abendualdiko 3. astea.

Igandea / Domeka.

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak),
martiriak.

San Juan de Mata, *apaiza.*

San Jose Manyanet.

§ Isaias Profetaren liburutik 61,1-2a.10-11.

Jaunaren Espiritua nire gainean dago,

Jaunak gantzutu bainau.

Berak bidali nau behartsuei Berri Ona ematera,

bihotz-urratuak sendatzera,

gatibuei amnistia hots egitera

eta giltzapetuei askatasuna;

Jaunaren grazi urtea hots egitera.

Pozaren pozez nago Jaunarekin,

nire arima Jainkoarekin alai dut,

salbamenaz jantzi bainau,

garaipen-soinekoz estali,

koroa janzten duen senargaia bezala,

edergailuz apaintzen den andregaia bezala.

Lurrak landarea ematen

eta baratzeak hazia ernearazten duen bezala,

hala ernearaziko ditu Jaunak zuzenbidea eta gorespena

nazio guztien aurrean.

[Sal: Lukas 1: Nire arima Jainkoarekin alai dut.]

§ San Paulok 1 Tesalonikarrei 5,16-24.

Senideok: Zaudete beti pozik. Egin otoitz aspertu gabe;
eman eskerrak beti, horixe nahi baitu zuentzat Jainkoak Kris-
to Jesusengan. Ez itzali Espiritua, ez gutxietsi profeta-dohainik.

Aztertu guztia eta hartu on dena. Zaindu zeuen buruak nolana-
nahiko gaiztakeriatik.

Bakea ematen duen Jainkoak berak egin zaitzatela oso-oso-
sorik santu, eta zuen izate osoak --espiritu, arima eta gorputz--
errugabe iraun dezala, Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera arte.
Leiala da dei egin dizuena, eta beteko du emandako hitza.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,6-8.19-28.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen: argiaren aitormena egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Bera ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

Hau da Joan Bataiatzaileak egin zuen aitormena, juduek Jerusalemetik apaizak eta levitarrak bera nor zen galdetzerabidali zizkiotenean.

Joanek argi eta garbi aitortu zuen: «Ni ez naiz Mesias». Haiek galdetu zioten: «Nor zara, bada? Elias zara?» Joanek erantzun: «Ez». Haiek, orduan: «Etortzekoa den profeta al zara?» Eta hark: «Ez». Orduan, esan zioten: «Nor zara, bada? Bidali gaituztenei erantzuna eman behar diegu. Zer diozu zeure buruaz?» Joanek, orduan: «Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: "Zuzendu bidea Jaunarentzat", Isaias profetak esan zuen bezala».

Bidalitako haietan batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara Mesias, ez Elias, ez etortzekoa den Profeta?» Joanek erantzun zien: «Nik urez bataiatzen dut. Zeuen artean baduzue, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, nire ondoren datorrena; eta ni ez naiz inor beraren oinetakoen lokarriak askatzeko ere».

Hau guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiatz bestaldean, han ari baitzen Joan bataiatzen.

Gaurko ebanjelioak kontenplaziorako, erdi-erdian, Joan Bataiatzailearen irudi zirraragarria ipini digu, eta Joan ebanjelariaren testu honek maisuki laburbildu ditu haren tasunak eta esanahia. Sarrera handios eta eder honekin hasi da: «Sortu zen gizon bat Jainkoak bidalia, Joan zuen izena». Jainkoak bidalia: Joanen beraren eta haren egintza-ren hondoan Jainkoaren asmoa dago.

«Argiaren lekukoa»: balioaz beteriko ezaugarria da hori, argiari hain inportantzia handia ematen dion eta Jesus «munduaren argi» bezala definitzen duen Joanena bezalako ebanjelio batean. Argiaren testigu denez, Jesus den argirantz doan bidea argitzen du Joanek.

«Basamortuan deiadar egiten duen ahotsa»: bai zaila dela basamortuan oihu egitea, basamortuan hitz egitea! Hots egitea, ematen duenean inork ez digula entzuten, ez jaramonik egiten; norbait datorrela iragartzea, ematen duenean ez dagoela inolako biderik; ahots izatea, esperantzari eusten diona beti lehor den basamortu-aldiko garaian.

«Jainkoak bidalia», «argiaren lekukoa», «basamortuan oihu egiten duen ahotsa»: hori guztia da Joan. Oso jakitun, zer ez denaz, baina oso argi zer denaz.

[**Jeremias Profetaren liburutik 23,5-8:** Legezko muskila sortu diot Davidi. **Sal 71:** Haren egunetan loratu beti justizia, ugaldu beti bakea.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,18-24.**

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemanan zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez izan beldurrik Maria, zeure emaztea, etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk "Jesus" ezarriko diozu izena, berak salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen:

«Begira, birjinak sabelean sortu
eta semea izango du,
eta Emmanuel ezarriko diote izena»
(Emmanuel izenak "Jainkoa gurekin" esan nahi du).

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

Josez oso gutxi hitz egiten digute ebanjelioek; gaurko ebanjelioa gehiena esaten digutenetakoa da. Hau diosku funtsean: Jose gizon ona zela, hitzaren esanahi sakonenean. Ona: ez duelako egin nahi Ma-

riari kalte egiten ahal dion ezer ere eta Jainkoaren hitzari erabat leial zaiolako. Ebanjelio honetan sakonera jotzen badugu, jabetu gara Joseri ez zitzaiola gertatuko batere erraza on izate hori: bere buruaz ahaztea eskatu baitzion. Horixe da benetako ontasuna: Jainkoaren eta besteen maitasunagatik nork bere buruari uko egitea.

Abendualdiko 3. astea.
Asteartea / Martitzena.

San Dario, *martiria*.

Santa Protasia, *birjina*.

San Urbano V.a, *200. aita santua*.

San Anastasio I.a, *aita santua*.

[Epaileak 13,2-7.24-25a: Aingeruak Samsonen jaiotza iragartzen du. **Sal 70:** Ahoa betea neukan zurekiko gorespenez, egun osoan zurekiko ederpenez.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,5-25.

Judeako Herodes erregearen egunetan, bazen Zakarias izeneko apaiz bat, Abiaren sailekoa; Elisabet zuen emazte, Aaronen ondorengo. Biak zintzoak ziren Jainkoaren aurrean; hutsegiterik gabe bizi ziren Jaunaren lege eta agindu guztietan. Ez zuten haurrik, agorra baitzen Elisabet, eta biak urteetan aurreratuak. Zakarias, bere sailekoekin, Jainkoaren aurrean zerbitzu egiten ari zela, Jaunaren santutegian sartzea egokitu zitzaion, apaiz legeak agintzen zuen eran, intsentsua eskaintzera. Intsentsua eskaintzerakoan herri osoa otoitzean ari zen atarian. Eta Jaunaren aingerua agertu zitzaion, zutik, intsentsu-aldarearen eskuinean. Hura ikustean, izutu zen Zakarias, eta beldurrak hartu zuen. Aingeruak esan zion: «Ez izan beldurrik, Zakarias: entzuna izan da zure eskaria; zure emazte Elisabetek semea emango dizu, eta zuk "Joan" ezarriko diozu izena. Poz handia izango da zuretzat, eta haren jaiotzak jende asko poztuko du, handia izango baita Jaunaren aurrean; ez du edango ardorik, ez edari bizirik; gainera Espiritu Santuaz beteko da, amaren sabelean berean, eta israeldar asko bihurtuko da Jaunagana, bere Jainkoagana; Jaunaren aurretik ibiliko da, Eliasen espirituz eta indarrez, gurasoak seme-alabekin adis-

kidetzen, bihurriei zintzoen sena ematen eta Jaunarentzat herri egokia prestatzen». Zakariasek esan zion aingeruari: «Nola jakin dezaket hori gertatuko dela? Ni zaharra bainaiz, eta nire emaztea ere urteetan aurreratua». Aingeruak erantzun zion: «Ni Gabriel naiz, Jainkoaren aurrean zerbitzari nagoena; berak bidali nau zuri hitz egitera, berri on hau emateko. Baina begira, mutu geldituko zara, hitzik egin ezinik, hauek gertatu artean, ez baitituzu sinetsi nire hitzak, bere garaian bete behar dutenak». Bitartean, herria Zakariasen zain zegoen, harriturik, santutegian hainbeste luzatzen zuelako. Atera zenean, ezin zien hitzik egin, eta ohartu ziren ikuskariren bat izan zuela santutegian. Bera keinuka ari zitzaien, mutu jarraitzen baitzuen. Tenpluko bere zerbitzu-egunak bukatuta, etxera joan zen. Egun batzuen buruan, haren emazte Elisabet haurdun gelditu zen; bost hilabetez etxetik atera gabe egon zen, eta bere baitarako zioen: «Hara zer egin duen Jaunak nire alde, jendearen aurrean nuen lotsa kendu nahi izan duenean».

Ezinbestean, baina ez halabeharrez, Joanen jaiotzari dagokion «iragarpn» honek Mariari Jesusen jaiotza xehetasun askoz iragarri izana dakarkigu burura. Bada, ordea, alde deigarri bat; hari erreparatu nahi diot: Zakariasek duda agertu du Gabrieleke egindako iragarpn-aldean, eta duda horrek mutu utzi du. Mariak, berriz, bete-bete sinetsi dio Gabrieli, eta fede horretatik sortu da Magnificat-en kantu miresgarria. Segur aski, Zakariasek, apaiza izaki, Mariak, herriko emakume xume bat hark, baino kultura bibliko handiagoa zuen eta erraztasuna ere bat hitz egiteko. Baina Mariaren fedea da funtsezkoa.

[Isaias 7,10-14: Begira, birjina haurdun dago, eta semea izango du. **Sal 23:** Badator Jauna: Bera da Errege ospetsua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret deritzan Galileako herri batera, birjina batengana; Daviden etxeko Joserekin ezkontzeko hitzmana zegoen birjina, eta Maria zuen izena. Aingeruak, haren etxean sarturik, esan zion; «Poztu zaitetz, graziaz bete hori: Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria, hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak, orduan: «Ez izan beldurrik, Maria; Jainkoaren ederra aurkitu duzu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu; eta "Jesus" ezarriko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak haren aita Daviden errege aulkia emango dio; Jakoben etxean errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak orduan aingeruari: «Nola izan daiteke hori? Nik ez baitut ezagutzen gizonik». Eta aingeruak: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana, eta Goi-goikoaren indarrak bere itzaldean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko den Santuari, Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, zure ahaide Elisabet ere, bere zaharrear, haurdun dago; eta agorra omen zena seigarren hilabeteko dago; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak orduan: «Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekik, zuk diozun bezala». Orduan aingeruak utzi egin zuen.

Elizaren historiako eszenarik ederrenetako bat kontenplatzeko deia dakarkigu liturgiak gaur, garrantzizkoenetako bat eta, hartatik, gehienik kontenplatuak izan direnetakoa, eta artearen historian uga-

rienik berregin direnetakoa. Baina asko kontenplatu arren, behin ere ahituko ez duguna... Jainkoaren asmo salbatzaile misteriotsutik hasi eta, ordu arte, Maria bezalako emakume anonimo baten handitasun eta xumetasun sakonera... Jesusen titulurik handienak, posible den tustinguru soilenean iragarriak; ezin ulertu duen eskari baten aurrean, buru-eskaintzarik beteena Mariak... «Jainkoarentzat ezer ez ezinik».

[**Kantarik Ederrena 2,8-14:** Hara non datorren, mendiz mendi lasterka, nire maitea. **Sal 32:** Poztu zaitezte, zintzoak, Jaunagan, kanta iezaiozue kantu berri.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik **1,39-45.**

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Elisabeti, Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Gaurko ebanjelioko hitz labur hauek poz-esapidez beterik daude: «bedeinkatua zu...», «bedeinkatua zure sabeleko fruitua...», «semeak pozik jauzi egin du...», «zorionekoa zu...». Mariaren presentziak eta haren baitan den Jainkoaren Semearenak poza eragin du inguruan. Pozaren ebanjelioa da Jesusen ebanjelioa. Poz sakon-sakon batena, zerikusirik ez du, ez giza arrakastarekin, ez edukitzearekin, baizik eta eguneroko geure bizitzan Jainkoaren presentzia ezagutu eta aitortzearekin, modu guztiz soilean, pobrean, nahi bada, baina benetakoan...

Abendualdiko 3. astea.

Ostirala / Barikua.

San Honorato Tolosakoa (Toulouse), *gotzaina*.
Santa Frantziska Javier Cabrini, *fundatzailea* (*Jesusen Bihotzaren misiolariak*).

[1 Samuel 1,24-28: Anak eskerrak ematen ditu, bere semearen jaiotzagatik. **Salmoa: 1 Sm 2:** Jauzika daukat bihotza Jaunagan, neure Salbatzaileagan.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,46-56.**

Aldi hartan, Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, / pozaren pozez daukat neure barrua; / Jainkoa baita nire salbamentena, / ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. / Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, / handiak egin baitizkit Ahalguztidunak: / Santua da haren izena, / eta haren errukia gizaldiz gizaldi, / beldur diotenengana. / Bere besoaren indarra erabili du, / buruharroak suntsitu ditu; / bota ditu beren aulkitik handikiak, / eta gora jaso ditu ezerezak; / ondasunez bete ditu gose zeudenak, / eta esku-hutsik bidali asko zutenak. / Bere gain hartu du Israel, bere morroia, / errukia gogora zaiola; / gure gurasoei hala zien hitzema-na, / Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Hiru hilabete inguru egon zen Maria Elisabetekin, eta gero etxera joan zen.

Eskerrona, apaltasuna eta bere herriko behartsuekin solidaritatea: **E**horra Magnificat-en Mariak agertu dituen sentimendu handiak. Eta horiek guztiek batasun banaezina eratzen dute Mariaren eta gure bizitzan. Zeren apaltasuna ez baita Jainkoak emandako dohainei ezikusia egitea, baizik aitortzea, den-dena Jainkoagandik hartua dugula, xamur «begiratu baitigu» guztioi. Horrek, jakina, eskerron sakona eragiten digu. Eta apaltasuna, geure burua apalduak eta goseak direnen hurbileko sentitzea da, haiekin, eskerronez, geure dohainak eta Jainko Salbatzailearen berri ona partekatzeko.

[Malaquias 3,1-4.23-24: Elias profeta bidaltzen dizuet, Jaunaren eguna etorri baino lehen. Sal 24: Zutitu zaitetze eta jaso zeuen burua: hurbil da zuen askapena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,57-66.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia izan zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkioten. Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue zeuen senitartean inor izen hori duenik». Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «"Joan" du bere izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goresten. Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiak beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?» Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

Nola Elisabetek hala Zakariasek oso argi dute, ezen haur jaioberri honek Joan izango duela izena. Ez ohiturek, ez inguruko bultzadek aldaraziko dituzte iritziz; izan ere, Jaunak, aingerua bitarteko zela, garbi utzi zuen Joan izena, eta izenarekin misioa. Ederra iruditzen zait gaurko ebanjelioaren mezua: konturatzea, jaiotzen den haur bakoitzaren atzean Jainkoaren «erruki handia» dagoela eta erruki horrek bere baitan duela misio baterako deia bizitzan...

§ Samuelen 2. liburutik 7,1-5 8b-12.14a. 16

David erregea bere etxean bizitzen jarri eta Jaunak inguruko etsai guztiekiko bakea eman zionean, esan zion erregeak Natan profetari: «Begira, ni zedrozko etxean bizi naiz; Jainkoaren kuxta, berriz, oihal-etxolan dago».

Natanek erantzun zion erregeari: «Zoaz eta bete zeure asmoa, Jauna zurekin baita».

Baina gau hartan bertan Jaunaren hitza etorri zitzaion Nantani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: "Hau dio Jaun ahalguztidunak: Zuk eraiki behar al didazu etxea, nire bizileku izan dadin? Neuk atera zintudan larreetatik, artaldean atzetik, nire herri Israelen buruzagi izan zintezan. Zeurekin izan nauzu, ibili zaren alde guztietan. Neuk suntsitu dizkizut aurrean jarri zaizkizun etsai guztiak eta neuk emango dizut lurreko handikiena bezalako izen handia. Leku bat emango diot neure herri Israel: han landatuko dut, bertan biziko da eta ez du aurrerantzean estualdirik izango. Gaizkileek ez dute zapalduko antzina bezala, neure herriaren gain buruzagiak ipini nituenean bezala. Bakea emango dizut etsai guztiekiko. Errege-ondorengotza emango dizula jakinarazten dizu Jaunak. Zeure egunak bete eta zeure gurasoekin atsedean hartuko duzunean, ondorengoa emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotu egingo dut haren erregetza. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura. Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti"».

[Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko dut beti betiko.]
§ San Paulok Erromatarrei 16,25-27.

Senideok: Aintza Jainkoari, nik hots egiten dudan Berri Onaren eta Jesu Kristori buruzko nire predikuaren arabera fedean sendo zaitzaketen Jainkoari. Prediku honen bidez, betidanik ezkutuan zeukan misterioa agertu du Jainkoak. Misterio hori orain azaldu da, Profeten idazkiek esan bezala, eta, betiereko Jainkoaren erabakiaren arabera, herri guztiei adierazi zaie, Jainkoari fedezko erantzuna eman diezaioten. Jainko horri, jakintsu bakarrari, aintza Jesu Kristoren bitartez, gizaldi eta gizaldietan. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitetz, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez izan beldurrik, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta "Jesus" ezarriko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoberen herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi». Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet

zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabete-
teko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezi-
nik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta be-
kit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Pertsona, pertsona bakoitza, txikia da... baina misio handia du, oso
handia. Haur txiki bat jaioko da, baina «handia izango da, Goi-goi-
koaren Seme izena emango diote, Jainko Jaunak bere aita Daviden
tronua emango dio, Jakoben etxeko errege izango da beti-betiko, eta
haren erregetzak ez du azkenik izango». Promes hau entzun duena
emakume xume bat izan da, herrixka bateko alaba, lurreko naziorik txi-
kientakoa. Bistakoa da galdera: «nola gertatuko da hori?»

Gaurko ebanjelioak gizakundearen misterioa jarri digu begi aurrean;
baita beste misterio asko ere: haietako bat, Jainkoak bere salbazioa, bere
egintza handia, gizakien esku ahuletan ipiniko duen misterioa. Orduan eta
gaur: nola gertatuko da hori?, zer egin dezaket nik?, egia ote entzuten ari
naizena?...

Galderekin bide bikoitza urratu da: fedegabetasunaren bidea eta kon-
fiantzaren bidea. Fedegabetasunaren bideak gure txikitasuna bakarrik har-
tu du kontuan, gure indar eta ahalbide mugatuak bakarrik; konfiantzaren
bideak, berriz, Jainkoa ipini du gauza guztien gainetik, eta haren ahalbide
mugarik gabeak. Gaur Mariak konfiantzarako deia dagigu berriro.

Astelehena.

JAUNAREN JAIOTZA (Eguberri).

Gauerdiko Meza.

Betleemeko Andre Maria.

§ Isaias profetaren liburutik 9,1-3.5-6.

Ilunpean zebilen herriak argi handi bat ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenak distira batek argitu zituen. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozik dabilta zure aurrean, igitai-arroan izaten den pozez, harrapakinak banatzekoan izaten den atseginez. Puskatu baituzu haren uztarri astuna, haren bizkar-makila, eta zapaltzailearen zigorra, Madiango egun hartan bezala. Haur bat jaio zaigu, seme bat eman zaigu; aginpidea sorbaldan darama, eta haren izena: Aholku-emaile harrigarri, Jainko indartsu, Betiko Aita, Bake-errege. Bere erregetza zabal dezan, amairik gabeko bakea ezarriz, Daviden aulkian eta bere herrian. Sendotu eta indartu dezan, zintzotasunez eta zuzentasunez, gaurdanik eta betidaino, diren guztien Jaunaren maite-minak egingo du hau.

[Sal 95: Salbatzaile bat jaio zaigu gaur: Mesias, Jauna.]

§ San Paulok Titori 2,11-14.

Agertu zaigu Jainkoaren grazia, gizon-emakume guztion salbamenerako. Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten, eta neurritz, zuzentasunez, eta jainko-zaletasunez mundu honetan bizitzen ikusten ditugula; zorioneko itxaropenari begira, Jesu Kristo gure Salbatzaile eta Jainko handiaren agertze ospetsua itxaroten dugula. Hark gugatik eman zuen bere burua, gu gaiztakeria guztietatik ateratzeko eta bere herri garbi eta egintza onen zale egiteko.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,1-14.

Egun haietan, mundu guztiaren errolda egiteko agindua atera zuen Augusto enperadoreak. Lehen errolda hau, Siriako gobernadore Kirino zela egin zen. Eta denak izena ematera joan ziren, bakoitza bere herrira. Jose ere, Daviden etxekoa eta ja-torrikoa izanik, Galileako Nazaretetik Judeara igo zen, Betleem deritzan Daviden herrira, han bere emazte Maria haurdunarekin izen ematera. Han zeudelarik, haurra izateko egunak bete zitzaizkion Mariari. Eta bere lehen-semea izan zuen eta, oihale-tan bildurik, gabela batean etzan; ez baitzen ostatuan haien-tzat lekurik. Baziren inguru hartan artzain batzuk, mendian gaua igaroz, beren artaldeak txandaka zaintzen zituztenak. Honetan, Jainkoaren aingeru bat agertu zitzairen; Jainkoaren aintzak argiz inguratu zituen, eta beldurrak jota gelditu ziren. Aingeruak esan zien: «Ez izan beldurrik; begira, poz handi baten berri ona dakarkizuet, herri guztiarentzat izango dena: salbatzailea jaio zaizue gaur Daviden herrian: Mesias, Jauna. Honetan ezagutuko duzue: oihaletan bildurik eta gabelan etzanik aurkituko duzue haurra». Eta bat-batean aingeruari zerutar talde bat bil-du zitzaion, Jainkoa goستن zutela, esanez: «Aintza zeruetan Jainkoari, eta bakea lurrean haren gogoko gizon-emakumeei».

Urteko beste inolako gauetan ez bezala, beste inolako egunetan ez bezala, kontenplaziorako deia dagigu ebanjelioak, artzainekin bat egitera oihaletan bildua eta gabela batean datzan haur batengan ha-ragitu den Jainkoa harriduraz kontenplatuz. Hori da Jainkoaren seinalea, argia eta onginahia mundu honentzat.

Kontenplatzea, eszenara hurbiltzea da «harrera onez eta begirunez», San Ignaziok esaten zuen bezala, geure burua koxkor egitera, «duin ez diren esklabo koxkor» familia pobre horren aurrean, gorabehera penagarrietan bidaiatzera behartua eta ostatuan zapuztua den horren aurrean; guztia pobreen zoria bizi duelako, beti boteretsuen, hau da, bizkarra eman eta ateak ixtea gauza erraza izaten duten horien apetaren mendeko. Behar

-beharrezkoa dugu kontenplazio hau, geure mundu honetako pobreen aurrean makurtzea posible izan eta halakoetan Jainkoaren seme-alabak ikusi ahal ditzagun.

Hau da kontenplazioa, zioen Gurutzeko Joan santuak: «begiratzea maitasun arretatsuz». Izan ere, San Ignaziok ere gogoratzen digun bezala, kontenplazioari ari naizen misterio hori, maitasun- eta sufrimendu-misterio hori, «nigatik» da. Jesusen jaiotzaren aurrean ez gara, ez begirale neutral, ez soilik argazkia axola zaion turista... Konturatuko gara, maitasunez begiratzen badiogu, zertaraino garen maitatuak.

[EGUBERRI EGUNEKO MEZA]

§ Isaias profetaren liburutik 52,7-10.

Bai ederrak direla mendi gainetan, bakea hots egiten duen mezulariaren oinak! Berri Ona zabaltzen eta salbamena iragartzen dabilenarenak! Sioni «gure Jainkoa errege da» esaten dionarenak! Entzun: zure zaintzaileak oihuka ari dira, irrintzika, guztiak batera; aurrez aurre ikusten baitute Jauna, berriro Sionera datorrela. Ekin kantari, guztiok batera, Jerusalemgo horma zahar eroriok; poztu baitu Jaunak bere herria, eta berrerosi du Jerusalem. Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak bere beso santuaren indarra, eta lurberaren bazter guztiak ikusiko dute gure Jainkoaren salbamena.

[Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipea.]

§ Hebrearrei 1,1-6.

Askotan eta era askotara hitz egin zien Jainkoak Profeten bidez aspalditik gure arbasoei, eta, azkenak diren egun haue-tan, Semearen bidez hitz egin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien oinordeko, eta beraren bidez egin zuen mundua ere. Bera da, Aitarean aintzaren argi distiratsu eta haren izatearen irudi. Berak eusten die gauza guztiari bere hitz indartsuaz. Eta bekatuen garbikuntza egin ondoren, goiengan Guztiz Handia-

ren eskuinaldean jarririk dago: zenbat eta aingeruek baino gorago izena jaso duen, hainbat eta haiek baino gorago jarria. Izan ere, zein aingeruri esan dio inoiz: «Nire Seme zara zu; nik zaitut gaur zu sortu»? Eta beste behin: «Aita izango nau hark ni, eta hura Seme izango dut nik»? Eta beste behin, bere Semea munduan sartzerakoan, dio: «Gurtu bezate bera Jainkoaren aingeru guztiek».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza. Hitz hau hasieran Jainkoarekin zen. Dena Hitzaren bidez egina da, eta egindakoetan ez da ezer hura gabe eginik. Harengan zen bizia. Eta bizia gizakien argia zen. Argiak ilunpean argi egiten du; baina ilunak hura ez zuen onartu. Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen: argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik. Hitza zen, mundura etorritako gizon-emakume oro argitzen duen egiazko argia. Munduan zegoen, eta mundua haren bidez egina da; baina munduak ez zuen ezagutu. Bereetara etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalbidea eman zien, haren izenean sinesten badute. Hauek ez dira odoletik sortu, ez haragiaren nahieratik, ezta gizakien nahieratik ere, Jainkoagandik baizik. Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua eta geuk ikusi dugu haren aintza, Aitaren Seme bakarrari dagokion aintza, graziaz eta egiaz betea. Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau da, nik esan nuen hura: Nire ondoren datorrena nire aurrean jarria izan da, ni baino lehenagokoa baitzen». Eta haren betearen betetik, grazia graziaren gain hartu dugu guztiok. Legea Moisesen bidez eman izan da; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri

dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainkoa den Seme bakarrak eman digu haren berri.

Jainkoaren behin betiko hitza da Jesus. Joanen ebanjelioak Hitz horri dagokionez azpimarratzen dituen hiru alderdi azpimarratu nahi ditut.

Inork ez du Jainkoa inoiz ikusi. Baina Jesus den Hitz honek ezagutzera eman digu. Hainbat eta hainbat ameskeriena eta giza proiektzioena ez bezalako Jainkoa eman digu ezagutzera. Pobre jaio den Jainko bat, apal bizi izan den eta gurutzean hil dena. «Bereek ez dute onartu»: «bereak» horiek gu geu gara, Jainko hori onartzen ez dugunean eta geure idoloek ordezkatu nahi izaten dugunean.

Hitz hori da argia. Gai jarraikia da Eguberrialdiko liturgian: «ilunpean zebilen herriak argi bat ikusi zuen» esan digu bart Isaias profetak. «Argiak ilunpean argi egiten du» dio gaur Joaneke. Ilunpean zabiltzanean eta bat batean iluna argitzen duen argia ikusten duzunean, bihotza zabaldu egiten da eta esperantzak harrapatzen zaitu. Ipin ditzagun Hitz honen argia eta esperantza askotan hartarainokoak izaten diren ilunpean eta etsipenean.

Hitz horrek, beragan sinesten dutenei, berriro jaiotzeko ahalmena ematen die, ez jada odoletik eta haragizko maitasunetik eta giza maitasunetik. Hitzak gaitasuna du gu eraldatzeko, gu berritzeko, gu berriro jaioarazteko.

Egun haietan, Estebanek, graziaz eta indarrez beterik, mirari eta ezaugarri handiak egiten zituen herriaren aurrean. Askatuena deritzan Sinagogako batzuk, jatorriz Zirene, Alexandria, Zilizia eta Asiakoak zirenak, eztabaidan hasi ziren Estebanekin. Baina ezin erantzun zioten haren jakinduriari eta haren hitzaren indarrari. Haren hitzak entzunda, beren bihotzak amorruez lehertzen zitzaizkien, eta hortz-karraskaz zeuden haren kontra. Estebanek, berriz. Espiritu Santuaz beterik, zerura begiratu eta Jainkoaren aintza ikusi zuen, eta Jesus zutik Jainkoaren eskuinean. Eta esan zuen. «Horra, zerua zabalik ikusten dut, eta Gizonaren Semea zutik Jainkoaren eskuinean». Orduan, haiek, garrasika, beren belarriak itxi zituzten, eta denak batean gainera etorri zitzaizkion, herritik kanpora bota eta harrika eman zioten. Testiguen, Saulo zeritzan gazte baten oinetan utzi zituzten beren soin-gainekoak. Estebanek, harrika ari zitzaizkion bitartean, otoitz hau esaten zuen: «Jesus Jauna, har ezazu nire arnasa». Gero belaunikaturik, hots handiz esan zuen: «Jauna, ez ezarri horien gain bekatu hau». Eta hori esanda, azken-arnasa eman zuen. Saulok, berriz, ontzat ematen zuen Estebanen hiltzea.

[Sal 30: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, nire arnasa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,17-22.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Kontuz ibili jendearekin; beren auzitegietara eramango zaituztete, eta zigorkatuko beren sinagogetan. Eta nigatik, agintari eta erregeetara eramango zaituztete, haien eta atzerritarren aurrean aitormen egin dezazuen. Eramaten zaituztenean, ez ibili buru hausten,

zer eta nola esango. Emango zaizue zer esana. Izan ere, zuek ez, baina zuen Aitaren Espiritua izango da zuengan mintzatuko dena. Senideak senidea eramango du heriotzara, eta aitak semea, eta umeak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Nire izenagatik guztiak begitan hartuko zaituztete; baina azkeneraino irauten duena salbatuko da».

Oso esanguratsua da, Elizak, Eguberri eguneko pozaren segidan, bere begiak San Estebanengan ipini nahi izana, Jesusengatik bere bizia eman zuen lehenengo harengan. Izan ere, kontenplatu dugun Eguberriko misterioak, maitasunez haragitu izanaren misterioak, barnetik eraldatzen gaitu gure kontenplazioa sakona baldin bada. Gure bitza eskaintza bihurtzen du, «niregatik gizon egin den» harengatik. Mugarik ez duen eskaintza, gu geu ere mugagabeki izan baikara maitatuak. Eskaintza «zeru irekiaren pean», badakielako Betleemen jaiotako haurra jada «zutik dagoela Jainkoaren eskuinean».

§ 1 Joan 1,1-4.

Senide maiteok: Hasieratik zena, guk entzun duguna eta geure begiz ikusi duguna, guk begiratu genuena eta geure eskuek ukitu zutena, hau da, biziaren Hitza, aitortzen dizuegu eta hots egiten –bizia agertu egin baitzen, eta guk ikusi dugu bizi hori; Aitagan zegoen eta guri azaldu zitzaigun–. Guk ikusi eta entzun dugun hori da hots egiten dizueguna, guk Aitarekin eta haren Seme Jesu Kristorekin dugun elkartasunean gurekin bat eginik bizi zaitezten. Gure poza betea izan dadin idazten dizuegu hau.

[Sal 96: Poztu zaitezte, zintzoak, Jaunarengan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,2-8.

Astearen lehenengo egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Lasterka batean, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasle harengana joan, eta esan zien: «Hilobitik eraman egin dute Jauna, eta ez dakigu non jarri duten». Atera ziren Pedro eta beste ikaslea, eta hilobira abiatu ziren. Biak batera zihoazen lasterka; baina beste ikasle hark, Pedro baino bizkorrago ibili eta aurrea hartu zion, eta lehenago iritsi zen hilobira. Begiratu zuen eta lurtean oihalak ikusi zituen, baina ez zen sartu. Irtsi zen atzetik Pedro ere, sartu zen hilobian eta ikusi zituen oihalak lurtean; buru gainean edukitako zapia, ordea, ez zegoen oihalekin batera, alde batean bildua baizik. Orduan, sartu zen hilobian lehendabizi iritsitako ikasle hura ere; ikusi zuen, eta sinetsi; ordu arte ez baitzuten ulertu Liburu Santuak dioena: «Piztu egin behar zuela hildakoen artetik».

«Ikusi eta sinetsi zuen»... Gaurko liturgiak behin eta berriz errepikatzen du, lehen irakurgaian eta ebanjelioan, «ikusi» aditza... Joan ebanjelaria oso jakitun da zein pribilegiatua izan den bera; izan ere, «bere begiez ikusi du». Bere begiez ikusi duenaz testigutza egin du. Gaurko ebanjelioan ikusi duen gauza bakarra oihalak lurrian eta buru gainean edukitako zapia izan da... baina aski izan du hori sinesteko, Jesusen piztuera-promesa ekarri baitio gogora. Joanek, ikusi zuenak, ozenki esan ahal du: «zorionekoak ikusi gabe sinetsiko dutenak».

§ 1 Joan 1,5–2,2.

Senide maiteok: Hau da, guk Jesu Kristori entzunik, zuei hots egiten dizuegun berria: Jainkoa argia dela, eta harengan ilunik batere ez dela. Harekin elkertasunean gaudela esan, eta ilunpean bagabiltza, gezurra diogu hitzez eta egintzaz. Baina hura argian dagoen bezala, gu ere argian bagabiltza, bata bestearekin elkertasunean gaude, eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu. Bekaturik ez daukagula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu, eta ez dago egirik gugan. Gure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zintzoa den hark barkatuko dizkigu bekatuak, eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu Jainkoa eta haren hitza ez dago gugan. Ene semeok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, hor dugu geure bitarteko Aitaren aurrean Jesu Kristo, Zintzoa. Bera da gure bekatuen ordain-oparia, eta ez gure bekatuena bakarrik, baita mundu guztiko bekatuena ere.

[Sal 123: Gure bizia hegatzia bezala doa ihesi ehiztarien saretik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,13-18.

Magoek alde egitean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion Joseri, esanez: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihes Egiptora, eta egon han, nik esan arte; Herodes, haurra hil nahian ibiliko da-eta». Jaiki zen Jose, hartu zituen haurra eta ama gauez, eta Egiptora joan zen eta han egon, Herodes hil zen arte; horrela bete zen profetaren ahoz Jaunak esandakoa: «Egiptotik dei egin nion neure semeari». Orduan, Herodes, Magoek iruzur egin zio-

tela ikusirik, biziro haserretu zen, eta Betleemen eta inguruetan bi urtez beheko ume guztiak hiltzeko agindu zuen, Magoengandik jakindakotik adin hori gutxi gorabehera erabakiz. Orduan bete zen, Jeremias profetak esana: «Oihu bat entzun da Raman, / negar eta garrasi ugari: / Rakel da, bere umeengatik negarrez, / eta ez du poztu nahi, ez baitira bizi».

Eguberrialdiko liturgiak berriro datorkigu harridura sortu eta errealitate gogor bat kontenplatzerara gonbidatuz. Kontenplatzea ez da ihesbide bat, baizik geure mundu honi begiratu berri, sentibera eta solidario bat ematea. Non hainbat haur errugabek hiltzen jarraitzen baitute, zuzengabekeria pertsonal eta egiturazkoa dela medio. Hor ditugu, jaio aurretik bizitzeko eskubidea ukatzen zaienenetatik hasi eta, beren lurraldetik kanporaturik, etxe baten bila, laster edo geroago hitzen direnetara, edota beren errugabetasuna eta bizitza sarraskiturik ikusten dutenak, indarkeriaz edo sexuagatik. Gaur ere «negarrez dago Rakel bere semeengatik, eta uko egiten dio kontsolamenduari, jada bizi ez direlako».

Ostirala/ Barikua.

Eguberri ondoko 5. eguna.

Tomas Becket santua, *gotzaina eta martiria*.

San David, *erregea*.

[1 Joan 2,3-11: Bere senidea maite duena argian dago. **Sal 95:** Poztu bedi ortzia, alaitu lurra.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,22-35.**

Mariarentzat, Moisesen Legearen arabera, garbikundeko egunak bete zirenean, gurasoek Jerusalemara eramane zuten Jesus, Jaunari aurkezteko, Jaunaren Legean idatzirik baitago: «Lehen seme oro Jaunari eskainia izango da», eta opari egiteko, Jaunaren Legeak agintzen duen eran: «Bi usapal edota bi usakume». Simeon izeneko gizon bat bizi zen orduan Jerusalem, gizon zintzo eta jainkozalea, Israelen poza itxaro zuena, eta Espiritu Santua berekin zuena. Espiritu Santuak adierazi zion ez zuela heriotzarik ikusiko, Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda jaurettxera joan zen. Gurasoek Jesus eramane zutenean, Legeak agindua harekin betetzera, hartu zuen Simeonek haurra besoetan eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez: «Orain utz dezakezu, Jauna, / morroi hau bakean joaten, / zeuk hitzeman bezala. / Ikusi baitute nire begiok zuegandiko salbamena, / herri guztien aurrean ipini duzuna: / Atzerritarrak argitzeko argia, / eta zure herri Israelen edergarria». Haurraren aita-amak harrিতта zeuden, haurrarentatik esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau, eta eztabaida sortuko duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian ager daitezen, eta zeuri ezpata batek alde zulatuko dizu arima».

Simeon esperantzaren eredu... Espirituaren presentziaren fruitu den esperantza da: «Espiritu Santua bizi zen harengan», eta ez kalkulu mundukoiak; Espirituak eraginik, txiki harengan, familia behartsu baten seme harengan, Tenpluan era anonimoan sartu den harengan, Jainkoaren Salbatzaileari igartzeko gai izan den esperantza; Jainkoaren egitasmoa, jada hemen dagoena, borroka eta kontraesana sortzeko gai izango dena, ezagutzen duena da: «bandera eztabaidatua-edo izango da». Bedeinkazio-eran komunikatzen den esperantza da, baina baita profezia-eran ere.

[San Joanen 1. gutunetik 2,12-17: Jainkoaren gogoia egiten duena betiko da. Sal 95: Poztu bedi ortzia, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,36-40.

Aldi hartan, bazen profetesa bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gazetetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa goresten eta haurraz mintzatzen hasi zitzairen Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei.

Jesusen gurasoak, dena Jainkoaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriaz betetzen ari zen, eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

«**H**aurra haziz zihoan...». Zail gertatzen zaigu ulertzea eta onartzea gizakundea, hots, gauzak egiteko modu hau: Jainkoa giza-kien ibilbidearen eta aldien mende jarri da. Horien guztien gainetik joka zezakeelarik. Hainbat aldiz guri gustatuko litzaigukeen bezala: aldien eta ibilbideen gainetik jokatu, lasterragotu, «denborarik ez galdu» hazten, indartzen, ikasten... Halaz guztiz, ezina da hori, eta Jainkoa gizon egin da ondorio guztiekin, benetan: Jainkoak ez du «jokatzeko» gizona egiten. Hain zuzen, horregatik eta horrela salbatu gaitu: irakaspen bat da geure ibilbide pertsonalak onartzeko eta lagun egiten diegun pertsonen prozesua ez behartzeko.

Igandea / Domeka.

Eguberri ondoko 7. eguna.

Familia Santua.

San Silvestre I.a, *aita santua*.

Santa Columba, *birjina eta martiria*.

§ Ben Sirak 3,3-7.14-17a.

Goresgarriago egiten du Jaunak aita, seme-alabak baino, eta amari eskubidea ematen dio bere umeen gainean. Aita go-resten duenak bere bekatuak ordaintzen ditu, eta ama go-resten duenak ondasunak pilatzen. Aita go-resten duenak poza izango du bere seme-alabetan, eta otoitz-egunean entzun egingo zaio. Aita go-resten duena luzaro biziko da, eta Jaunak entzuten dio, amari atsegin ematen dionari. Ene seme, iraun zeure aita goratzen, eta ez utzi bizi deino. Burua galtzen badu ere, izan zakizkio bihotz handiko, eta ez gutxietsi hura bizi zareino; aitari emandako laguntza ez da ahaztuko, bekatuen ordain izango duzu; zoritxar-egunean, gogoan hartuko dizu Jaunak.

[Sal 127: Dohatsu, Jaunaren beldur dena, haren bideetan dabilena!]

§ San Paulok Kolosarrei 3,12-21.

Senideok: Jantzi zaitzte bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, egokitasunez, eramapenez, Jainkoaren herri aukeratu, santu eta maitea zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu batak besteari, inork inorentzat ezer balu. Jaunak barkatu dizuen bezala, barkatu zeuek ere. Horien guztien gainera, ordea, izan ezazue maitasuna; hori baita lokarrik bikainenena. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzean, bake horretara deituak zaretenez gero gorputz batean, eta izan esker onekoak. Oparo bizi bedi zuengan Kristoren hitza: jakinduriarik

osoenean elkar argituz eta berotuz; salmoak, gorazarreak eta goi-arnasazko abestiak Jainkoari bihotzez eta esker onez kantari. Edozer esaten edo egiten duzuela, egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, beraren bidez Jainko Aitari eskerrak emanaz.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,22-40.

Moisesen Legearen arabera, amari garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemara eraman zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen- seme guztiak Jaunari sagaratuko zaizkio». Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume».

Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen.

Gurasoek Legeak agintzen zuena betetzeko Jesus haurra tenpluan sartzean, hartu zuen Simeonek haurra besoetan eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez:

«Orain utz dezakezu, Jauna,
zeure morroi hau bakean hiltzen,
zeuk hitzeman bezala.
Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena,
herri guztien aurrean zuk aurkeztua:
Nazioak argitzeko argia
eta zure herri Israelen ospea».

Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurragatik esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, hau israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago; eztabaida sortzen duen ezaugarri

izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian geldi daitezten. Eta zeuri ezpata batek alde zulatuko dizu arima».

Bazen profetesia bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa goستن eta haurraz mintzatzen hasi zitzairen Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei.


Jesusen gurasoak, dena Jainkoaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriaz betetzen ari zen, eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

Urtea bukatzeko, Nazareteko familia kontenplatuko dugu. Kontenplazio horrek eskerrak ematera gonbidatzen gaitu, eskatzera eta gogoeta egitera.

Eskerrak ematea, geure familiagatik eta horretan eta horretatik hartu dugun eta hartzen segitzen dugun guztiagatik. Aldi zailtan jarri ohi da agerian familiaren balioa, pertsonaren oinarrizko sostengu eta euskarri-egitura bezala

Eskariak egiteko gonbita: familiaren hainbat egoerarengatik: komunikazio- eta ulermen-falta, inkomunikazioa, haustura; bereziki txikien eta adin handikoen kasuan, horiek izan ohi baitira biktima nagusi egoera horietan. Kontua ez da epailearena egitea, urruneko goitasun batetik, baizik eta sufritzen ari direnen ondoan jartzea

Azkenik, gogoetarako gonbita. Gogoeta zentzuzko bat, geure munduari adi biziz, ebanjelioaren arabeko balio batzuk azpimarratzeko gai izango dena, geure aldi honetako familia-egoera askotariko eta konplexuetan lagungarri izango direnak. Maitasuna, barkatzeko gaitasuna, elkarriketarako ahalegina, eguneroko gauza txikiak arreta, egitasuna...: eguneroko eta familiaren bizitzaren eta ebanjelioaren topa puntu dira; sarritan gauzatu beharko liratekeen topa puntu.



OTOITZAK ETA DEBOZIOAK

EGUNERO

GURUTZE SANTUAREN

† Gurutze santuaren seinaleagatik,
gure etsaiengandik zaindu gaitzazu, Jauna, gure Jainkoa.
Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

GURE AITA

Gure Aita, zeruetan zarena:
santu izan bedi
zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia,
zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur
egun honetako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere geure zordunei
barkatzen diegunez gero;
eta ez gu tentaldira eraman,
baina atera gaitzazu gaitzetik.

AGUR MARIA

Agur, Maria,
graziaz betea:
Jauna da zurekin:

bedeinkatua zara zu
andre guztien artean,
eta bedeinkatua da
zure sabeleko fruitua Jesus.
Santa Maria,
Jaungoikoaren ama,
erregutu ezazu
gu bekatarion alde
orain eta
gure heriotzako orduan. Amen.

AINZA AITARI

–Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari.
–Hasieran zen bezala, orain eta beti,
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

ANGELUS (goizean, eguerdian eta arratsean)

–Jaunaren aingeruak Mariari adierazi zion.
–Eta Espiritu Santuaren egitez sortu zuen.
Agur, Maria, graziaz betea...
–Hona hemen ni, Jaunaren mirabea.
–Gerta bekit zuk diozun bezala.
Agur, Maria, graziaz betea...
–Eta Jainko Semea gizon egin zen.
–Eta gure artean bizi izan zen.
Agur, Maria, graziaz betea...
–Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santu horrek.
–Jesu Kristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.

Egin dezagun otoitz: Isur ezazu, Jauna, gure bihotzean zure grazia,
eta, aingeruak esanik, zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela
jakin dugunok,
egizu haren nekaldi eta gurutzearen bidez

eta Andre Mariaren otoitzari esker, irits gaitzela piztueraren ospera.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

REGINA COELI (Zeruko erregina) (Pazkoaldian)

–Zeruko erregina, poztu zaitez, aleluia.

–Sabelean ekarri zenuena, aleluia.

–Piztu baita agindu bezala, aleluia.

–Otoitz egiozu gure alde Jainkoari, aleluia.

–Egizu gainez, Andre Maria, aleluia.

–Jauna egiaz piztu baita, aleluia.

Egin dezagun otoitz: Jesu Kristo gure Jauna, zure Semea, piztuz,

mundua pozez bete duzun Jainkoa;

egizu, arren, Andre Maria haren Amaren otoitzari esker,

irits gaitzela betiko pozak gozatzerara. Jesu Kristo gure

Jaunaren bitartez. Amen.

GOIZEAN

ESKERRAK EGUNSENTIAGATIK

Eskerrak, Jauna, egunsentiagatik;

eskerrak egun berriagatik;

eskerrak Eukaristiagatik;

eskerrak Andre Mariagatik.

Eta eskerrak gure erromesaldiko

ordu bakoitzagatik.

Eskerrak zure bakearen eta maitasunaren.

pozaren eta oinazearen

jainkozko dohainagatik,

zure bidelagun garenean.

EGUNAREN ESKAINTZA

Jainko, ene Aita,
eskaintzen dizkizut
neure lan-egun hau,
neure otoitzak, pentsamenduak,
sentimenduak eta desioak,
hitzak, egintzak,
pozaldiak eta sufrimenduak,
zure Seme Jesu Kristorekin bat eginik;
zuri bere burua eskaintzen jarraitzen baitu hark
Eukaristian munduaren salbaziorako.

Espiritu Santua,
Jesus gidatu zuena,
izan dadila nire gidari eta indar egun honetan,
ni zure maitasunaren lekuko izan nadin.

Mariarekin, Jaunaren eta Elizaren Amarekin,
bereziki erregutzen dizut
Aita Santuak eta gure gotzainek
hilabete honetako dituzten asmoentzat.

LANALDIAN

EGUNEROKO LANA (Tarteko ordua)
Eguneroko gure lana, Jauna,
santutu dezala zure maitasunak;
bihur ezazu haren nekea maitasun-poz,
emateko baitiguzu zuk eman.
Jasan beharra eta luzea da gure egitekoa
zain dagoen maitasunaren gau ilunean;
arimako apopilo ezitia,
ahul dabilenari emaiozu zeure argia,

aringarri den zeure indarra.
Bideko geure geldialdi gozoan,
Jainkoari eskerrak emateko gogoia izan dezagun;
jainkozko dohainaren esperantza
azkenik gabe baitigu ematen;
horrela, dena baitezake harengan
beretz ezer ez dezakeenak.
Amen.

MAHAIA BEDEINKATZEA

OTORDU AURRETIK

† Bedeinka gaitzazu, Jauna,
eta bedeinkatu hartzera goazen janari hauek,
zuk, guztiz onbera, emanak baitira.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.
Betiko aintzaren Erregeak eman diezagula
zeruko mahaian otordu-kide izatea. Amen.

OTORDU ONDOREN

Eskerrak, Jauna,
zuk emanik,
hartu ditugun mesede guztiengatik.
Errege bizi baitzara gizaldiz gizaldi. Amen.

ARRATSEAN

ESKERRAK EGUNA BUKATZEAN

Eskerrak, Jauna, / eguna bukatzean / zuri eskertzeko aukera
dugulako,
/ zure heriotzaren merezimenduak / eta Eukaristiako ogia /
alaitasun betean

/ eta zurekiko elkertasunean bizi izan ditugulako;
/ fedea, maitasuna, esperantza / eta gure loa,
/ gorespen apal bihurtzeko, / zure graziaren ontasun hau /
bizi izan dugulako.

LO HARTU AURRETIK

Begiak, / ezpainak eta bihotza, / eguna bukatzean, / itxi
aurretik,
/ gau on, Aita Jainkoa!
Eskerrak, zeure maitasunaz / eman dizkiguzun grazia
guztiengatik;
/ asko badira gure zorrak, / mugarik gabea duzulako zeure
barkazioa.
Bihar, / zeure ondoan, / hobeto zerbitzatu nahi zaitugu.
/ Zure hegalean pean, gure Aita, babestu gaitzazu.
/ Egon zaitetz gure ondoan, / eta bedeinka gaitzazu.
Begiak, / ezpainak eta bihotza, / eguna bukatzean, / itxi
aurretik, / gau on, Aita Jainkoa!

JAINKOAREN ERRUKIA OSPATU

LAUDATO SIE MI SIGNORE

(Okobioko Iñaxiok euskaraz 2015-12-12).
Goi-goiko, ahalguztidun, Jaun ona,
zureak gorespenak, aintza, ohorea eta bedeinkapen dena.
Zuri, Goi-goiko horri, dagozkizu bakarrik,
eta ez da gizakirik zu aipatzeko duin denik.
Goretsia zu, ene Jauna, zeure sorkari guztiekin,
batez ere anaia eguzki jaunarekin:
bera da egun-argia eta berarekin diguzu egiten argi.
Eder eta distiratsu da dirdira bizitan:
zure, Goi-goiko horren, irudi da.

Goretsia zu, ene Jauna, arreba ilargi eta izarrengatik:
argi, bitxi eta eder dituzu zeruan jarri.
Goretsia zu, ene Jauna, anaia haizearengatik,
eta aire, laino, oskarbi eta edozein eguraldigatik:
beronen bidez ematen diezu mantenua zeure sorkariei.
Goretsia zu, ene Jauna, arreba urarengatik:
txit ongarri da, apal, bitxi eta garbi.
Goretsia zu, ene Jauna, anaia suarengatik:
beronen bidez argitzen duzu gaua
eta ederra da, alaia, sendoa eta indartsua.
Goretsia zu, ene Jauna, gure arreba ama-lurragatik:
berak gaitu mantentzen eta gobernatzen,
eta hainbat fruitu, lore koloretsu eta belar sortarazten.
Goretsia zu, ene Jauna, zure amodioz dutenengatik barkatzen
eta gaixotasuna eta larrialdia eramaten:
zorionekoak bakean sufritzen dituztenak,
zuk, Goi-goiko horrek, koroatuko dituzu eta.
Goretsia zu, Jauna, gorputzeko gure arreba heriotzagatik:
ez da gizaki bizidunik ihes egin diezaiokeenik.
Zoritxarrekoak bekatu larrian hilko direnak!
Zorionekoak zure borondate santuan aurkituko dituenak,
ez baitie kalterik egingo heriotza bigarrenak!
Gorets eta bedeinka ezazue nire Jauna,
eman eskerrak eta apaltasun handiz zerbitza.

URRIKIAREN URTE SAINDUKO GARIZUMAKO KANTUA

[Baionako web orritik hartua.]

Urrikiaren urte sainduko Garizumako kantua.

Kantu hunen hitzak 2000. urtean egin zituen Emil Larre-k (1925-2015). Ez dute zimurdura bat ere hartu: seme galduaren parabola gogoratzen dute eta Izraelgo herriaren martxa luzea Moisen agintepean.

Doinua kantika zahar batena da, "Zer dire gure egunak": hunek merexiko luke igandetako biltzarretako kantu bilduman berriz sartzea. Aita Gabriel Lerchundi-k, "Kantikak" bere kantu bilduman, dio: "Egia ote da, askotan erraiten den bezala, aire hau Aita Cestacen "Espérance d'Israël" kantikaren desformazio bat besterik ez dela ? Argi eta garbi melodia bera da, baina bestela erritmoan emana." (ikus Kantikak 18. zenb.).

C urte huntako Garizuma kari gure parropietan sustatzea merezi duen kantua, 4. igandean seme galduaren parabola irakurriko delarik.

NUN ZAUDE SEME MAITEA

(Hitzak : E. Larre - Airea : "Zer dire gure egunak".)

1/ Nun zaude, seme maitea, edo berdin alaba,

Garizumak deitzen zaitu haur galdua bezala.

Etxeko partearekin zer egin duzu hola ? [etxeko parte=herentzia]

Bil zaite, atea dauka Aitak zabal zabala.

2/ Urrundu zen seme hura ezaguna daukagu,

Jainkoak emanak guhauk maiz ditugu enpoildu.

[enpoildu=suntsitu]

Dena den basamortuak alderdi on bat badu,

Galbidetik itzultzeko deia helarazten du.

3/ Izraeldarrek bazuten Moï's beren profeta,

Bera Jaunaren gizona igorria zen eta.

Gu ere gabiltzalarik hersturetari gaidika,

Berrogoi egunez gauden Jainkoari otoizka.

4/ Otoitzean goxaturik bekatuaren liska, [lika, gai itsaskorra]

Bortxa zenbait pairaturik, gostatzen dena gosta,

[gostatzen=kostatzen]

Aste Sainduan dezagun goien goiena presta,
Ederra izan dadien Jaunaren Bazko besta.

ZU ZEU ERE ATZERRITAR IZAN ZIREN EGIPTON

“ZURE ANTZEKO GIZONA”

Zure atea jo dut,
zure bihotza jo dut
ohe on baten bila,
supazter on baten bila,
berotzeko.

Zergatik zapuzten nauzu?

Ireki, haurridea.

Zergatik galdegiten didazu
Afrikakoa ote naizen,
Ameriketakoa ote naizen,
Asiakoa ote naizen,
Europakoa ote naizen?

Ireki, haurridea.

Zergatik galdegiten didazu
nire sudurraren handitasunaz,
nire ahoaren tamainaz,
larruaren koloreaz
eta nire jainkoen izenaz?

Ireki, haurridea.

Ez naiz beltza,
ez naiz larru-gorria,
ez naiz ekialdekoa,

ez naiz zuria,
gizakia naiz soil-soilik.
Ireki, haurridea.

Ireki iezadazu atea,
ireki bihotza,
gizakia bainauzu,
aldi guztietako gizakia,
zeru guztietako gizakia,
zu bezalako gizakia.

(René Philombe, Kamerun, Afrika)

ESPIRITU SANTUARI

ALAITZEN DUEN ESPIRITUA

(Arratiako Eliza-ren web orritik hartua)

Jesusen lagunak
triste daude,
azkenean hil egin delako.
Uste dute ametsa
eta haren promesa
ez dela beteko.

Baina ustekabean
hil eta hirugarrenean
Jesus da piztuko.

Denak haren argiz dira bete,
Espirituak egin ditu aske.
Gerotik, munduan ibiltari, doaz beti.
Pozik eta kantari.
Indar honez dana zen bete

eta egunsenti berri bat agertu.
Eliza sortu zuten,
denon kontsolagarri
salbamen iturri.

Etor zaitetz zu ere.
Haize berriak hartu!
Bihotza ireki!

Zu ere haren argiz baietz bete
eta Espirituak egin aske.
Horrela, munduan ibiltari,
joango zara pozik eta kantari.

ZUREKIN BAKARRIK

(Autore ezezaguna)

Nire pausoak gelditu nahi ditut
eta nire bizitzako
erritmo arina baretu,
lasaitasunez,
Zuk emandako guztia kontenplatzeko.

Une baten isilik egon nahi dut
eta nire ideien eta sentimenduen
harrabotsa isildu,
nire zentzumen guztiekin
zure aurrean adi-adi egoteko.

Nire ondoan eraikitzen diren
arresi guztiak apurtu nahi ditut,
edozein ordutan
askatasunez
nigan sartzen uzteko.

Nire etxea hustu nahi dut
eta aldean geratu zaidana erantzi,
duintasunez
Zuri tokia eskaintzeko.

Zurekin bakarrik egon nahi dut
eta zure Espirituaz
bete eta maitatu,
poztasunez
gauza guztien bila joateko.

Bakea, bizia eta zentzua
ematen didan
zure arnasa sentitu nahi dut,
baikortasunez
momentu hau zurekin bizitzeko.

Bai, nahi dut.

ZATOZ, ESPIRITU SANTUA

(Paulo VI.a)

Bizi-emailea zara,
Kontsolatzailea,
arimaren Sua,
bihotz-barneko Iturri bizia.
Maitasuna zara,
Jainkoaren araberako Maitasuna.

Zure erabateko beharra dugu.
Gure bizitzako Bidea zara,
sakramentuetan hainbat aldiz hartu zaituguna.

Jainkoaren Ukitua zara,
gure ariman kristau-izaera ezarri duzuna.
Gozoa zara eta, denbora berean,
Kemena, egiazko kristau-bizitzarako.
Arimako Arrotz gozoa zara.

ESPIRITU SANTUARI

(San Simeon, teologo berria izenekoa)

Nolatan zara zu su-gune eta iturri fresko?

Nolatan erredura eta gure zikina sendatzeko gozotasun?

Nolatan duzu bihurtzen gizakia jainko, eta gaua argi?

Nolatan duzu ateratzen bizi berria herio-leizetik?

Nolatan bihurtzen gaua egun? Nolatan garaitzen iluna?

Nolatan duzu sugarra bihotzera eramaten eta aldatzen
pertsonaren barrua?

Nolatan gaitzakezu egin Jainkoaren beraren seme-alaba, zu
zeu gutako bat izanik?

Nolatan gaituzu erretzen maitasunez eta zauritzen ezpatarik
gabe?

Nolatan jasaten ahal gaituzu, eta haserrerako nagi izaten?

Bestetik, ¿gai zara gure keinurik txikienak ikusteko?

Nolatan atzeman ditzake zure begiak gure egintzak, zu hain
goian eta hain urrun egonik?

Zure zerbitzari honek bakea du espero, adorea malko artean.

VENI SANCTE SPIRITUS

(Mendekosteko sekuentzia)

(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz, bai, Gogo Guren

eta bidal zerutik

zure argi izpia.

Zatoz, gaixoen Aita,

zatoz, dohain emaile,
zatoz, bihotzen argi.
Poz-emaile bikaina,
etxelagun atsegin,
sargorian haize fin.
Lan artean atsedean,
nekean aringarri,
malkoetan pozgarri.
Zure laguntza gabe
ez du pertsonak ezer,
ez du ezer on denik.
Garbi, zikin dagona,
busti, lehor dagona,
zauriak oro senda.
Zurrun dena bigundu,
makur dena zuzendu,
hotz dagona berotu.
Zugan usteon duten
zintzoei isuri
zazpi dohain zerutik.
Zintzo saria eman,
osasun hil artean,
poza betierean.
Amen.

VENI CREATOR SPIRITUS

ZATOZ ZINTZOEN BARNERA
(Orixe ukitu bakan batzuekin)
Zatoz zintzoen barnera,
Gogo Guren sortarazle;
bete graziz bihotz hauek,
zu baitzaituzte egile.

Poz-emaile deritzozu,
Goiko Jaunaren dohain,
ur bizi, su, maitasun,
eta gantzu zerukoia.
Zazpi dohainen isurle,
Aitaren eskuin hatza,
apostoluei hitzeman,
haien ahoetan hitza.
Argi zaiguzu zentzua,
suaz sutu bihotza,
indar horretaz sendatu
argal daukagun gorputza.
Haiza gugandik etsaia
eman berehala bakea,
zu aurretik zaitugula,
urrun zaiguzu kaltea.
Erakuts eiguzu Aita,
harekin Semea ere;
bien Arnasa duguna
sinets zagun beti ere.
Aitari, ta hilengandik
berpiztu zen Semeari
eta Gogo Gurenari
edertasun orain, beti. Amen

BIZIA ETA HERIOTZA

BIZIAK BIZI NAU

(Violeta Parra-ren *Gracias a la vida* Juan Garziak euskarara egokitua)

Biziak bizi nau, hari zordun nago
Artizar pare hau eman didalako

Garbi bereizteko beltz, zuri, gris, margo
Zeru goi ederra izarrez oparo
Jendetzan maitea, izar ederrago.

Biziak bizi nau, hari zordun nago
Soinu eta letra eman didalako
Hiztegi oso bat barru honen gako
Ama, lagun, laztan, argi biderako
Hel dadin maitea gogo-argiago.

Biziak bizi nau, hari zordun nago
Hark nau erabili oin astunoz txango
Hala ditut hiri, putzuak igaro
Hondartza, eremu, mendi, zelai, arlo
Maite, zure kale, etxe, zokoraino.

Biziak bizi nau, hari zordun nago
Zor diot bihotza, zirraron arrago
Garunaren fruituz neguan uztaro
Ongia gaizkitik geroz urrunago
Zure begi biok argizko abaro.

Biziak bizi nau, hari zordun nago
Zor dizkiot irri bezainbeste malko
Zorion-saminen isla direlako
Biak dira urrats bakar baten zango
Bideak kantu hau badigu emango
Zuek, ni, kantu hau bagara izango

MAITEAZ GALDEZKA

(Xabier Lete)

Egunsenti batetan maitea zen hila,

kalera irten nintzen Jainkoaren bila,
nerekin aurrez-aurre esplika zedila,
behingoz utzi zezala zeru-goi ixilla.

Zutaz, maite, egina dut galde.
Zutaz, maite, egina dut galde.

Bakardade haundi bat neukan bihotzean,
negar egiten nuen zutaz oroitzean,
galdera egin nion Jaunari hotzean:
gizonok nora goaz mundutik hiltzean.

Zutaz, maite, egina dut galde.
Zutaz, maite, egina dut galde.

Orduak pasa ziren, ezer ez nun entzun,
nik ez dakit, maitea, konprenditzen duzun,
arratsaren ilunak eguna bildu zun.

Jainkoak inundikan ez zidan erantzun.

Zutaz, maite, egina dut galde.

Zutaz, maite, egina dut galde.

Etixeruntz nindoala oihukatzen nuan:
Jainkoa ez da bizi gizonen onduan,
urrutik zegok hura han bere zeruan
gu bakarrik utzirik umezurtz munduan.

Zutaz, maite, egina dut galde.
Zutaz, maite, galdera egin dut
baina Jainkoak ez zidan erantzun.

NORK DAKI?

(Iratzeder 24-5-78)

(Armiama web orritik hartua)

Zeru zolan emeki emeki (zola=sabaia)

Zenbat hedoi ibilki ibilki...

Norat goazin nork daki, nork daki?

Zuk dakizu, Jainkoa,

Zuk nahian baitoa,

Norat doan geroa...

Zuk dakizu, Jainkoa.

Norat goazin nork daki, nork daki?

Zuk dakizu, Jainkoa,

Zutaraino baitoa,

Bakotxaren mintzoa...

Zuk dakizu, Jainkoa.

Norat goazin nork daki, nork daki?

Zuk dakizu, Jainkoa,

Zuk pizturik baitoa,

Gizaldeen gogoa...

Zuk dakizu, Jainkoa.

Zeru zolan emeki emeki

Zenbat hedoi ibilki ibilki...

EUKARISTIA

BEDEINKATUA JAINKOA

(Eukaristia adoratzean)

Bedeinkatua Jainkoa.

Bedeinkatua haren izen santua.

Bedeinkatua Jesu Kristo, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona.

Bedeinkatua Jesusen izena.

Bedeinkatua haren bihotz txit santua.

Bedeinkatua haren odol txit baliotsua.

Bedeinkatua Jesus aldareko sakramentu santuan.

Bedeinkatua Espiritu Santu kontsolatzailea.

Bedeinkatua Jainkoaren Ama, Maria txit santua.

Bedeinkatua haren sortze santu eta garbia.

Bedeinkatua haren zeruratze aintzatsua.

Bedeinkatua Maria birjina eta amaren izena.

Bedeinkatua San Jose, haren senar txit garbia.

Bedeinkatua Jainkoa bere aingeru eta santuengan.

Egin dezagun otoitz: Jesu Kristo gure Jauna,
sakramentu miresgarri honetan zeure nekaldiaren oroitzapena
utzi diguzu;

arren erregutzen dizugu: beneratu ditzagula zure gorputz-
odolen misterio santuak,
zure salbamenaren fruituak geuregan etengabe sentitzeko
moduan.

Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

KOMUNIO ESPIRITUALA

Sinesten dut, Jesus,

presente zaudela aldareko sakramentu santuan.

Maite zaitut gauza guztien gainetik,
eta neure bihotzean hartu nahi zaitut.
Baina, une honetan ezin dudalarik hori egin,
zatoz espirituz nire bihotzera.
Ez utzi niri, ene Jesus, zugandik sekula apartatzen.

GURUTZE BIDEA

HASIERA

V/.-Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/.-Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

V.-Egin dezagun otoitz: Jesu Kristo gure Jauna!

Gurutzea hartzera gonbidatu gaituzu,
eta gure aurretik zoaz etsenplu emanaz;
emazkiguzu zeure argia eta grazia:

Gurutze-bide honetan zure urratsak gogoan hausnartzean,
izan gaitzezela gai eta izan dezagula gogo bizia zuri jarraitzeko.

Nazareteko Andre Maria, Doloretako Ama izan zinen;
inspiratu guri,

Jainko den zeure Semeari bide honetan atsekabez jarraitzean
izan zenituen maitasun-sentimenduak.

R/.-Amen.

GELDIALDIAK

Lehen geldialdia: Jesus hiltzera kondenatua.
(geldialdi bakoitzaren ondoren
segidako hau errepikatzen da)

V/.-Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/.-Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

Bigarren geldialdia: Jesus gurutzera daramala.
Hirugarren geldialdia: Jesus erori lehen aldiz.
Laugarren geldialdia: Jesusek Amarekin topo.
Bosgarren geldialdia: Zirenearrak Jesusi lagundu.
Seigarren geldialdia: Veronikak Jesusi aurpegia xukatu.
Zazpigarren geldialdia: Jesus erori bigarren aldiz.
Zortzigarren geldialdia: Jesus eta Jerusalemgo emakumeak.
Bederatzigarren geldialdia: Jesus erori hirugarren aldiz.
Hamargarren geldialdia: Jesus erantzi eta biluztu.
Hamaikagarren geldialdia: Jesus gurutzean josi.
Hamabigarren geldialdia: Jesus gurutzean hil.
Hamahirugarren geldialdia: Jesus gurutzetik jaitsi.
Hamalauargarren geldialdia: Jesus hilobian.
Hamabosgarren geldialdia: Jesus berpiztu.

V/- Egin dezagun otoitz:

Begiratu, Aita, begi onez zeure seme-alaba hauei;

Jesu Kristo gure Jaunak ez zuen dudarik izan,
gu guztiongatik gurutzeko heriotzara joateko;

egizu:

haren nekaldiaz eta gurutzeaz gogoeta egin ondoren,
parte har dezagula harekin batean haren Piztueraren aintzan.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez eskatzen dizugu,

Errege bizi baita zurekin gizaldiz gizaldi.

R/-Amen.

ANDRE MARIARI

SALVEA

Agur, erregina, ama errukiorra,
gure bizi, gozo eta itxaropena, agur!

Zuri deiez gaude Evaren ume erbestetuok;
zuri aiezka, antsiatz eta negarrez
negar-herri honetan.

Ea, bada, itzul itzazu gugana
zeure begi errukitsu horiek,
eta erbeste honen ondoren
erakutsiezaguzu Jesus,
zure sabeleko Seme bedeinkatu hori.
O bihozbera! O errukiorra!
O Maria Birjina gozoa!

–Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santua.
–Jesu Kristo gure Jaunaren promesak iristeko gai izan gaitezen.

ZURE BABESERA GATOZ

(Sub tuum praesidium)

Zure babesera gatoz ihesi,
Jainkoaren Ama;
gure otoitzei ez eman esker txarrik
behar ordu estuan;
arrisku guztietatik
onez atera gaitzazu,
Birjina eder eta bedeinkatua.

ARROSARIO SANTUA

POZEZKO MISTERIOAK (astelehena eta larunbata)

- 1.-Jainkoaren Semea gizon egina.
- 2.-Andre Mariak bisita Elisabet lehengusinari.
- 3.-Jainkoaren Semea jai.

4.-Jesus Haurra Tenpluan aurkeztu.

5.-Jesus Haurra galdu eta Tenpluan aurkitu.

DOLORETAKO MISTERIOAK (asteartea eta ostirala)

1.-Jesusen otoitza Getsemaniko baratzean.

2.-Jesus zigortua.

3.-Jesusen arantzazko koroia.

4.-Jesus gurutzea lepoan duela.

5.-Jauna gurutzean hil.

AINTZAZKO MISTERIOAK (asteazkena eta igandea)

1.-Jesus Jauna piztu.

2.-Jesus Jauna zerura igo.

3.-Espiritu Santua jaitsi.

4.-Andre Maria zeruratu.

5.-Andre Maria koroatu.

MISTERIO ARGITSUAK (osteguna)

1.-Jesus bataiatua Jordan ibaian.

2.-Jesus agertu Kanako ezteietan.

3.-Erreinua hots egin, bihotz-berritzeko deia eginez.

4.-Jesus antzaldatu.

5.-Jesussek Eukaristia eratu.

OTOITZA MISTERIO BAKOITZAREN ONDOREN

Andre Maria, graziazko Ama, errukizko Ama onbera,
zaindu gu geure etsaietatik,
eta babestu orain eta geure heriotzako orduan. Amen.

ANDRE MARIAREN LETANIAK

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. Kristo, erruki.
Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.
Kristo, entzun guri. Kristo, entzun guri.
Kristo, aditu guri. Kristo, aditu guri.
Zeruko Aita Jainkoa. Erruki gutaz.
Jainko Semea, munduaren Salbatzailea. Erruki gutaz.
Jainko Espiritu Santua. Erruki gutaz.
Hirutasun Santua, Jainko bakarra. Erruki gutaz.
Andre Maria Santua. Otoitz gure alde.
Jainkoaren Ama Santua. Otoitz gure alde.
Kristoren Ama. Otoitz gure alde.
Elizaren Ama. Otoitz gure alde.
Ama txit garbia. Otoitz gure alde.
Salbatzailearen Ama. Otoitz gure alde.
Jainkoari eskaintzearen eredua. Otoitz gure alde.
Elkartasun Berriaren Kutxa. Otoitz gure alde.
Zerura jasotako erregina. Otoitz gure alde.
Arrosario Santuaren erregina. Otoitz gure alde.
Jesusen Lagundiaren erregina. Otoitz gure alde.
Maria, fededun handia. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren entzule fededuna. Otoitz gure alde.
Maria, Jaunaren Hitzaren gordetzailea. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren hausnartzaile handia. Otoitz gure alde.
Maria, Jesusen jarraitzaile leial eta iraunkorra. Otoitz gure alde.
Jesusen mezuarekin bat egin duzun Maria. Otoitz gure alde.
Maria, Jainkoaren herriko lagun alaia. Otoitz gure alde.
Maria, gizadi berriaren eredua. Otoitz gure alde.
Maria, ama doloretakoa. Otoitz gure alde.
Maria, esker onekoa. Otoitz gure alde.
Maria, bisitari fina. Otoitz gure alde.
Maria, eztei-lagun aztia. Otoitz gure alde.

JAINKOAREN BILDOTSA

- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
 - Barkatu, Jauna.
 - Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
 - Entzun, Jauna.
 - Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
 - Erruki, Jauna.
- Otoitz egizu gure alde Jainkoaren Ama santu horrek.
–Jesu Kristo gure Jaunaren promesak eskuratu ditzagun.

Egin dezagun otoitz.

Jainko Jauna, pozez bete zenuen mundua
Jesu Kristo zeure Seme eta gure Jauna piztean;
mesedez, haren eta gure Ama Maria Birjinaren otoitzari esker,
libra gaitzazu mundu honetako tristuratik
eta emaguzu zeruko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

KANTAK ETA GORAZARREAK

MAGNIFICAT

(Lukas 1,46-55)

Pozaren pozez daukat neure barruna,
Jainkoa baita nire salbamena.

Handiesten du nire arimak Jauna, *
pozaren pozez daukat nire barruna;
Jainkoa baita nire salbamena, *
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.

Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, *

handiak egin baitizkit Ahalguztidunak:
Santua da haren izena, *
eta haren errukia gizaldiz gizaldi, ^
beldur diotenengana.

Bere besoaren indarra erabili du, *
buru arroak suntsitu ditu;
bota ditu beren aulkitik handizkiak * ^
eta gora jaso ditu ezerezak;
ondasunez bete ditu gose zeudenak * ^
eta esku hutsik bidali asko zutenak.

Bere gain hartu du Israel, bere morroia, *
errukia gogora zaiola;
gure gurasoei hala zien hitzemaia, *
Abrahami eta ondorengoei betiko esana.

BENEDICTUS

(Lukas 1,68-79)

Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa,
agertu eta bere herria askatu duena!
Salbamen-indarra digu eman,
bere morroi Daviden ondorengoen artean.
Hala hitzemaia zuen antzinatik
bere profeta santuen ahoz:
salbatuko gintuela gure etsaien menpetik,
gorroto gaituzten guztien eskutik.
Horrela agertu du gure gurasoenganako errukia,
eta oroitu da bere itun santuaz,
gure guraso Abrahami egindako zin-hitzaz:
Berak emango zigula,

etsaien eskutik askaturik,
beldur gabe bera zerbitzatzea,
santu eta zuzen izanez haren aurrean,
geure bizitza guztian.
Zuri, berriz, haurtxo horri,
Goi-goikoaren profeta deituko dizute,
Jaunaren aurpegi aurretik joango baitzara
hari bidea prestatuz,
erakustearren haren herriari salbamena,
beren bekatuen barkamena.
Gure Jainkoaren errai errukitsuengatik,
agertuko zaigu goiz-argia zeru goitik,
ilunpean eta herio-itzalean daudenei argi egitera,
gure oinok bake-bidean zuzentzera».

NUNC DIMITTIS

(Lukas 2,29-32)

Orain utz dezakezu, Jauna,
zeure morroi hau bakean hiltzen,
zeuk hitzeman bezala.
Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena,
herri guztien aurrean zuk aurkeztua:
Nazioak argitzeko argia
eta zure herri Israelen ospea».

BEDEINKATUA JAINKO AITA

(2 Korintoarrei 1,3-4)

Bedeinkatua Jainkoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
Aita errukitsu

eta kontsolamendu ororen iturri den Jainkoa!
Berak ematen digu adore atsekabe guztietan,
guk ere besteak edozein atsekabetan
adoretu ahal ditzagun,
geuk Jainkoagandik hartzen dugun adoreaz.

BEDEINKATUA IZAN BEDI JAINKOA

(Efesoarrei 1,1-10)

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
Espirituaren era guztietako bedeinkapenez
zeruan Kristogan bedeinkatu gaituena.
Beragan aukeratu gintuen,
mundua sortu baino lehen,
haren aurrean, maitasunez,
santu eta errugabe izan gaitezen.
Aurrez aukeratu gintuen bere seme-alabaorde izateko,
Jesu Kristoren bidez,
bere nahiaren onberatasunez,
bere Seme maiteagan
hain ugari eman digun graziaren aintzak
bera gorespenez bete dezan.
Seme honengan, honen odolaz, dugu erospena,
eta bekatuen barkamena;
halakoa izan da haren grazi aberastasuna.
Oparo isuri baitigu bere grazia
ezaguera osoz eta jakinduriaz:
bere nahiaren misterioa ezagutarazi digu,
bere onginahiaz erabakita zuena,
garaia zetorkeenean beteko zuena:
Zeruko eta lurreko gauza guztiak

Kristogan bilduko dituela,
berau buru dela.

BELAUNIKO AITAREN AURREAN

(Efesoarrei 3,14-19)

Belauniko jartzen naiz Aitaren aurrean,
bai zeruan eta bai lurrian
familia ororen sorburu denaren aurrean,
eta hau eskatzen diot:
bere aintzaren aberastasunari dagokionez,
sendo zaitzatela bere Espirituaren indarrez,
barrutik bizi zaitezten;
bizi dadila Kristo zuen bihotzetan
sinesmenaren bidez
eta izan dadila maitasuna
zuen bizitzaren erro eta oinarri.
Horrela ulertu ahal izango duzue,
fededun guztiekin batera,
zein zabal eta luze, garai eta sakon den
Kristoren maitasuna;
ezagutuko duzue
jakintza ororen gainetik dagoen maitasun hori;
eta horrela,
Jainko izatearen betetasunaz beteko zarete.

JAINKOAREN IZAERA BEREKO IZANIK

(Filipoarrei 2,6-11)

Hark, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari;
bestela baizik, bere izaeraz hustu egin zen

morroi-izaera hartuz,
eta beste edozein bezala azalduz.
Eta, gizon bezala agerturik,
apaldu egin zuen bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik, Jainkoak goratu egin zuen
eta izen guztien gaineko izena eman zion,
Jesusen izenera,
guztien belaunak makur daitezen,
zeruan, lurrean eta lurpean,
eta mihi guztiek aitor dezaten:
Jesu Kristo, Jauna da,
Aita Jainkoaren aintzarako

POZEZ BETERIK ESKERRAK JAINKO AITARI

(Kolosarrei 1,12-20)

Pozez beterik, eskerrak Jainko Aitari,
bere herri santuarentzat prestaturik dituen ondasunetan,
argiaren erreinuan parte izateko
gai egin gaituenari.
Berak atera gaitu ilunaren menpetik
eta bere Seme maitearen erreinura aldatu;
honengan dugu askapena,
bekatuen barkamena.
Jainko ikusezinaren irudi da Jesu Kristo,
sorkari guztietan lehensemea.
Honen bidez baitira eginak gauza guztiak,
zeru-lurretakoak, ageri direnak eta ez direnak:
Aulki, Jaun, Nagusi eta Agintedunak;
gauza guztiak honen bidez
eta honentzat dira eginak.

Diren guztiak baino lehenago da hau,
eta guztiek honengan diraute.
Hau da gorputzaren buru ere,
Elizaren buru, alegia.
Hau da hasiera, hilen arteko lehensemea,
diren guztietan berau izan dadin lehenengoa.
Jainkoaren gogoko izan baita
betearen betea honengan egotea,
eta, honen bidez,
gauza guztiak berarekin adiskidetzeari;
honen gurutzeko odolaz bakeak eginik,
zeru-lurretan diren guztiakin.

BADUGU LAGUNTZAILEA AITAREN AURREAN

(1 Joan 1,8–2,2.6)

Bekaturik ez dugula esaten badugu,
geure burua engainatzen dugu,
eta egia ez dago gure baitan.
Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea,
leiala eta zuzena den Jainkoak
bekatuak barkatu
eta gaiztakeria orotatik garbituko gaitu.
Seme-alabok,
bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau.
Baina, norbaitek bekatu egiten badu,
badugu Laguntzailea Aitaren aurrean:
zuzena den Jesu Kristo.
Honek bere burua eskaini zuen gure bekatuak barkatzeko,
eta ez gureak bakarrik,
baita mundu osoarenak ere.
Jainkoarekin bat eginda dagoela dioenak
Jesusek jokatu zuen bezala jokatu behar du.

IGNAZIOTAR ESPIRITUALITATEA

BANDERA BIEN SOLASA

(Gogo Jardunak 147)

Eskatu nahi diot Andre Mariari
irits diezadala grazia bere Seme eta Jaunagandik
bere banderapean har nazan;
lehenik eta behin, pobretasun espiritual handienez
eta, jainkozko bere Maiestateari hala baderitzo
eta hautatu eta onartu nahi banau,
baita txikiagoa datekeen pobretasun errealean ere;
bigarren, laidoak eta irainak jasaten,
haietan bera gehiago imitatzeke,
baina jasan ahal ditzadala inoren bekaturik gabe
eta beraren jainkozko Maiestatea atsekabetu gabe;
eta, horrenbestez, Agur Maria bat.
Eskatu nahi diot beste horrenbeste Semeari,
irits diezadan Aitagandik;
eta, horrenbestez, Kristoren Arima.
Eskatu nahi diot beste horrenbeste Aitari,
berak eman diezadan;
eta errezatu Gure Aita.

GAUZA GUZTIEN BETIKO JAUNA

(Gogo Jardunak 98)

Gauza guztien betiko Jauna,
neure eskaintza noa egitera,
zure mesede eta laguntzarekin,
mugagabeko zure onberatasunaren
eta zeruko gorteko
santu guztien aurrean,

nahi dudala eta opa
eta nire erabaki deliberatua dela
–soilik izan dadila zure zerbitzu eta gorespenik handiena–
zu imitatzea, jasanez
bai irain eta laido oro,
bai pobretasun oro nola erreal ala espiritual.
Nahi izango ahal du zure Maiestate guztiz santuak
ni hautatzea eta onartzea
biziera eta izaera horretan.

BIGARREN ASTEKO ESKARIA

(Gogo Jardunak 104)

Eskatu dezadan Jauna barnez ezagutzea,
nigatik egin baita hura gizon,
estuago maita dezadan eta jarraitu.

ESKARIA ERREGE BETIKOARI

(Gogo Jardunak 91)

Jesus Jauna,
ez nadila sorgor izan zure deiari,
baizik adi eta arduratsu
zure nahia betetzeko.

EGUNEROKO AZTERKETA

(Gogo Jardunetan [43] inspiratua)

- 1.-Argia eskatu nahi diot Jaunari, bizi dudan eguneko gorabeherak ikusteko, haren begiez eta ez neureez.
- 2.-Eskerrak eman nahi dizkiot Jainkoari, gaur gertatu zaidan guztiagatik.
- 3.-Begiratu bat eman nahi diot bizi izan dudan egun honi; saiatu nahi dut ikusten nola egin zaidan Jainkoa presente eta nola erantzun diedan nik haren deiei.

4.-Barkazioa eskatu nahi diot Jaunari, eta damutzen naiz
halako maitasunari eman diodan erantzun eskasaz.

5.-Eskuzabalago izateko erabakia hartzen dut, hark eskatzen
didana emateko orduan.

PRESTATZEKO OTOITZA

(Gogo Jardunak 46)

Laguntza eskatu Jainko geure Jaunari,

nire asmo, egintza

eta eragiketa guztiak

garbi norabidetuak izan daitezen

jainkozko bere Maiestatearen

zerbitzu eta aintzara.

Emadazu, Jauna,

benetako askatasuna;

ez nazala aparta zugandik, ez ezerk, ez inork,

eta gauza orotan eta pertsona guztietan

maita eta zerbitza zaitzadala zu.

HARTU, JAUNA, ETA ONARTU

(Gogo Jardunak 234)

Hartu, Jauna, eta onartu

nire askatasun guztia, nire oroimena,

nire adimena eta nire gogo osoa,

dudan eta daukadan guztia.

Zeuk eman zenidan,

zeuri, Jauna, itzultzen dizut.

Zurea da dena.

Egin erabat nahi duzuna.

Emadazu zeure maitasuna eta onginahia,

aski dut hori.

ZER EGIN DUT KRISTOGATIK

(Gogo Jardunak 53)

Kristo gure Jauna

aurrean eta gurutzean josita iruditurik,

hizketatxo bat egin:

nola etorri den Egile izatetik gizon izatera,

eta betiko bizitzatik aldiko bizitzara,

eta horrela ene bekatuengatik hiltzera.

Beste horrenbeste neroni begira:

zer egin dudan Kristogatik,

zer egiten dudan Kristogatik,

zer egin behar dudan Kristogatik;

eta horrela, gurutzean esekita ikusiz,

pentzatu buruak ematen duen guztia.

HIRUGARREN ASTEKO ESKARIA

(Gogo Jardunak 203)

Nahi dudana eskatu, pasioko gauza bera:

oinazea Kristo oinazetuarekin,

hautsia Kristo hautsiarekin,

malkoak, barne pena

Kristok nigatik jasan zuen

hartarainoko penaz.

MAITASUNA LORTZEKO KONTENPLAZIOA

(Gogo Jardunak 233)

Eskatu barnez ezagutzea

hartu ditudan horrenbeste mesede;

nik, hori guztia oso-osorik aitorturik,

gauza guztietan maitatu eta zerbitzatu

ahal dezadan beraren jainkozko Maiestatea.

INAZIO

gure patroi handia, / Jesusen konpainia / fundatu
eta dezu armatu, / ez da ez etsairik / jarriko zaizunik
inolaz aurrean / gaurko egunean,
nahiz betor / Luzifer deabrua / utzirik infernua.
Zure soldaduak / dirade aingeruak,
zure gidaria / da Jesus handia.
Garaitu ditu / zure konpainiak / etsaiak.
Ez dauka fedeak, / ez kristau nireak,
ez dauka beldurrik / inongo aldetik.
Inazio hor dago, / beti ernai dago,
armetan jarria / dauka konpainia,
txispaz armaturik / bandera zabalik,
gau ta egun / guk guztiok / bakea dezagun,
beti gau eta egun.

LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

(uztailaren 31n sartua)

Loiolako semea gure zaindaria,
entzun, arren, gure eskaria.
Jainkoaren aurrean izan zaitez
gure lagun,
zerua irabazi dezagun.

1.-Iruñan zauriturik,
Loiolan santutu,
Andre Mariaren bitartez
zinen bihotz-berritu,
santu handia,
zerutik iguzu lagun,
gure bihotzak berri ditzagun.-R/.

2.-Zure gazte bizitza
bekataria zen,
ta gero santutasunaren
mendira igo zinen.
Gure bihotzak
zurekin jaso ditzagun,
Jaunaren aintza bila dezagun.-R/.

KRISTOREN ARIMA

(anonimoa, XVI. mendea)

Kristoren arima, santu egin nazazu.
Kristoren gorputza, senda nazazu.
Kristoren odola, birbiztu nazazu.
Kristoren saihetseko ura, garbi nazazu.
Kristoren nekaldia, indartu nazazu.
Oi Jesus ona, entzun nazazu.
Zeure zaurietan gorde nazazu.
Zugandik alde egiten ez utzi niri.
Infernuko etsaiengandik libra nazazu.
Heriotzako orduan deitu nazazu,
eta joanarazi nazazu zugana,
zure santuekin batean
mendez mende gorets zaitzadan. Amen.

JESUSEN LAGUNDIKO EGUTEGI BEREZIA

URTARRILA

3 JESUSEN IZEN GUZTIZ SANTUA, Jesusen Lagundiko Goiburua.

19 Joan Ogilvie, Esteban Pongrác, Meltxor Grodziecki apaizak, eta Markos Krizevci, Esztergom-eko kalonjea, santuak; Ignazio de Azevedo, apaiza eta lagunak, dohatsuak; Santiago Salès, apaiza eta Gilermo Saultemouche, erlijiosoa, martiriak.

OTSAILA

4 San Joan Brito, apaiza; Rodolfo Acquaviva, apaiza, eta lagunak, martiriak.

6 Paulo Miki, erlijiosoa, eta lagunak, santuak; dohatsuak: Karlos Spinola, Sebastian Kimura, apaizak, eta lagunak, martiriak.

15 San Klaudio de la Colombière, apaiza.

MARTXOA

19 SAN JOSE ANDRE MARIAREN SENARRA, Jesusen Lagundiko Zaindaria.

APIRILA

22 ANDRE MARIA SANTUA, Jesusen Lagundiaren ama.

27 San Pedro Kanisio, apaiza eta Eliz Irakaslea.

MAIATZA

4 San Jose Maria Rubio, apaiza.

16 San Andres Bobola, apaiza eta martiria.

24 Stradako Andre Maria (Madonna della Strada).

EKAINA

8 Santiago Berthieu santua, apaiza eta martiria.

9 San Jose Antxietakoa, apaiza.

21 San Luis Gonzaga, erlijiosoa.

UZTAILA

2 Bernardino Realino, Joan Frantzisko Régis eta Frantzisko de Geronimo, santuak; dohatsuak: Julian Maunoir eta Antonio Balducci, apaizak.

9 Leon Ignazio Mangin, apaiza, Maria Zhu Wu eta lagunak, santuak eta martiriak.

31 LOIOLAKO SAN IGNAZIOA, apaiza eta Jesusen Lagundiaren fundatzailea.

ABUZTUA

2 San Pedro Fabro, apaiza.

18 San Alberto Hurtado Cruchaga, apaiza.

IRAILA

2 Dohatsuak: Santiago Bonnaud, apaiza, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nikolas Cordier, apaizak; Tomas Sitjar, apaiza, eta lagunak, martiriak.

9 San Pedro Claver, apaiza.

10 Frantzisko Garate dohatsua, erlijiosoa.

17 San Roberto Belarmino, gotzaina eta eliz irakaslea.

URRIA

3 San Frantzisko Borjakoa, apaiza.

- 12 Joan Beyzym dohatsua, apaiza.
19 Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Jogues, apaizak, eta lagunak, martiriak.
21 Diego Luis de San Vitores dohatsua, apaiza, eta San Pedro Calungsod, martiriak.
30 Domingo Collins dohatsua, erlijiosoa.
31 San Alonso Rodriguez, erlijiosoa.

AZAROA

- 3 Ruperto Mayer dohatsua, apaiza.
5 JESUSEN LAGUNDIKO SANTU GUZTIAK.
6 (Oroitzapena) Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak.
13 San Estanislao Kostka, erlijiosoa.
14 San Jose Pignatelli, apaiza.
16 Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Joan del Castillo santuak, apaizak eta martiriak.
23 Migel Agustin Pro dohatsua, apaiza eta martiria.
26 San Joan Berchmans, erlijiosoa.
29 Bernardo Frantzisko de Hoyos, apaiza.

ABENDUA

- 1 Edmundo Campion, Roberto Soutwell, apaizak, eta lagunak, santuak eta martiriak.
3 SAN FRANTZISKO XABIERKOA, apaiza.

